



---

# DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL CURRICULUMA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENA  
(2006KO URTARRILA)





Argitaratzaileak: © Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz

Diseinu eta maketazioa: Roberto Gutierrez  
Itzulpenak: Imanol Haro, Enara Azkue; Koordinazioa: Joseba Ossa (BAKUN Itzulpen eta Argitalpen zerbitzuak S.L.)

Lege gordailua: xxxxx  
ISBN: 84-934173-5-1  
Inprimaketa: xxxxx

## DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO EUSKAL KURRÍCULUMA

EUSKAL KURRÍCULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENA

### PROIEKTUAREKIN BAT EGITEN DUTEN HEZKUNTZA ERAKUNDE ETA SEKTOREAK

AICE, Ikastetxeen Elkarte Independentea  
AIF, Arabako Ikastolen Federakundea  
BIDELAGUN, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeetako Gurasoen Federakuntza  
BIE, Bizkaiko Ikastolen Elkarte  
BIGA BAL, Ipar Euskal Herriko Eskola Publikoetako Gurasoen Federazioa  
CCDD, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeak  
EIB, Eusko Ikastolen Batza  
ESKOLA GIRISTINOAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoak  
EUSKAL HAZIAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoetako Guraso eta Irakasleen Elkarte  
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa  
FAPACNE, Estatukoak ez diren Ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkarte Arabako Federazioa  
FECAPP, Bizkaiko Guraso eta Ikasleen Federakunde Katolikoa  
FEGUIAPA, Gipuzkoako Ikasle-Gurasoen Elkarte Federakuntza Librea  
GIE, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte  
HUIS, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
IKASGE, EAEko Publikatutako Ikastoletako Gurasoen Federazioa  
KRISTAU ESKOLA, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioa  
NIE, Nafarroako Ikastolen Elkarte  
SEASKA, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa  
SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte  
SORTZEN GURASOAK, Sortzen Elkarteko Gurasoen Federazioa  
UFEPA, Euskadiko Eskola Katolikoetako Guraso Elkarte Federakuntzen Batasuna

#### ZUZENDARITZA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa  
KRISTAU ESKOLA, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioa  
SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte

#### FINANTZAKETA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### LANTALDEA

#### ZUZENDARITZA TEKNIKOAK:

Aitor BILBAO, Lore ERRIONDO, Xabier GARAGORRI,  
Pedro M. LEGARRETA

#### DISEINU TALDEA:

Xabier GARAGORRI, Jesús Mari GOÑI, Antoni ZABALA

#### HEZKUNTZA KOMPETENTZIA OROKORRAK:

- Ikasten eta pentsatzen ikasi:**  
M. Luisa SANZ DE ACEDO
- Komunikatzen ikasi:**  
Itziar ELORZA, Josune GEREKA, Iñaki ZUBIZARRETA
- Elkarrekin bizitzen ikasi:**  
M. Angeles DE LA CABA, Concepción MEDRANO
- Norbera izaten ikasi:**  
Itziar ELEXPURU, Ana MARTINEZ, Virginia TORRES,  
Lourdes VILLARDON, Concepción YANIZ
- Egiten eta ekiten ikasi:**  
Iratxe ATXA, Joseba SAGARNA, Juan Mari RUIZ DE EGINO

#### CURRÍCULUM ARLOAK:

- Hizkuntzak eta Literatura:**  
Itziar ELORZA, Mikele ALDASORO, Nerea GOIRI
- Matematika:**  
Santiago FERNANDEZ, Fernando FOUZ,  
Alberto BAGAZGOITIA
- Teknologia:**  
Alfonso TEJEDOR, Alberto ARRIAZU, José Luis ASIN
- Musika eta Dantza:**  
Maria Pilar OCHOA DE ERIBE, Oier ARAOLAZA
- Plastika eta Ikus Adierazpena:**  
Xabier EGAÑA
- Soin Hezkuntza:**  
Jean Mari ITURBIDE, Mikel EGIBAR
- Gizarte Zientziak:**  
Francisco GOMEZ, Jon Andoni ATUTXA
- Mundu ikuskerak eta Erljiioak:**  
Goyo PONCE DE LEON
- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak:**  
Agustín GIL, Elvira GONZALEZ, Iñaki MENTXAKA,  
M. Teresa SANTOS
- Tutoretza eta Orientazioa:**  
Justo BEREZIARTUA, Begoña BERROETA,  
Irene LOPEZ-GOÑI



# AURKIBIDEA

<b>I.- PLANTEAMENDU OROKORRA</b> .....	<b>7</b>
1.- Beharren azterketa .....	8
1.1.- Partikularretik unibertsalera	
1.2.- Unibertsaletik partikularrera	
2.- Esparru kontzeptuala .....	15
2.1.- Curriculuma, Euskal Curriculuma eta Euskal Curriculum Espezifikoa	
2.2.- Euskal Curriculum Oinarrizkoa eta Komuna	
3.- Curriculum diseinua .....	19
3.1.- Oinarriak eta ezaugarriak	
3.2.- Curriculum diseinuaren eskema	
4.- Hezkuntzaren xedeak .....	22
5.- Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak .....	29
5.1.- Funtsezko edo oinarrizko konpetentziak derrigorrezko eskolaldian Europako eremuan	
5.2.- Konpetentzia orokorrak Euskal Herriko eta Europako unibertsitateetan	
5.3.- Hezkuntza konpetentzia orokorrak Euskal Curriculumean	
6.- Diziplina arloak .....	37
6.1.- Curriculumaren antolaketa gure inguruko herrialdeetan	
6.2.- Diziplina arloen proposamena Euskal Curriculumean	
6.3.- Arlo diziplinarren egituraketa	
7.- Informazio eta balioespen prozedurak eta erabakiak hartzeko prozedurak ..	44
7.1.- 1. fasea: Euskal Curriculumaren balioespen orokorra eta Euskal Curriculuma hobetzeko proposamenak.	
7.1.1.- Balioesteko/hobetzeko inkestak eta inkestetan esku hartzen duten estamentuak	
7.1.2.- Galdetegi erantzuteko eta galdetegiak biltzeko prozedura	
7.2.- 2. fasea: Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari buruz erabakiak hartzea	
Ia ERANSKINA: PLANTEAMENDU OROKORRA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	48
<b>II.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORREN ETA EDUKI METADIZIPLINARREN PROPOSAMENA</b> .....	<b>53</b>
1.- Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak Euskal Curriculumean .....	54
1.1.- Ikasten eta pentsatzen ikasi	
1.2.- Komunikatzen ikasi	
1.3.- Elkarrekin bizitzen ikasi	
1.4.- Norbera izaten ikasi	
1.5.- Egiten eta ekiten ikasi	
2.- Eduki metadiziplinarrak .....	81
2.1.- Jarrera metadiziplinarrak	
2.2.- Prozedura metadiziplinarrak eta eduki metadiziplinarrak	
Ila ERANSKINA: HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	85



<b>III.- DIZIPLINA ARLOEN BIDEZKO KONPETENTZIEN PROPOSAMENA</b> .....	<b>95</b>
<b>1.- Hizkuntzak eta Literatura</b> .....	<b>96</b>
1.1.- Sarrera	
1.2.- Arloko konpetentzia orokorrak	
1.3.- Ikasteko edukiak	
1.3.1.- Euskara	
1.3.2.A.- Gaztelania (Hegoaldea)	
1.3.2.B.- Frantsesa (Iparraldea)	
1.3.3.- Ingelesa	
1.4.- Arloko konpetentzia espezifikoak	
1.4.1.- Euskara	
1.4.2.A.- Gaztelania (Hegoaldea)	
1.4.2.B.- Frantsesa (Iparraldea)	
1.4.3.- Ingelesa	
1.5.- Ebaluazio irizpideak	
1.5.1.- Euskara	
1.5.2.A.- Gaztelania (Hegoaldea)	
1.5.2.B.- Frantsesa (Iparraldea)	
1.5.3.- Ingelesa	
IIIa ERANSKINA: HIZKUNTZAK ETA LITERATURA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>160</b>
<b>2.- Matematika</b> .....	<b>173</b>
2.1.- Sarrera	
2.2.- Arloko konpetentzia orokorrak	
2.3.- Ikasteko edukiak	
2.4.- Arloko konpetentzia espezifikoak	
2.5.- Ebaluazio irizpideak	
IIIb ERANSKINA: MATEMATIKA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>188</b>
<b>3.- Teknologia</b> .....	<b>191</b>
3.1.- Sarrera	
3.2.- Arloko konpetentzia orokorrak	
3.3.- Ikasteko edukiak	
3.4.- Arloko konpetentzia espezifikoak	
3.5.- Ebaluazio irizpideak	
IIIc ERANSKINA: TEKNOLOGIA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>203</b>
<b>4.- Musika eta Dantza</b> .....	<b>206</b>
4.1.- Sarrera	
4.2.- Arloko konpetentzia orokorrak	
4.3.- Ikasteko edukiak	
4.4.- Arloko konpetentzia espezifikoak	
4.5.- Ebaluazio irizpideak	
III d ERANSKINA: MUSIKA ETA DANTZA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>225</b>
<b>5.- Plastika eta Ikus Adierazpena</b> .....	<b>229</b>
5.1.- Sarrera	
5.2.- Arloko konpetentzia orokorrak	
5.3.- Ikasteko edukiak	
5.4.- Arloko konpetentzia espezifikoak	
5.5.- Ebaluazio irizpideak	
III e ERANSKINA: PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPEN ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>240</b>



<b>6.- Soin Heziketa</b> .....	<b>243</b>
6.1.- Sarrera	
6.2.- Arloko kompetentzia orokorrak	
6.3.- Ikasteko edukiak	
6.4.- Arloko kompetentzia espezifikoak	
6.5.- Ebaluazio irizpideak	
III f ERANSKINA: SOIN HEZKUNTZA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>255</b>
<b>7.- Gizarte Zientziak</b> .....	<b>258</b>
7.1.- Sarrera	
7.2.- Arloko kompetentzia orokorrak	
7.3.- Ikasteko edukiak	
7.4.- Arloko kompetentzia espezifikoak	
7.5.- Ebaluazio irizpideak	
III g ERANSKINA: SOIN HEZKUNTZA ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>282</b>
<b>8.- Mundu ikuskerak eta Erijiioak</b> .....	<b>286</b>
8.1.- Sarrera	
8.2.- Arloko kompetentzia orokorrak	
8.3.- Ikasteko edukiak	
8.4.- Arloko kompetentzia espezifikoak	
8.5.- Ebaluazio irizpideak	
III h ERANSKINA: MUNDU IKUSKERAK ETA ERLIJIIOAK ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>303</b>
<b>9.- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak</b> .....	<b>306</b>
9.1.- Sarrera	
9.2.- Arloko kompetentzia orokorrak	
9.3.- Ikasteko edukiak	
9.4.- Arloko kompetentzia espezifikoak	
9.5.- Ebaluazio irizpideak	
III i ERANSKINA: NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>322</b>
<b>10.- Tutoretza eta Orientazioa</b> .....	<b>325</b>
10.1.- Sarrera	
10.2.- Arloko kompetentzia orokorrak	
10.3.- Ikasteko edukiak	
10.4.- Arloko kompetentzia espezifikoak	
10.5.- Ebaluazio irizpideak	
III j ERANSKINA: TUTORETZA ETA ORIENTAZIO ARLOA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGITEKO INKESTA .....	<b>337</b>

<b>IV ERANSKINA: HEZKUNTZA KOMPETENTZIA OROKORRAK (Testu osoa)</b> .....	<b>341</b>
Sarrera .....	<b>342</b>
1.- Ikasten eta pentsatzen ikasi .....	<b>350</b>
2.- Komunikatzen ikasi .....	<b>363</b>
3.- Elkarrekin bizitzen ikasi .....	<b>378</b>
4.- Norbera izaten ikasi .....	<b>388</b>
5.- Egiten eta ekiten ikasi .....	<b>400</b>



# ATARIKOA

“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortu da. Eragile horiek Euskal Herriko edo Euskararen Herriko lurraldeetako hezkuntzaren gehien-go zabala ordezkatzan dute, eta proposamen hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzartuta eta hark diruz lagunduta egin da.

Euskal Curriculumaren proposamenak elkarren osagarri diren bi helburu ditu. Batetik, proposamena izenpetzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartu behar dute Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari dagozkion edukiak beren hezkuntza proiektuetan sartzeko, bai eta derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan haiek ebaluatzeko ere. Beste alde batetik, hezkuntza proiektuaren planteamendua hobetzeko plataforma izan behar du, euskal gizartearen, gizarte europarraren eta gizarte unibertsalaren beharretara egokitzeko eta ikasleek emaitza onak lortzea sustatzeko.

Proposamena orientagarria da, eta Euskal Herriko gizarte erakundeen esku jarriko da, batez ere hezkuntza erakundeen esku, proposamena ezagutu, eztabaidatu eta balioesteko, bai eta hobetzeko proposamenak egiteko ere. Euskal Curriculum aplikatzea aukerakoa bada ere, Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari dagokion zatia onartzen duten erakundeek eta hezkuntza zentroek konpromisoa hartzen dute, hala nahi dutelako, curriculum aplikatzeko eta ebaluatzeko.

Euskal Curriculum balioesteko eta horri buruz erabakiak hartzeko prozesua bi fasetan egingo da:

## **1. fasea: Euskal Curriculumaren balioespen orokorra eta Euskal Curriculum hobetzeko proposamenak.**

Lehenengo fasean, kontsulta egingo da, eta helburua Euskal Curriculum osoari buruzko balioespenaz datu kontrastatuak edukitzea eta hobetze proposamenak jasotzea izango da.

## **2. fasea: Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari buruzko erabakiak hartzea.**

Bigarren fasean, erabakiak hartuko dira. 1. fasean jasotako datuak erreferentzia izango dira Euskal Curriculumaren proposamena hobetzeko, eta, egindako balioespenen arabera, Euskal Curriculum oinarrizko eta komuneko proposamena egiteko; gerora, hori oinarritzat hartuta, erabakiak hartzeko. Horrekin bat egiten duten ikastetxeek konpromisoa hartu beharko dute Euskal Curriculum oinarrizko eta komuna praktikan jartzeko eta ebaluatzeko.

Testu honen edukia 1. faseari dagokio.

1.go fasetik eratortzen den txosten hobetua, zein 2. fasetik ondorioztatzen den curriculum oinarrizkoa eta komuna, Euskal Herrian eragina duten Hezkuntza Administrazioen eskutian jarriko dira, beraien curriculum ofizialetan txerta ahal dezaten.







## I.- PLANTEAMENDU OROKORRA



## 1.- BEHARREN AZTERKETA

“Euskal Curriculumaren” proiektuak elkarren osagarri diren bi behar eta helburu nagusiri erantzuten die. Batetik, euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeko beharrari; Euskal Herrian eragina duten hainbat administrazioen curriculum ofizialetan, kasu batzuetan, euskal kultura ez delako transmititzen, eta, beste kasu batzuetan, transmisioa ez delako nahikoa. Beste alde batetik, Euskal Curriculumaren barnean, euskal kultura espezifikokoaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamenduaz gain, Europan integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreraginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak ere sartu behar dira. Edgar Morin-ek dioenez (2000: 57)<sup>1</sup>, partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna, kontzeptu bereiztezinak dira:

*Hezkuntzak kontu handia izan behar du giza espeziearen batasunaren ideiak giza aniztasunarena ez baztertzeko eta aniztasunaren ideiak ez dezan batasunarena baztertu (...) Kulturen arteko aniztasuna nabarmentzen dutenek giza batasuna gutxiesteko edo baztertzeko joera dute, eta giza batasuna nabarmentzen dutenek bigarren mailan jartzen dute kultur aniztasuna. Komenigarria litzateke aniztasuna ziurtatzen eta aniztasuna bultzatzen duen batasuna sortzea, hau da, aniztasuna batasunean sartzea. Aniztasunaren eta batasunaren fenomeno bikoitza oso garrantzitsua da. Kultura, giza nortasunaren euskarri da; kulturak, gizarte nortasunen euskarri (...). Horrenbestez, kultura beti egoten da kulturetan, **baina “kultura”z hitz egin dezakegu kulturen ekarpenei esker** (egileak azpimarratua).*



*Kiribil bikoitza; eboluzio-inboluzio, zabaltze-kontzentratze, kanporako-barrurako, partikularerako-unibertsalerako txandakako fase osagarrien erritmo kosmikoaren ikurra.*

<sup>1</sup> MORIN, E. (2000): *Les sept savoirs nécessaires à l'éducation du futur*. Seuil, Paris.



## 1.1.- PARTIKULARRETIK UNIBERTSALERA

Giza espeziearen ezaugarrietako bat da, beste animalia espezien aldean, norbera hazteko dugun gainerakoenganako mendetasun maila. Beste ezaugarri osagarrietako bat da sozializazio prozesuak gizakia gizartean integratzeko duen garrantzia. Gizarteratze prozesua bizikidetzarako oinarritzko baliabideak ikasiz egiten da: hizkuntza, ohiturak, sinesmenak... Haurra ez da isolatuta hazten, jaiotzen denetik kulturalki antolatutako testuinguru batean bizi baita. Gizarteratzea, komunitate baten kultura barneratzeko prozesua da, eta prozesu hori nortasun heldu aitortua lortzeko ezinbesteko baldintza da.

Hezkuntzaren funtzio hori gauzatzea hizkuntza eta kultura transmititzea da, eta hori oinarritzko giza eskubidea da, **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean** adierazten denez (1996ko ekaina):

**28. artikulua:** *Hizkuntz komunitate orok bere hezkuntza antolatzeko eskubidea du, komunitateko kideek beren kultur ondarea (historia eta geografia, literatura eta beste kultur adierazpen batzuk) eta nahi duen kulturaren adierazpenak ahalik eta sakonen ezagutzeko aukera izan dezaten.*

Beste alde batetik, curriculumaren barruan nork bere kultura sartzeko xedeak eta beharrak bat egiten dute UNESCOk 2001eko azaroaren 2an, Hitzaldi Nagusiaren 31. saioan, **Kultur Aniztasunari buruzko Deklarazio Unibertsalean** esandakoarekin:

**Jabetuta** *kultura hizpide nagusia dela identitateari, gizarte kohesioari eta ezagutzan oinarritutako ekonomiaren garapenari buruzko egungo eztabaidetan,*

**azpimarratuta** *elkarrenganako konfiantza eta elkar ulertze giro batean, kultur aniztasunarekiko, tolerantziarekiko, elkarrizketarekiko eta elkarlanarekiko errespetua nazioarteko bakerako eta segurtasunerako berme onenetakoak direla,*

**printzipio hauek aldarrikatu eta Deklarazio hau onartzen du:**

### **1. artikulua- Kultur aniztasuna, gizadiaren ondare komuna**

*(...) izaki bizidunentzat aniztasun biologikoa bezain beharrezkoa da giza espeziearentzat kultur aniztasuna. Alde horretatik, gizadiaren ondare komuna da, eta aintzat hartu eta sendotu egin behar da egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako.*

### **4. artikulua- Giza eskubideak, kultur aniztasunaren berme**

*(...) kultur aniztasuna defendatzea agindu etikoa da, eta gizakiaren duintasuna errespetatzearekin lotuta dago. Horrek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzeko konpromisoa dakar, batez ere, gutxiengoan dauden eta herri autoktonoetako kide diren pertsonenak.*

### **5. artikulua- Kultur eskubideak, kultur aniztasunerako testuinguru egokia**

*Kultur eskubideak giza eskubideen baitan daude, eta giza eskubideak unibertsalak eta banaezinak dira eta elkarri lotuta daude (...). Horrenbestez, gizaki orok nahi duen hizkuntzan, eta bereziki bere ama hizkuntzan, adierazteko, sortzeko eta lanak zabaltzeko eskubidea izan behar du; pertsona orok bere kultur identitatea guztiz errespetatzen duen kalitatezko hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea du (...).*



Hona hemen Jacques Delors-en zuzendaritzapean Nazioarteko Batzordeak UNESCOrentzat egindako Txostenean esaten dena (1996:55)<sup>2</sup>,

*“Mundu osoan, hezkuntzak, ezaugarriak ezaugarri, helburu bera du: gizabanakoen artean erreferentzia komunitatik eratorritako gizarte loturak eratzea. Hori lortzeko baliabideak desberdinak dira kultur eta testuinguru aniztasunaren arabera, baina kasu guztietan hezkuntzaren helburu nagusia da gizakiaren garapen sozial erabatekoa. Hezkuntza kulturen eta balioen eramailea da, gizarteratzailea, proiektu komun baten arragoa.”*

Txosten horren arabera, bizitza osoko hezkuntzaren lau oinarriak hauek dira: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea. Beraz, hezkuntzaren funtzioa ez da bakarrik hizkuntza eta kultura transmitituz gizarteratzea; horrez gain, beste funtzio batzuk ere baditu: bizitzako eremu guztietarako prestatzea (familia, gizartea, lana...), ikasten ikasteko kompetentzia garatzea, gure giza izaera zein den ulertzea, pentsamendu kritikoa bultzatzea, sormen gaitasunak garatzea, gure ekin-tzen erantzule izaten laguntzea... Hezkuntzaren funtzio horiek eta beste batzuk ezin dira bata bestearengandik bereiztuta ulertu, hezkuntza prozesuaren baitan baizik.

Belaunaldiz belaunaldi kultura eta hizkuntza transmitituz gizarteratzeko prozesu naturala eta unibertsala, euskarara eta euskal kultura espezifikoki dagokienez, batere mesedegarriak ez diren baldintzetan kokatu behar da gaur egun. Esate baterako, ez dago euskal herritar guztiok komunean ditugun auzi aurre-politikoaren gainean administrazioek aho batez eta elkarlanean egindako politikarik; euskara eta euskal kultura espezifikoa ahulak dira, hizkuntza eta kultura nagusien ezinbesteko lehian; euskal kultura espezifikoa ez du tokirik edo toki eskasa du curriculum ofizialetan eta ikasmaterialetan; etab. Horren guztiaren ondorioz, derrigorrezko hezkuntza bukatzen duen ikasleak ez du euskal kultura espezifikoki buruzko ezagutza nahikorik. Egia da azken urteotan egindako ahalegina (batez ere, azken 40 urteetan euskara, euskal kulturaren ezaugarriak garbiena, irakasteko egindakoa) handia izan dela, nahiz eta herrialdetik herrialdera aldeak egon. Dena dela, euskara biziberritzeko ahalegina handia izan arren, hizkuntzarekin lotuta dagoen kultura ikasteko prozesu banaezina, eskasa izan da. “Euskal Curriculumaren” proiektuak euskara eta euskal kultura espezifikoa indartzeko tresna izan nahi du, baina, betiere, planteamendu eleanitz eta kulturantz.

Bide horretan, oso lagungarria litzateke administrazioak elkarren artean koordinatzea eta hezkuntza gizarte eragileek euskal herritarrok ditugun elementu komunean laguntza ematea, **Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartan (1992-11-5)** adierazitakoaren ildotik:

**14. artikulua. Mugaz gairik harremanak.**

*Kartagileek honako konpromisoak hartu dituzte:*

*a) hizkuntza bera edo antzekoa erabiltzen duten eskualdeen gaineko estatuak dituzten bitariko edo askotariko*

<sup>2</sup> DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: altxor ezkutua*. XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Unesco Etxea - Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz (jatorrizkoa, 1996).



*akordioak betetzea edo amaieraraino eramaten saiatzea, estatu horietako hizkuntza beraren hiztunen arteko harremanak erraztu asmoz. Harreman horiek kultura, irakaskuntza, informazioa, lanbide-heziketa eta etengabe-ko prestakuntzaren arlokoak izango dira;*

*b) erregio edo gutxiengoaren hizkuntza modu berean edo antzekoan erabiltzen duten lurraldeetako elkarlana erraztea eta/edo sustatzea, batez ere eskualde edo toki mailako elkarteen artekoa, beti ere erregio edo gutxiengoaren hizkuntzen alde.*

Euskal kulturak bizirik iraun du mende askoan. Inguruko baldintzen arabera egokitzen eta berritzen jakin duelako gertatu da hori, zalantzarik gabe. Dena dela, egungo globalizazio prozesuak ez die mesederik egi-ten kultura gutxituei edo/eta gutxiengoaren kulturei; beraz, euskal kulturak denbora luzean iraun dezan nahi badugu, erronka honi aurre egin behar diogu: euskal kultura transmititzea, egokitzea eta biziberritzea bermatuko duten bitartekoak lortzeari. Errealitate eztabaidaekin hori kontuan hartuta, oraindik erantzunik gabe dugun galdera garrantzitsu bat sortzen zaigu: **euskal kulturari dagokionez, zer daukagu, eta, batez ere, zer eduki nahi dugu komunean Euskal Herrian bizi garenok?** Aniztasuna eta gizartearen erronka berrietara egokitzea beharrezkoak direla onartuta, muin partitu jakin baten inguruan antolatzea komeni zaigu galdera hauen balizko erantzuna, abiapuntu eta erreferentzia esparru bat izan ahal izateko.

Garrantzitsua da batasuna eta aniztasuna uztartzea. Bien arteko osagarritasuna beharrezkoa da euskal kulturaren planteamendu egokia egiteko. Hala ere, oraindik euskal kulturaren ezaugarri komunak zein diren edo zein izan daitezkeen jakiteko azterketa zorrotzik ez dugunez, partekatu nahi ditugun eta partekatzen ditugun elementu komunak aukeratzeari eta definitzeari eman behar diogu lehentasuna. Bestela, ekonomiaren globalizazioak, nazioz gaindiko kultur industriak eta egituraketa geopolitikoaren joerak erabat bereganatu eta kultur eredu bakar eta uniformizatzaile baten menpe jarriko gaitu.

## 1.2.- UNIBERTSALETIK PARTIKULARRERA

Euskal gizartea sareen bidez antolatuta eta etengabe bilakatuz doan mundu gero eta globalizatuago baten baitan bizi da. XXI. menderako hezkuntzari buruz, Jacques Delorsen zuzendaritzapean, Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena (1996) eta Europar Batzordeak Hezkuntzari eta Prestakuntzari buruz egindako Liburu Zuria (1995) kontuan hartzeko bi erreferentzia iruditzen zaizkigu, horietan oinarrituta, etorkizunean hezkuntzaren behar orokorren eta hezkuntzak gainditi beharreko erronken diagnostikoa egiteko aukera ematen baitigu. Bi txosten horietan oinarrituta<sup>3</sup>, Euskal Curriculumaren erreferentzia eremu izateko honako elementu hauek nabarmentzen ditugu:

<sup>3</sup> UNESCOri egindako txostenaren (1996) eta Europako Batzordearen txostenaren (1995) egokitzapena.



### - **Ekonomia hazkunderik giza garapenera:**

Lehen mundua izenekoak, zientziaren, teknologiaren eta hezkuntzaren bultzadaren ondorioz, inoiz ezagutu duen hazkunde ekonomikorik handiena du gaur egun. Hala ere, egungo hazkunde ereduaren ondorioz, iparraren eta hegoaren arteko desberdintasunak areagotzen ari dira, langabezia handitzen ari da, eta, gizarte desberdintasunak handitzeaz gain, gizarte eta kultur bazterketak eragindako arriskuak handitzen ari dira. Bestalde, egungo ekoizpen erritmoaren ondorioz, baliabide ezberriak urritzen ari dira, eta, kutsaduraren bidez, natura hondatzen ari da. Ekoizpena besterik nahi ez duten ereduak irteerarik gabeko kaleetara garamatzate; hortaz, ezinbestekoa da alderdi etikoak, kulturalak eta ekologikoak kontuan hartuko dituen eredu humanistagoa eta luzarora garapena bideragarria izango dela ziurtatuko duen garapen jasangarriaren eredu bultzatzea. Ikuspegi horretatik, hezkuntzak ekonomiari nahiz lan arloari lotutako helburuak ere badituela baztertu gabe, funtsezkoa da giza garapenerako hezkuntza sustatzea. Hona hemen hezkuntza horren ezaugarriak:

**A** Oinarrizko hezkuntza orokorra guztientzat ziurtatzea, denek "bizitzarako pasaporte" izan dezaten. Hona hemen oinarrizko hezkuntza garatzeko kontuan hartu beharreko orientabideak:

- Helburua gizakiaren garapen osoa lortzea da; betiere, gizakia gizaki dela onartuta, ez ekoizteko tresna edo baliabidea.
- Beste prestakuntza maila batzuetara iristeko behar dituen ezagutzaren elementu guztiak bermatu behar ditu.
- Pertsona bakoitzari bere bizitza eta kultur aukeraketa askatasun osoz eratzeko baliabideak eman behar dizkio, gizartearen eboluzioan parte hartuz.
- Gainera, teknologia berriak erabiltzeko gai diren ekonomia eragileak trebatu behar ditu eta ingurumenarekin jokabide berritzailea eta begirunezkoa izan behar du.

**B** Etengabeko hezkuntza bultzatzea, etengabe aldatzen ari den mundu honetan, garatzeko nahiz aldaketara egokitze gai diren pertsonak behar baitira. Horrenbestez, etengabeko hezkuntza ez da izango enplegurako egokitze hutsa, baizik eta bizitza osoko hezkuntza, pertsonaren garapen harmoniatu eta iraunkorra bideratuko duena.

**C** Enplegurako eta jarduerarako kompetentzia garatzea. Horretarako, lehen aipatutako oinarrizko ezagutzeaz gain, ezagutza teknikoak (Informazio Teknologien sarrera orokorra) eta harremanetarako kompetentziekin lotutako gizarte jarreraren hezkuntza (elkarlana, talde lana) izan behar ditu.

### - **Gizarte lotura gabeziatik, desberdintasunetatik, bazterketatik eta indarkeriatik gizarte kohe-siora eta parte hartze demokratikora:**

Hezkuntzaren helburua gizabanakoen arteko gizarte loturak finkatzea izan da, da eta izan beharko du aurrerantzean ere, kultura eta balioak transmitituz sozializaziorako eremu bat eta bizikidetzarako proiektu komun bat ziurtatzeko. Hezkuntzari atxikitzen zaion gizarteratze eta bizikidetzaren funtzioa betetzea gero eta



zailagoa da; izan ere, gizartean gero eta handiagoak dira gizarte desberdintasunak, pobrezia eta bazterketa (ekonomia eta gizarte krisia); indarkeria eta delinkuentzia gehiago dago (balio etikoen krisia); zibilizazioen eta etnien arteko liskar gehiago daude (kultur krisia). Hezkuntzak ezin ditu bere kabuz gizarte loturen hausturak sortutako arazoak konpondu, baina elkarrekin bizitzeko nahia indartzen lagun dezake, eta hori gizartearen kohesioaren eta nortasun soziopolitikoaren aldeko oinarrizko faktorea da. Hezkuntzak kohesioaren aldeko faktore izaten jarrai dezan, lan ildo hauei heldu behar die:

- Ⓓ Gizabanakoen aniztasuna eta espezifikotasuna aitortzea eta onartzea: irakaskuntza pertsonalizatzea.
- Ⓔ Gizarte bateko talde bakoitzaren kultur adierazpenen aberastasuna aintzat hartzea eta horiek estimatzen irakastea.
- Ⓕ Gizabanako bakoitzari, batetik, bere komunitatearen barruan kokatzen laguntzea, eta, bestetik, aldi berean beste komunitate batzuetara irekita egoteko baliabideak ematea.
- Ⓖ Elkarrekiko tolerantzia eta errespetua bultzatzea.
- Ⓗ Euskara ardatza duen hezkuntza eleanizduna bultzatzea, eta ama hizkuntza errespetatzea.
- Ⓘ Bazterketa sortzen duen eskola porrotaren aurka jardutea.
- ⓵ Pertsonak prestatzea, eguneroko bizitzan beren erantzukizunak betetzeko ahalmena izan dezaten.
- Ⓚ Demokrazia praktikatzea, hau da, hezkuntza erakundearen parte hartzea eta ardurak banatzea.
- Ⓛ Pentsaera librea eta ekintza autonomoak ahalbidetzen dituen konpetentzia kritikoa lantzea.
- Ⓜ Gizabanakoaren askatasun eta erantzukizun printzipioak uztartzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.

### - Zientzia eta teknologia:

Ezagutza zientifikoaren garapenak eta objektu teknikoaren ekoizpenak –bai eta horien hedapenak ere– aurrerapenaren alde egiteko ahalmen handia duen gizarte batean, hezkuntzak hau lortu behar du:

- Ⓝ Kulturaren dimentsio zientifikoa eta teknikoa bultzatzea.
- Ⓒ Erantzukizuna garatzea, hori baita berme bakarra zientzia eta teknologia oker erabiltzeak eragin ditzakeen efektu gaiztoak gainditzeko (gizateriaren eta naturaren suntsipena), bai eta informazio gizartearen erabilera okerrak eragindako ondorioak gainditzeko ere (giza duintasunaren aurka egitea).

### - Globalizazioa-mundializazioa:

Munduan dagoen elkarmenpeketasuna eta mundializazioa nagusitu zaizkigun errealitateak dira dagoeneko. Horren oinarrian, giza hazkunde demografikoa dago, eta ekonomian, teknologian, komunikazioan eta nazioarteko migrazioetan islatzen da. XXI. mendean areagotu egingo da joera hori. Egoera horretan, eskolak hau lortu beharko luke:



- P** Izatezko elkarmenpekotasunetik desio dugun elkartasunerako jauzia ematen laguntzea.
- Q** Espiritu kritikoz ezagutza multzo bat eskuratzea eta gertaerak erlatibizatzen ikastea (iritzia eratzea).
- R** Gizakia eta ingurumena lotzen dituen harremanak ulertzea.
- S** Nor bere identitatearen barruan ixteko joera gainditzea, aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta, besteak onartzeko eta ulertzeko.
- T** Gizabanakoa bere sustraiez jabetzea, bere burua munduan kokatzeko erreferentzia puntuak izan ditzan.

### - Informazioaren eta ezagutzaren gizartea

Bultzada hori bi aldaketa handi eragiten ari da gaur egun: industri iraultza berri bat sustatzen ari da, eta ohiko informazio iturri eta moduak ordezkatzeko ari da. Bigarren aldaketari dagokionez, bide telematikoak ohiko informazio iturriak eta moduak (dokumentu idatziak, eskola...) ordezkatzeko ari dira, informazioaren autopistaren abantailak eskaintzen baitituzte (Internet...). Egoera horretan, eskolak ahalegin guztiak egin behar ditu ikasleek informazioaren gizartetik ezagutzaren gizartera igaro ahal izateko:

- U** Ikasleak hizkuntzari dagozkion oinarrizko konpetentziak barneratzen dituela ziurtatzea.
- V** Informazioa modu kritikoan eta arrazionalen interpretatzeko konpetentzia eta ohitura bultzatzea.
- W** Informazio telematikoaren gizartean pertsona guztiak erabiltzaile izateko eta, behar izanez gero, ekoizle izateko konpetentzia izatea.
- X** Multimediako produktuen kalitatea bermatzea –batez ere, edukiena–, historiako, geografiako eta kulturako erreferentziak gal ez daitezen.

### - Gizarte segurutik gizarte anitz eta gogoetatsura

Etengabe berriz pentsatua den gizarte batean bizi gara; ez dago bizitzeko eta pentsatzeko modu bakarra, aukera ugari baizik. Aldaketa ekonomikoen gain, gizarte aldaketak daude (esate baterako, krisi eta ezinegon egoerak), eta aldaketa horiek familia nuklear patriarkala erdigune zuen bizimoduetara eta gizarte antolaketetara hedatu dira; aurreko eredu horren ordeztu, berdintasunean oinarritutako beste harreman mota batzuk nagusitu dira, eta elkarrekin bizitzeko aukera ugari sortu dituzte. Horrez gain, balio tradizionalak erlatibizatu egin dira; zalantzan jartzen dira beraz, ordezkari bidezko sistema demokratikoa eta estatu-nazio kontzeptua, eta deslegitimatze prozesuan sartzen dira. Egoera horren aurrean, eskolak hau lortu beharko luke:

- Y** Bizitza osoan zehar autonomoki ikasten lagunduko duten eduki kulturalak transmititu eta hezkuntza konpetentzia orokorren irakaskuntza uztartuko dituen hezkuntza eredu bultzatzea.
- Z** Irakaskuntza eredu gogoetatsua eta kritikoa bultzatzea, manipulazioari eta konformismoari eraginkortasunez aurre egiteko.





## 2.- ESPARRU KONTZEPTUALA

“Curriculum” eta “euskal” kontzeptuek esanahi ugari dituzte. Curriculumua ulertzeko modua faktore askoren arabera aldatzen da: curriculumaren objektu materiala ulertzeko moduaren arabera (espe-rientziak, planifikazioa, ezagutza, emaitzak, orientabideak...), irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren denboran aplikatzean hartzen duen tokiaren arabera (proaktiboa, aktiboa, post-aktiboa) eta onartuta-ko ikuspuntu teorikoen arabera (positibista, interpretatiboa, soziokritikoa). “Euskal” hitzak ere esanahi ugari ditu. Batetik, “euskal” hitzak Euskal Herrikoa dena, Euskal Herrian bizi dena edo euskaldun sen-titzen dena esan nahi du, baina “euskaldun” hitzak euskaraz, euskalduna ere esan nahi du, hau da, euskaraz mintzatzen dena. Bi kontzeptu horiek batzeak –“curriculum” eta “euskal”– ez dakar uniboko-tasunik. Horregatik, atal honetan hitz hauek definituko ditugu: “Curriculumua”, “Euskal Curriculumua” eta “Euskal Curriculum espezifikoa”. Bide batez, “Euskal Curriculum oinarritzkoa eta komuna” nola ulertzen dugun ere azalduko dugu.

### 2.1.- CURRICULUMA, EUSKAL CURRICULUMA ETA EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

Hezkuntzaren eremuan, nahiz eta esanahi ugari izan, «curriculumua» edukien programa bat da; hain zuzen ere, eduki horiek zehazten dute ikasleek mailak eta ikasketa gainditzeko eta behar den titulua eskuratzeko jarraitu beharreko *ibilbidea* edo *karrera*. Lan honetan, **curriculum** hitza honela definituko genuke: ibilbidearen amaieran eskuratu beharreko kultur ibilbidearen eta kompetentzien proposamena da, eta bi helburu ditu: batetik, pertsonak gizabanako, gizartekide eta izadikide gisara erabateko garapena lortzea; eta, bestetik, belaunaldi gazteak gizartean integratzea eta etengabeen berri eta eguneratutako proiektu komuna eraikitzea.

Gure ustez, “Euskal Curriculumua” zera da: *munduaren ikuspegi jakin batetik egindako kultur prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, euskaldunontzat berezkoak direnak eta unibertsalak sartzen dira*. Horrenbestez, Euskal curriculumaren helburua ez da soilik euskal-dunon berezko kultur prozesu eta ekoizpenak bakarrik aukeratzea, gizateria osoarenak ere hartzen baititu bere baitan, betiere, gure testuinguru jakina oinarritzat hartuta.

Euskal curriculumaren proposamenak bi asmo ditu. Euskal Herriaren eta munduaren kultur onda-rearen oinarritzko adierazpenak hautatzerakoan, bizikidetzazko errazteko erreferentzia eremu komun bat eratzen dugu. Erreferentzia komunak partekatzeak, “gutasuna” garatzen laguntzen du, eta, horrenbestez, elkarrekin bizitzeko gogoia ere bai. Baina, erreferentzia komunen beharraz gain, garrantzi handia du euskal curriculumean, eleaniztasun eta kulturartekotasun planteamenduak sartzea, are gehiago euskal gizartea eleanitza eta kulturantitza izanik. Bi helburu horiek, batasuna eta aniztasuna, elkarren osagarri dira.



“Curriculum” eta “kultur ibilbide” kontzeptuak baliokide hartu ditugu. Horren ondorioz, “**kultura**” eta “**euskal kultura**” kontzeptuak azaldu beharrean gaude, ezaugarri nagusiak aipatuz bada ere. Kulturaz ari garenean ezaugarri hauek hartzen ditugu kontuan:

- Barneratutako jokabideak eta balioak, nahiz eta zenbait kasutan berezkoaren eta kanpotik bereganatutakoaren arteko mugak ez dauden argi.
- Eguneroko bizitzak sortutako oinarrizko beharrei erantzuteko giza talde batek urratzen dituen bideak, bizitzeko moduak eta arauak (kultur materiala).
- Gizabanakoa talde bateko kide izateko (hau da, taldera egokitzeko) taldearengandik jasotzen dituen bizimodu eta arauak (gizarte kultura).
- Bizitzeko adierazpen eta arau horiek gizabanakoarentzat eta taldearentzat duten esanahia; hau da, herri edo gizarte jakin batek gizakiaz, gizarteaz eta naturaz dituen ideia, balio eta arau adierazgarrien sistema (kultura sinbolikoa).

Barandiaranek (1985)<sup>4</sup>, gizabanakoek eta giza taldeek bizitzeko dituzten oinarrizko premiak kategoriaka sailkatzeko asmoz, zazpi ardatz definitu zituen:


- *Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?* Galdera horren erantzuna inguruneak eskaintzen dituen aukerei lotuta dago batetik, eta ingurunearen eta gizakiaren elkarreaginari, bestetik; gizakiak, ekoizpen ekonomikoaren, merkaturatzearen, teknologiaren eta abarren bidez, oinarrizko behar horientzako kultur irtenbide espezifikoak aurkitzen ditu.
- *Nola babestuko naiz?* Giza taldeek bizitza, janzkera... moduen bidez erantzuten diete behar horiei, baita defentsa moduen bidez ere.
- *Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta behar ditudan materialak eta indarrak nire esku jaretzea?* Galdera horren erantzuna giza taldeen eta gizateriaren zientzia eta teknologia garapenaren historian daude.
- *Nola lortuko dut nire parekoen laguntza eta nola antolatuko dut gizarte bizitza?* Behar horren irtenbideak sortu ditugun gizarte antolaketak dira: familia, auzoa, herria, herrialdea, estatua, nazio komunitateak, eskolak, sindikatuak, elkarteak, etab.
- *Nola komunikatuko naiz nire kideekin?* Behar hori hizkuntzen eta komunikatzeko bitartekoen bidez betetzen da, eta hizkuntza idatzia eta ahozkoa dira komunikazio modurik garrantzitsuenak.
- *Nola egingo ditut atsegina eta gustuko ditudan gauzak?* Behar hori plastikaren, musikaren, dantzaren, joku/jolas eta abarren bidez gauzatzen da.

<sup>4</sup> BARANDIARAN, J.M. (1985); “Euskal Herria. Diapositiba bilduma”. SEIE-GIE, Donostia.



- *Nor naiz ni, zer da gizakia, zein bere xedea?* Galdera horren erantzuna dira sinismenak, sinbo-  
loak, mitoak, etab., patua azaltzen, esanahia ematen eta gizakia zergatik eta zertarako galde-  
rei erantzuten saiatzen direnak.

Premia horiek ez dira hartu behar beren baitan itxita dauden esparru isolatutzat, elkarreaginean  
dauden eta bata bestea baldintzatzen duten premiatzat baizik.



Behar horien erantzunak (bizimoduak, arauak eta balioak) historikoak dira, eta, beraz, aldakorak. Kulturaren Euskal Plana (2004:17)<sup>5</sup> proposamenaren ildotik, **euskal kultura** honela ulertzen da: “jasotako funtsezko kulturaren, norberaganatutako kulturaren eta egungo euskal herritarren kulturaren eta osotasunaren emaitza”. Euskal kultura modu horretan ulertuta, Euskal Curriculumean jasotako funtsezko kultura, norberaganatutakoa eta egungo euskal herritarrena uztartu egin behar direla ondorioztatzen da.

Euskal Herrian, kultur adierazpen propioak eta jasotakoak daude, eta lehenago adierazitako beharrei erantzuten diete. Erantzun historiko horien edo/eta egungo erantzunen ezaugarri adierazleak dira elikadura, gastronomia, janzkera, lekutzeko moduak, gizarte eta politika antolaketa, elkarbizitza, zuzenbidea, hizkuntza, ahozko eta idatzizko literatura, joku/jolas eta kirolak, jaiak, musika eta dantza, mitoak, sinbo-  
loak... ezaugarriak. Beraz, ezin da ukatu berezko kultur adierazpenak daudela; eta berezko kultur adierazpen horien artean, euskara da guztietan garrantzitsuena. “**Euskal Curriculum espezifiko**” deitzen diegu kultur adierazpen propioei edo geureganatuei, Euskal Herrian sortu edo sustraitu direnei.

<sup>5</sup> EUSKO JAURLARITZA (2004): *Kulturaren Euskal Plana*. Kultura Saila, Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.



## 2.2.- EUSKAL CURRICULUM OINARRIZKOA ETA KOMUNA


“Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna” derrigorrezko eskolaldia bukatutakoan ikasle guztiek (curriculum komuna) garatu eta erakutsi behar duten kompetentzia multzoa da (ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak). Kompetentzia horiek ez dira eskolan irakatsitako eta ikasitako guztiak, baizik eta oinarrizkotzat hartzen direnak (oinarrizko curriculum).

“Curriculum komunaz” ari garenean, hezkuntzaren eta eskolaldiaren oinarrizko helburuetako bat dugu buruan, J. Delorsen zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean adierazten denez (1996:55)<sup>6</sup>: *“Hezkuntzaren xede nagusia gizakia gizartean erabat garatzea da. Hezkuntza, kulturen eta balioen eramailea da, gizarteratzegilea, proiektu komun baten arragoa”*.

Euskal Curriculumaren proposamenaren helburua, batetik, XXI. mendean euskal herritar unibertsal gisara bizi ahal izateko ezinbesteko eta oinarrizko kompetentzia komunak bermatzea da. Ikuspegi horretatik, proposamenak irekia izan behar du, curriculum dibertsifikazioak tokia izan dezan eta gizabanakoaren desberdintasunak eta inguru bakoitzaren kultur elementuak kontuan hartzeko.

Euskal Curriculum egiteko, elkar ukitzen duten eta osmosian dauden elementu edo unibertso hauek integratzea proposatzen dugu: euskara eta euskal kultur espezifikoak (euskal curriculum espezifikoak), gainerakoen ardatzak; Euskal Herrian ukipenean ditugun hizkuntzak eta kulturak; curriculum ofizialetako derrigorrezkoak; Europakoak; eta unibertsalak. Beraz, elementu horiek ez dira inola ere isolatuak, elkarreraginean baitaude.

EUSKAL CURRICULUMA



Proposatzen dugun Curriculum oinarrizkoa eta komunaren ezaugarria beraz, irekitasuna da, eta ez uniformizaioa.

<sup>6</sup> DELORS, J. (1999): Ibidem.



## 3.- CURRICULUM DISEINUA

Curriculum diseinutzat hartzen dira bai curriculum proposamena egiteko gida moduan erabiltzen den eskema, bai azken produktua edo dokumentua, curriculum garatzeko edo aurrera eramateko fasearen aurrerapena. Curriculum diseinua curriculum proposamena gauzatzeko egitura eta gida edo eredu moduan erabiltzen den eskema da, baita curriculum proposamen hori egiteko erabiltzen diren oinarriak eta ezaugarriak ere.

### 3.1.- OINARRIAK ETA EZAUGARRIAK

Curriculum teoriaren konplexutasuna kontuan izanik, Euskal Curriculumaren printzipio eta ezaugarri batzuk aipatuko ditugu, curriculum diseinua zehazteko egoki iruditzen zaizkigunak. Oinarri eta ezaugarri horiek curriculumaren proposamena prestatzeko eta ebaluatzeko ere baliagarriak dira.

#### Izaera hezitzailea:

Curriculum diseinuaren ezaugarriak zehazteko, beharrezkoa da ongi bereiztea *derrigorrezko hezkuntzarako curriculum* eta *derrigorrezkoaren aurreko eta ondoko hezkuntzarako curriculum*. Derrigorrezko hezkuntzaren kasuan (hori landuko dugu dokumentu honetan), guztiei eskaintzen zaienez, izaera hezitzailea izan eta azpimarratu behar du; gauzak horrela, ez du gailendu behar, funtsezkoa bada ere, alderdi profesionalak. Derrigorrezkoaren ondokoak ordea, oinarri hezitzailea badu ere, unibertsitateko ikasketara edo lanbide ikasketara bideratutako helburuak ditu.

Gizarte demokratiko batean, hezkuntza sistema hiritar guztiei heldu behar zaie; helburua, beraz, ez da soilik eremu akademikoko eta profesionalerako konpetentzietan hezteak, gizarte batean bizitzeko eragingo dizkion arazoei eta gaiei erantzuten jakingo duen hiritar gisa aritzeko konpetentzia horiek guztiak landuko dituen heziketa ematea baizik.

Euskal curriculumaren diseinuak beraz, curriculum *hezitzailearen* alde egiten du, heziketa instantzien eta nazioarteko erakundeen deklarazioekin eta adierazpenekin bat etorriz; hori dela eta, helburuak gizakiaren gaitasun eta eskumen guztiak garatzera bideratzen dira, eta baita, logikoki, unibertsitaterako eta lanerako beharrezko konpetentziak garatzea ere.

#### Desberdintasunak bildu eta bideratzen dituen heziketa:

Derrigorrezko hezkuntza sistema guztiei zuzenduta dagoenez, eta gizakiaren gaitasun guztiak garatu behar dituen erabateko aldaketa dakar aurreko hezkuntza sistemek ikasleen hautaketara-



ko zuten ikuskera tradizionalan. Derrigorrezko hezkuntzaren helburua pertsonaren osoko prestakuntza denez, ikasleen ikaskuntza prozesuak gainbegiratzeko eta baloratzeko irizpideek *orientatzaileak* izan behar dute, bai garapen afektiboari eta pertsonen arteko garapenari lotutako arloetan, bai arlo profesionalan eta akademikoan. Azken helburua hezkuntza sistemak ikasleen gaitasun guztiak garatzen laguntzea da, bakoitzaren aukera errealean arabera.

Hauek dira curriculum proposamenaren **barne-kalitatea** baloratzeko irizpideak eta adierazleak: a) finkatutako hezkuntza xedeak islatzea; b) Izaera orientatzailea izatea, eta ez selektiboa, aipatu dugun moduan; c) Proposamena irekia izatea, eta dibertsifikazioari bide ematea, norbanako bakoitzaren desberdintasunei erantzuteko; d) Curriculum oinarrizko eta komunerako aukeratutako edukiak Euskal Herri osoko ikasleentzat baliagarriak izatea; e) Bereganatzeko oztoporik ez izatea (aukera berdintasuna); f) Desberdintasunak gainditzeko bideak zabaltzea; g) Euskal Herriaren beharrei erantzutea; h) Inguru bakoitzeko kultur elementu espezifikoak sartzeko beharrari erantzutea (indibidualizazioa eta kultur artekotasuna). Kalitate irizpide horiek curriculum diseinua baloratzeko erabil daitezke, baina curriculum diseinuaren balizko balioa, praktikan jartzen denean gauzatuko da.

#### **Kalitate teknikoa:**

Curriculum proposamena egiteko eta **kalitate teknikoa** baloratzeko irizpide garrantzitsuenetako bat proposamenaren barne koherentzia da. Curriculum proposamenak barne koherentzia duela esan dezakegu beharren eta curriculumaren osagaien (xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak, helburu espezifikoak eta ebaluazio irizpideak...) diagnostikoaren deribazio prozesuak, zehaztapen mailatan, jarraipena duen heinean; azken zehaztapen mailak aurreko mailak hartzen dituela.

#### **Proposamen orientatzailea, eta borondatez ezartzekoa:**

Aurkezten dugun curriculum “proposamena” hitzak berak adierazten duen moduan, Euskal Herrian ordezkari zabala duten hezkuntza sareen ekimenaren bidez sortutako proposamena da; Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailarekin hitzartu da, eta Euskal Herriko ikastetxe guztiei dago irekita.

Proposamen orokor horretan, bi proposamen mota bereiz daitezke: a) eztabaidatzekoa dena, baina ez erabakitzekoa; b) eztabaidatu eta erabakiko den Curriculum oinarrizkoa eta komuna.

Eskaintza bat egiten da, behin deliberamendu prozesuak burutu ondoren, erakundeek eta ikastetxeek Curriculum oinarrizkoa eta komuna sinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartu dezaten. Curriculum proposamenaren gainerakoa ezartzea hautazkoa izango da, eta ez da konpromisoen mende egongo. Ez da proposamen arau emalea, baina hezkuntza administrazioek integrazteko aukera hor dago.



### **Irekia:**

Partekatu nahi dugun Euskal Curriculum oinarriko eta komuna irekita dago ondoko garapenetarako. Beraz, ikastetxe bakoitzak bere testuingurura egokitu ahal izango du curriculum proposamena.

### **Egunoa eta etorkizunekoak:**

Euskal Curriculumeko “Hezkuntza konpetentzia orokorrak” planteamendua, bat dator, oinarriko ildoetan, Europako Batzordearen proposamenekin eta Europako herrialde gehienetan onartzen ari diren curriculum ofizial gehienen joerekin eta OCDE-PISA egitasmoan (2000: 22)<sup>7</sup> ikasleak ebaluatzeko egiten den planteamenduarekin, non ezaupideak “bizitza osorako ezinbesekoak diren trebetasun” modura ulertzen diren. Proiektu hau bat dator, eta oso modu esanguratsuan, Europako eta Euskal Herriko unibertsitateetan egiten ari den ikasketa planen egokitzapenarekin (Bolognako adierazpenaren arabera). Bat etortze horrek balio erantsia ematen dio Euskal Curriculumaren proposamenari, eta derrigorrezko eskolaldirako Europako gainerako herrialdeak egiten ari diren planteamenduen eta ebaluazio sistemen ildokoa da; jarraipena du derrigorrezkoaren ondoko goi mailako irakaskuntza planteamenduekin.

### **Izaera partehartzailea:**


Euskal Curriculumaren proposamena prestatzeko, lankidetzan ari dira proposamena sustatzen duten erakunde eta elkarteak. Zuzendaritza tekniko eta Diseinu taldea osatzeko eta “Hezkuntza konpetentzia orokorrak” eta “Diziplina arloak” proposamenak egiteko taldeak osatzeko orduan, Euskal Herri osoko lurraldeetako adituak egotea, eta haien parte hartzea bermatzeko saiakera egin da.

---

<sup>7</sup> OCDE (2000): *La medida de los conocimientos y destrezas de los alumnos. Un nuevo marco para la evaluación. Proyecto PISA.* MEC/INCE, Secretaría General Técnica, Madrid.



### 3.2.- CURRICULUM DISEINUAREN ESKEMA



#### Hezkuntzaren xedeak

Hezkuntzaren helburuak xede moduan planteatzen dira, eta oso orokorrak dira, bizi osoko hezkuntza prozesuak bideratu eta horiei zentzua emateko; derrigorrezko eskolaldia ere kontuan hartzen da. Orokortasun maila hori bi asmok eragiten dute: batetik, derrigorrezko eskolaldiaren funtzioa ikasleak prestatzea eta oinarrizko eta beharrezko ekipamendua ematea da, bizitzaren ibilbideari oinarri sendoekin ekiteko, baina horiek uneoro eguneratu beharko dira bizitza osoan zehar; bestetik, desberdintasuna nabarmentzea, baina, aldi berean, Euskal Curriculuma curriculum ofizialetan integratzeko edo haien osagarri izateko aukera, curriculum ofizialetako hezkuntzaren helburuen formulazioekin ez estaliz.

#### Hezkuntza kompetentzia orokorrak

Horrela ezarritako hezkuntzaren xedeek ezin dute, besterik gabe, eskolaldi osoaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan jarraitu beharrekotik urrats zehatzak zehaztu, izaera globala eta orokorra dutelako. Beharrezkoa da helburu horiek ikasketa kompetentzia eta ikaskuntza eduki espezifiko bihurtzea. Baina, horretarako, beharrezkoa da erabakiak hartzeko prozesu bati jarraitzea. Lehen urratsa *Hezkuntza kompetentzia orokorrak* identifikatzea izango da.





Hezkuntzaren xedeen lorpena are gehiago bermatuko da –derrigorrezko eskolaldian– Hezkuntza kompetentzia orokor hauek zenbat eta gehiago garatu:

- Pentsatzen eta ikasten ikasi
- Komunikatzen ikasi
- Elkarrekin bizitzen ikasi
- Norbera izaten ikasi
- Egiten eta ekiten ikasi

Arlo horietako bakoitzak hezkuntzaren helburuei zer ekarpen egiten dioten aztertuta, Hezkuntza konpetentzia orokorrak zehaztu ahal izango dira. Hori da curriculumeko arloak zehazteko aurretiazko urratsa.

### **Kompetentzia eta eduki metadiziplinarrak, diziplinartekoak eta diziplina baitakoak**

Curriculum arloak ezarritako jakintza arloen inguruan antolatzen direnez (hau da, materia edo diziplina zientifikoetan), beharrezkoa izango da konpetentziak berrikustea. Horretarako, konpetentzia horietako bakoitza menderatzeko beharrezko kontzeptuzko edukiak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak zein diren aztertuko da, eta, ondoren, eduki horiek zer diziplinartekoak diren identifikatuko da.

Hezkuntza konpetentzia orokorrak aztertu ondoren ikusiko dugunez, izaera globalak ez du uzten konpetentzia bakoitzak diziplina akademikoarekin duen lotura zuzena ezartzen, alderantziz baizik; gehienek diziplina bati zuzenean ez dagozkion jakintzen, konpetentzien eta jarreraren ezagutza eskatzen dute. Hau da, *metadiziplinarrak* dira. Beste eduki batzuk, erlazioa duten bi diziplinaren edo gehiagoren mende daude, hau da, *diziplinarteko* izaera duten ezagutzak dira; zuzenean diziplina baten mende dauden eduki espezifikoak ere identifika ditzakegu, *diziplina baitakoak*.

Euskal Curriculumaren diseinuaren ezaugarrietako bat “zeharkakotasun” nozioari buruzko interpretazioa da. Gure kultura pedagogikoan ohikoa da zeharkako gaiak aipatzea; esate baterako, Bakerako hezkuntza, Gizalegerako hezkuntza, Bide hezkuntza, etab. Euskal Curriculumean, curriculum osoaren zeharkakotasuna ardatz hauen inguruan antolatzen da: hezkuntza konpetentzia orokorren eta jarrerazko eta prozedurazko eduki metadiziplinarren inguruan –diziplina arlo guztietan daude–. Hau da, zeharkakotasunaren ardatz antolatzailea ez dira gaiak, baizik eta konpetentziak eta edukiak.

### **Hezkuntza konpetentzien garapenaren zerbitzura dauden diziplina arloak**

Diziplina arloak elkarren hurbileko eta osagarriak diren diziplina anitzetatik eratorritako kontzeptuzko edukien, prozedurazkoen eta jarrerazkoen multzo moduan osatu dira; konpetentziak lortzeko bitarteko moduan aukeratu dira. Horrela defini ditzakegu arloak, ez izena ematen dion diziplina



moduan, baizik eta Hezkuntzarako konpetentzia orokorrak lortzeko beharrezko eduki multzo moduan. Diziplina baten inguruan, diziplina horretako konpetentzia horiek lortzeko garrantzitsuak diren edukiak biltzen dira, baita hurbileko beste diziplina batzuetako edukiak ere.

Horrela bada, hau esan ahal izango dugu: Matematika arloa, edo Hizkuntza arloa ez dira Matematika edo Hizkuntza, baizik eta Hezkuntzaren xedeetan eta Hezkuntzarako konpetentzia orokorren garapenean definitutako helburuak menderatzen lagunduko duten matematikako edo hizkuntzako helburuen eta antzeko beste diziplina batzuetako helburuen multzoa.

### **Euskal Curriculum oinarrikoa eta komuna**

Hezkuntzaren xedeetatik Diziplina arloetarainoko deribazio eta espezifikazio prozesua “Euskal Curriculum oinarrikoa eta komuna” aukeratzeko erreferentzia esparrua da. Bertan, Euskal Herrian derrigorrezko irakaskuntza bukatuko duten ikasleek partekatzea nahi ditugun oinarriko elementuak definituko dira, bai Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei dagokienez, bai euskal kultura espezifikokiari eta unibertsalari dagokionez.



## 4.- HEZKUNTZAREN XEDEAK

Gure ustez, hezkuntza prozesuaren xedea gizakia gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik gaitasun gehien garatzea da. Ikuspegi horretan oinarrituta, hezkuntzaren xedeak (osotasuna bizitzan eta heldutasuna) adierazten duten irizpideak zenbateraino bete diren baldintzatuta daude, gizabanako gisa garatutako kompetentzien araberakoak baitira, bai eta gizartea eta natura garatzeko eta hobetzeko integratzeko, identifikatzeko eta laguntzeko mailaren araberakoak ere.

Hezkuntzaren xedeei buruzko ikuspegi horrek, onartua den neurrian, orientagarri diren helburu idealak adierazten ditu oso orokorrean bada ere, eta, zentzua ematen diete irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei eta, oro har, bizitzari. Oso abstraktua eta orokorra denez, gerta liteke ikuspegia nahiko onartua izatea, baina gero eta desberdintasun gehiago sortuko dira, ziur asko, ideia honi buruz dugun interpretazioa zehazterakoan: “pertsonaren gaitasunen erabateko garapena, eta gizartearen eta naturaren garapena eta hobekuntza”. Gai unibertsalak dira, baina gai horiek baloratzeko eta zehazteko zama historikoa eta kulturala handia da.

Hezkuntzaren xedeak oinarritzeko aipatzen diren iturrien artean, gizakiaren izaera, gizartearen izaera eta ezagutzaren izaera daude. Argi dago gai konplexua dela, eta horri erantzutea galdera hauekin lotuta dagoela: Zein dira eta nola interpretatzen dira giza premiak, bai oinarrizkoak, bai kulturalak, eta etorkizuneko eskaera sozio-kulturalak, munduan eta Euskal Herrian? Zein da lehentasuneko balioen eskala? Zein dira giza eskubide unibertsalak eta lege aginduak? Zein da giza-perfektzioaren eta prestakuntzaren ideala? Zein da giza izaerari, gizabanakoaren eta gizartearen arteko harremanari eta askatasunaren eta autoritatearen arteko harremanari buruzko mundu ikuskera? Zein dira hezkuntza paradigmei buruzko sinesmenak eta itxaropenak: eredu teknologikoa, humanista, akademikoa, soziokritikoa? Galdera horiek eta horiei gehitu dakizkien beste batzuk elkarri uztartuta daude, eta premiek, interesek, balioek, eskubideek eta aginduek eta mundu ikuskerek elkarreraginean dauden eta etengabe zalantzan jartzen diren osotasun bat osatzen dute.

Jarraian, hezkuntzaren xedeen proposamena lehen aipatutako gaien azterketan eta diagnostikotan oinarritzeko asmorik gabe, bizitza osorako hezkuntzaren xedeetara egokitutako proposamena aurkezten dugu, derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren oinarria izan dadin.

Gure ustez, hezkuntzaren xedea da gizakiak goren mailako garapena lortzea gizabanako gizartekide eta izadikide den aldetik.

Pertsona bakoitzak subjektibotasunaz eta autonomiaz duen kontzientzia gizarte bakoitzaren hizkuntzak, kulturak eta abarrek baldintzatutako elementuen arabera garatzen da. Ez dago gizabanakorik gizarterik gabe. Baina, era berean, gizabanakoa eta gizartea oso lotuta daude naturarekin, giza naturarekin; natura, inguratzen gaituen esparru ekologikoa den heinean. Gure naturak dimentsio materiala, kosmikoa du, baina baita psikikoa eta espirituala ere. Gure izaera fisiko-kimikoa, kosmikoa



eta lurtarra da, eta guztiok giza espezieko kide gara. Gizabanakoa gizartean egiten da, baina, era berean, gizartea inguru jakin batean eraikitzen eta eraberritzen da, gizabanakoen arteko elkarreraginarri esker. Gizabanakoaren eta gizartearen jokaera nagusiak naturan oinarrituta daude, baina modu berean gizabanakoak eta gizarteak natura eta giza espeziea aldatu egiten dute. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harremanak sistemikoak dira, eta gainjarri eta osatu egiten dira. Agian, horregatik da hain zaila muga zehatzak jartzea, batez ere, gizabanakoarekin, gizartearekin eta naturarekin lotutako ezagutzen artean.



### **GIZABANAKOA: Norberaren errealizazioa eta identitatea**

***Gizabanako bilakatzea, beste batzuekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo gisa identifikatzea da, bere ekintzak eta bizitzaren zentzua bideratzen duten irizpideez eta balioez kontziente eta bere buruarekin eta gainerakoekin kritiko eta arduratsu izanda, garapen pertsonala, gizartearen garapena eta naturaren oreka lortzeko.***

Hezkuntzarako ezinbestekoak eta beharrezkoak diren kultur edukiak osatu gabe geratzen dira subjektuak ez badu lortzen berreraikitzea gizarteratzearen eta transmititzearen bidezko bitartekaritza funtzioak, deszentrazio eta hausnarketa kritikoko prozesu baten bidez. Hezkuntzaren ezaugarri nagusiak gizarteratze prozesuen eta kultur edukien azterketa kritikoa izan beharko luke, prozesu horiek etengabe eguneratu behar dituzten gizabanakoek eta taldeek garapen kontzientea eta autonomia bultzatzeko. Baina, era berean, autonomia eta norberaren identitatea ez dira eraikitzen testuingururik gabeko arrazionaltasun irizpide abstraktuei jarraituz, baizik eta testuinguru historiko eta kultural baten baitan; eta testuinguru horren elementuetako batzuk euskal kulturaren ekarpen zehatzak dira. Helburua honako hau da: gizabanako bakoitzak modu autonomoan eraikitzea bere biografia, eskura dituen kultur erreferente guztiekin.



## **GIZARTEA: Euskal identitate soziala eta unibertsala**

***Euskaldun identifikatzea da, eremu kulturantzean; euskara eta euskal kultura bai eta erreferentziako eta berezko gainerako hizkuntzak eta kulturak onuragarritzat hartuz, nor bere identitatea modu inklusiboan eraikitzeko identitate anizetan oinarrituta eta desberdintasunekin begirunezkoa eta bateragarria den erreferentzia eremu komuna eraikiaz, bizikidetza bake-tsua bideratze aldera.***

Elkarbizitzarako eredu proposatzen dugu kultur integrazio inklusiboaren bidea; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea: batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta etengabe eraberritzen dena; eta aniztasuna, komunitate bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko, kulturarteko bideak erabiltzen ditugulako. Euskal Herriaren eta munduaren kultur ondarearen oinarritzko elementutzat ditugunak aukeratzean, erreferentzia eremu komuna eraikitzen dugu.

Euskal ikasleek eta, oro har, gizarteak kultur ondare hori bereganatzen eta partekatzen duten heinean, bizikidetzarako oinarria sendotzen ariko gara. Oinarritzko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak, espainiarra edo frantziarra sentitzeak bezalaxe, ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazlea. Gure ustez, euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatuaren barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren arteko lehentasunak aukeratuko finkatuko du.

## **NATURA: Nortasun kosmikoa eta lurterra**

**Kosmoseko eta lurreko kide gisa identifikatzea da, bizidun eta giza espezieko kide gisa; nor bere natur jatorria ezagutzeko, gizaki guztion ezaugarri komuna dena eta ekosistema osasuntsuari eusteko ardura izateko.**

Gizakia zer den ulertzeko eta galdera horri erantzuteko, ezinbestekoa da gure izateak modu inklusiboan integratzea: aldi berean baikara izaki materialak, bizidunak, lurtarrak eta kosmikoak. Gure natur jatorria, materia oreana bezala, fisiko-kimikoa da. Izaki bizidunak gara, landareak eta animaliak bezala. Giza espezieko kide gara eta gizakiarekin lotutako gauzak ez dira gugandik kanpotikoak. Lurrean eta kosmosean bizi gara, eta gure etorkizuna horrekin lotuta dago, transzendentziarako gaitasuna dugun izakiak gara.

Bestalde, gero eta argiago dago bizi kalitatea –bai eta gizakiak eta gizarteak denbora luzean irautea ere– natura errespetatzearen eta kontserbatzearen mende dagoela, eta ingurumenaren degradazioak gure degradazioa dakarrela.


Bizitza osorako hezkuntzaren xedeak, orokorrak direnez, ez dute bere horretan zehazten derrigorrezko eskolaldian irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuek jarraitu beharreko urratsak. Aipatutako



xedeak lagungarriak dira nondik norakoak finkatzeko eta bizitza osoko gure jardunei zentzua emateko. Hezkuntza xede horiek, nahiz eta derrigorrezko eskolaldian erreferentziazat hartzeko baliagarriak eta kontuan hartzekoak izan, prestaketa aldi bat behar dute bete ahal izateko.

Gure ustez, derrigorrezko hezkuntzaren funtzioa gazteria bizitzarako prestatzea da, hau da, bizitza osoan zehar hezkuntzaren xedeak bete ahal izateko prestatzea. Zein da ezinbesteko ekipamendua gazte batek bizi ibilbideari edo curriculumari modu egokian ekiteko eta hezkuntzaren xedeak betetzeko?

Euskal Curriculumaren proposamenaren arabera, gazte batek bizitzarako behar duen guztia eta behar bezalako prestakuntza izango du, baldin eta pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiteko eta ekiteko gai bada. Gainera, kompetentzia horiei “hezkuntza kompetentzia orokorrak” izena jarri diegu, eta “diziplina arloen” bidez eskuratzen dira; horrenbestez, Hizkuntza, Matematika, Natur Zientziak eta gainerako arloek “hezkuntza kompetentzia orokorrak” eta “hezkuntzaren xedeak” eskuratzen laguntzen dute. Hori guztia irudi honetan islatzen da:





## 5.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK

Etorkizunera begira aurrera egin nahi duen gizarte batek gizarteko kide guztiek modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko gai izatea behar du, konpetentzia horiek guztiak ahalik gehien garatuaz. Horrenbestez, hezkuntza sistemaren xedek pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez *jarduteko* trebatzera bideratu behar dira. Bizitzaren eremuetan jarduteak prozedurak menperatzea esan nahi du, eta, horretarako, ezinbestekoa da metodo zientifikoa erabiltzen duen prozeduraren beraren ezagutza izatea, bai eta jakintzaren eremu bateko kontzeptuena ere. Jarduera horrek banakoa izan beharko luke; hau da, balio etiko edo moralen arabera izan beharko luke. Beraz, giza jarduera orok, aldi berean eta ezinbestean, prozedurak, ezagutzak eta jarrerak erabiltzea eragiten du.

Ikuspegi horri jarraiki, curriculuma antolatzeke ardatzek ez dute izan behar kontzeptuzko “jakintza”k, pertsonaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren konpetentziak baizik. Konpetentziak azpimarratuaz, hezkuntza jarduera, ezagutza, egoera praktikoetan eta testuinguru zehatzetan erabiltzera bideratu behar dela nabarmendu nahi dugu; ezagutza hori, jarduteko benetako baliabidea izate aldera. Konpetentzia, jardunari lotuta dago beraz, dinamikoa da.

Ezagutzen “erabilera” azpimarratzeak ez du esan nahi “ezagutzak” gutxiesten direnik –praktikak ere ez baitu teoria baztertzen–, baizik eta ezagutza eta erabilera osagarriak direla. Argi dago jarduerak eraginkorragoak direla praktikari buruz hausnartzeko gai garenean, hau da, esperientziaren bidez barneratutako ezagutza –batez ere, zientziek emandako ezagutza– modu kontzientean erabiltzeko gai garenean.

Beraz, gure ustez, hezkuntza konpetentzien lortzeak lotuta egon behar dute balioekin, prozedura trebetasunekin eta ezagutza kontzeptualekin; baina ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek konpetentziak izateko, jarduerak izan beharko dute.

### 5.1.- OINARRIZKO KONPETENTZIA GILTZAK DERRIGORREZKO ESKOLALDIAN EUROPAKO EREMUAN

Eurydice-k egindako dokumentuan (2002)<sup>8</sup>, Europar Batasuneko estatu kideen curriculumak berrikusten dira eta derrigorrezko hezkuntza orokorrean konpetentziak garatzeko moduak aipatzen dira, konpetentzia giltzen definizioari eta identifikazioari buruzko informazioa eskaintze aldera. Azterketaren ondorioetan bi gauza egiaztatzen dira. Alde batetik, herrialde guztiek “konpetentzien garapenari buruzko erreferentzia inplizituak edo esplizituak dituzte”, eta hiru ikuspegi identifikatzen

<sup>8</sup> EURYDICE (2002): *Competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria*. <http://www.eurydice.org>



dituzte: kompetentziak modu inplizituan lantzen dituztenak, “kompetentzien” garapenaren erreferentzia esplizitua egiten dutenak eta “oinarrizko edo kompetentzia giltzen” erreferentzia esplizitua egiten dutenak. Une hartan aztertutako herrialde guztiek kompetentziak edo kompetentzia giltzak aipatzen zituzten curriculumean, edo aipatzeko bidean ziren.

Beste alde batetik, argi geratzen da “kompetentziei lotutako ezaugarri eta terminologia ugari daukela”. Gehien erabilitako hitza “kompetentzia giltza” da, baina beste hauek ere erabili dituzte: konpetentzia atalaseak, xede konpetentziak, ezinbesteko konpetentziak, oinarrizko konpetentziak, konpetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak... Dena dela, “kompetentzia giltza” erabiltzea aholkatzen da, edo, bestela, horren baliokidea den beste bat, betiere, definizio honekin bat egiten badu: “Gizabanako guztiak gizarteko kide aktibo gisara bizitza osotasunez bizitzeko aukera ematen duten ezagutza, trebetasun eta jarrera multzoa”. Erreferentziazat hartzen den ikuspegia honako hau da: ikasleak prest egotea derrigorrezko eskolaldia burututakoan, eskolatik kanpoko testuinguruetan eraginkortasunez jarduteko.

Lehenago adierazi dugunez, Europako herrialdeetako joera nagusia curriculumean kompetentziak aipatzea da, baina, azterketan aipatzen denez, badaude galdera batzuk oraindik behar bezala erantzun gabe:

- Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du kompetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplina baitako konpetentziak barneratzeak?
- Irakats al daitezke konpetentzia orokorrak aparteko diziplina moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?
- Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen konpetentzia orokorrak garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?

Logikoa da galdera horiek irekiak izatea, orain arte hezkuntza sistemen curriculumak akademizismoan oinarritutako hezkuntza ereduen mende egon baitira. Murrizketa ulergarria da, hezkuntzaren *benetako* helburuak unibertsitaterako bidean dauden mailak gaintitzean oinarritu baitira. Ikuspegia aldatutakoan eta hezkuntzaren xedeak zabaldutakoan, normala da behar bezala ez jakitea bizitza osoan sortu daitezkeen arazoak (pertsonalak, pertsonen artekoak, sozialak, profesionalak eta naturarekiko harremanetakoak) konpontzeko prestatu behar gaituen hezkuntzak nolakoa izan behar duen. Egia da curriculumak diziplinaka edo diziplina arloka antolatzea ez dela konponbide egokia izan, eta ez dela planteamendu nahikoa izan helburu horiek guztiak betetzeko, baina gaur egun ez dirudi bideragarria denik diziplinen edukiak eta curriculumak aspaldiko diziplina arloak kontuan hartu gabe antolatzea.

Curriculumak konpetentzien arabera osatzea koherenteagoa da gaur egungo hezkuntza xedeak medio, baina ez du arazoa guztiz konpontzen, ez baitago konpetentziak eta diziplina arloak integra-





tzeari buruzko esperientzia nahikorik, eta, gainera, ez da erraza bizitzarako ezinbestekoak, oinarrizkoak eta giltza diren kompetentziak identifikatzea. Horri guztiari kompetentziak modu koherentean eta esanguratsuan formulatzeko zailtasunak gehitzen zaizkio, osotasun bat duten giza jarduerak disekzionatuz, hau da, trebetasunekin, ezagutzekin eta jarrerekin lotutako edukiei dagozkien jarduerak bereiziz eta lotuz. Argi dago curriculumaren ohiko formulazioak, kontzeptuzko ezagutzetan oinarritutakoak, ibilbide luzea duela eta formulazio errazagoa duela, baina diziplinei buruzko ezagutzak barneratzeko bakarrik balio du, ez bizitzarako prestatzeko hezkuntza planteamendu zabalago baterako.

Euskal Curriculumerako egindako proposamenean, diziplina arloen arabeko antolaketa eta kompetentzien arabeko antolaketa osagarriak izatea nahi dugu. Aukeratutako eredu kurrikularraren logikaren arabera, diziplina arloak ez dira izena ematen dioten diziplinarako ezagutza aipagarrien multzoa, baizik eta diziplina horretatik edo horiekin zerikusia dutenetatik aukeratutako kompetentzia eta eduki multzoa, hezkuntzaren xedeak lortzeko eta horiek kompetentzia orokorretan garatzeko gaitasuna duten neurrian. Horrenbestez, diziplina arlo guztiak arlo horren inguruan aukeratutako eta egituratutako diziplina baitako, diziplinarteko eta edukien metadiziplinarren arabera definituko dira, hezkuntza xedeetan definitutako kompetentziak lortzeko egindako ekarpenaren arabera.

Ikuspegi horri jarraiki, lehen egindako galderei erantzuna ematen diegu:

*- Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du kompetentzia orokorrak edo zeharkako kompetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplinei dagozkien kompetentziak barneratzeak?*

Ikasgai batean kompetentzia orokorrak edo zeharkako kompetentziak eta diziplina jakin bati dagozkion kompetentziak barneratzeak duen garrantziak hezkuntzaren xedeak lortzeko zuzenean egindako ekarpenaren araberakoa izan beharko luke, helburua pertsonen dimentsio guztietan (gizabanako, gizartekide eta izadikide) eraginkortasunez jarduteko gai den pertsona lortzea baita.

*- Irakats al daitezke kompetentzia orokorrak aparteko irakasgai moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?*

Kompetentzia orokorrak bereizita irakats daitezke, baina, kompetentzia orokorrak eskolan ikasteko, diziplinetan integratu behar dira. Zenbat eta egoera gehiagotan, eduki gehiagoz eta maila gehiagotan irakatsi, orduan eta handiagoa izango da kompetentzia orokorrak transferitzeko aukera.

*- Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen kompetentzia orokorrak garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?*

Diziplinek zientziaren arlotik landuta bakarrik dute zentzua. Ezagutzaren baitan dira eraikitzaileak, ez hezkuntzaren baitan. Arazoa honetan datza: diziplinak dira gaur egun ditugun euskarririk egonkorrenak edo fidagarrienak. Baina benetan sinetsita bagaude hezkuntza sistemaren funtzioa bizitzarako prestatzea dela, irakaskuntzaren edukiak horretarako balio dutenean da baliagarria. Horren ondorioz, oinarrizko irizpide garrantzitsuena xedeak lortzen laguntzea da.



## 5.2.- KOMPETENTZIA OROKORRAK EUSKAL HERRIKO ETA EUROPAKO UNIBERTSITATEETAN

Bolognako Deklarazioak (1999) Europan goi hezkuntza koherente, bateragarri eta lehiatsurako espazio bat sortzea aldarrikatzen du, Europako eta beste kontinente batzuetako ikasleentzat erakar-garria izan dadin. Euskal Herrian eta, oro har, Europan dauden unibertsitateetan Europako hezkun-tza ministroek zehaztutako lan ildoak egokitzen ari dira –2010erako indarrean egon behar dute–.

Lan ildo bat “erraz ezagutu eta erkatze moduko titulazio sistema ezartzea” da. **“Tuning” proiektua**<sup>9</sup>, Deustuko Unibertsitatea (Bilbo) eta Groningeneko unibertsitatea (Herbehereak) buru dituela, erreferentzia da Europako unibertsitateentzat tituluak eta ikasketa planak berritzeko, eta kompetentzien sistema propo-satzen du tituluen eta ikasketa planen helburuak deskribatzerakoan hizkuntza komuna izateko, bai eta ikas-leen emaitzen ebaluaziorako erreferentzia izateko ere. Hain zuzen ere, proiektuak kompetentzia orokorreta-rako eta diziplina bakoitzari dagozkion kompetentziatarako erreferentzia puntuak proposatzen ditu.

Planteamendu horren interesa unibertsitateetarako diseinu curricularren eta Euskal Curriculumaren artean dauden berdintasunetan eta sinergietan datza. Sinergi argiak daude Tuning proiektuan aipatuta-ko “kompetentzia orokorren” eta Euskal Curriculumeko “hezkuntza kompetentzia orokorren” artean. Tuning proiektuan, hiru oinarrizko kompetentzia daude, eta, orotara, 30 kompetentzia:

Kompetentzia instrumentala	Pertsonarteko kompetentziak	Kompetentzia sistemikoak
1.- Azterketa eta sintesi kompetentzia	11.- Kritikatzeko eta nor bere burua kritikatzeko gaitasuna	19.- Ezagutzak praktikan aplikatzeko gaitasuna
2.- Antolatze eta planifikatzeko kompetentzia	12.- Talde lana	20.- Ikertzeko trebetasunak
3.- Oinarrizko ezagutza orokorrak	13.- Pertsonarteko gaitasunak	21.- Ikasteko gaitasuna
4.- Lanbidearen oinarrizko ezagutzak	14.- Diziplinarteko taldean lan egiteko gaitasuna	22.- Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna
5.- Ahozko eta idatzizko komunikazioa norberaren hizkuntzan	15.- Beste arlo batzuetako adituekin komunikatzeko gaitasuna	23.- Ideia berriak sortzeko gaitasuna (sormena)
6.- Bigarren hizkuntzaren ezagutza	16.- Aniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea	24.- Buruzagitza
7.- Ordenagailua erabiltzeko oinarrizko trebetasunak	17.- Nazioarteko testuinguruan lan egiteko trebetasuna	25.- Beste herrialde batzuetako kulturak eta ohiturak ezagutzea
8.- Informazioa kudeatzeko trebetasunak	18.- Konpromiso etikoa	26.- Modu autonomoan lan egiteko trebetasuna
9.- Arazoak konpontzea		27.- Proiektuen diseinua eta kudeaketa
10.- Erabakiak hartzea		28.- Ekimena eta ekiteko izpiritua
		29.- Kalitateaz kezkatzea
		30.- Lorpenerako motibazioa

Euskal Curriculumean (aurrerago ikusiko den moduan), bost kompetentzia orokor eta, orotara, 29 kompetentzia sailkatu dira. Horien artean aldeak daude, baina puntu komunak dituzte, eta bi plante-amenduek elkar indartzen dute.

<sup>9</sup> TUNING (2003): *Tuning Educational Structures in Europe. Final Report, Phase One*. University of Deusto / University of Groningen. [www.reliint.deusto.es](http://www.reliint.deusto.es)



### 5.3.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK EUSKAL CURRICULUMEAN

Euskal Curriculumean, garrantzi handia ematen diogu konpetentzia orokorrak –“hezkuntza konpetentzia orokor” izenekoak– barneratzeari, gure ustez hezkuntzaren xedeak lortzea horren menpe dagoelako, eta konpetentzia horiek gabe ezinezkoa delako bizitza osorako hezkuntzarako oinarriak ezartzea. Hori derrigorrezko hezkuntza orokorraren oinarritzko funtzioetako bat da. Bestalde, gure ustez, hezkuntzaren erronka handienetako bat hezkuntza konpetentzia orokorren eta diziplina arloei dagozkien konpetentzien arteko integrazioa lortzea da. Ez du zentzurik konpetentzia horiek bereizita planteatzeak. Izan ere, diziplina arloen ezagutzek ez dute berezko baliorik, hezkuntzaren xedeak betetzen laguntzen duten heinean baitira baliagarriak, eta hezkuntza konpetentzia orokorrek ere ez dute berezko baliorik, diziplina arloetatik aparte ez baitituzte hezkuntzaren xedeak betetzen.

Gure ustez, “hezkuntza konpetentzia orokorrak” zuzenean diziplina arloen eduki espezifikoen erreferentzia egiten ez duten konpetentziak dira, nahiz eta, hezkuntzaren ikuspegitik duten balioagatik, lotuta egon konpetentzia guztiekin (konpetentzia metadiziplinarrak), bai eta hainbat arlorekin (diziplinarteko konpetentziak) eta arlo jakin batekin ere (diziplina baitako konpetentziak); baina ez dute lotuta egon behar horiekin bakarrik. Hezkuntza konpetentzia orokorren ezaugarri nagusiak diziplina arloetan, eguneroko bizitzako egoeretan eta denboran zehar dituzten transferitze ahalmena eta funtzio ugariak dira.

Proposamen askotan saiatzen dira konpetentzia orokorrak zehazten. Eurydicek egindako dokumentuan, adibidez, honako hauek aipatzen dira: komunikazioa, arazoak konpontzea, arrazoitzea, buruzagitza, sormena, motibazioa, talde lana eta ikasteko gaitasuna. Beste erreferentzia iturri batzuek ere balio dute konpetentziak definitzeko; esate baterako, Europako Batzordeko Hezkuntza Batzordeak<sup>10</sup> zehaztutakoak: jatorrizko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; Informazio eta Komunikazio Teknologiak; kalkulua eta matematikako, zientziako eta teknologiko konpetentziak; enpresa espirtua; pertsonarteko eta gizalegezko konpetentziak; ikasten ikastea; kultura orokorra. Ikusi dugunez, Tuning proiektuan konpetentziak hiru mailatan sailkaturuta daude: instrumentalak, pertsonartekoak eta sistemikoak. Gure proposamena egiteko, J. Delorsen<sup>11</sup> zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarritu gara. Bertan, hezkuntzaren lau zutabe edo oinarri aurkezten dira: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Funtzio horiei guztiei komunikatzen ikastea gehitu diegu.

Gure ustez, hezkuntza konpetentzia orokorrak bost eremu horietan antolatuta egoteak ondo islatzen ditu hezkuntzaren funtsezko elementuak eta hezkuntza planteamendu horrekin koherentea izateko irakasleak –irakasle guztiek– bete beharreko funtzioak. Baina antolaketa eredu horrek, baliagarria izateko, hezkuntza konpetentzia orokor guztiak ordenatzeko baliagarria izan behar du. Konpetentzia

<sup>10</sup> EUROPAKO BATZORDEA (2002): *The key competencies in a knowledge-based economy: a first step towards selection, definition and description*. Directorate-General for Education and Culture.

<sup>11</sup> DELORS, J. (1999): *Ibidem*.




guztiak ordenatzeko baliabide heuristiko bat da, azken proposamenak koherentzia eta zentzua izate aldera, eta, gainera, ahalik osoena izan behar du hezkuntzaren helburuei dagokienez. Gainera, aurkezpenean erabilitako ordenak ez du aparteko asmorik edo lehentasunik, ez eta hierarkiarik ere: esate baterako, ikasten eta pentsatzen ikastea ez da beste arlo batzuei dagokien kompetentzien aurretikoa, ez eta garrantzitsuagoa ere.

Sailkapenak duen interesaz jabetuta, baina sailkapen honek eta antzekoek dituzten mugez ohartuta, hona hemen dokumentuan landuko dugun hezkuntza kompetentzia orokorren mapa:

<p><b>1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi:</b></p>	<p>1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua. 1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea 1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa 1.4.- Erabakiak hartzea 1.5.- Arazoak konpontzea 1.6.- Baliabide kognitiboen erabilera</p>
<p><b>2.- Komunikatzen ikasi:</b></p>	<p>2.1.- Ahozko hizkuntza 2.2.- Idatzizko hizkuntza 2.3.- Beste hizkuntza batzuk 2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak 2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak 2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa</p>
<p><b>3.- Elkarrekin bizitzen ikasi:</b></p>	<p>3.1.- Pertsonarteko harremana 3.2.- Gatazken konponbidea 3.3.- Parte hartze demokratikoa 3.4.- Elkarlana eta talde lana 3.5.- Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna)</p>
<p><b>4.- Norbera izaten ikasi:</b></p>	<p>4.1.- Gorpuztasuna 4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala 4.3.- Nork bere buruaren estimua 4.4.- Autonomia 4.6.- Sentsibiltate estetikoa 4.6.- Integrazio pertsonala</p>
<p><b>5.- Egiten eta ekiten ikasi:</b></p>	<p>5.1.- Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea 5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea 5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea 5.4.- Ebaluazioa 5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioa</p>

Hezkuntza kompetentzia orokorren mapa hau bi modutan irakur daiteke: arlo bakoitza bakarrik hartuta edo arloak elkarri lotuta.



Arloka sailkatzeak hezkuntza kompetentzia orokorrei buruzko ideia orokor bat osatzen laguntzen du, baina ezinbestekoa da arloak sailkatzetik arloen arteko loturez kontzientziaztera pasatzea. Sailkatzearen eta elkarren arteko loturaren ideia izarraren irudian islatzen da, izarraren bost puntetako bakoitzak kolore bat baitu, eta koloreak diluitu egiten dira, kolore bakar bateko espazio komuna osatuz.

Arloen arteko loturen elkarrekotasuna diagrama honetan dago adierazita:

	Pentsatu eta ikasi				
Pentsatu eta ikasi		Komunikatu			
Komunikatu	X		Elkarrekin bizi		
Elkarrekin bizi	X	X		Izan	
Izan	X	X	X		Egin eta ekin
Egin eta ekin	X	X	X	X	

Diagrama modu askotan irakur daiteke. Esate baterako, uler daiteke pentsamenduak komunikazioa baldintzatzen duela, bai eta komunikazioak pentsamendua baldintzatzen duela ere; pentsamenduaren eta komunikazioaren gaitasunek elkarrekin dugun bizitzaren kompetentziak baldintzatzen dituzte, eta, era berean, elkarrekin bizi gabe, pentsamendurako eta komunikaziorako aukerak murriztuta daude; pentsamenduaren, komunikazioaren eta elkarrekin bizitzearen kompetentziek ikastearen kompetentzia baldintzatzen dute, baina ikastearen kompetentziek gainerako kompetentziak ere baldintzatzen dituzte. Hezkuntza kompetentzia orokorren arloen arteko lotura ulertuta, kompetentzia horiek gainjarri eta osatu egiten direla ulertzen da.

Jakin badakigu guk egindako proposamenak aldaketa sakona dakarrela “zertarako eta zer irakatsi eta ebaluatu” auzian, bai eta “nola irakatsi eta ebaluatu” auzian ere. Gure planteamenduaren ara-



bera, irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta haien funtzioa ikasleak bizitzaren eremu guztietan modu egokian jarduteko prestatzea da. Irakasleen funtzioa ez da “haien” diziplina irakastea bakarrik; gainerako irakasleekin batera, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten ere irakatsi behar baitute. Horrek guztiak hezkuntzari eta hezkuntzaren irakaskuntzari buruzko ikuspegi aldaketa dakar, eta pentsamenduan eta irakasleen jardunean aldaketak eta doitzeak behar ditu. Gai konplexuak eta zailak dira, eta planteamendu berriak beharko dira, bai irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, bai curriculumeko diziplinetan.

### Laburbilduz:

- 1) Euskal Curriculumaren proposamena konpetentzien arabera dago formulatuta, eta derrigorrezko eskolaldirako, Lanbide Heziketarako eta unibertsitateko goi ikasketetarako Europako herrialde gehienek curriculumen ildo beretik doa.
- 2) Garrantzi handia eman zaio “hezkuntza konpetentzia orokorrak” barneratzeari; izan ere, barneratzea hezkuntzaren helburuekin eta pertsona bat dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) garatzearekin estuki lotuta dago, eta transferitzeko, funtzio ugari izateko eta asko irauteko aukera ematen du.
- 3) Proposamen honen funtzio nagusia “diziplina arloak” formulatzeko oinarri eta erreferentzia izatea da. Ez du zentzurik diziplina arloak “hezkuntza konpetentzia orokorretatik” bereizteak. Proposamen hau baliagarria izateko, diziplina arloetara transferitu behar da. Euskal Curriculumaren erronka handienetako bat proposamen integratua egitea da.
- 4) “Hezkuntza konpetentzia orokorrak” elkarrekin lotuta daude; beraz, “diziplina arloak” “hezkuntza konpetentzia orokorren” eremu guztiak bere baitan hartu nahi dituzte. Horrek ez du esan nahi diziplina arlo bakoitzak eremu jakin bat azpimarratzen ez duenik.
- 5) Curriculumean aipatutako hezkuntzaren helburuen eta hezkuntza konpetentzia orokorren gaineko ikuspegi aldaketak hezkuntzaren jardunean gauzatzeko baldintza batzuk behar dira. Baldintza horien artean garrantzitsuenak hauek dira: irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, eta curriculumaren planteamenduarekin koherenteak diren material kurrikularrak lantzea.



## 6.- DIZIPLINA ARLOAK

Curriculumaren aukeraketari eta antolaketari erantzutea da irakaskuntzaren arlorik zailenetakoa eta gatazkatsuenetakoa. J. Gimeno dioenez (1992:171-72)<sup>12</sup>: *“Irakaskuntzaren denbora zer edukik bete behar duen erabakitzea zer funtzio betetzea nahi dugun argitzea da, norbanakoekin, jasotako kulturarekin, gure gizartearekin eta lortu nahi dugun gizartearekin lotuta. Galdera horien aurrean ikuspegi bakarra ez dagoenez, irakaskuntzako edukien zehaztapenaren inguruan izan da eskolatzearen eta curriculum pentsamendua-ren historiako eztabaida garrantzitsuena”*. Egoera horren jakitun izanik, uste dugu gure curriculum proposamena ikerketa, ebaluazio eta berrikuste prozesu jarraitu moduan ulertu behar dela. Gure ingurune hurbilenean gaiak duen egoera azalduko dugu labur, baita Euskal Curriculumerako egindako aukeraketa ere.

### 6.1.- CURRICULUMAREN ANTOLAKETA GURE INGURUKO HERRIALDEETAN

Europako herrialdeetako eta munduko curriculumak aztertuz gero, diziplina arloen arabera antolatzen direla ikusiko dugu. Bigarren hezkuntzako ikasketa planetan, ohikoena diziplina arlo hauek sartzea da (aldaketak aldaketa): herrialde bakoitzaren Hizkuntza eta Literatura, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Historia eta Geografia (Gizarte Zientziak), Fisika, Kimika, Biologia (Natur Zientziak), Teknologia, Musika, Heziketa Artistikoa, Gorputz Hezkuntza eta Erljioa. Espainiako eta Frantziako Estatuetoako curriculum ofizialetan, adibidez, diziplina arlo hauek sartzen dira:

ESO Espainia-LOCE	ESO Anteproyecto LOE- Espainia	Collège Frantzia
1.- Biología y Geología	1.- Ciencias de la Naturaleza (Biología, Geología, Física, Química)	0) Competences instrumentales: la maîtrise des langages:
2.- Ciencias de la Naturaleza	2.- Educación Física	1.- Français
3.- Cultura Clásica	3.- Geografía e Historia	2.- Langues vivantes
4.- Educación Física	4.- Lengua castellana y Literatura	3.- Mathématiques
5.- Educación Plástica	5.- Lengua cooficial y Literatura	4.- TIC
6.- Ética	6.- Primera Lengua extranjera	5.- Arts
7.- Física y Química	7.- Segunda Lengua extranjera	6.- Education physique et sportive
8.- Geografía e Historia	8.- Matemáticas	A) Culture des humanités:
9.- Latín	9.- Educación para la ciudadanía	1.- Français
10.- Lengua Castellana y Literatura	10.- Educación plástica y visual	2.- Histoire et géographie
11.- Lengua y Literatura propia	11.- Música	3.- Langues vivantes
12.- Lengua extranjera	12.- Procesos tecnológicos e informáticos	4.- Enseignements artistiques
13.- Matemáticas	13.- Cultura clásica	5.- Langues anciennes
14.- Música	14.- Latín	B) Culture scientifique et technique:
15.- Tecnología		6.- Mathématiques
		7.- Sciences expérimentales
		8.- Technologie
		C) Disciplines transversales:
		9.- Education civique
		10.- Education physique et sportive

<sup>12</sup> GIMENO, J. (1992): *Comprender y transformar la enseñanza*. Morata, Madrid



Diziplinak jakintza antolatzeko modu bat dira, eta antolaketa hori erabilgarria da ezagutza zientifikoa lortzeko (diziplina pentsamendua antolatzen laguntzen duten eta errealitatearen zati baten azterketa eta elkarreragina sustatzen duten gertaera, kontzeptu, arazo, metodo eta teknika multzo ordenatu moduan ulertuta). Hala ere, jakintza antolatzeko modu horrek ez du erabilgarritasun bera derrigorrezko eskolaldian, maila horretako hezkuntza funtzioa ez baita ezagutza zientifikoa jabetzera murrizten; ez da, gainera, modu egokiena adin horretako ikasleei esanguratsua gertatzeko egoki iruditzen zaizkigun ezagutzak. Diziplinek errealitatearen zatiak ematen dizkigute, bakoitzak bere ikuspegitik, eta horrek arrisku bat du: errealitatea zatikatzea, eta osotasunaren ikuspegia galtzea.

Zatiketa hori ez gertatzeko, ohikoa da egungo hezkuntza sistemetan jakintza “Diziplina arloka” banatzea derrigorrezko eskolaldian. “Diziplina arloak” beti, behin-behineko eraikuntzak dira, eta ikasketak helburu bera duten diziplinak integratzen edo biltzen saiatzen dira. Diziplina arloen funtzioa errealitateara hurbiltzen laguntzea da, gehiegizko zatiketaren ikuspegi sakabanatuegiari edo orokortasunaren gehiegizko nahasmenari ihes eginez.

Gure ikuspegitik, diziplinek eta diziplina arloek zentzua dute ikasleek horien bidez (eta ez euren kasa) hezkuntzaren xedeak edo funtzioak lortzeko tresna baliagarriak diren heinean. Adibidez, hezkuntzaren eginkizun nagusia belaunaldiz belaunaldi zientziek bildu dituzten ezagutzak iraunaraztea bada, curriculumaren edukiak zientzia eta ezagutza arlo horietan oinarritu beharko dira, eta **ikuspegi logozentrikoa** ezarriko da. Hezkuntzaren betebeharrak nagusia merkatuaren eskakizun ekonomiko-erantzuteko gai izango diren profesional trebeak prestatzea bada, orduan, **ikuspegi teknozentrikoa** ezarriko da. Kasu horretan, oso goiz sartuko dira espezialitateak Bigarren Hezkuntzan. Curriculumeko diziplinetan lanbide heziketara bideratutako izaera aplikatuko materia asko agertuko dira, eta, irakaskuntzan, helburuak lortzeko eraginkortasunera bideratutako paradigma teknologikoa nagusituko da. Ikasleen interesetan oinarritutako hezkuntzaren funtzio nagusia gaitasunak garatzea bada, orduan, **ikuspegi paidozentrikoa** nagusituko da. Kasu horretan, edukien lehentasuna bigarren maila batera igaroko da, eta ikasleen gaitasunen zerbitzura egongo dira. Baina hezkuntzaren funtzio nagusia gizarteratzea bada, eta ikaslea bere beharrei eta bizi den eta biziko den gizartearen beharrei erantzuteko prestatzea, **ikuspegi soziozentrikoa** ezarriko da. Ikuspegi hori eguneroko bizitzako arazoak ebazteko konpetentziak garatzen saiatuko da, eta, oro har, bizitzako beharrei ongi eta kritikoki erantzuten. Kasu horretan, edukiak egituratzeko ardatzak norbanakoaren eta gizartearen beharrik izango dira.

## 6.2.- DIZIPLINA ARLOEN PROPOSAMENA EUSKAL CURRICULUMENA

Euskal Curriculumean zaila da ikuspegi horien ekarpenak kontuan ez izatea. Pertsona bat norbanako, gizartekide eta izadikide moduan garatzeko, beharrezkoa da zientzien oinarrituko ezagutzak eta prozedurak ikastea (ikuspegi logozentrikoa); beharrezkoa da lanerako eta ekintzaitza posturako





konpetentziak garatzea (ikuspegi teknozentrikoa); ikasleen gaitasun guztiak ahalik gehien garatu behar dira (ikuspegi paidozentrikoa), baita eguneroko arazoak ebazteko eta gizartearen beharrei kritikoki erantzuteko konpetentziak ahalik gehien garatzea ere (ikuspegi soziozentrikoa).

Euskal Curriculumaren proposamenean, curriculum diziiplina arloen arabera antolatzea erabaki da. Hori al da aukerarik onena? Ba al daude aukera hobeak, eta hezkuntzaren helburuekin eta funtzioekin koherenteagoak direnak? Gai hori, zalantzarik gabe, oso eztabaidagarria eta eztabaidatua da. Badaude, noski, curriculum antolatzeko beste modu batzuk, diziiplina arloen arabera bezain koherenteak edo koherenteagoak izan daitezkeenak, baina alternatiba horiek zailtasun handia dute inplementatzeko. Hasierako heziketa (titulazioa) eta irakasleen aukeraketa eta esleipena diziiplina arloen arabera izaten da; ikastegietako denbora (ordutegiak), sailak eta mintegiak diziiplina arloen arabera antolatzen dira. Esan daiteke hezkuntza sistemak eta zerbitzuek diziiplina arloen arabera funtzionatzen dutela. Zaila da curriculumaren antolaketa ardatza aldatzea aurrerago aipatutako baldintzak aldatzen ez badira (aldaketarekin bat etor daitezzen).

Hau da Euskal Curriculumerako diziiplina arloen proposamena:

- 1.- Hizkuntzak eta Literatura**
- 2.- Matematika**
- 3.- Teknologia**
- 4.- Musika eta Dantza**
- 5. Plastika eta Ikus Adierazpena**
- 6.- Soin Hezkuntza**
- 7.- Gizarte Zientziak**
- 8.- Mundu ikuskerak eta Erljiioak**
- 9.- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak**
- 10.- Tutoretza eta Orientazioa**


Proposamen horrek Espainiako eta Frantziako Estatueto curriculum ofizialen enborra eta haiekin bateragarria izan nahi du. Bestetik, irizpidea diziiplina arloen izenak ahalik gutxien egokitzea izan bada ere (lehenago emandako arrazoi batzuek zirela eta), arloen oinarriko diziplinen edukiak sakon berrikusi ditugu, derrigorrezko eskolaldia amaitzen duten ikasleak bizitzaren ibilbideari baldintza onetan ekiteko prest egoteko eta baliabide asko izateko, eta, horrela, hezkuntzaren xedeak lortzeko.

“Orientazioa eta Tutoretza” arloa gainerako diziiplina arloek duten tratamendu bereko curriculum arlo moduan sartzan da. Hau da, Orientazioa eta Tutoretza arloaren helburu orokorrak definitzen dira, baita kontzeptuzko edukiak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak eta konpetentzia espezifikokoak ere, horien ebaluazio irizpideekin batera. Gure ustez, Orientazioa eta Tutoretza prozesua (eta diziiplina arloak) hertsiki lotuta daude hezkuntzaren helburuekin eta hezkuntza konpetentzia orokorrekin, eta horiek lortzearen zerbitzura daude. Denek laguntzen dute (arlo bakoitzak bere ikuspegi partikularretik) pertsonaren garapena lortzen, dimentsio indibidualean, sozialean eta naturalean, eta hezkuntza



konpetentzia orokorrak lortzen (pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi). Ez da, beraz, heziketa soilik diziplina arloen funtzioa, eta hezkuntza Orientazioaren eta Tutoretzarena, guztiek baitute funtzio hezitzailea.

Diziplina arloen proposamena (“Curriculum Diseinuaren” azalpenean adierazi dugun moduan), ezin da isolatuta ulertu; maila bat da, hezkuntzaren helburuetatik, hezkuntza konpetentzia orokorretatik, konpetentzia metadiziplinarretatik eta diziplinarteko konpetentzietatik eratorritako prozesuaren baitakoak. Beraz, diziplina arloetako bakoitzak hezkuntzaren helburu eta hezkuntza konpetentzia orokor guztiak biltzen ditu.



### 6.3.- DIZIPLINA ARLOEN EGITURAKETA

Diziplina arlo bakoitza atal hauen arabera garatuko da:

#### Sarrera:

Helburuak eta hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko arloak egin duen ekarpena deskribatzen da. Arloei eman ohi zaien ohiko zentzuaren interpretazioaren aldean, guk hartutako ikuspuntuak ikuspegi aldaketa handia dakar. Gehienetan, hau hartzen da oinarritzat: diziplina arlo bakoitzak berez du hezkuntza balioa, eta diziplina guztien irudikapen orekatua eta osatua, horren ezaugarri nagusiekin batera, baliabide egokiena da hezkuntzaren helburuak betetzeko. Diziplina arlo bakoitzak berezko entitatea du, berezko kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko eremua, eta ziurtzat jotzen da arlo bakoitza bere aldetik irakatsiz gero, hezkuntzako helburuak lortzen laguntzen duela.



Curriculum honetan egiten den planteamenduaren arabera, arloak garrantzitsuak dira, baina ez berez, baizik eta hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko balio duten heinean. Hona hemen arlo bakoitzak erantzun beharreko galdera: zer ekarpen egiten du arloak hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko (“pentsatzen eta ikasten ikasi”, “komunikatzen ikasi”, “elkarrekin bizitzen ikasi” eta egiten eta ekiten ikasi)?

### **Arloko konpetentzia orokorrak:**

- Arloko konpetentzia orokorrek arlo jakin batean lan egiteko hautatzen diren konpetentziak modu sintetikoan deskribatzen dituzte.
- Arloko konpetentzia orokorrak hautatzeko eta formulatzeko erreferentzia puntua sarreraren erabili den bera da: arloak hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko egindako ekarpena. Beraz, esan daiteke arloko konpetentzia orokorrak sarreraren formulazio sintetikoa direla.
- Hori formulatzean hiru alderdi bereizten dira (dena dela, beti ez dira bereizten): a) dagokion arloaren ikaskuntza espezifikoko kontzeptuzko edo prozedurazko edukiari eta ekintzari erreferentzia egitea (zer); b) egoerari, testuinguruari edo modalitateari erreferentzia egitea, sarritan jarrerazko edukia izaten dena (nola); c) hezkuntzako konpetentzia orokorrei eta hezkuntzaren helburuei erreferentzia egitea (zertarako).
- Arloko konpetentzia orokorren kopurua txikia izan dadin saiatu gara (5-6), arlo osoaren ikuspegia errazteko.
- Arloko konpetentzia orokorrak ebaluaziorako erreferentziazko eremua dira, eta, gero, arloko konpetentzia espezifikoetan eta ebaluazio irizpideetan zehaztuko dira.

### **Ikaskuntzako edukiak:**

Ikaskuntzako edukiak multzotan aurkezten dira, eta multzoak jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukietan dituzten ezaugarrien arabera antolatzen dira.

#### *Eduki multzoak:*

Gai irizpide baten arabera multzokatutako eduki multzoak dira. Helburua da dagokion ezagutza arloarekin lotura duten zientzietatik ateratako ezagutzak eduki multzoetan sartzea.

#### *Jarrerazko edukiak*

- Ekintza nola gauzatu behar den adierazten dute, horren bidez ikaskuntzan balio inplizitu bat erakusteko. Hau da, konpetentzia definitzen duen ekintza “ongi” egiteko nola egin behar den adierazten dute.



- Jarrerazko edukiak ez dira ekintzak, ez dira kompetentziak; horien zati garrantzitsuak dira. Beraz, ez dira ekintza aditzen bidez adierazi behar.
- Jarrerak kompetentzietan jaso behar dira, kompetentzia ongi lortzeko beharrezkotzat hartzen direnean.
- Jarrerak kompetentzietan sartzen dira, eta ez dira haietatik kanpo ebaluatu behar.
- Eduki mota hori ongi etor daiteke curriculumaz gaindiko kompetentziak arloen kompetentzietan jasotzeko, batez ere arloaren kompetentzia espezifikoetan, horiek baitira hezkuntza kompetentzia hurbilenak.

#### *Prozedurazko edukiak*

- Ekintza bat ordenatuta gidatzeko jarraitu beharreko araei erreferentzia egiten dieten ikaskuntza objektuak dira.
- Prozedurak ez dira gauzatutako ekintza, gauzatzeko jarraitzen diren arauak baizik.
- Prozedurek egitura linealagoa eta mekanikoagoa izan dezakete. Oso linealak eta mekanikoak direnei algoritmo deitzen zaie, eta linealtasun eta mekanikotasun gutxikoei heuristiko.
- Prozedurak esplizituki irakatsi behar dira, eta ez da pentsatu behar ikasleek ezagutzen dituztela.
- Prozedurak ikaskuntza objektu interesgarriak dira eskuarki erabiltzen direnean.
- Modu honetan adierazi behar dira: ...-t(z)eko arauak.

#### *Kontzeptuzko edukiak*

- Kompetentzia bat lortzeko erabiltzen diren hitzei edo terminoei erreferentzia egiten dieten ikaskuntza helburuak dira.
- Gai zerrenda tradizionalen zati izan dira, eta, eskuarki, kontzeptuz antolatutako zerrendek osatu dituzte.

Mota honetako edukizat hartu behar dira bai semantika edo harreman ikasketak bilatzen dituztenak, bai ikaskuntza faktikoak bilatzen dituztenak.

Lortu beharreko kompetentzien zati diren kontzeptuzko edukien adibide asko daude:

- Ikaskuntza semantikoa (esanahia) helburu duten kontzeptuzko edukiak: ibaia, mendikatea, zatikia, bularrezurra, etab.
- Ikaskuntza faktikoa helburu duten kontzeptuzko edukiak: datu geografiko garrantzitsuak, irudi lauen areen formulak, etab.

Ikaskuntzako edukiak aurkezteko ordena aldatu egiten da arlo bakoitzaren ezaugarrien arabera, nahiz eta funtsean arlo guztien edukiak berdinak izan (eduki multzoak eta jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukiak). Lehenengo eta behin, eduki multzoen justifikazioa aurkezten da. Gero, jarrerazko edukiak aurkezten dira. Askotan, kontzeptuzko eduki bakoitza prozedurazko eduki batekin



lotzen da, eta prozedurazko edukia jarrerazko eduki batekin. Proposamen honetan, jarrerazko edukiak modu independentean formulatzea hobetsi dugu, jarrerak berdinak baitira eduki multzo guztietan eta kontzeptuzko eta prozedurazko eduki guztietan. Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak elkarrekin konektatuta edo bereiz formulatzen dira, arlo bakoitzaren ezaugarrien arabera.

#### **Arloko kompetentzia orokorrak:**

- Arloko kompetentzia orokorrak zehatzago deskribatzen dituzten kompetentziak dira, eta ikasgelan gauzatu beharreko ikasketa iradokitzeke adinako zehaztasun maila izan behar dute.
- Arlo batean kompetentzia zenbateraino lortu den adierazten duten adierazleak dira, eta pistak ematen dituzte ebaluazio prozesua bideratzen laguntzeko.
- Arloko kompetentzia espezifikiko bakoitza arloko kompetentzia orokorrekin eta eduki multzoekin lotzen da (ikus taulak).
- Egileen irizpidearen arabera, kompetentzia espezifikoek arloaren kompetentzia orokorrak lortzeko zenbateko garrantzia duten jakin behar da (1 = behar beharrezkoa; 2 = garrantzi handikoa; 3 = garrantzitsua).

#### **Ebaluazio irizpideak:**

- Arloko kompetentzia bakoitzerako definitzen dira, eta kompetentzia baten lorpen maila erabakitzeke kontuan izan beharreko arloak adierazten ditu.
- Ebaluazio irizpideak kompetentziak ere badira, baina kompetentzia espezifikoak baino zehatzagoak dira.
- Ebaluazio irizpideak kompetentzia baten lorpen maila zehazteke eskalak osatzeko baliatu behar dira.
- Arloko kompetentzia espezifikiko bakoitzarentzat, beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira.




## 7.- INFORMAZIO ETA BALIOESPEN PROZEDURAK ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURAK

Curriculum onena zein den baloratzea oso konplexua da. Derrigorrezko eskolaldirako hezkuntza xedeak, hezkuntza konpetentzia orokorrak, ikaskuntzako edukiak, lortu beharreko konpetentziak eta ebaluazio irizpideek zein izan behar duten baloratzeko irizpideak aldatu egiten dira denboran, eta lekuetan, baita leku-denbora koordinatu berean ere. Aldaerak asko izan daitezke: gizakiaren eta gizartearen eredu perfektuaren eta beharren interpretazioa eta ezartzen diren lehentasunak, curriculum ereduari buruzko aukeraketa, ikastetxearen kultura pedagogikoa, etab. Curriculumaren aukeraketa ezin da, beraz, arrazionaltasun zientifikoan edo teknikoan soilik oinarritu; funtsean arrazionaltasun praktikoan oinarritutako erabaki soziala da.

Hori horrela, elementu giltzarriak dira Euskal Curriculumuma baloratzeko interesatuen parte hartzea, erabakiak hartzeko prozedurak eta proposamenaren onarpen maila. Beraz, esan daiteke Euskal Curriculumaren balioa eta ezartzeko zilegitasuna baldintza horiek lortzearen mende egongo dela.

Euskal Curriculumari buruzko balioespen eta erabakitze prozesua bi fasetan egingo da:



### 7.1.- 1. FASEA: EUSKAL CURRICULUMAREN BALIOESPEN OROKORRA ETA EUSKAL CURRICULUMA HOBETZEKO PROPOSAMENAK.

Lehenengo fasean, Euskal Curriculum osoaren kontrastea eta balioespena egingo da: helburuak, hezkuntza konpetentzia orokorrak, eduki metadiziplinarrak eta interdiziplinarrak eta diziplina arloak. Azken batean, proposamenaren balioespen orokorra egiteko prozesua da. Horretarako, proposamenaren esku hartzen duten sektoreei informazioa eman behar zaie proposamenaren irismenari eta jarraitu beharreko metodologiari buruz.

Kontsultako lehen fasean, Euskal Curriculum osoari buruzko balioespenaz datu kontrastatuak eta hobetzeko proposamenak jasoko dira. Aurreikuspenen arabera, balioespen prozesuaren emaitza eta



azken produktua bi dokumentutan bilduko da: a) Euskal Curriculumaren balioespenari buruzko txostena; b) Euskal Curriculumaren proposamen hobetua. Hobetutako proposamen horrek bat egiten du “proposamen” hitzaren esanahiarekin; hau da, orientagarria da, ez derrigorrean bete beharrekoa, eta irekita geratzen da nahi duten ikastetxeek eta hezkuntza administrazioek aurrerantzean erabiltzeko, dela zatika, dela osorik.

### 7.1.1. – Balioesteko/hobetzeko inkestak eta inkestetan esku hartzen duten estamentuak

Euskal Curriculumaren balioespen orokorra egiteko eta hura hobetzeko, bi inkesta mota egingo dira:

- a) Euskal Curriculumaren **eremu orokorra** balioesteko/hobetzeko inkestak: planteamendu orokorra, hezkuntzako konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak.

Estamentu guztiek erantzun beharrekoak: erakundeen ordezkaritza, zuzendaritza taldea, irakasleak, ikasleak, hezkuntza zerbitzuak eta adituak, gizarte erakundeak.

- b) **Diziplina arloak** balioesteko/hobetzeko inkestak.

Bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Collègeko irakasleek eta beste aditu batzuek (espezialitatearen arabera) erantzun beharrekoak.

Helburua Euskal Herriko ahalik eta ikastetxe gehienetara iristea da (gutxi gorabehera 900 ikastetxe dira), bai eta beste gizarte eta hezkuntza erakundeetara ere. Aurreikuspenen arabera, estamentu hauek parte hartuko dute:

- Ikastetxeetako titularrek (titularitatea administrazioak ez duenean)
- Ikasleen gurasoen ordezkaritza instituzionalek
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeek
- Irakasleek: Haur Hezkuntzakoek, Lehen Hezkuntzakoek eta Bigarren Hezkuntzakoek.
- Ikasleek: DBHko 4. mailako eta 18 urteko ikasleen lagin batek (Batxilergoan, Erdi Mailako Zikloetan edo lan munduan dabilzanek), eta ahal bada ikasle ohiak.
- Hezkuntzako zerbitzuek eta adituek: ikuskaritzako hezkuntza zerbitzuek, irakasleei laguntzeko zerbitzuek (Berritzeguneak, Ikastolen Elkarteko eta Eskola Kristaueko profesionalak...), hezkuntzako eta diziplina akademikoetako adituek...
- Gizarteak: gizarte eta hezkuntza bizitzan esku hartzen duten erakundeek.



Inkestaren helburua	Parte hartzen duten estamentuak								
	Titularitatea	Gurasoak	Zuzendaritza	Irakasleak			Ikasleak	Zerbitzuak eta adituak	Gizartea
				HH/LMH	DBH	DOBH			
<b>Eremu orokorra:</b>									
- Planteamendu orokorra	X	X	X	X	X	X	X	X	X
- Hezkuntza konpetentzia orokorrak									
- Eduki metadiziplinarrak									
<b>Diziplina arloak:</b>									
1.- Hizkuntzak eta literatura					X			X	
2.- Matematika					X			X	
3.- Teknologia					X			X	
4.- Plastika eta Ikus adierazpena					X			X	
5.- Musika eta dantza					X			X	
6.- Gorputz hezkuntza					X			X	
7.- Gizarte zientziak					X			X	
8.- Mundu ikuskerak eta erlijioak					X			X	
9.- Natur zientziak eta osasun zientziak					X			X	
10.- Tutoretza eta orientazioa					X			X	

### 7.1.2.- Galdetegiei erantzuteko eta galdetegiak biltzeko prozedura

- Galdetegiko galderei behar bezala erantzuten laguntzeko, informazioa emango da, bai aurkezpenen bidez, bai [www.euskalcurriculum.com](http://www.euskalcurriculum.com) web orriaren bidez.
- Kontsulta eta segimendurako zerbitzu tekniko bat osatuko da, zalantzak argitzen eta galdetegiak jasotzeko sistema operatibizatzen laguntzeko.
- Galdetegian, "Planteamendu orokorra" izeneko zatian, item bakoitzaren bukaeran galdetegiko galderei erantzuten laguntzeko erreferentziatzko informazioa non bila daitekeen adieraziko da.
- Eremu orokorrari buruzko galderei estamentu guztiek erantzun behar diete, eta diziplina arloei buruzkoak, arlo bakoitzeko adituek.

### 7.2.- 2. FASEA: EUSKAL CURRICULUM OINARRIZKO ETA KOMUNARI BURUZ ERABAKIAK HARTZEA.

Lehenengo faseko emaitzen balioespen orokorrak aukera emango du Euskal Curriculum oinarrizko eta komunaren proposamena zehazteko. Gero, berriro balioetsi beharko da, Euskal Herriko ikas-tetxeek izan nahi ditugun puntu komunei eta partekatu nahi dugunari buruz adostasunera iristeko, norberaren arrazoiek edo norberaren herri, eskualde, hezkuntza sare, autonomia edo estatuek sortutako desberdintasunak gainditzeko.





Bigarren fasean, erabakiak hartu behar dira. Proiektuarekin bat egiten duten hezkuntza sektoreek eta organismoek konpromisoa hartu behar dute ikastetxeekin elkarlanean jarduteko, curriculuma praktikan jartzeko behar diren baliabide guztiak emanez (irakasleen prestakuntza, material kurrikularrak, ebaluazioa...).

Euskal Curriculum oinarrizko eta komunari buruzko erabakiak hartzeko prozedura dagokion dokumentu espezifikoan zehaztuko da.

**Azken oharra:** proiektua bultzatzen duten hezkuntza erakundeek hemen aipatutako prozedura aldatzeko aukera dute.



IA ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

PLANTEAMENDU OROKORRA

**Argibideak:**

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumaren oinarrian dagoen planteamendu orokorrari buruzko duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako, seinala ezazu (X baten bidez) item bakoitzari buruzko zure adostasuna, ondorengo eskalaren arabera:  
1= Erabat desados; 2.- Desados; 3- Ez alde eta ez aurka; 4.- Ados; 5.- Erabat ados
- Item bakoitzaren bukaeran, item horri buruzko informazioa aurkitzeko erreferentzia seinalatzen da.
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

	1	2	3	4	5
1.- Euskal Curriculumerako proposaturiko hezkuntzaren xedeak baliozko erreferentziak dira bizitza osorako, eta derrigorrezko eskolaldiari zentzia eta orientazioa emateko balio dute. <i>4. kapitulua: Hezkuntzaren xedeak, 25-28 or.</i>					
2.- UNESCOko eta Europako Batzordeko txostenen (1996) erreferentzia esparruak, bai eta Euskal Curriculumaren proposamenean egiten den etorkizuneko beharren azterketak ere, egoki adierazten dituzte Euskal Herriko gizarteak eta hezkuntzak dituzten erronkak. <i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 11-14 or.</i>					
3.- Euskal Curriculumaren banean, Europan integratutako gizarte batean bizitzeko eta munduarekin elkarerraginean bizitzeko beharrezkoak diren kompetentziak sartu behar dira. <i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 11-14 or.</i>					
4.- Derrigorrezko eskolaldiaren funtzio nagusia ikasleak bizitzarako presta daitezen lortzea da; horretarako, gai izan behar dute pentsatzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin bizitzeko, norbera izateko eta egiten eta ekiten ikasteko. <i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i> <i>IV. eranskina, 341-414 or.</i>					
5.- Bat nator hezkuntza kompetentzia eta azpikompetentzia orokorreari buruz Euskal Curriculumean egiten den interpretazioarekin. <i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i> <i>IV. eranskina, 341-414 or.</i>					
6.- Irakasleek, aritzen diren hezkuntza maila edozein dela ere, hezkuntza kompetentzia orokorrak diziplina arloen irakaskuntzarekin integratu behar dituzte beren irakaslanean. <i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i>					
7.- Diziplina arloek lotuta egon behar dute hezkuntzaren xedeekin eta hezkuntza kompetentzia orokorrekin, eta horiek lortzera bideratuta egon behar dute. <i>5. kapitulua: Hezkuntza kompetentzia orokorrak, 29-36 or.</i> <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
8.- Euskal Curriculumak euskararen eta euskal kulturaren transmisioa ziurtatu behar du. <i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 8-11 or.</i>					
9.- Hizkuntzak eta Literatura arloa Euskal Curriculumeko diziplina arloetan sartu behar da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldirako. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					



	1	2	3	4	5
10.- Hizkuntzak eta Literatura arloko antolamenduaren ezaugarriek honako hauek izan behar dute: antolamendu eleanitza izan behar du, euskara ardatz duela, eta hizkuntzen antolamendu integratua izan behar du -hau da, esparru komun batean, hizkuntzek elkarren osagarri izan behar dute-. <i>Hizkuntzak eta Literatura arloak, 95-172 or.</i>					
11.- Matematika arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
12.- Teknologia arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
13.- Musika eta Dantza arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
14.- Plastika eta Ikus Adierazpena arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
15.- Gizarte Zientziak arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
16.- Mundu ikuskerak eta Erlijioak arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
17.- Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
18.- Tutoretza eta Orientazioa arloa Euskal Curriculumumeko diziplina arloetan sartu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolaldiaren barnean. <i>6. kapitulua: Diziplina arloak, 37-40 or.</i>					
19.- Euskal Curriculumuma balioesteko eta legitimatzeko, elementu hauek funtsezkoak dira: interesatuen partaidetza, erabakiak hartzeko prozedurak eta proposamenaren onarpen maila. <i>7. kapitulua: Informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedura, 44-47 or.</i>					
20.- Euskal Curriculumumaren informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedurekin bat nator. <i>7. kapitulua: Informaziorako, balioespenerako eta erabakiak hartzeko prozedura, 44-47 or.</i>					
21.- Komenigarria eta garrantzitsua litzateke Euskal Herriko hezkuntza administrazioak ados jartzea, Euskal Curriculum oinarritzko eta komunari buruzko proposamen bate-ratua egiteko. <i>1. kapitulua: Beharren azterketa, 8-11 or.</i>					
22.- Euskal Curriculumumeko planteamenduaren, egindako proposamenaren eta proposamen hori baloratzeko eta hobetzeko prozedurei buruzko zure balioespen orokorra.					



**Planteamendu orokorra hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkenak...)



**Iruzkina**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

Oharra: Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han erantzuteko.





## **II.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORREN ETA EDUKI METADIZIPLINARREN PROPOSAMENA**



# 1.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK EUSKAL CURRICULUMEAN

## 1.1- IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI

Konpetentzia kognitiboa garatzea lehentasun eta anbizio handiko eta etorkizunera begirako helburua da hezkuntza sisteman; izan ere, konpetentzia kognitiboaren bidez, gizakia ezagutzak bereganatzeko eta sakon aztertzeko, prestakuntza eta lan inguruneetan lehiatzeko, mundu anitz eta teknologikoan elkarrekin bizitzeko eta barne munduan eta gainerakoekiko elkarreraginean bere burua hobeto ezagutzeko gai da. Gizarteak ikasleek pentsamenduaren trebetasunak bereganatzeko eskatzen du, eta, horren ondorioz, hezkuntzaren helburuen artean konpetentzia intelektual horiek sartzen dira. Ikasten eta trebetasunez pentsatzen ikastea lorpen asko erdiesteko bitartekoa da, baina helburua ere bada berez. Gizabanakoak ez dio inoiz pentsatzeari utzi behar, irrazionaltasuna gizateriak aurrera egiteko oztopo nagusia baita.

Identifikatzeko, alderatzeko, sailkatzeko, aztertzeko, sintetizatzeke, serieak egiteko, berritzeko, aurretik esateko, orokortzeko eta ebaluatzeko prozesuak, bai eta adimena eta portaera arautzeko prozesuak ere, ezinbestekoak dira informazioa bilatzeko, oinarritzeko, ebaluatzeko, aplikatzeko eta sortzeko ez ezik beste hainbat gauza egiteko ere: etengabeko gizarte eta kultur aldaketetara egokitzeke; erabaki zuzenak hartzeke –bai eta arriskua dagoenean eta ziurgabetasunezko egoeretan ere–; gai gatazkatsuak malgutasunez, konpromisoz eta buruargitasunez konpontzeke; pentsamenduaren ikaskuntzak eta trebetasunak barneratzeko eta aplikatzeko; eta proposatutako edo defendatutako balioak kontuan hartzeke. Hortik zentzuzko ondorio hau ateratzen da: pertsona batek zenbat eta argiago hauteman bere ahalmen kognitiboa, lortu nahi dituen helburuak eta bere eginkizuna betetzeko jarraitu beharreko bidea, orduan eta motibazio handiagoa izango du ikasteko eta ahaleginak egiteko.

«Ikasten eta pentsatzen ikastea» helburu handia da, eta ez da lortuko bat-batean, ustekabeko gertakari baten bidez, baizik eta kontzientea, programatua, etengabekoa eta ebaluagarria den esku-hartze baten bidez. Ikerketen arabera, heziketak arreta bera jarri behar du pentsamenduaren prozesuan eta edukietan, eta, bi horiek egoki uztartuz gero, ikaskuntza esperientziak sortuko dira ikaslearengan; horien ondorioz, ikasleak aldaketa esanguratsuak izango ditu adimenaren berrantolaketan eta edukiak menderatzean. Horrenbestez, curriculuma baliabide egokia da pentsatzeko eta irakasteko; beraz, eskolaldiko urteetan, bibliografia zientifikoaren arabera, pentsamendua eratzen duten gaitasunak ahalik eta modu onenean garatzeko aukera izango du ikasleak.


Irudi honetan, «Ikasten eta pentsatzen ikasi» konpetentziaren edukiak daude, gizakiaren pentsamenduaren bost azpikonpetentzietan antolatuta. Hona hemen azpikonpetentziak: 1) Jasotzen den informazioaren, ikasten diren kontzeptuen eta bizitzaren eta pertsonaren beraren arazoan interpretazioa; 2) Informazio berriaren eta norberaren ekimenaren garapena; 3) Informazioa eta eratzen diren ideia eta judizio guztien ebaluazioa; 4) Erabaki garrantzitsuak hartzea, gehienbat, zailtasunak daudenean; 5) Arazo irekiak konpontzea –horretarako, aurreko prozesuak gauzatu behar dira–. Horrez gain, irudian,





kompetentzia horrek behar bezala funtzionatzeko erabili beharreko baliabide kognitibo batzuk daude nabarmenduta. Hona hemen baliabide horiek: metakognizioa edo pentsamenduaren beraren ezagutza, jokabidea eta ikaskuntza arautzea, ikasteko estrategia ugari erabiltzea eta lortutakoa hainbat eduki akademikotara eta norberaren eta laneko egoeretara transferitzea.


Gero, Bigarren Hezkuntza Orokorreko (16 urte) azken azpikonpetentziak deskribatzen dira, bai eta horiek ebaluatzeko zenbait irizpide eta orientazio ere.





### IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI KONPETENTZIAREN MAPA

(Swartz eta Parks-en lanaren egokitzapena, 1994)



**Oharra:** Parentesi arteko zenbakiak kompetentzia zehatz bakoitzaren garrantzia adierazten dute, irizpide hauen arabera: 1= oso garrantzitsua, 2= nahiko garrantzitsua 3= garrantzitsua.



### 1.1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua

**Jasotzen den informazioa modu esanguratsuan interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutzaren, munduaren eta gainerakoen sakoneko ezagutza lortzeko.**

Informazioa modu esanguratsuan interpretatzeko konpetentziaren oinarriak honako hauek dira: eza gutza oro –hala berriak, nola gai jakin bati buruzko aurretiko ezagutzaren osagarriak– modu esanguratsuan eta argi ulertzea, modu pertsonalean eta hautemateko moduan azaltzea eta beste egoera batzuetara estrapolatzea. Batetik, informazio hori prozesatu egin behar da; hau da, informazioan nahi denean eskuratu, adierazi, aldatu, biltegitatu eta berreskuratu. Bestetik, oinarritzko prozesu mentalak ere egin behar dira; esaterako, argudio baten elementuak identifikatu, antzekotasunak eta desberdintasunak alderatu, ezaugarri komunen arabera sailkatu, zatiak osotasunarekin lotu, zatiak berrantolatu eta ikuspegi berri bat aurkeztu, irizpide jakin baten arabera sekuentziatu eta ideien eta portaeren oinarri diren arrazoiak eta ondorioak aurkitu. Konpetentzia hori garatzeak aukera emango du curriculumeko edukiak –adierazpenekoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak– menderatzeko eta barneratzeko, bai eta ekintzak, gertaerak eta teoriak aztertzeko, eta egiten eta esaten den guztia ulertzen dela erakusteko ere.

### 1.1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea

**Informazioa sortzea, ideia, irudi edo gauza asko denbora gutxian sortuz. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoria askotakoak, orijinalak eta xehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko.**

Informazioa sortzeko konpetentzia prozesu kognitiboak, aurretiko ezagutzak, nortasunaren ezaugarriak eta motibazioa konbinatzean, egokitzean eta aplikatzean datza, mota askotako ideia erabilgarri, kualifikatu eta garrantzitsu ugari sortzeko. Ideiak une hauetan sortzen dira: arazoei hainbat irtenbide proposatzean, erabakiak hartzean hainbat aukera formulatzean, gertatzen ari dena eragiten duten balizko arazoiei buruzko hipotesiak egitean eta norberaren ekintzen edo inguruan gertatzen denaren ondorioak aztertzean. Irudimen aktiboak funtzio garrantzitsua du sortzeko ekintzan, elkarrengandik urrun dauden elementuen artean ahalik eta lotura mental gehien egitea ahalbidetzen baitu; horietatik, metaforak sortu eta informazio semantikoko, episodikoko, zenbakizko, prozedurazko eta espaziozko adierazpen mental garrantzitsuak sortzen dira. Ideiak sortzeak gertatutakoa ulertzen, planteatutako egoerari erantzuna ematen, norberaren jokabideaz arduratzen eta norberaz kontzeptu positiboa eta autoestimu baliagarria izaten laguntzen du.

### 1.1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa

**Informazioa modu kritikoan ebaluatzea, ideien oinarri diren arrazoiak bilatuz eta norberaren jarrerak eta gaitasuna eta inferentzia trebetasunak oinarritzat hartuz, ziurtasunez arrazoi sendotan oinarritutako informazioa bakarrik onartzeko eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko.**



Informazioa ebaluatzeko kompetentzia ideien sendotasuna eta ekintzen baliagarritasuna zehatz-mehatz ikertzea da, gero informazioa ontzat hartzeko ala baztertzeko. Ebaluazioak baldintza hauek behar ditu: a) pentsamendu kritikoaren zenbait trebetasun abian jartzea; adibidez, informazio iturria fidagarria den ala ez ikertzea, gertatzen denaren arrazoiak interpretatzea, balizko ondorioak aurretik esatea, emaitzak orokortzea, arazoei buruz analogikoki arrazoitzea eta aurretik formulatutako premisetan oinarritutako ondorioak ateratzea; b) kanpo irizpide objektiboak eta adituen iritzia erabiltzea; batez ere, gaiari buruz ezer asko ez badakigu; c) argudio baten alde onak eta txarrak aztertzean, jarrera mental irekia, malgua, zintzoa eta hausnarketan oinarritutako bizitza estiloa izatea, eta, egingakoarekin lotutako proba berriak agertzean, aldaketarako jarrera irekia izatea. Trebetasun horiek guztiek printzipio komun hau dute: judizio bat onartu aurretik, ziur egon behar da judizioa arrazoi onetan oinarrituta dagoela; bestela, ez da onartu behar. Kompetentzia hori funtsezkoa da informazio berria inferitzeko, funtzio pertsonalak eta profesionalak behar bezala betetzeko eta helburuak ahalik eta modu eraginkorrean lortzeko.

#### 1.1.4.- Erabakiak hartzea

**Erabaki eraginkorrak hartzea, prozesuaren urrats egokiei jarraituz eta urratsak arautuz, aukera zehatzak egiteko egoeretan adimenez eta zentzuz jokatzeko.**

Norberaren edo taldearen erabakiak hartzeko kompetentzia giza pentsamenduaren prozesu zailenetakoa da, prozesua gauzatzeko urrats hauek eman behar baitira: hartu beharreko erabakia planteatu, erabaki hori beharrezko egiten duten arrazoiak zehaztu eta adimenean prozesu osoa irudikatuz; xedeak zehaztu, lortu nahi dena argi eta garbi definituz; lortu nahi den helburura iristeko alternatibak edo ekintzak sortu; alternatiba horiek ebaluatu, alternatiba bakoitzaren alde onak eta txarrak eta izan ditzakeen ondorioak, onuragarriak zein kaltegarriak, aztertuz; alternatiba onena aukeratu –hau da, emaitza orokor eraginkorrena aurreikusten duena–; eta prozesua eta azken emaitzak balioetsi. Horrez gain, erabakietan eragiten duten faktoreak aztertu behar dira (erabakiarekin lotutakoak –ziurgabetasuna, zailtasun maila, eskura dagoen informazio garrantzitsua eta denboraren presioa–, erabakitzen duen subjektuarekin lotutakoak –prozesua arautzeko eta informazioa, motibazioa eta sentipenak aztertzeko gaitasuna– eta erabakiaren inguruarenak –gizarte presioa, bai eta beste pertsona batzuen edo laneko presioa ere–), eta ulermenean oinarritutako pentsamenduekin, pentsamendu sortzailearekin eta pentsamendu kritikoarekin lotutako trebetasunak erabili behar dira. Kompetentziaren helburua erabaki koherenteak eta zuzenak hartzeko judizio baliagarriak garatzea da.

#### 1.1.5.- Arazoak konpontzea

**Arazoak eraginkortasunez konpontzea, ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu sortzailearen eta pentsamendu kritikoaren trebetasunak erabiliz eta goi mailako prozesu**



**horrek behar dituen aldiak urratsez urrats jarraituz, garrantzi eta eragin handiko zein txikiko zailtasunei aurre egiteko eta pentsamenduaren jarduera guztiak integratzeko.**

Taldean edo nor bere kabuz arazoak konpontzeko kompetentzia prozesu kognitiboa da, eta, gainera, erabakiak hartzeko prozesua baino konplexuagoa; izan ere, konponbide egokiena aukeratzeaz gain, konponbidearen eraginkortasuna ere egiaztatu behar da. Arazoak konpontzeko, pentsamendu konbergentearen eta dibergentearen trebetasunen aldiak erabili behar dira: egoera gatazkatsua identifikatzea; arazoa ahalik eta zehatzen definitzea; konponbide bat baino gehiago sortzea; proposatutako konponbideak ebaluatzea, horien ondorioei buruz pentsatuz; konponbide onena aukeratzea, konponbidea gauzatzeko dauden aukerak kontuan hartuta; eta, azkenik, aukeratutako konponbidea ezartzea, horri buruzko plan bat eginez eta interesdunak konponbide hori onena dela konbentzitzen. Horrez gain, ezinbestekoa da jakitea zer baliabide eta zer oztopo sor daitezkeen konponbide hori gauzatzeko. Erabakiak hartzen dakien pertsona izatea garrantzitsua da gatazkak gainditzeko eta helburu pertsonalak eta sozialak lortzeko.

#### **1.1.6.- Baliabide kognitiboen erabilera**

**Baliabide kognitiboak erabiltzea (adibidez, metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokabide estrategikoa eta ikasitakoaren transferentzia), ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendua kritikoaren eta pentsamendu sortzailearen trebetasunak eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko prozesuak erabiliz, pentsamenduari berari buruz hausnartzeko, jokabidea behar bezala gidatzeko eta ikaskuntza orokortzeko.**


Baliabide kognitiboak erabiltzeko kompetentzia pentsamendurako eta ikaskuntza prozesurako ezinbestekoak diren gaitasunez osatuta dago. Metakognizioa edo pentsamenduaren beraren ezagutza handitu egiten dira, zer prozesu mota egin den identifikatuz, prozesu hori nola egin den aztertuz, emandako urratsak bereiziz, behar bezala lan egin den ebaluatuz eta gerora erabiltzeko hobekuntzak kontuan hartuz. Ikaskuntzarekin lotutako jokabideak erregulatzen dira, jarduera egin aurretik planifikatuz, plan hori betetzen den monitorizatuz eta lortutakoa ebaluatuz, bai eta erroreak, transferentziak eta aldaketa proposamenak ere. Estrategikoki jokutzen da, informazioa barnerratzeko, sortzeko eta balioesteko prozesuetan ikasteko modurik onena aukeratuz. Eta, azkenik, ikasitakoaren transferentzia –ikasuntzaren giltzarri den elementua– lortzen da, hainbat egoeratan ikasitakoaren transferentziako adibideak emanez eta hainbat inguruetan erabiliz. Lau eremu horiek giza ahalmen kognitiboa bermatzeko dira, bai eta ikaskuntza prozesua errazago egiteko eta ikaslea bere judizioekin eta jokabideekin gero eta arduratsuago izateko ere.



## 1.2.- KOMUNIKATZEN IKASI

Komunikazioa giza harremanen oinarria da. Gizartea komunikazio elementu indibidualak eta kolektiboak uztartzen dituen eremu askotako *makro-erakunde* komunikatiboa besterik ez da. Komunikazioa gizarteak funtzionatzeko duen baliabide kognitibo eta espresibo nagusia da: kognitiboa, munduaren eza-gutza ahalbidetzen duelako, eta, espresiboa, ezagutzak partekatzea ahalbidetzen duen baliabidea delako. Funtsean, irakaskuntza-ikaskuntzako hezkuntza prozesua komunikatiboa eta interaktiboa da.

Gizakiak komunikatzen eta bizitzen, bere kulturaren barruan izaten, ikasi behar du. Kultura eta komunikazioa gizabanakoaren eta gizartearen eremuak erreferentziatzen hartzen dituzten paradigmatik dira. Komunikazioa eta kultura ikaskuntza prozesuen emaitzak dira, eta gizakiek hainbat inguruetan garatzen dituzte prozesuak: familian, eskolan, hedabideetan, eta bizitzako une guztietan. Eta hori egiteko, hizkuntza naturaletako hitzezko hizkuntza (ahozkoa edo idatzizkoa), hizkuntza artistikoak (gorputzaren bidezkoa, musikaren bidezkoa, plastikoa...) edo matematikaren hizkuntza erabiltzen dituzte. Hizkuntza horiek guztiak modu integratuan erabiltzen dira, egungo bizitzan eragin handia duten bitartekoen eta euskarrien bidez; esate baterako, gizarte hedabideen edo teknologia berrien bidez.



Zalantzarik gabe, hitzezko hizkuntza, ahozkoa nahiz idatzia, giza komunikaziorako baliabide nagusia da, komunikatzeko gainerako moduen bitarteko handiagoa edo txikiagoa baita. XXI. mendeko euskal gizartean, hitzen bidez komunikatzeko ez da nahikoa ama hizkuntzan behar bezalako konpetentzia edukitzea, ez eta konpetentzia elebidun orekatua eskura izatea ere; ezinbestekoa da hizkuntz baliabide ele-anitzak izatea; hau da, euskara bere hizkuntz eremuaren lehenengo hizkuntza nagusitzat hartuta, gaur egungo egoera konplexuari malgutasunez erantzuteko aukera izatea.



Bestalde, orain dela gutxi arte, alfabetazioa irakurtzearekin eta idaztearekin lotzen zen, alfabetatua irakurtzen eta idazten zekiena baitzen. Eta alfabetatuta egotea ezinbestekoa zen eskubide osoko herritarra izateko. Hala ere, gaur egun, *multimedia* gizartean bizi gara, eta hizkuntzen integrazioak komunikatzeko modu berriak eta indartsuak sortzen ditu. Gaur egun, gizartean bene-benetan parte hartzeko, komunikazioan alfabetatuta egon behar dugu, zentzurik zabalenean, hitzeko hizkuntzaren hainbat adierazpenetan ez ezik, ikus-entzunezko hizkuntzetarako eta hitzik gabeko hizkuntzetan ere konpetentzia izan behar baitugu: musika ulertzeko eta musikaren bidez adierazteko, dantzaren eta dramatizazioaren bidezko gorputz adierazpenerako, adierazpen plastikorako, ikus adierazpenerako, zenbakizko adierazpen eta ulermenerako... Horrez gain, ezinbestekoa da ikus-entzunezko hedabideen eta Informazio eta Komunikazio Teknologien bidez ulertzeko eta adierazteko konpetentzia izatea.

Euskal Herria Informazio Gizartean aurrera doa. Komunikazio mediatikoak eta kultur industriren ekoizpenak gero eta garrantzi handiagoa dute Euskal Herriko gizarte bizitzaren hainbat eremu eratzean. Kultura, politika, identitatea, ekonomia eta kontsumoa, neurri handi batean, horien inguruan antolatzen diren espazioak dira. Informazio, propaganda, publizitate eta kultur edukien etengabeko fluxuaren erdian bizi gara, eta horietaz baliatzen gara gure aisia eta harremanak antolatzeko. Kultur ekoizpenaren eta ekoizpen mediatikoan oinarrituta, gure identitateak –gizabanakoarena, taldearena– eta gure ideologiak eraikitzen ditugu, besteak beste. Euskal Herria, kulturalki eta politikoki, bai eta geografikoki ere, kultur industriren eta hedabideen bidez eraikitzen eta transmititzen den errealitatea da gaur egun.

Komunikazio modu horiek guztiak modu jakin batean ekoizten eta hedatzen dira, gero eta modu industrialagoan, merkantilistagoan eta orokorragoan. Globalizazioaren egungo garaian, izateko bi modu daude, eta biak ezinbestekoak dira gure herri txikiarentzat eta, batez ere, euskararentzat. Bata berezko kultura eta komunikazioa berezko hizkuntzan ekoizteko eta transmititzeko gaitasunarekin –baliabideak, ezagutzak...– lotuta dago; bestea, hainbat baliabideren bidez eta beste hizkuntza batzuetan iristen zaigun informazioa deskodetzeko eta interpretatzeko gaitasunean oinarrituta dago. Egoera konplexu hori behar bezala kudeatzeko –azken batean, behar bezala komunikatzeko–, ez da nahikoa komunikazio moduak ezagutzea, ez eta hainbat hizkuntza natural, hizkuntz mota eta baliabideak ulertzea eta haien bidez adieraztea ere; horrez gain, inguruan dugun errealitate mediatikoaren eta linguistikoaren aurrean kontzientzia soziokomunikatiboa eratu behar dugu, egoera bakoitza eta jasotako mezu bakoitza kritikoki balioesteko eta erabaki autonomoak hartzeko ezagutzen ditugun hizkuntzak, hedabideak eta teknologia berriak erantzukizunez erabil ditzagun.



### 1.2.1.- Ahozko hizkuntza

**Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen adierazpena erai-  
kitzean, ahozko hizkuntza jariaortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahoz-  
ko komunikazioaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lor-  
tzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura parte-  
katzeko.**

Ahozko komunikazioa menderatzea lehentasunezko konpetentzia da gizakiaren garapenean; batez ere, gizarte trebetasunetan. Hitz egiten –eta entzuten– jakiteak esan nahi du hizkuntza erabiltzeko konpetentzia dugula *continuum* batean, eta prozesu horretan komunikazio modu asko sartzen dira: bai ahozko komunikazio ohikoenak, informalak eta bat-batekoak, erabilgarritasuna edo bizikidetzaren helburu dutenak, bai erabilera gero eta landuagoak eta formalagoak behar dituzten komunikazio egoerak, eremu akademikoari edo profesionalari lotuta daudenak.

Ahozko bi diskurtso mota bereizten ditugu. Lehenik eta behin, askok kudeatutako diskurtso, interaktiboa dago, komunean eraikia etengabeko negoziazio prozesu baten bidez. Diskurtso mota horretan, bi konpetentzia mota sartzen dira. Batetik, egoera informaletan behar bezalako elkarrizketak izateko konpetentziak daude, eta horiek bigarren hizkuntzetan bereziki hartu behar dira kontuan. Bestetik, egoera formalekin –akademikoekin eta profesionalekin– lotutako konpetentziak daude; adibidez, lan komun batean lankidetzan jarduteko elkarrizketa eta norberaren ideiak argudiatzeko, mintzakidea konbentzitzeko edo adostasuna lortzeko eztabaida.

Bigarrenik, bakar batek kudeatutako diskurtsoa dago, diskurtso idatziaren ezaugarrietatik gertu eta formaltasun maila handikoa. Hona hemen diskurtso mota horrekin lotutako konpetentziak: adi entzutea eta informazio garrantzitsuari buruzko oharrik hartzea; aurretik planifikatutako testu monologatuak ekoiztea; eta, beste hizkuntza batzuk baliatuta (ikus-entzunezkoak edo digitalak), testu horiek jendearen aurrean aurkeztea.

### 1.2.2.- Hizkuntza idatzia

**Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen berezko adierazpena eraikitzean, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta komunikazio idatziaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeko.**

Idatzizko komunikazioa ezinbesteko baliabidea da norbera eta gizartearen garatzeko, eremu guztietan ikasteko eta ezagutzak transmititzeko eta gizartean parte hartzeko ere, pertsonen arteko komunikazioaren bidez edo diskurtso instituzionala erabiliz. Horrez gain, irakurmenaren eta idazmenaren bidez partaide garen giza komunitatearen kultur ondarearen zati handi bat eskura dugu, eta hori, batez ere, literaturaren bidez adierazten da, literatura norberaren gozamen eta aberastasun iturri baita.





Idatziko komunikazioan konpetentzia edukitzeak irakurmenaren eta idazmenaren oinarriko prozesuen gaineko kontrol autonomo eta eraginkorra edukitzea dakar, bai eta prozesu horiek hainbat eremutan eta funtziotan erabiltzea ere. Izan ere, irakurtzeak funtzio hauek betetzen ditu: norberak gozatzea, informazio zehatza bilatzea, interpretazio orokorrak egitea, informazio garrantzitsua laburtzea, edo pentsamendu kritikoa garatzea. Idazteak, berriz, funtzio hauek betetzen ditu: mota askotako informazioa egituratzea eta transmititzea, eta norberaren ideiak eta ezagutzak defendatzea. Den-denak konpetentzia hori eraikitzeke ezinbesteko alderdi zehatzak dira.

### 1.2.3.- Beste hizkuntza batzuk

**Hitzezko hizkuntzaren eta hizkuntza artistikoen eta matematikoen oinarriko kodeak modu integratuan eta harmoniatsuan erabiltzea, errealitate indibiduala, soziala eta naturala hobeto interpretatzeko eta komunikatzeko, bai eta bizitzaz gozatzeko ere.**

Zalantzarik gabe, hitzezko hizkuntza (ahozkoa eta idatzia) giza komunikaziorako lehentasunezko baliabidea da. Baina badira hitzezko hizkuntzaren lagungarri eta aberasgarri diren beste hizkuntza batzuk ere (hitz abestua, hizkuntza zientifiko-matematikoa, keinuen bidezko hizkuntza), bai eta hitzik gabeko hizkuntzak ere (musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza plastikoa, dantzaren hizkuntza), eta horiek adierazi ezinezko eremuan daude eta giza komunikazioaren aukerak zabaltzen dituzte. Hizkuntza horiek guztiak modu autonomoan edo integratuan ulertzeak eta erabiltzeak ahalmen komunikatiboa eta kognitiboa handitzen dute, eta, batez ere, gizakiaren ahalmen espresiboa, afektiboa, estetikoa eta ludikoa. Ildo horretan, hizkuntza horiek erabiltzea gozamen iturri da, eta giza zorientasuna sustatzen du.

Jarraian, hizkuntza horiei dagozkien konpetentziak ditugu aipagai, modu integratuan aurkeztuta, aurrerago zehatzago eta berezita garatzen baitira diziplina arlo hauetan: Hizkuntza eta Literaturan, Matematikan, Natur eta Osasun Zientzietan, Musika eta Dantzan, Plastikan eta Gorputz Hezkuntzan.

### 1.2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak

**Gizarte komunikabideak eraginkortasunez eta autonomiaz erabiltzea, forma eta testuinguru askotako mezu mediatikoak eskuratuz eta haiek interpretatuz, ebaluatuz eta sortuz, eta hedabideen funtzionamendua eta gizarte funtzioa ezagutzuz. Horren helburua kontsumo arduratsuna eginez norberak gozatzea, informazio iturri izatea eta herritarrek parte hartzea da.**

Gizarte hedabideek eta kultur enpresek gaur egungo gizartean duten garapena izugarria denez, ezin daiteke uka hedabide eta enpresa horiek garrantzi handia dutela informazioa eskuratzeko moduetan, gizarte trukean, entretenimenduan, ideologiaren eta balioen transmisioan eta iritzia eratzean. Testuingurua aldatu egin da: lehen, hitza zen lehentasunezko informazio eta komunikazio iturri; orain, berriz, hedabideek eta ikus-entzunezko hizkuntzak inguruko errealitatea barneratzeko, interpretatzeko eta bertan esku hartzeko moduan behin betiko inpaktua dute. Nahiz eta ikus-entzunezko hizkuntza beste



hizkuntza batzuez elikatu (ahozkoa, musikaren bidezkoa, dramatikoa eta, batez ere, ikonikoa), emaitza ez da horien guztien arteko batura, baizik eta berezko hizkuntza bat, bere elementu formal, baliabide eta teknika dituela. Hizkuntza hori ezagutzea, interpretatzea eta horren bidez zuzen adieraztea atzeratu ezin den hezkuntza eginkizuna da gaur egungo munduan komunikatu eta funtzionatu ahal izateko. Horrez gain, pertsonak hedabideen barne antolaketa, funtzionamendua eta horiek baldintzatzen dituzten sistematik eta interesak ezagutu behar dituzte, hedabideek gaur egungo gizartean duten funtzioa balioesteko eta hedabideak behar bezala erabiltzeko.

### 1.2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologia

**Ohiko tresna eta baliabide teknologikoak trebetasunez, erantzukinez eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro ekoizteko, biltegitratzeko, berreskuratzeke, lantzeko eta hedatzeko edo komunikatzeko gaitasuna garatu ahal izateko, bai eta norbera eta gizartea hobeto garatzeko egokienak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barneratzeko gaitasunak emateko, informazioa ezagutza bihurtze aldera.**

Informazio gizarteko hezkuntzaren gaia jorratzean, esaten da teknologia horiek aukera ona direla hezkuntzaren multimedia planteamendua behingoz lortzeko, ikasleek ikaskuntzarako duten gaitasuna indartzen baitu. Multimedia hezkuntzaren kontzeptua ulertzeko, adierazteko baliabide, euskarri eta modu guztiak integratu behar dira: bai liburua, bai Internet, bai eta gaur egun eskura ditugun gainerako informazio edo komunikazio bideak ere.

Ikasleak lehen aipatutako hedabide guztietan eskura dugun informazio ikaragarri pilari behar bezala aurre egiten trebatzeko, Informazioa Erabiltzeko Konpetentzia (IEK) ezinbesteko kontzeptua da. Horrenbestez, subjektuek Informazioa Tratatzeke Teknologia (adibidez, IKTak) erabiltzeko trebetasun aurreratuak eskuratu behar dituzte; kontuan hartuta trebetasun horiek ekintza esanguratsuak egitea edo arazo esanguratsuak konpontzea izan behar dutela helburu.

Definizio horren ezaugarri nagusia hau da: komandoen ikaskuntza mekanikotik eta erreminten funtzioetatik aldendu eta eguneroko bizitzako egoera hurbiletan eta interesgarrietan oinarritutako ikaskuntza sustatzea, eta IKTek aberastutako inguruneak erabiliz, curriculumaren beste ikasgai batzuen ikaskuntza eta ezagutza hobetzea.

### 1.2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa

**Euskal gizartearen errealitate sozio-komunikatiboa espiritu kritikoz interpretatzea eta haren inguruneke komunikazio prozesuetan erantzukizunez eta zentzu etikoz parte hartzea, hedabideak eta teknologia berriak modu gogoetatsuan eta autonomoan erabiliz eta euskararen normalizazioaren alde jarrera aktiboa izanez (inguruneke gainerako hizkuntzak balioesteko eta errespetatzeko jarrera izanik) ondo informatutako herritarrak izatera iristeko; hau da, gizarte demokratiko eta**



**parte hartzailea eraikitzeke ezinbestekoa den autonomia pertsonala eta gizarte erantzukizuna dituzten herritarrak izateko.**

XXI. mendeko komunikazio errealitatea oso konplexua da. Gaur egungo gizartean, globalizazioaren mendean, nabarmenak dira pertsonen mugikortasuna eta nazioarteko harremanen gorakada, eta, gainera, komunikazio baliabideak eta informazio iturriak esponentzialki ari dira hedatzen. Hori dela eta, ez da nahikoa konpetentzia instrumentalak barneratzea hainbat hizkuntza, euskarri teknologiko eta hedabide ulertzeko eta horien bidez komunikatzeko; hauek ere ezinbestekoak dira: konplexutasun hori guztia modu autonomoan kudeatzeko aukera emango digun kontzientzia kritikoa garatzea, gaur egungo komunikazio prozesuak (linguistikoak, mediatikoak edo teknologikoak) berezko irizpideetatik aztertzea, eta bizi ditugun egoeren aurrean eta gizarte ingurunetik iristen zaizkigun mezuen aurrean jarrera bat hartzea.

Kontzientzia kritiko hori funtsezko elementua da IKTak eta hedabideak erantzukizunez erabiltzeko. Gizarte hedabideak interes sozio-politiko, komertzial edo/eta azpiko kultur interesak transmititzeko bitartekoak direnez, hedabideek sortu eta hedatutako mezuen ezaugarrietako bat mezuak oso manipulatu egotea da; beraz, mezu horiek ez dute errealitatea islatzen, gizarte errealitate bat eraiki baiduzk. Ikus-entzunezko ezagutza kritikoaren bidez, hainbat bidetatik iristen zaigun informazioa hautatzeko, prozesatzeko eta ebaluatzeko gai izatera iritsi behar dugu, mezu inplizituak inferituz eta norberaren balioekin alderatuz, bakoitzak ondo justifikatutako ikuspuntuak izateko eta hedabideen kontsumoari buruz erabakiak hartzeko. Ildo berean, konpetentzia hori erabat ezinbestekoa da Internetetik datozen informazioa eraginkortasunez eskuratzeko, bai eta komunikazio telematikoa segurtasunez eta erantzukizunez parte hartzeko ere.

Euskal gizartean, egungo munduaren globalizazioaren beste ondorio bat gero eta irekiagoa eta anitzagoa den hizkuntzen arteko kontaktu egoera da; izan ere, eleaniztasuna informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko errealitatea da arlo guztietan, eta aparteko garrantzia du eremu akademikoko arlo guztietan. Euskaldunek, lehenengo hizkuntza euskara izateaz gain, euskara sakon ezagutu eta gai izan behar dute dagokion kontaktuan hizkuntza behar bezala erabiltzeko. Gainera, nazioarteko komunikazioan nagusi den hizkuntzetako bat ondo jakin behar dute; bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Bestalde, ezin ditugu ahaztu migrazio fenomenoaren ondorioz gure gizartean tokia hartzen ari diren hizkuntza berriak. Egoera konplexu horretan, kontzientzia soziolinguistikoaren garapenak garrantzi handia du behar bezala komunikatzen ikasteko. Ezinbestekoa da Euskal Herrian bizi diren pertsonak ingurune errealitate soziolinguistikoaren espiritu kritikoz behatzeko eta aztertzeko gai izatea, bai eta, horren aurrean, euskara hizkuntza nagusitzat hartuta, euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa hartzeko gai izatea ere; baina, horrez gain, konpromiso hori ingurune hizkuntzekiko balioespen, errespetu eta interes jarrerekin uztartu behar da.



### 1.3.- ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

Gaur egungo gizarteek zenbait erronka handi dituzte. Hona hemen horietako batzuk: herritarrak heztea, etniak, nazionalitateak eta taldeak elkarrekin bakean bizi daitezen; gizarte mota bat garatzea, gure gazteek hura eraikitzen parte hartze aktiboa izan dezaten, beren burua gizartetik babestu edo marjinatu beharrean. Erronka horiei aurre egiteko, zalantzarik gabe, gizarteak eta hezkuntzak ahalegin garbia egin behar dute, helburu argien bitartez, bai eta ebaluazio zehatza ere, lorpenak egiaztatzeko. XXI. menderako oinarrizko hezkuntzaren kalitate hobea lortzeko, ez da nahikoa “gauza bera egitea, denbora luzeagoan”. Nahitaezkoa da beste hezkuntza eredu batean pentsatzea, beste garai batzuetatik jasotako aldaera apaindua bakarrik izan ez dadin.

Elkarrekin bizitzen ikastea, ezagutza transmisioa baino gehiago, gaur egungo hezkuntzaren ikaskuntza garrantzitsuenetakoa da. Alde horretatik, gizarte demokratikoei balio handiko baliabidea dute, gure inguruan gertatzen ari diren zenbait aldaketa sozial azkarrei aurre egiteko: herritarren hezkuntza. Gure ustez, Dakarreko Foroko ekintza plana, XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostena eta Jomtiengo Denentzako Hezkuntzari buruzko Mundu Konferentzia hiru funtsezko ardatz dira, ikaskuntzaren oinarrizko kompetentziak ezartzeko. Kompetentzia horiek ezinbesteko oinarrizko tresnak (irakurmena, idazmena, mintzamina, kalkulua, arazoen irtenbidea) eta ikaskuntzaren oinarrizko edukiak (ezagutza teorikoak eta praktikoak, balioak, jarrerak) dituzte, pertsonak bizirauteko, beren gaitasunak osorik garatzeko, duintasunez bizitzeko eta lan egiteko, garapenean erabat parte hartzeko, bizi kalitatea hobetzeko, funtsezko erabakiak hartzeko eta ikasten jarraitzeko.

Illo horretatik, 1993. urtearen hasieran, UNESCO erakundeak sustaturiko XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak adierazten zuen garrantzitsua zela herrixka den mundu honetan elkarrekin bizitzen ikastea, bai eta beharrezkoa zela elkarbizitza hori Bake Kultura baten barnean ulertzea ere. Jende askoren iritziz, bizitzarako eta elkarbizitzarako oinarrizko sistema bat ezartzea izan behar du gaur egungo erakundeek onartu beharreko konpromiso garrantzizkoenetakoa bat, herritartasuna erabiltzeari dagokionez. Esate baterako, Geneva 2001eko Konferentzien Nazioarteko Zentroaren berrogeita seigarren bileran honako hau adierazi zuten: “Giza eskubideen eta giza garapenaren alorrean, hezkuntzaren kalitatea honela defini daiteke: elkarrekin bizitzeko gaitasuna, bai elkarrekin bizitzen jakiteko eta hori nahi izateko lorpenei dagokienez, bai lorpen horiei laguntzen dieten baldintzei eta prozesuei dagokienez”.

Hala ere, elkarrekin bizitzearen kontzeptua bera aldatu egiten da denbora igaro ahala eta kulturen arabera, bai eta hori lortzeko behar diren ikaskuntzak ere. XXI. mendean ditugun erronkei erantzuteko, zenbait galderari erantzun beharko diegu; esate baterako, zein diren gaur egungo inguruetik ondorioztatzen diren ezaugarri zehatzak, eta zer erantzun eman diezaiokeen gaur egungo hezkuntzak egoera horri.

Banakotasun eta komunitasun balioak itxuraz kontrajarriak direnez, ez dira erraz integratzen gure bizi eta hezkuntza ikusmoldeetan. Hezkuntza-psikologiako literatura egile askoren ustez, gizakiak oso errotuta dituen bi joera bateragarri egin behar dira: batetik, komunitatean bizitzearekin lotuta dagoen segurtasuna bilatzea, eta, bestetik, gizabanakoen askatasuna erabiltzeko beharra. Ekonomia garatua duten



gizarte modernoetan, oso erraz ikusten da indibidualismorako eta interes partikularrerako joera handia dagoela. Hala ere, gizabanakoek aukeratzeko eta komunitate justu eta solidarioan bizitzeko duten beharra bateratu egin behar da ikuspegi horiek dakarten konpromiso etikoarekin.

Dena dela, hezkuntzaren profesionalak gai horri heltzen diogunean, zenbait galdera egiten ditugu: Zein izan daitezke, ahal izanez gero, XXI. mendeko erakundeetan garatu behar diren balioei eta kompetentziei buruzko akordioak? Non ikasten eta irakasten dira egoera gatazkatsuetan gidatuko gaituzten balioak eta printzipioak? Zer zeregin dute ereduak, eta zer hezkuntza estrategiak laguntzen diete portaera etikoei, herri-tartasuna erabiltzean? Zer egin dezakegu hezkuntzatik abiatuta, ikasleek herritar eragileak izaten ikas dezaten, gai izan daitezen laguntzeko, erabaki arduratsuak hartzeko eta gatazkak era baketsuan konponitzeko, nahiz eta ingurura begiratu eta gizartean balio horiek ez direla nagusi konturatu?

UNESCOK adierazi du elkarrekin bizitzen ikasteko ez dela nahikoa talde desberdinen arteko kontaktuak antolatzea eta elkarrekin komunikatzea, baizik eta bi orientazio osagarri behar direla. Lehen maila batean, besteak pixkanaka ezagutu behar dira eta, bigarren maila batean, proiektu komunean etengabe parte hartu behar da. Beraz, orientazio horiek eskola curriculumean sartu behar dira, baita komunikazioaren teknologia berrietan ere.

Kompetentziak zehaztea hezkuntza helburuei erantzuna emateko era bat da, eta, zalantzarik gabe, laguntza handikoa izan daiteke erabiltzen ditugun estrategiak orientatzeko eta ebaluatzeko. “Elkarrekin bizitzen ikasi” izena duen kompetentzia orokorraren barnean, beste kompetentzia batzuk –elkarrekin oso estu lotuak– zehatz daitezke, 1. grafikoan ikus daitezkeen bezala. Kompetentzia horiek hezkuntza esparruetan landu beharko lirateke, bai curriculum formalean, bai ez-formalean. Beste pertsonen arrazoiak eta sentimenduak ulertzeko gauza baldin bagara bakarrik garatuko ditugu gainerako kompetentziak. Baina, enpatia horrek, arrazionala izateaz gain, afektiboa ere izan behar du (emoziozko dimentsioa), elkarrekin bizitzen ikasi ahal izateko.





### 1.3.1.- Pertsonarteko harremanak

**Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedek kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.**

Pertsonarteko kompetentzia egokiak elkarreragin positiboa erraztu behar du eta, gainera, honako hauek dakartza berekin: 1) oinarriko trebetasun konbentzionalak edukitzea, 2) harreman positiboak (enpatia, entzute aktiboa) errazten dituzten komunikazioaren gakoak erabiltzeko gai izatea (hitzezko nahiz hitzik gabeko komunikazioa), 3) besteen mezuak egoki interpretatzen jakitea, eta garbi esaten denari erreparatzeaz gain, emoziozko eta testuinguruko aldagaiei ere erreparatzea, 4) pertsonarteko harremanetan sortzen diren emozioak autoaztertzen jakitea, 5) besteen iritziei, gogoei eta beharrei errespetuzko erantzunak ematea, 6) laguntzeko jarrerak izatea. Beraz, pertsonarteko kompetentzia egokia izango bada, kompetentzia hauek ere egokiak izan behar dute: kompetentzia kognitiboek (esaten dena eta esaten ez dena zuzen interpretatzea, komunikazio era batzuk ala besteak erabiltzearen ondorioak aurreikustea), kompetentzia afektiboek (beste pertsonak adierazten duenarekin enpatia izatea, bai zuzenean, bai inplizituki) eta kompetentzia etikoek (pertsonarteko erantzukizun zentzua izatea, edo norberak egiten/esaten duenaren, esateko moduaren... eraginaz arduratzea).

### 1.3.2.- Gatazkak konpondu

**Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, “aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimendatzen duen” egoeretan; irtenbideak elkarriketaren eta negoziatioaren bidez lortuko dira.**

Gatazkei modu egokian aurre egiteko gaitasunak oinarri bat du: elkarreragin positiboko pertsonarteko gaitasun ona izatea, eta pentsamolde, interes, nahi edo/eta behar kontrajarriak dituzten egoera bereziki konplexuetan erabiltzea, egoera horietan sortzen diren emozio negatiboak kontrolatuz, eta modu eraikitzailean bideratzeko gai izanez. Kompetentzia konplexua da, eta kompetentzia batzuk ongi erabiltzea eskatzen du: kognitiboak (hausnarketa prozesua: gatazka zergatik sortzen den identifikatzea, alternatibak aztertzea, aldeko eta kontrako arrazoiak baloratzea, etab.), afektiboak (autokontrola) eta etikoak, besteari gertatzen zaionarekiko kezka eta interesa garrantzitsua den heinean.

### 1.3.3.- Parte hartze demokratikoa

**Parte hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.**

Herritar guztiek parte hartzeko aukera izatea lortu nahi da, pertsona guztien oinarriko eskubideen defentsa ziurtatuko duen erakundearen eta gobernuaren arteko lankidetzaren bermatzeko. Parte hartze demokratikoaren bidez, pertsonen eskubideak eta egindako akordioak gehiago errespetatzea lor daiteke. Kompetentzia hori garatzeak protagonismoa banatzea dakar, eta, beraz, bazterkeriaren aurka egiteko modu bat da. Parte har-



tze demokratikoak aukera berdintasuna errazten du, ikastetxearen barnean nahiz kanpoan; horretarako, garrantzitsua da pertsona guztiek zeregin nabarmena edukitzea taldearen barnean (familia, eskola, auzoa, komunitatea, etab.), eta berdintasun status batean lan egitea, helburu berak lortzeko.

Partaidetzak erantzukizuna garatzen laguntzen du, bai eta hitz egiteko, entzuteko, antolatzeke, ebaluatzeke, ikasteko eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzen ere. Halaber, partaidetza erakundeetan esku hartzeko estrategia bat da, eta erabakiak hartzen laguntzen du, baita pertsonak gusturago sentitzen ere, aukera ematen baitie beren iritzia adierazteko; horrek hartutako erabakiekiko inplikazioa eta konpromisoa errazten du. Baina partaidetzarekin batera demokraziaren balioak ez badaude, eta partaidetza hori guztien ongia lortzera bideratuta ez badago, bazterkeriaren mekanismo bilaka daiteke.

#### 1.3.4.- Elkarlana eta talde lana.

**Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Horren helburua behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko.**

Argi dago talde lana eta elkarlana ezinbestekoak direla gero eta handiagoa den munduko elkarmendekotasunean modu positiboan integratzeko. Konpetentzia horrek beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzea dakar, erantzukizunak partekatzeko eta helburu berriak lortzeko. Beste pertsona batzuekin elkarlanean arituz gero, elkartasuna indartzen eta lantzen da, hurbileko nahiz urrutiko testuinguruetan. Talde lanaren bidez, kide bakoitzaren trebetasunak eta mugak osa eta aberats daitezke. Halaber, talde lanak aukera ematen du nork bere burua hobeto ezagutzeko (ahuleziak eta indarguneak). Elkarlanari eta talde lanari esker, zenbait trebetasun eskura daitezke, gero eta konplexuagoa den munduan modu aktiboagoan integratzeko.

#### 1.3.5.- Aniztasuna

**Norberarekiko desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina duten pertsonekin zenbait proiektutan elkarlanean arituko dira, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarrizko giza eskubideak bermatzeko.**

Nork bere identitatea izateko eskubidea errespetatzea eta aukera berdintasunarekin bateragarri egitea da helburua. Hau da, konpetentzia hori garatzeak pentsaera eta egiteko modu desberdina duten pertsonak onartzea dakar, baina gure identitatea galdu gabe; bai eta norberarena ez bezalako testuinguru, herrialde, arraza edo kulturetako pertsona guztiak onartzea ere. Aniztasuna pertsonen eta taldeen elkar ulertzeko alderdi positibotzat hartu behar da. Konpetentzia hori garatzeko, baterako proiektuetan elkarlanean aritu behar da, beste pertsona, talde edo erakundeekin, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta giza eskubideak nazioartean bermatzeko, desberdina izateagatik inor baztertu gabe.




#### 1.4.- NORBERA IZATEN IKASI

“Norbera izaten ikasi” konpetentzia giltza da giza garapenerako, gainerako konpetentzien garapeneren oinarria baita; funtsezkoa da, halaber, hezkuntzaren funtzio nagusia lortzeko, hau da, Euskal Curriculumuma Diseinatzeko proposamenean jasotako funtzio nagusi hau lortzeko: pertsonari dimentsio guztietan garatzen laguntzea, bai gizabanako, bai gizartekide, bai izadikide den aldetik.

Proposamena giza garapeneren teorian oinarritzen da. Gizabanakoaren dimentsioak osatzeko konpetentziak lortzen joatea eskatzen du, eta konpetentzia horiek gero eta konplexuagoak izango dira bizitzan aurrera egin ahala. Garapen prozesua da, eta kontzientzia mailan pixkanaka aurrera egitea eskatzen du.

“Norbera izaten ikasi” konpetentziak aurretiazko konpetentzia batzuk lortzen joatea eta gerora integratzea eskatzen duela uste dugu.



*Norberaren kontrola eta oreka emozionala* konpetentziarekin ekingo diogu mailaketa horri. Kokatze esperientzia da; horrek norbanakoari munduan eroso egoteko bidea irekiko dio, antsietaterik gabe, eta emozioak kontrolatzeko eta bideratzeko gaitasuna emango dio, norberaren jarrera aurreikusitako lorpenetara bideratu dezan.

*Giza garapeneren dimentsio fisikoak* garrantzi berezia du adin horietan, eta horregatik behar du tratamendu espezifikoak. Gorputza, itxura fisikoak, sexualitatea eta afektibotasuna aldatu egiten dira, eta higie eta elikadura osasuntsurako ohiturak lortzeko prozesurekin batera, osasuna, gizarteratzea eta gozamina sustatzeko bitartekoak dira.

*Nork bere buruaren estimua* giza garapenerako konpetentzia giltza da. Norbanakoak norbanako garrantzitsuek balioestea du, besteengan konfiantza izanez hazteko, baliagarri eta bere buruarekin gus-tura sentitzeko; behar hori du sentitzen eta gai izaten ikasi aurretik, lehenik eskolan, gero lanean. Geure buruaren estimurik gabe ez dugu konfiantzarik gudan, ezta besteengan ere, eta horrek nabarmen mugatzen du ikasteko, lan egiteko eta harremanak izateko trebetasuna.





*Autonomia* nork bere burua ezagutzeko eta munduan egoteko duen modua da. Eta norberaren ahalmenak eta mugak objetiboki ezagutuz gero, pertsona bakoitzak bere biografia eraiki dezake, subjektu askea, kontzientea, kritikoa, arduratsua eta sortzailea den aldetik.

*Edertasunaz* gozaten jakitea (bai naturaren edertasunaz, bai artearen edertasunaz), eta *emozio estetikoaren* aurrean sentibera izatea mundu ikuskera berrietarako ateak irekitzeko eta ekintza berritzaileak suspertzeko bidea da.

“Norbera izaten ikasi” kompetenziaren garapenaren adierazpen osoena *integrazio pertsonala* da. Garapen intelektuala, espirituala, emozionala eta fisikoa eskatzen du, eta, aldi berean, elementu horien guztien batura da, garapenaren ikuspegi orokorretik. Harmonia esperimintatzeko beharrekin dago loturik, bai norberaren harmonia, bai besteekiko harremanen harmonia. Mundu ikuskera horrek norbanakoaren ikuspuntua gainditzea eskatzen du, “niatik” “gu” adierazpenera igarotzea, gizarte ekintzaren eta lankidetzaren bidez.

Kompetentziak garatzeko, beharrezkoa da kompetentzia horien balioak kontuan hartzea. Hala izan ezean, pertsona zatikatu egingo da, eta horrek integrazioa eragotziko du.

Ezarritako kompetentzien azpian dauden balioak jarreraren eragileak dira, eta mundu ikuskera zehatza eta ingurunearekiko, norberaren buruarekiko eta besteekiko jarrera berezia eratzen dute.

Kompetentziak ulertzeko modu horrek eragin garrantzitsuak ditu, “Norbera izaten ikasi” kompetentzia lantzeko. Adibidez, norbanakoak ez badu bere burua balioesten, zaila izango zaio besteak balioestea, baita elkarrenganako errespetuan oinarritutako harremanak izatea ere, lankidetzara eta ez lehiakortasunera bideratutako harremanak, alegia.

Nork bere burua eta besteak balioesten irakasten bazaie ikasleei, ikuspegi egozentrikoak gainditzen lagunduko diegu, bai eta lankidetzara jarrerak eta jarrera altruistak garatzen ere, eta autonomia garatzeko bidea ezarriko da. Horrela bada, parte hartzeko, elkar errespetatzeko eta tolerantzia izateko, lankidetzako eta elkartasuneko jarrerak hartzen lagunduko zaie, bizikidetzara demokratikoaren oinarri baitira.

#### 1.4.1.- Gorpuztasuna

**Nork bere gorputza onartzea, gorputz aldaketak eta sexualitatea arduraz barneratuz, eta ohitura osasungarriak hartuz, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.**

Nork bere gorputza onartzea, horren funtzionamendua, itxura fisikoa, sexu adierazpena eta afektibitatea ezagutzea, onartzea eta aintzat hartzea da; gorputza komunikatzeko bitartekoa da, bai gizakiekin, bai inguruarekin.

Hauek dira osasuna prebenitzeko hartu beharreko ohiturak: higiene ohiturak, elikadura osasuntsua eta orekatua, ariketa fisikoa egitea eta drogak eta arrisku jarrerak baztertzea. Horrek guztiak gorputzarekiko ardura garatzen laguntzen du, eta egoera onean izateak duen garrantzia nabarmentzen du.



Nork bere burua arduraz onartzeak gozatzeko, besteekin komunikatzeko eta giza eta natura inguruarekin erlazionatzeko aukera ematen du; hau da, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.

#### 1.4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala

**Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko.**

Emozioak kontrolatzea norberarentzat eta besteentzat kaltegarriak diren gogo aldarteak identifikatzea eta menderatzea da; gogo aldarte horiek kaltegarriak dira bizi-egiaz eta desegokiak direlako edo ondorio kaltegarriak eragiten dituztelako.

Nork bere burua kontrolatzeko prozesuak emozioa zerk eragiten duen aztertze eta identifikatzeko eskatzen du, baita emozioaren eta estimuluaren arteko egokitasun alderatzeko, eta horri aurre egiteko estrategia egokiak erabiltzeko ere.

Emozioak bideratuta, ekintzak garapen pertsonalera bidera daitezke, eta besteen jarreretan positiboki eragin.

#### 1.4.3.- Nork bere buruaren estimua

**Nork bere buruaren estimu positiboa eta erreala lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere.**

Estimu egokia izatea nork bere burua positiboki baloratzea da, bere gaitasunak, mugak eta garatzeko duen ahalmena ezagutzeko eta onartuz.

Nork bere buruaz duen pertzepzioa esperientzietatik eta ingurunearekin izaten diren harremanetatik eraten da; harreman horietan pertsona garrantzitsuak funtsezkoak dira.

Bere burua ezagutzea eta estimatzea ezinbesteko baldintza da osoki garatzeko.

#### 1.4.4.- Autonomia

**Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien arduradun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko.**

Proiektu pertsonal bat diseinatzea bizi-proiektuaren plan bat egitea da, eta plan horretan honako hau adieraziko da: zer-nolako pertsona izan nahi duen, zein diren bere interesak eta itxaropenak, eta zer bidetatik lortuko duen. Norbanako bakoitzak bere bizitza *eraikitzen* duela adierazten du horrek, eta kultur ezagutza, nork bere buruaren estimua eta gaitasunetan konfiantza izatea eskatzen du.



Horretarako, motibazioa, ekimena, irmotasuna, sormena eta hausnarketa, ezagutzak eta informazioa, eta erabakiak hartzeko eta plangintzak egiteko gaitasuna behar dira.

Horren bidez, norbanako bakoitzak bere biografia eraikitzen du norbanako autonomo, kontziente, kritiko, arduratsu eta sortzaile den aldetik.

#### 1.4.5.- Sensibilitate estetikoa

**Emozio estetikoa esperimentatzea, natura eta artea ezagutzuz eta miretsiz, edertasunaz gozatzuz eta arte adierazpen berriak sortuz, estetikak artean eta naturan ematen dituen emozioez gozatzeko.**

Emozio estetikoa esperimentatzea natura eta artea errealtatea adierazteko bitartekotzat hartzea da, munduaren edo edertasunaren ikuskera berriak agertuz eta ekintza berritzaileak modu arduratsuan suspertuz.

Hori lortzeko, naturaren ondarea eta ondare artistikoaren elementu garrantzitsuenak behatu, miretsi, gozatu, ezagutu eta errespetatu behar dira, eta adierazpen artistikoak interpretatu edo sortu.

#### 1.4.6.- Integrazio pertsonala

**Nork bere buruaren osotasuna esperimentatzea eta adieraztea dimentsio hauetan: indibiduala eta soziala, emozionala eta kognitiboa, immanentea eta transzendentea, pertsonaren osotasuna antolatzeke barne gaitasuna modu koordinatu eta harmonikoan sustatuz, giza ahalmena osotasunez garatzeko.**

Nork bere buruaren osotasuna esperimentatzea eta adieraztea honetan datza: bizitzea, munduan kokatzea, eta pentsamenduak eta bizipen emozionalak kontuan harturik jardutea, gizabanako eta gizartekide garelako jabetuz eta norberaren errealtatea gaindituz.

Hori lortzeko, beharrezkoa da nork bere burua behatzea eta ingurua behatzea, horri buruz hausnartzea eta nork bere buruari galderak egitea, ezagutzea eta alderatzea, baloratzea eta gainerako balorazioak entzuteko prest egotea, bizitzaren zentzua ulertzeko, *eraikitzeke* eta azaltzeko.

Pertsona bakoitzaren garapen integralak norbanakoa aberasten laguntzen du, eta ezinbesteko baldintza da gizartearen garapena eta aberastasuna sustatzeko.



## 1.5.- EGITEN ETA EKITEN IKASI

Egungo errealitateak bi ezaugarri garrantzitsu ditu. Batetik, **elkarrekiko mendekotasuna gero eta handiagoa da munduan**, eta, bestetik, natura **aldakorra da (eta gero eta azkarrago ari da aldatzen)**. Faktore askok aldatzen dute errealitatea, eta gure “parte hartze aktiboa” (parte hartzen badugu) faktore horietako bat izan daiteke. Ondoriozko errealitate horretan “ekin” eta eragin dezakegu; beste aukera bat “ez ekitea” da, eta, hala ere, errealitateak eboluzionatu egingo du, baina beste modu batera, eta gugandik kanpo dauden faktore batzuen mende soilik. Ekinda, modu aktiboan hartzen dugu parte aldaketaren ondoriozko errealitatean, *parte hartze aktiboa dugu eboluzioan*.

Horregatik, **ikuspegi orokorra** garatzea, eta **aldaketa kudeatzea eta aldaketa horretara egokitzea** pertsonen hezkuntzaren alderdi giltzak dira. Horretarako, bizitzan parte hartze aktiboa izan behar dugu: ekin egin behar dugu; eta, ondorioz, **ekimen ekintzaileen konpetentzia garatu behar dugu**.

**Munduan areagotzen ari den elkar eragina** dela eta, gero eta gehiagotan hautematen dugu leku jakin bateko gertaerek eragina dutela, une batean edo bestean, neurri handiagoan edo txikiagoan, planetaren gainerako lekuetan (bai natur baliabideetan, bai izaki bizidunengan), baita horren eragina gero eta azkarrago iristen dela ere.

Lehen, aldaketa handiak hautemateko, zenbait belaunaldi behar ziren; egun, ordea, belaunaldi beraren barruan gero eta azkarrago izaten diren aldaketa bizien lekuko gara. Gaur, beharrezkoa da, inoiz baino gehiago, gazteek errealitateaz eta elkarrekiko mendekotasunaz **hausnartzea**, errealitate hobek **imajinatzea/amestea** eta **adierazpen/egite horretan parte hartzea**, betiere aurrera eramandako ekintzen **eragina ebaluatuz**. Ekitea beharrezkoa da bizitzan modu aktiboan eragiteko, eboluzioan modu aktiboan parte hartzeko.

Funtsezkoa iruditzen zaigu, puntu honetan, jarrera ekintzailea hartzen duten pertsonaren balioei buruz hitz egitea.

Zenbait ikuskeratik ekin dezakegu:

- **Ikuskera egozentrikoa** (norbanako gisa bere buruarentzat onena bilatzen du): ekintzaileak ikuspegi egozentrikoa badu, bere buruarentzat errealitate hobea lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.
- **Talde ikuskera** (talde jakin batentzat onena bilatzen du: familiarentzat, lagunentzat, herrialde jakin bateko hiritarrentzat): ekintzaileak talde ikuskera badu, erreferentzia taldearentzat errealitate hobea lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.
- **Mundu ikuskera** (gizateriarentzat, giza espeziearentzat onena bilatzen du): ekintzaileak mundu ikuskera badu, gizateriarentzat errealitate hobea lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.

Pertsona bakoitzaren ikuspegiak “motibazioa” zehazten du, eta, ondorioz, “jokabidea” ere bai. Hezkuntza sistemaren helburua pertsonak heztea da, gizateriarentzako errealitate hobearen eraketan



parte har dezaten. Horretarako, beharrezkoa da ekimen ekintzailea garatzea, baina, halaber, ekintzak gizaterian duen eragina aintzat hartu behar da.

Horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa hau azpimarratzea: **ekimen ekintzailea** konpetentziak (errealitatearen bilakaeran modu aktiboan parte hartzeak) eta **pertsonaren barneko giza garapenak** batera joan behar dute beti eta, horri esker, pertsona horien ikuskerak mundu ikuskera bilakatu behar du. Barneko giza garapena kontuan hartzen ez duen ekimen ekintzailearen garapen oro “*hankamotz*” gertatu da, eta hori gizateriaren eta planetaren *garapen iraunkorraren* kalterako izango da.

Beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleen barneko giza garapena lantzea “Elkarrekin bizitzen ikasi” eta “Norbera izaten ikasi” konpetentzietan, gizateriarentzat errealitate hobea eraikitzeko motibazioa izan daitezen; motibazio horrek errealitatearen aldaketaren eragilea izan beharko du, jokabide ekintzailearen bidez, eta, horretarako, prozesu ekintzaile jarraituaren eta segidakoaren faseak gauzatu behar dira.

**Oharra:** Ekimenaren balioa bermatzeko, gizakiaren barneko giza garapen horren beharra nabarmentzeaz gain, beste gauza bat ere nabarmendu nahi dugu: garapen hori bizitza osokoa izateak duen garrantzia. Badakigu ez dela egun batetik bestera garatzen, eta hezkuntza eta esperimentatze lan jarraitua eskatzen duela.

## Zer da “Egiten eta ekiten ikasi” konpetentzia

Garrantzitsua iruditzen zaigu dokumentu honetan **egin** eta **ekin** terminoei eman diegun adiera azaltzea, beharrezkoa baita termino horiek ulertzea “Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziaren konpetentzia orokorrak eta espezifikokoak identifikatzeko. **Ekitea** “**ekite prozesua aurrera eramatea**” da guretzat, erabilera eremua edozein dela ere. **Egitea** ekite prozesuaren **berrikuntza fasea** aurrera eramatea da, erabilera eremua edozein dela ere. Ekite prozesua dinamikoa da, eta lau fase ditu, ondoz ondokoak eta etengabeak (Fase analitikoa, Sortze fasea, Berritze fasea eta Ebaluazio fasea).

Ondoren, ekite prozesuaren lau faseak aurkeztuko ditugu. Fase horiek “Egiten eta ekiten ikasi” hezkuntza konpetentzia orokorraren lau azpikonpetentzia orokor ematen dizkigute:

### 5.1: Analisia: Informazioa hartzea eta gordetzea

- 5.1.1. Errealitateari buruzko informazioa hartzea
- 5.1.2. Errealitatea aztertzea eta ulertzea
- 5.1.3. Errealitatea eztabaidatzea

### 5.2: Sormena: Ideia berriak eta konponbideak lantzea

- 5.2.1. Alternatibak planteatzea
- 5.2.2. Alternatibak ebaluatzea
- 5.2.3. Alternatiba egokiena aukeratzea



### **5.3: Berrikuntza: Ideiak gauzatzea**

5.3.1. Errealitate bat gauzatzeko konpromiso pertsonala hartzea

5.3.2. Plangintza

5.3.3. Ekintza

5.3.4. Desbideratzeak jarraitzea eta zuzentzea

### **5.4: Ebaluazioa**

5.4.1. Egindako ekintzen emaitzei buruzko informazioa biltzea

5.4.2. Aurreikusitako eta lortutako helburuak erkatzea

5.4.3. Aurreikusi gabeko eraginak ebaluatzea

5.4.4. Ondorioak ateratzea: aukerak planteatzea

“Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziak, fase horietako bakoitza aurrera eramateko gaitasuna izateaz gain, lau faseak segidan eta etengabe bizitzako eremu guztietan ezartzeko konpetentzia (ekite prozesua) garatzea eskatzen du. Horrek azpikonpetentzia orokor hau eratzen du:

### **5.5: Ekite prozesuaren aplikazioa**

5.5.1. Esparru pertsonalean-indibidualean ekitea

5.5.2. Gizarte eta natura esparruan ekitea

5.5.3. Hezkuntza eta autoikaskuntza gabeziei erantzutea


5.5.4. Bokazioa

5.5.5. Lan munduan sartzea

5.5.6. Enpresa sortzea - Autoenplegua



“Egiten eta ekiten ikasi” hezkuntza kompetentzia  
orokorraren eskema



1.5.1.- Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea

Informazioa hartzea eta ulertzea, eta inguratzen duen errealitateari buruz hausnartzea, errealitatea arretaz eta jakin-minez behatuz, errealitatea zergatik den horrelakoa hainbat arlotatik ulertzen saiatuz, eta, espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez, zalantzan jarriz, errealitate hori hobetzeko ahalmena aztertuz, ideia eta konponbide berriak prestatzeko eta errealitate hobea planteatzeko.

Errealitatearen edozein esparru (esparru pertsonala/indibiduala, hezkuntza eta lanbide esparrua, gizarte eta natura esparrua) *etengabe hobetzeko* ekintza prozesu orok egungo errealitatearen hausnarketa eta azterketa izan behar ditu oinarrian. Horretarako, errealitateari buruzko informazioa jaso (adi-adi egindako



behaketen bidez, eta ingurukoekin elkarrizketa irekiak izanik), ulertu (hainbat ikuspegitatik, horren arrazoiak ezagutzen saiatu) eta zalantzan jarri behar da (errealitate hori hobetzeko aukera aztertu).

Horretarako, garrantzitsua da pertsonen norberaren egoeraren eta ingurunearen *behaketa eta arreta garatzea*, baita informazioa hedatzeko eta horretan sakontzeko *nahia* garatzea ere, egoera horren arrazoiak ulertzeko. Ulermen hori lortzeko, *informazio berria bilatu* behar da, eta, horretarako, bigarren mailako informazio iturrietara eta inguruarekiko elkarreraginera (elkarrizketa irekira) behar da; *horrela, ikasleek hainbat ikuspegitatik aukera izango dute errealitatea horrelakoa zergatik den ulertzeko*. Bestalde, gogoeta prozesuak egungo errealitatea zalantzan jarri behar du, espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez, eta *egungo errealitatea aldatzeko (hobetzeko) aukerak bilatzen saiatu*.

*Fase analitikoari esker, ekintzaileak egungo errealitatea aztertuta ulertzen du, eta alternatiba hobea identifikatzeko/diseinatzeko nahia ere badu. Horrek sortze fasera eramango du.*

### 1.5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea

**Ideia berriak eta konponbideak prestatzea eta errealitate hobea planteatzea, egungo errealitatearentzako alternatibak proposatuz (sorkuntza tekniken bidez), eta aurrez ezarritako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuz eta egokiena/bidezkoena aukeratuz, errealitate hori gauzatzeko/egiteko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.**

Behin egungo errealitatea aztertuta eta ulertuta, hobetzeko alternatiba egokiena identifikatzeko hainbat etapa bete behar dira:

Batetik, garrantzitsua da pertsona horrek sorkuntza teknikak garatzea, teknika horiekin eta behaketa-rekin, arretarekin eta jakin-min arretatsurekin, ideia eta irtenbide berriak aurki baititzake. Horiek sailkatuz eta ordenatuz, egungo errealitatearentzako alternatibak identifika daitezke.

Ondoren, beharrezkoa da alternatibak ebaluatzeko eta lehenesteko prozesua garatzea, ebaluazio irizpide egokiak identifikatu aurretik. Ebaluazio irizpideetan, oro har, pertsona edo kolektibo ebaluatzailearen kontzeptu objektiboak eta subjektiboak sartuko dira.

Behin lehenesteko alternatibak ezarrita, hurrengo pausoa alternatiba egokiena erabakitzea da; hau da: aukeraketa.

*Sortze fasearen ondoren, aukeratutako alternatiba identifikatu/diseinatu du ekintzaileak, bai eta hori gauzatzeko borondatea ere. Ondoren, Berritze fasean sartzeko bideari ekingo zaio.*

### 1.5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea

**Egungoaren alternatiba moduan planteatutako errealitatea gauzatzeko beharrezko ekintzak egitea, nahiari konpromisoa batuz eta ekite plan bat ezarriz, aurrera eramanez eta jarraipena eginez, hobekuntza gauzatu ahal izateko eta eragina ebaluatzeko.**





Beharrezkoa eta garrantzitsua da ideia berriak sortzea eta egungo errealitatearentzako alternatibarik egokiena diseinatzea, baina errealitatea ez da aldatuko (ez da hobetuko) gauzatzeko ekintzak egiten ez badira. *Ezinbestekoa iruditzen zaigu lortu nahi den errealitate bat gauzatzeko esperientzia praktikoak garatzea: buruan “konpondu” dugun horren aurrean zailtasunak agertzen dituzte, ekintzarako prestatzen dute, eta, azken batean, ezinbestekoak dira errealitate hobea gauzatzeko.*

Egungo errealitatearentzako alternatiba bat gauzatzeko ekintzak aurrera eramateko, hori lortzeko gogoia edukitzeaz gain horretan parte hartzeko konpromiso pertsonala bereganatu behar da. Beharrezkoa da, halaber, ekintza plan bat prestatzea: lortu nahi diren helburuak, kronograma, beharrezko pertsonak eta funtzioak (ardurak), eta beharrezko bitarteko materialak eta ekonomikoak. Eraitzen aurreikuspena ere ezarri beharko da.

Behin ekintza plana zehaztuta, beharrezkoa da aurrera eramatea eta bilakaeran arreta jartzea, baita ingurunearen bilakaeran ere; ondoren, jarraipena egin behar zaio eta, desbideratzeak kontuan hartuz, neurri zuzentzaile egokiak hartu beharko dira.

*Berritze fasearen bidez, ekintzaileak errealitatean jardun du, eragin egingo dio errealitateari, eta Ebaluazio fasean sartzeko urratsa eman du.*

#### 1.5.4.- Ebaluazioa

**Egindako ekintzen eragin erreala ebaluatzea, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz, bai pertsonalki, bai eragina jasan duten taldeekin eztabaidatuz, lortu nahi den helburuaren bete-tze maila aztertzeko (nahi gabe sortutako beste eraginak ere ebaluatu beharko dira), etahori guztia ekite prozesua jarraitzeko (prozesu jarraitua).**

Aukeratutako alternatiba gauzatzeko ekintzek errealitateari eragiten diote. Hori dela eta, beharrezkoa da, Berritze faseaz gain, ekintza horiek errealitatean izandako eraginak ebaluatzeko fasea ere izatea ekintza prozesu guztietan. Kasu honetan, eragina errealitateari eragiten dion oro da, eta aurreikusitakoaz gain, aurreikusi gabekoak ere kontuan hartzen ditu.

Beharrezkoa da, beraz, lortu nahi d(ir)en helburu(ar)en betetze maila ebaluatzea, baita aurreikusi gabeko balizko eraginak aztertzea ere; hori guztia informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz egingo da, eta informazio hori norberarena eta eragindako taldearekin eztabaidatuz lortutakoa izango da (ingurumena kontuan izanik).

Esku-hartzeak eragindako alde onak eta txarrak aztertzeaz gain, beharrezkoa da etorkizunerako ondorioak ateratzea, etorkizuneko esperientziarako baliagarriak izan daitezkeen iritzi guztiak jasoz (ikasketa) eta hobetzeko aukera berriak identifikatuz. Ondoren, *prozesu berri baten Fase Analitikoarekin lotuko da, ekite prozesuarekin jarraitzeko (inoiz amaitzen ez den prozesu jarraitua eta dinamikoa).*



## 5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioa

**Bizitzako esparruetan ekitea, ekite prozesua aplikatuz (autoerrealizatzeko), nor bere bizitzan parte hartuz eta besteei lagunduz eta positiboki eraginez, eta gizateriaren eta planetaren garapen iraunkorrari lagunduz, giza espezieko kide izatearen sentimenduan oinarrituta.**

“Ekiteak” pertsonen bizitzako esparru guztiak hartzen ditu, esparru profesioaletik haratago, eta, horregatik, “Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziaren beharra eta konpetentzia hori garatzeko aukera esparru guztietan identifikatzen dugu: **esparru pertsonalean-indibidualean**, norberaren ezaugarri pertsonalak eta besteeikiko harremanak hobetzeko, hau da, norberaren gabeziak, ahultasunak, beldurrak-fobiak edota mugak onartzeko eta hobetzeko; **hezkuntza eta lanbide esparruan**, norberaren gaitasunak eta ezagutzak hobetzeko, baita etorkizun ekonomikoari eta lanbide etorkizunari hobeto aurre egiteko ere; eta **gizarte eta natura esparruan**, gizarte parte hartzaileagoan, dinamikoagoan eta aberatsagoan besteekin batera bizitzeko, baita gure gizartearen garapen iraunkorrean aurrera egiteko ere.

Sei azpikonpetentzia espezifiko identifikatu ditugu “Bizitzako arloetan ekin” azpikonpetentzia orokorren barruan; horietako bat zuzenean dago lotuta esparru pertsonalarekin-indibidualarekin, beste bat gizarte eta natura esparruarekin dago lotuta, eta lauk lotura zuzenagoa dute heziketa eta lanbide esparruarekin. **Esparru pertsonala-indibiduala** eta **gizarte eta natura esparrua** hezkuntza konpetentzia orokor hauek garatzen dituzte: **“Norbera izaten ikasi”** eta **“Elkarrekin bizitzen ikasi”**; horregatik erabaki dugu azpikonpetentzia espezifiko bakarra garatzea esparru horietako bakoitzean, pertsonen garapenean ekite prozesua ezartzeak duen garrantzia azpimarratzeko.\_

Bestalde, **prestakuntza eta lanbide esparrua** sakonago lantzea erabaki dugu, bere horretan ez baita modu espezifikoan lantzen beste hezkuntza konpetentzia orokorretan. Lau azpikonpetentzia espezifiko identifikatu ditugu: “Hezkuntza gabeziei erantzutea eta autoikaskuntza”, “Bokazioa”, “Lan munduan sartztea” eta “Enpresa sortzea eta autoenplegua”. Azpikonpetentzia espezifiko horietan, *prestakuntza hobetzeko aktiboki parte hartzeari eta bilakaera profesionalari* egiten zaio erreferentzia.



## 2.- EDUKI METADIZIPLINARRAK

Diziplina arlo guztiak tresna bihurtzen direnean, eta hezkuntza kompetentzia orokorren zerbitzura daudenean, arloetako kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiek zentzua dute dizipline-tan, baldin eta garrantzitsuak badira hezkuntza kompetentzia orokor horiek lortzeko. Hau da, diziplina arloen arteko mugak hautsi egiten dira, eta antolamendu orokorrakoak eta zeharkakoagoak jorratzeko espazioa irekitzen da.

Atal honetan, arlo guztiek dituzten jarrerazko eta prozedurazko edukiak –hau da, eduki metadiziplinarrak– nabarmentzen dira. Proposamen honen asmoa irakasleei laguntzea da, curriculum antolamendu integratuak egin ditzaten. Jarrera eta prozedura metodologiko berak lantzen direnez –baina diziplina arlo desberdinetan, kontzeptuzko eduki desberdinekin eta egoera desberdinetan aplikatuak–, errazago egin daiteke hezkuntza antolamendu orokorra eta ikaskuntzen transferentzia. Antolamendu horren erabilpenaren ondorioak zalantzarik gabekoak dira, bai irakasleen arteko antolaketa eta koordinazio beharrari dagokionez, bai ikasleen ebaluazioa koordinatzeko beharrari dagokionez.

Prozedura induktiboa eta deduktiboa erabili da eduki metadiziplinarrak aukeratzeko. Lehenik, diziplina arloetan proposaturiko jarrerazko eta prozedurazko edukien azterketa egin da, eta honela sailkatu dira: metadiziplinarrak, diziplinartekoak eta diziplinarrak (prozedura induktiboa). Horren ondorioa jarrera eta prozeduren mapa bat izan da. Ondoren, jarrera eta prozeduren mapa hori hezkuntza azpi-kompetentzia orokorrekin alderatu da (prozedura deduktiboa), eta zertan datozen bat eta zertan ez azaldu da. Ondoren aurkeztzen den proposamenean, aipaturiko bi prozedurak elkartu dira.

### 2.1.- JARRERA METADIZIPLINARRAK

Ondoren adierazten diren jarrerak modu irekian daude azalduta, eta asmoa da era espezifikoan eta bereizian zehaztea diziplina arlo bakoitzean (metadiziplinaritatea). Esate baterako, arretazko, jakin-minezko, sormenezko eta abarreko jarrerak diziplina arlo guztietan landu behar dira, baina arretaren, jakin-minaren, sormenaren eta abarren helburua desberdina da diziplina arlo bakoitzean.

Jarrerak 25 multzo edo familian taldekatu dira. Multzo bakoitzean, ñabardura bereizgarriak dituzten jarrerak taldekatzen saiatu gara, baina, era berean, jarrerazko alderdi edo esparru bat eratzen duten elementu komunak dituzte.

Aurkezteko ordena ez da aleatorioa; aitzitik, asmo jakin bati jarraitzen dio. Hasieran, *Pentsatzen, ikasten eta ekiten ikasi* (1-9) hezkuntza kompetentzia orokorrekin loturiko jarrerak aurkeztzen dira. Ondoren, *Komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasi* (10-19) kompetentziekin loturiko jarrerak azal-



tzen dira. Azken jarrerak *Norbera izaten ikasi* (20-25) kompetentziarekin daude loturik. Halaber, komenigarria da aipaturiko jarreraren eta hezkuntza kompetentzia orokorren arteko elkarrekikotasuna erlatibizatzea, horien artean erlazio bat baitago.

- 1.- Arreta, jakin-mina, balioespen positiboa, irekitasuna, interesa, sentsibilitatea.
- 2.- Sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia.
- 3.- Malgutasun intelektuala, hutsegitearekiko tolerantzia.
- 4.- Jarrera gogoetatsua, kritikoa, balioestearen aldekoa.
- 5.- Ekimena, gogo bizia, arriskua, eraginkortasuna, ekintzailetasuna.
- 6.- Antolamendua, aurreikuspena, sistematikotasuna.
- 7.- Ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, gehiago izateko espiritua.
- 8.- Xehetasuna, argitasuna, zehaztasuna, lana ondo egiteko joera, ordena, txukuntasuna.
- 9.- Erantzukizuna, segurtasuna, ardura, arreta.
- 10.- Entzute aktiboa, elkarriketatzaileria, irekia eta zehaztua; zuhurtzia; negoziazioa; bitartekotasuna.
- 11.- Sentsibilitatea, onarpena, estimua, empatia, errukitasuna, asertibotasuna.
- 12.- Kooperazioa, lankidetzaren, adiskidetasuna, bizikidetasuna, begikotasuna, umorea.
- 13.- Ideia, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta identitate desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa.
- 14.- Zuzentasuna, justizia, bereizkeriarik eza, solidaritatea.
- 15.- Talde lana eta talde lankidetzaren, erabakiak hartzen eta erantzukizun instituzionaletan parte hartzea.
- 16.- Bizikidetzaren eta gizabide arauak errespetatzea, instituzioak errespetatzea.
- 17.- Eskuzabaltasuna, altruismoa, adeitasuna, laguntzeko prest egotea, adiskidetasuna, begikotasuna.
- 18.- Zintzotasuna, leialtasuna, eskertasuna.
- 19.- Naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua.
- 20.- Gorputza zaintzea, ohitura osasungarriak.
- 21.- Euskara eta euskal kultura estimatzea, baita ukipen hizkuntzak ere.
- 22.- Autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea, gaitasunak eta mugak onartzea, norberaren eskubideak defendatzea, norberarengan konfiantza izatea.
- 23.- Autonomia, askatasuna.
- 24.- Autokontrola, emozioen egonkortasuna eta oreka, heldutasuna.
- 25.- Gozamina, sentikortasun estetikoak.



## 2.2.- PROZEDURA METADIZIPLINARRAK

Ondoren adierazten diren prozedurak aukeratzeko, metadiziplinaritatea hartu da irizpidetzat; hau da, prozedurak diziplina arlo guztietarako balio izatea.

Aukeratutako 29 prozedura metadiziplinarrak bost taldetan multzokatu dira; horiek lotura nabarmena dute hezkuntza kompetentzia orokorrekin. *Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea* ataleko prozedurak lotuta daude *Komunikatzen ikasi* hezkuntza kompetentzia orokorrarekin; *Informazioa bilatzea eta antolatzea* eta *Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lanaren antolaketa* ataletako prozedurak lotuta daude *Pentsatzen eta ikasten ikasi* hezkuntza kompetentzia orokorrarekin; *Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea* ataleko prozedurak eta *Bizikidetzeta eta talde lana* atalekoak lotuta daude *Elkarrekin bizitzen ikasi* eta *Egiten eta ekiten ikasi* hezkuntza kompetentzia orokorrekin. Proposamen honetan ez dira sartu *Norbera izaten ikasi* hezkuntza kompetentzia orokorraren zenbait prozedura (norberaren kontrola eta oreka emozionala, autoestimua eta autonomia); izan ere, metadiziplinarrak dira, eta, beraz, irakasle guztiek garatu behar dituzte. Hala ere, gure ustez, *Tutoretza eta Orientazioa* arloari dagokio arestian aipatutako giza garapeneko prozeduren ikaskuntza eta jarraipena egitea.

Oraingoz, prozedura metadiziplinarrak zerrendatu baino ez dira egiten. Ondoren, garatu egin beharko dira.

### A.- *Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea*

- 1.- Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak.
- 2.- Polikudeaturiko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak.
- 3.- Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarriketetan) ekoizteko jarraibideak.
- 4.- Idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak.
- 5.- Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak.
- 6.- Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak.
- 7.- Balorazio edo kritika txostenak egiteko jarraibideak.
- 8.- Testu iruzkinak egiteko jarraibideak.
- 9.- Lan monografikoak egiteko jarraibideak.
- 10.- Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak.

### B.- *Informazioa bilatzea eta antolatzea*

- 11.- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.
- 12.- Informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak.
- 13.- Informazioa antolatzeko jarraibideak, taulak eta diagramak erabiliz.



*C.- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lanaren antolaketa*

- 14.- Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak.
- 15.- Eskemak egiteko jarraibideak.
- 16.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak.
- 17.- Laburpenak egiteko jarraibideak.
- 18.- Testu edo dokumentu bati buruzko oharrik hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektzio bat egiteko urratsak.
- 19.- Testu bat ikasteko edo memorizatzeko eman beharreko urratsak.
- 20.- Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren ikasteko moduari buruzko gogoeta).
- 21.- Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, karpetak, etab.

*D.- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea*

- 22.- Ikerketa txikiak egiteko aholkuak.
- 23.- Prozesu ekintzailearen jarraibideak.
- 24.- Gatazkak aztertzeke protokoloak.
- 25.- Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak.

*E.- Bizikidetza eta talde lana*

- 26.- Bizikidetza arauak egiteko edo berraztertzeke aholkuak.
- 27.- Ikasgelako eztabaidetan parte hartzeke arauak.
- 28.- Talde lanak egiteke orientabideak.
- 29.- Bilerak egiteke jarraibideak.



Ila ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

1.- HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRA

**Argibideak:**

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumumean jasotzen diren Hezkuntza Konpetentzia Orokorrei buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarritzko txosteneko" Planteamendu orokorreko 5. atalean (29-36 or.), Hezkuntza Konpetentzia Orokorreko 1go atalean (53-80 or.), eta IV Eranskinean (341-414 or.) aurkitzen da.
- Item bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukia zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen Hezkuntza Konpetentzi Orokorrek eskuratzeko, baloraziotik dator.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera:  
1= Hutsala; 2.-Garrantzi gutxi; 3- Nahiko garrantzi; 4.- Garrantzi handia; 5.- Behar-beharrezkoa
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabiltako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi	1	2	3	4	5
<p><b>1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua</b> Jasotzen den informazioa modu esanguratsuan interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutzaren, munduaren eta gainerakoien sakoneko ezagutza lortzeko.</p>					
<p><b>2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea</b> Informazioa sortzea, ideia, irudi edo gauza asko denbora gutxian sortuz. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoriatu askotakoak, orijinalak eta xehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko.</p>					
<p><b>3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa</b> Informazioa modu kritikoa ebaluatzea, ideien oinarri diren arrazoiak bilatuz eta norberaren jarrerak eta gaitasuna eta inferentzia trebetasunak oinarritat hartuz, ziurtasunez arrazoi sendoetan oinarritutako informazioa bakarrik onartzeko eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko.</p>					
<p><b>4.- Erabakiak hartzea</b> Erabaki eraginkorak hartzea, prozesuaren urrats egokiei jarraituz eta urratsak arautuz, aukera zehatzak egiteko egoeretan adimenez eta zentzuz jokatzeko.</p>					
<p><b>5.- Arazoak konpontzea</b> Arazoak eraginkortasunez konpontzea, ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu sortzailearen eta pentsamendu kritikoa trebetasunak erabiliz eta goi mailako prozesu horrek behar dituen aldiak urratsez urrats jarraituz, garrantzi eta eragin handiko zein txikiko zailtasunei aurre egiteko eta pentsamenduaren jarduerak guztiak integratzeko.</p>					
<p><b>6.- Baliabide kognitiboaren erabilera</b> Baliabide kognitiboak erabiltzea (adibidez, metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokabide estrategikoa eta ikasitakoaren transferentzia), ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendua kritikoa eta pentsamendu sortzailearen trebetasunak eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko prozesuak erabiliz, pentsamenduari berari buruz hausnartzeko, jokabidea behar bezala gidatzeko eta ikaskuntza orokortzeko.</p>					



2.- Komunikatzen ikasi	1	2	3	4	5
<p><b>7.- Ahozko komunikazioa</b> Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealtatearen adierazpena erakitzean, ahozko hizkuntza jariakortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahozko komunikazioaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeke.</p>					
<p><b>8.- Hizkuntza idatzia</b> Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealtatearen berezko adierazpena erakitzean, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta komunikazio idatziaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeke.</p>					
<p><b>9.- Beste hizkuntza batzuk</b> Hitzezo hizkuntzaren eta hizkuntza artistikoen eta matematikoen oinarriko kodeak modu integratuan eta harmoniatsuan erabiltzea, errealtate indibiduala, soziala eta naturala hobeto interpretatzeko eta komunikatzeko, bai eta bizitzaz goatzeko ere.</p>					
<p><b>10.- Gizarte komunikabideen baliabideak</b> Gizarte komunikabideak eraginkortasunez eta autonomiaz erabiltzea, forma eta tesuinguru askotako mezu mediatikoak eskuratuz eta haiek interpretatuz, ebaluatuz eta sortuz, eta hedabideen funtzionamendua eta gizarte funtzioa ezagutuz. Horren helburua kontsumo arduratsuna eginez norberak gozatzea, informazio iturri izatea eta herritarrek parte hartzea da.</p>					
<p><b>11.- Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT)</b> Ohiko tresna eta baliabide teknologikoak trebetasunez, erantzukinez eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro ekoizteko, biltegitratzeko, berreskuratzeko, lantzeko eta hedatzeko edo komunikatzeko gaitasuna garatu ahal izateko, bai eta norbera eta gizarte hobeto garatzeko egokienak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barneratzeko gaitasunak emateko, informazioa ezagutza bihurtze aldera.</p>					
<p><b>12.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa</b> Euskal gizartearen errealtate sozio-komunikatiboa espiritu kritikoz interpretatzea eta haren ingurune komunikazio prozesuetan erantzukizunez eta zentzu etikoz parte hartzea, hedabideak eta teknologia berriak modu gogoetatsuan eta autonomoan erabiliz eta euskararen normalizazioaren alde jarrera aktiboa izanez (ingurune gainerako hizkuntzak balioesteko eta errespetatzeko jarrera izanik) ondo informatutako herritarrak izatera iristeko; hau da, gizarte demokratiko eta parte hartzailea erakitzeke ezinbestekoa den autonomia pertsonal eta gizarte erantzukizuna izateko.</p>					





3.- Elkarrekin bizitzen ikasi	1	2	3	4	5
<b>13.- Pertsonarteko harremanak</b> Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedeak kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.					
<b>14.-Gatazkak konpondu</b> Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, "aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimintatzen duen" egoeretan; irtenbideak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.					
<b>15.- Parte hartze demokratikoa</b> Parte hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.					
<b>16.- Elkarlana eta talde lana</b> Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Horren helburua behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integartzeko.					
<b>17.- Aniztasuna</b> Norberarekiko desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina duten pertsonekin zenbait proiektutan elkarlanean arituko dira, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarritzko giza eskubideak bermatzeko.					

4.- Norbera izaten ikasi	1	2	3	4	5
<b>18.- Gorpuztasuna</b> Nork bere gorputza onartzea, gorputz aldaketak eta sexualitatea arduraz barneratuz, eta ohitura osasungarriak hartuz, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.					
<b>19.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala</b> Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitzarako ezarritako helburuak lortzeko eta gustura sentitzeko.					
<b>20.- Nork bere buruaren estimua</b> Nork bere buruaren estimu positiboa eta erreala lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere.					
<b>21.- Autonomia</b> Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien arduradun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko.					
<b>22.- Sensibilitate estetikoa</b> Emozio estetikoak esperimintatzea, natura eta artea ezagutzeko eta miretsiz, edertasunaz gozatzeko eta arte adierazpen berriak sortuz, estetikak artean eta naturan ematen dituen emozioez gozatzeko.					
<b>23.- Integrazio pertsonala</b> Nork bere buruaren osotasuna esperimintatzea eta adieraztea dimentsio hauetan: indibiduala eta soziala, emozionala eta kognitiboa, immanentea eta transzendentea, pertsonaren osotasuna antolatzeko barne gaitasuna modu koordinatu eta harmonikoan sustatuz, giza ahalmena osotasunez garatzeko.					



5.- Egiten eta ekiten ikasi	1	2	3	4	5
<p><b>24.- Analisisa: informazioa hartzea eta gordetzea</b> Informazioa hartzea eta ulertzea, eta inguratzen duen errealitateari buruz hausnar- tzea, errealitatea arretaz eta jakin-minez behatuz, errealitatea zergatik den horrela- koa hainbat arlotatik ulertzen saiatuz, eta, espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez, zalantzan jarriz, errealitate hori hobetzeko ahalmena aztertuz, ideia eta konponbide berriak prestatzeko eta errealitate hobea planteatzeko.</p>					
<p><b>25.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea</b> Ideia berriak eta konponbideak prestatzea eta errealitate hobea planteatzea, egungo errealitatearentzako alternatibak proposatuz (sorkuntza tekniken bidez), eta aurrez ezarritako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuz eta egokiena/bidezkoena aukera- tuz, errealitate hori gauzatzeko/egiteko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.</p>					
<p><b>26.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea</b> Egungoaren alternatiba moduan planteatutako errealitatea gauzatzeko beharrezko ekintzak egitea, nahiari konpromisoa batuz eta ekite plan bat ezarriz, aurrera era- manez eta jarraipena eginez, hobekuntza gauzatu ahal izateko eta eragina eba- luatzeko.</p>					
<p><b>27.- Ebaluazioa</b> Egindako ekintzen eragin erreala ebaluatzea, informazio kuantitatiboa eta kualitati- boa jasoz, bai pertsonalki, bai eragina jasan duten taldeekin eztabaidatuz, lortu nahi den helburuaren betetze maila aztertzeko (nahi gabe sortutako beste eraginak ere ebalatu beharko dira), eta hori guztia ekite prozesua jarraitzeko (prozesu jarraitua).</p>					
<p><b>28.- Ekite prozesuaren aplikazioa</b> Bizitzako esparruetan ekitea, ekite prozesua aplikatuz (autoerrealizatzeko), nor- bere bizitzan parte hartuz eta besteei lagunduz eta positiboki eraginez, eta gizateria- ren eta planetaren garapen iraunkorrari lagunduz, giza espezieko kide izatearen sen- timenduan oinarrituta.</p>					
<p><b>29.- Hezkuntza Konpetentzi Orokorrei buruzko balorazio globala</b></p>					



**Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzikoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkenak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

Oharra: Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han erantzuteko



## 2.- JARRERA METADIZIPLINARRAK

### Argibideak:

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumumean jasotzen diren jarrera metadiziplinarrei buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarritzko txosteneko" Hezkuntza Konpetentzia Orokorreko 2. atalean (...or.) aurkitzen da.
- Item bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukia zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen balore eta jarrerak eskuratzeko, baloraziotik dator.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera:  
1= Hutsala; 2.-Garrantzi gutxi; 3- Nahiko garrantzi; 4.- Garrantzi handia; 5.- Behar-beharrezkoa
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

	1	2	3	4	5
1.- Arreta, jakin-mina, balioespen positiboa, irekitasuna, interesa, sentsibilitatea.					
2.- Sormena, irudimena, originaltasuna, ausardia.					
3.- Malgutasun intelektuala, hutsegitearekiko tolerantzia.					
4.- Jarrera gogoetsua, kritikoa, balioestearen aldekoa.					
5.- Ekimena, gogo bizia, arriskua, eraginkortasuna, ekintzailetasuna.					
6.- Antolamendua, aurreikuspena, sistematikotasuna.					
7.- Ahalegina, irmotasuna, borondatea, iraunkortasuna, autodiziplina, pazientzia, gehiago izateko espiritua.					
8.- Xehetasuna, argitasuna, zehaztasuna, lana ondo egiteko joera, ordena, txukuntasuna.					
9.- Erantzukizuna, segurtasuna, ardura, arreta.					
10.- Entzute aktiboa, elkarrizketatzailea, irekia eta zehaztua; zuhurtzia; negoziazioa; bitartekotasuna.					
11.- Sentsibilitatea, onarpena, estimua, enpatia, errukitasuna, asertibotasuna.					
12.- Kooperazioa, lankidetzatzailea, adiskidetasuna, bizikidetasuna, begikotasuna, umorea.					
13.- Ideia, iritzi, balio, hizkuntza, kultura eta identitate desberdinak eta askotarikoak onartzea eta errespetatzea; tolerantzia aktiboa.					
14.- Zuzentasuna, justizia, bereizkeriarik eza, solidaritatea.					
15.- Talde lana eta talde lankidetzatzailea, erabakiak hartzen eta erantzukizun instituzionaletan parte hartzea.					
16.- Bizikidetzatzailea eta gizabide arauak errespetatzea, instituzioak errespetatzea.					
17.- Eskuzabaltasuna, altruismoa, adeitasuna, laguntzeko prest egotea, adiskidetasuna, begikotasuna.					
18.- Zintzotasuna, leialtasuna, eskertasuna.					
19.- Naturarekiko eta ingurumenarekiko errespetua.					
20.- Gorputza zaintzea, ohitura osasungarriak.					
21.- Euskara eta euskal kultura estimatzea, baita ukipen hizkuntzak ere.					
22.- Autoestimua, norberaren duintasunaz jabetzea, gaitasunak eta mugak onartzea, norberaren eskubideak defendatzea, norberarengan konfiantza izatea.					
23.- Autonomia, askatasuna.					
24.- Autokontrola, emozioen egonkortasuna eta oreka, heldutasuna.					
25.- Gozamena, sentikortasun estetikoa.					
26.- Jarrera metadiziplinarrei buruzko balorazio orokorra					



**Jarrera metadiziplinarrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzizkoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkenak...)

**Iruzkina**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoi azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

Oharra: Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han erantzuteko



### 3.- PROZEDURA METADIZIPLINARRAK

**Argibideak:**

- Inkesta honen helburua, Euskal Curriculumean jasotzen diren prozedura metadiziplinarrei buruz duzuen iritzia ezagutzea da.
- Horretarako informazioa, "Oinarrizko txosteneko" Hezkuntza Kompetentzia Orokorreko 2. atalean (...or.) aurkitzen da.
- tem bakoitzari erantzuteko irizpidea, item bakoitzaren edukiak zein neurritan eragiten duen, zuen ustez, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzerakoan lortu beharko lituzkeen prozedurak eskuratzeko, baloraziotik dator.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da, dagokion laukian X seinalatuz, eskala honen arabera:  
1= Hutsala; 2.-Garrantzi gutxi; 3- Nahiko garrantzi; 4.- Garrantzi handia; 5.- Behar-beharrezkoa
- Inkestaren bukaeran, hobekuntza proposamenak eta iruzkinak egiteko, eta inkestari erantzuteko erabilitako bideak azaltzeko tokia eskaintzen da.

	1	2	3	4	5
<b>A.- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea</b>					
1.- Ahozko mezuak ulertzeko jarraibideak.					
2.- Polikudeaturiko mintzaldiak (elkarrizketetan) ekoizteko jarraibideak.					
3.- Monokudeaturiko mintzaldiak (bakarrizketetan) ekoizteko jarraibideak.					
4.- Idatzizko testuak ulertzeko jarraibideak.					
5.- Testu generikoak egiteko jarraibide orokorrak.					
6.- Txosten deskribatzaileak egiteko jarraibideak.					
7.- Balorazio edo kritika txostenak egiteko jarraibideak.					
8.- Testu iruzkinak egiteko jarraibideak.					
9.- Lan monografikoak egiteko jarraibideak.					
10.- Gai baten ahozko aurkezpena edo azalpena egiteko orientabideak.					
<b>B.- Informazioa bilatzea eta antolatzea</b>					
11.- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.					
12.- Informazioa bilatzean, ordenagailua erabiltzeko jarraitu beharreko aholkuak.					
13.- Informazioa antolatzeko jarraibideak, taulak eta diagramak erabiliz.					
<b>C.- Ikaskuntza estrategiak eta norberaren lanaren antolaketa</b>					
14.- Ideiak argitzeko, sortzeko eta ebaluatzeko jarraibideak.					
15.- Eskemak egiteko jarraibideak.					
16.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak.					
17.- Laburpenak egiteko jarraibideak.					
18.- Testu edo dokumentu bati buruzko oharren hartzeko, ahozko azalpen bat egiteko edo ikus-entzunezko proiektio bat egiteko urratsak.					
19.- Testu bat ikasteko edo memorizatzeko eman beharreko urratsak.					
20.- Metakognizioa garatzeko jarraibideak (norberaren ikasteko moduari buruzko gogoeta).					
21.- Lan pertsonala antolatzeko jarraibideak: agenda, karpetak, etab.					
<b>D.- Erabakiak hartzea, ekintzaile izatea eta arazoak eta gatazkak konpontzea</b>					
22.- Ikerketa txikiak egiteko aholkuak.					
23.- Prozesu ekintzailearen jarraibideak.					
24.- Gatazkak aztertzeke protokoloak.					
25.- Erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko jarraitu beharreko protokoloak.					
<b>E.- Bizikidetzeta eta talde lana</b>					
26.- Bizikidetzeta arauak egiteko edo berraztertzeke aholkuak.					
27.- Ikasgelako eztabaidetan parte hartzeke arauak					
28.- Talde lanak egiteke orientabideak.					
29.- Bilerak egiteke jarraibideak.					
30.- Prozedura metadiziplinarrei buruzko balorazio orokorra					



**Prozedura metadiziplinarrak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Kontuan hartu ez diren eta garrantzikoak irizten direnak, kontuan hartu arren hobetu daitezkenak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoien azalpena, proposamenak...)

**Inkesta erantzuteko erabilitako bidea**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, pertsona horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabilitako metodologia...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han erantzuteko







## **III.- DIZIPLINA ARLOEN BIDEZKO KONPETENTZIEN PROPOSAMENA**



# 1.- HIZKUNTZAK ETA LITERATURA

## 1.1.- SARRERA

### Arloaren ekarpena hezkuntza konpetentzia orokorren garapenean

Hizkuntzak eta Literatura arloak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren gaitasun guzti-guztiak lortzeko orduan; izan ere, hizkuntza da giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan. Hizkuntza da gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Arlo hori gaitasun nagusien garapenari egindako ekarpenen arabera mahaigaineratuz gero, beharrezkoa zaigu hizkuntza irakaspenaren ikuspegi instrumentala oinarri hartzea: arlo horren helburua ikasleak prestatzea da, inguruan dituzten hizkuntzak erabiltzeko gai izan daitezen, bizitza pertsonalaren eta sozialaren esparru guztietan.

***Ikasten eta pentsatzen ikastea.*** Hizkuntza da garapen kognitiborako tresna nagusia, horri esker adimena egituratu eta errealitatea barneratzen dugulako. Informazioa interpretatzeko, sortzeko, ebaluatzeko edo komunikatzeko prozesu kognitiboak ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren bidez gauzatzen dira, gehien bat; beraz, gaitasun kognitibo-linguistikoak funtsezkoak dira adimena eta ezaguera garatzeko eta, ondorioz, emaitza akademiko onak lortzeko. Arlo guztiek dute erantzukizuna gaitasun horien garapenean; hala ere, hizkuntz arloa da eremurik pribilegiatuena gaitasun horien baitako prozesuak erreflexiboki eta kontzienteki ikasteko. Beraz, eremu akademikoaren baitako diskurtsoaren erabilpenak berebiziko eginkizuna izan du alorraren curriculum diseinuan.

***Komunikatzen ikastea.*** Hizkuntzak eta Literatur arloa funtsezkoa da gaitasun nagusi hori garatzeko; izan ere, arlo horren helburu nagusia ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea da, edozein gizarte eremutako ahozko mezuak eta mezu idatziak ulertzeko eta sortzeko gai izan daitezen. Hizkuntzara gerturatzeko, gizartean gertatzen diren askotariko komunikazio bideetara joko dugu, eta masa komunikabideen hedapenaren ondorioz sortu diren komunikabide berrien erabilpena eta multimedia euskarri digital berrien erabilpena kontuan hartuko dugu, horiek hainbat hizkuntza mota



integratzen baitituzte mezuak sortzeko. Beraz, ikuspegi integratu hori oinarri hartuta, alor horrek bestelako hizkuntzen ulermena eta ekoizpena ere aztertuko du (paralinguistikoak, ikus entzunezkoak, ikonikoak, keinu bidezkoak, grafikoak, musikalak, etab.), ahozko hizkuntzarekin batera.

**-Elkarrekin bizitzen ikastea.** Hizkuntzak, bere dimentsio bikoitza kontuan harturik –pertsonei arteko komunikabidea eta mundua irudikatzeko tresna da, aldi berean–, berebiziko eginkizuna du ikasleen gizarteratze prozesuan. Komunikazioaren bidez, ikasleek ikasi egiten dute beste pertsonak nola pentsatzen duten eta errealitatea nola ulertzen duten; horrekin batera, gizartearen funtzionamenduari buruzko hainbat gauza ere ikasten dituzte: arauak, ohiturak, baloreak, etab. eta, beraz, zeinuen gordetzen dituzten kultur esanahiak ere bai. Pentsamendua eta ekintzak bideratzen ikasten dute, gizarte inguruaz jabetzen eta besteekiko komunikazio trukea ahalbidetzen duten elkarlan eta erresistentzia moduak gauzatzen; prozesu horretan, ezaguera komuna eraikitzen dute. Ondorioz, gaitasun nagusi hori garatu ahal izateko, funtsezkoa da informazioarekin, argumentuekin eta arauarekin lotutako diskurtsoak menderatzea –erakundeetan eta pertsonen arteko harremanetan ageri dira– eta hitz egiteko eta eztabaidatzeko gaitasunarekin lotutako komunikazio gaitasun nagusiak ezagutzea –jarrerak barne hartzen dituztenak: errespetua, bazterkeria ez onartzea, dibertsitatea baloratzea...–. Alde horretatik, ahozko komunikazioak garrantzi handia du alor horretako curriculumean.

Bestalde, egungo gizarteetan, mundu fisikoa eta soziokulturala ulertzeko modua bideratzen duten informazioen atal nagusi bat masa komunikabideetatik eta publizitatetik dator. Beraz, gizartearen kritikoki eta arduraz parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da kodeak eta generoak ezagutzea, baita komunikabide horien askotariko erabilpen linguistikoak ere, horiekiko jarrera kritikoa garatu ahal izateko. Hori dela eta, hizkuntz arloaren bidez, ikasleek horiek guztiak erreflexiboki eta kontzienteki ezagutzen dituztela ziurtatuko da.

Halaber, eleaniztasuna –hau da, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna– ezinbesteko baldintza bihurtu da egungo gizartearen parte hartu ahal izateko: izan ere, eleaniztasunak erraztu egiten du egun hain hedatuta dagoen nazioarteko komunikazioa; gainera, kanpoko informazioa jasotzeko bide bat da, baita pertsonak elkar ezagutzeko bidea eta ideiak trukatzeko eta elkar ulertzeko bidea ere. Hizkuntz eta Literatur alorrak erantzun egin behar dio behar horri, egungo euskal gizartearen baitako eleaniztasun testuinguruan behar bezala parte hartzeko beharrezkoak diren hizkuntzen garapen integratua eta osagarria bermatzeko.

**Ni neu izaten ikastea.** Hizkuntzak barruko prozesu emozionalak eta arrazionalak erregulatzeko tresna pribilegiatuak dira, baita norberaren nortasuna sortzeko beharrezkoa den komunikazioa trukatzeko ere. Hizkuntza behar bezala erabiltzen ikasteko, beharrezkoa da hainbat gaitasun izatea: nork bere burua kontrolatzea, oreka emozionala, autoestimua, autonomia... eta horiek guztiak gaitasun nagusi horren baitan daude.



Bestalde, alor horrek lagundu egiten du nortasuna garatzen, literaturaren bidez. Nork bere burua hizkuntza eta kultura berbera duen elkarte bateko kideztat hartzea lagungarria da nortasuna finkatzeko, eta literaturak, gizartea eta kultura adierazteko bidea den aldetik, funtsezko eginkizuna du kultur eraikuntza horretan. Bestalde, literaturak gizakien gai unibertsalak irudikatzen ditu, denboraz eta bera-riazko kulturez haraindi dauden gaiak, hain zuzen. Horri esker, pertsona bakoitzak bere arazoak eta hausnarketak hurbileko edo urruneko pertsonen arazoekin eta hausnarketekin aldera ditzake, horien-gandik ikasiz eta nork bere ondorioak aterez. Azkenik, hizkuntzek dimentsio ludiko-estetikoa dute lite-ratur arloan, eta hori funtsezkoa da sormena eta sentsibilitate estetikoa garatzeko. Hori guztia dela eta, alorraren planteamendua egiteko orduan, literaturaren eginkizuna sendotu nahi izan dugu, ikuspegi bikoitzetik: komunikatzeko modu desberdin modura eta kultur gertaera modura.

***Egiten ikastea eta ikasteari ekitea.*** Hizkuntzak ikastea hizkuntzarekin “gauzak egitea” eskatzen du eta, alde horretatik, “gauzak egiteko” gune bat da. “Gauzak egiteak” testuak ulertzeko eta sor-tzeko prozesu konplexuak dakartza berekin, eta hainbat fase bereiz daitezke: planifikatzea, egitea eta ebaluatzea. Fase horietan ikasteari ekiteko prozesuaren faseak islatzen dira.

## **Alorraren ikuspegia**

Aurretik azaldu dugunez, hizkuntzak gaitasun nagusiak garatzeko duen garrantzia ikusita, arlo-aren helburua ikasleei hizkuntzak behar bezala erabiltzen erakustea da, gizarte bizitzaren eta bizi-tza pertsonalaren alor guztietan. Helburu horrek finkatu egiten du curriculumean jasotzen den hiz-kuntzari buruzko ikuspegia: hizkuntza hautazko zeinuz osatutako sistema da, eta gizakiek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dute. Hizkuntza sistema bat dela esatean, hizkuntzen egiturazko ikuspegia azpimarratzen da; izan ere, hizkuntzen baitako osagaiak balioa eta esanahia izango dute baldin eta elkarren artean lotzen badira eta osotasunari buruzko erreferentzia egiten badute. Hala ere, sistema horien baitako osagaiak erabilpen zehatzen inguruan egituratzen dira, eta erabiltzen direnean dute esanahia. Sistema eta komunikazioa erabat lotuta daude eta, horregatik, curriculum diseinu honen oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa da.

Hizkuntzak eta Literatur alorraren curriculum, hezkuntza gaitasun nagusien arabera diseinatzen bada, hizkuntza ikuspegi diskurtsiboarekin lotzen da eta horrek ondorio zuzenak dakartza berekin, bai gaitasunen formulazioan, baita edukien aukeraketan. Arloaren helburua ikasleek duten komuni-katzeko gaitasunaren garapena izanik (komunikazioaren eta ekoizpenaren prozesu bikoitzean), gai-tasunen eta edukiaren oinarria hizkuntzaren erabilpenenaren ikaskuntza izango da, ezaguera eta esperientzia irudikatzen. Ondorioz, eduki nagusiak testuen generoak izango dira, horietan gauza-tzen baitira edozein eremutako gizarte erabilpenak. Halaber, hizkuntzaren sistema aztertzen (tes-tuinguru mailan, testu mailan, esaldien eta hitzen mailan) erabilpen horien hausnarketan oinarritu beharko da, baita horietatik sortutako testuekin egindako lanean ere.



Egungo gizartean geroz eta garrantzitsuagoak dira komunikabideak (irratia, prentsa, telebista...) eta gero eta gehiago erabiltzen dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT): horrelako gizarte batean berebizikoa da behar bezala komunikatzeko gaitasuna izatea eta, horregatik, Hizkuntzak eta Literatur Arloak kontuan hartu beharko du teknologia horiek ondo erabiltzeko behar diren gaitasunen garapena ere.

## **Hizkuntzen ikuspegi integratzailea: curriculum integratua**

### ***Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta***

XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Egungo gizartean, globalizazioaren mendean, komunikazio baliabideak gorantz doaz, bai eta pertsonen eta nazioarteko harremanen mugikortasuna ere. Gizarte eredu horretan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea –euskara– hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleanitza da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan, baina, horrekin batera, euskaldunek beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dute. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezela lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko gai izan beharko dute. Azkenik, Estatuaren arteko mugaren bi aldetara dauden bi elkarten kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuaren hizkuntza nagusiar buruzko funtsezko ezaguerak izatea. Eskola sistemak hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko du eta, ondorioz, ikaskuntza prozesua arautu egin beharko da helburu hori ziurtatu ahal izateko.

### ***Curriculum integratua***

Hizkuntza bakoitza ez da bere aldetik garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Bada gaitasun linguistiko orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Gaitasun nagusi horren sustapena funtsezkoa da gaitasun eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Hala dio Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruak<sup>1</sup>:


*“Ikuspegi horretatik, hizkuntz hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Helburua ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea, bertako hiztunen ereduari jarraituz. Aitzitik, helburua oinarrizko hizkuntza bileduma bat sortzea da, bertan hizkuntz gaitasun guztiak agertuko direlarik”*



Alde horretatik, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruak esandakoaren arabera, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu euskararen, dagokion harremanetarako hizkuntzaren eta nazioarte mailako hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne hartzen dituen *curriculum integratuaren* diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntz alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoaren aplikazioa ere, beste hizkuntza batzuetan.

Ondorioz, arloaren gaitasun nagusien eta blokeen definizioa eta oinarritzko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko gaitasunak definitzean eta, bereziki, horiek ebaluazio irizpideen bidez definitzen direnean –betiere deskripzio esparru komuna erabiliz– hizkuntza bakoitzaren lorpen maila zehaztuko da.

Hizkuntzak mailakatzeko proposamena egiteko orduan, aipatutako Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruan oinarritu gara. Nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania edo frantsesa, kasuaren arabera) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea B2 maila Europako Erreferentzia Esparruan); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila txikiagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailea: B1 maila) eta, azkenik, oinarritzko maila eskatuko da (oinarritzko erabiltzailea: A1-A2 maila), Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzan.



## Metodologia ikuspegia

Arestian esan dugun moduan, Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumua hezkuntza kompetentzia orokorren arabera diseinatzeak irakaskuntzan ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du; horren bidez, hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifika daiteke. Horrek zuzeneko eraginak ditu metodologia erreferentzi jakin batzuk aukeratzeko; metodologia horiek hizkuntzaren esanahi eta funtzio erabilerak eraikitzeaz arduratzen dira, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eraginkortasuna bermatzen dute definitutako komunikazio kompetentziak lortzeko. Ikuspegi horren arabera, ezaugarri hauek oinarritzeko dira:

- Ikasleentzat esanguratsuak diren *komunikazio* proiektuek bideratutako ikaskuntza prozesua.
- *Testua* komunikazio unitatea da; testua *testu motetatik edo generoetatik* abiatuta lantzen da, eta horiek ikaskuntza espezifikoak eskatzen dituzte komunikazio egoeren arabera.
- Ikaskuntza *sekuentzia didaktikoetan* egituratzea, jarduerak komunikazio lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.
- *Prozedurak* eta *goi mailako estrategia kognitiboen* garapena nagusitzen dira; hizkuntza ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, *hitzekin gauzak egiten jakitea* garatzea baita helburu nagusia.



- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. *Gramatika hausnarketaren* abiapuntua landuko den testua da, eta ezin dira bereizi komunikazio ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.
- Ikasleen artean eta irakaslearen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, *ikasgela komunikazio testuinguru erreal bihur dadin, eta bertan lankidetzazko ikaskuntza indar dadin.*

## 1.2.- ARLOAREN KONPETENTZIA OROKORRAK

### Arloaren helburua

Hizkuntz eta Literatur irakaskuntzaren helburu nagusia, Bigarren Hezkuntzan, ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea da, hitz egiten dituzten hizkuntza guztietan, eta hitzezko mailan nahiz maila idatzian. Arlo honen xedea ikasleek hizkuntzaren oinarrizko lau gaitasunak menderatzea da (entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea), hizkuntzak behar bezala erabil ditzaten, baita horiekin lotuta gizarteko eremu guztietan dauden hitzik gabeko hainbat hizkuntza ere. Horretarako, ikasleek gizarteko alor horietako hainbat testu ulertu eta sortu beharko dituzte; baita erabilera horri buruzko gogoeta sistematikoa egin ere. Halaber, arlo horren beste helburu bat literatur hezkuntzan aurrera egitea da, literatur testua hizkuntzaren dimentsio estetikoaren manifestazio modura eta testuinguru jakin batean kokatzen den gizarte eta kultur emaitza modura ulertuta. Helburu nagusi horiek elkarrekin eta modu osagarrian landuko dira, curriculumaren baitako hizkuntza guztiak landuz. Horrela, ikasleek gaitasun eleanitz integratua eta orekatua lortuko dute.

### Konpetentzia orokorrak

Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean (16 urte), Hizkuntz eta Literatur arloaren helburua ikasleek gaitasun hauek lortzea da:

**1. Gizarteko hainbat alorretako hitzezko eta idatzizko edozein testu behar bezala eta kritikoki ulertzea, eta irakurtzeko eta entzuteko gaitasuna helburu pertsonalei, sozialei edo akademikoei erantzuteko erabiltzea. Euskararen eta harremanetarako hizkuntzaren kasuan, ikasleek bere kasako erabiltzailearen (B2) maila lortu beharko dute; Europako beste hizkuntza baten kasuan, berriz, bere kasako erabiltzaile maila lortuko beharko dute (B1); eta, Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzaren kasuan, berriz, oinarrizko erabiltzaile maila.**

Gaitasun nagusi horren baitan, ikasleek behar dituzten berariazko gaitasunak sartzen dira; ez testu jakin baten esanahia ulertzeko bakarrik, horren esanahia berregiteko baizik, testuaren laguntzaz (hitzezkoa edo idatzia) eta ikasleek dituzten aurretiko ezagueren laguntzaz, helburu bakoitzaren arabera.





Ikasleek giza komunikazioaren baitako hainbat alorretako testuak entzuten eta irakurtzen ikasi beharko dute. Testu genero bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horietako bakoitza ulertzeko, berariazko ikaskuntza ezinbestekoa da. Gainera, ikasleek hainbat testu genero ezagutuko dituzte, helburu desberdinak oinarri hartuz; esaterako, informazio interesgarri jakin bat bilatzeko (entzute gidatua / hautazko irakurketa), edukiaren eta testua sortzeko testuinguruaren esanahia berregiteko (arretaz entzutea / irakurketa erreflexiboa) atsegin hartzeko (jostetako entzutea edo irakurtzea), eta balorazio pertsonala emateko (entzute edo irakurketa kritikoa). Entzute eta irakurketa mota bakoitzak estrategia jakin batzuk aplikatzea eskatzen du, eta ikasleek ikasi egin beharko dituzte estrategia horiek ere.

**2. Gizarteko hainbat alorretako hitzezko testuak eta testu idatziak behar bezala eta koherentziaz sortzea. Helburu horrekin, ikasleek helburu pertsonalei, sozialei eta akademikoei erantzungo diete; euskaraz eta harremanetarako hizkuntza ofizialean bere kasako erabiltzailearen mailan (B2); Europako hizkuntza batean, bere kasako erabiltzaile mailan (B1); eta Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzaren kasuan, berriz, oinarrizko erabiltzaile mailan.**

Testuak sortzeko prozesu oro konplexua da, hainbat pauso eskatzen baititu: jarduera diskurtsiboa planifikatzea, testualizatzea, egitea eta berrikustea. Pauso horiek guztiak hierarkikoki lotuta daude elkarren artean, modu errekurtsiboan, eta igorlearen asmoak baldintzatzen ditu, gainera. Prozesu horrek modu integratuan kudeatuko ditu testuaren propietateak: komunikazio egoerara moldatzea, edukiaren koherentzia, testua osatzen duten atalen kohesioa, edo hizkuntza aldetik testua zuzena izatea. Horretarako, beharrezkoa da hainbat alderdi menderatzea: alderdi mekanikoak (fonetika eta kaligrafia); erregistroa, estiloa eta tonua aukeratzea, baita egoera jakin batean egokiak diren hitzik gabeko kodeak ere (prosodikoak, keinuzkoak, ikonikoak, grafikoak...); ideiak sortzeko, hautatzeko eta ordenan jartzeko prozesu erreflexiboenak, komunikabide bakoitzaren (hitzezkoa, idatzia, ikus-entzunezkoa, digitala) berezko estrategiak erabiliz.

**3. Hizkuntzari buruzko hausnarketa egitea, sistema gisa ulertuta (alor testualean, perpaus alorrean eta hitzen alorrean), hizkuntzaren osagaiak eta arauak ezagutuz eta ezaguera horiek hizkuntza ezagunen artean transferituz. Horrekin guztiarekin, ikasleek hobeto ezagutuko dituzte hizkuntzak, bai ulermenaren aldetik, bai ekoizpenaren aldetik. Horrez gain, errazagoa izango da ikasleentzat hizkuntzak ikastea.**

Hizkuntzen ikaskuntza horien gizarte erabilerak menderatzearen ikuspegitik proposatzen badugu, hizkuntzari buruzko hausnarketa hizkuntzak erabiltzen ikasteko osagai modura ulertu beharko da. Beraz, hausnarketa hori testuak ulertzeko eta sortzeko jardueren baitan sartu beharko da, eta hainbat alderdirekin lotu beharko da gainera: testuaren eta testuinguruaren arteko elkarmenpekotasuna (testuinguruaren alorra), enuntziatuen eta diskurtsoa osatzen duten atalen kohesioa (testuaren alorra), baita arau lexiko-morfosintaktikoak behar bezala erabiltzea, baita arau ortografikoak eta fonetikoak ere (perpausen eta hitzen alorra). Halaber, ikasleek oinarrizko metahizkuntza ikasiko



dute hizkuntza sistema modura ulertzeko. Hausnarketarako prozedurek eta garatutako ezaguerek curriculumaren baitako hizkuntzak ikasteko oinarri komuna osatuko dute.

**4. Inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatzea; horretarako, ikasleek hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak ezagutu beharko dituzte, baita horien arteko harremanak ere, euskararen erabilpenaren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa hartuz, eta beste hizkuntzekiko errespetu eta balorazio jarrera agertuz.**

Euskal gizartea gizarte eleanitza da gaur egun: bertako hizkuntza gutxituta dago eta harremanetarako bi hizkuntza dira nagusi. Horrekin batera, beste hizkuntza batzuk ere garrantzia hartzen ari dira: batetik, ingelesa (nazioarteko hizkuntza nagusi bihurtu da) eta, bestetik, inmigrazioak ekarritako hizkuntzak. Bistakoa da egoera linguistikoa oso konplexua dela eta, ondorioz, kontzientzia soziolinguistikoa garatzea oso garrantzitsua da (hau da, errealitate soziolinguistikoa aztertzeke, kritikoki interpretatzeke eta horri buruzko iritzia sortzeke gaitasuna), behar bezala komunikatzen ikasteko. Beraz, kontzientzia horren garapena hizkuntz arloaren helburu garrantzitsua da. Beharrezkoa da Euskal Herrian bizi diren pertsonen euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea; alabaina, eta horrekin batera, beharrezkoa da inguruko beste hizkuntzekiko eta hiztunekiko balorazioa, errespetua eta interesa ere agertzea. Norberaren eta besteen hizkuntzekiko estimua eta balioespenak bi oinarri izango ditu: batetik, hizkuntzen dimentsio sozialarekin lotutako ezaguerak (arreta berezia jarri beharko zaio euskararen gizarte historiari eta egungo egoerari); eta, bestetik, ezaguera horiek errealitate soziolinguistikoaren azterketan aplikatzea.

**5. Literatur hizkuntzaren berezko ezaugarriak ezagutzea, baita euskal kulturaren, inguruko kulturaren eta kultur unibertsalaren oinarrizko erreferenteak ere; horretarako, erreferente horiek jatorrizko testuinguru historikoa eta sozio-kulturala kontuan hartuz aztertuko dira, iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko gizarte errealitatea kritikoki interpretatzeko eta norberaren kultur nortasuna sortzeko. Horrekin guztiarekin, ikasleak literatur lanak ulertzeko eta sortzeko gai izango dira, hizkuntzaren mugak eta aukerak aztertuz.**

Hizkuntzak dimentsio estetikoa du literatur arloan. Arlo horretako testuak ulertzeko eta sortzeko beharrezkoa da adierazpide horren arauak eta baliabideak ezagutzea eta erabiltzea: literatur generoak eta horien ezaugarriak, baliabide estilistikoaren eta erretorikoaren barietatea, etab. Arauak eta baliabideak ezagutzearen helburu nagusia ikasleei literatur testuak sakonago ulertzeko behar dituzten tresnak ematea da, baita norberaren bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak sormenez eta sentsibilitate estetikoaz adierazteko ere.

Bestalde, ikasleek literatur lanak testuinguru historiko eta sozio-kultural jakin baten emaitza direla ulertu beharko dute, baita kultur tradizio jakin baten isla ere. Tradizio hori ezagutzea lagungarria



da norberaren nortasun soziokulturala osatzeko. Horretarako, ikasleek literaturaren historiaren oinarritzko erreferenteak ezagutuko dituzte, bereziki beren hurbileko kulturarenak (euskaraz edo kasuan kasuko harremanetarako hizkuntzan), baina kultur unibertsalaren erreferente nagusiak ere bai. Hori guztia ezagutzeko, ikasleek ulermen gaitasunera eta interesetara egokitutako testuak irakurriko eta aztertuko dituzte, testuingurua kontuan hartuta.

**6. Literaturaz gozatzea, erreferentziako testuak eta norberak aukeratutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste arte eremuetan sartuz (antzerkia, zinema, irratia, telebista...), norberaren esperientziari esanahia emateko, giza egoera hobeto ulertzeko eta sentsibiltate ludiko-estetikoa garatzeko, norberaren nortasun pertsonala eta soziala eraikitze helburuarekin.**

Gaitasun nagusi hori lantzeko, ikasleek literatur testuak irakurriko dituzte literatur esperientziaren eta bizitza esperientziaren arteko loturak ezartzeko, atsegin iturri modura eta aberaste pertsonala lortzeko bide gisa. Aukeratutako literatur lanen esanahia eskuratzeko eta barneratzeko prozesua azpimarratuko da bereziki, baita irakurketa esperientziaren transferentzia ere, taldeka egindako iruzkinen bidez.

Gazteen kulturen eragin handia duten beste literatur adierazpen batzuk ere kontuan hartuko dira: zinema, gizarte komunikabideak edo eremu digitala.

### 1.3. IKASKUNTZA EDUKIAK

**Edukien marko komuna: Eduki multzoak.**

Curriculumean, edukiak ikasleak behar dituen konpetentzien eta esperientzien arabera definitzen dira. Horregatik, eta hizkuntzen eta literaturaren irakaskuntzarako ikuspegi diskurtsiboa kontuan hartuz, arloko edukiak hizkuntzaren erabileraren ikaskuntzan oinarritzen dira, komunikatzeko eta ezagutzaren eta esperientziaren berri emateko. Beste modu batera esanda: arloko edukiek hizkuntzaren bidez gauzak “egiten jakitearekin” lotuta daude zuzenean edo zeharka. Horretarako, arloaren edukiak lau kontzeptu handiren inguruan biltzen dira, eta kontzeptu horietatik ondorioztatzen dira eduki multzoak. Eduki multzo horiek bereizita aipatzen baditugu ere, ez dira multzo hermetikoak elkarrekiko.

**a) Komunikazio erabilera**, ulermenari eta ekoizpenari dagokionez, eta egoera, asmoa, erabiltzen diren kode eta komunikazio testuinguruak edo erabilera esparruak kontuan izanik. Eduki nagusiak edozein arloko gizarte erabileretan sortutako testu generoak izango dira, bai ahozkoak edo idatzizkoak, bai ikus-entzunezkoak. Gaur egungo gizartean komunikabideak (irratia, prentsa, telebista, etab.) eta informazio eta komunikazio teknologia berriak (IKT) garrantzia handikoak direnez, erabateko



komunikazio kompetentzia garatzeak honako hau eskatzen dio Hizkuntzak eta Literatura arloari: ahozko eta idatzizko erabileren artean, horien erabilera eraginkorrekarekin lotutako kompetentzien garapena ere sartzea.

Aipatutako kontzeptu horretatik, bi eduki multzo ondorioztatzen dira:

1. *Ahozko komunikazioa*: hainbat erabilera eremutako ahozko edo ikus-entzunezko testu generoei buruzko edukiak, baita horietan dauden hitzezko, hitzezko-ikonozko eta keinuzko hizkuntzei, hizkuntza proxemikoari eta abarri buruzko edukiak, edo eta ahozko ulermenaren eta ekoizpenaren prozedurei buruzkoak ere.
2. *Idatzizko komunikazioa*: hainbat erabilera eremutako idatzizko erabilerei eta ikus-entzunezko idatzizko testu generoei buruzko edukiak, baita horietan dauden hitzezko, hitzezko-ikonozko eta keinuzko hizkuntzei, hizkuntza proxemikoari eta abarri buruzko edukiak eta idatzizko ulermenaren eta ekoizpenaren prozedurei buruzkoak ere.

**b) Hizkuntzari buruzko hausnarketa.** Ulermen eta ekoizpen jarduerak ikasteko eta hobetzeko tresna bezala ulertua; hizkuntzaren sistemaren azterketa (testuinguru, testu, perpausa eta hitz mailan) komunikazio erabileren hausnarketatik abiatuko da, hau da, hortik sortutako testuen lanketan oinarrituko da.

Del mencionado concepto derivamos el siguiente bloque de contenido:

3. *Hizkuntzari buruzko hausnarketa*: ikasleei "hizkuntzako eskoletan hizkuntzaz hitz egiteko" oinarritutako metahizkuntza emateaz gain, eduki horiek prozedurazko zenbait ezagutza jabetzen lagunduko diete ikasleei, egoki, koherentziaz, kohesioz eta zuzen hitz egiteko.

**c) Hizkuntzaren gizarte dimentsioa.** Egungo euskal gizarte eleanitzean, komunikazio kompetentzia garatzeko hizkuntzaren gizarte dimentsioa ezagutu behar da, bereziki: zer da hizkuntza bat, hizkuntzen sorrera eta bilakaera, eleaniztasuna, gehiengo eta gutxiengo hizkuntzak, etab. Eremu horretako ezagutzetan oinarritutako errealitate soziolinguistikoen hausnarketaren bidez, jarrera aldaketa sustatzen saiatuko gara, hizkuntzen aldeko jarrera positiboak garatzeko, eta, bereziki, euskal hizkuntzaren normal-kuntza prozesuarekiko ardurak hartzeko jarrerak garatzeko.

4. *Hizkuntzaren gizarte dimentsioa*: hizkuntza zerbait bizia dela -eta hainbat faktorek baldintzatuta- etengabe bilakatzen dela ulertzeko edukiak; jarrera aldaketa sustatzera bideratutako edukiak, hizkuntzen aldeko jarrera positiboak garatzeko, eta, bereziki, euskal hizkuntzaren normal-kuntza prozesuarekiko ardurak hartzeko jarrerak garatzeko.

**d) Literatura.** Komunikazio kompetentziaren alde osagarri bat literatur kompetentzia da. Literatur kompetentzia literatur testuak irakurtzeko, entzuteko, interpretatzeko eta ekoizteko kompetentzia da; literatur



testuak, berriz, norbanakoaren, gizartearen eta kulturaren identitatea adierazteko modu pribilegiatuak dira. Literatur kompetentzia garatzeko, ulermen eta ekoizpen kompetentzia orokorrez gain, literatura komunikazio bide erabat desberdina bihurtzen duten konbentzioak eta teknikak jakin behar dira, baita norberaren kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko erreferente batzuk ere. Literatur kompetentzia, berez, honela defini dezakegu: literaturari dagokion komunikazio eta kultura kompetentziak biltzen dituen kompetentzia, literatur testuen potentzial semantiko ikaragarriaren ulermena lotuz irakurketaren gozamenaren eta idaztearen plazeraren estimuluarekin. Kultur erreferentziak igortzeko multimedia euskarriek garrantzia handia dute egun, eta, hori dela eta, literaturara beste euskarri batzuen bidez ere hurbilduko gara; esaterako: zinearen, gizarte komunikabideen eta ingurune digitalaren bidez.

5. *Literatura*: literatur kompetentzia garatzea, literatur testuak ulertzeko eta ekoizteko kompetentziatzat hartuta, eta, literaturari buruzko kultur jakintzaz jabetzea eta horrekin gozatzea.

Ildo horretan, eduki multzo bakoitzak **edukien hiru dimentsio** adierazten ditu: kontzeptuak, hau da, jakintza arloekin lotutako gaiak ulertzeko eta adierazteko beharrezko hitzak edo terminoak; prozedurak edo ekintza bat aurrera eramateko jarraitu beharreko urratsak, gehiago edo gutxiago egituratuta. Azken horiek “egiten jakin” horrekin lotuta daude, eta arloaren xedea hizkuntza erabiltzen ikastea denez, prozedurak lehentasuna duten edukiak izango dira. Azkenik, jarrerak, jarduera bat modulatzeko duten elementutzat hartuta; arloaren izaerarekin zuzenean lotutakoak (komunikatzen ikasi) nahiz hezkuntza kompetentzia orokorrekin lotutakoak (elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi) aukeratuko dira.

### 1.3.1- Edukien aukera: EUSKARA

#### *Jarrerazko edukiak:*

1. Ikaskuntzaz arduratzea, autonomia, ekimena eta ahalegina erakutsiz, hartutako erabakiek izan ditzaketen arriskuak onartuz eta, frustrazioen aurrean, gaitzeko espiritua eta iraunkortasuna agertuz.
2. Autonomia eta sormena ahozko nahiz idatzizko lanak planifikatzeko, egiteko eta aurkezteko, nor bere estimua garatzeko ezaugarriak eta mugak ezagutuz eta onartuz.
3. Jarrera kritikoa izatea ideologikoki konbentzitzera bideratutako hitzezko eta hitzik gabeko diskurtsoen aurrean (bereziki, komunikabideen diskurtsoen aurrean), baita gizarte, arraza, sexu, kultura... bazterketa adierazten duten edukien eta formen aurrean ere.
4. Partekatutako lanetan ekimenez eta arduraz aritzea lankidetzan: modu aktiboan parte hartzea eta besteen ideiekiko interesa, malgutasuna eta errespetua agertzea.
5. Besteak eta haien ideiak eta iritziak errespetatzea, eta emozioak kontrolatzea bizitzako egoera pertsonaleko eta sozialeko gatazken kudeaketan, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko.
6. Parte hartze aktiboa eta arduratsua izatea euskara normalizatzeke eta euskal kultura transmititzeko prozesuetan.
7. Inguruko eleaniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea, eta horrekiko interesa eta errespetua adieraztea; norberaren eleaniztasuna intelektualki, kulturalki eta sozialki aberasteko bitartekoa dela onartzea.
8. Sormena eta imajinazioa lantzea literatur adierazpenean, baita lanak ulertzeko eta egiteko moduan ere; alternatiba berriak kontuan hartuz, eta ideia originalak eskainiz.
9. Sentsibiltate estetikoaren norberaren eta besteen literatur ekoizpenekiko, horien sormen eta estilistika elementuak balioetsiz.



## Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

### 1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

#### Kontzeptuak

##### 1. Ahozko komunikazioaren berezko ezaugarriak

###### 1.1. Testuinguruarekin lotutako ezaugarriak

- Informala
  - Unibertsala, giza izaeraren osagarria.
  - Gizartearen berezko garapena.
  - Iragankorra, iheskorra.
  - Hizketakideen presentzia: aldi bereko espazioa-denbora, partekatua.
  - Testuinguruari buruzko informazioa.
  - Sortu ahala egindako diskurtsoa, hartzearekin batera egina.
  - Euskalkien nahiz hizkuntza erregistroen presentzia komunikazio egoerako ezaugarri sozialen baitan.
- Formala
  - Ez da unibertsala eta eskolan ikasten da.
  - Iragankorra eta benetako denboran egina.
  - Egoerazko testuinguru partekatua, norabide bakarreko komunikazio hierarkiko samarra.
  - Igorle-hartzaile elkarrekintza: emoziozko harremana.

###### 1.2. Testuarekin lotutako ezaugarriak

- Informala
  - Gai orokorra eta askea
  - Erregistro arrunta, eskuarki.
  - Elkarrizketan oinarritua.
  - Pertsonen artekoa eta subjektiboa.
  - Berezkoa eta erredundantea.
  - Testu egitura askea (digresioak, gai aldaketak...)
  - Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorputza, hizkuntza proxemikoa...)
- Formala
  - Gai espezializatuak.
  - Erregistro formala.
  - Oro har, homologatua. Planifikazioaren eta berezotasunaren arteko konbinazioa.
  - Hizkuntza idatzia baino erredundanteagoa eta informazio dentsitate gutxiago ematen duena.
  - Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorputza, hizkuntza proxemikoa...)
  - Ikus-entzunezko eta hitzezko kodeen integrazioa.

###### 1.3. Hizkuntz ezaugarriak

- Informala
  - Intonazioaren, bokalizazioaren eta ahoskeraren funtsezko eginkizuna.
  - Lexikoaren gutxieneko hautaketa: errepikatzea.
  - Osagai deiktikoak.
  - Galdera markak, harridurak, onomatopeiak, hitz betegarriak.
  - Esamoldeak, esaerak, adierazpide retorikoak...
  - Anakolutuak, bukatu gabeko esaldiak, elipsiak.
  - Hizkuntzaren aldaera sozial nahiz geografikoak (euskalkiak...).
- Formala
  - Segmentuaz gaindiko ezaugarri funtsezko eginkizuna (tonua, bolumena, erritmoa).
  - Osagai deiktikoen presentzia, galdera markak, harridurak, etab., baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
  - Esamolde, esaerak, adierazpide retorikoak... baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
  - Anakolutuak, amaitu gabeko esaldiak eta elipsiak, baina ahozko hizkuntza informalean baino gutxiago.
  - Arauen zuzentasuna eta barietate estandarren erabilpena.

#### Prozedurak

##### 1. Ahozko testuak ulertzeko jarraibideak.

###### 1.1. Entzun aurretiko fasea

- Entzuteko helburuaren definizioa eta komunikazioan parte hartzen duten osagaien definizioa.
- Entzuteko moduaren hautaketa, egoeraren arabera, entzutearen helburua eta testuen generoaren ezaugarriak.
- Aurretiko ezaguerak aktibatzea.
- Aurrerapenak egitea (hipotesiak, iragarpenak...), norberaren ezaguerak eta komunikazio testuinguru oinarri hartuta.

###### 1.2. Entzuketara fasea

- Testuaren edukiaren interpretazioa:
  - Testuaren esanahi globala berregitea.
  - Funtsezko informazioak bereiztea, helburuaren arabera.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereiztea, baita tesiak eta argudioak eta informazio garrantzitsuak eta garrantzirik gabeko informazioak ere.
  - Informazioen arteko loturak egitea, beharrezko inferentziak eginez.
  - Testuaren baitako informazioak norberaren ezaguerekin lotzea eta alderatzea.
  - Informazioa eta iritziak bereiztea, baita argudioak eta gezurrak ere, besteak beste.
  - Elementu implizituak interpretatzea, auresuposizioak, jakintzat hartzen direnak, esanahi bikoitzak, anbiguotasunak, elipsiak...
  - Igorleak komunikatu nahi duena identifikatzea/ondorioztatzea.
  - Norberaren ulermen prozesua kontrolatzea: aurrerapena, egiaztatzea...
- Testuaren formaren interpretazioa:
  - Testuaren egitura eta testua markatzen duten osagaiak identifikatzea.
  - Hizkuntza eta erregistro barietateak identifikatzea eta ondorioztatzea.
  - Igorlearen jarrera ondorioztatzea, osagai akustikoen interpretazioaren bidez (intonazioa, bolumena), baita diskurtsoaren tonuaren bidez eta hitzik gabeko kodeen bidez, besteak beste.
- Testuaren informazioa gordetzea:
  - Testuan agertzen diren osagai batzuez pixka batean gogoratzea, ulermena eraikitzeko: ondoren datorrena ulertzen jarraitzea, testuaren beste zati batzuk interpretatzea...
  - Testuaren informazio garrantzitsuak gogoratzea, oharren bidez edo idatzitako euskarrien bidez (eskemak, taulak, etab.).

###### 1.3. Entzuketaren ondoko fasea

- Jasotako informazioa behar bezala erabiltzea (laburpena egiteko, eskemak osatzeko, kontzeptu bat berriz azaltzeko, entzundakoarekiko adostasun edo ezadostasun maila baloratzea, horri erantzutea...).

##### 2. Ahozko testuak sortzeko jarraibideak

###### 2.1. Diskurtso poligestionatuak sortzeko jarraibideak

- Esperientziaren testuinguruak:



## 1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

### Kontzeptuak

#### 2. Ahozko diskurtso motak, komunikazio helburuaren arabera

##### 2.1. Informazio diskurtsoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

###### - Monogestionatuak

Gertakizunak eta esperientziak kontatzea, lan baten emaitzak azaltzea, fenomeno edo prozesu bat deskribatzea, gai bat azaltzea, laburpena, definizioa, berria, erreportajea, dokumentala, jarraibideak eta aginduak, bertsoa...

###### - Plurigestionatuak

Elkarrizketa arrunta, ezaguera sortzeko elkarrizketa, eginkizun jakin bat batera egiteko elkarrizketa, bertsoa...

##### 2.2. Pertsuaziozko-Argudiozko diskurtsoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

###### - Monogestionatuak

Idea, iritzi, jokabide bat defendatzea edo justifikatzea, publizitatea, bertsoa, besteak beste.

###### - Plurigestionatuak

Elkarrizketa, eztabaida, bertsoa...

##### 2.3. Diskurtso ludiko-estetikoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

###### - Monogestionatuak

Pasadizoa, txistea, abestia, bertsoa, ipuina, asmakizuna, filma eta antzezlanak kontatzea, besteak beste.

###### - Plurigestionatuak

Elkarrizketa, jolasak, dramatizazioa, bertsoa...

#### 3. Testuen ezaugarriak

##### 3.1.-Egokitasuna

Komunikazio egoeraren osagaiak, komunikazioaren helburua, formaltasun maila, erregistroa, espezifikotasun maila, hizkuntza aldaera: euskalkia, erregistroa...

##### 3.2.-Koherentzia

Informazio kopurua eta horren kalitatea, informazioa egituratzeko modua.

##### 3.3.-Kohesioa

Gaien progresioa eta hori ziurtatzen duten osagaiak.

##### 3.4.-Zuzentasuna

Hizkuntz arauak eta osagaiak, komunikazioa behar bezala gerta dadin.

##### 3.5.-Aberastasuna

Baliabide sintaktikoen, lexikoen eta erretorikoen (esaerak, esamoldeak, ironia, umorea...) eta hitzik gabeko baliabideen erabilpenaren konplexutasuna, barietatea eta arrisku maila, besteak beste.

#### 4. Ahozko komunikabideak

- Ahozko komunikabideen gizarte funtzioa.
- Euskarazko irratia eta telebistaren jatorria eta bilakaera.
- Ahozko komunikabideen funtzionamendua eta antolakuntza.
- Komunikabide horien ezaugarriak: gauzatze prozesuak, hitzezko eta hitzik gabeko baliabideen integrazioa.

### Prozedurak

- Helburua definitzea (zer nahi den, zer egin behar den, norentzat, eta zer asmorekin).
- Hizketakideak eta komunikazio egoera ezagutzea.
- Hizkuntz aniztasuna, erregistroa, tonua eta diskurtsoaren estiloa hautatzea, besteak beste.
- Jarduera diskurtsiboa burutzea:
  - Ideiak, informazioak eta ikuspuntuak argi adieraztea, arrazoi edo azalpen egokiak erabiliz.
  - Osagai prosodikoak eta keinuzkoak behar bezala erabiltzea.
  - Besteen ekarpenak arretaz entzutea eta baloratzea, galdera eta iruzkin aproposak eginez.
  - Ondo ulertu dela egiaztatzea eta ulermen hori sendotzea, galdera eta iruzkin osagarrien bidez.
  - Testuaren abantzia kontrolatzea, ideiarik edo informaziorik errepikatu gabe, informazio okerra identifikatuz, egokiak ez diren ideiak edo informazioak bilatuz eta ekarpenak eginez.
  - Hitz egiteko txandak behar bezala erabiltzea eta arau sozio-komunikatiboak aplikatzea (gizalege formulak).

#### - Balorazioa

- Diskurtsoa aztertzea, proposatutako helburua zenbateraino bete den egiaztatzea.

#### 2.2. Diskurtso monogestionatuak sortzeko jarraibideak

##### - Esperientzia bere testuinguruan jartzea:

- Helburua definitzea (zer nahi zen, nola egin behar den, norentzat eta zer asmorekin), hizketakideak eta komunikazio egoera ezagutuz.
- Testuen generoa aukeratzea, baita hizkuntza mota, erregistroa, tonua eta diskurtsoaren estiloa ere, besteak beste.

##### - Testua planifikatzea:

- Informazioa hainbat iturritan bilatzea (bibliografia, ikus-entzunezko iturriak, iturri digitalak).
- Edukia aukeratzea eta antolatzea, euskarri idatzien bidez.
- Ahozko testua egituratzea (sarrera, garapena eta konklusioa).

##### - Testua berrikustea:

- Aurkezpenaren itxura egitea.
- Formaren eta edukien kontrastea.

##### - Jarduera diskurtsiboa irudikatzea:

- Ideiak, informazioak eta ikuspuntuak argi adieraztea, arrazoi edo azalpen egokiak erabiliz.
- Antolagailuak erabiltzea, testuaren atalak egituratzeko eta lotzeko (gaiaren sarrera egiteko, azpimarratzeko, adibideak jartzeko...)
- Hizkuntza baliabideak erabiltzea edukiak ulertu direla ziurtatzeko eta entzuleen edo irakurleen arretari eusteko.
- Elementu prosodikoak eta keinuzkoak behar bezala erabiltzea.
- Multimedia teknikak erabiltzea (eskemak, irudiak, grafikoak, gardenkiak, Power Point...)
- Irakurleen edo entzuleen harmena kontrolatzea.
- Ondo ulertu dela egiaztatzea eta ulermen hori sendotzea, galderak, parafasiak edo adibideak erabiliz.
- Balorazioa.
  - Diskurtsoa aztertzea, proposatutako helburua zenbateraino bete den egiaztatzea.



## 2. KOMUNIKAZIO IDATZIA

### Kontzeptuak

#### 1. Komunikazio idatziaren ezaugarriak

##### 1.1. Testuinguruarekin lotutako ezaugarriak

- Izaera ez unibertsala, giza izaeraren ahalmena.
- Ikaskuntza arautua.
- Iraunkorra.
- Ez dago hizketakiderik: ez da espazio-denborarik partekatzen, eta komunikazioak noranzko bakarra du.
- Testuinguruko informazio esplizitua .
- Modu erreflexiboan egindako diskurtsoa, harrera aurretik.

##### 1.2. Testuarekin lotutako ezaugarriak

- Askotariko erregistro maila eta ikuspegia, komunikazio egoeraren arabera.
- Bakarrizketan oinarritua eta planifikatua.
- Estereotipotan oinarritutako testu egiturak.
- Hitzik gabeko hizkuntzen esku hartzea (grafikoak, ikonikoak, tipografikoak, etab.).

##### 1.3. Hizkuntz ezaugarriak

- Puntuazio-zeinuen erabilera.
- Lexiko zehatza hautatzea: aberatsa eta askotarikoa.
- Sintaxi erregularra.
- Arauen zuzentasuna eta barietate estandarren erabilpena..

#### 2. Diskurtso idatzi motak, komunikazio helburuaren arabera

##### 2.1. Informazio diskurtsoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

Fitxa, kontzeptuzko mapa, eskema, laburpena, definizioa, txostena, fenomeno edo prozesu baten deskribapena, agerpena, gai baten azalpena, esperientzien aipamena, kontakizun historikoa, berria, erreportajea, biografia, errezeta, jokoaren arauak, muntaketarako jarraibideak, erabilera, curriculum vitae, eskutitza, posta elektronikoa...

##### 2.2. Argumentuzko diskurtsoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

- Ideia bat, iritzi bat, jokabide bat defendatzea edo justifikatzea
- Entsegua, iruzkin kritikoa, publizitate mezua, editoriala, iritzi artikulua, irakurleen gutuna, liburu baten aipamena, bertso papera...

##### 2.3. Ludiko-estetikoak. Erabilpen eremu askotariko testu generoak:

Ipuina, eleberria, elezaharra, olerkia, antzerki gidoia, bertso papera

#### 3. Testuen ezaugarriak

##### 3.1.-Egokitasuna

Komunikazio egoeraren osagaiak, komunikazioaren helburua, formaltasun maila, erregistroa, espezifikotasun maila, hizkuntz aldaera (euskalkiak, batua...) .

##### 3.2.-Koherezia

Informazio kopurua eta horren kalitatea, informazioa egituratzeko modua.

##### 3.3.-Kohesioa

Gaien progresioa eta hori ziurtatzen duten osagaiak.

##### 3.4.-Zuzentasuna

Hizkuntz arauak eta osagaiak komunikazioa behar bezala gerta dadin.

##### 3.5.-Aberastasuna

Baliabide sintaktikoen, lexikoen eta erretorikoen (esaerak, atsoitzak, ironia, umorea...) eta elementu ikonografikoen erabilpenaren konplexutasuna, barietatea eta arrisku maila, besteak beste.

#### 4. Komunikabide idatziak

- Idatziko komunikabideen gizarte funtzioa.
- Euskarazko prentsaren sorrera eta bilakaera.
- Komunikabide idatzien funtzionamendua eta antolakuntza.
- Komunikabide horien ezaugarriak: gauzatze prozesuak, hitzeko eta hitzik gabeko baliabideen integrazioa.
- Kazetaritza generoak.

### Prozedurak

#### 2. Idatziko testuak ulertzeko jarraibideak.

##### 2.1. Irakurri aurretiko fasea

- Irakurketa helburuaren definizioa eta komunikazioan parte hartzen duten osagaien definizioa.
- Irakurketa motaren hautaketa, egoeraren arabera, irakurketa helburua eta testu generoaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Aurretiko ezaguerak aktibatzea.
- Aurrerapenak egitea (hipotesiak, iragarpenak...), norberaren ezaguerak eta testuaren azaleko markak oinarri hartuta (maketazioa, irudiak...).

##### 2.2. Irakurketa fasea

- Testuaren edukiaren interpretazioa:
  - Testuaren esanahi globala berregitea.
  - Funtsezko informazioak bereiztea, helburuaren arabera.
  - Ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereiztea, baita tesiak eta argudioak eta informazio garrantzitsuak eta garrantzirik gabeko informazioak ere.
  - Informazioen arteko loturak egitea, beharrezko inferentziak eginez.
  - Testuaren baitako informazioak norberaren ezaguerekin lotzea eta alderatzea.
  - Hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea, testuinguruarekin eta testuaren egiturarekin lotutako gako bidez.
  - Elementu implizituak eta erretorikoak interpretatzea: jakintzat hartzen direnak, esanahi bikoitzak, elipsiak, umorea, ironia...
  - Informazioa eta iritziak bereiztea, baita argudioak eta gezurrak ere, besteak beste.
  - Igorlearen komunikazio asmoa identifikatzea/ondorioztatzea, baita horren munduko ikuspegia eta jarrera.
  - Norberaren ulermen prozesua kontrolatzea: aurrerapena, egiaztatzea...
- Testuaren formaren interpretazioa:
  - Hitzik gabeko hizkuntzen osagai teknikoak interpretatzea (tipografia, koloreak, enkoadraketak, hipertestuak...)
  - Testuaren egitura eta testua markatzen duten osagaiak identifikatzea.

6.- Localizar y seleccionar información relevante para responder al objetivo de lectura, mostrando iniciativa, autonomía y eficacia en el uso de diferentes fuentes de información.					
7.- Identificar o inferir el sentido global de textos escritos de diversos géneros y procedentes de distintos ámbitos de uso y expresarlo de forma oral o escrita.					
8.- Interpretar el significado de textos escritos, realizando una lectura reflexiva de los mismos.					
9.- Interpretar de manera crítica el contenido y la forma de textos ideológicamente simples y de tema conocido (especialmente los provenientes de los medios de comunicación), captando su sentido y evaluando su conveniencia de acuerdo a normas morales y éticas, y aportar una opinión personal tanto sobre el contenido como sobre la forma.					
10.- Resumir oralmente y por escrito el contenido global de textos escritos de diferentes géneros pertenecientes a diversos ámbitos de uso, realizando una lectura reflexiva de los mismos.					
11.- Planificar en función de los parámetros del contexto y la intención comunicativa. textos escritos de diferentes géneros y provenientes de distintos ámbitos de uso, utilizando sus propios conocimientos y diversas fuentes de referencia mostrando iniciativa en la toma de decisiones.					
12.- Producir textos escritos de diferentes géneros pertenecientes a diversos ámbitos de uso, adecuándolos a la situación de comunicación y atendiendo a los principios de coherencia, cohesión, corrección y riqueza y reconociendo la necesidad del esfuerzo personal para la consecución de la tarea.					
13.- Utilizar los conocimientos acerca del funcionamiento de los elementos lingüísticos en diferentes planos del texto, tanto para interpretar los textos ajenos como para producir y revisar los propios.					
14.- Utilizar los conocimientos acerca de los conceptos sociolingüísticos básicos para interpretar críticamente la diversidad de realidades lingüísticas, valorando la importancia de todas y cada una de las lenguas y mostrando una actitud respetuosa y positiva hacia la realidad plurilingüe y pluricultural de su entorno.					



	1	2	3	4	5
15.- Reconocer las características básicas del lenguaje literario para valorar su dimensión estética.					
16.- Conocer los referentes básicos (obras, autores, épocas y movimientos) de la historia de la literatura en lengua castellana y de la literatura universal, e interpretar de manera compartida fragmentos de obras significativas, situándolos en su contexto histórico-cultural de producción.					
17.- Expresar con creatividad y mostrando sensibilidad estética las propias vivencias, sentimientos, reflexiones, etc. mediante la producción de textos literarios orales y escritos de diversos géneros, tomando como modelo las obras literarias de referencia.					
18.- Utilizar la literatura como fuente de disfrute, de conocimiento del mundo y para la construcción de su identidad personal, cultural y social.					
19.- La valoración en conjunto de la propuesta para el Castellano es					





**Gaztelania eta Literatura arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazioen azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## FRANTZESA ETA LITERATURA ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

### (Iparralde)

	1	2	3	4	5
1.- Identifier les idées essentielles des longs exposés oraux et linguistiquement complexes sur des thèmes connus de différents domaines d'utilisation, puis les exprimer à l'oral ou à l'écrit.					
2.- Sélectionner dans les textes oraux de divers genres et issus de différents domaines d'utilisation, les informations pertinentes pour répondre à la finalité de l'écoute et utiliser les informations sélectionnées aux fins proposées (recherche, activités, etc.).					
3.- Exposer, argumenter et contraster ses idées lors des conversations, discussions ou débats, en participant activement, de façon pertinente et adéquate, et en faisant preuve d'un niveau de contrôle de soi acceptable pour le travail coopératif dans l'exécution des tâches communes ou dans le développement de la connaissance.					
4.- Converser avec naturel et justesse, dans tout type de situations de la vie personnelle ou sociale pour développer une bonne communication interpersonnelle, en manifestant du respect à l'égard des autres et en évitant l'utilisation des stéréotypes qui marquent tout type de discrimination.					
5.- Réaliser de manière autonome des présentations orales claires et bien structurées sur un sujet complexe, en les planifiant au préalable et en utilisant diverses techniques de présentation (audiovisuelles, TIC, etc.).					
6.- Trouver et sélectionner les informations importantes pour répondre à l'objectif de lecture, en manifestant une initiative, autonomie et efficacité dans l'utilisation des différentes sources d'information.					
7.- Déduire le sens global des textes écrits de divers genres et issus de différents domaines d'utilisation et l'exprimer à l'oral ou à l'écrit.					
8.- Interpréter le sens de textes écrits, en réalisant une lecture réflexive de ces textes.					
9.- Interpréter de manière critique le contenu et la forme des textes idéologiquement simples et à thème connu (surtout les textes extraits des médias), en saisissant leur sens et en évaluant leur justesse conformément aux normes morales et éthiques, puis émettre une opinion propre à leur sujet.					
10.- Résumer oralement et par écrit le contenu global des textes écrits de différents genres appartenant à divers domaines d'utilisation, en réalisant une lecture réflexive de ces textes.					
11.- Planifier en fonction des paramètres du contexte et l'intention communicative des textes écrits de différents genres et issus de différents domaines d'utilisation, en utilisant ses propres connaissances ainsi que plusieurs sources de référence en faisant preuve d'initiative dans la prise de décisions.					
12.- Produire des textes écrits de différents genres appartenant à divers domaines d'utilisation, en les adaptant à la situation de communication et en tenant compte des principes de cohérence, cohésion, de correction et de richesse et en reconnaissant la nécessité de l'effort personnel pour la réalisation de la tâche.					
13.- Utiliser les connaissances concernant le fonctionnement des éléments linguistiques sur différents plans du texte, aussi bien pour interpréter les textes des autres que pour produire et réviser les textes personnels.					
14.- Utiliser les connaissances sur les concepts sociolinguistiques de base pour interpréter de façon critique une diversité de réalités linguistiques, en valorisant l'importance de toutes et chacune des langues et en manifestant une attitude respectueuse et positive à l'égard de la réalité plurilingue et pluriculturelle de son environnement.					



	1	2	3	4	5
15.- Reconnaître les caractéristiques essentielles du langage littéraire pour évaluer sa dimension esthétique.					
16.- Connaître les références essentielles (œuvres, auteurs, époques et mouvements) de l'histoire de la littérature en langue française, et de la littérature universelle. Interpréter de manière partagée des extraits d'œuvres significatives, en les plaçant dans leur contexte historico-culturel de production.					
17.- Exprimer avec créativité et en faisant preuve de sensibilité esthétique les propres expériences vécues, les sentiments, les réflexions, etc. grâce à la production de textes littéraires oraux et écrits de divers genres, en prenant pour modèle les œuvres littéraires de référence.					
18.- Utiliser la littérature comme source de plaisir, de connaissance du monde et pour la construction de son identité personnelle, culturelle et sociale.					
19.- Valorisation d'ensemble pour la proposition					



**Frantsesa eta Literatura arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazioen azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## INGELESARI BURUZKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

### (Atzerriko lehen hizkuntza)

	1	2	3	4	5
1.- To identify the basic ideas in oral presentations on familiar subjects from the academic field, and express them orally or in writing.					
2.- To select relevant information in various kinds of oral texts from a variety of spheres of use to achieve the aim of listening and use the information selected for the proposed purposes (research, activities, etc.).					
3.- To set out, argue and contrast their ideas in conversations and discussions led by the teacher, participating actively, making relevant, comprehensible contributions and displaying an acceptable level of self-control, for cooperative work in carrying out common tasks or in developing knowledge.					
4.- To talk appropriately in familiar situations of everyday life showing respect for others regardless of their social, physical or cultural characteristics, so as to develop a satisfactory degree of interpersonal communication.					
5.- To perform clear, well-structured simple oral presentations on academic subjects, planning them beforehand and using various presentation techniques (audiovisual, CIT, etc.).					
6.- To locate and select relevant information to achieve the aim of reading, showing an acceptable degree of initiative, independence and effectiveness in the use of different sources of information.					
7.- To infer the gist of various kinds of written texts from various spheres of use and express this orally or in writing.					
8.- To interpret the meaning of various kinds of written texts from various spheres of use by using reflective reading strategies.					
9.- To critically interpret the content and form of ideologically simple texts with familiar subjects (especially from the media), grasping their meaning and assessing their suitability in accordance with moral and ethical norms, and provide a personal opinion on this.					
10.- To plan different common simple written texts from various spheres of use, answering to the parameters of the context and the communicative aims, by using their own knowledge and a variety of reference sources and showing decision-taking initiative.					
11.- To produce different common simple written texts from different spheres of use, tailoring them to meet the communicative situation and respecting the principles of coherence, cohesion, correctness and variety and recognising the need for personal effort to carry out the task.					
12.- To use knowledge about how linguistic elements work at different levels of the text to interpret other texts and to produce and check their own.					
13.- To use knowledge about basic socio-linguistic concepts to critically interpret a variety of linguistic situations in the world especially those involving English, appreciating the value of their own multilingual competency and displaying a respectful positive attitude towards the multilingual and multicultural reality that they are surrounded by.					
14.- To express their own experiences, feelings, reflections, etc. creatively and showing aesthetic sensibility by producing oral and written texts of literary intention of the most common kinds, taking works of literature as models.					
15.- To use literature as a source of pleasure, of knowledge of the world and to construct their own personal, cultural & social identity.					
16.- General evaluation of the proposal for English.					



**Ingelesa eta Literatura arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...).

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 2.- MATEMATIKA

### 2.1.- SARRERA

Ikasleek gure gizartean moldatzeko beharrezkotzat jotzen diren helburu eta kompetentzia orokor-  
rrak lor ditzaten, matematika arloa pentsamendua eratzeko baliabide gisa eta baliagarritasun prak-  
tiko handiko tresna gisa taxutu dugu. Horren ondorioz, matematika arloa problemak planteamen-  
duen bidez ebazteari eta tratamendu analitikoa edo sintesi tratamendua behar duten problema  
berriei lotuta definitzen dugu.

Horretan oinarrituta, matematika arloak ekarpen handiak egin ditzake hezkuntzako kompeten-  
tzien eremu guztietan. Jarraian, ikuspuntu honetatik horrek zer esan nahi duen azalduko dugu:

**Komunikatzen ikasi:** pentsamenduak eta ideiak ulertzeko eta transmititzeko, komunikazio hiz-  
kuntza batzuk menderatu behar dira. Komunikazioaren bidez, ideiak hausnartu, hobetu, eztabaida-  
tu, zuzendu eta finkatu egiten dira. Komunikazioa funtsezkoa da arlo horretan, bai eta matematika-  
ko ikaskuntzan ere. Ikasleak matematikari buruz pentsatzera eta hausnartzera eta  
pentsatutakoaren emaitza ahoz nahiz idatziz beste pertsona batzuei komunikatzera bultzatzen  
baditugu, argiak eta sinesgarriak izaten ikasiko dute. Ez dira gauza bera ideia bat buruan edukitzea  
eta hori behar bezala hizkuntza egokiz transmititzea. Matematikari buruz entzuteak, irakurtzeak,  
idazteak, hausnartzeak eta eztabaidatzeak matematika arloa hobeto ulertzen laguntzen du, ikasle-  
ek modu batean baino gehiagotan komunikatzen ikasten baitute, eta material fisikoak, irudiak eta  
diagramak matematikako pentsamenduekin eta ideiekin era aktiboan lotzen baitituzte. Bestalde, ez  
da ahaztu behar zientzia guztiek –natur zientziek nahiz gizarte zientziek– matematika erabiltzen  
dutela lantzen dituzten errealitate guztiak argi, garbi eta zehatz deskribatzeko eta aztertzeko. Horre-  
gatik guztiagatik, komunikazioa da matematika arloa artikulatzeko ardatzetako bat; lehen esanda-  
koaz gain, irudikatze forma guztiak hartuko ditu bere baitan: zenbakizkoa, aljebraikoa, sinbolikoa,  
grafikoa... Horiei guztiei esker, errazago ulertzen, irudikatzen eta azaltzen dugu errealitatea.



**Pentsatzen eta ikasten ikasi:** matematika funtsezkoa da pentsamendu arrazionalaren sorreran. Izan ere, hori da gizakiak dituen bi arrazoibide motak –*indukziozkoa eta dedukziozkoa*– garatzeko aukera onenak dituen ezagutza arloa.

Egoera zehatzetatik kontzeptu egokiak ateratzea, orokortzea, jarraibideak bilatzea eta adibide intuitiboak jartzea pentsamendu matematiko motak dira. Are gehiago, indukzio faseak berebiziko garrantzia du; berez, pentsamendu prozesu horietan esperientziarik izan gabe, segur aski ikasleek ez dute ulertuko dedukzio fasearen ezaugarri nagusien –hau da, frogapen zorrotz eta formalen– benetako funtzioa. Arrazoibidea matematikako jarduera guztien oinarrian dago; beharrezkoa da matematikako berezko edukiak eta estrategiak ikasteko prozesurako, eta, horrez gain, funtsezkoa da ikaskuntza estrategia orokorrak eskuratzeko eta garatzeko. Ikaskuntza estrategia orokor horiek –ikasteko moduari buruzkoak– bermatuko dute ikaskuntza bizitza osoan zehar, jarduera profesionala aldatzean edota ezagutza berriak barneratzean. Horrelako estrategiak *pentsamendu eskemen* bidez sortzen dira buruan; eskema horiek ongi errotutako egitura sendoak dira, eta gure pentsatzeko modua eratzen dute. Garrantzitsua da horiek behar bezala eratzeko, nekez ordezkatzeko baitira –berriak baliagarriagoak eta adierazgarriagoak direnean bakarrik–.

Bizitza osorako estrategia horien barruan, *Problemen Ebazpenari* buruzkoak dira garrantzitsuenak. *Heuristika* ere deitzen zaie, eta, funtsean, problemak ebazteko teknika espezifikoak lantzen dituzte. Problemen ebazpenaren helburua, ikasleek problemak ebazten ikastea ez ezik, egindakoa oinarrituta problema berriak planteatzea ere bada. Hori adimenaren ezaugarri batekin lotuta dago; hain zuzen ere, *ideia berriak edukitzearekin*. Problemen ebazpenarekin lotutako ingurune batean lan eginez gero, zenbait ohitura eta jarrera garatzen dira; esate baterako, kontzentrazioa, ikuspuntuen edo ikuspegiaren malgutasuna, irtenbideak aurkitzeko irimotasuna... Horrez gain, errealitatea interpretatzeko, ondorioak ateratzeko eta problemei erantzuna emateko hizkuntza propioa bereganatzen dute ikasleek.

Problemak ebaztea oso garrantzitsua da matematikan aurrera egiteko, bai eta hori ulertzeko eta ikasteko ere. Matematikan, egiten jakiteak lotura handia du trebetasun hauekin: problemak ebaztearekin, frogak aurkitzearekin, argudioak kritikatzerekin, matematikako hizkuntza nahiko erraz erabiltzearekin, egoera zehatzetan matematikako kontzeptuak bereiztearekin, antsietatea eramaten jakitearekin... Eta, horiez guztiez gain, hasitako bidez gozatzeko prest egotearekin ere bai. Problema ebazteko trebetasuna ikasleek bizitzan zehar izan behar duten oinarritzko trebetasunetako bat da, eta sarritan erabili beharko dute ikasketak bukatu eta gero ere. Horrexegatik, problemen ebazpena da matematika arloa egituratzen duen ardatzetako bat.

**Egiten eta ekiten ikasi:** lehen esan bezala, matematikaren funtzioa, hezteak ez ezik, baliabide edo aplikazio gisa erabiltzea ere bada. Baliabidea beste diziplina batzuekin lotura duelako da; izan ere, diziplina horiek aztergai dituzten fenomenoari buruzko azalpen ereduak sortzeko, interpretatze-





ko edo aztertzeke, matematikaren beharra dute. Beraz, ezinbesteko baliabidea da etengabe aldatzen den eta gero eta teknifikatuagoa den mundu bateko hainbat informaziotara iristeko (zenbakizkoak, grafikoak, estatistikoak, geometrikoak, zoriarekin lotutakoak...).

Nabarmendu behar da matematika erabilgarria dela. Edozein tokitara begiratu, eta han izango dugu matematika. Zientzian, teknologian, komunikazioan, ekonomian eta beste arlo askotan erabiltzen da. Matematika erabilgarria da, eguneroko bizitzako problemak hautemateko, interpretatzeko eta ebazteko balio baitigu, eta, horrez gain, aukera ematen digu zehaztasun handiz komunikatzeko ahalmen handia duen hizkuntza erabiltzeko. Erabilerari dagokionez, ezinbestekoa da hedabideekin duen lotura nabarmentzea; izan ere, informazio mota askotako kopuruzko azterketetan (estatistika datuak, prezioak, mota askotako adierazleak, hipotekak...), sarritan agertzen da matematika. Bestalde, azpimarratzekoa da matematikak teknologia berriekin duen lotura ere: ikerketek eta esperientziek adierazten dutenez, kalkulagailuak eta ordenagailuak egoki eta zentzuz erabiltzeak dituen ahalmenei ematen die garrantzia. Teknologia berriak erabiltzeak garapen kognitiboa bultzatzen du, eduki hauek dituzten alderdietan: zenbakien esanahia, kontzeptu garapena, problemen ebazpena eta bistaratzea. Azken batean, matematika irakasteko tresna erabilgarria da.

**Elkarrekin bizitzen ikasi:** XXI. mendeko gizarte demokratikoetan, herritarren parte hartzea ezin da murriztu botoa ematera bakarrik. Gizarte konpromisoa edo gizarte, ingurumen edo garapen arazo jakin batzuen aurrean jarrera jakin bat hartzea ezin daitezke utzi guztion ordez erabakitzen duen elite baten esku. Eztabaidako egungo gai gehienek prestakuntza matematiko eta zientifiko gero eta handiagoa eskatzen dute arazoak ulertzeko eta iritzi kritikoa eta arduratsua izateko.

Matematika da inplizituki edo esplizituki argudioak oinarritzat hartzen dituen hizkuntza, eta, matematikaren metodoen eta emaitzen arabera, erabakiak hartzen dira. Horrenbestez, herritarrek arduraz parte hartzea ziurtatzeko, ezinbestekoa da oinarrizko prestakuntza matematikoa bermatzea.

Matematika bizirik dagoen zientzia unibertsala denez, matematikaren emaitzak nazioarteko komunitate osoak onartzen ditu, eta horrek ez du esan nahi historian erabili diren metodoak beti berak izan direnik; izan ere, unibertsalak matematikaren ezagutza bultzatu duten kultur jarduerak dira: *zenbatzea, aurkitzea, neurtzea, azaltzea, jolastea...* Aurkezten diren eduki berriak testuinguru egokian jartzea erronka interesgarria da; ildo horretan, Matematikako Historiaren mugarriak zein izan diren jakitea oso erabilgarria da. Horren ondorioz, matematikaren ezagutza ez dago fosilizatuta; jasotako herentzia ez ezik, denon artean eraiki beharreko zientzia ere bada.

Bestalde, jakina da taldean lan egiteak ezagutza matematikoaren ikaskuntza eta ezagutza matematikoaren gizarte eraikuntza bultzatzen dituela, horrek ikaslearen berezko formak aberastuko dituen beste forma batzuk ezagutzea eta taldearen aldeko erabakiak balioestea eragiten baitu. Horri



“ikaskuntza kooperatiboa eta dialogikoa” deitzen zaio. Horregatik guztiagatik, matematika arloak talde lana eta elkarrizketan oinarritutako prozesuak hartzen ditu aintzat, bai konpetentziak garatzeko, bai matematikaren ezagutza eraikitzeko.

**Norbera izaten ikasi:** nork bere buruaz duen pertzepzioa eratzeko, abiapuntutzat inguruarekiko esperientziak eta harremanak hartzen dira. Gizartean, matematikan arrakasta izatea adimenarekin eta prestakuntza handiko lanpostuak eskuratzearekin lotuta dagoenez, ikasleak matematikarekin duen harremanak asko baldintzatzen du bere autoestimua, eta hori ikaskuntza guztien ezinbesteko motibazioaren oinarria da. Matematikarekin harreman ona izateak proiektu pertsonal orori ekiteko nork bere buruarengan izan beharreko konfiantza eta segurtasuna garatzea sustatzen du. Aldiz, derrigorrezko eskolaldian matematikan behin eta berriro porrot egiteak blokeo mentala eragin dezake, eta hori ia irrazionala izatera irits daiteke, matematikarekin lotutako edozein gairen aurrean.

Gainera, ezin dugu baztertu ikasleak lan intelektualaz gozatzea. Irakurmenean edo gozamina sortzen duten beste jarduera batzuetan bezala, irudi edo konposizio geometrikoen bidez adierazten den edertasuna jarri behar da agerian, bai eta hipotesi bat egitean, jokabide jarraibide bat aurkitzean edo problema bat ebaztean ikasleak esperimentatu beharreko gozamen intelektuala ere.

Hortik kalkulu lanez eta prozedura algoritmikoez haragoko planteamendu bat ondorioztatzen da, ikasleari jarrera eta sentsazio horiek garatzeko aukera emateko eta gaitasunen araberako ebazpen mailak emateko.

## 2.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

**1.- Eguneroko bizitzatik, matematikatik edo beste zientzia batzuetatik ateratako problemak planteatzea eta ebaztea, bai taldean, bai banaka, hainbat estrategia aukeratuz eta erabiliz, ebazpen prozesua arrazoituz eta emaitzak egoera berrietan aplikatuz, gizarte inguruan ardu-raz jokatzeko.**

Funtsezkoa eta giltzarria den konpetentzia da matematikan. Funtsezkoa da ikasle guztiak konpetenteak izatea, nor bere mailan, benetako bizitzan edo testuinguru sozialetan eta zientifikoetan sor daitezkeen problemak dituzten egoerei aurre egitean. Matematikaren muina problemak ebaztea da, ikasleek inguruan duten munduan matematikak duen ahalmena eta erabilgarritasuna esperimentatzeko prozesua izateaz gain. Problemek kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko arloak garatzeko motibazioa ezagutzeko eta bultzatzeko premia sor dezakete:



Kontzeptuzkoak: edukiak garatzen eta hedatzen dituzte, egoerak konplexuago diren neurrian ezinbestekoak baitira.

Prozedurazkoak: problemak ebaztearen berezko estrategia heuristikoak ezagutzen eta aplikatzen dituzte.

Jarrerazkoak: nor bere gaitasunetan duen konfiantza garatzen du, eta, aldi berean, irmotasunez eta malgutasunez lan egin eta egoera gatazkatsuei ekiteko interesa eta ekimena erakusten dute.

**2.- Elementu matematikoak (zenbakiak, estatistika datuak, grafikoak, planoak, kalkuluak, irudiak, zoria...) identifikatzea, lotzea, deskribatzea eta irudikatzea, bai gizarte mundukoak (albistekak, iritziak, iragarkiak...), bai zientzia mundukoak, horiek dituzten funtzioak kritikoki aztertuz, jasotako mezuak eta informazioak hobeto ulertzeko.**

Konpetentziak eragina du ikasleek elementu matematikoez egiten duten erabileran, bai eta ideia matematikoak hainbat modutan adierazteko erabilitako hizkuntzaren erabileran ere, eta horrek aukera ematen du irudikatze moduen arteko loturak egiteko eta, kasu bakoitzean, ulertzeko egokiena izango den adierazpen matematikoa erabiltzeko.

Hizkuntza, mota bat edo beste bat aukeratuta eta behar bezala erabilia, funtsezkoa da gainerakoei ideia matematikoak zehatz eta argi komunikatzeko, horretarako ezinbesteko baliabidea baita, eta pentsamendu matematikoaren ezagutza eta barne antolaketa hobetzeko ere balio du.

**3.- Adierazpen matematikoaren berezko baliabideak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, baliabide teknologiko egokienak erabiliz norberaren pentsamendua argi eta koherentziaz zehazteko.**

Matematika gizakiaren adierazpen mota da, eta ez edonolakoa, baizik eta gizakiak berezkoa duen modu espezifikoa eta propioa. Adierazpen matematikoen ezaugarri nagusia sinbologia da, eta sinbologia menderatzea oso garrantzitsua da ezagutza berrietara iristeko. Linguistikan bezala, matematikan ere ikur bakoitzak esanahi bat du, eta ikurrak adierazpen grafikoa eta esanahia –hau da, edukia– ditu. Adierazpen matematikoa menderatzea funtsezkoa da, ikasleek matematikako eremuetan problemak ebatzi ahal izateko. Batzuetan, ezinbestekoa da baliabide teknologiko egokienak erabiltzea; izan ere, horren bidez, benetako datuak dituzten problemak ebazteari ekingo diote, kalkuluen konplexutasunak zailtasun handiagoa ez sortzeko eta problemak ebaztean hipotesiak egiteko.

**4.- Objektuak, egoera matematikoak, konposizioak eta espazio konfigurazioak irudikatzea eta deskribatzea, emandako informazio batetik eta inguruko informazio batetik abiatuta, inguru-**



**ko mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeke ezinbestekoak diren ezagutza geometrikoak aplikatuz eta horrekin lotura duten problemak ebartziz.**

Konpetentzia hori lotuta dago teknikaren, artearen eta, oro har, naturaren gertaerak behatuz ikasleak irudi geometrikoen funtsezko ezaugarriekiko duen interesarekin eta, horren ondorioz, geometriaren eremuan lan egiteko gustuarekin eta gogoarekin. Eta gustu hori ezin da sortu, ikasleak sormen lanean parte hartzen ez badu. Ezagutza geometrikoak inguruko mundua irudikatzen eta horri zentzua ematen laguntzen die ikasleei. Eta adierazpen geometrikoek irudikapen abstraktu bat hobeto ulertzen lagun dezakete. Azken batean, eredu geometrikoek ikuspuntu bat ematen dute, eta, horretan oinarrituta, ikasleek problemak aztertzen eta ebazten dituzte.

**5.- Zenbakizko eta aljebraiko kalkuluak segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzeko egokienak diren prozedurak erabiliz (ahozkoa, idatzia, kalkulagailua...), eta estimazio zentzudunak egitea, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko.**

Beste konpetentzia batzuetara iristeko, oinarritzko eta ezinbesteko konpetentzia da. Helburua zenbakiak, zenbakien arteko loturak eta eragiketen esanahia ezagutzea eta kalkuluak eta estimazioak konfiantzaz eta erraz egitea da, bai eta problemak adierazten dituzten egoerak ordezkatzeko dituzten aljebraiko adierazpenak trebetasunez manipulatzeko ere. Kalkuluak egitean, kalkulu egokiena zein den jakin behar da: kalkulu mentala, arkatzez eta paperez egindako kalkulu algoritmikoa edo kalkulagailuaren bidezkoa. Bestalde, problema jakin baten aurrean, eskatzen den erantzun mota zein den jakiteko konpetentzia izan behar du ikasleak; hau da, erantzun zehatza edo gutxi gorabeherako erantzuna behar den jakin behar du (batzuetan, nahikoa izan liteke estimazioa egitea). Azkenik, zoriak esku hartzen duen oinarritzko fenomenoak behar bezala interpretatzeko ezinbesteko konpetentzia ere sartzen da atal horretan.

**6.- Matematikoki arrazoitzea eta argudiatzea, norberaren argudioak eta justifikazioak eginez, testuinguru matematikoetan emaitza eta ondorio berriak lortzeko aukera izateko, bai eta beste pertsona batzuek emandako argudioak ulertzeko eta kritikatzeko ere.**

Matematikaren oinarritzko konpetentzietako bat, zalantzarik gabe, matematikako arrazoibideak dituen alderdi ugariak dira. Alde batetik, arrazoibide logikoa dago; argudioak lotzeak, argudio batzuk besteekin indartuta, egiazko ondorioak lortzeko aukera ematen digu, eta horren paradigma matematikako frogapena da. Baina arrazoibide logikoak dituen ahalmenak kontuan hartzeaz gain, ez da ahaztu behar indukziozko arrazoibidearen garrantzia, ezagutza matematiko berria sortzeko eta erai- kitzeko funtsezkoa baita: egoeretara hurbiltzeko kasu partikularrak aztertzea, hipotesiak eratzea eta horiek egiaztatzea.



## 2.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK

Matematika arloa garatzeko eduki batzuk aukeratu behar ditugu, eta edukiak modu jakin batean multzokatu, eduki multzoak eratzeko.

Ikaskuntzako edukiak antolatzeke moduetatik bat aukeratu dugu; konpetentzia orokorrak eta azterketa matematikoei buruzko egungo ezagutza garatzeko egokiena, hain zuzen. Horrenbestez, eduki multzoak oinarrizko lau kategoriatan aurkezten dira. Hona hemen kategoriak: **kopurua, espazioa eta forma, aldaketak eta harremanak, eta ziurgabetasuna**. Kategoria horiek, behar bezala garatuta, elkarren arteko konexio ugari dituzten eduki multzo handien proposamen bat egitera garatuzate. Eduki multzo horiek ez dira gai zerrendak. Ez dira bakarrik hartuta zentzua duten konpartimendu bakarreko unitateak, multzoetan hiru eduki mota baitaude: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

Hona hemen eduki multzoak.

1. Zenbakiak eta Aljebra
2. Neurketa eta Geometria
3. Funtzioak eta Grafikoak
4. Estatistika eta Probabilitatea
5. Problema ebaztea eta Arrazonamendua

### 2.3.1.- Jarrerazko edukiak

- 1.- Jakin-mina, konfiantza eta interesa, eguneroko bizitzako, beste zientzia batzuetako edo matematikako problema eta egoerak matematikoki lantzeko.
- 2.- Metodo matematikoak sormenez, irmotasunez eta malgutasunez erabiltzearen aldeko jarrera, erabakiak hartzeko prozesua kontrolatuz.
- 3.- Etengabeko espirtu kritikoa, bai arrazoibide logikoa erabiltzeko eta norberak arrazoitutako ondorio berriak lortzeko, bai besteek emandako argudioak eta justifikazioak aztertzeko.
- 4.- Informazioa tratatzeko eta problema ebazteko teknologia berriek ematen dituzten aukerak onartzea eta balioestea.
- 5.- Erabilitako prozesuen eta lortutako emaitzen berrikuspen sistematikoa, problemaren testuingururako baliagarria den egiaztatuz.
- 6.- Kalkuluak eta emaitzak aurkeztean, komunikazio matematikoan zehaztasuna eta argitasuna balioestea, bai eta ordena eta txukuntasuna ere.
- 7.- Taldean lan egitearen aldeko jarrera, problema jakin batzuei ekiteko modu egokia baita, eginkizunen banaketan elkartasunez parte hartuz eta besteen iritziak errespetatuz.
- 8.- Konfigurazio geometriko jakin batzuen estetika atsegin izatea, eta erronka txikiak gaintitzeak, autoestimua indartzeaz gain, gozamen intelektuala eragiten duela balioestea.



## 2.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

### 1. ZENBAKIAK ETA ALJEBRA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Zenbaki arruntak, osoak, hamartarrak, zatikizkoak eta irrazionalak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbaki motak: zenbatzekoak, neurtzekoak, ordenatzekoak, kodetzekoak eta kopuruak, partizioak edo magnitudeen arteko erlazioak adieraztekoak</li> <li>- Zenbakikuntza sistema hamartarra</li> <li>- Ehunekoak</li> <li>- Idazkera zientifikoa</li> </ul> <p><b>2. Eragiketak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa hainbat testuingurutan, zenbaki arruntekin, osoekin, hamartarrekin eta zatikizkoekin.</li> <li>- Berreketa eta erroketak.</li> <li>- Eragiketen hierarkia. Parentesia.</li> <li>- Eragiketen ezaugarriak (trukakorrak, elkarorrak, banakorrak).</li> </ul> <p><b>3. Zenbakien arteko erlazioak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zatiagarritasuna: irizpideak, zenbaki lehenak, bi zenbaki arrunten ZKH eta mkt.</li> <li>- Zenbakizko segidak. Progresio aritmetikoen eta geometrikoen sarrera.</li> <li>- Zenbakien ordena eta irudikapena zuzenean. Zuzen erreala.</li> </ul> <p><b>4. Kopuruak hurbiltzea eta iritzira kalkulatzeko:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biribiltzea eta erroreak.</li> </ul> <p><b>5. Magnitude proportzionalak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Magnitude proportzionalak. Proportzionaltasunari buruzko ohiko espresioak: "hainbesteko hainbat".</li> <li>- Magnitude zuzenki edo alderantziz proportzionalak.</li> <li>- Magnitudeen proportzionaltasuna hainbat testuingurutan.</li> <li>- Matematika komertziala.</li> </ul> <p><b>6. Hizkuntza aljebraikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zenbakiak ordezkatzeko hizkiak (ezezaguna den zenbaki aldaezin bat, edozein zenbaki, zenbakizko multzoen arteko erlazioa...)</li> <li>- Formulak: zenbakizko balioa eta baliokidetasunak.</li> <li>- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak.</li> <li>- Bi ezezagun dituzten bi ekuazio linealen sistemak.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zenbaki arruntekin eta osoekin kalkuluak egiteko arauak.</li> <li>2. Zatikizko zenbakiekin eta zenbaki hamartarrekin kalkuluak egiteko arauak.</li> <li>3. Zenbaki motak bereizteko, ordenatzeko eta sailkatzeko jarraibideak.</li> <li>4. Hainbat zenbaki motaren kalkuluetan kalkulagailua erabiltzeko arauak.</li> <li>5. Bi edo zenbaki gehiagoren ZKH edo mkt kalkulatzeko algoritmoak.</li> <li>6. Zenbakiak eta emaitzak hurbiltzeko eta iritzira kalkulatzeko jarraitu beharreko jarraibideak.</li> <li>7. Eragiketa bat baino gehiagorekin buruzko kalkuluak egiteko estrategiak.</li> <li>8. Proportzionaltasun kalkuluak egiteko metodoak, eguneroko bizitzan noiz erabiltzen diren eta egoera bakoitzean erabili beharreko terminologia zein den identifikatuz (ehunekoak, bateko hainbesteak, hiruko erregela, beherapenak...).</li> <li>9. Problema mota batzuk ebazteko metodoak (proportzionaltasuna, nahasketak, mugikorak...).</li> <li>10. Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebazteko arauak.</li> <li>11. Bi ezezaguneko ekuazio sistemak ebazteko arauak.</li> </ol>

### 2. NEURKETA ETA GEOMETRIA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Magnitudeen neurketa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Funtsezko magnitudeak: luzera, azalera, bolumena, masa, denbora, angeluak, informazioa</li> <li>- Magnitude eratorriak: abiadura, dentsitatea...</li> </ul> <p><b>2. Neurri sistemak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sistema metriko hamartarra. Funtsezko unitateen multiploak eta azpimultiploak, luzerretarako, azaleretarako, bolumenretarako eta masetarako.</li> </ul> <p><b>3. Denbora eta angeluak neurtzea.</b> Sistema hirurogeitarra.</p> <p><b>4. Informazioa neurtzea:</b> bit, byte eta horien multiploak.</p> <p><b>5. Gutxi gorabeherako neurketak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>o Zehaztasuna eta iritzira kalkulua neurketetan. Errore marjina.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zenbait baliabidez neurketa zuzenak iritzira kalkulatzeko eta egiteko metodoak eta estrategiak.</li> <li>2. Zeharkako neurketak kalkulatzeko arauak eta metodoak.</li> <li>3. Mota askotako irudi geometrikoak bereizteko eta sailkatzeko jarraibideak.</li> <li>4. Irudiak eskalan irudikatze metodoak (mapak, maketak, bozetoa...).</li> <li>5. Irudien erregularitasunetan, erlazioetan edo ezaugarrietan oinarrituta, geometriarekin lotutako problemak ebazteko metodoak.</li> <li>6. Kalkulagailuaren erabilera, trigonometriako kalkuluak egiteko.</li> </ol>



## 2. NEURKETA ETA GEOMETRIA

### Kontzeptuzko edukiak

#### 6. Zeharkako neurketak:

- Irudi eta gorputz geometrikoen perimetroak, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko formulak.
- Pitagorasen teorema.
- Oinarrizko arrazoi trigonometrikoak (sinua, kosinua eta tangentea) eta horien arteko erlazioa. Triangelu angeluzuzenen ebazpena.

#### 7. Elementu geometrikoak planoan eta espazioan:

- Espazioa deskribatzeko eta antolatzeo oinarrizko elementuak: puntuak, zuzenak eta planoak.
- Espazioa deskribatzeko eta antolatzeo oinarrizko erlazioak: paralelotasuna, elkarzutasuna eta intzidentzia.
- Erreferentzia sistemak: koordenatu kartesiarrak planoan eta espazioan.
- Bektoreak: irudikapena eta koordenatuak.

#### 8. Irudi, gorputz eta konposizio geometrikoak:

- Poligonoen, poliedroen eta gorputz biribilen ezaugarriak.
- Irudien ezaugarri geometrikoak: erregulartasunak, simetriak...
- Irudiak eta gorputzak zenbait irizpideren arabera sailkatzea.
- Poligonoak. Laukiak eta triangeluak.
- Poliedro erregularra.
- Esfera, zilindroa eta konoa.

#### 9. Antzeko irudiak: eskalan egindako irudikapena:

- Antzekotasun arrazoiak. Eskalak.
- Planoak, mapak eta maketak: errealitatearen irudikapen erabilgarriak.
- Azalaren eta bolumenaren arteko arrazoiak.
- Antzeko bi irudien ezaugarriak: angeluen berdintasuna eta aldearen proportzionaltasuna
- Talesen teorema.

#### 10. Eraldaketa geometrikoak:

- Translazioak, biraketak eta simetriak planoan. Ezaugarriak.

### Prozedurazko edukiak

## 3. FUNTZIOAK ETA GRAFIKOAK

### Kontzeptuzko edukiak

#### 1. Funtzioa, aldi berean aldatzen diren bi magnitudeen arteko erlazio gisa.

#### 2. Erlazio funtzionalak. Funtzio bat adierazteko moduak: ahoz, grafikoz, taula bidez eta aljebraikoki.

#### 3. Grafikoaren ezaugarri orokorrak: hazkundea, jarraitutasuna, simetria, periodikotasuna, joerak eta maximoak eta minimoak.

#### 4. Geometria analitiko laua.

#### 5. Funtzioen azterketa grafikoa eta aljebraikoa:

- Konstanteak, linealak eta afinak. "Malda" kontzeptua eta kontzeptuaren interpretazioa.
- Koadratikoak. Alderantzizko funtzioak.
- Esponentziala.

### Prozedurazko edukiak

1. Taulatan eta ahozko informazioan oinarrituta, grafikoak irudikatzeo arauak.

2. Formulazio aljebraikoan oinarrituta, grafikoak egiteo arauak eta metodoak.

3. Funtzio linealak eta koadratikoak irudikatzeo jarraibideak.

4. Funtzio lineal baten malda kalkulatzeko metodoak.

5. Grafiko baten ezaugarri nagusiak aztertzeo metodoak (jarraitutasuna, joera, maximoak eta minimoak...).



#### 4. ESTADISTIKA ETA PROBABILITATEA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Estatistika fenomenoari buruzko informazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Datu bilketa. Laginak eta laginek ordezkatzeko dutena.</li> <li>- Maiztasun taulak: absolutuak, erlatiboak eta ehunekoenak.</li> </ul> <p><b>2. Estatistika grafikoak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabideetan ohikoenak diren estatistika grafikoak: piktogramak, sektore diagramak, barra diagramak, histogramak, barrak, maiztasun poligonoak.</li> </ul> <p><b>3. Parametroak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zentralizazio parametroak (batez besteko aritmetikoa) eta sakabanatze parametroak (desbideratze tipikoa).</li> </ul> <p><b>4. Bi dimentsioko banaketak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Korrelazioa eta erregresio zuzena.</li> </ul> <p><b>5. Ausazko fenomenoak eta horiek deskribatzeko terminologia:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ausazko esperimentuak eta ausazko gertaerak.</li> </ul> <p><b>6. Gertaerei probabilitateak egokitzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gertaera baten maiztasuna eta probabilitatea.</li> <li>- Zenbaketa: konbinatoria.</li> <li>- Probabilitatearen kalkulua Laplaceren legearen bidez.</li> </ul> <p><b>7. Esperimentu konposatuari probabilitateak egokitzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendeko esperimentuak eta esperimendu askeak.</li> <li>- Probabilitate baldintzatua.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Estatistikako datuen bilketa, antolaketa eta azterketa.</li> <li>2. Estatistika grafikoak egiteko arauak (histogramak, sektore diagrama, barra diagrama...).</li> <li>3. Estatistika parametroak kalkulatzeko algoritmoak: batez besteko aritmetikoa eta desbideratze tipikoa.</li> <li>4. Zenbaketarako eta konbinatoriako kalkuluetarako teknikak.</li> <li>5. Ausazko gertaera sinpleen probabilitateak egokitze eta kalkulatzeko metodoak.</li> <li>6. Estatistikaren bidez emandako informazioan iruzurrak aurkitze metodoak.</li> </ol>

#### 5. PROBLEMAK EBATZTEA ETA ARRAZOINAMENDUA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Matematika problema, egoera ireki gisa.</b></p> <p><b>2. Arrazoibidea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Indukziozko arrazoibidea. Ildoak eta ereduak</li> <li>- Dedukziozko arrazoibidea. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baldintza beharrezkoa. Baldintza nahikoa. Baldintza beharrezkoa eta nahikoa.</li> <li>• Frogapena.</li> </ul> </li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Problema ebazteko metodo analitikoak: ezezaguna identifikatzea, dagozkion ekuazioak idaztea eta ebazpena egiaztatzea.</li> <li>2. Problema ebazteko metodo orokorrak (Polya, Ideal...): <ul style="list-style-type: none"> <li>- Problema ulertzea.</li> <li>- Ekiteko plan bat egitea.</li> <li>- Plana gauzatzea.</li> <li>- Ebazpenak egiaztatzea, baldin eta ebazpenik badago.</li> </ul> </li> <li>3. Problema ebazteko heuristiko ohikoenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Proba eta errorea.</li> <li>- Zehaztea.</li> <li>- Problema ebatzita imajinatzea edo bukaeratik hasia.</li> <li>- Problema beste modu batean idaztea.</li> <li>- Taulak erabiltzea eta ildoak bilatzea.</li> <li>- Antzeko problema aztertzea.</li> <li>- Diagrama, marrazki edo irudikapen bat egitea.</li> <li>- Hizkuntza egokia erabiltzea.</li> </ul> </li> </ol>





## 2.4.- KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Konpetentzia espezifikoa	Konpetentzia orokorrak						Eduki multzoak					Garrantzia (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	
1.- Mota askotako zenbakiak (arruntak, osoak, zatikizkoak, hamartarrak...) dituzten testuinguruetatik hartutako informazioak kritikoki interpretatzea, lotzea eta erabiltzea, kasu bakoitzean egokiena den zenbaki mota aukeratuta.	X	X	X		X		X	X	X	X	X	1
2.- Zenbakiekin (arruntak, osoak, arrazionalak edo irrazionalak) egindako oinarriko eragiketen emaitza ontzat hartzea eta kalkulatzeko, erantzunak zehatza edo gutxi gorabeherakoa izan behar duen erabakiz eta ziurtasunez kalkulatzeko modu egokiena aplikatuz (buruzkoa, arkatzez eta paperez egindako algoritmoak, kalkulagailua...).	X	X	X		X	X	X			X	X	2
3.- Problema adierazteko hizkuntza aljebraikoa erraz ulertzeko moduan erabiltzea eta adierazpen mota hori beste batzuekin lotzea: taulak, grafikoa, deskribatzaileak...	X	X	X		X		X		X		X	1
4.- Zenbakizko erlazioak eta ereduak irudikatzea, adierazpen aljebraiko bakunak proposatuz, erabiliz eta manipulatu.	X	X	X			X	X				X	1
5.- Problema ekuazioen bidez ebazteko metodo analitikoa zentzuz erabiltzea eta lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta ekuazio sistemak ebazteko algoritmoak trebetasunez aplikatzea.	X		X	X		X	X		X		X	2
6.- Problema eta problema ereduak ekiteko estrategiak autonomiaz eta zentzuz erabiltzea, ebazpen prozesua behar bezala planifikatu, argi eta ordenatuta garatu eta nork bere gaitasunetan segurtasuna eta konfiantza erakutsiz.	X				X	X	X	X			X	1
7.- Taulatan, grafikoetan eta estatistika parametroetan oinarrituta, informazio estatistikoa interpretatzea eta aurkeztea, bai eta oinarriko estatistika parametroak kalkulatzeko ere, kasu bakoitzerako egokienak diren bitartekoak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua).	X	X	X		X		X			X	X	1
8.- Probabilitatearekin eta zoriarekin lotutako fenomenoak eta egoerak ezagutzea, horiekin lotutako problema ebazteko.	X	X	X			X	X			X	X	1
9.- Ingurune sozialean eta naturalean dauden irudi lauk eta gorputz geometrikoak zehaztasunez eta trebetasunez identifikatzea, aztertzea, deskribatzea eta eraikitzea, eta horiekin lotutako ezaugarri geometrikoak behar diren egoeretan erabiltzea.	X	X	X	X		X	X	X			X	1
10.- Hiru dimentsioko objektu bakunak bistaraztea eta irudikatzea, irudikapen lauk lortuz eta trebetasunez eta sormenez jokatuz.	X	X	X	X				X			X	2
11.- Zenbakizko proportzionaltasun erlazioak (mota guztietakoak) eta geometriko proportzionaltasun erlazioak identifikatzea, eta erlazio horiek erabiltzen dituzten problema ebazteko, erlazio horiekin lotutako problema ereduak bereziki nabarmenduz.	X	X			X		X	X	X		X	1
12.- Magnitudeak erabiltzera behartzen duten problema ebazteko, bai taldean, bai banaka, unitateak magnitude ordena egokian erabiliz.	X	X			X		X	X			X	1
13.- Irudi eta gorputz geometrikoen luzerak, angeluak, azalera eta bolumen neurtzeko, tresnak, teknikak eta formulak erabiltzea.	X	X	X	X			X	X			X	2
14.- Hainbat motatan (ahoz, taulaz, grafikoki eta aljebraikoki) adierazitako erlazio funtzionalak identifikatzea eta interpretatzea, adierazpen moten artean beharrezko transferentziak eginez.		X	X			X			X		X	2

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



Kompetentzia espezifikoak	Kompetentzia orokorrak						Eduki multzoak					Garrantzia (1-2-3)
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	
15.- Erlazio funtzional bakunak (funtzio lineal koadratikoak, alderantzizkoak...) irudikatzea eta aztertzea, arkatza eta papera ez ezik kalkulagailua eta ordenagailua ere erabiliz.		X	X	X			X		X			2
16.- Zenbakizko testuinguruetan eta testuinguru alfanumeriko eta geometrikoetan dedukziozko eta indukziozko arazoibideak aplikatzea.	X	X	X	X		X	X	X			X	1
17.- Matematikako jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki ezagutzea, balioestea eta erabiltzea; esate baterako, ordena, kontrastea, zehaztasuna, berrikuspen sistematikoa eta emaitzen kritika.		X	X			X	X	X	X	X	X	1
18.- Taldeko lana balioestea eta talde lanean integratzea, mota askotako jarduerak egiteko; betiere, hori oinarri bada matematikako ikaskuntzarako, autoestimua indartzeko eta gure gizarteak onartutako balio sozialetarako.	X	X	X			X	X	X	X	X	X	1

## 2.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Mota askotako zenbakiak (arruntak, osoak, zatikizkoak, hamartarrak...) dituzten testuinguruetatik hartutako informazioak kritikoki interpretatzea, lotzea eta erabiltzea, kasu bakoitzean egokiena den zenbaki mota aukeratuta.	<p>1.1.- Kopuruei buruzko informazioa behar bezala irudikatze eta interpretatzeko, zenbaki motak identifikatzen eta erabiltzen ditu.</p> <p>1.2.- Zenbaki motak alderatzen, ordenatzen, sailkatzen eta irudikatzen ditu.</p> <p>1.3.- Zatikizko zenbakiak zenbaki hamartarrekin eta ehunekoekin lotzen ditu, eta kalkuluak ziurtasunez egiten ditu.</p> <p>1.4.- Idazkera zientifikoa erabiltzen du, kopuru oso handiak edo oso txikiak behar adinako zehaztasunez emateko.</p>
2 Zenbakiekin (arruntak, osoak, arrazionalak edo irrazionalak) egindako oinarriko eragiketen emaitza ontzat hartzea eta kalkulatzeko, erantzunak zehatza edo gutxi gorabeherakoa izan behar duen erabakiz eta ziurtasunez kalkulatzeko modu egokiena aplikatuz (buruzkoa, arkatzez eta paperez egindako algoritmoak, kalkulagailua...).	<p>2.1.- Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu, eta lortutako emaitzak zentzudunak diren erabakitzen du.</p> <p>2.2.- Eragiketak egiteko modurik egokiena aukeratzen du.</p> <p>2.3.- Kalkuluak eraginkortasunez egiten ditu, dela kalkuluak buruz eginez, dela algoritmoak arkatzez eta paperez edo kalkulagailuz eginez.</p> <p>2.4.- Eragiketetan kalkuluak buruz egiteko estrategiak identifikatzen eta justifikatzen ditu.</p> <p>2.5.- Hurbilketak egiten ditu, emaitzak behar den zehaztasunez biribilduz.</p>
3 Problema adierazteko hizkuntza aljebraikoa erraz ulertzeko moduan erabiltzea eta adierazpen mota hori beste batzuekin lotzea: taulak, grafikoak, deskribatzaileak...	<p>3.1.- Problema askotan hizkuntza aljebraikoa erabiltzen du.</p> <p>3.2.- Behar den hizkuntza aljebraikoa erabiltzen du: ezezaguna, ebazpena...</p> <p>3.3.- Konfigurazio geometrikoetan edo balio tauletan oinarrituta, adierazpen aljebraikoak interpretatzen ditu.</p>
4 Zenbakizko erlazioak eta ereduak irudikatzea, adierazpen aljebraiko bakunak proposatuz, erabiliz eta manipulaturaz.	<p>4.1.- Zenbakizko erlazioak eta jarraibideak deskribatzen ditu.</p> <p>4.2.- Zenbaki buruzko arauak deskribatzen eta orokortzen dituzten adierazpenak planteatzen ditu.</p> <p>4.3.- Adierazpen aljebraikoko moduak lotzen eta interpretatzen ditu.</p> <p>4.4.- Eragiketa aljebraiko bakunekin lan egiten du, eta haiek sinplifikatzen ditu, bai arkatzez eta paperez, bai ordenagailuz.</p> <p>4.5.- Binomioen arteko erlazio aljebraiko erabilgarrienak identifikatzen eta aplikatzen ditu.</p>



Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>5 Problema ekuazioen bidez ebazteko metodo analitikoa zentzuz erabiltzea eta lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta ekuazio sistemak ebazteko algoritmoak trebetasunez aplikatzea.</p>	<p>5.1.- Problema ordezkatzan duten ekuazioak planteatzen ditu, ezezagunak identifikatuz.</p> <p>5.2.- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezagun dituzten bi ekuazioko sistemak segurtasunez eta trebetasunez sinplifikatzen eta ebazten ditu.</p> <p>5.3.- Lortutako emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu, egokiak diren ala ez balioetsiz.</p>
<p>6 Problemei eta problema ereduak ekiteko estrategiak autonomiaz eta zentzuz erabiltzea, ebazpen prozesua behar bezala planifikatuz, argi eta ordenatuta garatuz eta nor bere gaitasunetan segurtasuna eta konfiantza erakutsiz.</p>	<p>6.1.- Ebazpen prozesuari ekiteko ekimena hartzen du.</p> <p>6.2.- Eskema edo irudikapen egokiak egiten ditu.</p> <p>6.3.- Problema bat deskonposatu, eta azpi-problema ateratzen ditu.</p> <p>6.4.- Kasu jakin batzuekin esperimendatzen du.</p> <p>6.5.- Idazkera egokia erabiltzen du.</p> <p>6.6.- Problema ereduak ebazteko metodoak aplikatzen ditu.</p> <p>6.7.- Problema bat ebazteko, ezagutza aljebraikoak aplikatzen ditu.</p> <p>6.8.- Alternatiba bat baino gehiago aztertzen eta ebaluatzen ditu, prozesuan zehar aldatu ahal izateko.</p> <p>6.9.- Ebazpena egiaztatzen du, eta beste bide batzuetatik emaitza bera lortzen saiatzen da.</p> <p>6.10.- Jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du, eta hortik beste problema batzuk ebazteko ondorioak ateratzen saiatzen da.</p>
<p>7 Tauletan, grafikoetan eta estatistika parametroetan oinarrituta, informazio estatistikoa interpretatzea eta aurkeztea, bai eta oinarriko estatistika parametroak kalkulatzeko ere, kasu bakoitzerako egokienak diren bitartekoak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua).</p>	<p>7.1.- Taulen eta estatistika grafikoen bidez datuak kritikoki interpretatzen ditu.</p> <p>7.2.- Taulen eta estatistika grafikoen bidez datuak irudikatzen ditu.</p> <p>7.3.- Datu banaketa bateko datuen bideratzea eta batez bestekoa behar bezala kalkulatzeko eta interpretatzeko, behar izanez gero kalkulagailua erabiliz.</p>
<p>8 Probabilitatearekin eta zoriarekin lotutako fenomenoak eta egoerak ezagutzeko, horiekin lotutako problema ebazteko.</p>	<p>8.1.- Ausazko egoerak eta fenomenoak identifikatzen ditu.</p> <p>8.2.- Ausazko gertaerak deskribatzeko, terminologia egokia erabiltzen du.</p> <p>8.3.- Ausazko gertaerei probabilitateak egokitzen dizkio, esperimendu sinpleetan.</p> <p>8.4.- Laplaceren legea aplikatzen du, eta zenbaketak egiteko oinarriko estrategiak erabiltzen ditu.</p> <p>8.5.- Gertaera konposatu errazten probabilitatea kalkulatzeko, zuhaitz diagramak erabiliz, nagusiki.</p> <p>8.6.- Esperimenduen eta simulazioen emaitzei buruzko hipotesiak formulatzen eta egiaztatzen ditu.</p>
<p>9 Ingurune sozialean eta naturalean dauden irudi lauak eta gorputz geometrikoak zehaztasunez eta trebetasunez identifikatzea, aztertzea, deskribatzea eta eraikitzea, eta horiekin lotutako ezaugarri geometrikoak behar diren egoeretan erabiltzea.</p>	<p>9.1.- Objektuen oinarriko elementuak deskribatzen ditu (bi eta hiru dimentsiotan), bai eta erlazio geometrikoak ere (paralelotasuna, elkarzutasuna, antzekotasuna...).</p> <p>9.2.- Irudi laueta simetriak aurkitzen ditu, bai eta biraketan eta translazioen eraginak ere.</p> <p>9.3.- Bi eta hiru dimentsioko formak egiten ditu, errealtatearen espazio alderdiak modelatzeko edo geometriako baliabideen bidez emandako informazioan oinarrituta.</p> <p>9.4.- Eguneroko bizitzako egoeretan baliabide eta erreminta geometrikoak trebetasunez eta zehaztasunez erabiltzen ditu.</p> <p>9.5.- Naturan, artean, zientzietan, teknologian eta eguneroko bizitzan geometriaren bidez adieraz daitezkeen alderdiak balioesten ditu.</p> <p>9.6.- Egoera geometrikoak ebazteko, geometria analitikoari buruzko ezagutzak erabiltzen ditu.</p>
<p>10 Hiru dimentsioko objektu bakunak bistaratzea eta irudikatzea, irudikapen lauak lortuz eta trebetasunez eta sormenez jokatuz.</p>	<p>10.1.- Planoan irudiak irudikatze, tresnak trebetasunez erabiltzen ditu.</p> <p>10.2.- Irudien eta gorputz geometrikoen marrazkiak egiten ditu, tresna egokienak erabiliz (erregela, kartaboa eta konpasa), eta interesa erakusten du marrazkiak argi eta garbi aurkezteko.</p> <p>10.3.- Hiru dimentsioko objektuen bozetoak eta eskemak erabiltzen ditu, azalaren eta bolumenaren problema bistaratze eta ebazteko.</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
	10.4.- Hiru dimentsioko irudiak ateratzen ditu bi dimentsioko perspektibetatik.
11 Zenbakizko proportzionaltasun erlazioak (mota guztietakoak) eta geometriako proportzionaltasun erlazioak identifikatzea, eta erlazio horiek erabiltzen diren problemak ebaztea, erlazio horiekin lotutako problema ereduak bereziki nabarmenduz.	<p>11.1.- Zenbakizko bi magnitude zuzenean edo alderantziz proportzionalak noiz diren bereizten du.</p> <p>11.2.- Bi magnitudeen artean hiruko erregela zuzenean edo zeharka erabiltzera behartzen duten ariketak eta problemak ebazten ditu.</p> <p>11.3.- Antzeko irudiak identifikatzen ditu, eta antzekotasun arrazoia kalkulatzeko du.</p> <p>11.4.- Talesen teorema aplikatzen du, eta triangeluen arteko antzekotasuna erabiltzen du problema geometrikoetan.</p> <p>11.5.- Eskala faktoreekin lotutako problemak ebazten ditu, arrazoiak eta proportzioak erabiliz.</p> <p>11.6.- Antzeko irudien azalera eta bolumenak kalkulatzeko, antzekotasun arrazoia aintzat hartuta.</p>
12 Magnitudeak erabiltzera behartzen duten problemak ebaztea, bai taldean, bai banaka, unitateak magnitude ordena egokian erabiliz.	<p>12.1.- Magnitudeen neurriak gutxi gorabeherakoak direla onartzen du.</p> <p>12.2.- Neurriak eskatutako zehaztasunez adierazten ditu, egindako errorea adieraziz.</p> <p>12.3.- Neurriak adierazteko egokienak diren unitateak hautatzen ditu.</p> <p>12.4.- Sistema metriko hamartarra erraz erabiltzen du, eta unitate aldaketak egiten ditu.</p> <p>12.5.- Euskal Herrian tradizioz erabili ohi diren neurri batzuk ezagutzen ditu.</p>
13 Irudi eta gorputz geometrikoen luzerak, angeluak, azalera eta bolumenak neurtzeko, tresnak, teknikak eta formulak erabiltzea.	<p>13.1.- Iritzirako kalkulu doiak egiten ditu, eta, horretarako, hurbileko erreferentziak erabiltzen ditu.</p> <p>13.2.- Gorputz eta irudi geometrikoen angeluak, luzerak, azalera eta bolumenak neurtzeko tresna egokiak erabiltzen ditu.</p> <p>13.3.- Irudi eta gorputz garrantzitsuenen (triangelua, laukizuzena, zirkulua, prisma, piramidea, zilindroa, konoa eta esfera) azalera eta bolumenak kalkulatzeko egokienak diren formulak erabiltzen ditu.</p> <p>13.4.- Distantziak kalkulatzeko, Pitagorasen teorema eta trigonometriako oinarriko ezagutzak aplikatzen ditu.</p> <p>13.5.- Irudi lauen azalera eta gorputz geometrikoen bolumenak kalkulatzeko, horiek deskonposatu eta oinarriko beste irudi eta gorputz batzuk aterata.</p>
14 Hainbat motatan (ahoz, taulaz, grafikoki eta aljebraikoki) adierazitako erlazio funtzionalak identifikatzea eta interpretatzea, adierazpen moten artean beharrezko transferentziak eginez.	<p>14.1.- Aldagaien artean mendekotasun funtzionaleko erlazioak ezartzen ditu.</p> <p>14.2.- Balio taula edo adierazpen aljebraiko batetik abiatuta funtzio baten grafikoa irudikatzen du.</p> <p>14.3.- Funtzio bateko zenbakizko balioak kalkulatzeko, eta gai da horiekin taula esanguratsu bat egiteko.</p> <p>14.4.- Ahozko espresio bat dagokion irudikapenarekin eta irudikapena dagokion ahozko espresioarekin lotzen ditu.</p> <p>14.5.- Bi aldagairen arteko erlazioa ikertzen du, eta hori modelizatzeke funtzio bat doitzen du.</p> <p>14.6.- Alderdi funtzionalen problemak ebazten ditu.</p>
15 Erlazio funtzional bakunak (funtzio lineal koadratikoak, alderantzizkoak...) irudikatzea eta aztertzea, arkatza eta papera ez ezik kalkulagailua eta ordenagailua ere erabiliz.	<p>15.1.- Ardatz kartesiarretan funtzio afinak, linealak eta koadratikoak irudikatzen ditu.</p> <p>15.2.- Funtzio linealak edo ez-linealak identifikatzen ditu, zenbakizko balioetako tauletatik, grafikoetatik eta adierazpen aljebraikoetatik abiatuta.</p> <p>15.3.- Funtzio errazen problema grafikoak ebazten ditu.</p> <p>15.4.- Grafiko gorakorra edo beherakorra den jakitera iristen da, ezagutza intuitiboa baliatuta.</p> <p>15.5.- "Malda" kontzeptuan oinarrituta, funtzio linealen hazkundea alderatzen du.</p> <p>15.6.- Grafiko jarraitua zer den jakitera iristen da, ezagutza intuitiboa baliatuta.</p>



Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
	<p>15.7.- Grafiko batean funtzioaren puntu nagusiak identifikatzen ditu (maximoak, minimoak, ardatzekiko ebakidura puntuak...).</p> <p>15.8.- Funtzio konplexuetako grafiko batzuk bereizten ditu: esponentziala, trigonometrikoa, polinomikoa...</p> <p>15.9.- Kalkulagailua edo ordenagailua erabiliz funtzio batzuk irudikatzen ditu, adierazpen aljebraikoan oinarrituta.</p>
16 Zenbakizko testuinguruetan eta testuinguru alfanumeriko eta geometrikoetan dedukziozko eta indukziozko arrazoibideak aplikatzea.	<p>16.1.- Emandako informazio batean oinarrituta, jarraibide alfanumerikoak edo geometrikoak deskribatzen ditu.</p> <p>16.2.- Ondorioak ateratzeko, argudio logiko zuzenak erabiltzen ditu.</p> <p>16.3.- Besteen argudioak ulertzen eta kritikoki balioesten ditu.</p> <p>16.4.- Problema ebaztean, frogapen geometriko errazak egiten ditu.</p> <p>16.5.- Egindako hipotesiak baliagarriak diren ala ez esperimendatzen eta ikertzen du.</p>
17 Matematikako jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki ezagutzea, balioestea eta erabiltzea; esate baterako, ordena, kontrastea, zehaztasuna, berrikuspen sistematikoa eta emaitzen kritika.	<p>17.1.- Emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten ditu.</p> <p>17.2.- Prozesua eta lortutako emaitzak zentzuz justifikatzen ditu.</p> <p>17.3.- Kalkuluetan eta arrazoibideetan zorrotasuna eta zehaztasuna erakusten ditu.</p> <p>17.4.- Lortutako ezagutzak egoera berrietan aplikatzen ditu.</p>
18 Taldeko lana balioestea eta bertan integratzea, mota askotako jarduerak egiteko; betiere, hori oinarri bada matematikako ikaskuntzarako, autoestimua indartzeko eta gure gizarteak onartutako balio sozialetarako.	<p>18.1.- Sexuagatik, kulturagatik edo beste arrazoi batengatik bazterketa eragiten duten jarrerak baztertzen saiatzen da.</p> <p>18.2.- Lanak taldean egitearen aldeko jarrera du, eta bere gain hartzen ditu dagozkion ardurak.</p> <p>18.3.- Taldean lan egiteak ikaskuntzaren motorra izateko eta gizarteak aurrera egiteko duen garrantzia onartzen du.</p>



IIIb ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

MATEMATIKA ARLOA

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko kompetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina kompetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko kompetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko kompetentzia espezifikoez baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handia; 5 = Ezinbestekoa
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Eguneroko bizitzatik, matematikatik edo beste zientzia batzuetatik ateratako problemak planteatzea eta ebaztea, bai taldean, bai banaka, hainbat estrategia aukeratu eta erabiliz, ebazpen prozesua arazoituz eta emaitzak egoera berrietan aplikatu, gizarte inguruan arduraz jokatzeko.					
2.- Elementu matematikoak (zenbakiak, estatistika datuak, grafikoak, planoak, kalkulak, irudiak, zoria...) identifikatzea, lotzea, deskribatzea eta irudikatzea, bai gizarte mundukoak (albisteak, iritziak, iragarkiak...), bai zientzia mundukoak, horiek dituzten funtzioak kritikoki aztertuz, jasotako mezuak eta informazioak hobeto ulertzeko.					
3.- Adierazpen matematikoaren berezko baliabideak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak...) autonomiaz eta sormenez erabiltzea, baliabide teknologiko egokienak erabiliz norberaren pentsamendua argi eta koherentziaz zehazteko.					
4.- Objektuak, egoera matematikoak, konposizioak eta espazio konfigurazioak irudikatzea eta deskribatzea, emandako informazio batetik eta inguruko informazio batetik abiatuta, inguruko mundu fisikoa ulertzeko eta aztertzeke ezinbestekoak diren ezagutza geometrikoak aplikatu eta horrekin lotura duten problemak ebatziz.					
5.- Zenbakizko eta aljebra kalkulak segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzerako egokienak diren prozedurak erabiliz (ahozkoa, idatzia, kalkulagailua...), eta estimazio zentzudunak egitea, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko.					
6.- Matematikoki arazoitzea eta argudiatzea, norberaren argudioak eta justifikazioak eginez, testuinguru matematikoetan emaitza eta ondorio berriak lortzeko aukera izateko, bai eta beste pertsona batzuek emandako argudioak ulertzeko eta kritikatzeko ere.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Mota askotako zenbakiak (arruntak, osoak, zatikizkoak, hamartarrak...) dituzten testuinguruetatik hartutako informazioak kritikoki interpretatzea, lotzea eta erabiltzea, kasu bakoitzean egokiena den zenbaki mota aukeratuta.					
2.- Zenbakiak (arruntak, osoak, arrazionalak edo irrazionalak) egindako oinarriko eragiketen emaitza ontzat hartzea eta kalkulatzea, erantzunak zehatza edo gutxi gorabeherakoa izan behar duen erabakiz eta ziurtasunez kalkulatzeko modu egokiena aplikatuz (buruzkoa, arkatez eta paperez egindako algoritmoak, kalkulagailua...).					
3.- Problema adierazteko hizkuntza aljebraikoa erraz ulertzeko moduan erabiltzea eta adierazpen mota hori beste batzuekin lotzea: taulak, grafikoak, deskribatzaileak...					
4.- Zenbakizko erlazioak eta ereduak irudikatzea, adierazpen aljebraiko bakunak proposatuz, erabiliz eta manipulaturaz.					
5.- Problema ekuazioen bidez ebazteko metodo analitikoak zentzuz erabiltzea eta lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta ekuazio sistemak ebazteko algoritmoak trebetasunez aplikatzea.					
6.- Problemei eta problema ereduari ekiteko estrategiak autonomiaz eta zentzuz erabiltzea, ebazpen prozesua behar bezala planifikatuz, argi eta ordenatuta garatuz eta nor bere gaitasuntan segurtasuna eta konfiantza erakutsiz.					
7.- Taulatan, grafikoetan eta estatistika parametroetan oinarrituta, informazio estatistikoa interpretatzea eta aurkeztea, bai eta oinarriko estatistika parametroak kalkulatzeko ere, kasu bakoitzerako egokienak diren bitartekoak erabiliz (arkatza eta papera, kalkulagailua edo ordenagailua).					
8.- Probabilitatearekin eta zoriarekin lotutako fenomenoak eta egoerak ezagutzea, horiekin lotutako problema ebartziz.					
9.- Ingurune sozialean eta naturalean dauden irudi lauak eta gorputz geometrikoak zehaztasunez eta trebetasunez identifikatzea, aztertzea, deskribatzea eta eraikitzea, eta horiekin lotutako ezaugarri geometrikoak behar diren egoeretan erabiltzea.					
10.- Hiru dimentsioko objektu bakunak bistaratzea eta irudikatzea, irudikapen lauak lortuz eta trebetasunez eta sormenez jokatuz.					
11.- Zenbakizko proportzionaltasun erlazioak (mota guztietakoak) eta geometriko proportzionaltasun erlazioak identifikatzea, eta erlazio horiek erabiltzen dituzten problema ebaztea, erlazio horiekin lotutako problema ereduak bereziki nabarmenduz.					
12.- Magnitudeak erabiltzera behar duten problema ebaztea, bai taldean, bai banaka, unitateak magnitude ordena egokian erabiliz.					
13.- Irudi eta gorputz geometrikoen luzerak, angeluak, azalerak eta bolumenak neurtzeko, tresnak, teknikak eta formulak erabiltzea.					
14.- Hainbat motatan (ahoz, taulaz, grafikoki eta aljebraikoki) adierazitako erlazio funtzionalak identifikatzea eta interpretatzea, adierazpen moten artean beharrezko transferentziak eginez.					
15.- Erlazio funtzional bakunak (funtzio lineal koadratikoak, alderantzizkoak...) irudikatzea eta aztertzea, arkatza eta papera ez ezik kalkulagailua eta ordenagailua ere erabiliz.					
16.- Zenbakizko testuinguruetan eta testuinguru alfanumeriko eta geometrikoetan dedukziozko eta indukziozko arrazoiak aplikatzea.					
17.- Matematikako jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki ezagutzea, balioestea eta erabiltzea; esate baterako, ordena, kontrastea, zehaztasuna, berrikuspen sistematikoa eta emaitzen kritika.					
18.- Taldeko lana balioestea eta talde lanean integratzea, mota askotako jarduerak egiteko; betiere, hori oinarri bada matematikako ikaskuntzarako, autoestimua indartzeko eta gure gizarteak onartutako balio sozialerako.					
19.- Matematika Arloaren balorazioa oro har					



**Matematika arloko konpetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren konpetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.





## 3.- TEKNOLOGIA

### 3.1.- SARRERA

Euskal Curriculumaren ereduari, arlo batek, inguruko unibertso artifizialaz arduratzeaz gain, herritarrek ikuspegi unibertsala izatea eta,aldi berean, sustraituta egoteko behar duen prestakuntza izatea bultzatzen da. Herritarra XXI. mendean sortu eta etengabe aldatzen ari diren espazioetan ibiltzeko gai izatea da helburua; betiere, berezko identitatea galdu gabe.

Helburu horrekin lotuta, ikasleen prestakuntza gidatu behar duten kompetentzia orokorrak daude, eta kompetentzia horiek ikaslearen prestakuntza garatzeko Teknologia arloari buruzko ikuskera eratzen dute.

***Ikasten eta pentsatzen ikasi.*** Kompetentzia orokor horrek behar duen metodologian, ikasleak baliabide kognitibo batzuk erabili behar ditu. “Ezagutzaren” gizartean, herritarren erronka ezagutza kudeatzea da. Erabakiak hartzea eta arazoak konpontzera bultzatzen duten egoeren aurrean jarri behar dira ikasleak, eta, horretarako, ulertzeko, informazioa sortzeko eta iritzi kritikoa garatzeko trebetasun orokorrak beharko dituzte, helburu hauek lortze aldera: norberaren pentsamendua ezagutzea, horren autoerregulazioa egitea, estrategikoki jokatzeko eta hori guztia egoera berrietara transferitzea. Modu horretan, arlo horrek aparteko indarra jarriko du arazo praktikoak konpontzen, bai eremu materialean, bai alegiazko eremuan, objektuen eta sistemen azterketa baztertu gabe, metodologia espezifiko gisa.

Arazo praktikoak konpontzeko aukera metodologiko horrek autoerregulazioarekin lotutako baliabideak erabiltzea bermatzen du, ikasleak planifikatu egin behar baitu egin beharrekoa, ekintzak aurreikusiz eta emaitzak eta akatsak ebaluatuz, planteatutako arazoak konplexuagoak izan ahala ikasleak modu sistematikoagoan eta zehatzagoan lan egin dezan. Estrategikoki jokatzeko beste arrazoi bat hau da: aurretik zuen informazioa esperientziatik ateratakoarekin batera kudeatu behar du ikasleak, jarduera ebazten jarraitu ahal izateko. Azkenik, errealitatea, nahita, sormenez, planifikatuz eta erantzukizunez eraldatzeko gaitasunaren ondorioz –Teknologia arloak berezko du gaitasun hori–, beste ikaskuntza egoera batzuetan lortutako ezagutza –jakinduria– transferitzen da. Arloaren definizioa hau da: **ezagutza pentsamenduan**. Izan ere, lehentasuna prozesuak –pentsamenduak– duela adierazten da, ezagutza



unez une eta prozesu osoaren laburbilketan berregituratuko dela jakinda. Modu horretan, metakognizioa, ezagutza eta norberaren pentsamenduaren kontrola garatzen dira.

Arazo praktikoak konpontzeko lehenengo fasean, aukerak hauteman eta konpondu beharreko arazoak definitzen dira, eta, bertan, ikasleak ulermenean oinarritutako pentsamendua eta pentsamendu kritikoak erabiltzen ditu. Objektuak eta sistemak alderatu, sailkatu eta sekuentziatu behar ditu, bai eta horien azterketa egin ere, lortutako informazioa ebaluatuz eta informazioa baliagarria den eta bere helburuetara egokitzen den balioetsiz.

Hurrengo faseetan (diseinua eta elaborazioa), informazioa interpretatzeaz eta ebaluatzeaz gain, informazioa sortu ere sortzen da, eta informazio hori azken fasean formulatuko da balioespena, bere mapa kognitiboan sendoago sartzen baita. Diseinuan, bereziki, pentsamendu kritikoz aztertu eta behatu beharreko ideia asko sortzen dira, efektuak iragartzen dira arrazoibide logiko-deduktiboarekin lan eginez, eta analogikoki ere arrazoitzen da; betiere, mota askotako informazioaren interpretaziotik abiatuta. Izan ere, informazio hori gero eta normalizatuagoa izango da, exigentzia handiagoko proposamenduetan aurrera egin ahala.

Azkenik, ebaluazio fasean, laburbiltzeko mekanismoak jartzen dira abian, hainbat eremutan: eremu teknikoan (mikroprozesu bakoitzean hartutako erabakiak, arazoaren erabateko ebazpena egituratzen dutenak); eremu pertsonalean (gainerako kideekiko harremana, lan plangintza egiteko modua...). Azken emaitza egiaztatu egin daiteke, eta emaitza horrek helburuak hasierakoak diren ala ez adierazten du, eta, horrez gain, ikasleak asebeteta egotea indartzen du.

**Komunikatzen ikasi.** Komunikazioari esker, ezagutza eta jakinduria teknikoa transmititu ahal izan da. Sumatzen den gizartean, ulermen eta adierazpen konpetentziak (ahozkoak nahiz idatzizkoak) menderatzeko beharra handia da. Teknologia arloak konpetentzia horiek bultzatu behar ditu. Horiek lortzeko aukera metodologiko bat arazo praktikoak konpontzea da. Ikasleak diseinuan eta konponbideak gauzatzean aplikatu beharreko ezagutzak prozesatzen ditu, eta, modu horretan, jakinduria zientifiko, matematiko eta tekniko multzo bati funtzionaltasuna ematen die, erabakitako irtenbidean bat eginez. Emandako konponbide bakoitzak adierazpen eta irudikapena irizpide onak izan behar ditu, transmititzeko eta defendatzeko. Zenbat eta konplexuago izan arazoak, orduan eta beharrezkoagoa da elkarlanean lan egitea, bai konponbide onena bilatzen, bai diseinurik onena bilatzen eta diseinua egoki erabiltzen. Ordenagailu sareak (Internet barne) ondo erabiltzeak informazio transferentzia sustatzen du, eta lexiko egokia ezagutzera eta erabiltzera bultzatzen du; horrek, gainera, hitzak, irudiak edo soinuak sortzeko eta kodetze digitalizatuz tratatzeko konpetentziak ugaritzea dakar. Bateratze lanak eskuratutako ezagutza indukzioz eta batez ere prozeduran oinarrituz formulatzera behartzen du, eta horri lotutako jerga teknikoak hitzak asmatzea eragiten du, egindako produktuaren operadoreak, funtzioak edo aplikazio informatikoak definitzeko; gainera, esperientzia komunikatzeko eta informatzeko aukera ematen dute, bai eta esperientzia arrakasta handiagoz errepikatzekoa ere.



**Elkarrekin bizitzen ikasi.** Gizarte kohesioa lortzea herritar guztioi dagokigun oreka kontua da, eta, gainera, herritarrak onura lortzen du horretatik. Proiektu komunetan parte hartuz gero, beste pertsonak ezagutzeko zailtasuna murriztu egin daiteke. Horregatik, Teknologia arloak aparteko indarra jarriko du talde lanean arazo praktikoak konpontzeko. Metodologia horrek testuinguru ezin hobea ematen du lan taldeko kideen arteko desberdintasunek bultzatutako sinergiaren ahalmena esperimendatzeko. Ikuspuntu desberdinak aberasgarri dira, irudimenean oinarritutako konponbideak bilatzeko. Trebetasunek bat egin behar dute arazoak konpontzeko faseetan, parte hartze demokratikoa eta eraginkorra bermatzeko. Norberaren sentsibilitatetik sortutako gatazka naturalak jorra eta konpon daitezke, prosozialitatea bultzatzen duten helburu konpartituei erantzuteko konponbideak presaka bilatu eta aurkitu beharrak bultzatuta. Aseritibitatea lantzen da, norberak egindako proposamenak taldeko gainerako kideek egindako proposamenen aurrean defendatzeko. Taldean lan egiteak entzute aktiboa lantzeko aukera ematen du, eta, horrez gain, kontuan hartzen zaituztela sentitzen duzu; halaber, protagonismoa banatzea eragiten du, bai eta arduraz parte hartzea ere, eta egokitutako eginkizunak aurreikusitako epeetan gauzatzen dira, konponbidera kide guztien ekarpenez iristeko.

**Norbera izaten ikasi.** Konpetentzia orokor hori osatzeko, beste konpetentzia batzuk daude: nork bere buruaz duen kontrola eta oreka, autoestimua, autonomia, gorputz identitatea, sentsibilitate estetiko eta integrazio pertsonala. Horiek guztiak indartu egiten dira subjektuaren arreta bereganatzen duen helburu edo proiektu bat dagoen neurrian, eta hori garatzean etengabe kontrastatzeko aukera du. Horren ondorioz, teknologia arloak ikasleek beren konponbideak ematera bultzatuko ditu, beren eginkizuna gidatzeko objektuen, sistemen edo ekoizpenen eraikuntza barne hartuko dituzten proposamenetarako. Lantegi gelan egindako jardueretan hainbat gauza lantzen dira: psikomotrizitate xehea, eskuaren eta garunaren arteko koordinazioa –ezinbestekoa gizateriaren eta gizabanakoaren garapenean–. Egindako lana –fisikoa edo, beste kasu batzuetan, ordenagailuz lagunduta– norberaren luzapen modukoa da, eta hori gozamenerako arrazoia da ahalegina egiteari eusteko. Ikaslea, askotan, prozesuaren jabe da, eta gero eta konplexuagoak diren erabakiak hartu behar dituenez, autonomia indartzen du. Proiektuetan oinarritutako Teknologia ereduak pentsatutakoa eta egindakoa alderatzeko aukera ematen du, eta horri esker ikasleak hobeto ezagut dezake bere burua. Horren ondorioz, konponbide “errealistagoak”, norberaren gaitasunetatik hurbilagoak, hautatzeko aukera du, eta, konponbidea errazago gauzatzeaz gain, autoestimua eta konpetentziarekiko konfiantza ere indartzen ditu. Ikasgaiarekin lan egiteak baldintza batzuk bete beharra dakar. Horrek, ezinbestean, nork bere buruaren kontrola eta oreka emozionala lortzera darama, bai eta mugak onartzera ere, hala norberaren gaitasunei buruzkoak, nola lanerako baliabideek behartutakoak. Azken batean, integrazio pertsonala bultzatzen da eremu guztietan. Norberaren interesak eta trebetasunak hobeto ezagutzea ere ezinbesteko baldintza da gizartean eta lan munduan integartzeko prozesuan erabaki zuzenak hartzeko.



**Egiten eta ekiten ikasi.** Ekiteak aldaketak sartzeko gaitasuna izatea eragiten du, bai eta norberaren ekintzen erantzukizuna hartzea ere, helburuak zehaztu eta betetzen baitira eta ikaslea lorpenerako –arrakastarako– motibatuta egoten baita. Gaitasun horrek lotura handia du Teknologia arloarekin. Arazo praktikoak konpontzeko metodoan ekite faseak gordetzen dira, eta, horren ondorioz, kasu honetan ere arloko metodologia nagusizat hartzen da. Hona hemen faseak:

*Analitikoa;* bertan, arlotik konpon daitezkeen arazoak eta aukerak aurkitzeko prest dago ikaslea. Errealitatean dauden herritarrak behar dira, adi daudenak, galderak egiten dituztenak, eta hori zaindu egin behar da kontsumitzaileen gizarteak ekar dezakeen pasibotasuna gainditzeko. Gizartean gauzak hobetzeko alternatibak planteatzeko gaitasunarekin lotuta daude galderak. Fase horretan, informazioa bilatu eta bilaketa horretarako estrategiak ikasten dira, eta, horretarako, mota askotako iturriak erabiltzen dira; adibidez, mundu akademikoan ohikoak diren iturriak (liburutegiak edo Internet) edo fabrikatzaileen, adituen edo hainbat motatako organismoen edo erakundeen katalogoen kontsulta. Askotan, azterketa-  
ren erdigunea eraiki beharreko objektua edo antzeko beste batzuk izaten dira. Azterketa protokoloak ondo barneratuta egon behar du, horren bidez informazio garrantzitsuena ateratzea lortzen baita planteatutako arazoa konpontzeko.

*Sormen* fasea pentsamendu dibergentea aplikatzeko unea da, eta hori behar-beharrezkoa da hiperkomunikatutako gizarte batean. Fase horrek aurretik sekula ikusi gabeko konponbideak gauzatzeko edo produktu bati “berezko nortasuna” ematen dion desberdintasuna emateko aukera ematen du, eta hori gizakia asebetetzen duen arrazoi handienetako bat da; gainera, ikasgelara eramanda, ikasleen autoestimua handitzea sustatzen du. Horrez gain, fase horretan alternatiba egokiena hautatzen da, eta, hautapen prozesuan, komunikazioa hobetzeko tekniken bidez, talde bakoitzeko kideen artean elkarreraginean jarduten da.

*Berrikuntza* edo *gauzatze* faseak plano mentaletik jaistera behartzen du. Mundu fisikoaren edo horren baldintzen erresistentziari aurre egiteko garaia da. Ezinbestekoa da jarrera proaktiboa lantzea, zailtasun txikien aurrean amore ez emateko. Erroreak gizakiak izan duen ikaskuntza iturri onenetakoak izan direla esperimendatzeko aukera ere ematen du fase horrek. Berrito ere, ondorio hori plano pertsonalera inferituz, zailtasunen aurrean izan beharreko pertseberantzia eta tolerantzia garrantzitsuak direla jabetzen da ikaslea.

*Azken* fasean, *ebaluazioan*, ikasitakoa formulatzen da, adierazpena hainbat formatutan hobetuz. Aurreikusitakoa lortutakoarekin alderatzen da. Laburbiltzeko eta berezko mapa kognitiboa berrantolatze-  
ko garaia da, bai eta eduki esanguratsu berriak eskuratzeko maila altuago jartzekoa ere. Teknologiaren hasierako axiomaren arabera, Teknologia arloan ingurumena –materiala nahiz alegiazkoa– aldatuz ikasten da, eta, horren ondorioz, ebaluazio fasean, ekintza horrek ingurumenean edo eremu sozialean eta pertsonalean izandako eragina edo inpaktuak ebaluatzen dira. Ondorioak berrikuntza ziklo baterako abiapuntu dira, hori guztia bizitza bezalakoa baita, haurtzarotik haurtzarorako zikloa.



### 3.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

#### **1.- Baliabide teknologikoen bidez konpon daitezkeen arazoak aurkitzea eta argi eta zehatz definitzea, eta hainbat iturritan lortutako informazioa bilatzea eta aztertzea, arazoa konpontzeko aukera izateko.**

Ingurunean zer hobe daitekeen aztertzen duten gizabanakoak dauden neurrian lortzen da aurrerapen teknologikoa. Hobekuntza prozesuaren abiapuntua ikasleak arazoak aurkitzeko eta horiek argi definitzeko gai izatea da.

Hainbat iturritan lortutako informazioak arazo teknologiko bat konpontzen lagunduko du, horren erabilera ulertu eta aztertzen den heinean. Teknologiarekin lotutako informazioa lortzeko, iturri asko daude: liburuak, dokumentuak, eskuliburuak, planoak, marrazkiak, katalogoak, Internet, multimedialako entziklopediak, interes teknikoko objektuak...

#### **2.- Arazo edo gai tekniko bati erantzuten dioten konponbideak diseinatzea, lan talde baten barruan parte hartze aktiboa izanez, funtzionamendua imajinatuz, beharrezko baliabideak aurreikusiz eta metodikoki jokatzuz ezarritako irizpideen arabera konponbide egokiena hautatzeko.**

Arloaren berezko ezagutzek, bai eta beste arlo batzuetatik lortutakoek ere, bat egiten dute, arazo edo gai tekniko bat konpontzeko irtenbideak imajinatzeko. Plangintza egiteak garrantzi handia du lan egiteko garaian. Hori guztia egiteko, eta ezarritako irizpideen arabera irtenbiderik onena aukeratzeko, hau guztia egitea komeni da: beharrezko materialak eta tresnak aurreikustea, erabili daitezkeen baliabideak eta ezagutzak zein diren jakitea, lanean jardun behar duten pertsonak eta erabili beharreko denbora zein izango diren jakitea eta eginkizunak gauzatzeko ordena ezagutzea.

Metodologia egokiz taldean lan egiteak aukera ematen du, pertsona bakoitzaren ezaugarriak baliatuz, adostutako helburuetara iristeko.

#### **3.- Diseinua praktikara eramatea, gai edo arazo tekniko bat garatzeko edo arrakastaz konpontzeko, ezagutza zientifikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenatuta aplikatuz eta lan taldean eginkizunen banaketa onartuz.**

Arazoak konpontzeko metodologian oinarritutako hezkuntza teknologikoan garrantzi handia du "egiten jakiteak". Benetako premia batetik sortutako arazo edo gai tekniko bat gauzatzek interes eta motibazio handia sortzen du ikaslearengan. Materialak, erremintak, operadoreak eta energia iturriak manipulatzeak aukera ematen du ahalmen konplexuak garatzeko, ezagutza zehatzak eta prozedura orokorrak artikulatuz, eta barneratutako ezagutzen funtzionaltasuna handitzen du.



Kontuan hartu behar da Teknologiaren arloko proiektuaren gauzarik garrantzitsuena ez dela eraikita-ko helburu edo objektu teknikoa, baizik eta hori lortzeko egindako bidea. Prozesu horretan, okerreko erabakiak ez dira porrotak, ikaskuntzako beste elementu bat baizik.

Erantzukizun kolektiboak eta pertsonalak onartzeak balio erantsia ematen die pertsonari, eta etorkizun-ean izango duten ingurune sozio-laborala hobetuko du.

#### **4.- Lortutako emaitza ebaluatzea, arazo teknologikoa konpondu den ala ez egiaztatzeko, horren funtzionamendua eta lortu beharreko kalitatea eta baldintzak test baten bidez neurtuz. Horrez gain, egindako lan prozesua eta aukeratutako irtenbidearen ondorioak ebaluatzea.**

Lortutako emaitzaren ebaluazioak hasierako diseinua eta praktikan gauzatutako ideia alderatzen ditu, eta hautatutako konponbideak aurkitutako arazoa konpontzen duen egiaztatzen du. Bestalde, egindako lan prozesuaren balioespenak hainbat kontzeptu hartzen ditu kontuan: praktikan jarritako ezagutzak laburbiltzean pertsonengan sortzen diren aldaketa kognitiboak eta emozionalak, bai eta gai edo arazo tekniko bat konpontzea sortzen diren abileziak, akatsak eta sentimenduak ere.

Horrek guztiak fenomeno teknologikoekiko jakin-mina eta fenomeno horiek ikertzeko espiritua bultzatzen ditu.

Jarduera teknologikoak gizartean eta ingurumenean duen eraginak Zientziak eta Teknologiak pertsonen bizi kalitatean dituzten alde onak eta txarrak barneratzen ditu.

#### **5.- Teknologia arloko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, horien funtzionamendua eta horiek erabiltzeko eta menderatzeko modurik onena zein den ulertzeko; eta horiek erabiltzeko eta fabrikatzeko arrazoiak eta hainbat eremutan aplika daitezkeen ezaugarriak zein diren jakitea.**

Une jakin batean Teknologiaz dugun ezagutza zerbaitetan aplikatzea hori hobetzeko baldintza da. Arazo teknologiko bat konpontzeko prozesuaren faseetan, objektuak, sistemak eta aplikazio informatikoak aztertu behar dira, hortik ikasteko eta hurrengo aplikazioetarako informazioa ateratzeko.

Konpetentzia hori garatzean gauzen funtzionamendua eta arrazoia ezagutzen direnez, ingurunea kontrolatzeko aukera ematen du, eta aldaketa teknologikoetara hobeto egokitzekeo segurtasun sentimendu bat sortzen du.

Objektuak eta sistemak metodikoki aztertuz gero, nerabeek inguruan dutenari buruzko egia ezagutzeko duten berezko joera bideratu eta bultzatzen da.



### 3.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK

Teknologia arloko kompetentzia orokorrek prozesu bat –teknologikoa– jartzen dute agerian. Prozesu horren bidez, aurkeztutako ingurune materiala edo alegiazkoa aldatzen duen heinean ikasten du ikasleak. Prozesu hori “historiaren abiapuntutik” gertatu da. Horregatik, edukiak hautatzeko irizpidea giza-kiak produkzio prozesuetan erabili izan dituen elementuak sartzea izan da, dela kolpatuz aldatutako harria, dela kontrolaren aro honetan komunikazioak eta informazioak bultzatutako garunaren emulazio sistema guztia.

#### Eduki multzoak

Eduki multzoetan, Teknologiaren bilakaeraren aldi bakoitzean agertutako edukiak daude. Horiek gaur egun arte Euskal Herria barne hartzen duen zibilizazioaren kultur jakinduria eboluzionatzea eta handitzea ekarri dute:

- Materialen eraketa, Historiaurretik hasita. Harri Aroa, Metal Aroa...
- Mekanikan eta irudikapen grafikoan eta hitzen bidezko adierazpenean oinarritutako eraikuntza. Kokalekuetatik hasita, neolitikotik aurrera, batez ere.
- Energiaren kanpo ekarpena produkzio prozesuan. Industria Iraultzatik hasita, lurrin makina abiapuntutzat hartuta. Makinismoaren aroa.
- Elektrizitatea eta elektronika erabiltzea. Automatizazioaren aroa.
- Kontrolaren aroa, garunaren funtzioen emulazioa. Robotika, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.

Teknologiaren bilakaera historikoarekin batera, joera gero eta sinbolikoagoz, nerabearen pentsamenduak zehatzetik formalera eboluzionatzen du. Teknologia arloak, horrela planteatuta, aukera ezin hobea ematen du iraganbide horretan laguntzeko.

#### 3.3.1.- Jarrerazko edukiak

1. Arazo tekniko bati emandako konponbidearekiko jarrera kritikoa, beste irtenbide batzuk edo irtenbide osagarriak bilatzeko jakin-mina, bai eta beste garai batzuetako irtenbideak bilatzeko ere, horrek inferentziak egiteko aukera ematen baitu.
2. Aurrerapen zientifiko-teknikoen eta horren ekarpenen, arriskuen, ondorioen eta kostuen onarpen eta balioespen kritikoa.
3. Besteek emandako ideiekiko, balioekiko eta konponbideekiko jakin-mina eta errespetua.
4. Taldean lan egitearen aldeko jarrera, proiektuak egiteko ohiko modu gisa.
5. Egindako lanetan, txukuntasuna, ordena eta garbitasuna zaintzeko jarrera.
6. Materialak eta tresnak erabiltzean, segurtasun eta higiene arauak betetzea.
7. Lanaren plangintza metodikoaren balioespen ona, hausnarketari eta pentsamenduari lehentasun handiagoa emanez ekintzari baino.
8. Informazioa eta komunikazioa kontrolatzeko teknologia erabiltzeko jarrera irekia.



9. Operadore, objektu eta sistema teknologikoen funtzionamenduaren printzipioak ezagutzeko interesa.
10. Arazo teknikoak konpontzean, berezko eta beste diziplina bateko ezagutzak aplikatzeko jarrera operatiboa.
11. Adierazpen teknikoaren zorrotzasunaren garrantzia onartzea, bai grafikoki –normalizazioa barne–, bai ahaz.
12. Gizateriaren jardura teknologikoak ingurumenean izandako inpaktuaren gaineko sentsibilitatea.
13. Planteatutako arazo teknologikoei konponbidea aurkitzen saiatzea.
14. Errorekiko tolerantzia, erroreak jakinduria teknikoa eta zientifikoa handitzeko iturri direla ulertuta.

### 3.3.2.- Prozedurazko edukiak:

1. Irudikapen grafikoko oinarriko tresnen eta materialen erabilera zuzena egiteko arauak.
2. Plano tekniko bakunen interpretatzeko eta irakurtzeko jarraibideak.
3. Elementu sinpleak bisten bidez eta cavalieri perspektibaren edo perspektiba isometrikoaren bidez egiteko arauak.
4. Objektuen irudikapen grafikoan baliabide informatikoak erabiltzeko arauak.
5. Dokumentu teknikoak egiteko jarraibideak baliabide ofimatikoak erabiliz.
6. Material egokiak hautatzeko jarraibideak, alderdi teknikoen, estetikoaren eta ekonomikoaren eta inpaktuzko alderdien arabera.
7. Eraikuntza prozesuetan (neurketa, trazadura, ebakidura, konformazioa, lotura eta akabera) oinarriko baliabideak erabiltzeko arauak.
8. Objektu edo sistema tekniko baten diseinuaren testuinguruan egokienak diren operadore mekanikoak hautatzeko erabili beharreko jarraibideak.
9. Hainbat testuingurutan operadore elektrikoak edo elektronikoak instalatzeko jarraitu beharreko arauak, eta sortutako efektuen azterketa.
10. Eskemetan oinarrituta, zirkuituak ezartzeko bete beharreko jarraibideak.
11. Etxeko energia instalazioen neurriak ezartzeko erabili beharreko jarraibideak.
12. Ordenagailuaren elementu funtzionalak muntatzeko jarraibideak.
13. Nabigazio baliabideak instalatzeko eta konfiguratzeko bete beharreko arauak, hainbat baliabide telematikotara iristeko.
14. Hainbat baliabide erabiltzeko jarraibideak: posta elektronikoa, txata, news, bideokonferentzia...
15. Periferikoak konektatzeko arauak.
16. Sare informatiko bat konfiguratzeko arauak.
17. Ordenagailuz informazioa lortzeko kontuan hartu beharreko aholkuak.
18. Makina automatiko bakunen diseinuan eta eraikuntzan jarraitu beharreko arauak.
19. Robot bat muntatzeko jarraitu beharreko arauak.
20. Atzeraelikadura duen sistema robotizatu baten portaera programatzeko jarraitu beharreko arauak.





### 3.3.3.- Kontzeptuzko edukiak

Eduki multzoak	Kontzeptuzko edukiak
<p><b>1. Irudi grafikoak eta hitzak adierazteko eta komunikatzeko teknikoak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marrazketaren oinarritzko baliabideak: trazadura egiteko eta laguntzaileak.</li> <li>- Bozetoa, krokisa, delineatua.</li> <li>- Proiekzio diedrikoa (bistak).</li> <li>- Cavalieri perspektiba eta perspektiba isometrikoa.</li> <li>- Eskalak, akotazioak.</li> <li>- Ordenagailuz lagundutako marrazketaren sarrera: CAD.</li> <li>- Prozesuen orria.</li> <li>- Aplikazio ofimatikoak: testu prozesadorea, kalkulu orria, datu baseen kudeatzailea, aurkezpenak...</li> <li>- Bektore marrazketarako eta grafismo artistikorako oinarritzko baliabideak.</li> <li>- Testuinguru bakoitzerako egokia den lexikoa.</li> </ul>
<p><b>2. Erabilera teknikoko materialak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fabrikazio materialen ezaugarriak.</li> <li>- Lehengaien jatorria, aurkezpena, inpaktua eta erabilera.</li> <li>- Egurra eta egurraren eratorriak.</li> <li>- Metalak: ferrosoak eta ez-ferrosoak. Aleazioak.</li> <li>- Plastikoa.</li> <li>- Material berriak: zeramikazkoak, aglomeratuak, beirak...</li> <li>- Materialak lantzeko tresnak eta teknikak.</li> <li>- Material teknikoak Euskal Herrian. Materiala lortzeko eta aldatzeko modua eta inpaktua.</li> </ul>
<p><b>3. Egiturak eta mekanismoak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erresistentzia handiko egiturak: zurruntasuna, egonkortasuna, grabitate zentroa... Egitura motak.</li> <li>- Egituretako oinarritzko esfortzuak: konpresioa, trakzioa, flexioa, tortsioa, zizailadura.</li> <li>- Egiturei buruzko adibideak, Euskal Herrian.</li> <li>- Makina bakunak: gurpila, polea, palanka, plano inklinatua eta torlojua.</li> <li>- Mugimenduak transmititzeko eta eraldatzeko mekanismoak: poleak, hortzak, pinoi-katea, pinoi-kremailera, torloju amaigabea.</li> <li>- Transmisio erlazioa.</li> <li>- Simulazio programak edo lan mahaia.</li> </ul>
<p><b>4. Elektrizitatea eta elektronika</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zirkuitu elektrikoak: osagaiak eta funtzionamendua. Serieko zirkuituak, zirkuitu paraleloak eta zirkuitu mistoak.</li> <li>- Sinbologia eta eskemak.</li> <li>- Oinarritzko magnitude elektrikoak: intentsitatea, erresistentzia eta tentsioa. Potentzia eta energia elektrikoak.</li> <li>- Ohm-en legea.</li> <li>- Korronte zuzena eta alternoa.</li> <li>- Oinarritzko neurgailuak.</li> <li>- Korronte elektrikoaren efektuak: argia, beroa, mugimendua, elektromagnetismoa. Aplikazioak.</li> <li>- Oinarritzko makina elektrikoak: sorgailuak, motorrak eta transformadoreak.</li> <li>- Elektrizitateko segurtasun eta higiene arauak.</li> <li>- Etxeko instalazio elektrikoak.</li> <li>- Oinarritzko elementu elektronikoak: erresistentzia, harila, kondentsadorea, transistorea, diodoa, LED, LDR, NTC, PTC, VDR.</li> <li>- Oinarritzko zirkuitu elektronikoak. Elikatze iturria.</li> <li>- Zirkuitu integratuak. Motak. Aplikazioak. Zirkuitu logikoen sarrera.</li> <li>- Simulazio programak eta lan mahaia.</li> </ul>
<p><b>5. Energia eta energiaren eraldaketa.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Energia iturriak: berriztagarriak eta ez-berriztagarriak.</li> <li>- Energia ez-berriztagarriak: Erregai fosilak: ikatza, petrolio eta gas naturala.</li> <li>- Energia termikoa energia mekaniko bihurtzea: lurrin makina, barne errektuntzako motorra, turbina, errektorea.</li> <li>- Energia elektrikoa sortzea, garraiatzea eta banatzea.</li> <li>- Zentral hidroelektrikoak, termikoak eta nuklearrak.</li> <li>- Energia berriztagarriak. Energia baliatzeko sistemak: energia eolikoa, eguzki energia, biomasa, mareak eragindako energia.</li> <li>- Energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko modua Euskal Herrian.</li> <li>- Etxebizitzetako instalazioak: ura, saneamendua eta berokuntza.</li> <li>- Energia aurrezteak.</li> </ul>
<p><b>6. Informazio eta komunikazio teknologiak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailua: osaera, funtzionamendua eta erabilera. Ohiko periferikoak.</li> <li>- Sistema eragilea.</li> <li>- Informazio bilaketa: alegiazko entziklopediak eta Internet.</li> <li>- Ordenagailua, komunikabide gisa: sareak, Internet (web orriak, posta elektronikoa, txat, news, bideokonferentziak, komunitateak eta alegiazko ikasgelak).</li> <li>- Internet: funtzionamenduaren oinarritzko printzipioak, konexio motak.</li> </ul>



Gai multzoak	Kontzeptuzko edukiak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio prozesuak: mezua, igorlea, hartzailea eta bitartekoa. Aukerak.</li> <li>- Telefonía finkoa eta mugikorra, irratia, telebista, satellite bidezko komunikazioa.</li> </ul>
<b>7. Kontrola eta robotika.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontrol sistemen sarrera.</li> <li>- Makina automatikoak: automatismoak, automata programagarriak, robotak.</li> <li>- Robot baten arkitektura: funtsezko osagaiak.</li> <li>- Programazio hizkuntzen sarrera.</li> <li>- Sistemaren atzeraelikadura.</li> <li>- Ordenagailua, kontrol gailu gisa: seinale analogikoak eta digitalak. Interfazeak eta txartel kontroladorea.</li> <li>- Dometika.</li> <li>- Teknologia zentroak Euskal Herrian.</li> </ul>

### 3.4.- ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Kompetentzia espezifikoak	Kompetentzia orokorrak					Eduki multzoak							Garran. (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	7	
1. Teknologia arloan landu eta garatu daitezkeen arazo teknologikoak -benetakoak edo asmatuak- identifikatzea, arazoak konpontzeko.	X					X	X	X	X	X	X	X	2
2. Konpondu beharreko arazoaren berezko ezaugarriak ulertzea, taldean informazioa bilatzeko estrategia bat zehazteko.	X	X				X	X	X	X	X	X	X	1
3. Azterketa metodoa objektuetan eta sistemetan aplikatzea, teknologiarekin lotura duten arazoak konpontzean garrantzitsua den informazioa zein den jakiteko.	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X	1
4. Informazio tekniko eta prozedura eta sinbologia normalizatua interpretatzea, objektu edo sistema tekniko baten forma, funtzionamendua edo muntaia ulertzeko.	X	X	X		X	X		X	X	X	X	X	1
5. Eginkizunetan teknologia berriak sartzea, arazoak konpontzeko metodoak eta sistemak eguneratzeko eta gure gizartea nolakoa den hobeto jakiteko.	X	X	X	X	X	X		X	X		X	X	1
6. Arazo tekniko bat konpontzeko pentsatutako konponbideak dokumentatzea, horren definizio zehazetik abiatuta, bideragarria eta eraginkorra den jakiteko.	X	X				X	X	X	X	X	X	X	3
7. Konponbiderik onena konfiguratzeko, hori ezartzeko.		X				X					X	X	2
8. Lan prozesua taldean planifikatzea, erabili beharreko baliabideak aurreikusiz, arazo tekniko bat konpontzeko.		X	X				X	X	X	X	X	X	2
9. Hainbat pertsonaz osatutako lan talde batean arduraz parte hartzea, konponbidea gauzatzeko, aurretiko diseinu batean oinarrituta eta jarraitu beharreko faseak eta ordena bereiziz.			X				X	X	X	X	X	X	2
10. Ezagutza teknikoen eta zientifikoen funtzionaltasuna metodikoki eta ordenatuta aplikatzea, diseinatutako konponbidea gauzatzeko.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
11. Landutako konponbideak funtzionatzen duen eta aurkitutako edo planteatutako arazoak konpontzen duen egiaztatzea.			X	X			X	X	X	X	X	X	2
12. Elaborazio prozesuan, hasierako diseinuarekiko aldaerak dauden egiaztatzea, lortu nahi den emaitza erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.			X	X			X	X	X	X	X	X	1
13. Egindako lana ebaluatzea, jarraitutako metodoa eta ondo eta gaizki egindakoa aztertuz; betiere, hobetzeko asmoz.				X		X	X	X	X	X	X	X	2
14. Objektuak eta sistemak ekoizteak eta erabiltzeak eta hondakin bihurtzeak ingurumenaren eta gizakiaren dituen ondorioak aztertzea.	X	X	X	X	X		X	X	X	X	X	X	1

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



### 3.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1. Teknologia arloan landu eta garatu daitezkeen arazo teknologikoak - benetakoa edo asmatuak- identifikatzea, arazoak konpontzeko.	<p>1.1. Eskura dituen baliabideen bidez konpon ditzakeen arazo teknologikoak identifikatzen ditu.</p> <p>1.2. Aurkitutako arazoak argi definitzen ditu, hitz egokia erabiliz.</p> <p>1.3. Objektu edo sistema tekniko bat beharrezkoa izatea egiten duten arrazoiak deskribatzen ditu.</p> <p>1.4. Planteatutako arazorako beste konponbide batzuk ezagutzeko interesa du.</p>
2. Konpondu beharreko arazoaren berezko ezaugarriak ulertzea, taldean informazioa bilatzeko estrategia bat zehazteko.	<p>2.1. Konpondu beharreko arazoaren zehaztasunak definitzen ditu.</p> <p>2.2. Taldekideen artean informazio bilaketa planifikatzen du.</p> <p>2.3. Informazio iturri egokienak erabiltzen ditu.</p> <p>2.4. Informazioa biltzen du taldekideekin.</p>
3. Azterketa metodoa objektuetan eta sistemetan aplikatzea, teknologiarekin lotura duten arazoak konpontzean garrantzitsua den informazioa zein den jakiteko.	<p>3.1. Ezaugarri morfologikoak, objektuak eta sistemak egiteko materialak eta horien akaberak justifikatzen ditu.</p> <p>3.2. Objektuen edo sistemen osagaiak zehaztu eta osotasunean duten funtzioa ondorioztatzen du.</p> <p>3.3. Aztertutako objektuak emandako konponbideez gain, beste konponbide batzuk edo konponbide osagarriak ematen ditu, eta hasierako konponbidearekiko jarrera kritikoa da.</p> <p>3.4. Objektu edo sistema baten ezaugarriak azaltzen dituzten legeak ondorioztatzen ditu, eta, horretarako, horien azpian dauden printzipioak ezagutzeko interesa du.</p>
4. Informazio teknikoa eta prozedura eta sinbologia normalizatua interpretatzea, objektu edo sistema tekniko baten forma, funtzionamendua edo muntaia ulertzeko.	<p>4.1. Testu teknikoaren eta horien terminologia zehatzaren esanahia ulertzen du.</p> <p>4.2. Taldekideen ekarpenetan oinarrituta, informazioa behar bezala sintetizatzen du.</p> <p>4.3. Sinbologia egokia duten marrazkiak eta eskemak interpretatzen ditu.</p> <p>4.4. Ordenagailua informazio teknikoa tratatzeko erabiltzen du.</p>
5. Eginkizunetan teknologia berriak sartzea, arazoak konpontzeko metodoak eta sistemak eguneratzeko eta gure gizartea nolakoa den hobeto jakiteko.	<p>5.1. Arkitektura fisikoaren elementuak, ordenagailuaren periferikoak eta horien funtzioak deskribatzen ditu.</p> <p>5.2. Ordenagailua prozesuak automatikoki kontrolatzeko erabiltzen du .</p> <p>5.3. Tokiko sarea, Internetarako konexioa, posta elektronikoko kontuak eta zerrendak, news-ak, foroak, txatak eta bideokonferentziak konfiguratzeko ditu.</p> <p>5.4. Sistema automatikoak kontrolatzeko aukera ematen duten programak metodikoki garatzen ditu.</p> <p>5.5. Telekomunikazioko sistema komun funtzionamendua azaltzen du, horien eraketa logikoa deskribatuz.</p> <p>5.6. Komunikazio baliabide telematikoa behar bezala erabiltzen ditu: e-posta, txata... Horretarako, sistemaren segurtasuna kontuan hartu behar du.</p>
6. Arazo tekniko bat konpontzeko pentsatutako konponbideak dokumentatzea, horren definizio zehatzetik abiatuta, bideragarria eta eraginkorra den jakiteko.	<p>6.1. Gai edo arazo tekniko baterako, benetakoa edo asmatua, eskura dituen ezagutza eta baliabideei egokitutako irtenbide asko pentsatzen ditu.</p> <p>6.2. Dokumentuen bidez konponbideen aldeko eta aurkako arrazoiak argudiatzen ditu, eta, horretarako, ahozko hizkuntza egokia erabiltzen du.</p>
7. Konponbiderik onena konfiguratzeko, hori ezartzeko.	<p>7.1. Konponbiderik onena hautatzen du taldean, eskura dauden ezagutzen eta baliabideen arabera.</p> <p>7.2. Baliabide informatikoen bidez, beharrezkoak diren dokumentuak taldean prestatzen ditu, behar bezala interpreta daitezzen.</p>
8. Lan prozesua taldean planifikatzea, erabili beharreko baliabideak aurreikusiz, arazo tekniko bat konpontzeko.	<p>8.1. Jarraitu beharreko prozesua antolatzen du, eta taldekideen artean egin beharreko lanak banatzen ditu.</p>



Kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
	<p>8.2. Erabili beharreko materialen, baliabideen eta lan tekniken oinarriko ezaugarriak deskribatzen ditu.</p> <p>8.3. Operadore egokiak hautatzen ditu.</p> <p>8.4. Erabili beharreko baliabideak zein diren aurretik jakiteko behar diren kalkuluak egiten ditu, neurriak eta ezaugarriak zehaztuz.</p> <p>8.5. Baliabideak eskuratzeko beharrezkoak diren kudeaketak egiten ditu.</p>
<p>9. Hainbat pertsonaz osatutako lan talde batean arduraz parte hartzea, konponbidea gauzatzeko, aurretiko diseinu batean oinarrituta, eta jarraitu beharreko faseak eta ordena bereiziz.</p>	<p>9.1. Taldean lan egiteak dituen zailtasunak gainditzen laguntza ematen du, ideiak emanez eta ahaleginak eginez eta gainerakoen iritziekiko eta sentimenduekiko jarrera tolerantia izanez.</p> <p>9.2. Egin beharreko eragiketa teknikoak egiten ditu onartzeko moduko akaberaz.</p> <p>9.3. Aurretik zehaztutako efektua lortzeko egokiak diren operadoreak konbinatzen ditu.</p> <p>9.4. Behar diren baliabideak ondo erabiltzen ditu, segurtasun eta ergonomia irizpide egokiak erabiliz.</p> <p>9.5. Ordenagailua lan tresna du.</p>
<p>10. Ezagutza teknikoan eta zientifikoan funtzionaltasuna metodikoki eta ordenatuta aplikatzea, diseinatutako konponbidea gauzatzeko.</p>	<p>10.1. Planteatutako arazoa aztertzeko eta konpontzeko lege edo arau egokiena hautatzen du.</p> <p>10.2. Teknologia arloan eta beste arlo batzuetan barneratutako jakinduria erabiltzen du.</p>
<p>11. Landutako konponbideak funtzionatzen duen eta aurkitutako edo planteatutako arazoa konpontzen duen egiaztatzea.</p>	<p>11.1. Magnitudeen neurriak zehatz eta segurtasunez hartzen ditu, kasu bakoitzerako egokienak diren tresnak eta laguntza elementuak erabiliz.</p> <p>11.2. Hartutako konponbideak funtzionatzen duen egiaztatzen du.</p>
<p>12. Elaborazio prozesuan, hasierako diseinuarekiko aldaerak dauden egiaztatzea, lortu nahi den emaitza erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.</p>	<p>12.1. Diseinuaren fasean aurreikusitako helburuak eta lortzen ari diren helburu partzialak alderatzen ditu.</p> <p>12.2. Taldean egiten ditu diseinu orijinalari buruzko zuzenketak, eta erroreak ikasteko erabiltzen ditu.</p>
<p>13. Egindako lana ebaluatzea, jarraitutako metodoa eta ondo eta gaizki egindakoa aztertuz; betiere, hobetzeko asmoz.</p>	<p>13.1. Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txosten bat egiten du, behar adina zaitan egituratuta.</p> <p>13.2. Egindako jardueretatik ateratako informazio esanguratsua formulatzen du.</p> <p>13.3. Geroko proposamenak hobetzeko erabil daitezkeen alderdiak identifikatzen ditu.</p> <p>13.4. Arazo teknologiko bat bere kabuz edo taldean konpontzeak eragiten duen poz sentimendua balioesten du, eta prozesuan sortutako zailtasunei aurre egiten die.</p>
<p>14. Objektuak eta sistemak ekoizteak eta erabiltzeak eta hondakin bihurtzeak ingurumenean eta gizakiarengan dituen ondorioak aztertzea.</p>	<p>14.1. Objektu edo sistema tekniko bat fabrikatzeak, erabiltzeak eta hondakin bihurtzeak ingurumenean eta pertsonen ongizatean dituen efektu onuragarriak eta kaltegarriak ebaluatzen ditu.</p> <p>14.2. Teknologia bizi kalitatean, lanaren bilakaera sozial eta teknikoan, osasunean eta aisialdiko eta denbora libreko jardueretan duen eragina aztertzen du.</p> <p>14.3. Jarduera teknologikoak ingurunean eragindako inpaktua onartzen du.</p> <p>14.4. Jarduera horren onurak eta ingurumenean eragiten dituen kostuak alderatzen ditu.</p> <p>14.5. Energia aurrezteko eta hondakinak tratatzeko beharra ebaluatzen du.</p> <p>14.6. Gaur egungo ingurumen baldintzetan garapen iraunkorak dituen aukerak eta horrek jarduera teknologikoan duen eragina aintzat hartzen ditu.</p>



IIIc ERANSKINA

**EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA**

**TEKNOLOGIA ARLOA**

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezzen, arloko konpetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina konpetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko konpetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko konpetentzia espezifikoa baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

<b>ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK</b>	1	2	3	4	5
1.- Baliabide teknologikoen bidez konpon daitezkeen arazoak aurkitzea eta argi eta zehatz definitzea, eta hainbat iturritan lortutako informazioa bilatzea eta aztertzea, arazoa konpontzeko aukera izateko.					
2.- Arazo edo gai tekniko bati erantzuten dioten konponbideak diseinatzea, lan talde baten barruan parte hartze aktiboa izanez, funtzionamendua imajinatuz, beharrezko baliabideak aurreikusiz eta metodikoki jokatzuz ezarritako irizpideen arabera konponbide egokiak hautatzeko.					
3.- Diseinua praktikara eramatea, gai edo arazo tekniko bat garatzeko edo arrakastaz konpontzeko, ezagutza zientifikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenatuta aplikatuz eta lan taldean eginkizunen banaketa onartuz.					
4.- Lortutako emaitza ebaluatzea, arazo teknologikoa konpondu den ala ez egiaztatzea, horren funtzionamendua eta lortu beharreko kalitatea eta baldintzak test baten bidez neurtuz. Horrez gain, egindako lan prozesua eta aukeratutako irtenbidearen ondorioak ebaluatzea.					
5.- Teknologia arloko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, horien funtzionamendua eta horiek erabiltzeko eta menderatzeko modurik onena zein den ulertzeko; eta horiek erabiltzeko eta fabrikatzeko arazoak eta hainbat eremutan aplika daitezkeen ezaugarriak zein diren.					



ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Teknologia arloan landu eta garatu daitezkeen arazo teknologikoak -benetakoak edo asmatuak- identifikatzea, arazoak konpontzeko.					
2.- Konpondu beharreko arazoaren berezko ezaugarriak ulertzea, taldean informazioa bilatzeko estrategia bat zehazteko.					
3.- Azterketa metodoa objektuetan eta sistemetan aplikatzea, teknologiarekin lotura duten arazoak konpontzean garrantzitsua den informazioa zein den jakiteko.					
4.- Informazio teknikoa eta prozedura eta sinbologia normalizatua interpretatzea, objektu edo sistema tekniko baten forma, funtzionamendua edo muntaia ulertzeko.					
5.- Eginkizunetan teknologia berriak sartzea, arazoak konpontzeko metodoak eta sistematik eguneratzeko eta gure gizartea nolakoa den hobeto jakiteko.					
6.- Arazo tekniko bat konpontzeko pentsatutako konponbideak dokumentatzea, horren definizio zehatzetik abiatuta, bideragarria eta eraginkorra den jakiteko.					
7.- Konponbideen artean onena konfiguratzeko, hori ezartzeko.					
8.- Lan prozesua taldean planifikatzea, erabili beharreko baliabideak aurreikusiz, arazo tekniko bat konpontzeko.					
9.- Hainbat pertsonaz osatutako lan talde batean arduraz parte hartzea, konponbidea gauzatzeko, aurretiko diseinu batean oinarrituta, eta jarraitu beharreko faseak eta ordena bereiziz.					
10.- Ezagutza teknikoen eta zientifikoen funtzionaltasuna metodikoki eta ordenatuta aplikatzea, diseinatutako konponbidea gauzatzeko.					
11.- Landutako konponbideak funtzionatzen duen eta aurkitutako edo planteatutako arazoa konpontzen duen egiaztatzea.					
12.- Elaborazio prozesuan, hasierako diseinuarekiko aldaerak dauden egiaztatzea, lortu nahi den emaitza erdiesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.					
13.- Egindako lana ebaluatzea, jarraitutako metodoa eta ondo eta gaizki egindakoa aztertuz; betiere, hobetzeko asmoz.					
14.- Objektuak eta sistemak ekoizteak eta erabiltzeak eta hondakin bihurtzeak ingurumenean eta gizakiarengan dituen ondorioak aztertzea.					
15.- Teknologia Arloaren balorazioa oro har					



**Teknologia arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinek**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 4.- MUSIKA ETA DANTZA

### 4.1.- SARRERA

Musika eta Dantza ikasarloaren bidez, hezkuntzaren zenbait xede lantzen dira: gizabanakoaren garapena, gizarteratzea eta izakidetasuna. Hori guztia kontuan izanik, dudarik gabe, musika eta dantza oinarrizkoak eta funtsezkoak dira eskoletan ditugun gazteek hezkuntzako oinarrizko konpetentziak lor ditzaten; hau da, **komunikatzeko, pentsatzeko eta ikasteko, egiteko eta ekiteko** gaitasuna izan dezaten eta, era berean, **norbera izanik, elkarrekin bizitzeko** gai izan daitezen.

***Komunikatzen ikasi.*** Gizakiok adierazteko eta komunikatzeko beharra dugu, eta behar hori zenbait lengoaiaren bidez asetzen dugu: hizkuntzaren, irudien, gorputzaren, dantzaren, musikaren eta abarren bidez. Hizkuntzaren bidezko komunikazioa tresna egokia da kontzeptuak, ideiak eta sentimenduak adierazteko, baina ez bakarra. Hizkuntzaren bidezko komunikaziora soilik mugatzen den hezkuntzak edota lengoaien arteko oreka zaintzen ez duenak hezkuntza ikuspegi mugatua izango du komunikazioaren garapenaren ikuspegitik. Musikak eta dantzak komunikazioaren ahalbideak areagotzen dituzte eta hizkuntzaren bidez esan eta adierazi ez daitezkeen emozioak azaltzeko bideak eskaintzen dituzte, pertsonaren osotasuna garatu ahal izateko. Musika eta dantzaren bidez, ideiez eta pentsamenduez gain, gaitasun berezia lantzen da, denok dugun eta denontzat ezinbesteko den barne mundu horretan (emozioak, sentimenduak, sentsazioak, oroitzapenak...) komunikatzeko.

***Pentsatzen eta ikasten ikasi.*** Musika barneratzen eta lantzen dugun neurrian, pentsamendua-  
ren ezaugarririk garrantzitsuenak garatzen ditugu: konparazioa, sailkapena eta analisia. Musikaren eraginari buruz egindako ikerketek erakusten dutenez, musika ikasteak arreta, memoria eta, oro har, adimenaren garapena, hizkuntz trebetasunak, matematikarako gaitasuna eta espazioa antolatzeko trebetasuna –adierazpen plastikorako beharrezkoa– eragiten ditu. Horrez gain, musika eta dantzaren bidez, arte guztietan gertatzen den bezala, aukera paregabeak eskaintzen dira sormena eta zentzu kritikoa jorratzeko, ezinbestekoak baitira. Bestalde, musika baliabide didaktiko eraginko-





rra da **ikasten ikasteko**. Hizkuntzak, historia, matematika, jolasak eta gainerako ikasarloak kantatuz ikasten badira, ikasten den hori askoz ere modu atseginoan ikasiko da, eta era iraunkorragoan gordeko da memorian. Ikasteko giroan ere eragin handia du musikak. Gela musika egokiz girotzen bada, lasaitasuna, poza eta ikasteko giroa eragiten dira. Gorputza eta keinuak ere laguntza handikoak dira ikasteko.

Dantza egiteak dantzariaren pentsamenduan eta ikasteko gaitasunean eragiten du. Buruak ikasten du dantzan, baina gorputzak ere bai, eta bien arteko koordinazio lanak elkarren ezagutza sendotzen laguntzen du. Dantza ikasteak erritmoa ezagutzen eta musikaren pertzepzioa antolatzen laguntzen du, eta horrek berak mugimendua bideratzeko argibideak ematen ditu. Dantzaren bidez, espazioaren, ingurunearen eta gorputzaren ezagutza zabaltzen da.

**Egiten eta ekiten ikasi.** Musika eta dantza eginez eta ekinez ikasten dira. Etengabeko ekintza da. Pentsatu, kritikatu, baloratu, erabakiak hartu, entzun, begiratu, ikusi, besteena baloratu, ikasi, sortu, antolatu. Musikaren eta dantzaren jarduerak aukera ezin hobeak eskaintzen ditu ekimenaren hezkuntza bideratzeko. Abestea, abesti bat entzutea, musika tresna bat jotzea, dantzatzea, ez dira ekintza pasiboak, ez dira imitazio hutsez egiten, interpretazioa eta sormena eskatzen dute. Imitatzen saiatzeak eta interpretatzeak berak birsortzea eta berregitea dakarte, ez baitago kopia hutserako aukerarik, bere dantza eta musika sortu behar ditu diharduenak.

**Norbera izaten ikasi.** Norberaren ezagutzarik gabe ez dago benetako adierazpenik, eta adierazpenak nork bere burua ezagutzera darama. Azken batean zer da, ba, norberaren burua ezagutzea? Emozioak, sentimenduak, nahiak, desirak eta abar ezagutzea; hau da, arestian aipatu bezala, barne bizitza, egunerokoan aurrera egiten mugitzen gaituena, musika eta dantzaren bidezko adierazpenean agerian geratzen direnak. Ezagunak dira musikaren eta gorputz adierazpenaren erabilpenaren onurak, baita prebentzio edo terapia moduan ere. Musikaren eta dantzaren bidez, barnean gordetzen diren sentimenduak eta emozioak adierazteko eta askatzeko bideak jartzen dira. Nork bere gorputzaren eta buruaren ezagutza eta onarpena lortzeko eta, era berean, autoestimua, nortasuna eta oreka garatzeko bideak jartzen dira. Sentiberatasun estetikoaren garapena eta edertasunaren gozamena ahalbidetzen dira.

Dantza egiteak nork bere burua eta gorputza ezagutzera behartzen du. Gorputza dugu dantzarako tresna, eta gorputzaren aukerak, gaitasunak, mugak eta ezintasunak nabarmentzen ditu dantza ahaleginak. Gorputzaren ezagutza formaletik, gorputz horren erabilera zehatz, koordinatu eta erritmikoetara pasatzea eskatzen du dantzak. Lurrarekin dugun harreman estuaz jabetzen gara dantzaren bidez, grabitatearen eta gure pisuaren arteko lotura hautsiezina azaleratzen digu dantzak. Bertikaltasunak eta horizontaltasunak guregan duten eragina eta gure gorputzaren orekaren kontrola hurbiletik hautematera behartzen gaitu dantzak.



**Elkarrekin bizitzen ikasi.** Hori guztia ez da deus ingurunerik gabe. Bakarrik gara, baina ez gara bakar gizarterik gabe, inguruko jenderik gabe. Musika eta dantza tresna edota baliabideak dira, bai bakarrik arituz adierazteko eta norberaren buruarekin komunikatzeko, bai talde komunikazio eta adierazpenerako. **Bakarrik** egin dezakegu musika edota dantza, baina gehienetan taldean, **elkarlanean, elkarrekin gozatuz, elkarrekin biziz** aritzen gara. Musika eta dantzaren bidez, elkarrekin abestuz, musika tresnak batera joz, elkarrekin dantzatzuz, gutasuna eta taldekidetasuna suspertzen dira. Bide ezin hobeak dira, pertsona berriak edota baztertuak taldean integratzeko. Bakarkako dantza jardueratik abiatuta, taldean aritzeko gaitasuna sustatzea lagungarri gertatzen da banakotasuna eta taldearen arteko harremanak, bateratasuna eta norberaren erritmorako aukerak eta talde lana eta koordinazio moduak ikasteko eta pentsatzeko.

Gizarte batean bizi gara, ezaugarri berezi batzuk dituen herri batean, herri orotan gertatu ohi den legez. Bestalde, musikak eta dantzak sozialki duten funtzioa ere ukazina dugu. Ikus-entzunezko baliabideen areagotzeari esker eta pedagogo, psikologo, soziologo eta abarrek musikaren eginkizunari buruz eginiko ikerketei esker, zabalkunde eta presentzia handiagoa lortu dute, eta horrek berekin ekarri du gizarteak musika hezkuntza beharrezkotzat jotzea. Garrantzi berezia eman nahi izan diegu Euskal Herriko, bertako, musika eta dantzei. Nahiz eta antzekotasunak ere izan, herri edota kultura bakoitzak adierazteko era desberdinak izan ditu. Horretan datza, azken batean, gizarte eta herri baten aberastasuna: kultura bakoitzak bere nortasuna izanik, oinarri horren gainean, bertan bizi den giza elkartearen bizitza eraikitzen, beste kulturetara irekita. Herri bakoitzaren **kulturaren adierazpide** nagusietarikoak –hizkuntzaz gain eta hori barne– **Musika** eta **Dantza** izan dira, eta hala dira gaur egun ere.

Argi dago bizitza honetan etengabeko kiribil batean sartuta gaudela; hau da, ez dagoela atal edota arloz arlo zatituta. Eskola, bizitzaren parte izanik, ezin da hortik kanpo gelditu. Beraz, eskoletako musika eta dantza irakasleok, errealitate hau une oro izan behar dugu gogoan: musika eta dantza konpetentzia horiek lortzeko baliabide direla eta gure ikasleok lortu beharreko konpetentzia horiek elkarri lotuta daudela; bata ezin dela gertatu bestea gabe.

Euskal Herrian bizi den edota bere burua euskalduntzat duen edonork zer gertaera eta kontzeptu ezagutu behar ditu gutxienez, unibertsitate aurreko hezkuntza formalaren bitartez, Euskal Herriko eta munduko musika eta dantzez? Zer prozedura egiten jakin behar du, zer trebetasun lortu eta zer balore eta jarrera bereganatu behar ditu gutxienez? Galdera horri erantzun edota irteera bat ematen saiatu gara jarraian aurkeztuko dizuegun konpetentzia, eduki eta ebaluaketa irizpideen diseinuaren bitartez.



## 4.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

### - Arloaren helburua

Musikaren eta dantzaren irakaskuntzak adierazpen eta komunikazio gaitasuna garatzea du helburu. Musika eta dantza kultur adierazpenak dira, eta adimen gaitasunak, trebetasun fisiko eta sensorialak, gizarte trebetasunak eta edertasuna begiesteko ohiturak garatzen dituzte. Azken alderdi hori beharrezkoa da pertsonaren garapen integrala lortzeko, eta, ingurune fisikotik eta horren gorpuztasunetik abiatuta, izatearen barne-barnean sartu eta gizabanakoa osatzen du, baina ez osagaiak batuz, baizik eta izaki bakar eta soziala osatuz, bere buruarekin eta ingurune sozial eta naturalarekin harmonian bizitzeko beharra baitu.

Musikaren eta dantzaren irakaskuntzak derrigorrezko irakaskuntzaren barnean duen helburu nagusia, ez da birtuosoak sortzea, ezta trebetasun tekniko eta mekanikoetako adituak ere, baizik eta, lehen aipaturiko adierazpen eta komunikazio trebetasunak garatzeaz gain, hezkuntza balio handiko kultur ondare bat sozializatzea. Kultur ondare horrek heziketa ahalmena eta garrantzi soziala izan arren, ongi pasatzeko arlotzat eta erabilgarritasun gutxiko produktutzat hartu izan da, nahastu egin baita irakaskuntza atsegina alferreko irakaskuntzarekin.

### - Konpetentzia orokorrak

Lortu nahi ditugun konpetentzia orokorren helburuak honako hauek dira:

#### **1.- Musika lanak aztertzea eta musika kodea deszifratzeko moduko ezagutza eta trebetasun musikaleko maila bat lortzea, musika nolabaiteko autonomiaz eta ziurtasunez irakurtzeko eta entzuteko.**

Konpetentzia orokor horrek barne hartzen ditu musika lan bat aztertzeko behar diren berariazko konpetentzia guztiak, erdi mailako entzule baten ikuspegia, musika lanak modu kritikoan entzun ohi dituen, abiapuntutzat hartuta. Entzute materialak kontuan izango ditu hainbat estilo eta garai barne hartzen dituzten kultura unibertsaleko lanak, gure inguruneko lanak ahaztu gabe (Euskal Herriko lanak). Batzuek zein besteek ezagutzak eman beharko dituzte, bai eta zentzu estetikoan hezi ere. Beraz, aurretik sarrera bat egin beharko da, lanaren alderdi musikala aurkezteko eta lana historian eta kulturen kokatzeko.

Konpetentzia horrek musika kodea oinarritzko mailan interpretatzeko behar dena hartzen du bere baitan. Horren bidez, ikaslea gai izango da bere gizarte inguruneko musika jardueretan parte hartzeko. Oinarritzko materiala osatzean, estudioen eta abestien aukeraketa egokia egingo da, musika idazkerako kodea ikasteko eta interpretatzeko. Abestiak aukeratzeko hiru jatorri izango dira kontuan: Euskal Herriko herri musikaren ondarea, gure inguruneko egile berriak eta beste kultura batzuk. Konpetentzia hori garatzeko, ikasleak motibatze prozedurak erabiliko dira, irakaskuntzan aurrera egin dezaten.



**2.- Musika hizkuntzaren bereizgarriari buruz hausnartzea, ezagutza hori gure ezaugarrien bitartez nola eskura dezakegun ikasteko eta horren bidez emozio estetikoak eta norberaren integrazioa lortzeko.**

Musika jarduerak (entzutea eta interpretatzea) sentsazioak baino zerbait gehiago eman behar digu. Dimentsio estetikoak eduki dezan saiatu behar dugun; hau da, zentzumenetik igaroko da hasieran, sentimenduak mobilizatuz eta, ondoren, geure buruari eta inguruneari buruzko hausnarketa eragingo du. Pertzepzio estetikoak giza sentikortasuna eta pertzepzioa aldatzen ditu eta, hori dela eta, erabilgarria da hezkuntzarako. Erabiliko den materialak musika elementu aberatsak izan behar ditu, melodiari, tinbreari eta harmoniari dagokienez. Material hori musika klasikoan aurkituko dugun; izan ere, musika klasikoak abiapuntu izan behar du beste konposizio estilo batera, beste musika ikuskera batera eta musika tresnen beste erabilera batera heltzeko. Musika klasikotik abiatuta, pixkanaka-pixkanaka musika garaikidean sartuko gara, aurreko garaietako musikan eta zenbait estilotako musikan (adibidez, jazz, blues, rythm'n blues, rock and roll, sustrai musika, pop...). Euskal Herriko musika ere programan egongo da. Kasu horretan, eta musika unibertsalekoan ere bai, material hautaketa balio musikaleko arauen arabera egingo da, bietan kalitate handiko adibideak baitaude.

**3.- Dantzan egin eta dantzak ikusten eta egiten gozatu, musika eta gorputz adierazpena uztartuz; hau da, gorputzaren mugimendua, espazioa eta denbora artikulatuz, norberaren nortasuna eta taldekidetasuna garatzeko.**

Dantzak, gorputza lantzea eta osasungarri erabili beharra ekartzeaz gain, malgutasuna, oreka, erritmoa eta koordinazioa lantzea ere badakar; hori guztia adierazpen gaitasunarekin lotuta dago, eta gorputza eta gogoaren arteko harmonia eta sintonia bultzatzen ditu. Gorputzaren aukerak eta mugak ezagutzeko bidea eskaintzen du dantzak, eta tresna aparta da gizabanakoaren nortasuna banakotasunean nahiz taldean agertzeko eta sendotzeko. Psikomotrizitatea, lateralitatea eta oroimena lantzeko bidea eskainiko digu dantzak. Dantzarako gaitasuna garatzeak jendaurreko agerpenetan geure burua kontrolatzen eta oroimena eta adierazpena egoki erabiltzen lagunduko digu. Dantza gozamina da, askeago, osoago eta beteago egiten baikaitu.

**4.- Dantzaren, ahotsaren eta musika tresnen bitartez komunikatzen ikastea, adierazpen baliabide bakoitzaren arauen arabera, sormenezko pentsaera garatzeko –prozesu kognitiboaren eragilea–, eta komunikazio konpetentziak eskuratzeko –kultur ñabardura asko dituzte eta gizarte trebetasunak garatzeko suspergarri dira–.**

Sormenezko pentsaerak prozesu kognitiboak eragiten ditu, eta horren eta gizabanako bakoitzaren bereizgarrien bitartez, musika hizkuntza erabil dezakegu musika lanak sortzeko. Sormen proze-



sua izateko, aurretik informazioa metatu, ondoren hausnartu eta gero erabili egin behar da, eta erabilpen hori ikasleak dituen baliabide musikal eta pertsonalek baldintzatuko dute. Balioespen prozesua egiteko, zenbait alderdi hartuko dira kontuan; adibidez, musika elementuen erabilera, sortutako lanaren barne koherentzia eta horren balio komunikatiboa.

Euskal Herriko kulturaren ezaugarrietako bat musikak eta dantzak gure gizartean izandako garrantzia izan da. Herri kanteak eta dantzek betidanik transmititu dituzte emozioak, sentimenduak eta gertakari pertsonalak eta sozialak. Hori dela eta, gure asmoa da kantak –alderdi bokal eta instrumentalean– eta dantzak ikaskuntzaren funtsezko atalak izaten jarraitzea. Abestia kantatzeko, musika konposiziotik abiatuta egingo da, musika arau egokiak betez eta lan horren mezua errespetatuz. Teknika bokala edo instrumentala oinarrikoa izango da konpetentzia hori garatzeko, horren erabilpen egokiak arazo muskularrak saihestu, ikaskuntza bokal eta instrumentala erraztu eta soinuaren edertasuna lortzeko aukera ematen baitu. Beste komunikazio era baten oinarria norberaren sormen lana izango da. Euskal dantzaren tradizio aberatsa ezagutzeak aukera emango du gorputz, musika eta dantza hezkuntza eta ezagutza sistema lantzeko; gainera, tradizio horrek eta molde akademiko beste dantza tradizio batzuek –dantza klasikoak barne– zenbait eduki berdinak dituzte.

**5.- Musikaren eta dantzaren lanketak harmonia eta gozamen estetikoa eragiten dituela ulertzea (emozio sortzailea eta norbera hazteko lagungarria da, eta gizartean integratzeko balioak ditu), gizaki garen aldetik prestatzeko eta, hori eginez gero, gizartearen aurrerapenari eta ingurumenaren hobekuntzari laguntzeko.**

Euskal gizartearen ezaugarrietako bat herritarrek musika eta dantza elkarrekin parte hartzeko agertu duen beharra eta interesa izan da. Musikaren eta dantzaren irakaskuntzan ohitura horri eustea interesatzen zaigu; izan ere, jarduera horrek iraganarekiko edo orainarekiko loturari eustea gain, zenbait musika konpetentzia garatu eta, horri esker, norbera hazteko beste konpetentzia batzuk ere garatzen ditu. Talde lana eginez gero, gure musika trebetasunak entzun eta sustatu behar ditugu, melodiarekin harmonizatzeke, tinbre egokia sortzeko, erritmo zehatz bati jarraitzeko eta emankizunaren bizitasuna kontrolatzeko. Dantza ikaskuntza taldean lantzeko, talde horretan integratzeko gaitasuna behar da, eta gizabanakoak bere interpretazioa eta espazioaren erabilpena gainerako taldekideekin koordinatu behar ditu, bere izaera eta estiloa galdu gabe.

Halaber, talde lana egiteko, partaidetza koordinatua eta isiltasuna behar dira. Taldekako musika lanaren bidez, besteen lana errespetatzea eta taldekideen izaeretara egokitzea sustatzen da. Izan ere, norberaren ezaugarrietatik abiatuta, portaera solidario eta gogoetatsuak erakutsi behar dira, taldeak aurrera egin dezan, dela berariazko konpetentziari dagokionez (kantuetan, musika tresnen interpretazioan eta dantzan parte hartzea), dela konpetentzia orokorrean (elkarrekin bizitzen ikastea).

Konpetentzia horren helburua musikaz gozatzea da. Musika eta Dantza artearen osagaiak dira, eta artea kulturaren osagaia da. Ikasleak horiekin gozatzen saiatzera bultzatzen ditugunean, nork



bere burua garatzeko eta musikari eta dantzari buruzko gizarte adierazpenetan parte hartzeko aukera ematen diegu. Musikarekin gozatuz gero, errazago erakarriko dugu pertsona musikara, eta horretan parte hartuko du sortzaile gisa –era askotako musika taldetan parte hartuz edo etxean musika jarduerarekin gozatuz– edo musika entzule gisa. Gainera, plazer estetikoaren bila aritzen garenean, motibazioa pizten zaigu, gure gizarteak isiltasunari eta soinuari buruz aztertu behar dituen hobekuntzetan parte hartze aktiboa izateko. Gure sentikortasun musikala handituz gero, kritikagoak izango gara mezu musikarekin, gehiago gozatuko dugu era guztietako musikekin, kalitateko musika jarduera gehiago eskatuko ditugu, gizartean parte hartzeko joera handiagoa izango dugu eta gizartean soinuarekin lotuta dauden arazoetarako hobekuntzak bultzatuko ditugu –adibidez, kutsadura akustikorako hobekuntzak–.

#### **6.- Entzuten, ikusten edota interpretatzen dugun edozein musika eta dantza adierazpen hobeto ulertzeko, historian zehar ematen eta eman diren musikaren eta dantzaren inguruko gertakari eta autoreei buruzko informazioa, modu kritiko eta aktibo batez, erabili.**

Hainbat urte eta gizaldiren buruan hainbat gertakari izan dira, eta dira, musika eta dantza munduan. Era berean, gertakari horietan hainbat musikaririk eta dantzaririk hartu izan du parte, eta gaur egun ere parte hartzen ari da, bai Euskal Herrian, bai mundu osoan. Horrek guztiak, dudarik gabe, eragin handia izan du, eta du, gure errealitatean. Beraz, edozein musika eta dantza adierazpen aditzen, ikusten edota interpretatzen ari garelarik, ezinbestekoa dugu ezagutza horiek barneratzea ulermen errealagoa izateko edota interpretatzen duguna zinezkotasun handiagoz interpretatzeko.

#### **4.3.- IRAKASKUNTZA EDUKIAK**

Bakoitzak bere prozedura bereziak ditu musika eta dantza ikasteko; hala ere, ikaslaro batean uztartu ditugu. Antzinatik, musika eta dantza biak uztartuta agertzen zaizkigu gizarte ekintzetan: erlijio erritoetan, ospakizun, jai, guda, kirol, jolas eta abarretan. Musika eta dantza adierazpen kulturalak dira, eta ezagutzen diren gizarte guztietan egon dira, eta daude. Gizakiaren bizitzan betetzen dituzten funtzioek justifikatzen dute bi arlo horiek derrigorrezko hezkuntzan egotea. Gizakia sekula ez da bizi izan musikaririk eta dantzaririk gabe; egia esan, ezta artearen inolako adierazpenik gabe ere, artea bera barne-barnean daramagunaren adierazpidea da.

Euskal gizartearen tradizioan, musika eta dantza garrantzi handiko giza eta kultur erreferente izan dira; hori dela eta, gaur egungo euskal gizarteak hori kontuan hartu eta balio horiek berreskuratzen saiatu behar du. Horretarako, gizartekide berriek, musikaren kultura jasotzeaz gain, alfabe-



tatze musikala eta dantzaren oinarriak landu behar dituzte, kulturaren nortasun ezaugarriak berreskuratzeko, gaur egungo gizarte eta kultur beharretara egokitzeko eta aukera eta kultur eskaintza aberatsagoko etorkizuna prestatzeko.

Materia horren berezitasuna bost gai multzotan banatzen da: musika hizkuntza, kantua, instrumentua, entzunaldia eta dantza. Horiek guztiak modu orekatuan landu behar dira beti, eta derrigorrezko irakaskuntza bukatzean, ikasleek musika ezagutza eta esperientzia nahikoa izan behar dute, gure azken helburua bete ahal izateko.

### **1.- Musika hizkuntza**

Eduki hauek ditu: musika kodea irakurri eta deszifratu, musika kontzeptuen teoria edo ulermena, musika konposizioa edo sormena eta musika idazkera, kode egokia erabiliz. Eduki horiek guztiak transmititzeko, zenbait prozedura erabiliko dira konpetentzia hauek sustatzeko: idatzizko musika materiala ulertzea, sormena lantzea eta idatzizko musika lanak egitea. Horien oinarriak ikasteko erantzukizuna izatea eta ikaskuntzaz gozatzea dira.

### **2.- Kantua**

Ahotsaren adierazpena garatzearekin loturiko edukiak dira; ahotsaren alderdirik aberatsena eta konplexuena garatzearekin, hain zuzen ere: kantuarekin. Hori lantzeko prozedurek ahotsaren tratamendua, entzumenaren garapena eta errepertorio bat ikastea hartuko dituzte barne. Gainera, errespetu eta lankidetzaz jarrerak izango dira horien oinarriak, lankidetzaz ohiturak, nor bere burua hobetzeko nahia eta musikaren ezagutza eta lanketa sakona garatzeko.

### **3.- Entzunaldia**

Musikaren alderdi estetiko, komunikatibo eta sozialarekin loturiko edukiak dira. Atal honen corpusa honako hauek osatzen dute: konposizio formek, soinu iturriek eta musikaren historiak. Erabiltzen diren prozeduren helburua musika literaturaz gozatzea eta hori ulertzea da; hau da, gaitasun kritikoa garatzea eta musika kultura (ondare unibertsala) ezagutzea, gizartean integratzen laguntzeko.

### **4.- Instrumentua**

Ezagutzak eskuratzearekin eta oinarritzko trebetasunak garatzearekin loturiko edukiak dira, musika tresna musika ezagutzeko, musikan sakontzeko eta musikaz gozatzeko bidea izan dadin. Gainera, musika tresnaren bidez, berariazko konpetentzia instrumentalak eta zentzu estetikoa garatu eta norbera eta taldea hobetzeko balioak sendotuko ditugu, norberaren harmonia bilatzeko, taldean integratzeko eta ingurunea errespetatzeko.

### **5.- Dantza**

Dantzarako gaitasuna garatzeko aukera ematen diguten edukiak dira; hau da, gorputza erritmo baten arabera mugitzeko, gorputz enbor eta adarrek ematen dizkiguten aukerak lantzeko, espazioa



erabiltzeko eta taldea koordinatzeko edukiak. Gaitasun horiek garatzeko eta horietaz gozatzeko, zenbait pauso eta dantza ezagutu behar dira.

#### 4.3.1.- Jarrerazko edukiak

- 1.- Ikasteko interesa erakustea, garapen pertsonaleko bide eta aukera guztiak erabiliz.
- 2.- Ikaskuntzan aurrera egiteko autonomia izatea eta norberaren gaitasunaren garapena lortzea.
- 3.- Norabide okerreko egoerak zuzen bideratzeko jarrera izatea.
- 4.- Gatazkak konpontzeko eta eguneroko lana egiteko sormena izatea.
- 5.- Egoera gatazkatsuetan emozioak kontrolatzea, arrazoibidea bulkadaren aurretik jartzeko.
- 6.- Nork bere gaitasunak ezagutzea eta onartzea, jarrera kritikoa eta hobetzekoa izanik.
- 7.- Beste pertsonen gaitasunak errespetatzea, baita horien adierazpenak ere, jarrera kritikoa izanik.
- 8.- Solidaritatea eta lankidetzak erakustea talde lanetan, harmonian egin daitezkeen saiatuz.
- 9.- Norberaren kulturaren parte hartze aktiboa izatea, beste kulturei kalterik egin gabe.
- 10.- Musika eta dantza bereizi gabe erabiltzeko buruzko jarrera kritikoa izatea.
- 11.- Sortzen dugun kutsadura akustikoa kontuan hartzea eta irtenbideak ematen saiatzeko jarrera arduratsua izatea.
- 12.- Norberaren kultura eta kultur aniztasuna balioestea.
- 13.- Izan daitezkeen kultur, gizarte, hizkuntza... diskriminazioez jabetzea eta jarrera kritikoa izatea.

#### 4.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

##### 1. MUSIKA HIZKUNTZA

###### Kontzeptuzko edukiak

###### 1.- Musika irakurketa

- Musika zeinu eta kontzeptuak: Pentagrama; notak, lerro gehigarriak; giltza; nota irudiak eta isiluneak (biribila, zuria, beltza, kortxea, kortxeaaerdia); soinu luzapeneko zeinuak (ligatura, kalderoia, puntua); konpasa (bitarra, hirutarra, lautarra, zortzikoa, ezpata dantza); konpasaren antolamendua (banalerroa, amaiera, errepikatzeak); izaeraren eta adierazpenaren aldaketa zeinuak (staccatoa, adagioa, andantea, crescendoa, decrescendoa); airea (largoa, adagioa, andantea, allegroa, presto...); abiadura kontzeptuak eta ñabardurak (a tempoa, kontradenbora, acelerandoa, retardandoa); musika zeinu ez-kontrentzionalak.
- Soinu sarearen antolamendua: eskala (tonalitatea, modua, gradua, aldakaria); bitartea; akordea.
- Soinuaren ezaugarriak: produkzioa (bibrazioa, hedapena, abiadura); soinuaren parametroak (altuera, balioa, intentsitatea, tinbrea).

###### 2.- Sormena

- Sortzeko bideak: ahoz; mugituz (soinu oinarri batekin); idatziz (grafia kontrentzionala eta ez-kontrentzionala); grabatuz.
- Sortzeko erak: sekuentziak (irakaslea, klusterra, irakaslea, klusterra...); galdera-erantzuna; konpasak kateatzea; musika esaldia; musika testua.
- Sortze motak: erritmoari loturiko sormena; pasarte melodikoak; kontakizunei soinua jartzea; erritmo akonpainamendua; bigarren ahotsa; kontraktantua; pedal nota; ostinato erritmikoa edo melodikoa.

###### Prozedurazko edukiak

1. Musika mezua ulertzeko jarraibideak, prozesuaren hiru faseetan: irakurketaren aurretik, irakurketan zehar eta irakurketaren ondoren.
2. Musika sortzeko jarraibideak, prozesuaren funtsezko uneak kontuan hartuz: sortu aurretik, sortu bitartean eta sortu ondoren.





## 1. MUSIKA HIZKUNTZA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>3.- Musika idazkera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Alderdi kognitiboak: musika idazkeraren jatorria; notak (burua, plika, kortxetea); grafia ez-konbentzionaleko zeinuak; partitura baten antolamendu formala; musika grafiaren ulermena.</li> <li>- Idatzizko ariketa motak: erritmozko diktaketa; musika irakurketa ezagunari buruzko melodia eta erritmozko diktaketa; sormen lana agertzea; kopia; aurretik azaldutako kontzeptuak argitzera datorren ariketa bat egitea.</li> </ul>	<p>3. Musika idazkera garatzeko jarraibideak, horren hiru uneak kontuan hartuz.</p>

## 2.- KANTUA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1.- Ahotsa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arnasketa: arnas aparatua; oxigenazioa; arnas edukiera; presioa; kontrola; erritmo erregularra.</li> <li>- Emisioa: gorputz oreka; fonazioa;</li> </ul>	<p>1. Soinua sortzeari buruzko orientabideak, arnasketarekin eta emisioarekin loturiko teknika kontuan hartuz.</p>
<p><b>2.- Abestia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Teknika: bokalizazioa; erresonadoreak; soinu emisioaren kontrola; malgutasuna eta arintasuna; artikulazioa; erregistroa.</li> <li>- Abestu aurretiko ezaugarriak: arreta; kontzentrazioa; musika isilunea; musika isiluneari buruzko kontzeptua.</li> <li>- Abestearen ezaugarriak: afinazioa (melodiaren doitasuna); erritmo zehatza; ahotsaren kolokazioa; intentsitate kontrolatua emisioan; ahoskera; fraseatzea; espresioa.</li> </ul>	<p>2. Abestia ikasteko jarraibideak, bai ahotsaren lanketarekin loturiko alderdiak, bai ahotsaren musika eta literatur ezaugarriak kontuan hartuz.</p>
<p><b>3.- Abesteko erak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Doinu berean: a capella; musika akonpainamenduarekin (gorputz erritmoa, instrumentu erritmoa, instrumentu harmonikoa).</li> <li>- Polifonia: kanona; ahots ostinatoarekin; bi ahotsekin (a capella, gorputz erritmoko, instrumentu erritmoko eta instrumentu harmonikoko akonpainamendua).</li> </ul>	<p>3. Abesteko erak interpretatzeko jarraibideak: doinu berean eta polifonia.</p>
<p><b>4.- Abestiaren ezaugarriak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika alderdiak: erregistro tonalari egokitutako melodia; bitarteen arteko lotura egokiak; ikaslearen gaitasunari moldatutako zailtasuna; idazkera tonala edo modala (bata zein bestea); erritmo iradokitzailea eta aberatsa; konpasa (2/4, 3/4, 4/4, 6/8, 9/8, zortzikoa, ezpata dantza); tonalitate aldaera, konposizioa antzinako moduetan; ñabardurak (staccatoa, legatoa, crescendoa, decrescendoa); intentsitate ñabardurak (fortea, mezzo-forte, piano...); aire (largoa, adagioa, andantea, moderatoa, allegroa...); abiadura ñabardurak (acelerandoa, retardandoa); erritmo ñabardurak (a tempoa, kontradenbora, sinkopa...).</li> <li>- Testuarekin loturiko alderdiak: jatorriko hizkuntzako testua; zailtasun fonetikoak; testua ulertzea; mezua adinari egokitzea.</li> <li>- Testuari dagokion abesti mota: jolastekoa, jaietakoa, epitalamikoa, elegiazkoa, lanekoa, bakotarra, narratiboa, gestakoa, sehaskakoa, amodiozkoa...</li> </ul>	<p>4. Ahots interpretaziorako jarraibideak, abestiaren musika, literatur eta estilo alderdiak kontuan hartuz.</p>

## 3.- ENTZUNALDIA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1.- Kontzeptu orokorrak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzun aurretiko kontuak: lanaren izaera unibertsala, kulturala eta soziala; lanaren fitxa teknikoari buruzko datuak (egilea, urtea, lanaren titulua, mugimenduak, konposizioaren ezaugarriak, parte hartzen duten instrumentuak); lanaren fitxa kulturalari buruzko datuak (garaiaren ezaugarriak, egilearen une historikoa eta artistikoa, lanak Musikari ekarritakoa...); Musikak beste arte batzuekin duen lotura.</li> <li>- Musika lana: estetika alderdia (musika mezuaren oreka, musika baliabideen aberastasuna, arte lanaren barne harmonia); komunikazio alderdia (iritzi bat, mezu bat, elkarrizketa bat adierazteko musika); gizarte alderdia (musika</li> </ul>	<p>1. Musika entzunaldia ulertzeko eta horretaz gozatzeko jarraibideak, entzunaldiaren hiru faseak betez: aurretiko fasea, entzute fasea eta entzun ondorengo fasea.</p>



### 3.- ENTZUNALDIA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p>garai baten erreferente gisa, gizarte talde baten adierazpen gisa, kontsumo produktu gisa).</p>	
<p><b>2.- Konposizio erak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Instrumentala: imitazioa, kanona, fuga, obertura, preludioa; bariazioa, ostinatoa, txakona, kalejira; dantza (giga, zarabanda courantea, txakona passepieda, minueta, bourréea, gabota, pabana, musettea, polonesa, baltsea, mazurka, tarantela, arin-arina, fandangoa, ezpata dantza, jota, aurrekua, ingurutxoak, makil dantza, mutil dantza...); suitea; kontzertua (concerto grossoa, bakarlari batentzako, kontzertu bikoitza...); kadentzia, duoa, trio, kuartetoa...; sonata; sinfonia; poema sinfonikoa; baleta.</li> <li>- Bokal eta instrumentala: opera, zarzuela, maskarada, pastoralak, paradesak charivariqueak/tobera mustrak.</li> <li>- Bokala: herri kantak, jatorriko kantak, gregorianoa, motetea, madrigala, korala, poema korala, kantata, meza (Magnificat, Stabat Mater...).</li> </ul>	<p>2. Musika entzunaldian bete beharreko jarraibideak ezagutzak aplikatzeko.</p>
<p><b>3.- Soinu iturri instrumentala</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika klasikoan erabilitako banaketa, instrumentuetan oinarrituta: hari instrumentuak, haize instrumentuak, perkusioa.</li> <li>- Soinuaren araberako banaketa: kordofonoak (puntoa, perkusioa, marruskadura, sinpatiazko bibrazioa); aerofonoak (zuzenekoa, tutu batekoa, bi tutukoa, ahokoa, tutuak); membranofonoak (kolpekatuak, marruskadurazkoak, putz egitekoak); electrofonoak (instrumentu mekanikoak tradizionalak elektrikoki anplifikatuak, instrumentu berriak).</li> </ul>	<p>3. Entzunaldian sortzen diren soinuaren iturriak bereizteko eta sailkatzeko jarraibideak.</p>
<p><b>4.- Musika garaiak eta kulturak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Garaiak: Erdi Aroa, Errenazimentua, Barrokoa, Klasizismoa, Erromantizismoa, Nazionalismoa, Inpresionismoa, XX. mendea, gaur egun.</li> <li>- Kulturak: antzinako musika, musika klasikoa, jazz, bluesa, rock and rolla, popa, musika etnikoa...</li> </ul>	<p>4. Musika dagokion garaian eta generoan kokatzeko eta ulertzeko jarraibideak.</p>

### 4.- INSTRUMENTUA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1.- Instrumentu motak (*)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputza: ahotsa (kantua, ahots ariketa teknikoak...); gorputz enborra eta adarrak (marruskatzea, kolpatzea, talka egitea...).</li> <li>- Perkusioa: xafla kolpekatuak (xilofonoa, metalofonoa); mintza (danborra, dunbala, kaxa...); zura (txalaparta, klabeak, kriskitinak, kaxa txinatarrak...); metala (tobera, gonga, triangelua, kanpaia...); beste batzuk (marakak, kanabera...).</li> <li>- Haizea (**): txirula (sopranoa, kontraltoak); txistua, txirula...</li> </ul>	<p>1. Ikaskuntza instrumentalean kontuan izan beharreko jarraibideak: praktika aurretiko fasean, praktika fasean eta interpretazioaren ondorengo fasean.</p> <p>(*)1. Ikaskuntza instrumentala dela kontuan hartuz, gutxienez baldintzak beteko baditu, talde txikitik landu beharko da; hau da, hamahiru/hamabost ikasleko taldeetan, gutxi gorabehera. Kontuan izan behar dugu jarduera horretan ikasle guztiek parte hartzen dutela, eskolaz kanpoko jardueretan egiten den hautaketa egin gabe. Jarduera instrumentala ez du proiektu hutsa izan behar, baizik eta benetako musika jarduera bat, musikaz gozatzeko eta musika ikasteko.</p> <p>2. Beste instrumentu batzuekin lan egiteko aukera ere badago; adibidez, teklatuekin eta gitarrarekin. Baina, oraingoz, instrumentu horien ikaskuntza orokorra ezin da sartu eskolako programan.</p> <p>(**)Instrumentu horietako batek gutxienez egon behar du musika programan.</p>



#### 4.- INSTRUMENTUA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>2.- Instrumentuaren alderdi teknikoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hauek ezagutzea eta aztertzea: musika instrumentua eta soinudun objektua; gorputz jarrera (oreka, muskulu tonua); arnasketaren eragina instrumentuak jotzean.</li> <li>- Soinudun gorputza: soinudun gorputzaren aukerak; soinudun gorputza eta musika instrumentua; instrumentuaren ezaugarriak; soinudun gorputz baten ezaugarri tinbrikoak behatzea; soinudun gorputzen sailkapena; musika instrumentuen sailkapena.</li> </ul>	<p>2. Instrumentuak sortzeari buruzko jarraibideak, instrumentu ezagunen erabilpenaz eta azterketaz lortutako ezagutzak aplikatuz.</p>
<p><b>3.- Instrumentua: adierazpen bidea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Musika testu motak: ariketa teknikoak; estudioak akonpainamendurekin edo akonpainamendurik gabe; lanak, kantak, pasarteak.</li> <li>- Musika testuen ezaugarriak: edukia eta forma helburuari egokitzea; eduki estetikoak eta teknikoak dakarren musika aberastasuna; zailtasunen sekuentziazio egokia; informazio orekatua; musika idazkerarekiko barne koherentzia.</li> <li>- Interpretatzeko moduak: prestatutako irakurketa; bat-bateko irakurketa edo repentizazioa; oroimen irakurketa (irakurketaren bidez ikasia, belarriz ikasia); inprobisazioa.</li> </ul>	<p>3. Interpretazio instrumentalari buruzko jarraibideak, musika lanaren berariazko alderdi teknikoak eta interpretazio alderdiak kontuan hartuz.</p>
<p><b>4.- Musika interpretazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzeptu orokorrak: interpretazioaren alderdi estetikoak (soinuaren edertasuna, soinuaren oreka, koherentzia eta ordena); interpretazioaren alderdi komunikatiboa (ideien eta bizipenen transmisioa, kulturaren transmisioa); interpretazioaren alderdi soziala (talde bateko izatearen erlazioa, proiektu baten bidezko batasun lotura, errespetu eta lankidetzatza balioak).</li> <li>- Interpretazioaren aurretiko jokabideak: instrumentua zaintzea; gorputzaren jarrera; arnasketaren kontrola eta erritmoa; zailtasun teknikoak ezagutzea.</li> <li>- Partituraren musika ezaugarriak: mailari egokitutako zailtasunak; konposizio argia eta orekatua; idazkera zuzena; edertasuna eta musikarekiko interesa eragiten duten elementuak.</li> </ul>	<p>4. Interpretazio instrumentalari buruzko jarraibideak, musika lanaren berariazko alderdi teknikoak eta interpretazio alderdiak kontuan hartuz.</p>

#### 5.- DANTZA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dantzaren osagaiak: musika, mugimendua, adierazpena.</li> <li>- Dantzarako baliabideak: gorputza, espazioa eta denbora, eta hiruren arteko artikulazioa.</li> <li>- Euskal Herriko dantza ludikoak: erromeria eta jaietan nork bere gozamenerako egiten dituenak.</li> <li>- Euskal Herriko dantza formalak: talde itxi batek, aldeztu aurretik prestatuta, eskaintzen dituen dantza egituratuak.</li> <li>- Nazioarteko dantza ludikoak: dantza eginez gozatzeko eta dantzakideekin erlazionatzeko bidea eskaintzen duten dantza irekiak.</li> <li>- Dantza estiloak: klasikoa, modernoa, garaikidea, tradizionala, areto dantzak...</li> <li>- Dantza ikuskizunak: nazioarteko balet ezagunak, euskal taldeen lanak.</li> </ul>	<p>1. Dantzaren oinarriko osagaiak ezagutzeko eta gorputzaren mugimendua espazioan eta denboran adierazkortasunez artikulatzeko jarraibideak.</p> <p>2. Euskal Herriko eta nazioarteko dantza ludiko eta formal hautatuak ikasteko urratsak.</p>



## ERANSKINA

# Kanten, egileen eta musika generoen hautaketa orientagarria, bai eta Euskal Herriko eta munduko dantza eta pertsonaia esanguratsuenak ere.

### A.- MUSIKA

#### 1.- Euskal Herriko kantak

Zerrenda honen eskema denboran oinarrituta dago. Aipatzen diren lanak dagozkien mendeetan kokatu nahi izan dira. Batzuk apokrifoak izan daitezke eta beste batzuek, berriz, denboraren poderioz ahozko transmisioak eragindako aldaketak izan dituzte, eta sortu zirenetik idatzi ez direlako. Dena dela, horien musika balioa ukaezina da, eta aipatzea merezi izateaz gain, balio historiko erantsia dute.

**Erdi Aroa:** *Altabizkarko kantua*: kanta epikoa (Karlomagoren porrota); *Beotibarko kantua*: kanta epikoa (gipuzkoarren eta nafarren arteko gudua, 1321ean); *Alostorra*: elegia kanta; *Urtsuak zazpi leiho*: elegia kanta; *Berterretchen khandoria*: kanta epikoa (agramondarrak beaumontarren aurka).

**Errenazimentua:** *Jeiki jeiki*: marinel kanta; *Txeru kartzelan dago*: narrazio generoa; *Ozaze jaurgainia*: kanta epitalamikoa; *Goizian goizik*: elegia kanta; *Zazpi aihera baditut*: maitasun kanta; *Txori kantatzailea*: kanta epikoa (Hanibalen kanta).

**Barrokoa:** *Jaun Barua*: maitasun kanta; *Urzo luma*: maitasun kanta; *Txorinua kaiolan*: narrazio kanta; *Salbatore*: narrazio kanta; *Adios ene maitea*: maitasun kanta; *Aitarik ez dut*: maitasun kanta; *Mendian zoinen eder*: narrazio kanta.

#### 2.- Euskal kantutegia

1824. urtean sortu zen lehen euskal kantutegia eta, bertan, paper lerrodunean idatzitako herri musika jasotzen da. Ondoren, kantutegi asko egin ziren –kontsulta egiteko gomendagarriak—. Hona hemen oinarritzko zerrenda bat (zerrenda osatzeko, musika koraleko lanak egin dituzten hainbat egile aipa daitezke; esate baterako, T. Garbizu, J.A. Donostia, Lesbordes, J. Bello-Portu, Madina, L. Uruñuela, J. Urteaga, Olaizola, bai eta Euskal Musikaren artxiboetan kontsulta daitezkeen beste hainbat egile ere).

J.I. Iztueta: *Gipuzkoako dantzak*; J. D. J. Salaberry: *Chants populaires du Pays Basque*; J. Manterola: *Cancionero vasco*; J. Vinson: *Folklore du Pays Basque*; Ch. Bordes: *Dix cantiques populaires basques*; Ch. Bordes: *Douze chansons amoureuses du Pays Basque- Français*; Ch. Bordes: *Uskal noelen Lilia*; B. Ercilla: *Colección de cantos vizcaínos*; R. M. Azkue: *Cancionero popular vasco*; J.A. Donostia: *Euskal eres sorta*; J.A. Donostia: *Cancionero vasco*; R. Gallop: *25 chansons populaires d'Eskual-Herria*; P. Etxemendi eta P. Lafitte: *Kantuz*; M. Lecuona: *Cantares populares*; J. Riezu: *Flor de canciones populares vascas*; J.I. Ansorena: *Euskal kantak*.

#### 3.- Egileak

Zerrenda honetan aipatzen diren konpositoreen lanak nahitaez entzun behar dira, heziketa beharretara egokitutako programa aberatsa osatu nahi bada. Egile bakoitzaren lan hautaketa programazioaren arabera egingo da, kontuan hartu behar baitugu irizpide desberdinekin lan egin daitekeela. Garaika aipatzen dira, nomenklatura bera erabiltzen duten beste arte batzuekin errazago lotu ahal izateko.

**Erdi Aroa:** kantu gregorianoa; Teobaldo I, Li roi de Navarre; Alfonso X. *Jakituna*; *Libre Vermelli de Montserrat*; Ph. De Vitry; Leonin; Perotin; Binchois...

**Errenazimentua:** Joannes Antxieta, J. del Enzina, T. L. de Victoria, F. Guerrero, A. De Cabezón, G. Dufay, C. Jannequin, P. de Larue, Cl. Monteverdi, O. de Lasso, P.G. da Palestrina, L. Marenzio, A. Gabrielli, A. Willaert, J. Arcadelt, J. Dowland, Th. Weelkes, Th. Morley...

**Barrokoa:** G. Sanz, A. Soler, J. B. Lully, J. Ph. Rameau, F. Couperin, C. Monteverdi, A. Scarlatti, A. Vivaldi, G.B. Pergolesi, J.S. Bach, G. Ph. Telemann, H. Schütz, H. Purcell, G.F. Händel...

**Klasizismoa:** Joan Krisostomo Arriaga, Xavier Maria Munibe, C. Ph. E. Bach, J. Ch. Bach, J. Haydn, W. A. Mozart, L. Cherubini, L. V. Beethoven...

**Erromantizismoa:** F. Chopin, F. Liszt, R. Schumann, F. Schubert, F. Mendelssohn, J. Brahms, H. Berlioz, H. Wolf...

**Nazionalismoa:** Pablo Sarasate, Jesus Guridi, Pablo Sorozabal, O. Esplá, P. Casals, F. Pedrell, I. Albéniz, E. Granados, M. De Falla, J. Turina, M. Glinka, N. Rimski-Korsakov, M. Mussorgski, A. Borodin, P. Txaiikovski, B. Smetana, A. Dvorák, L. Janáček, E. Grieg, J. Sibelius, Béla Bartók, Z. Kodály, G. Gershwin, MacDowell, F. Delius, E. Elgar, C. Franck, A. Bruckner, G. Mahler...

**Inpresionismoa:** Maurice Ravel, C. Debussy, G. Fauré, E. Satie, P. Dukas...

**XX. mendeko beste zenbait egile:** Antonio Remacha, Francisco Escudero, Luis de Pablo, Carmelo Bernaola, J. Rodrigo, F. Mompou, X. Montsalvage, T. Marco, C. Halffter, J. Hidalgo, I. Stravinski, D. Shostakovich, S. Prokófiev, A. Schönberg, A. Webern, A. Berg, P. Hindemith, C. Orff, B. Britten, H. Villa-Lobos, F. Poulenc, A. Honneger, D. Milhaud, E. Varese, A. Copland, Ch. Ives, K. Stockhausen, J. Cage, R. Schaeffer, O. Messiaen, P. Boulez, I. Xenakis, G. Ligeti, W. Lutoslawski, K. Penderecki...

#### 4.- Zenbait genero

**Opera:** R. Wagner, Ch. Gounod, J. Massenet, C. Rossini, G. Verdi, R. Leoncavallo, P. Mascagni, G. Puccini...

**Zarzuela:** Gaztanbide, Arrieta, Fernández Caballero, Chapí, Bretón, Chueca, Sorozabal, Usandizaga, Guridi, Guerrero, Vives, Luna, Moreno Torroba...

**Jazza:** Louis Armstrong, Duke Ellington, Fletcher Henderson, Billie Holiday, Stephane Grappelli, Stanley Getz, Woodrow Herman, Oscar Peterson, Errol Garner, Miles Davis...

**Ragtimea:** Tom Turpin, Scott Joplin...

**Bluesa:** Leroy Carr, Sonny Boy Williamson, Johnny Winter, Gabriel Brown...

**Rocka:** Jimi Hendrix, Rolling Stones, Elvis Presley, Little Richard...

**Reggae:** Bob Marley...

**Soula:** Stevie Wonder, Marvin Gaye, Joe Cocker, Solomon Burke...

**Popa:** The Beatles, Bob Dylan, Eric Clapton...

**Countrya:** Jimmie Rodgers, Willie Nelson, The Carter Family, Hank Thompson...

**Be-bopa:** Les Young, Charlie Christian, Charlie Parker...

#### 5.- Herri musika

**Alboka:** Leon Bilbao, Silvestre Elezkano "Txilibrin", Ibon Koteron, Juan Mari Beltran...

**Dultzaina:** Juan Aiesta, Juan Bilbao, Patxi Bilbao...

**Txistua:** Mauricio Elizalde, Isidro Ansorena, Jose Ignacio Ansorena...

**Xirula:** Copain Mauletarra, Agerret, P. Etxahun-Iruri, P. A. Garat, J. M. Bedaxagar...



**Txanbela:** Pierre Caubet...

**Tobera:** Bautista Legasa, Martín Zubieta, Dionisio Mujika...

**Txalaparta:** Artze anaiak, Ramón Goikoetxea, Jon Urbieta...

**Trikitrixa:** Antonio Aranaga, Miguel Arregi...

## B.- DANTZA

### 1.- Dantza ludikoak eta irekiak

Olgetarako, dibertsio hutserako egiten diren dantzak. Ez dago mugarik dantzari kopuruari dagokionez, dantzari bakoitzak bere nortasuna agertzeko aukera du eta, batez ere, dantzari bakoitzari dantza eginez gozatzeko aukera ematen diote. Tokian tokiko tradizioetatik kanpo egiten direnean ez dago janzkera jakinik erabili beharrik, eta genero bereizketarik gabe egin ohi dira dantzok, neska-mutilak berdintasunean. Errepertorio hori ezagutzeak Euskal Herriko edozein txokotan egin-dako dantzaaldietan parte hartuz eta dantza eginez gozatzeko eta gizarteratzeko aukera emango dio ikasleari.

**Erromeria:** kalejira, fandangoa, arin-arina, baltsea, korridoa.

**Jauziak:**

- Urratsak: erdizka, erdizka lauetan, jautzi/zote, dobla, pika, ebats, ezker, eskuin, eta hiru, aitzina.

- Jauziak: Zazpi jautzi, Hegi, Ostalersak, Azkaindarrak, Mutxikoak, Aitzina pika,...

**Baztango mutil dantzak:**

- Urratsak: ertzizka, hiru urrats, ezker batekin, eskuin batekin, aitzina pasat, gibelerat pasa, ezker hiruekin,...

- Mutil dantzak: Hiru puntukoa, Billantziko, Billantziko txiki, Billantziko zaharra, Zahar dantza, Mando zaharrarena,...

- Lantzeko zortzikoa, Baztango zortzikoa, Jaurrietako neska dantza, Jean Petit qui danse.

**Jolas dantzak:**

- Zapatain dantza, txakolina, bizar dantza, txulalai, olagueko esku dantza, Jean Petit qui danse, mahai gainekoa, azeri dantza, almute dantza.

- Baztango irri dantzak: Saskito dantza, Esku dantza, Bizkar dantza, Isats dantza, Katadera dantza, Eskalapoin dantza, Paxa dantza, Zartain dantza, Zurrume dantza, Ipurdi dantza,...

**Nafarroa Behereko martxak, bolant dantza, kontra dantzak, polka-pika, dantza luzea.**

### 2.- Dantza formalak eta itxiak

Tokian tokiko ospakizunetan eta dantza taldeen emanaldietan egin ohi diren dantzak dira horiek. Aldez aurreko ikasketa prozesuaz gain, taldekako prestaketa saioak behar dira dantza horiek egiteko. Gehienetan, talde itxietan egin ohi dira; dantzari kopuru zehatzek osatutako taldeak izaten dira. Askotan, genero bereizketa argiarekin ageri zaizkigu tradizioan. Jantzi eta tresna bereziak erabiltzen dira ia denetan, eta horietako batzuetarako gorputzaren oinarriko prestaketa behar da.

Euskal Herri osoan barrena dauden hainbat dantza tradizionalen artean hautatuko sorta bat ageri da ondorengo lerroetan. Erabilitako tresna eta ezaugarri koreografikoen arabera, zenbait multzotan antolatu dira dantzak. Sail nagusiak baino ez dira jaso sailkapen honetan. Atal horien funtsa ulertzeaz gain, multzo horietako bakoitzean bere eskualdetik hurbilen duen dantza ezagutu beharko luke ikasleak.

**Soka dantzak:** Lekeitioko soka dantza, Durangaldeko erregelak, Zuberoako branlea, Gipuzkoako soka dantza, Doneztebeko trapatana, Altsasuko zortzikoa, Busturialdeko soka dantza, Gasteizko zortzikoa...

**Ingurutxoak:** Leitzako ingurutxoak, Lizarrako larrain dantza, Bedaioko ingurutxoak, Arizkongo gaita, Izabako ttun-ttuna, Auritzeko ingurutxoak...

**Makila dantzak:** Villabuenakoak, Oñatiko Korpus dantzetakoa, Lizartzako inauteri dantzetakoa, Abaltzisketako txantxoena, Antzuolako trokeo dantzakoa, Gipuzkoako brokel dantzakoa, Lapurdiko kaskarotena, Otsagabiako dantzak, Pipaonekoak, Corteskoak...

**Brokel dantza eta ezpata dantzak:** Durangaldeko dantzari dantza, Gipuzkoako brokel dantza, Antzuolako trokeo dantza, Lizartzako dantzak, Berastegiko San Juan dantzak, Iruñeko San Lorentzoko dantzak, Tuterako "danza de espadas"...

**Ezpata dantzak** (ezpata luzeak, alagaiak, etab.): Xemeingo ezpata dantza, Legazpiko ezpata dantza, Zumarragako ezpata dantza, Gipuzkoako ezpata dantza, Tolosako bordon dantza, Lesakako makil gurutzea, Debako San Roke dantza, Lakuntzako ezpata dantza, Berako bordon dantza...

**Zinta dantzak:** Guardiakoak, Corteskoa, Eltziegoko El Arbol, Gipuzkoako zinta dantza, Antzuolako, lurretako gorularien domingillue...

**Arku dantzak:** Lanestosako "las varas", Oñatiko Korpuseko arku dantza, lurretako gorulariena, Gipuzkoako uztai handiarena eta uztai txikiarena...

**Jorrai dantzak edo zahagi dantzak:** Ondarruko salíña-salíña, Debako jorrai dantza, Doneztebeko zagi dantza, Goizuetako zagi dantza, Markinako saragi dantza, Gipuzkoako jorrai dantza, Segurako jorrai dantza...

### 3.- Dantzak egutegian

Dantza tradizionalak jai egutegian antolatuta ageri zaizkigu. Kristau erlijioaren egutegi liturgikoa ezagutzen gero, hobeto uler daiteke Euskal Herriko jaien egutegia eta, horren ondorioz, dantzen antolaketa ere bai. Egutegiaren oinarriko antolaketa gain, dantzei dagokienez, eragin handiena duten lau ospakizun multzo hauek eta horiekin lotutako dantzak ezagutu behar dira.

- **Inauteriak:** Zuberoako maskaradak, Lapurdiko kaskarotak, Altsasuko zortzikoa, Lizartzako inauteri dantzak, Abaltzisketako txantxoak, Antzuolako sorgin dantza, Lantz, Markinako saragi dantza, Donostiako Inude eta Artzaikak...

- **Gorputzi eguna:** Oñatiko Korpus dantzak, Kuartangoko Hiruko Sainduaren dantza, Zangotzako Gorputzi dantzak, Besta Berri Heletan eta Lekomen...

- **San Joan:** soka dantzak Gipuzkoan, Tuterako Dancea, Biasteriko dantzak, Urdaingo kanta dantza, Tolosako bordon dantza, Andoingo eta Hernaniko Axeri dantza...

- **Tokian tokiko sainduen eta Ama birjinen jaiak eta horien omenezko dantzak:** San Pedro (Sorgin dantza Lasarte-Orian, dantzari dantza Berrizen, Kaixarranka eta eguzki dantza Lekeition...), Santa Isabel (Eltziegoko dantzak, ezpata dantza Zumarragan...), Santa Ana (Tuterako jota, dantzari dantza eta erre-gelak Garain, santaneroen esku dantza Ordizian...), Santiago (erregelak Foruan, soka dantza Azpeitian...)

### 4.- Dantzaren inguruko Euskal Herriko pertsonaia adierazgarriak

Juan Inazio Iztueta, Faustin Bentaberri, Jose Lorenzo Pujana, Aita Donostia, R. M. Azkue, Alejandro Aldekoa, Segundo Olaeta, Gaizka Barandiaran, Juan Antonio Urbeltz, Iñaki Irigoyen, Lucia Lakarra, Igor Yebra, Urtzi Aramburu...

### 5.- Nazioartean:

- **Nazioarteko dantza ludiko eta irekiak:** Gay Gordon Progressive, Circassian Circle, Scottish, Courante, Irsaelgo dantza, Rock-and-roll, Mazurka.

- **Balet klasiko garrantzitsuak:** La Sylphide, Giselle, Intxaur hauskailua, Loti ederra, Zisneen lakua.

- **Nazioarteko dantzako izen handiak:** Marius Petipa, Anna Pavlova, Michel Fokine, Rudolf Nureyev, Mikhail Baryshnikov, Isadora Duncan, Martha Graham, Merce Cunningham, William Forsythe, Jiri Kylian, Pina Bausch.



#### 4.4.- ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Kompetentzia espezifikokoak	Kompetentzia orokorrak						Eduki multzoak					Garrantzia (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	
1.- Musika lana entzutean, soinudun mezuaren funtsezko ideiak identifikatu, entzunaldiaren aurretik aditutako jarraibideak aplikatzen saiatuz.		X				X			X			1
2.- Konposizioaren estiloa eta garaia hauteman, harmonia estiloari eta instrumentuen erabilerrari erreparatuz.		X				X			X			2
3.- Soinu iturria identifikatu, era askotakoa eta konplexua izan daitekeela kontuan hartuz, eta mailari egokitutako soinu mapa bat egin.	X	X							X			1
4.- Musika konposizioa jarrera kritikoz entzun, eta horren forma eta edukia aztertu.	X	X				X			X			1
5.- Musika lanaren zentzua interpretatu, eta horren alderdi estetikoari eta interpretazio ezaugarriei buruzko iritzia eman.	X	X				X		X	X	X		1
6.- Musika gozatzeko eta sentsibiltate estetikoa garatzeko erabili, musikaren kultur balioa kontuan hartuz.		X		X			X	X	X	X		1
7.- Egileari, lanari eta estiloari dagozkion musikaren historiako garai bakoitzaren funtsezko erreferenteak ezagutu, entzunaldien eta ariketa bokalen eta instrumentalen bidez.						X		X	X	X		1
8.- Musika hizkuntzaren oinarriko ezaugarriak ezagutu eta horren aplikazioa kantuan eta lan instrumentaletan.	X				X		X	X		X		1
9.- Mailari egokitutako partiturak era autonomoan irakurri, eta ahotsaren eta instrumentu baten bidez interpretatu.	X				X		X					1
10.- Musika ideiak agertzeko -norberak sortutakoak nahiz beste egile batzuenak- beharrezkoak diren musika hizkuntzako ezaugarriak erabili.				X			X					1
11.- Musika irakurketa musika ezagutzeko eta jakituria handitzeko erabili, bai nork bere burua garatzeko, bai talde lan interesgarri eta aberatsa egiteko.	X			X			X	X		X		1
12.- Musika partitura arintasunez eta bizitasunez deszifratu, partitura bakoitza pieza estetiko interesgarria dela eta musika mezu bat duela erakutsiz.	X			X			X	X		X		1
13.- Ikasleak duen musika ezagutzaren mailari egokitutako musika lan koherenteak eta aberatsak interpretatu.				X			X					2
14.- Partitura bat interpretatu oinarri estetikoari jarraituz eta teknika egokia erabiliz.				X	X		X	X		X		1
15.- Kanta baten estiloa eta izaera hauteman eta interpretatu, entzuleak musika bizipena bereganatzen dezan.				X	X			X		X		1
16.- Ahotsaren edo instrumentuen bidez interpretatu behar den lan baten garapen dinamikoa planifikatu, zer ñabardura erabiliko diren erabakiz, gustu eta koherentzia musikalaren arabera.	X			X	X		X	X		X		1
17.- Musika lanari buruzko iritzia arrazoitu, ideiak alderatuz eta ideiek dakarten aurrerabideari erreparatzen saiatuz.	X	X			X	X	X	X	X	X		1
18.- Kanta bat bakarka eta taldean interpretatu, modalitate bakoitzak behar dituen interpretazio ezaugarrietara moldatuz.				X	X			X		X		1
19.- Kantua edo taldeko lan instrumentala norberaren gozamenerako eta bizikidetzara balioak sustatzeko erabili.				X	X		X	X		X		1
20.- Era askotako interpretazio materiala aukeratu, gehiegizko espezializazioa baztertu, beste kultur errealitate batzuk ezagutzeko.		X			X	X		X		X		2

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



Kompetentzia espezifikoak	Kompetentzia orokorrak						Eduki multzoak					Garrantzia (1-2-3)
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	
21.- Musika jardueren arteko itxaronaldietan isilik egon, musika lantzeko behar den kontzentrazioarako itxaronaldiak beharrezkoak baitira.	X	X		X			X	X	X	X		1
22.- Dantzaren osagaiak (musika, mugimendua eta adierazpena) ezagutu eta komunikazioarako erabili.		X	X	X	X						X	1
23.- Dantzarako behar diren baliabideak (gorputza, espazioa eta denbora) eta horien artikulazioarako mekanismoak ezagutu.			X	X	X						X	1
24.- Euskal Herriko dantza ludikoak ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.			X	X	X	X					X	1
25.- Euskal Herriko dantza formalen artean dauden mota nagusiak eta horien hurbileko adibideak ezagutu.			X	X	X	X					X	1
26.- Nazioarteko dantza ludiko batzuk ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.			X	X	X	X					X	1
27.- Dantza estilo desberdinak (klasikoa, modernoa, garaikidea, tradizionala, areto dantzak...) identifikatu eta dituzten ezaugarriak ezagutu.						X					X	2
28.- Dantza ikuskizunak: nazioarteko balet ezagun batzuk eta euskal taldeen zenbait lan garrantzitsu ezagutu.						X					X	2

#### 4.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1.- Musika lana entzutean, soinudun mezuaren funtsezko ideiak identifikatu, entzunaldiaren aurretik aditutako jarraibideak aplikatzen saiatuz.	<ol style="list-style-type: none"> <li>Entzunaldian, entzuteko jarrera erakusten du.</li> <li>Lanaren aurkezpenean parte hartzen du, galdera egokiak eginez.</li> <li>Lana entzun ondoren, funtsezko pasarteak hautematen eta gogoratzen ditu.</li> <li>Lanaren eskema egiten du, ikasi dituen baliabide grafikoak erabiliz.</li> </ol>
2.- Konposizioaren estiloa eta garaia hauteman, harmonia estiloari eta instrumentuen erabilerari erreparatuz.	<ol style="list-style-type: none"> <li>Entzundakoa azalduko jarraibideekin, garaiko ezaugarriekin eta lanaren estiloarekin lotzen ditu.</li> <li>Aurretiko ezagutzak eta entzundako materialaren alderdiak lotzen ditu.</li> <li>Lanaren ideia musikalak identifikatu, adierazi eta azaltzen ditu.</li> <li>Egitura harmonikoaren instrumentuak bereizten ditu.</li> </ol>
3.- Soinu iturria identifikatu, era askotakoa eta konplexua izan daitekeela kontuan hartuz, eta mailari egokitutako soinu mapa bat egin.	<ol style="list-style-type: none"> <li>Instrumentu multzoak bereizten ditu.</li> <li>Instrumentu multzoetako instrumentuak bereizten ditu.</li> <li>Musika lanaren mapa egiten du, entzundako ezaugarri tinbrikoei erreparatuz.</li> <li>Instrumentuak modu koherentean sailkatzen ditu.</li> </ol>
4.- Musika konposizioa jarrera kritikoz entzun, eta horren forma eta edukia aztertu.	<ol style="list-style-type: none"> <li>Musika lanaren antolamendua aztertzen du.</li> <li>Lana entzun aurretiko ezagutzak egoki aplikatzen ditu.</li> <li>Bere iritzia ematen du, musika irizpideetan oinarritutako arrazoi koherenteak emanez.</li> <li>Lanaren konposizioari oinarritzko elementuak ondorioztatzen ditu, eta defendatu egiten ditu entzunaldiaren osteko elkarrizketan.</li> </ol>
5.- Musika lanaren zentzua interpretatu, eta horren alderdi estetikoari eta interpretazio ezaugarri buruzko iritzia eman.	<ol style="list-style-type: none"> <li>Funtsezko musika lerroak identifikatzen ditu.</li> <li>Oinarritzko ideiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.</li> <li>Ahoz ematen du iritzia, eta arrazoi argiak ematen ditu.</li> <li>Lanaren interpretazioaren kalitateaz konturatzeko da, eta sonoritate eroak ez du desbideratzen.</li> </ol>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
6.- Musika gozatzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko erabili, musikaren kultur balioa kontuan hartuz.	<p>6.1. Eskola jardueretan integratzen du musika, aurkezpenak aberasteko balio duelako eta erakusketetan kultur ekarpena delako.</p> <p>6.2. Lan berriak aurkezteko saioetan, jakin-mina eta atsegina erakusten ditu.</p> <p>6.3. Gizartean izaten diren musika gertakariei buruzko iritziak ematen ditu, musikan oinarritutako arrazoiak emanez.</p> <p>6.4. Musika materiala unean uneko beharren arabera aukeratzen du.</p>
7.- Egileari, lanari eta estiloari dagozkion musikaren historiako garai bakoitzaren funtsezko erreferenteak ezagutu, entzunaldien eta ariketa bokalen eta instrumentalen bidez.	<p>7.1. Garai edo estilo jakin bateko lanen ezaugarri komunak identifikatzen ditu.</p> <p>7.2. Badaki lana zer garaitakoa den.</p> <p>7.3. Lan baten interpretazio estiloa aukeratzen du, lanaren ezaugarriei erreparatuz.</p> <p>7.4. Lana ulertzeko lagungarriak diren informazio iturriak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.</p>
8.- Musika hizkuntzaren oinarriko ezaugarriak ezagutu eta horren aplikazioa kantuan eta lan instrumentaletan.	<p>8.1. Musika lanaren erritmo elementuak identifikatzen ditu.</p> <p>8.2. Garapen melodikoaz jabetzen da, bitarteak kontuan hartuz.</p> <p>8.3. Tempoari eta musika lanean ezarritako ñabardurei eusten die.</p> <p>8.4. Ezarritako konpasaren arabera egituratzen du musika lana, azentuazio egokia erabiliz.</p>
9.- Mailari egokitutako partiturak era autonomoan irakurri, eta ahotsaren eta instrumentu baten bidez interpretatu.	<p>9.1. Partituraren antolamendua aztertzen du, eta lanaren ezaugarriei erreparatzen die.</p> <p>9.2. Bitarte zailak aurretik entseatzeko, aurreko eta ondorengo pasarteekin duten lotura kontuan hartuz.</p> <p>9.3. Musika lana eratzen duten figura erritmikoen neurria ziurtatzen du.</p> <p>9.4. Irakurketa antolatzen du, geldiunerik egon ez dadin.</p>
10.- Musika ideiak agertzeko -norberak sortutakoak nahiz beste egile batzuenak- beharrezkoak diren musika hizkuntzako ezaguerak erabili.	<p>10.1. Idatzi behar duen konposizioaren erritmoa grafikoki adierazten du.</p> <p>10.2. Partitura modu egokian antolatzen du.</p> <p>10.3. Melodia egoki agertzen du.</p> <p>10.4. Partitura aurkeztean, noten zuzentasun grafikoa zaintzen du.</p>
11.- Musika irakurketa musika ezagutzeko eta jakituria handitzeko erabili, bai nork bere burua garatzeko, bai talde lan interesgarri eta aberatsa egiteko.	<p>11.1. Ezagutzak irakurketan integratzen ditu.</p> <p>11.2. Irakurketa egin aurretik, prestaketa bereziko pasarteak identifikatzen ditu.</p> <p>11.3. Musika irakurketaren bidez ezagutzak bereganatzen ditu, eta beste lan batzuen irakurketan aplikatzen ditu.</p> <p>11.4. Talde irakurketetan, bizikidetzara arauak betetzen ditu.</p>
12.- Musika partitura arintasunez eta bizitasunez deszifratu, partitura bakoitza pieza estetiko interesgarria dela eta musika mezu bat duela erakutsiz.	<p>12.1. Buruz prestatzen du interpretatu behar duen lana.</p> <p>12.2. Kontuan hartzeko moduko ezaugarri bereziak dituzten pasarteak hautematen ditu.</p> <p>12.3. Musika lanaren garapena antolatzen du.</p> <p>12.4. Musika lana arintasunez interpretatzen du, melodiaren dinamika eta transmititu beharreko mezua errespetatuz.</p>
13.- Ikasleak duen musika ezagutzaren mailari egokitutako musika lan koherenteak eta aberatsak interpretatu.	<p>13.1. Sormen lanetan, musika hizkuntzaren elementuak egoki erabiltzen ditu.</p> <p>13.2. Ideiak musika koherentziarekin aurkezten ditu.</p> <p>13.3. Ideiak garapen plan baten arabera lotzen ditu.</p> <p>13.4. Beharrezkoak ez diren errepikapenak, kopiaturiko ideiak eta plagioak hautematen ditu.</p>
14.- Partitura bat interpretatu oinarri estetiko jarraituz eta teknika egokia erabiliz.	<p>14.1. Teknika bokal edo instrumental zuzena erabiltzen du.</p> <p>14.2. Musika lana unitate gisa interpretatzen du, ibilbide melodiko eta/edo erritmiko zehatz batez.</p> <p>14.3. Interpretazioa hasieratik bukaerara antolatzen du, partituraren aurreko eta osteko konpasak kontuan hartuz.</p> <p>14.4. Musika lana arintasunez eta interesez transmititzen du.</p>





Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
15.- Kanta baten estiloa eta izaera hauteman eta interpretatu, entzuleak musika bizipena beregana dezan.	15.1. Interpretatu behar duen lan mota bereizten du. 15.2. Musika lana antolatzen du, horren estiloaren arabeko interpretazioa planifikatuz. 15.3. Badaki zein den lanaren edukia, eta alderdi teknikoak eta adierazgarriak bereizten ditu. 15.4. Ñabardura adierazgarriak gehitzen dizkio lanari, partituran ezarritakoen osagarri.
16.- Ahotsaren edo instrumentuen bidez interpretatu behar den lan baten garapen dinamikoa planifikatu, zer ñabardura erabiliko diren erabakiz, gustu eta koherentzia musikalaren arabera.	16.1. Interpretatu behar duen lana unitate adierazgarri gisa egituratzen du. 16.2. Estetika irizpideak erabiltzen ditu, melodian, erritmoan eta letran (hala dagokionean) oinarrituta. 16.3. Musika lanaren fraseatzeak kontuan hartzen ditu. 16.4. Kantatu edo interpretatu behar duen lanak mezu bat -soinu kateatze hutsa baino gehiago- transmititzen duela konturatzen da.
17.- Musika lanari buruzko iritzia arrazoitu, ideiak egiaztatuz eta ideiek dakarten aurrerabideari erreparatzen saiatuz.	17.1. Musika lanaren balioaz jabetzen da, lanaren zailtasun teknikoak edozein dela ere. 17.2. Musika lanaren funtsezko alderdiei erreparatzen die, topikoak alde batera utzita. 17.3. Besteen argudioak entzuten ditu, eta bere argudioekin alderatzen ditu, koherentziari eutsiz. 17.4. Elkarguneak daudenean, azaldu edo azpimarratu egiten ditu.
18.- Kanta bat bakarka eta taldean interpretatu, modalitate bakoitzak behar dituen interpretazio ezaugarrietara moldatuz.	18.1. Taldekideekin elkarlanean aritzen da, ikaskuntza erritmoa gaitasunarekin bat etor dadin. 18.2. Inguruko soinuak arretaz entzuten ditu, eta enpatea lortzen saiatzen da. 18.3. Interpretatzen duenean, teknika bokal edo instrumental egokia erabiltzen du. 18.4. Batutari arretaz begiratzen dio, aginduak egoki betetzeko.
19.- Kantua edo taldeko lan instrumentala norberaren gozamenerako eta bizikidetzara balioak sustatzeko erabili.	19.1. Musika jardueran agertzen diren gaitasunak errespetatzen ditu. 19.2. Taldekideekin lankidetzan aritzen da, aurrera egin eta lana hobetzen jarrai dezaten. 19.3. Taldekideei diskrezioz laguntzen die eta ekarpen solidarioak egiten ditu. 19.4. Taldean harmoniaz egiten du lan, eta edertasuna eta lan giro atsegina sortzen ahalegintzen da.
20.- Era askotako interpretazio materiala aukeratu, gehiegizko espezializazioa baztertuz, beste kultur errealitate batzuk ezagutzeko.	20.1. Beste kultura batzuetako musika agerpenei buruzko galderak egiten ditu, eta horiek ikasteko edo entzuteko eskatzen du. 20.2. Inguruko musika agerpenei erreparatzen die, horietaz hitz egin, eta entzuteko edo ikasteko materiala ekartzen du ikasgelara. 20.3. Norberaren kulturakoak ez diren materialak interpretatzeko eta entzuteko pozik agertzen da. 20.4. Norberaren hizkuntzakoak ez diren abestiak interpretatzeko ilusioa izaten du, nahiz eta horretarako kontzentrazio ahalegin handia egin behar duen.
21.- Musika jardueren arteko itxaronaldietan isilik egon, musika lantzeko behar den kontzentrazioarako itxaronaldiak beharrezkoak baitira.	21.1. Isiltasuna eskatzen du jarduerak prestatzeko. 21.2. Entzunaldiak edo besteen interpretazioak isilik entzuten ditu. 21.3. Kantuan edo musika interpretazioetan, beharrezkoak ez diren zaratak saihesten ditu. 21.4. Musika lan batean parte hartu behar duen unea iritsi arte, isilik itxaroten du.
22.- Dantzaren osagaiak (musika, mugimendua eta adierazpena) ezagutu eta komunikaziorako erabili.	22.1. Musika, mugimendua eta adierazpena ongi lotzen ditu. 22.2. Mugimenduaren aukerak ezagutzen ditu. 22.3. Adierazkortasunez egiten du dantza.
23.- Dantzarako behar diren baliabideak (gorputza, espazioa eta denbora) eta horien artikulaziorako mekanismoak ezagutu.	23.1. Bere gorputzaren aukera eta mugak ezagutzen ditu. 23.2. Espazioan mugitzeko eta espazioaren antolaketaarako gaitasuna du. 23.3. Mugimendua denboran egoki koordinatzen du.



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
24.- Euskal Herriko dantza ludikoak ezagutu eta norbere gozamenerako baliatzeko gai izan.	24.1. Oinarrizko euskal dantza ludikoak ezagutzen ditu. 24.2. Euskal dantza ludikoak dantzatzuz komunikatzeko, goatzeko eta erlazionatzeko gai da.
25.- Euskal Herriko dantza formalen artean dauden mota nagusiak eta horien hurbileko adibideak ezagutu.	25.1. Dantza mota nagusiak bereizten ditu. 25.2. Euskal Herriko hainbat dantza formalen adibideak ezagutzen ditu.
26.- Nazioarteko dantza ludiko batzuk ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.	26.1. Oinarrizko nazioarteko dantza ludikoak ezagutzen ditu. 26.2. Nazioarteko dantza ludikoak dantzatzuz komunikatzeko, goatzeko eta erlazionatzeko gai da.
27.- Dantza estilo desberdinak (klasikoa, modernoa, garaikidea, tradizionala, areto dantzak...) identifikatu eta dituzten ezaugarriak ezagutu.	27.1. Dantza estilo desberdinak bereizten ditu. 27.2. Dantza estilo nagusien ezaugarriak ezagutzen ditu.
28.- Dantza ikuskizunak: nazioarteko balet ezagun batzuk eta euskal taldeen zenbait lan garrantzitsu ezagutu.	28.1. Nazioarteko balet garrantzitsuak ezagutzen ditu. 28.2. Euskal taldeen lan garrantzitsuak ezagutzen ditu.



III d ERANSKINA

**EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA**

**MUSIKA ETA DANTZA ARLOA**

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko konpetentzia orokorretara eta espezifikoei mugatzen da balorazioa, baina konpetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko konpetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko konpetentzia espezifikoei baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

**ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK**

	1	2	3	4	5
1.- Musika lanak aztertzea eta musika kodea deszifratzeko moduko ezagutza eta trebetasun musikaleko maila bat lortzea, musika nolabaiteko autonomiaz eta ziurtasunez irakurtzeko eta entzuteko.					
2.- Musika hizkuntzaren bereizgarri buruz hausnartzea, ezagutza hori gure ezaugarrien bitartez nola eskura dezakegun ikasteko eta horren bidez emozio estetikoak eta norberaren integrazioa lortzeko.					
3.- Dantzan egin eta dantzak ikusten eta egiten gozatu, musika eta gorputz adierazpena uztartuz; hau da, gorputzaren mugimendua, espazioa eta denbora artikulatuz, norberaren nortasuna eta taldekidetasuna garatzeko.					
4.- Dantzaren, ahotsaren eta musika tresnen bitartez komunikatzen ikastea, adierazpen baliabide bakoitzaren arauen arabera, sormenezko pentsaera garatzeko -prozesu kognitiboen eragilea-, eta komunikazio konpetentziak eskuratzeko -kultur fiabardura asko dituzte eta gizarte trebetasunak garatzeko suspergarri dira-.					
5.- Musikaren eta dantzaren lanketak harmonia eta gozamen estetikoak eragiten dituela ulertzea (emozio sortzailea eta norbera hazteko lagungarria da, eta gizartean integrazteko balioak ditu), gizaki garen aldetik prestatzeko eta, hori eginez gero, gizartearen aurrerapenari eta ingurumenaren hobekuntzari laguntzeko.					
6.- Entzuten, ikusten edota interpretatzen dugun edozein musika eta dantza adierazpen hobeto ulertzeko, historian zehar ematen eta eman diren musikaren eta dantzaren inguruko gertakari eta autoreei buruzko informazioa, modu kritiko eta aktibo batez, erabili.					



ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Musika lana entzutean, soinudun mezuaren funtsezko ideiak identifikatu, entzunaldiaren aurretik aditutako jarraibideak aplikatzen saiatuz.					
2.- Konposizioaren estiloa eta garaia hauteman, harmonia estiloari eta instrumentuen erabilerari erreparatuz.					
3.- Soinu iturria identifikatu, era askotakoa eta konplexua izan daitekeela kontuan hartuz, eta mailari egokitutako soinu mapa bat egin.					
4.- Musika konposizioa jarrera kritikoz entzun, eta horren forma eta edukia aztertu.					
5.- Musika lanaren zentzua interpretatu, eta horren alderdi estetikoari eta interpretazio ezaugarriei buruzko iritzia eman.					
6.- Musika gozatzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko erabili, musikaren kultur balioa kontuan hartuz.					
7.- Egileari, lanari eta estiloari dagozkion musikaren historiako garai bakoitzaren funtsezko erreferenteak ezagutu, entzunaldien eta ariketa bokalen eta instrumentalen bidez.					
8.- Musika hizkuntzaren oinarriko ezaugarriak ezagutu eta horren aplikazioa kantuan eta lan instrumentaletan.					
10.- Musika ideiak agertzeko -norberak sortutakoak nahiz beste egile batzuenak- beharrezkoak diren musika hizkuntzako ezaugarriak erabili.					
11.- Musika irakurketa musika ezagutzeko eta jakituria handitzeko erabili, bai nork bere burua garatzeko, bai talde lan interesgarri eta aberatsa egiteko.					
12.- Musika partitura arintasunez eta bizitasunez deszifratu, partitura bakoitza pieza estetiko interesgarria dela eta musika mezu bat duela erakutsiz.					
13.- Ikasleak duen musika ezagutzaren mailari egokitutako musika lan koherenteak eta aberatsak interpretatu.					
14.- Partitura bat interpretatu oinarri estetikoari jarraituz eta teknika egokia erabiliz.					
15.- Kanta baten estiloa eta izaera hauteman eta interpretatu, entzuleak musika bizipena bereganatu dezan.					
16.- Ahotsaren edo instrumentuen bidez interpretatu behar den lan baten garapen dinamikoa planifikatu, zer ñabardura erabiliko diren erabakiz, gustu eta koherentzia musikaren arabera.					
17.- Musika lanari buruzko iritzia arrazoitu, ideiak alderatuz eta ideiek dakarten aurrerabideari erreparatzen saiatuz.					
18.- Kanta bat bakarka eta taldean interpretatu, modalitate bakoitzak behar dituen interpretazio ezaugarrietara moldatuz.					
19.- Kantua edo taldeko lan instrumentala norberaren gozamenerako eta bizikidetzatza balioak sustatzeko erabili.					
20.- Era askotako interpretazio materiala aukeratu, gehiegizko espezializazioa baztertuz, beste kultur errealitate batzuk ezagutzeko.					
21.- Musika jardueren arteko itxaronaldietan isilik egon, musika lantzeko behar den kontzentrazioarako itxaronaldiak beharrezkoak baitira.					
22.- Dantzaren osagaiak (musika, mugimendua eta adierazpena) ezagutu eta komunikazioarako erabili.					
23.- Dantzarako behar diren baliabideak (gorputza, espazioa eta denbora) eta horien artikulazioarako mekanismoak ezagutu.					



<b>ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</b>	1	2	3	4	5
24.- Euskal Herriko dantza ludikoak ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.					
25.- Euskal Herriko dantza formalen artean dauden mota nagusiak eta horien hurbileko adibideak ezagutu.					
26.- Nazioarteko dantza ludiko batzuk ezagutu eta norberaren gozamenerako baliatzeko gai izan.					
27.- Dantza estilo desberdinak (klasikoa, modernoa, garaikidea, tradizionala, areto dantzak...) identifikatu eta dituzten ezaugarriak ezagutu.					
28.- Dantza ikuskizunak: nazioarteko balet ezagun batzuk eta euskal taldeen zenbait lan garrantzitsu ezagutu.					
29.- Musika eta Dantza Arloaren balorazioa oro har					



**Musika eta Dantza arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilgaitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 5.- PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA

### 5.1.- SARRERA

Plastika eta Ikus Adierazpena arloak gizabanakoaren garapena nola lantzen duen ikusita, esan daiteke arlo horrek funtzio garrantzitsu eta ordezkaezina betetzen duela hezkuntza helburu eta konpetentzia orokorrak lortzeko.

Gizabanakoak *jakin* egin nahi du beti: zer egin behar duen, besteek zer entzun nahi duten, arrakasta lortzeko, asko balio duela erakusteko... Gehiago kostatzen da zalantza eta ziurtasunik eza ere problemen eta emaitzen zati direla onartzea. Plastikan, **sormenak** eragin handia du, ez dakigu zer emaitza lortuko dugun, eta, ondorioz, askatasunez eta berez joka dezakegu problemaren emaitza formala sortzeko. Horrek guztiak ikertzera, esperimantatzera, jakin-minez bilatzera eta arretaz aztertzerara bultzatzen du gizabanakoa, funtsean susmatzen edo bilatzen zuena lortu arte. Agertutako problema ulertu egin behar dugu, erabili behar diren elementuak antolatu, eta bilaketa autonomo eta berezkoa egin. Arriskatzen ikasten dugu, sarritan bide dibergenteak hartuko dituzten emaitzak bilatzen; batzuetan, emaitzak errepikatuko ditugu, susmatu eta lortutako emaitza –besteena ez bezalako– finkatzeko. Ikaskuntza prozesu honetan, gure lana zuzentzen eta aberasten lagunduko digu irakasleak. Horrenbestez, ikaslearen erantzun askearen eta irakaslearen zuzenketaren arteko tentsioan, **pentsatzen eta ikasten ikasiko dugu.**

Erantzun jolas horretan, gizabanakoak sakontasun osoz hartzen du parte: sakon-sakoneko bizipenak, lehenbiziko irudi mentalak, baita hurbil-hurbileko gertaerei buruzko oroitzapenak ere. Hala, koloreak, lerroak, formak, materialak, testurak eta bolumenak izango dira plastikaren bidez sakon-sakoneko niak sortutako erantzunak. Normalean, gure nia sentitzen dugun moduan adierazteko beldurrei oztoporik jarri gabe egiten ditugu plastika lanak, eta, hain zuzen ere, horrexegatik egiten ditugu gure adierazpenak askatasun handiz. Buruan ditugun irudiak, bizipenak eta ideiak zeinu eta ikur bihurtuko dira, gugandik aterako diren forma eta konposizio, norberak ikusteko nahiz besteei zerbait esateko. Hitzik gabeko hizkuntzak askatasun handia ematen du gizabanakoaren eta inguruko errealitatearen artean ezartzen den erlazio motari buruz geure buruari eta besteei zerbait adierazteko; hitzezko hizkuntzan, adibidez, zaila goa da halako askatasunik lortzea. Beraz, plastikaren bidez **komunikatzen ikasiko dugu.**



Lan honek badu alderdi sozial bat ere, eta, beraz, aukera ona ematen du gizabanakoek taldean lan egiteko eta elkarren artean emaitzak bilatzeko. Gaurkotasun handiko behar –sentsibilitate– bati erantzungo diogu: taldean lan egiteari. Horrek berekin dakartzan tentsio dinamika eta emaitza guztiak hartu ditugu kontuan. Taldean sortzen diren rol guztien artean oreka lortzea da helburua: buruzagitza, elkarrekin lan egitea, ideiak ematea, eztabaidatzea, nork bere iritziari eusten jakitea eta iritziz aldatzea –beste bat norberarena baino egokiagoa iruditzen zaigulako–. Ikasleek ardurak beren gain hartzen ikasiko dute. Ikasle bakoitzak bere irizpideak finkatuko ditu guztien arazo bat konpontzeko; baina, aldi berean, beste-ei entzuten eta amore ematen ikasiko du. Hala, **elkarrekin bizitzen ikasiko dugu**.

Plastikaren bidez, gizabanako bakoitzak bere ideiak agertzea nahi da, bere sentsazioak eta errealitateari buruzko bizipen pertsonalak adieraztea. Horrek gauza bat balioestera eramaten gaitu: nia adieraztea garrantzitsua da, bai eta lan egiteko moduan nahiz emaitza formalean bakarra sentitzearen pozaz gozatzea ere. Horiek aukera ematen dute autoestimu sendoa sortzeko. Lan nagusia ez da *ofizialki onargarriak* diren emaitzak errepikatzen ikastea, beste batzuek emandako erantzunen klixek erabiltzea; aitzitik, emaitza pertsonal eta benetakoak bilatzeko beldurra galtzea da kontua. Hala, **gu geu izaten ikasiko dugu**.

Plastika arloa adierazpen oinarritzat hartuz, hau ere azpimarratu behar dugu: lan mota horretan, datu mentalak edota ikusizko datuak antolatzen ahalegintzen da gizakia, lan *eder* bat sortzeko. Errealitateak –bizitzak– ematen diguna, nahiz eta dramatikoa izan, berrantolatu egiten dugu, eta armonia, ordena, adierazpen indarra, kolorea eta abar ematen diogu horri. Gure ikuspegiaren berri ematen dugu, errealitatearen alderdirik eder eta armoniatsuenetik. Nolanahi ere, egia da prozesu hori ez dela besterik gabe sortzen, bat-batean. *teknika* eta tresna batzuk ezagutu eta erabili behar ditugu, erabili nahi dugun *hizkuntza* antolatu eta taxutzeko. Teknikak –prozedura egokiak– menderatuz, **ekintzaileak izaten ere ikasiko dugu**. Norberaren ekimenaren sortzaile eta gauzatzaile bihurtu behar dugu. Aktiboak izan behar dugu, eta bide berriak proposatu behar ditugu. Azken finean, adieraztean eta edertasuna sortzean askatasunez, autonomiaz eta originaltasunez lan eginez, gizabanakoa pertsona garatu izateko aukeraz jabetzea nahi dugu, baina baita gizabanakoak helburu berriak finkatzea ere.

## 5.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

**1.- Errealitatean, naturan nahiz artelanetan ageri diren elementu formalak identifikatzeko eta aztertzeko gai izan behar dute, balio estetikodun irizpideak lortzeko, kritikoak izateko eta beren lanei nahiz besteenei buruzko iritzia emateko eta horiek ikusiz gozatzeko.**

Edertasunaren zentzua, hau da, zerbait ederra dela esateko legeak armoniaren, tentsioen, orekaren, erritmoaren, tonuen eta abarren bidez heltzen zaizkigu, presentzia hutsaz errealitateak ez baitigu halakorik hautemanarazten; edo, bestela, historian zehar artistak errealitateari buruz sortuz joan diren hizkuntza formalaren edo plastikaren bidez heltzen zaizkigu.





Behaketa eta ezagutza horretan oinarrituta, iritzia emateko, kritikoak izateko eta gure eskura jarritako edertasunaz gozatzeko irizpideak lortu ahal izango ditugu. Paisaia baten tonuek, marrazki bateko lerroen arintasanak, margolan espresionista baten indarrak edota konposizio baten erritmoak –figuratiboa nahiz abstraktua izan– eragiten dizkiguten sentsazioak hautemateak eta horiez jabetzeak gozarazten digu. Garai guztietan kultura guztiek egindako urratsak balioesten baditugu, gu geu ere edertasuna –era askotakoa bada ere– bilatzen duen gizarte bateko kide garela ohartutako gara.

Beraz, kontzientzia osoz gozatu ahal izango dugu era askotara gure aurrean ager daitekeen edertasunaz.

## **2.- Oinarrizko esku trebetasunak menderatzeko gai izan behar dute, teknika plastikoak erabiltzeko eta buruan dituzten irudiak lan plastiko burutu izateko behar den trebetasuna lortzeko.**

Irnotasuna, hau da, zerbait menderatzeko ikaslea mugiarazten duen interesa da ikaskuntza ororen oinarria. Plastikaren bidez ere zailtasunak izan ditzakegu, geure buruak adierazi nahi dituen ideiak formalki adierazitako errealitate bihurtzeko zailtasuna. Izan ere, zenbait material eta tresna erabili behar dira horretarako, eta, horiek erabiltzen ez badakigu, hutsean gelditzen dira gure ahaleginak. Hau da, gutxieneko esku trebetasun bat lortu behar dugu teknika bat garatzeko eta lan plastikoetan gure ideiak, ametsak edota proiektuak formalki adierazteko aukera emango diguten tresnekin moldatzeko. Tresna eta teknika horien barruan sartzen ditugu bai marrazteko arkatx soila, bai, esate baterako, grabatu bat egiteko ikasi behar den prozedura luzea.

Trebetasun horiek ahaleginaren, errepikapenaren eta lortu nahi den adierazpen mailara heltzeko egiten diren esperimentazioen emaitza dira.

## **3.- Egungo gure kulturaren zati handi bat osatzen duten irudiei (argazkia, bideoa, anagramak...) buruzko egungo hizkuntzak irakurtzeko, balioesteko, kritikatzeko eta erabiltzeko gai izan behar dute, horien edertasun formalaz jabetzeko eta mezuaren edukia ulertzeko.**

Egungo teknologia erabat sartu da bai merkataritzaren, publizitatearen eta marketingaren munduan, bai irudia ulertzeko eta sortzeko modu berriei buruzko ikerketaren munduan: zinema zazpigarren arte gisa ageri da, bideoak leku handia hartzen du museoetan, argazkiak artelan bihurtu dira... Ikurren, anagramen eta logotipoen mundua Mendebaldeko gizarte osoan hedatu da nabarmen; hizkuntza arrunta eta hiritarra bihurtu da funtsean.

Gure begiradak ikusizko estimulu ugari jasotzen ditu etengabe. Hori horrela izanik, jendea prestatu behar dugu irudiaren hizkuntza berriak irakurtzen jakiteko, horri buruzko balioespen irizpideak izateko eta, era berean, horiek egungo kulturaren egiten dituzten ekarpen plastiko eta estetikoak balioesteko eta horiez gozatu ahal izateko. Gaur egungo teknikak erabiltzen irakatsi nahi diegu ikasleei, baita gizarte honetan erabateko pertsona bihurtzen lagundu ere.

## **4.- Hizkuntza plastikoak (marraztea, margotzea, modelatzea...) eta horiei dagozkien teknikak ezagutu behar dituzte horiek askatasunez erabiltzeko moduan, errealitateari buruz dituzten sentimenduak, ideiak edota sentsazioak adierazteko eta besteei horiek komunikatzeko.**



Adierazteko eta komunikatzeko moduek garrantzi handia dute gizabanakoaren garapenean. Funtsezko soziabilitate faktore dira. Plastika arloa hizkuntza aukera horietako bat da. Esperientziak, sentsazioak, ideiak edota sentimenduak nolabait barrutik adierazi behar direnez, aberastu egiten gara, eta nork bere buruaren kontzientzia handiagoa ere hartzen du.

Bestalde, aukeratutako koloreetan, erabilitako formetan, marrazketaren pultsioan, aukeratutako materialean, pertsonen gorputza marrazteko moduan edota irudien eraikuntzan espazioak banatzeko moduan, gure barrua osatzen duten elementu askoren berri ematen dugu. Kanporantz zerbait esaten ahalegintzean, geure buruaren berri ere ematen dugu.

Horrek guztiak berretsi egiten du plastika arloak ezagutzarako eta gizabanakoaren garapenerako daukan garrantzia.

### **5.- Artearen historiako eta gaur egungo artearen estilo, artista eta lan nagusiak –unibertsalak nahiz Euskal Herrikoak– ezagutzeko gai izan behar dute, egungo kultura ulertzeko eta bertan integratuta sentitzeko, baita adierazpen plastikoen balioa gehiago balioesteko ere.**

Gizarte kontzientzia handitzeak, gizarte bateko kide izatearen ikuspegia zabaltzeko kontzientzia handiarazteak –horrek eragiten dituen lorpenez gozatzeko eta poza sentitzeko– gizabanakoaren autoestimua aberasten du, eta, gainera, giza talde zabal eta askotariko batekiko pertenezkoa finkatzen da.

Kultur testuinguru horretan, balioetsi egiten dugu bertako artelanen eta artisten eta gure inguruan sormen itzala utzi zuten artisten berri izatea, gizarte lorpen garrantzitsuak baitira. Plastikaren munduari buruzko ikaskuntza formala egingo dute ikasleek, eta, ondorioz, adierazteko hizkuntza formalak aberastuko dituzte.

### **5.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK**

Gizabanakoaren garapen osoan, funtsezkoa da komunikatzea, adierazpideak sortzea eta gizabanakoaren barne mundua –bizipenak, behaketak, ideiak, sentimenduak, sentsazioak...– hizkuntza egokiaren bidez agertzea.

Gizarteak –artisten bidez, sentsibilitate berezia dute-eta– **edertasuna sortuz** irudikatu nahi izan du bizitza. Harmonia, erritmoa, kontrasteak eta abar lortu nahi izan ditu; horrez gain, komunikatzeko zenbait teknika erabili ditu, hala nola, musika, poesia, pintura, eskultura, eraikuntza, arkitektura eta modelatua. Denborarekin, autore batzuek eta kulturak, oro har, hizkuntzak sasiz garbitu dituzte, eta adierazpide berriak bilatu. Eskolak kontuan hartu behar ditu horiek guztiak. Beraz, atal handiez gain (marrazketa, pintura, modelatua, eskultura...), beste batzuk ere aipa daitezke: irudia eta ekoizpen eta manipulazio teknika berriak, collagea, estanpatua, argazkigintza, material sinpleen bidez (klariona, alanbrea...) egindako lanak...



Esperientzia pertsonala hizkuntza formaletan adieraztea bide bizia da, garatzen ari da etengabe, eta bat egin behar dugu horrekin, interes handiz.

### 5.3.1.- Jarrerazko edukiak

- 1.- Jakin-mina: emaitza berriak bilatzea, ikertzea, esperimentatzea, galdetzea, behatzea, hautematea.
- 2.- Arreta: arretaz entzutea eta gogor lan egitea, azken emaitzan gizabanakoaren sakon-sakoneko gaitasunak agertzeko.
- 3.- Sormena, irudimena: emaitza originalak bilatzea.
- 4.- Lana balioestea: adimena erabiliz, nor bere buruan konfiantza hartzea, norberaren lanak gogobetetzea.
- 5.- Jarrera kritikoa: plastika lanak kritikoki aztertzea.
- 6.- Arauak errespetatzea: horiek barneratzea, lan prozesuari jarraitzea.
- 7.- Zuzenketetan malgutasuna adieraztea: zuzenketak egitea akatsekin estutzea ez dela onartzea, hobetzeko bidea baizik.
- 8.- Lanaren akabera balioestea: garbitasuna eta zehaztasuna neurtzean, moztean eta lotzean. Errematean hautematen da zer-nolako edertasuna bilatu den.
- 9.- Ardura: materialak eta tresnak kontuz erabiltzea.
- 10.- Lankidetzak: parte hartzea, aktiboa izatea, hitz egitea, eztabaidatzea eta errespetatzea.
- 11.- Sentikortasuna: naturarekiko, kultur lanekiko, besteen lanarekiko eta norberaren lanarekiko.

### 5.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

#### 1.- MARRAZKETA

##### Kontzeptuzko edukiak

##### 1. Teknikak:

- Esku hutsez: gaien arabera; esate baterako, natura hila, paisaiak eta gorputz keinuak.
- Geometrikoa: zenbait motatako lerroak; esate baterako, horizontalak, bertikalak eta elkarzutak.
- Pieza bat deskribatzea: aurretiko bista, profila, oina, akotazioa, ardatzak, perspektiba isometrikoa, cavalieri perspektiba...
- Diseinua: erabileraren bat eta forma berezia duten objektuak asmatzea.

##### 2. Materialak:

- Esku hutsezko marrazkiak egiteko: arkatza, ikatza, sanginak, tinta, errotuladorea, pintzela, estileta eta, oro har, azalera batean arrasto lineala utz dezakeen edozein material.
- Marrazki geometrikoak egiteko: eskuaira, kartaboia eta konpasa.

##### 3. Ezaugarriak:

- Marrazkia figuratiboa edo abstraktua izan daiteke.
- Ingerada soilik edo irudi osoa lan daiteke, eta distirak eta itzalak marraz daitezke.
- Eguneroko bizitza irudika daiteke: asmatu, gogoratu edota kopiatu.

##### Prozedurazko edukiak

1. Prozedura bera gai multzo guztietarako:
  - Lan guztietan irizpideak barneratzeko, hitz egitea, emaitza formalak aztertuz eta balioetsiz.
2. Marrazteko prozedura espezifikoak:
  - Esku hutsez marrazteko jarraibideak.
  - Marrazki geometrikoak egiteko jarraibideak.
  - Piezak deskribatzeko jarraibideak.
  - Diseinuak egiteko jarraibideak.
  - Perspektibak marrazteko jarraibideak.

#### 2.- KOLOREA ETA PINTURA

##### Kontzeptuzko edukiak

##### 1. Teknikak, materialak eta tresnak:

- Ur pintura: gouachea, tinta, tenpora, plastikoa, akuarela.
- Arkatzak eta barra lehorrak: koloretako arkatzak, argizariak, pastela.
- Olio pintura: pintzela, espatula, disolbatzailea, nahasteak egiteko paleta.
- Inprimatzea: linoleuma, gubiak, arrabola, papera prentsatzeko tresna.

##### Prozedurazko edukiak

1. Ur pinturak, arkatzak eta barra lehorrak eta olio pinturak erabiliz, margotzeko jarraibideak eta teknikak.
2. Linoleumean inprimatzeko jarraibideak eta teknikak.



## 2.- KOLOREA ETA PINTURA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>2. Ezaugarriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Koloreak nahasiz, tonuak, orbanak eta kontrasteak bat egiteko pintura.</li> <li>- Kolorea adierazpen eta afektibitate elementu gisa. Sarritan, marrazkia osatzen du.</li> </ul>	

## 3.- ESKULTURA, MODELATUA, BOLUMENA ETA ERAIKUNTZA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Teknikak eta materialak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Moldegintza (eskaioia).</li> <li>- Zurezko erliebeak.</li> <li>- Buztinezko irudiak eta ontziak.</li> <li>- Material sinpleen bidez egindako lanak (kartoia, alanbrea, klarionak, okume xaflak...).</li> </ul> <p><b>2. Ezaugarriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirugarren dimentsioa.</li> <li>- Zuloen eta bolumenen arteko oreka.</li> <li>- Irudia profilatzen duen ertza.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Modelatuak egiteko jarraibideak.</li> <li>2. Buztinezko irudiak eta ontziak egiteko jarraibideak.</li> <li>3. Eraikuntzak egiteko jarraibideak.</li> </ol>

## 4.- IRUDIA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Teknikak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudi finkoa: argazkia, iragarkiak, horma irudia eta kartela.</li> <li>- Irudi mugikorra: bideoa, zinema (dokumentala, thrillerra...).</li> </ul> <p><b>2. Materialak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Generoen arabera, argazkiak egiteko edo irudiak erabiltzeko eta lanak egiteko egokiak direnak.</li> </ul> <p><b>3. Ezaugarriak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Irudi finkoari dagokionez, errealitatea paperezko euskarri batean irudikatzea.</li> <li>- Irudi mugikorrari dagokionez, errealitatea zenbait euskarritan irudikatzen da.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Paperean argazkiak egiteko teknikak. Errebelatua egiteko teknikak.</li> <li>2. Irudi mugikorrek egiteko teknikak. Informazio grafikoa editatzeko jarraibideak.</li> <li>3. Horma irudiak egiteko orientabideak.</li> <li>4. Kartelak egiteko orientabideak.</li> </ol>

## 5.- LAN TEKNIKOAK: COLLAGEA, PIROGRABATUA, EHUNTZEA, LINOLEUMEAN INPRIMATZEA ETA ESTANPATUA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Teknikak eta materialak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Collagea: era askotako materialak batuz (paperak, kartoia, plastikoak...), lan oso bat lortzea.</li> <li>- Pirograbatua: marraztutako lerroak errez, zurean marrazki bat egitea.</li> <li>- Ehuntzea: euskarrian hariak edo artilea ehuntzea eta marrazki bat egitea.</li> <li>- Linoleumean inprimatzea: linoleuma, tinta, arrabola eta papera prentsatzeko elementua.</li> <li>- Estanpatua: patata, kortxoia eta belakia.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Collagea, pirograbatua, ehuntzea, linoleumean inprimatzea eta estanpatua egiteko jarraibideak eta teknikak</li> </ol>

## 6.- ARTEAREN HISTORIA UNIBERTSALA ETA EUSKAL HERRIKO ARTEAREN HISTORIA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko artea eta arkitektura: mendebaldeko artearen eta arkitekturaren adierazpenak eta autoreak Euskal Herrian, eta Euskal Herriko adierazpen espezifikoak.</li> <li>- Arte eta arkitektura unibertsalaren historiako mugimendu eta autore nagusiak - Mendebaldekoak, bereziki: Historiaurrea, Egipto, Grezia, Erroma, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasikoa eta Arte modernoa.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Informazioa adierazgarritasunez interpretatzeko eta balioesteko jarraibideak.</li> <li>2. Baliabide kognitiboak erabiltzeko eta ikasitakoa transferitzeko jarraibideak.</li> </ol>



## ERANSKINA

### Artearen eta arkitekturaren autorerik eta adierazpenik adierazgarrienen aukeraketa orientagarria

#### 1.- EUSKAL HERRIKO ARTEAREN ETA ARKITEKTURAREN AUTORERIK ETA ADIERAZPENIK ADIERAZGARRIENAK.

##### 1.-Goi-paleolitikoa:

- Haitzuluetako artea (Santimamiñe, Altxerri eta Ekaingo santutegiak)

##### 2.- Metalaren Aroko megalitismoaren garapena:

- Mediterraneo aldeko haranetako trikuharriak: Biasteriko San Martin, Bilarreko Sorginen txabola, Egilazko Aizkomendi, El Sotillokoa, Artaxonakoa...
- Bizkaiko, Gipuzkoako eta Pirineo aldeko mendiko trikuharriak: Baztan aldekoak, Iparraldekoak, Aralarkoak...

##### 3.- Burdin Aroa:

- Kastroak eta gotorturiko herrixkak (La Hoya, Intxur, Zerkupe, Malmasin...)
- Pirineo eremuko harrespilak edo mairubaratzak eta iruinariak (Oiantzungo Oianleku, Adarra mendiko Eteneta...)

##### 4.-Erroma:

- Erromatarren hiriak (Pompaelo, Veleia/Iruña, Oiasso, Lapurdum...)
- Obra publikoak eta pribatuak (Iruña Oka, Andelos, Irungo Santa Elena, Forua, Ledea, Trespuentes ...)

##### 5.- Erromanikoa:

- Aralarko santutegia, Leireko monastegia, Uxueko eleiza, Eunate, Artaiz, Iruñeako klaustroa, Oliteko San Pedro, Zangozako Santa Maria, Lizarrako San Migel eliza eta Errege jauregia, Tuterako katedrala, Santa Grazi, Done Bladi ospitale, Estibalizeko santutegia, Armentiako santutegia, Bakioko San Pelaio, Galdakaoko Andra Mari, Zumarragako Antiguako ermita, Idiazabalgo eleiza...

##### 6.-Gotikoa:

- Arte erlijiosoa (Orreagako Kolegio-eliza, Baionako katedrala, Oliteko Santa Maria, Iruñeko katedralako klaustroa, Biasteriko Santa Maria, Gasteizko Santa Maria, Lekeitioko Jasokundeko Andra Maria, Bilboko Santiago katedrala, Getariako Salbatore Santuaren eliza, Debako Santa Maria, Donostiako San Bizente...).
- Arkitektura zibila: Iruñea eta Euskal Herriko Erdi Aroko hiriak eta gaztelu/gotorleku/dorre etxeak (Olite, Maule, Ostabat, Arazuri, Kexaako jauregia, Abadiñoiko Muntzaraz dorrea, Butroeko dorrea, Arteagako dorrea, Zarautzko Dorre Luzea, Zestoako Lili jauregia, Loiolako dorretxea...)

##### 7.- Errenazimentua:

- Arte erlijiosoa (Bianako Santa Maria eta San Francisco, Iratxe monastegia, Iruñeako Santiago eliza, Oñatiko Bidaurreta monastegia eta Migel Santua eleiza, Donostiako San Telmo, Bilboko San Antonen ataria, Zenarruzako klaustroa, ...).
- Arkitektura zibila (Oñatiko Unibertsitatea, Bidaxuneko Gramont jauregia, Ezpeletako dorrea, Gasteizko Bendaño, Montehermoso, Villa Suso, Eskoriatza-Eskibel jauregiak, ...).
- Eskultura: Joan Antxieta, Pedro González, Anbroisio Bengoetxea, Joan Araoz, Joan de Ayala, Jeronimo Larrea...
- Baserriak: Ainhoa, Sara, Oharriz, Ipazter...

##### 8.- Barrokoa:

- Arte erlijiosoa: Tuterako katedrala, Korellako Migel Santuaren eliza, Loiolako Santutegia, Donostiako Santa Maria Basilika, Bilboko Anton Santuaren elizaren dorrea, Oiongo Santa Maria elizaren dorrea, Donibane Lohitzuneko elizaren erretaula...
- Arkitektura zibila: Garai honetan ugaritasunez eraikitzen diren jauregi, udaletxe, baserri eta hiriko etxeak.
- Eskultura: Gregorio Fernández, Joan Bazkardo, Luis Salvador Carmona, Juan Pascual de Mena, Francisco Ibero, Martin Karrera...
- Margolariak: Baltasar Etxabe, Bizente Bedusan...

##### 9.- Neoklasikoa eta Erromantikoa:

- Arkitektura zibila: Gasteizko Plaza Nagusia, Donostiako Konstituzio plaza, Gernikako Biltzar etxea, Nafarroako Foru-Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Donostiako Foru Aldundia, Donostiako Kasino Handia, Bilboko plaza berria, Bilboko udaletxea, Bilbao Arriaga antzokia ...
- Arkitektura erlijiosoa: Iruñeako katedralaren fatxada, Gasteizko katedral berria, Donostiako Artzain Onaren katedrala ...
- Hirigintza: Donostiako parte zaharra eta zabalkuntza, Bilboko zabalkuntza...
- Arkitekto eta hirigileak: Justo Antonio Olagibel, Silbestre Pérez, Pedro Manuel Ugartemendia, Juan Bautista Belaunzarán...

##### 10.- XX.mendea:

- Arkitektura zibila: Portugaleteko zubi zintzilikaria, Deustuko Unibertsitatea, Bilboko geltokia, Bilboko Guggenheim museoa, Bilboko Euskalduna jauregia, Donostiako Kursaal jauregia...
- Arkitektura erlijiosoa: Arantzazuko santutegia
- Arkitektoak: Joan Daniel Fullaondo, Bitor Eusa, Jose Manuel Aizpurua, Joakin Labaien, Luis Peña Gantxegi, Rafael Moneo, Frank O. Gehry, Roberto Erzilla, Saenz de Oiza,
- Pintura: Darío de Regoyos, Inazio Zuloaga, Anjel Larroque, Ramiro Arrue, Aurelio Arteta, Jazinto Olabe, Ramon eta Balendin Zubiaurre, Joan Etxeberria, Francisco Iturrino, Gustavo de Maeztu, Nikolas Lecuona, Jose Luis Zumeta, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Antonio Sistiaga, Bizente Ameztoty, Joan Luis



Goenaga, Xabier Morras, Karmelo Ortiz de Elguea.

- Eskultura: Durrio, Quintín de la Torre, Julio Beobide, Remigio Mendiburu, Eduardo Txillida, Jorge Oteiza, Bizente Larrea, Nestor Basterretxea, Ricardo Ugarte, Agustín Ibarrola, Andres Nagel, Koldobika Jáuregui, Txomin Badiola...

## 2.- ARTE ETA ARKITEKTURA UNIBERTSALAREN AUTORERIK ETA ADIERAZPENIK ADIERAZGARRIENAK.

1.- **Historiaurrea:** *Paleolitikoa:* Lascaux, Altamira, Willendorfeko Venusa. *Neolitikoa:* Stonehenge cromlecha...

2.- **Egipto:** Piramideak, obeliskoak, baxuerliebeak eta tenpluak...

3.- **Grezia:** Partenoia, Partenoiko frontoiko irudiak, Mironen Diskoboloa, Samotraziako garaipena, zutabe motak, Cariatides eta tenpluak...

4.- **Erroma:** *Lan zibilak:* Koliseoa, Caracallako termak, Segoviako akueduktua, Trajanoren zutarría, antzokiak eta Panteoia...

5.- **Erdia Aroa:** Bizantzioren basilika, Santiago Konpostelakoa, Parmako bataiategia, Veneziako San Markos...; *Arabiar mundua:* Ispahango xaharen meskita, Kordoba, Granada, Alhambra, Jerusalemgo Harkaitzeko meskita...

6.- **Gotikoa:** Milango Duomoa, Modenako katedrala, Pisako dorrea, Amiens, Burgos, Leon, Kolonia, Chartres. *Margolariak:* Giotto...

7.- **Errenazimentua:** Salamancako Unibertsitatea, Escoriala, Vatikanoa; *Artistak:* Migel Anjel (Dabid, Pietatea, Moises, Esklabuak, Sixtotar kapera), Leonardo Da Vinci (Gioconda, Azken afaria...), Rafael (Atenasko eskola), Boticelli, Masaccio, Mantenga, Donatello, Tiziano, Piero della Francesca, Bruneleschi (Florentziako kupula)...

8.- **Barrokoa:** *Eraikuntza lanak:* Versailles, Stuping-eko ehiza pabilioia, Berniniren San Pedroko aldareko zutabeak.... *Margolariak:* Caravaggio, Rubens, Rembrandt, Vermeer, Velázquez...

9.- **XVIII.-XIX mendeak:** Goya, David...; *Inpresionistak:* Manet, Monet, Degas, Rendir, Signac, Seurat...; *Neo-inpresionistak:* Gauguin, Van Gogh, Cezanne...; *Eskultoreak:* Rodin...; *Eraikuntza lanak:* Eiffel dorrea...

11.- **XX. mendea:** *Margolariak:* Dali, Braque, Matisse, Morando, Kandinski, Munich, Mondrian, Picasso, Kokoska, Warhol...; *Arkitektura:* Le Corbusier (Rondchampeko kapera), Calatrava, Moneo, Gehry (Guggenheim ), Foster...; *Eskultura:* Serra, H. Moore, Manzu, Brancussi, Txillida, Oteiza...



## 5.4.- KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Konpetentzia espezifikoak	Konpetentzia orokorrak					Eduki multzoak						Garrantzia (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	
1.- Plastikaren bidez adierazteko tresnak eta materialak behar bezainbesteko trebetasunez erabiltzea.		X				X	X	X	X	X		1
2.- Plastikaren bidez, sentimenduak, sentsazioak, ideiak edota era askotako espazio kontzeptuak (irekita / itxita, beteta / hutsik) adieraztea.	X		X	X	X	X	X	X	X	X		1
3.- Naturean oinarrituz marraztea, kopia nahi den errealtatea behatuz eta xehetasunen eta osotasunaren arteko erlazioa eta proportzioa kontuan hartuz.	X		X			X	X					2
4.- Marrazketa teknikoaren hizkuntza ulertzea eta erabiltzea hauek guztiak egiteko: problema geometrikoak ebazteko, planoak marrazteko, objektu baliagarriak diseinatzeko eta piezen bisten marrazkiak egiteko (aurretiko bista, profila eta oina).		X	X			X						1
5.- Ihespuntua erabiltzea, zenbait motatako espazioak marrazteko eta perspektiba jarduerak egiteko.		X		X		X						2
6.- Koloreak nahasten jakitea, zenbait tonu eta kolore lortzeko.		X					X					2
7.- Kolorea erabiliz margotzea, bai errealtatea irudikatzeke, bai errealtatea alde batera utzita adierazteko.	X		X				X					2
8.- Zenbait material eta testura erabiliz, lan abstraktuak nahiz figuratiboak egitea, lan lau soilekin ez bezalako sentsazioak lortzeko.		X	X	X			X					2
9.- Erraz manipulatzeko materialak erabiliz (kartoia, okume xafra...), maketak egitea, objektu sinpleak edo lege fisikoren batean oinarritutako gailu txikiak egiteko.		X	X			X		X				2
10.- Erabilitako elementuak baliatuz eta esperimendatuz, irudi bolumetrikoak egitea, irudimen konstruktiboa eta bolumetria sena garatzeko.			X	X	X			X				2
11.- Buztina trebetasunez erabiltzea, eta, hori modelatuz, era askotako irudiak, ontziak edota objektuak egitea.		X	X					X				2
12.- Argazkiak ateratzea, eta errealtatea harrapatzeke eta errebelatua egiteko prozedura egokiak erabiltzea.	X	X	X	X	X	X	X		X			3
13.- Iragarkiak, kartelak eta horma irudiak egiteko zer tresna (ordenagailua, makina digitalak...) eta hizkuntza dauden jakitea, eta horiek erabiltzea, ideiak, gertaerak edota publizitate mezuak komunikatzeko.			X			X	X		X			2
14.- Zenbait motatako arteak, hariak eta beste material batzuk ehuntzea, ehun bolumenak lortzeko.		X	X				X			X		3
15.- Mendebaldeko munduko historian, arte mugimendu eta autore nagusiak zein diren jakitea: Historiaurrea, Grezia, Erroma, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasizismoa, Inpresionismoa, Kubismoa eta XX. mendeko artea.	X		X		X						X	1
16.- Euskal Herriko artearen eta autore nagusien berri izatea; XX. mendeko berri, bereziki.	X		X		X						X	1

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



## 5.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1.- Plastikaren bidez adierazteko tresnak eta materialak behar bezainbesteko trebetasunez erabiltzea.	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.1. Egin beharreko lana egiteko egokienak diren materialak aukeratzeko.</li> <li>1.2. Tresnarik egokienak aukeratzeko, eta trebetasunez erabiltzeko.</li> <li>1.3. Lanak behar bezala bukatzeko, txukun, eta bat datoz aurreikusitako ideiarekin.</li> </ol>
2.- Plastikaren bidez, sentimenduak, sentsazioak, ideiak edota era askotako espazio kontzeptuak (irekita / itxita, beteta / hutsik) adieraztea, beste hizkuntza eta teknologia batzuk ere erabiliz.	<ol style="list-style-type: none"> <li>2.1. Gaia figuratiboa bada: irudiak proportzionatuak dira, keinuak eta mugimenduak ongi irudikatuta daude, irudia behar bezala kokatuta dago espazioan, kolorea ongi erabilia dago, xehetasunak ageri dira.</li> <li>2.2. Gaia abstraktua bada: erritmoa dago konposizioan, elementu aberastasuna, sormena eta irudimena, ordena, kolorea ongi erabilia dago, adierazpen indarra du.</li> <li>2.3. Plastika eta ikus hizkuntza eta hizkuntza geometrikoak batera erabiltzeko, baita plastika eta ikus hizkuntza eta informazioa prozesatzeko eta editatzeko teknologiak ere.</li> <li>2.4. Lan guztietan irizpideak bareratzeko, emaitzei buruz hitz egiten du, eta aztertu eta balioetsi egiten ditu.</li> </ol>
3.- Egin beharreko lanaren prozesua taldean planifikatzea. Taldean arduraz parte hartzea, emaitza gauzatzeko, alde aurretiko diseinuan oinarrituta.	<ol style="list-style-type: none"> <li>3.1. Parte hartzen du lana diseinatzen eta zereginak banatzen.</li> <li>3.2. Bere gain hartutako zereginen ardura hartzen du.</li> <li>3.3. Baliabideak lortzeko behar diren kudeaketa guztiak egiten ditu.</li> <li>3.4. Hasieran pentsatutako diseinua hobetzeko proposamenak egiten ditu.</li> <li>3.5. Behar izanez gero, laguntza eta animoak ematen dizkie taldekideei.</li> </ol>
4.- Naturalean oinarrituz marraztea, kopia nahi den errealitatea behatuz eta xehetasunen eta osotasunaren arteko erlazioa eta proportzioa kontuan hartuz.	<ol style="list-style-type: none"> <li>4.1. Garatu beharreko ideia azaltzeko zirriborroa prestatzen du, eta osatzen, datuak eta xehetasunak zuzenduz eta erantsiz, lortu nahi denaren arabera.</li> <li>4.2. Proportzioa dago elementu partzialen eta osotasunaren artean.</li> <li>4.3. Lerroak behar bezala marrazten ditu: lerro jarraituak edo lerro etenak.</li> <li>4.4. Elementuak indarrez edo orekaz ordenatuta daude.</li> <li>4.5. Xehetasunak ageri dira.</li> <li>4.6. Perspektibaren legeak behar bezala erabiltzen ditu.</li> <li>4.7. Distirak eta itzalak bat datoz irudikatutako objektuaren errealitatearekin.</li> <li>4.8. Gaiak originaltasunez eta sormen handiz lantzen ditu.</li> <li>4.9. Lanak txukun aurkezten ditu.</li> <li>4.10. Lanek akabera ona dute.</li> </ol>
5.- Marrazketa teknikoaren hizkuntza ulertzea eta erabiltzea hauek guztiak egiteko: problema geometrikoak ebazteko, planoak marrazteko, objektu baliagarriak diseinatzeko eta piezen bisten marrazkiak egiteko (aurretiko bista, profila eta oina). Marrazkiak egiteko perspektibaren legeak ezagutzea (ihespuntua).	<ol style="list-style-type: none"> <li>5.1. Eskuaira, kartaboia eta konpasa behar bezala erabiltzen ditu, eta nahi dituen lerroak, irudiak edota bistak lortzen ditu.</li> <li>5.2. Bistak behar bezala erabiltzen ditu, piezen planoak egiteko.</li> <li>5.3. Perspektiba marrazkiak egiten ditu.</li> <li>5.4. Lanak txukun aurkezten ditu.</li> <li>5.5. Eredua zehaztasunez berregiten du.</li> <li>5.6. Lanek akabera ona dute.</li> </ol>
6.- Kolorea erabiliz -koloreak nahasiz- margotzea, bai errealitatea irudikatzeke, bai errealitatea alde batera utzita adierazteke.	<ol style="list-style-type: none"> <li>6.1. Badaki koloreak nahasten eta zenbait tonu eta kolore lortzen.</li> <li>6.2. Badu ur pinturaren tekniken berri, eta erabili ere egiten ditu: gouachea, tinta, tenpora, plastikoa eta akuarela.</li> <li>6.3. Badu arkatzen eta barra lehorren berri, eta erabili ere egiten ditu.</li> <li>6.4. Badu olio pinturaren tekniken berri, eta erabili ere egiten ditu.</li> <li>6.5. Aldez aurretik egindako marrazkiak margotu egiten ditu.</li> <li>6.6. Euskarrian margotzen du zuzenean, aldez aurretik marrazkirik egin gabe.</li> <li>6.7. Koloreen bidez, kontraste, harmonia, erritmo eta adierazkortasun efektuak lortzen ditu; bai pintura figuratiboan, bai pintura abstraktuan.</li> <li>6.8. Kolorea askatasunez, originaltasunez eta sormen handiz erabiltzen du.</li> <li>6.9. Lanak txukun aurkezten ditu.</li> <li>6.10. Lanek akabera ona dute.</li> </ol>





Kompetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
7.- Zenbait material eta testura erabiliz, lan abstraktuak nahiz figuratiboak egitea, lan lau soilekin ez bezalako sentsazioak lortzeko.	<p>7.1. Egin beharreko lana egiteko egokiak diren materialak eta teknikak aukeratzeko.</p> <p>7.2. Badu estanpatuaren tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p> <p>7.3. Badu collagearen tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p> <p>7.4. Badu pirogratuaren tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p> <p>7.5. Badu linoleumean inprimatzeko tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p> <p>7.6. Badu ehuntzeko tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p> <p>7.7. Diseinu originalak egiten ditu; bai lan figuratiboetan, bai lan abstraktuetan.</p> <p>7.8. Konposizioek tentsioa, oreka eta erritmoa dituzte, eta elementuak ordenan irudikatzen ditu.</p> <p>7.9. Lanak txukun aurkezten ditu.</p> <p>7.10. Lanek akabera ona dute.</p>
8.- Material sinpleak (kartoia, okume xafra...) edo erabilitako elementuak baliatuz, maketak eta irudi bolumetrikokoak egitea, objektu sinpleak edo lege fisikoren batean oinarritutako gailu txikiak egiteko.	<p>8.1. Zehaztasunez prestatzen du egin nahi duen gailuaren zirriborroa.</p> <p>8.2. Material egokiak aukeratzeko.</p> <p>8.3. Piezak zehaztasunez prestatzen, neurtzen eta mozten ditu, eta, ondoren, lotu egiten ditu, itsasgarriaz, iltzeaz...</p> <p>8.4. Gailuek aurreikusitakoaren arabera funtzionatzen dute.</p> <p>8.5. Lanek akabera ona dute.</p>
9.- Buztina trebetasunez erabiltzea, eta, hori modelatuz, era askotako irudiak, ontziak edota objektuak egitea.	<p>9.1. Buztina oratu, hezetasun maila egokia bilatu eta nahi duen irudia egiten du.</p> <p>9.2. Badu lehortze eta laboratze tekniken berri, eta behar bezala erabiltzeko.</p>
10.- Iragarkiak, kartelak eta horma irudiak egiteko zer tresna (argazki kamera, ordenagailua, makina digitalak...) eta hizkuntza dauden jakitea, eta horiek erabiltzea, ideiak, gertaerak edota publizitate mezuak komunikatzeko.	<p>10.1. Badu argazkigintzaren eta bideo bidezko irudi grabazioaren tekniken berri, eta erabili egiten ditu.</p> <p>10.2. Badu errebelatua egiteko eta ordenagailuaren, eskanerraren eta edizio grafikoaren aplikazioen bidez irudia tratatzeko tekniken berri, eta erabili egiten ditu.</p> <p>10.3. Zenbait euskarritan (testuak, grafikoak, audio...) sortutako informazioa integratzen du, ikus-entzunezko materiala, horma irudiak edota kartelak egiteko.</p> <p>10.4. Zenbait hizkuntza (ikonikoa, idatzizkoa, plastikoa...) behar bezala konbinatuz agertzen du ideia.</p> <p>10.5. Lanak txukun aurkezten ditu.</p> <p>10.6. Lanek akabera ona dute.</p>
11.- Euskal Herriko artearen eta autore nagusien berri izatea; XX. mendekoak berri, bereziki.	<p>11.1. Badaki zein diren Euskal Herriko artearen eta arkitekturaren adierazpenik eta autorerik adierazgarrienak.</p> <p>11.2. Obrarik eta autorerik adierazgarrienak dagokien garaiarekin lotzen ditu.</p> <p>11.3. Garai bakoitzeko artelanen eta arte mugimenduen ezaugarri bereizgarri adierazgarrienak deskribatzen ditu.</p> <p>11.4. Euskal Herriko lanen eta autoreen ezaugarriak eta Mendebaldeko testuingurukoak lotzen ditu; eta, hala behar izanez gero, baita bereizi ere.</p> <p>11.5. Euskal Herriko arte adierazpenak balioesten ditu.</p>
12.- Historia unibertsaleko arte mugimendu eta autore nagusiak zein diren jakitea -mendebaldekoak, bereziki-: Historiaurrea, Grezia, Erroma, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasizismoa, Impresionismoa, Kubismoa eta XX. mendeko artea.	<p>12.1. Badaki zein diren arte eta arkitektura unibertsaleko adierazpenik eta autorerik adierazgarrienak.</p> <p>12.2. Obrarik eta autorerik adierazgarrienak dagokien garaiarekin lotzen ditu.</p> <p>12.3. Garai bakoitzeko artelanen eta arte mugimenduen ezaugarri bereizgarri adierazgarrienak deskribatzen ditu.</p> <p>12.4. Beste kulturetako artelanak balioesten ditu.</p> <p>12.5. Beste kulturetako artelanak ezagutzeko prest dago.</p>
13.- Natura eta arte plastikoa ezagutzeko eta miretsiz -horren edertasunaz gozatu-, emozio estetikoak sentitzea.	<p>13.1. Naturako materialen, formen, testuren eta koloreen aberastasuna eta aniztasuna behatu eta balioesten du, eta gozatu egiten du.</p> <p>13.2. Gizakiok egindako artelan plastikoak behatzen eta balioesten ditu, eta gozatu egiten du.</p>



III ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPEN ARLOA

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko konpetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina konpetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko konpetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko konpetentzia espezifikoez baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Errealitatean, naturan nahiz artelanetan ageri diren elementu formalak identifikatzeko eta aztertzeko gai izan behar dute, balio estetikodun irizpideak lortzeko, kritikoak izateko eta beren lanei nahiz besteenei buruzko iritziak emateko eta horiek ikusiz gozatzeko.					
2.- Oinarrizko esku trebetasunak menderatzeko gai izan behar dute, teknika plastikoak erabiltzeko eta buruan dituzten irudiak lan plastiko burutu izateko behar den trebetasuna lortzeko.					
3.- Egungo gure kulturaren zati handi bat osatzen duten irudiei (argazkia, bideoa, anagramak...) buruzko egungo hizkuntzak irakurtzeko, balioesteko, kritikatzeko eta erabiltzeko gai izan behar dute, horien edertasun formalaz jabetzeko eta mezuaren edukia ulertzeko.					
4.- Hizkuntza plastikoak (marraztea, margotzea, modelatzea...) eta horiei dagozkien teknikak ezagutu behar dituzte horiek askatasunez erabiltzeko moduan, errealitateari buruz dituzten sentimenduak, ideiak edota sententzioak adierazteko eta beste horiek komunikatzeko.					
5.- Artearen historiako eta gaur egungo artearen estilo, artista eta lan nagusiak -unibertsalak nahiz Euskal Herrikoak- ezagutzeko gai izan behar dute, egungo kultura ulertzeko eta bertan integratuta sentitzeko, baita adierazpen plastikoaren balioa gehiago balioesteko ere.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Plastikaren bidez adierazteko tresnak eta materialak behar bezainbesteko trebetasunez erabiltzea.					
2.- Plastikaren bidez, sentimenduak, sentsazioak, ideiak edota era askotako espazio kontzeptuak (irekita / itxita, beteta / hutsik) adieraztea.					
3.- Naturelean oinarrituz marraztea, kopia nahi den errealitatea behatuz eta xehetasunen eta osotasunaren arteko erlazioa eta proportzioa kontuan hartuz.					
4.- Marrazketa teknikoaren hizkuntza ulertzea eta erabiltzea hauek guztiak egiteko: problema geometrikoak ebazteko, planoak marrazteko, objektu baliagarriak diseinatzeko eta piezen bisten marrazkiak egiteko (aurretiko bista, profila eta oina).					
5.- Ihespuntua erabiltzea, zenbait motatako espazioak marrazteko eta perspektiba jarduerak egiteko.					
6.- Koloreak nahasten jakitea, zenbait tonu eta kolore lortzeko.					
7.- Kolorea erabiliz margotzea, bai errealitatea irudikatzeke, bai errealitatea alde batera utzita adierazteko.					
8.- Zenbait material eta testura erabiliz, lan abstraktuak nahiz figuratiboak egitea, lan lau soilekin ez bezalako sentsazioak lortzeko.					
9.- Erraz manipulatzeko materialak erabiliz (kartoia, okume xafila...), maketak egitea, objektu sinpleak edo lege fisikoren batean oinarritutako gailu txikiak egiteko.					
10.- Erabiltzeko elementuak baliatuz eta esperimintatuz, irudi bolumetrikoak egitea, irudimen konstruktiboa eta bolumetria sena garatzeko.					
11.- Buztina trebetasunez erabiltzea, eta, hori modelatuz, era askotako irudiak, ontziak edota objektuak egitea.					
12.- Argazkiak ateratzea, eta errealitatea harrapatzeke eta errebelatua egiteko prozedura egokiak erabiltzea.					
13.- Iragarkiak, kartelak eta horma irudiak egiteko zer tresna (ordenagailua, makina digitalak...) eta hizkuntza dauden jakitea, eta horiek erabiltzea, ideiak, gertaerak edota publizitate mezuak komunikatzeko.					
14.- Zenbait motatako arteleak, hariak eta beste material batzuk ehunzea, ehun bolumenak lortzeko.					
15.- Mendebaldeko munduko historian, arte mugimendu eta autore nagusiak zein diren jakitea: Historiaurrea, Grezia, Erroma, Erromanikoa, Gotikoa, Errenazimentua, Barrokoa, Neoklasizismoa, Impresionismoa, Kubismoa eta XX. mendeko artea.					
16.- Euskal Herriko artearen eta autore nagusien berri izatea; XX. mendeko berri, bereziki.					
17.- Plastika eta Ikus Adierazpen Arloaren balorazioa oro har					



**Plastika eta Ikus Adierazpen arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 6.- SOIN HEZIKETA

### 6.1.- SARRERA

Ikas arlo honetan egiten den proposamena, hezkuntza formalari begira egiten den arren, erabilgarria izan nahi du eguneroko bizitzan eta bizitza guztirako. Izan ere, bizitzan, behar-beharrezkoa zaigu gorputza jokabide motorraren bidez garatzea.

“Soin Heziketa” ikas arloaren funtzioa, beste ikas arloen moduan, Euskal Curriculumean zehaztutako Hezkuntza xedeak eta eskolaldirako hezkuntza konpetentzi orokorrak eskuratzen laguntzea da. Ikas arlo bakoitzak bere ekarpen propioa egiten du eta, “Soin Heziketaren” kasuan, zeregin hori, gorputzaren, joko-jolasen eta jokabide motorraren bidez garatzen da. Horien bidez, gaitasun hauek garatzen dira: ikaslearen adimen motorra, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasuna, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko gaitasuna, eta ekintzak egokitasunez bideratzeko.

#### ***Nork bere burua ezagutzea eta norbera izaten ikastea***

*Jokabide motorra eta emozioak.* Adimen emozionala irakaskuntza arlo guztietan landu beharko litzateke. Hala eta guztiz ere, ikas arlo honetan beste batzuetan baino aukera gehiago izango ditugu alderdi emozional hori lantzeko. Horren arrazoia sinplea da; egoera ludikoek eguneroko bizitzako egoerak irudikatzeak aukera ematen digu, eta, horien bidez, hainbat egoera esperimendu ditzakegu. Jokabide motorrak adimen emozionalari dagozkion lau gaitasun hauek lantzeko aukera eman beharko liguke:

- Norberaren eta beste pertsona batzuen egoera emozionala zehazteko eta identifikatzeko gaitasuna
- Emozioen bilakaera naturala ulertzeko gaitasuna
- Norberak zein beste pertsona batzuek bizitako emozioei buruz arrazoitzeko gaitasuna
- Norberaren zein beste pertsona batzuen emozioak behar bezala erabiltzeko gaitasuna

*Jokabide motorra, osasuna bere osotasunean ulertzeko aukera.* Osasunaz dagoen ikuspuntua oso partziala izaten da askotan. Pertsona batzuek elikaduraren garrantzia azpimarratzen dute, eta beste batzuek, berriz, jarduera fisikoarena. Beste askotan, kirola eta osasuna lotzen ditu jendeak, nahiz eta, zenbaitetan, lehiaketa baldintzak direla medio, kirola eta osasuna nahiko kontrajarriak izan. Jokabide motorra ez da osasunak dituen ezaugarriak lantzeko bide bakarra; izan ere, osasunak era askotako interbentzio diziplinarrak eskatzen ditu. Hala ere, jokabide motorra “talaia” ona da osasuna bere dimentsio osoan ezagutzeko eta bizitzeko.



### ***Pentsatzen eta ikasten ikastea***

*Jokabide motorra, pertsonaren garapenaren ardatza.* Mugimendua da Soin Heziketaren ezinbesteko baldintza. Mugimendurik gabe ez dago ekintza motorrik, ezta jokabide motorrik ere. Hala eta guztiz ere, gero eta argiago dago ez dela mugimendua pertsonen garapenaren oinarritzko baldintza bakarra; izan ere, mugimenduak ekintza behar du, eta mugimendua, ekintzarik gabe, intentziorik gabeko mugimendua izan daiteke. Horrenbestez, gure ikas arloaren muina ekintza motorra da, eta erabakiak daude ekintza motorren atzean. Erabakiak asmo zehatza, helburua, intentzioa bilatzen du, eta hortik sortzen da jokabide motorra.

*Jokabide motorra eta sena.* Pertsonen motrizitateak lotura zuzena du gizakion biziraupenarekin, eta geure baitan sen hutsez “programatuta” daramatzagun erabakietan datza. Geure burua arriskuan hautesmaten dugun bezain laster, gure burmuinak (linbikoa) erabaki motorra transmititzen du, egoera horri buruz era arrazionalen pentsatzeko aukera izan baino lehen. Ziurgabetasuna mekanismo linbikoa mar-txan jartzeko bidea da. Egoerak bizi ahala, ziurgabetasun eremua gero eta txikiagoa da, eta, ondorioz, gure erabaki motorrak askoz ere neurtuagoak izaten dira.

### ***Komunikatzen ikasi***

*Jokabide motorra, komunikazioaren laguntzailea.* Jokabide motorra komunikaziorako oso bide garrantzitsua da. Gure gizarteak garrantzi handiagoa ematen dio hitzari jokabide motorrari baino. Soin adierazpen praxemikoa ezinbesteko baldintza da modu asertiboan komunikatzeko.

*Jokabide motorra, bestearen onarpenerako bidea.* Pertsonaren garapen osoa bermatzeko ez da nahikoa garapen psikomotorra lantzea. Ezinbestekoa da ingurune sozialaz eta fisikoaz jabetzea. Garapen soziomotorea, beraz, ezinbesteko baldintza da orekan oinarrituriko garapena lortzeko.

### ***Elkarrekin bizitzen ikastea***

*Jokabide motorra eta elkarrekin bizitzea.* Jolas eta joko guztietan gertatzen den moduan, pertsonen arteko harremanetan zorrotz bete behar dira elkarbizitzarako arau jakin batzuk. Arau horiez gain, kanpoko elementuen eraginek etengabe moldatzen dute gure jarrera. Jolas eta jokoen arauen bidez, horien barne logika barneratzen eta errespetatzen dugu. Kanpo logika, berriz, jolasen eta jokoen inguruko unibertso sozialak osatzen du. Azken hori ez dago barne logika bezain arautua, baina eragin handia du jolas eta jokoetan.

*Jokabide motorra, herriaren kultura bizitzeko tresna.* Gure jokabide motorrak lotura handia du gure kultura tradizional eta sinbolikoarekin. Jolas eta jokoak dira horren adierazle. Jolas eta joko horien barne logika kulturaren sare sinbolikoaz baliatuz eraiki da. Joko eta jolas horiek kulturaren isla zuzenak dira. Pertsonen garapenak lotura estua du hizkuntzarekin eta kulturarekin, baina baita jokabide motor tradizionalarekin ere; hau da, etnomotrizitatearekin.

***Euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren arteko integrazioa eta oreka.*** Kirola jolas eta jokoen perspektibatik aztertuz gero, jarduera ludikoen eta kulturen arteko loturak bistaratuko ditugu. Ikuspuntu



hori hartuz gero, jolas eta jokoen heterogeneizazioa bultzatzeaz gain, herrien kulturen arteko errespetua lantzen da. Kultura batzuk ez dira beste batzuk baino hobeak; kulturak ondasun unibertsalak dira, eta horiek errespetatzea da kultura guztien arteko oreka lortzeko bidea. Euskal zein munduko jolas eta jokoa bide egokiak dira ikasleak horretaz jabe daitezen.

### ***Egiten eta ekiten ikastea***

*Jokabide motorra, bizitza ludikotasunaren perspektibatik aztertzeo filosofia.* Bizitzan, ludikotasuna egunekotasunaren iluna argitzea bezalakoa da. Gizakiak une gogorrei, une monotonoei aurre egiteko egoera atseginak asmatzen ditu. Indartzeko gaitasuna duten egoerak dira. Ludikotasunak imajinazioa elikatzen du, erabakiak hartzeko gaitasuna indartzen du eta harremanak errazten ditu. Ludikotasunak, beraz, pertsonen autonomia eta konfiantza indartzen ditu. Gainera, ludikotasuna oso tresna egokia da gatazkak konpontzeko.

## **6.2.- ARLOAREN KONPETENTZIA OROKORRAK**

### **1.- Emozioek sorrarazten dizkiguten aldaketak identifikatzea, halaber, izaten ditugun aldaketa fisiologikoak interpretatzea, eguneroko bizitzara horien transferentzia egitean, gure jokabide motorra ahalik eta orekatuena izan dadin.**

Jokabide motorra ezin da soilik mugimenduaren ikuspegitik aztertu. Ekintza motorrak egiteari dagokionez, mugimenduen azterketa biomekanikoa egitea lagungarria izan daiteke, horien alderdi teknikoa perfektionatzeko. Jokabide motorrak, berriz, mugimenduaz gain, mugimenduok egiteko intentzioa eskatzen du. Egoeren azterketaren eta egin nahi den mugimenduaren arteko harmonia lortu behar da. Emozioek erabat baldintzatzen dute jokabide motorra. Funtsezkoa da burmuin linbiko eta kortikalaren artean dagoen harremana eta horiek martxan jartzen dituzten mekanismo fisiologikoak ezagutzea, gure jokabide motorra orekatua izan dadin. Eutonia egunero erabiltzen dugun zerbait izatea lortu behar genuke.

### **2.- Elkarrekintza motorra komunikazioaren oinarria izatea, eta, beste pertsona batzuen eta nire arteko komunikazioaren barruan, besteek egiten dituzten adierazpen motorrak irakurtzea, adierazpen horien bidez lortu nahi diren helburuak bete ditzan harremanak.**

Besteen emozioak ulertzea eta nire emozioak horien arabera kudeatzea da asertiboa izatea. Hauek dira harremanak asertibitatean oinarritzen dituzten pertsonen ezaugarriak: besteei entzuten dakite, aholkulari onak dira, eta sostengu morala ematen dute. Pertsonak ez dira soilik hitzen bidez komunikatzen. Sarritan, azterketa proximikoaren bitartez eta gu konturatu gabe ere, beste pertsona batek adierazitako



hainbat mezu kaptatzen ditugu (horiek modu kontzientean irakurtzea litzateke egokiena), hura hizketan hasi aurretik. Elkarrekintza motorra da, beraz, komunikazioaren oinarria.

**3.- Jokabide motorra unibertso kulturalaren (etnomotrizitatea) ikuspegitik ulertzea, halaber, jokabide motor orori sare sinboliko bat (espazioa, denbora, besteak, objektua) lotzen zaiola deskubritzea, eta, horretaz jabetuta, euskal kulturaren baloreak zein kanpoko kulturen baloreak errespetatzea eta balioestea.**

Praxi motor orok ingurunearen ezaugarriak biltzen ditu bere baitan, bai ingurune fisikoarenak, bai sozialarenak, bai kulturalarenak. Pertsonen nortasuna ingurune horri etengabe emandako erantzunen bitartez osatzen da. Horretan ere, ludikotasunak, jokabide motorraren bitartez, ingurunearen baldintzak eszenifikatzen ditu; izan ere, jolasek eta jokoek unibertso kulturala transmititu dezakete. Jolas eta joko-en bitartez, euskal kulturaren balioaz jabetu daitezke ikasleak; eta hori da, hain zuzen, gainerako kulturak onartzeko eta errespetatzeko lehenengo urratsa.

**4.- Ludikotasuna elkarrekintzaren ardatza izatea eta pertsonen arteko komunikazio ludikoaren indarra ulertzea, eguneroko bizitzako arazoan aurrean azterketa egokiak egiteko eta erabaki baikorrak hartzeko.**

Jolasak eta jokoak, maiz, adin jakin batzuekin lotzen dira. Prozesu progresibo batekin identifikatzen da; hau da, haurrak jolasten dira, ume/gazteek jokutzen dute eta helduok kirola egiten dugu. Ludikotasuna, berriz, ez dator bat ikuspegi horrekin. Bizitzak, askotan, erritmo eta presio bortitzak ezartzen dizkigu. Egoera horien aurrean, ludikotasuna teknika moduko bat da (hormonak jariatzen dira), egoera fisiologiko jakin bat sortzeko. Horren bidez, egoera atseginak bizitzearen sentsazioan murgiltzen gara. Ludikotasuna da gure bizitzan kalitatezko harremanak izateko baldintza.

**5.- Espazioaren ziurgabetasuna pedagogikoki erabiltzea, eta ziurgabetasun horrek sorrarazten dizkigun aldaketa emozionalak interpretatzea, eguneroko bizitzaren ziurgabetasunak sortzen dizkigun zalantzei ahalik eta erantzun zuzen eta neurritsuenak emateko.**

Erabakiak hartu behar direnean, pertsona batzuk ausartak izaten dira, eta beste batzuk, berriz, ez hainbeste. Zenbait pertsonak muga batzuen barruan hartzen dituzte arriskuak, eta, beste batzuk, berriz, gai dira laguntzarik gabe aurrera egiteko. Arrisku handiegiak hartuz gero, ondorioak latzak izan daitezke. Arriskua muturrera eramateak perilaren eremura garamatza, eta eremu horretan inor ez da bere erabakien jabe.

Espazioaren ziurgabetasunak erabakiak hartzea eskatzen digu etengabe. Arrisku egoerek burmuin linbikoaren “argi gorria” pizten dute, eta, bide pedagogikoa jorratuz gero, gure emozioak interpretatzen eta kontrolatzen lagundu diezagukete egoerok.





**6.- Osasuna bere osotasunean ulertzea eta lantzea, eta osotasun horrek dituen ezaugarriak (fisiologikoak, biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, psikologikoak, higienekoak, dietetikoak, eta abarrekoak) ezagutzea, bizitza orekatua izateko.**

Osasuna osotasunetik dator. Osotasun hori urratzen bada, osotasun horrek ez dio orekari eusten. Gure gizarteak, askotan, aurreiritzietan oinarrituriko kontzeptuen bidez osatzen du osasunaren irudi idealala. Gure gizarteak irudi fisiko idealaren patroia, elikadura azkarra eta hiperaktibitatea lehenesten ditu, besteak beste; eta osasunaren ikuspegi horrek goitik behera baldintzatzen du gure osasuna. Jokabide motorrak bere baitan bildu behar du osasunaren osotasuna.

**7.- Gaitasun eta trebetasun fisikoak jokabide motorraren lagungarri izatea, halaber, gaitasun eta trebetasun horiek haur eta gazteen bilakaera ebolutiboarekin batera garatzea eta susper-tzea, soinaren plastizitateak pertsonaren natura primarioarekin bat egin dezan.**

Pertsonak, berez, prozesu ebolutibo bati jarraituz hezten dira. Prozesu ebolutibo hori mugatua da, eta lotura zuzenak ditu pertsonen barne ezaugarriekin eta ingurunearen ezaugarriekin. Prozesu horretan mutaziorik gertatzen ez bada, pertsonak beren natura primarioarekin bat egiten dutela esango dugu. Ildo horretatik, psikomotrizitatea eta soziomotrizitatea oinarritzko baldintzak dira pertsonak bere natura primarioarekin bat egin dezaten, eta pertsonen gaitasunak eta trebetasunak garatzea funtsezkoa da bizitzaren ibilbidean hausturik gerta ez dadin. Kirolaren ikuspegitik, gaitasunak eta trebetasunak kirolaren zerbitzura jartzen dira. Gure planteamendua bestelakoa da: jolas eta jokoei pertsonen gaitasunak eta trebetasunak lantzeko aukera eman behar dute.

### 6.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK

“Soin Heziketa” deitu dugun ikas arloari dagokionez, ez dago adostasunik ez ikas arloaren izenari buruz (Gorputz Hezkuntza, Hezkuntza Fisikoa, Kirol Hezkuntza...), ezta hura osatzen duten eduki blokeei buruz ere. “Soin Heziketa” kontzeptuak bi ezaugarri nagusi ditu; batetik, gorputza, hau da, pertsonaren osotasunaren zati bat (giharrak, hezurdura...); eta, bestetik, mugimendua. Guri dagokigunez, praxiologia motorraren bideari heldu diogu, eta ekintza motorra da gure ikuspegiaren oinarria. Praxiologia motorrak, hezkuntza arloan, zenbait baliabide ematen dizkigu geure buruarekin eta gure inguru sozial, kultural zein fisikoarekin harmonian bizitzeko.

Ildo horri jarraituz, eduki bloke hauek proposatzen ditugu:

1.- Nork bere buruaren ezagutza



- 2.- Nork bere buruaren kontrola
- 3.- Komunikazio motorra
- 4.- Osasuna
- 5.- Etnomotrizitatea
- 6.- Ludikotasuna

### 6.3.1.- Jarrerazko edukiak

1. **Asertibitatea:** iritziak, asmoak, sentimenduak eta emozioak adieraztea eta entzutea.
2. **Errespetua:** beste pertsona batzuen presentzia eta horien jarrerak eta emozioak errespetatzea. Taldearen kohesioa errespetatzea. Ingurune fisikoa eta kulturala errespetatzea.
3. **Kritikotasuna:** egoerak aztertzeko eta jarduerak aurrera eramateko, horien zergatiak eta esanahi eta aldagai guztiak ulertzen ahalegintzea.
4. **Ardura:** arduratsua izatea materialarekin eta gainerako kideekiko harremanarekin, eta egin beharreko jarduerak arduraz egitea.
5. **Partehartzea:** jardueretan parte hartzeko behar den dinamismoa erakustea.
6. **Erabakia:** arriskuen tamaina nolakoa den jakitea, eta horien arabera erabaki ahalmena izatea.
7. **Sormena:** arazo baten aurrean, irtenbide berriak bilatzen saiatzea.
8. **Autonomia:** nork bere buruan konfiantza izanda, egoera ezberdinetan nork bere iritzia, taktika eta estrategia izatea.
9. **Nork bere buruaren kontrola:** kanpoko zein barne estimuluen aurrean, emozioak orekaz kudeatzen saiatzea.
10. **Sentsibiltatea:** norberaren eta gainerako pertsonen emozioekiko sentsibiltatea erakustea. Ingurune fisikoarekiko eta kulturalarekiko sentsibiltatea erakustea.
11. **Ahalegina:** ezagutzeko eta esperimintatzeko etengabeko jakin-mina erakustea.

### 6.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak:

#### 1. NORK BERE BURUAREN EZAGUTZA

##### Kontzeptuzko edukiak

1. **Sentipenak ezagutzea:** haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poztasuna, alaitasuna, maitasuna, gorrotoa, harridura, mespretxua, lotsa.
  - Sentipen kategoriak: depresiboak eta pizgarriak.
  - Mekanismo fisiologikoa:bihotz taupaden azkartasuna, arnas erritmoaren azkartasuna, sistema hormonalaren aktibazioa
2. **Soina:**
  - Soin eskema
  - Lateralitatea eta lateralizazioa
  - Koordinazioa
3. **Soina eta sentipena:**
  - Arnas aparatua
  - Bihotza eta odolaren zirkulazioa
  - Sistema hormonala
  - Bihar sistema

##### Prozedurazko edukiak

1. Soin eskema
  - Egoera estatiko batean, beste pertsona baten posizioari begiratzeko arauak
  - Egoera dinamiko batean, beste pertsona baten mugimenduei begiratzeko arauak.
  - Besteen zein norberaren eskema behatzeko teknikak.
  - Soinaren atalak deskribatzeko protokoloa
2. Lateralitatea eta lateralizazioa
  - Eskuak/besoak era lateralizatuan erabiltzeko jarraibideak
  - Begiak era lateralizatuan erabiltzeko jarraibideak
  - Oinak/hankak era lateralizatuan erabiltzeko jarraibideak
  - Soinaren bira era lateralizatuan egiteko jarraibideak
  - Lateralitatearen osagai guztiak era koordinatuan erabiltzeko teknikak
  - Nola eskuratu lateralizazio teknikak
3. Koordinazioa
  - Koordinazio eskatzen duten mugimendu konplexuak egiteko aholkuak



### 1. NORK BERE BURUAREN EZAGUTZA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
	4. Oinarrizko sentipenak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko sentipenak sailkatzeko irizpideak</li> <li>- Sentipen bakoitzak dituen ondorio motorrak behatzeko eta sailkatzeko arauak</li> <li>- Neurri gabeko sentipenak behatzeko teknikak</li> </ul>

### 2. NORK BERE BURUAREN KONTROLA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<b>1. Sentipenak eta erregulazioa</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erregulazioa barrura begira               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnas aparatua funtzioak: burmuina oxigenatzea, giharrak oxigenatzea, prozesu metaboliko aerobioa</li> <li>• Arnas aparatua eraginak: esfortzu aerobioa, giharren tonusa, hormonon erregulazioa, ongi izatearen sententzia</li> </ul> </li> <li>- Erregulazioa kanpora begira               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gihar sistemaren aldaketak:</li> <li>• Tonus posturala</li> </ul> </li> </ul>	1. Sentipenekin lotuta dauden aldaketa fisiologikoak konparatzeko eskema 2. Sentipenak aldaketa fisiologikoen bidez erregulatzeko eta behatzeko jarraibideak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Behaketa introspektiborako (barnera begira) jarraibideak.               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arnasketa</li> <li>• Odolaren zirkulazioa eta bihotzaren taupadak</li> <li>• Sistema hormonala</li> </ul> </li> <li>- Behaketa extrospektiborako (kanpora begira) jarraibideak.               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Giharren tonusa</li> <li>• Posturaren behaketa</li> </ul> </li> </ul>

### 3. KOMUNIKAZIO MOTORRA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<b>1. Komunikazio motorren ezaugarriak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Praxema</li> <li>- Gestema</li> <li>- Proxemika</li> </ul> <b>2. Irakurketa motorra</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Posturen irakurketa:               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintzarekin lotuta dauden postura estatikoak</li> <li>• Ekintzarekin lotuta dauden postura dinamikoak</li> </ul> </li> <li>- Sentipenen irakurketa               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Oinarrizko emozioekin lotutako posturak</li> </ul> </li> </ul> <b>3. Adierazpen motorra</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adierazpen posturala</li> <li>- Sentipenen adierazpena</li> </ul>	1. Komunikazio motorra ulertzeko jarraibideak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Praxema irakurtzeko teknikak</li> <li>- Praxemak ezkutatzeko (gestema) teknikak</li> <li>- Ingurune fisiko irakurtzeko teknikak (proxemika)</li> </ul> 2. Komunikazio motorra adierazteko jarraibideak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Praxemak adierazteko teknikak</li> <li>- Praxemak ezkutatzeko (gestema) teknikak</li> </ul> 3. Gihar tonusa eta sentipenak adierazteko jarraibideak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Soinaren posturak behatzeko eta interpretatzeko teknikak</li> </ul>

### 4. OSASUNA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<b>1. Testuinguru integrala</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren sistema</li> <li>- Gorputzaren osotasuna</li> <li>- Gorputzaren zikloak</li> <li>- Gorputzaren oreka</li> </ul> <b>2. Testuinguru anitza</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren beharrak</li> </ul>	1. Egunero gure osasunak duen bilakaera behatzeko protokoloa 2. Gure gorputzak egunaren zehar dituen beharrak deskribatzeko protokoloa. 3. Osasuna bere zikloi erreparatuz konparatzeko jarraibideak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egunak</li> </ul>



#### 4. OSASUNA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputza makina (hezurdura, giharrak ...)</li> <li>- Gorputz konbustioa (sistema energetikoa, elikadura, dietetika)</li> <li>- Gorputza eta ariketa fisikoa</li> <li>- Gorputza, emozioak eta sentipenak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ilargiaren zikloak</li> <li>- Urtaroak</li> <li>- Pertsonen aroak</li> <li style="padding-left: 20px;">Bizitza osoa</li> <li>4. Osasun orekatua zer den interpretatzeko eta zehazteko jarraibideak</li> <li>5. Norbere osasuna ebaluatzeke jarraibideak</li> </ul>

#### 5. ETNOMOTRIZITATEA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Jolas eta joko tradizionalak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare sinbolikoak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Denbora</li> <li>• Espazioa</li> <li>• Gainerako pertsonak</li> <li>• Objektua</li> </ul> </li> </ul> <p><b>2. Euskal jolas eta joko tradizionalaren ezaugarriak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Soin Jarduerak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolas eta joko kognitiboak</li> <li>• Jolas eta joko motorrak</li> <li>• Jolas eta joko mistoak</li> </ul> </li> </ul>	<p>1. Jolas eta jokoak ondare kulturala dela ulertzeko eta behatzeko protokoloa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kulturaren adierazpen ludikoak sailkatzeke irizpideak.</li> <li>- Kulturen artean adierazpen horrek dituen ezberdintasunak konparatzeko jarraibideak.</li> </ul> <p>2. Jokabide motorra eta horri dagozkion sare sinbolikoak ulertzeko eta deskribatzeko jarraibideak</p>

#### 6. LUDIKOTASUNA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Ludikotasun kontzeptua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ludikotasunaren eraginpeko arloak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Fisiologikoa</li> <li>• Emozionala</li> <li>• Soziala</li> </ul> </li> <li>- Ludikotasunaren ondorioak <ul style="list-style-type: none"> <li>• Fisiologikoak</li> <li>• Emozionalak</li> <li>• Sozialak</li> </ul> </li> </ul> <p><b>2. Jolas eta jokoen barne eta kanpoko logika</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Barne logika <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezaugarriak: arauak, etab.</li> <li>• Helburuak: jolas librea joko arautua bihurtzea (ondoren, instituzionalizatua edo kirola)</li> <li>• Jokoa arautzea</li> <li>• Eragina: norberaren inpulsoak normetara moldatzea</li> <li>• Egitura: kultura-gizartea, eskola, herriko taldeak, kirol taldeak edo federazioak...</li> </ul> </li> <li>- Kanpo logika <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ezaugarriak: jolasei eta jokoari eragin eta arauekin zerikusirik ez duen guztia</li> <li>• Helburuak: gizarte eta kultura batean integratzea</li> <li>• Eragina: jokabide motorrean</li> <li>• Egitura: eragile sozialak, gizartea eta kultura</li> </ul> </li> </ul>	<p>1. Jolas eta jokoek pertsonengan duten eragina behatzeko eta sailkatzeke jarraibideak</p> <p>2. Jolas eta jokoek taldeengan duten eragina behatzeko eta sailkatzeke jarraibideak</p> <p>3.- Komunikazioan ludikotasuna erabiltzeke teknikak</p>



## ERANSKINA

### Soin jardueren sailkapen orientagarria

#### Sarrera: aipamen garrantzitsua

Sailkapenak egitea arriskutsua izan daiteke. Izan ere, sailkapen batek helburu jakin bati erantzuten dio. Hemen egingo dugun sailkapenak jardueri erantzuten die, eta ez jarduera horiekin landu eta lortu nahi diren helburuei. Esaterako, txingak leku batetik bestera garraiatzeak ez du zentzu handirik ikuspuntu hezitzailetik; alabaina, jarduera hori testuinguru kultural batean txertatzen bada, beste esanahi pedagogiko bat har dezake.

Horrekin batera, jarduera guztietan landu behar da alderdi emozionala.

Horrelako sailkapen batean ez da inon azaltzen adimen emozionala nola landuko den; horregatik, jarduera batek duen ziurgabetasunari erreparatuta -bai ziurgabetasun soziomotorra, bai psikomotorra, bai bestelakoa-, jarduera aberatsagoa edo pobreaagoa izango da adimen emozionala lantzeko, hainbat ezaugarrien arabera.

Garrantzia handia ematen diogu sarrera honetan adierazitakoari, eta, ildo horretatik, hau esan nahi dugu, amaitzeko: zerrendan adierazitakoa ezinbestez lotu behar da Soin Heziketa arlorako proposatzen ditugun eduki multzoekin.

#### Euskal Soin Jarduerak

Ondorengo sailkapenaren bitartez, Euskal Soin Jarduerekin lotura duten ekintzak azaltzen ditugu.

Sailkapen honen asmoa ez da, besterik gabe, zerrenda batea, konbinazioak egiteko aukera emango duen tresna izatea baizik. Horrenbestez, ekintzak 5 ezaugarri hauen arabera aztertu ditugu:

- Soziomotrizitatea
- Psikomotrizitatea
- Ziurgabetasuna
- Kidea
- Aurkaria

Horrela, curriculumak era koherente eta orekatuan osatuko dituzte irakasleak, eta beti egongo da bermatuta ikuspuntu pedagogikoa.

#### Nazioarteko eta beste kulturetako jolasak eta jokoak

Soin Heziketa arloko curriculumak zehaztean, garrantzia handia eman behar zaie kanpoko jolasei eta jokoei ere. Kanpoko jolas eta jokoak bi ataletan banatu ditugu: batetik, beste herri batzuen kulturetako jolasak eta jokoak; eta, bestetik, munduan zabaldua dauden hainbat jarduerari erreparatuz, jarduera horiek (futbola, saskibaloia, errugbia, hockeya, waterpolo, etab.) trebetasunak lantzeko ematen dizkiguten aukerak.

Multzoak	Atalak	Jarduerak	Ekintzak	S	P	Z	K	A <sup>2</sup>			
1	1	Espazioaren antolaketa	1 Ikusmena	1 Orientazio lasterketa	x	x	x	x	X		
			2 Entzumena	2 Artzain zakur jokoak	x		x	x	X		
	2	Dimentsio kognitiboa	3 Mahai jolas / jokoak	3 Musa	x			x	X		
			4 Hitz jolasak	4 Bertsolaritza / Asmakizunak		X		x	X		
2	3	Ekintzak	5 Tira	5 Sokatira	x			x	X		
				6 Giza proba	x			x	X		
				7 Arraun	x	x	x	/	X		
				8 Lasto altxa	x				X		
				9 Trontza		x		x	X		
			6	Korri	10 Zaku proba	x			x	X	
					11 Orientazio lasterketa	x	x	x	x	x	
					12 Lokotxak		x		x	X	
					13 Zaku lasterketa		x			X	
			7	Jauzi	14 Saltari makila		x			X	
					15 Salto luzea		x			X	
					16 Txingak		x			X	
			8	Altxa	17 Harria jaso		X			x	
					18 Belar jaurtiketa		x			X	
					19 Ingudea		x			X	
					20 Orga jokoak		x			X	
			9	Jaurti	21 Palanka		x				X
					22 Boloak		x				X
					23 Toka		x				X
					24 Pilota	x			/	x	
10	Bultza	25 Aizkora	x	x	/	x	X				
		26 Segua	x	x	/	x	X				
11	Zintzilika / Oreka	27 Laia lasterketa		x				X			
		28 Kukaina (horizont., bertik.)		X							
		29 Eskalada	x	x	x	X					
3	4	Adierazpena eta komunikazioa	12 Jolas eta jokoak erritmoa erabiliz	30 Biribilketak	x			X			
				Saint Petite dantza							
			...								

<sup>2</sup> S = Soziomotrizita, P = Psikomotrizita, Z = Ziurgabetasuna, K = Kidea, A = Aurkakoa



## 6.4.- KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Kompetentzia espezifikoak	Kompetentzia orokorrak							Eduki multzoak						Garran. (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	6	7	1	2	3	4	5	6	
1 Oinarrizko sentipenak* identifikatzea, eta sentipen horien mekanismoa nolakoa den bizitzea eta beste pertsona batzuei adierazten jakitea. *: haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poztasuna, alaitasuna, maitasuna, gorrotoa, harridura, mespretxua, lotsa.	X							X		X				1
2 Oinarrizko sentipenak fisiologikoki sorrazten dituzten aldaketak ezagutzea, eta, sintoma horien arabera, hautematen diren emozioak errespetatzea eta horien adierazpenak kontrolatzea.	X							X	X	X				1
3 Soinaren tonusa neurtzen jakitea, eta egin beharreko ekintzarako tonus egokiena aukeratzea.	X	X						X		X				1
4 Tonus jakin bat izateak komunikaziorako duen garrantziak jabetzea eta tonus hori lortzea.	X	X						X	X	X				1
5 Jolas eta jokoak adierazle sinbolikoak dituztela aztertzea, eta horiek komunikaziorako duten balioaren transferentzia egitea bizitza arruntera.		X	X	X						X			X	2
6 Erabakiak hartzeko, erabakiaren prozesu osoa (egoera eta balizko erantzunaren aldagaiak aztertzea, emaitza aurreikustea, aukera guztien artean bat hautatzea eta ekitea) ezagutzea eta tenpo bat baino gehiagotan praktikan jartzea (berehala, lasaitasunez...).	X	X						X	X					1
7 Egoera ludiko guztietan erabiltzen dira gestemak eta praxemak. Egoera ludiko horietatik transferentziak egitea eguneroko bizitzara; hau da, bestearen postura, portaera zein jarrera interpretatzea eta, interpretazio horren arabera, erabaki bat hartzea.		X		X						X				1
8 Euskal kulturaren esparru ludikoak duen presentzia ezagutzea, eta umorea lantzea eta erabiltzea pertsonen arteko komunikazio bide izateko.		X	X	X								X	X	2
9 Euskal Herriko bazterrek ematen dituzten aukerak erabiltzea, eta horietan egin daitezkeen jardueren bitartez, trebetasunak esperimintatzea eta lantzea.					X		X				X	X		2
10 Euskal tradizio ludikoa (dantza, inauteriak, jokoak...) ezagutzea eta interpretatzea.			X	X								X	X	1
11 Munduko tradizio ludikoak ezagutzea eta interpretatzea.			X	X								X	X	3
12 Gure gizartean osasunari buruz dagoen ikuspuntua era kritiko eta autonomoan aztertzea.						X					X			1
13 Osasuna euskararen eta euskal kulturaren ikuspuntutik ikertzea eta adieraztea.			X			X					X	X		2
14 Osasunaren ezaugarriak adieraztea eta horiek garrantziaren arabera sailkatzea.						X					X			1
15 Osasun orekatua izateko, osasunaren ezaugarriak nola uztartu behar diren ikertzea eta barneratzea.						X					X			2
16 Gaitasun eta trebetasun fisikoak zerrendatzea eta horien ezaugarri fisiologikoak azaltzea.							X				X			3
17 Hainbat ekintza jokoren bitartez, gaitasun eta trebetasun fisikoak esperimintatzea eta lantzea.				X			X				X		X	1

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



## 6.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>1 Oinarrizko sentipenak* identifikatzea, eta sentipen horien mekanismoa nolako den bizitzea eta beste pertsona batzuei adierazten jakitea.</p> <p>*: haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poztasuna, alaitasuna, maitasuna, gorrotoa, harridura, mespretxua, lotsa.</p>	<p>1.1. Gaiari arreta jartzen dio eta errespetuz jarraitzen du.</p> <p>1.2. Gai da sentipenak hitzen bitartez adierazteko.</p> <p>1.3. Sentipenak nolakoak diren beste kide bati adierazten (praxema) eta azaltzen daki (hitzez).</p> <p>1.4. Badaki jolasetan eta jokoetan bizitzen diren sentipen aldaketak eta emozioak berak behatzen eta izendatzen (espazioaren ziurgabetasuna erabiliz).</p>
<p>2 Oinarrizko sentipenak fisiologikoki sorrarazten dituzten aldaketak ezagutzea, eta, sintoma horien arabera, hautematen diren emozioak errespetatzea eta horien adierazpenak kontrolatzea.</p>	<p>2.1. Gai da, eskema baten bitartez, sentipen bakoitzak fisiologikoki duen eragina adierazteko.</p> <p>2.2. Badaki bizitako sentipen kontrolaezinak era zehatzean azaltzen.</p> <p>2.3. Sentipenak kontrolatzeko hartu beharreko neurri fisiologikoko zerrendatzen eta azaltzen ditu.</p> <p>2.4. Taldeko eta espazioaren ziurgabetasuna erabiltzea eskatzen duten jolas eta jokoetan, sentipenen aldaketez jabetzen dela erakustez gain, horien aldaketak kontrolatzen dituela erakusten du.</p>
<p>3 Soinaren tonusa neurtzen jakitea, eta egin beharreko ekintzarako tonus egokiena aukeratzea.</p>	<p>3.1. Badaki zer den tonusa eta adierazteko gai da.</p> <p>3.2. Tonus bat baino gehiago esperimintatu ondoren, egoera emozionalekin lotzen ditu.</p> <p>3.3. Zenbait ekintza motor egiten ditu, tonusa aztertzeke.</p> <p>3.4. Ekintza bakoitzak eskatzen duen tonusa aukeratzen du.</p> <p>3.5. Jolasek eta jokoek eskatutako ekintzak egiteko behar diren tonusak hartzen ditu.</p>
<p>4 Tonus jakin bat izateak komunikaziorako duen garrantziaz jabetzea eta tonus hori lortzea.</p>	<p>4.1. Komunikazioan praxemek eragiten duten tonusa eta horiek irakurri ondoren izan beharreko jarrera hartzen du.</p> <p>4.2. Emozioen eta tonusen arabera gerta daitezkeen komunikazio egoerak zerrendatzen eta sailkatzen ditu.</p> <p>4.3. Zerrendatutako eta sailkatutako komunikazio motak errepresentatzen ditu.</p>
<p>5 Jolas eta jokoak adierazle sinbolikoak dituztela aztertzea, eta horiek komunikaziorako duten balioaren transferentzia egitea bizitza arruntera.</p>	<p>5.1. Jolas eta joko tradizionalak duten sare sinbolikoa sailkatu ondoren, zuzenean lotzen ditu Euskal Herrian ditugun jolas eta jokoekin.</p> <p>5.2. Badaki komunikazioa hiru aldagai hauen arabera aztertzen joko eta jolasetan: bakarka/kidearekin, aurkariarekin/gabe, ziurgabetasunarekin/gabe.</p>
<p>6 Erabakiak hartzeko, erabakiaren prozesu osoa (egoera eta balizko erantzunaren aldagaiak aztertzea, emaitza aurreikustea, aukera guztien artean bat hautatzea eta ekitea) ezagutzea eta tempo bat baino gehiagotan praktikan jartzea (berehala, lasaitasunez...).</p>	<p>6.1. Mugimendu sinpletik konplexura, mugimendu baten azalpen osoa eman ostean (jauzi bat, oreka mugimendua, dantza pauso bat...) erabakitze prozesua martxan jarri eta mugimendua egiten du.</p> <p>6.2. Ariketak eta arazoak konpondu eta ebazten ditu, egoera ezezagunetan (memoriaren erreperitorioan gordeta ez daudenetan); alegia, espazio ez egonkorra, ez formala eta ez estandarizatueta.</p> <p>6.3. Eskema baten bidez azaltzen du taldean sortutako arazoei irtenbidea emateko egin beharreko bidea.</p>
<p>7 Egoera ludiko guztietan erabiltzen dira gestemak eta praxemak. Egoera ludiko horietatik transferentziak egitea eguneroko bizitzara; hau da, besteren postura, portaera zein jarrera interpretatzea eta, interpretazio horren arabera, erabaki bat hartzea.</p>	<p>7.1. Jolas eta jokoetan, ulertzen rol praxiomotorraren kontzeptua, eta badaki jolas eta jokoetan izaten diren rol aldaketak behatzen eta zerrendatzen.</p> <p>7.2. Rol proxiomotor ezberdinetako praxemak sailkatzen eta interpretatzen ditu.</p> <p>7.3. Badaki gestemak erabiltzen, jolas edo jokoek eskatutako taktikaren arabera eta horietara egokitzen ditu ekintza erabakiak.</p> <p>7.4. Gestemaren eta praxemaren arteko ezberdintasunak eta loturak azaltzen ditu, zerrenda konparatiboak erabiliz.</p> <p>7.5. Antzezlanen bidez, praktikan jartzen ditu eguneroko bizitzako gestemak eta praxemak.</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
8 Euskal kulturaren esparru ludikoak duen presentzia ezagutzea, eta umorea lantzea eta erabiltzea pertsonen arteko komunikazio bide izateko.	<p>8.1. Badaki euskal kulturari dagozkion egoera ludikoak zerrendatzen eta horien jatorria azaltzen eta kokatzen.</p> <p>8.2. Umorearen nondik norakoak aztertzen ditu bertsolaritzan, antzerkian, dantzan eta beste arlo batzuetan; eta, arlo horietakoren bat aukeratuta, beste pertsona batzuen aurrean erabiltzen du umorea.</p>
9 Euskal Herriko bazterrek ematen dituzten aukerak erabiltzea, eta horietan egin daitezkeen jardueren bitartez, trebetasunak esperimintatzea eta lantzea.	<p>9.1. Zenbait leku/espazio egoera ludiko motorren bitartez ezagutu ondoren, badaki horiek Euskal Herriko mapan kokatzen.</p> <p>9.2. Behar bezala bereganatzen ditu leku/espazioek eskatutako trebetasunak</p> <p>9.3. Naturaren ziurgabetasuna onartzen du.</p>
10 Euskal tradizio ludikoa (dantza, inauteriak, jokoak...) ezagutzea eta interpretatzea.	<p>10.1. Garaian garaiko euskal tradizio ludikoak ezagutzen ditu, eta badaki zer ezaugarri izan behar diren horietan parte hartzeko</p> <p>10.2. Tokian tokiko euskal tradizio ludikoetan parte hartzen du, eta badaki horiek Euskal Herriko mapan eta urteko egutegian kokatzen.</p> <p>10.3. Euskal tradizio ludikoaren ezaugarriak interpretatzen eta balioesten ditu.</p>
11 Munduko tradizio ludikoak ezagutzea eta interpretatzea.	<p>11.1. Europako eta munduko beste herrietako tradizio ludikoak ezagutzen ditu eta badaki horiek praktikan jartzen.</p> <p>11.2. Munduko gainerako herrietako tradizio ludikoak balioesten eta interpretatzen ditu.</p>
12 Gure gizartean osasunari buruz dagoen ikuspuntua era kritiko eta autonomoan aztertzea.	<p>12.1. Osasunaren esanahi kontzeptuala azaltzen daki.</p> <p>12.2. Munduan zehar (gure gizartean barne) dauden osasun desorekak sailkatu ondoren, horien ondorio nagusiak azpimarratzen ditu.</p> <p>12.3. Identifikatzen ditu pertsonak izan behar dituzten ezaugarriak osasun orekatua izateko. Jarrera ez osasuntsuak ere identifikatzen ditu.</p>
13 Osasuna euskararen eta euskal kulturaren ikuspuntutik ikertzea eta adieraztea.	<p>13.1. Osasunaren inguruan Euskal Herrian dagoen tradizioa azaltzen daki.</p> <p>13.2. Gure gizartean eta kultura osasuna era orekatuan garatzeko behar diren baliabideak zerrendatzen daki.</p>
14 Osasunaren ezaugarriak adieraztea eta horiek garrantziaren arabera sailkatzea.	<p>14.1. Osasunari buruzko lan analitikoak egiteko interesa nabari zaio.</p> <p>14.2. Osasunaren ezaugarriak azaltzen daki.</p> <p>14.3. Badaki osasunaren azpimultzoak mapa kontzeptual batean adierazten.</p> <p>14.4. Azpimultzo bakoitzaren ezaugarriak ulertu eta barneratu ditu.</p> <p>14.5. Ikaslea gai da bere osasun ohiturak zerrendatzeko eta horien irakurketa kritikoa egiteko.</p>
15 Osasun orekatua izateko, osasunaren ezaugarriak nola uztartu behar diren ikertzea eta barneratzea.	<p>15.1. Badaki ezaugarri horien artean egin beharreko loturak eta lortu beharreko orekak adierazten.</p>
16 Gaitasun eta trebetasun fisikoak zerrendatzea eta horien ezaugarri fisiologikoak azaltzea.	<p>16.1. Indarra, abiadura, erresistentzia eta abar erabiltzen ditu, eta horien oinarri fisiologikoak ezagutzen ditu.</p> <p>16.2. Trebetasunak (jauzi egitea, jaurtitzea, jasotzea, bultzatzea, etab.) jolas eta jokoen bitartez garatzeko ohitura hartu du.</p>
17 Hainbat ekintza jokoren bitartez, gaitasun eta trebetasun fisikoak esperimintatzea eta lantzea.	<p>17.1. Esperimintazioari lehentasuna ematen dio, eta bere gaitasunak eta trebetasunak lantzeko balio duten hainbat jolas eta joko ezagutzen ditu.</p>





III ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

SOIN HEZIKETA ARLOA

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko konpetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina konpetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko konpetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko konpetentzia espezifikoa baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Emozioek sorrarazten dizkiguten aldaketak identifikatzea. Halaber, izaten ditugun aldaketa fisiologikoak interpretatzea, eguneroko bizitzara horien transferentzia egitean, gure jokabide motorra ahalik eta orekatuena izan dadin.					
2.- Elkarrekintza motorra komunikazioaren oinarria izatea, eta, beste pertsona batzuen eta nire arteko komunikazioaren barruan, besteek egiten dituzten adierazpen motorrak irakurtzea, adierazpen horien bidez lortu nahi diren helburuak bete dituzan harremanak.					
3.- Jokabide motorra unibertso kulturalaren (etnomotrizitatea) ikuspegitik ulertzea. Halaber, jokabide motor orori sare sinboliko bat (espazioa, denbora, besteak, objektua) lortzen zaiola deskubritzea, eta, horretaz jabetuta, euskal kulturaren baloreak zein kanpoko kulturen baloreak errespetatzea eta balioestea.					
4.- Ludikotasuna elkarrekintzaren ardatza izatea eta pertsonen arteko komunikazio ludi-koaren indarra ulertzea, eguneroko bizitzako arazoan aurrean azterketa egokiak egiteko eta erabaki baikorrak hartzeko.					
5.- Espazioaren ziurgabetasuna pedagogikoki erabiltzea, eta ziurgabetasun horrek sorrarazten dizkigun aldaketa emozionalak interpretatzea, eguneroko bizitzaren ziurgabetasunak sortzen dizkigun zalantzei ahalik eta erantzun zuzen eta neurritsuenak emateko.					
6.- Osasuna bere osotasunean ulertzea eta lantzea, eta osotasun horrek dituen ezaugarriak (fisiologikoak, biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, psikologikoak, higie-nekoak, dietetikoak, eta abarrekoak) ezagutzea, bizitza orekatua izateko.					
7.- Gaitasun eta trebetasun fisikoak jokabide motorraren lagungarri izatea. Halaber, gaitasun eta trebetasun horiek haur eta gazteen bilakaera ebolutiboarekin batera garatzea eta suspertzea, soinaren plastizitateak pertsonaren natura primarioarekin bat egin dezan.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Oinarrizko sentipenak* identifikatzea, eta sentipen horien mekanismoa nolakoa den bizitzea eta beste pertsona batzuei adierazten jakitea. *: haserrea, agresibitatea, tristura, beldurra, poztasuna, alaitasuna, maitasuna, gorrotoa, harridura, mesprexua, lotsa.					
2.- Oinarrizko sentipenak fisiologikoki sorrarazten dituzten aldaketak ezagutzea, eta, sintoma horien arabera, hautematen diren emozioak errespetatzea eta horien adierazpenak kontrolatzea.					
3.- Soinaren tonusa neurtzen jakitea, eta egin beharreko ekintzarako tonus egokiena aukeratzea.					
4.- Tonus jakin bat izateak komunikaziorako duen garrantziaz jabetzea eta tonus hori lortzea.					
5.- Jolas eta jokoak adierazle sinbolikoak dituztela aztertzea, eta horiek komunikaziorako duten balioaren transferentzia egitea bizitza arruntera.					
6.- Erabakiak hartzeko, erabakiaren prozesu osoa (egoera eta balizko erantzunaren alda-gaiak aztertzea, emaitza aurreikustea, aukera guztien artean bat hautatzea eta ekitea) ezagutzea eta tempo bat baino gehiagotan praktikan jartzea (berehala, lasaitasunez...).					
7.- Egoera ludiko guztietan erabiltzen dira gestemak eta praxemak. Egoera ludiko horietatik transferentziak egitea eguneroko bizitzara; hau da, bestearen postura, portaera zein jarrera interpretatzea eta, interpretazio horren arabera, erabaki bat hartzea.					
8.- Euskal kulturaren esparru ludikoak duen presentzia ezagutzea, eta umorea lantzea eta erabiltzea pertsonen arteko komunikazio bide izateko.					
9.- Euskal Herriko bazterrek ematen dituzten aukerak erabiltzea, eta horietan egin daitezkeen jardueren bitartez, trebetasunak esperimintatzea eta lantzea.					
10.- Euskal tradizio ludikoa (dantza, inauteriak, jokoak...) ezagutzea eta interpretatzea.					
11.- Munduko tradizio ludikoak ezagutzea eta interpretatzea.					
12.- Gure gizartean osasunari buruz dagoen ikuspuntua era kritiko eta autonomoan aztertzea.					
13.- Osasuna euskararen eta euskal kulturaren ikuspuntutik ikertzea eta adieraztea.					
14.- Osasunaren ezaugarriak adieraztea eta horiek garrantziaren arabera sailkatzea.					
15.- Osasun orekatua izateko, osasunaren ezaugarriak nola uzartu behar diren ikertzea eta barneratzea.					
16.- Gaitasun eta trebetasun fisikoak zerrendatzea eta horien ezaugarri fisiologikoak azaltzea.					
17.- Hainbat ekintza jokoren bitartez, gaitasun eta trebetasun fisikoak esperimintatzea eta lantzea.					
18.- Soin Heziketa Arloaren balorazioa oro har					



**Soin Heziketa arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 7.- GIZARTE ZIENTZIAK

### 7.1.- SARRERA

Gizarte Zientzien arlorako curriculum proposamenaren helburua ikaskuntza arloetako xedeak lortzen eta konpetentzia orokorrak garatzen laguntzea da. Zehatzago esanda, helburua ikasleei euren burua hobeto ulertzen laguntzea da: pertsona bakarrak dira, baina beste batzuekin batera bizi dira gizartean, eta hainbat taldetan antolatzen dira, helburuen edo mailen arabera (familia, eskola, bizilagunak, udalerría, nazioa, etab.). Helburua talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da, eta talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek elkarreragileak dira, urte luzeetan berrantolatu dira eta hainbat jatorritako (politikoak, ekonomikoak, sozialak, etnikoak, kulturalak, etab.) bizikidetzak gatazkak eta tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Beharrezkoa da gatazka horiei bake eta demokrazia prozesuen bidez aurre egitea. Beste helburu bat talde horiek hainbat behar dituztela ezagutzen laguntzea da, eta, behar horiek betetzeko, natur baliabideak erabiltzen dituztela, baina ez beti modu zentzuzkoenean; horretarako, etengabeko teknologia konkistak erabiltzen dituzte, eta aldaketa prozesu sakonak izaten dituzte antolakuntzan eta espazio harremanen sarean.

Gizarte Zientziak arloaren konpromisoa planteatutako gaiei buruzko arrazoizko interpretazioak aurkitzea da, eta interpretazio horiek beti hobe daitezkeela onartzea; horretarako, eskuragarri dauden informazio iturri onenak bilatu, depuratu, kritikatu, alderatu eta tratamendu sistematikoa emango diete. Planteamendu horretatik abiatuta, arloak ekarpen garrantzitsuak egin diezazkieke hezkuntza konpetentziei: pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi, egi-ten eta ekiten ikasi konpetentziei, alegia.

***Pentsatzen eta ikasten ikasi.*** Etengabe aldatzen ari den gizartean, herritar gisa bete-betean bizitzeko, edozein herritarrek ikas ditzakeen gizarte edukiak ikaragarri zabalak eta konplexuak izan ohi dira. Hori dela eta, curriculum proposamena gauzatzeko, eduki batzuk hautatu behar dira, eta testuingurura egokitu; beraz, ez dira gizarte eduki guztiak agortuko, ezta testuinguru guztiak ere. Horregatik da garrantzitsua oinarriko konpetentziak garatzea, ikaskuntza autonomoak gauzatzeko; ikaskuntza autonomo horrek honako hau emango die ikasten dutenei: ezagutza berriak, zaharrak berrikustea eta azalerritzen ari diren gizarte eta kultur testuinguruetara egokitzea. Gizarte Zientziek hartu duten interpretatzeko joerari erreparatzen badiogu,



gainera, gero eta beharrezkoagoa da eskolan bi metodo hauek lantzea: datuen azterketatik abiatutako arrazonomendu induktiboa, gizarte gertaeren eta egoeren interpretazioa osatzeko; eta arrazonomendu hipotetiko deduktiboa, horren bidez berri batzuetarako lehen azalpen hurbilpenak osatzeko.

Hori gutxi balitz, gizarte errealitateen azalpenak beti dira konplexuak eta zenbait ikuspegitatik landu daitezke; askotan, zenbait ideologiatatik eta korrante zientifikotatik lantzen dira –joerak eta aurreiritziak ez aipatzearren–. Horrek lan serioa eskatzen du, zergati askoko azalpen konplexuak emateko, pentsamendu erlatibistari buruz eta nor bere pentsaera eraikitzeke gaitasunari buruz, herritar bakoitzak bizi dituen gizarte errealitateetan oinarrituta.

Horregatik guztiagatik, arlorako proposamen horretan, garrantzi berezia dute jarrera eta kompetentzia instrumentalek, ikasleek gero eta autonomia handiagoz azter dezaten kritikoki gizarte errealitatea; hori zorrotasunez egin beharko dute, baita beharrezko apaltasunez ere. Arloaren helburua betetzeko, eduki batzuk hautatzen dira, eta ikasleek iraganetik jasotako gertaerei onartzeko moduko interpretazioak eman beharko dizkiete, egungo gizarte harremanetako arazoei eta gatazkei gero eta konponbide hobek emateko, eta gero eta globalagoa den gizarte batean kritikoki integratzearen erronkei aurre egiteko. Gizarte horretan areagotu egiten dira fluxuak, azkartu aldaketen erritmoak, eta beharrezkoa da, oro har, teknologiaren garapenera egokitzeko gaitasun ikaragarria izatea, eta, bereziki, informazioaren teknologia berrietara.

***Komunikatzen ikasi.*** Gizarteko kideak gara, besteekin bizi garelako eta besteekin harremanak ditugulako; harreman horiek komunikazioaren bidez izaten ditugu, hau da, hizkuntzen bidez. Haurrak garenetik, komunikazioaren bidez izaten ditugu gure afektuzko lehen harremanak hurbileko pertsonekin, komunikazioaren bidez adierazten ditugu gure beharrak eta emozioak, gure deserosotasunak, eta komunikazioaren bidez konpontzen ditugu besteekin ditugun gatazka txikiak. Komunikazioa ezinbesteko tresna da helduen gizartea ezagutzeko, eta, bertan, modu aktiboan eta kritikoki barneratzeko. Gure pentsamenduak, emozioak, beharrak eta kezkek jendeari eta gure taldeei eta erakundeei ongi eta ulertzeko moduan transmititzeko gai ez bagara, nekez izan dezakegu harreman eraikitzaile gainerakoekin. Gauza bera gerta dakiguke besteen mezuak (muina eta ñabardurak) interpretatzeko –kodean eta testuinguruan oinarrituta– gai ez bagara, eta ez badugu mezu horiek hartzeko jarrerarik.

Gizarte Zientziak arloak zeregin garrantzitsua du bai gizarteratze prozesuan, bai ikasleei gizarte ezagutzak lortzen laguntzen, eta funtzio garrantzitsua bete behar du komunikazio kompetentzietan.

Horregatik guztiagatik, arreta berezia jarriko da gizarte harremanetako egoeretara eta testuinguruetara egokitutako komunikazio kompetentzietan (elkarrizketak eta eztabaidak egoera bereko pertsonen artean, harremanak erakundeekin, etab.). Horretarako, hizkuntzak ongi menderatu behar dira, eta egoera bakoitzean portaera egokia izan. Iraganari eta orainari buruzko gizarte informazioaren hizkuntzak dekodetzeko kompetentzietan ere arreta berezia jarriko da; informazio hori dokumentu hauetatik lortu ahal izango da: zenbait motatako dokumentu historikoetatik, egungo arazoei buruzko ahozko eta idatzizko informazioetatik, mapetatik, estatistika tauletatik, diagrametatik, etab. Oso garrantzitsua izango da, halaber, idatzizko eta



ikus-entzunezko komunikabideen informazioa irakurtzeko eta interpretatzeko konpetentzia, baita komunikazio teknologia berrien bidez lor daitekeen informazioa depuratzeko konpetentzia ere.

**Elkarrekin bizitzen ikasi.** Hainbat curriculum arlok egin diezazkioke ekarpenak ikaskuntza arlo horri eta, beraz, ez dirudi gehiegizkoa baieztatzea Gizarte Zientziak arloak esparru horretan protagonismo berezia duela. Elkarrekin bizitzen ikasteko besteekin xedeak eta helburuak partekatu behar dira, baita aniztasunaz jabetu ere: sexu, arraza, kultura eta erlijio aniztasuna; ideia eta interes aniztasuna (askotan talka egiten dute); ekonomia egoeren eta hezkuntza eta sustapen aukeren aniztasuna; osasun baldintzen aniztasuna, etab. Gizarte Zientziak arloaren oinarriko lana injustizia eta desberdintasun egoeretan sakontzea da, horiek eragin ditzaketen gatazketan eta hori eragin edo gaizkitu dituzten arrazoi historikoetan edo egungo arrazoietan sakontzea, oinarriko pertenezia taldeetatik hasita. Oinarrikoa da, halaber, ikasleei hauen berri ematea: talde bakoitzak eratu dituen antolakuntza egituren eta arauen berri, era askotako beharrei eta interesei erantzuteko, aurkako interesak konpontzeko, balizko gatazkak prebenitzeko eta daudenak arautzeko eta administratzeko.

Arlo horretan egin beharreko lan garrantzitsu bat ikasleak euskal gizartean kritikoki eta modu eraikitzailean barnertzeko prozesuari laguntzea da. Euskal gizartea anitza eta kultur anitza da, iragan historiko luze eta konplexua du, eta iragan hori bezain konplexua da, gutxienez, oraina. Euskal gizarteak kultur eta hizkuntza sustraituak ditu, baina, hala ere, estatu eta erkidego historiko desberdinetan dauden lurralde historikoetan antolatuta dago. Gizarte horretan, beraz, edozein gizarteren tentsioez eta gatazkez gain, biztanleen arteko izaera eta pertenezia sentimendutik eratorritako zenbait tentsio eta gatazka ere badira. Testuinguru horretan, Gizarte Zientzien zeregina herritarrak hezten laguntzea izango da; herritarren nortasunetik abiatuz eta gainerakoena errespetatuz, gatazkak bakean eta demokratikoki konpontzeko gai izango diren herritarrak hezten laguntzea. Horrela, komunean dugunetik abiatuta (eta badugu), eta aniztasuna aberastasuna dela onartuz, etorkizun partekatua eraikitzea izango da helburua; etorkizun horrek berezko ezaugarriak izango ditu, baina besteei lotuta egongo da, solidarioa izango da eta etorkizunari ateak irekiko dizkio.

Hori horrela izan dadin, Gizarte Zientziak arloak ekarpenak egin diezazkioke hori gauzatzeko beharrezko portaeren garapenari. Zientzia bereziak dira; batetik, ez dira ziurtasun absolutuak sortzeko gai, baina, bestetik, interpretazio hobek eta zehatzagoak bilatzen dute. Horrek guztiak bizikidetzarako eta arazoak konpontzeko funtsezkoak diren bi jarrera lantzea errazten du. Antidogmatismoa da jarrera garrantzitsu bat. Gizarte Zientzien bidez ziurtasunak eta egia absolutuak lortzea ezinezkoa dela ikusten badugu –bilaketan arduratsuak eta zorrotzak badira ere–, ez du lekurik edozein motatako dogmatismok eta fanatismok. Beharrezkoa da umilak izatea, egia ez dugula onartzea, edo egia osoa, bederen, ez dugula. Hori onartuz gero, egoera hobean egongo gara elkarrizketa eraikitzaile bat izateko. Baina, bestetik, badakigu Gizarte Zientziek azalpen hobek eman ditzaketela lan zorrotza eta azterketen sakontasuna egiten bada, eta ezaugarri nagusietara mugatzen ez badira. Horregatik da garrantzitsua bigarren jarrera hori lantzea arlo horretan, hau da: zorrotasuna eta ñabarduren sakontasuna lantzea.



Horregatik guztiagatik, arlo honetarako proposatutako edukiak bideratuta daude ikasleei bizitzako gai garrantzitsuenei buruzko galderak egiten eta erantzun onargarriak bilatzen laguntzera, pertsonak edo taldekide diren eta askotan beste pertsonekin eta taldeekin gatazkan dauden aldetik. Horretarako, berea balioetsiz (hizkuntza, kultura, antolaketa) eta besteena errespetatuz biak integratzen saiatzen da; asmoa elkari egindako ekarpenak eta elkarreraginak aurkitzea da, baita ikasleei harremanetan eta bizikidetzan modu baketsuan eta errespetuz parte hartzeko estimulatzea ere.

Eta horrela izan dadin, bereziki lantzen dira bizikidetzan horri lagun diezaioketen jarrerak. Zehatzago esanda, elkarrizketarako eta ulertzeko gaitasun handia ematen duten jarrerak; jarrera horiek oinarri intelektuala dute (zorrotasuna azterketetan, zuhurtzia iritziak igortzeko orduan, ikuspegiak kontuan hartzeko gaitasuna, etab.).

**Norbera izaten ikasi.** Gizarte Zientziek ekarpen garrantzitsuak egin ditzakete, pertsona bakoitzak bere burua pertsona bakar eta errepikaezin gisa eraiki dezan, besteekiko harremanak kontuan hartuz. Biologia baztertu gabe, gizabanako bakoitzak bere nortasuna, izaera eta portaera besteekin izandako harremanen bidez eratzten du; pertenezia taldeen eraginetatik eta horien kultur erreferentzia espezifikoetatik abiatzen da prozesua, baina baita kulturen artean gero eta ugariagoak diren elkarreraginetatik ere, bai lurralde bakoitzean izaten direnetatik –gero eta ugariagoak eta konplexuagoak–, bai gero eta globalagoa eta elkarreragileagoa den gizarte batetik eratorritako fluxu anitzek osatzen dituztenetatik. Gizarte horretan funtzio garrantzitsua dute komunikabideek.

Ikuspegi horretatik, Gizarte Zientziek, Euskal Curriculumaren esparruan, hiru erronka dituzte, gutxienez. Batetik, ikasleei laguntzea beren burua izaki individualtzat hartzen, beste pertsonen duintasun bera baitute, sexua, arraza, kolorea, kultura, gizarte egoera... edozein direla ere; baita eskubide individual besterenezinak dituzten subjektutzat hartzen laguntzea ere. Bestetik, kulturari eta hizkuntzari dagokienez, anitza den euskal gizarteko kide moduan definitzeko ezaugarriak identifikatzen laguntzea; bakoitza identifikatuago dago hizkuntza eta kultura batekin edo bestearekin, baina helburua –identifikazio afektibo horri kalte egin gabe– euskal gizarteko kide bakoitzak biak bereak direla balioestea eta estimatzea da, herrialdearen kultur aberastasunaren parte direlako. Eta, azkenik, munduko herritar moduan identifikatzen laguntzea, bere nortasuna bakarra dela jakinik, eta bere kultura balioetsiz, beste herrialdeak eza-gutzeko eta haiei elkartasuna adierazteko gai izan daitezen, bereziki, herri kaltetuenei; herri horiek, askotan, ezagutu beharreko harreman desberdintasunen biktima izaten dira.

Horregatik, kontzeptuzko eduki hauek daude proposamenean: ikasleei pertsona moduan duintasuna dutela eta eskubidedun herritarra direla ulertzen lagunduko dieten edukiak, eta hala aritzeko gaitasuna eta aukera duela jabetzen lagunduko dietenak. Helburua eskubideak eta betebeharrak aldarrikatzeko eta erabiltzeko autonomia eta sinesgarritasun handiagoa eman dezaketen prozedurazko edukiak ere proposatzen dira. Eta, horrekin batera, nork bere estimua eta autonomia pertsonala landu nahi dira, pertenezia taldeetan moldatzeko.



Horregatik jartzen da arreta berezia gizabanako bakoitzari berezko ezaugarriak dituen gizarte eta herri bateko kide moduan identifikatzen laguntzen dioten arloak lantzen, baita nortasuna eratzeko garaian elkarreragina eta elkarrekiko mendekotasuna garrantzitsuak direla ulertzen ere.

**Egiten eta ekiten ikasi.** Hezkuntza xedeen arabera, Gizarte Zientziak arloaren ikaskuntzak ezin dira kultur apaingarriz hartu. Gizartearen antolaketa eta funtzionamendua ezagutu eta kritikoki aztertuta, egiteko eta ekiteko tresnak izan behar dute, antolaketa eta funtzionamendu hobeen alternatibak imajinatzeko. Pertenentzia eta erreferentzia taldeen prozesu historikoak aztertuz gero, erabaki zuhurrak har daitezke. Erakundeak ezagutuz gero (antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua), herritarraren eginkizunak hobeto egin daitezke. Bestalde, mikro eta makroekonomiari buruzko oinarrizko zenbait nozio ezagutuz gero, erabaki egokiak har daitezke familia ekonomian, eta irizpide hoberekin parte hartzea politikan eta sindikatuetan. Azken batean, gizarte antolaketa eta funtzionamendua hobeto ezagutuz gero, modu aktiboagoan eta sortzaileagoan parte hartu ahal izango da taldeetan. Eta ikasleak lanbide esparruan etorkizunerako dituzten aukerez jabetu ahal izango dira: politikan, zuzenbidean, administrazioan, gizarte zerbitzuetan...

Arlo horren helburua, beraz, gizartearen errealitatea hobeto hautematea da, arrazoizko kritika bat egitea, ekite proposamen hobeak imajinatzeko aukera izatea eta ekintza eraginkor fidagarriagoa egitea da. Hau da, egiten eta ekiten ikastea.

Horrek azaltzen du zergatik ez den planteatzen edukien proposamena urruneko hausnarketa teoriko gisa. Proposamenak tresna bihurtu nahi du, taldeen funtzionamendu historikoari eta egungoari buruzko azterketa kritikoa egiteko, beharrei erantzuteko nola antolatu diren kontuan hartuta. Halaber, ikasleei hobeto kokatzen lagun diezaieketen galdera batzuen erantzunak aurkitzen saiatzen da proposamena (konpetentzia gehiagoz eta hobeagoz), beren bizitza pertsonaleko eta harremanetako eginkizunak fidagarritasun handiagoz erabaki eta programa ditzaten.

## 7.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko eskolaldiaren epea amaitzerako (16 urte), Gizarte Zientziak arloaren helburua ikasleek honako konpetentziak hauek lortzea da:

**1.- Autonomiaz eta zorrotasunez egitea gizarte gaiet buruzko monografia txikiak (historikoak, geografikoak, politikoak, ekonomikoak, etab.), prozedura induktiboak nahiz arrazoiemendua hipotetiko-deduktiboa erabiliz (dagokion moduan), modu fidagarrian aurre egiteko etorkizuneko edozein gizarte arazoren edo gai garrantzitsuren azterketari.**





Monografia bat egiteko konpetentziak ekintza konplexu batzuk ditu, eta horiek modu fidagarrian betez gero, nahiko ongi adierazten da, oro har, subjektuek ikaskuntza autonomorako duten konpetentzia. Hasteko, hausnarketaren eta ikasketaren helburu izango den arazoa ongi planteatu behar da hasieratik, eta galdera garrantzitsuak formulatu behar dira. Ondoren, bildutako datuen informazio iturriak, bilketa eta tratamendu kritikoa zehaztu behar dira eta horien arteko harremanak eta osagarritasuna (kausalitate aniztasuna eta kausazko kateak) ezarri, egindako galderari erantzuteko eta ondorioak ateratzeko. Azkenik, zentzuzkoa dirudi ondorioak balizko antzeko egoeretan erabiltzea, horrek azalpen balioa emango bailioke egindako lanari.

**2.- Modu zorrotzean planifikatzea eta gauzatzea gai politikoei, ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko dokumentu iturrien kontsulta (liburuak, aldizkariak, datu baseak, iturri estatistikoak, dokumentu ofiziala), baita kode desberdinak dituztenenak ere (hitzekoak, pikturikoak, grafikoak, numerikoak, etab.), aurrez ezarritako eskema baten arabera alderdi garrantzitsuenak aukeratuz eta, beharrezkoa denean, testuinguru historiko edo/eta geografikoan kokatuz, bilaketaren helburuen araberako sintesi bat egiteko.**

Helburu eta hartzaile desberdinak (irakaslea, ikaskideak, beste leku edo kultura batzuetako ikastetxetako ikasleak, auzokoak edo herritarrak) dituzten lanak egiteko, kontsulta teknikak menderatu behar dira, eta zenbait kodigotan adierazitako informazioak interpretatzeko eta lortzeko gaitasuna izan behar da; halaber, helburuetara egokitu behar da, eta iturriekiko fideltasuna errespetatu. Informazioa biltzeko lan horretan ikasleek zorrotzak izan behar dute, eta informazioaren iturri diren dokumentuak zehaztasunez lantzeko eta interpretatzeko kontsulta teknikak eta ulertzeko gaitasunak bereganatu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da helburu eta eskema jakinetarako datu garrantzitsuenak aukeratzeko jakitea.

**3.- Argi eta zehatz idaztea gizarte ezagutza eraikitzeke prozesuari buruzko testu generoak (deskribapen geografikoak, inkesta soziopolitikoak, azalpen testuen txostenak, etab.), baita gizarte harremanetan ohikoak direnak ere (merkataritza gutunak, eskaerak, instantziak, kexak, etab.), bateragarri eginez adierazpenezko objektibotasuna ñabarduretarako gaitasunarekin eta kasu bakoitzean eskatutako erlatibizazioarekin, horren guztiaren bidez komunikazio hobea eta gizarte harremanetara eta komunikazio testuinguruetara hobeto egokituko dena lortzeko.**

Gizarte arloetan eta testuinguruetan ahozko eta idatzizko adierazpena erabiltzeko gure diskurtsoen komunikazioaren gizarte ardura geureganatu behar dugu, testuinguru bakoitzaren arabera. Hizkuntzak komunikazio funtzioa egoki bete behar du gizarte elkarreragina dagoenean, bai pertsona harremanei dagokienez, bai herritar orok bere bizitzan zehar erakundeekin dituen komunikazioei dagokienez. Ez dugu hizkuntza bera erabiltzen lagun batekin hitz egitean eta ezezagun batekin informazioa jasotzeko hitz egitean. Ez da hizkuntza eta testu egitura bera erabiltzen hurbileko senide bati gutun bat idazteko eta merkataritza gutun bat idazteko, ezta eskaera batean edo “curriculum vitae” batean erabiltzen direnak ere. Komunikazio horiek guztiak eta beste batzuk landu egin behar dira, kontuan izanik, beti, zer



gizarte elkarreraginen testuingurutan izaten diren. Horretarako, hiztun trebe batek adierazpen baliabide batzuk erabili behar ditu, diskurtsoari balioa eta argitasuna emateko.

**4.- Ikaskideekin batera, interesgarriak diren gizarte gaiei buruzko benetako talde lanak egitea, baita beste lan batzuk ere, eta modu aktiboan, sormena erabiliz, arduraz eta elkartasunez parte hartzea lan horien faseetan, bai gizarte antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko (esparru geografikoetan, historikoetan, ekonomikoetan, politikoetan, kulturaletan eta abarretan), bai taldeko lanak egiteko teknikez jabetzeko eta elkarren arteko mendekotasun handiagoa duten pertsonen eta taldeen gizartean positiboki barneratzeko.**

Egungo gizartearen ezaugarri bat elkarren arteko mendekotasuna da. Horren adierazpen nabarmenetako bat jarduera edo/eta lan gehienak taldean egin beharra da, eta ez beti kideko izaera duen jendearekin. Gure helburua ikasleak jarduera mota horretan kompetenteak izatea bada, eskolak horretarako ematen dituen aukeren artean leku garrantzitsua izan beharko du jarduerak taldean egiteak (ludikoak edo ikaskuntzakoak). Gure arreta, gizarte gaiei buruzko eskola lanetan jarriko dugu, bereziki, aukera bikaina ematen dutelako hainbat gizarte eduki ikasteko, talde lanak egiteko teknikak geureganatzeko eta jarrera batzuk garatzeko (ahalegina, sormena, ardura, elkartasuna); horiek garatu gabe ezinezkoa izango da egiazko taldeko lan bat garatzea. Horrez gain, tradizioz kultur anitza den euskal gizartean –are gehiago gaur egun, beste kultura batzuetako etorkinak direla eta–, gero eta aukera zabalagoak eta anitzagoak ematen ditu eskolak jende desberdinarekin lankidetzan aritzeko, eta, horrela, integrazio prozesuari laguntzeko, inork bere nortasunari uko egin gabe.

**5.- Interes komuneko gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, planteatzen diren gaiak zorrotasunez aztertuz, interes edo ideia gatazkei prozedura demokratikoen bidez aurre eginez eta norberaren uste osoak defendatzeko sendotasuna eta adostasunetara iristeko gaitasuna bateratuz, bazterketarik ez gertatzeko eta modu berean pentsatzen edo sentitzen ez dutenekin bakean eta errespetuz bizi ahal izateko.**

Euskal Curriculumean bereziki nabarmendu denez, hezkuntzaren erronka handienetako bat gizarte kohesioa eta parte hartze demokratikoa bultzatzea da, pertenezia taldeei eta, oro har, herritar guztiei eragiten dieten gaietan. Baina, parte hartzeaz ari garela, hemen oso zorrotzak gara: interes komuneko gaiei buruzko ardura eta konpromisoa garatzeaz gain, arazoak eta egoerak ahalik zorrotzen eta fidagarrien aztertzeko kompetentzia garatu behar da, eta horretarako ikuspegiak kontuan hartu eta konponbideak bilatzeko konpromisoaren alde egin behar da. Eta taldeen eta pertsonen arteko bizikidetzan ezinbestean sortzen diren gatazka egoerak naturaltasunez onartzeko gaitasuna eta prozedura demokratikoen bidez aurre egiteko jarrera landu nahi dira. Baina fidagarritasunez aurre egiteko kompetentzia ere landu nahi da, eta, horretarako, bakoitzak bere iritzien argudiozko defentsari uko egin gabe, beharrezkoa da besteen ikuspegi ulertzeko gai izatea, haien jarrerak eta argudioak entzutea eta arrazoizko akordioetara iritea.



**6.- Ikaslea pertsona bakarra eta konplexua dela onartzea, eta besteekiko harremanetan dituen ezaugarriak eta akatsak onartzea, euskal gizarteko kide moduan identifikatzen duten kultur ezaugarriez jabetzea eta horiek balioestea, eta beste talde batekoa eta, oro har, gizakien taldekoa izatearen sentimenduarekin bateragarri egitea, gizarte tolerantzia eta ez-baztertzaila eraikitzen saiatzeko.**

Bakoitza bere nortasunaren eta euskal identitatearen jakitun eginda, eta biak onartu eta balioetsi ondoren, helburua guztiok ditugun mendekotasun eta muga anitzak geureganatzeko gai izatea da; mendekotasun eta muga horiek inguratzen gaituztenekin, pertenez taldeekin eta harremanik ez dugun edo oso harreman eskasa dugun taldeekin izaten ditugu. Helburua euskal gizarteko kide bakoitza, bere nortasunaren pertzepzioaren berezitasunetik abiatuta, bereak bezalako autopertzepzioak ez dituzten pertsonak antzemateko eta naturaltasunez onartzeko gai izatea da, eta haiek errespetatuz bizi ahal izatea. Hortik abiatuta, eta komunikazioaren eta elkarrizketaren bidez, euskal nortasunerantz abiatzea da helburua: sustrai historikoetatik abiatu eta, osoko eta bazterketarik gabeko prozesu luze eta konplexu baten ondoren, kultur aberats eta plural baten elementu guztiak onartuko dituen gizarterantz abiatzea.

Horrela, etorkizuneko nortasun erronkei aurre egiteko prest egongo dira ikasleak; etorkizun hori oraina da jada, eta euskal gizarteak hainbat lekutako eta kulturatako etorkinen eraginak bereganatu behar ditu, eta horien integrazioak gainditu beharreko erronka berri bat planteatzen du: kultur nortasunetatik abiatuta, partekatutako erreferentzia esparru bat eraikitzea, bizikidetzari eta hazkundeari laguntzeko.

**7.- Ekintza irudimentsuak eta eraginkorrak sustatzea eta ekitea, gizarteko errealitateko maila eta esparru desberdinetan, errealitateak eta egoerak aztertuz eta ebaluatuz, ekintza alternatiboak asmatuz, lortu nahi diren helburuetara egokitutako estrategien plangintza eginez eta abian jarriz, eguneroko bizitzako egoeretan ekiteko moduak hobetzeko, bai besteekiko harremanei dagokienez, bai natura baliabideen erabilerari dagokienez,**

Gizarte ikaskuntzak ez dira kultur apaingarriak, autonomiaz bizitzeko eta ekiteko ikaskuntzak baizik; hori dela eta, gizarte irakaskuntza-ikaskuntzaren lanaren zati garrantzitsu bat gizartean ekiten ikastea da, ekintzan protagonismoa eta ardura hartuz. Arduraz aritzeko, gizartearen errealitatearen azterketa zorrotza egin behar da, arloak ongi ezagutzeko. Baina hori ekintzarako ezagutza da, eta, beraz, ezinbestekoa da arrazoizko ekintzetan pentsatzea, bai harreman pertsonalen eta instituzionalen arloan, bai naturarekin izaten diren harremanetan. Hau da, beharrezkoa da ekitea; eta, horretarako, beharrezkoa da ekintza plan konplexuak edo ez hain konplexuak egitea, herritarrek parte hartzen duten egoera zehatzen helburuetara egokitutakoak: eskolako, auzoko, sindikatuko, politikako, kulturako, kiroltako, natura babesteko eta abarreko elkarrekin proiektuak, baina baita heziketa prozesuetako eta jarduera profesionaleko hezikuntza pertsonaleko proiektuak ere.

Hori ongi egiteko, kontuan izan behar dira erreferentzia egoera osatzen duen elementu bakoitza eta horien egitura, baita aurrekoena ere. Hortik aurrera, ekintza aukera desberdinak aztertu behar dira, eta



helburuen, aurreikus daitekeen eraginaren eta eskuragarri dauden baliabideen arabera balioetsi. Eta, behin jarduera erabakita, faseak nola gauzatuko diren erabaki behar da, faserik bada.

### 7.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK

Aurkeztutako konpetentzia orokorren proposamenetik erraz ondorioztatzen da hauek direla Gizarte Zientziak arloaren helburuak: kontzeptuzko edukien irakaskuntza lantzea (gertaerak, kontzeptuak, printzipioak, azalpen teoriak, etab.); balioak, portaerak eta jokabide ohiturak garatzea; eta hainbat prozedura menderatzea (teknikak, egiteko moduak, protokoloak, etab.). Konpetentzia orokor horiek funtsezko erreferentzia izan dira edukien proposamen hau osatzeko.

Horrez gain, edukiak hautatzeko eta aurkezteko, ondoren adierazten diren irizpideei jarraitu zaie.

Jarrerazko edukiei dagokienez, arlorako proposamen berezi eta bakarraren alde egiten da, eta ez da gai multzo bakoitza zehaztu. Proposatzen diren portaerak eta jokabide ohiturak kontzeptuzko eta prozedurazko edukien tratamendua zeharkatzen duen “continuum” batean egin behar direla ulertzen da.

Arloan landu beharreko prozedurazko eduki guztien proposamen bateratu bat egin daitekeela onartzen bada ere, multzoetan antolatzea erabaki da, kontzeptuzko edukiekin batera. Horrela, gauza batzuk errepikatze arriskua badago ere –prozedura berak lantzen dira hainbat multzotan–, kontzeptuzko eduki hobeto egokitzen dira horiei dagozkien prozesuen lan espezifikotara beste batzuk baino.

Eduki multzoen proposamena adierazle gisa ulertu behar da, eta oinarri hauek ditu:

Curriculum proposamen batean gizarte eduki ugari sar daitezkeenez, ezinbestekoa da aukeraketa bat egitea. Hori dela eta, proposamen hau testuinguruetara eta egoeretara egoki daiteke.

Aukeraketa egitean, diziplina irizpideak soilik erabili beharrean, bereziki izan dira kontuan Euskal Curriculumean adierazitako hezkuntza xedeak. Aukeraketa horren ondorioz, eta curriculumaren gainerako iturriak gutxietsi gabe, nolabaiteko lehentasuna hartzen du iturri soziologikoak. Horregatik, proposamena galdera batzuetatik abiatuta antolatzen da. Galderek lotura dute elkarrekin, eta derrigorrezko hezkuntzan erantzuna izan behar duten gizarte errealitatearen arlo batzuei buruzkoak dira.

<p>9. Euskal Herriari identitate berezia eman zioten eta dioten hizkuntza, kultur, zuzenbide, politika... ezaugarriak deskribatzea eta balioestea, eta bilakaera horretan eragin duten faktore nagusiak identifikatzea.</p>	<p>9.1. Ongi egiten du, datuetatik abiatuta, euskal lurraldeetako egungo hizkuntza egoerari buruzko barra grafikoa.</p> <p>9.2. Horien azken urteetako bilakaera islatzen duen lerro grafiko bat egiten du.</p> <p>9.3. Euskal kulturaren adierazpen batzuk ezagutzen ditu (tradizioak, ospakizunak, ohiturak, folklorea, etab.).</p> <p>9.4. Foru eskubidea erabiltzearen eta ohituren alde positiboak argudiatzen ditu.</p> <p>9.5. Foruak deuseztatu ondoko euskal lurraldeen antolakuntza politikoaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.</p> <p>9.6. Egungo Estatutuan, foruen iraganera igortzen duen artikuluen alderdiren bat ezagutzen du.</p>
<p>10. Euskal lurraldeen gertaera historikoak - horientzat bereziki garrantzitsuak izan diren une historikoetan- Europako historian kokatzea, eta bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala zehaztea.</p>	<p>10.1. Friso historiko batean, euskal lurraldeei eragiten dien zenbait gertaera garrantzitsu irudikatzen ditu, Espainiako eta Europako historiaren bilakaerarekin batera.</p> <p>10.2. Kritikoki aztertzen ditu gertaera horiei buruzko dokumentu historikoak, interpretazio edo balorazio desberdinak edo aurkakoak dituztenak.</p> <p>10.3. Euskal Herriaren bilakaera historikoan izandako gertaeren arteko azalpen loturak ezartzen ditu, argudioen bidez.</p> <p>10.4. Euskal lurraldeetako bizitza politikoko gertaeren eta egoeren arteko azalpen loturak ezartzen ditu, baita horien eragin ekonomiko eta demografikoak ere.</p> <p>10.5. XIX. mendearen erdialdetik aurrerako euskal ekonomiaren bilakaeraren eta euskal gizartearen izaera kultur anitzaren arteko lotura esanguratsuak ezartzen ditu.</p>
<p>11. Euskal lurraldeen arteko antzekotasun eta desberdintasun sozioekonomikoak identifikatzea, eta horien adierazleak eta geografia eremu desberdinetako herrialdeenak alderatzea.</p>	<p>11.1. Lurralde baten egoera sozioekonomikoaren adierazle izango diren bost edo sei adierazle aukeratzeko.</p> <p>11.2. Euskal lurraldeei buruzko datuak eraginkortasunez bilatzen ditu, horretarako eskuragarri dauden estatistika iturrietan.</p> <p>11.3. Bildutako datuak taula batean antolatzen ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak behatu ahal izateko.</p> <p>11.4. Planetako area geoekonomiko desberdineko bost edo sei herrialde aukeratzeko, irizpide batzuen arabera.</p> <p>11.5. Sarean iturri egokiak bilatuta, aurrez aukeraturako area geoekonomiko desberdinetako bost herrialderi buruzko informazioa ere biltzen ditu.</p> <p>11.6. Konparazio taula bat ere egiten du.</p> <p>11.7. Txosten txiki bat egiten du balizko antzekotasunak eta desberdintasunak azpimarratzen dituen eta arrazoizko interpretazioak iradokitzen dituen.</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
12. Esanguratsuak izan daitezkeen korrelazioak ezartzea, batetik, herrialde batzuen adierazle ekonomikoen artean eta, bestetik, adierazle demografikoen eta kulturalen artean, berezitasunak azalduz eta azalpen hipotesiak ematen saiatuz.	<p>12.1. Area geografiko desberdineko bost herrialde aukeratzeko (bat Mendebaldeko Europakoa, beste bat Erdialdeko Amerikakoa, beste bat Magrebekoa, beste bat Sahara azpiko Afrikakoa, eta, beste bat, petrolio ekoizten duen Pertiako Golkoko herrialde batekoa).</p> <p>12.2. Aukeraturako herrialde bakoitzeko, eraginkortasunez bilatzen dituen sarea per capita errentari, haurren heriotza tasari eta analfabetismoari buruzko datuak.</p> <p>12.3. Ongi egiten du herrialde bakoitzaren datuak alderatzeko taula bat.</p> <p>12.4. Arrazoiz azaltzen du aipaturako adierazle bakoitzak duen balioa, herrialde baten garapena adierazteko.</p> <p>12.5. Herrialdeen datuak alderatzen ditu, desberdintasunak azpimarratuz eta harrigarriak -itxuraz behintzat- izan daitezkeen datuen berri emanez.</p> <p>12.6. Adierazleei buruzko azalpen onargarriak ematen ditu, eta, kasu bakoitzean, horien esanahia zehazten du.</p>
13. Eguneroko bizitzak herritarrari erakundeekiko harremanetan eskatzen dizkion kudeaketak autonomiaz egitea: merkataritza eta finantza operazioak, errentaren aitorpena, eskaerak, kexak eta erreklamazioak formalizatzea, curriculuma, etab.	<p>13.1. Pertsonen artean eta instituzioetan erabili ohi diren dokumentuak helburuekin lotzen ditu (aurrekontuak, fakturak, nominak, ordainagiriak, etab.).</p> <p>13.2. Dokumentu horien informazioa ulertzen du.</p> <p>13.3. Zuzen interpretatzen ditu errenta aitorpenaren eredu sinplifikatu batean adierazitako datuak.</p> <p>13.4. Ongi erredaktatzen ditu eskaerak, erreklamazioak edo kexak, deskargu pleguak, etab.</p> <p>13.5. Ongi egiten du bere curriculuma.</p>
14. Jarduerak egitea eta aktiboki eta sormena erabiliz parte hartzea hainbat esparrutako erakunde espezifikoetan (eskolakoak, lanekoak, etab.), eta hainbat mailatan gizabanakoen eta kolektiboen eskubideak aldarrikatzea erakundeetan, zuzentasunez baina irmoki.	<p>14.1. Errespetuz jokatzeko irakasleekin edo eskolako zuzendaritzarekin izaten diren ohiko harremanetan, baina bere eskubideak eta bere kideenak ere aldarrikatzen ditu.</p> <p>14.2. Ikasgelan edo eskolan sortutako arazoei aurre egiten laguntzeko eta ekimenak hartzeko aukera eskatzen du beretzat eta bere kideentzat.</p> <p>14.3. Serio hartzen ditu ordezkariak aukeratzeko prozesuak, eta, oro har, taldeari eragiten dioten prestakuntza eta erabaki hartze prozesuak, eta horietan parte hartzen du.</p> <p>14.4. Norbanakoen eta kolektiboen eskubideei eragiten dien egunerokotasuna duten gaien tratamenduz arduratzen da, eta horri buruzko informazioa bilatzen laguntzen du.</p> <p>14.5. Lagundu eta parte hartzen du pertsonen eta taldeen oinarrizko eskubideak defendatzeko eskolako ekimenetan eta kanpainetan.</p>
15. Norberaren prestakuntzara bideratutako ekimenak egitea (norberaren beharretara eta gizartearen eskakizun berrietara egokitutakoak), eta erakunde sistemak ematen dituen aukerei buruzko informazioa bilatzea eta sarean horri buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko gai izatea.	<p>15.1. Bere alde indartsuak eta ahulak, aukerak eta mugak ezagutu ohi ditu.</p> <p>15.2. Eskola dinamikan sortutako prestakuntza jardueren -pertsonalak edo taldekoak- proiektu txikietan inplikatzeko da.</p> <p>15.3. Lortu beharreko xedeak eta helburuak definitzen ditu.</p> <p>15.4. Proiektua egiteko ekintza eta plan alternatiboak proposatzen ditu, eta bere kideekin jarraitu beharreko plana adosteko gai da.</p> <p>15.5. Zorroztasunez aztertzen ditu beharrezko baliabideak, baita horiek lortzeko aukerak eta moduak ere.</p> <p>15.6. Behar izanez gero, plana aurrera eramateko instituzioekin izan beharreko harremanak ezartzen ditu.</p> <p>15.7. Etorbizuneko proiektu pertsonalak planteatzen dituenean, horri buruzko informazioa bilatzeko ahalegina egiten du, Internetek ematen dizkion aukerak esploratuz.</p>
16. Gizarte errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko proiektuetan konprometitzea, ideologietan eta norberaren edo/eta kolektiboaren interesetan oinarritutako hausnarketan eta iritzi kritikoen ondorioz.	<p>16.1. Bidegabeko gizarte egoerez ohartzen da.</p> <p>16.2. Oinarritutako balio judizioak egiten ditu, esaerekin eta leku komunekin konformatu gabe.</p> <p>16.3. Kritikaturako egoerei aurre egiteko eta egoera horiek hobetzen laguntzeko moduak imajinatzen ditu.</p> <p>16.4. Beste ikaskide batzuekin konprometitzen da ekintza proiektu txikietan.</p> <p>16.5. Interesa agertzen du gizartearen ildo horretan aritzen diren taldeak ezagutzeko eta horiekin lanean aritzeko (alderdi politikoak, sindikatuak, gobernu kanpoko erakundeak, etab.).</p> <p>16.6. Euskal Herrian naturaren kontserbazioari eragiten dioten zenbait arazo espezifikoaren berri ematen du.</p> <p>16.7. Ikaskideekin batera, erasoak murriztera bideratutako ekintza planak proposatzen ditu.</p> <p>16.8. Esku hartzeko proiektu txikiak konprometitzen da.</p>
17. Zenbait txostenen datu objektiboak azterketetatik abiatuta, zenbait giza jarduerak natura nola honda dezaketen aurreikuspena, ekintza pertsonal koherenteak prestatzeko eta aktiboki eta arduraz inplikatzeko praktika kontserbazionistak sustatzen.	<p>17.1. Naturaren pixkanakako hondamenari buruzko txosten kritikoa egiten ditu, horretarako prestatutako informazio dossierretatik abiatuta.</p> <p>17.2. Euskal Herrian naturaren kontserbazioari eragiten dioten zenbait arazo espezifikoaren berri ematen du.</p> <p>17.3. Ikaskideekin batera, erasoak murriztera bideratutako ekintza planak proposatzen ditu.</p> <p>17.4. Esku hartzeko proiektu txikiak konprometitzen da.</p> <p>17.5. Natura zaintzera bideratutako erakundearen ekimenei buruzko informazioa jasotzen du sarean.</p> <p>17.6. Talde ekologistei buruzko informazioa ere biltzen du (erakunde ofizialekoak izan edo ez).</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
18. Euskal gizartean gero eta kultur talde gehiago daudenez, talde horiekin arduraz eta modu eraikitzailean lankidetzan aritzea, norberaren kultur ezaugarriak balioetsiz eta mantenduz, besteenak errespetatuz eta haiekiko interesa agertuz, eta kultur partekatua osatzen lagunduz.	18.1. Inolako arazorik gabe aritzen da beste kultura batzuetako ikaskideekin eskola jardueretan. 18.2. Beste kultura batzuetako ikaskideei laguntzen die ulertzeko zailtasunak eragindako zailtasun batzuk konpontzen. 18.3. Beste hizkuntza eta kultura bat dituzten etorkinak gizarteratzen laguntzeko jarduerak egiten ditu, edo horri buruzko ekimenetan laguntzen du. 18.4. Etorkinek euskal hizkuntza eta kultura ezagutzeko eta errespetatzeko jarduerak egiten ditu, edo horri buruzko ekimenetan laguntzen du. 18.5. Inplikatu egiten da hainbat jatorritako etorkinen kulturaren zenbait elementu ezagutzeko jardueretan. 18.6. Ohiko jardueretan, erkidegoko bi hizkuntzetako edozein erabiltzen du, eta ikaskideei barkatu eta lagundu egiten die bigarren hizkuntzan egindako akatsak konpontzen. 18.7. Euskal gizarteko berezko bi kulturetako kultur adierazpenetan parte hartzen du.



IIIg ERANSKINA

EUSKAL CURRÍCULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

GIZARTE ZIENTZIAK

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko kompetentzia orokorretara eta espezifikotara mugatzen da balorazioa, baina kompetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko kompetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko kompetentzia espezifikoak baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Autonomiaz eta zorrotzasunez egitea gizarte gaietarako buruzko monografia txikiak (historikoak, geografikoak, politikoak, ekonomikoak, etab.), prozedura inductiboa nahiz arrazoiak hipotetiko-deductiboa erabiliz (dagokion moduan), modu fidagarrian aurre egiteko etorkizuneko edozein gizarte arazoren edo gai garrantzitsuren azterketari.					
2.- Modu zorrotzean planifikatzea eta gauzatzea gai politikoei, ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko dokumentu iturrien kontsulta (liburuak, aldizkariak, datu baseak, iturri estatistikoak, dokumentu ofiziala), baita kode desberdinak dituztenen ere (hitzeak, pikturak, grafikoak, numerikoak, etab.), aurrez ezarritako eskema baten arabera alderdi garrantzitsuenak aukeratzeko eta, beharrezkoa denean, testuinguru historiko edo/eta geografikoan kokatuz, bilaketaren helburuen araberrako sintesi bat egiteko.					
3.- Argi eta zehatz idaztea gizarte ezagutza eraikitzekeo prozesuari buruzko testu generoak (deskribapen geografikoak, inkesta soziopolitikoak, azalpen testuen txostenak, etab.), baita gizarte harremanetan ohikoak direnak ere (merkataritza gutunak, eskaerak, instantziak, kezak, etab.), bateragarri eginez adierazpenezko objektibotasuna nabarduretarako gaitasunarekin eta kasu bakoitzean eskatutako erlatibizazioarekin, horren guztiaren bidez komunikazio hobea eta gizarte harremanetara eta komunikazio testuinguruetara hobeto egokitzeko dena lortzeko.					
4.- Ikaskideekin batera, interesgarriak diren gizarte gaietarako buruzko benetako talde lanak egitea, baita beste lan batzuk ere, eta modu aktiboan, sormena erabiliz, arduraz eta elkartzunez parte hartzea lan horien faseetan, bai gizarte antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko (esparru geografikoetan, historikoetan, ekonomikoetan, politikoetan, kulturaletan eta abarretan), bai taldeko lanak egiteko teknikez jabetzeko eta elkarren arteko mendekotasun handiagoa duten pertsonen eta taldeen gizarlean positiboki baneratzeko.					
5.- Interes komuneko gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, planteatzen diren gaiak zorrotzasunez aztertuz, interes edo ideia gatzakei prozedura demokratikoen bidez aurre eginez eta norberaren uste osoak defendatzeko sendotasuna eta adostasunetara iristeko gaitasuna bateratuz, bazterketarik ez gertatzeko eta modu berean pentsatzen edo sentitzen ez dutenekin bakean eta errespetuz bizi ahal izateko.					



ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
6.- Ikaslea pertsona bakarra eta konplexua dela onartzea, eta besteekiko harremanetan dituen ezaugarriak eta akatsak onartzea, euskal gizarteko kide moduan identifikatzen duten kultur ezaugarriez jabetzea eta horiek balioestea, eta beste talde batekoa eta, oro har, gizakien taldekoa izatearen sentimendurekin bateragarri egitea, gizarte tolerantzia eta ez-baztertzailera erakitzen saiatzeko.					
7.- Ekintza irudimentsuak eta eraginkorrak sustatzea eta ekitea, gizarteko errealitateko maila eta esparru desberdinetan, errealitateak eta egoerak aztertuz eta ebaluatuz, ekintza alternatiboak asmatuz, lortu nahi diren helburuetara egokitutako estrategien plangintza eginez eta abian jarriz, eguneroko bizitzako egoeretan ekiteko moduak hobetzeko, bai besteekiko harremanei dagokienez, bai natura baliabideen erabilera dagokienez.					

ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Zehatz eta zorrotz interpretatzea mapetako eta grafikoetako informazioak, errealitate historikoen, geografikoen, ekonomikoen eta abarren adierazle direnak, eta haien artean azalpen harremanak ezartzea.					
2.- Paisaien behaketa sistematikoa eta haietan izaten diren aldaketa prozesuena egitea autonomiaz, eta aldaketa horiek eragiten dituzten balizko faktore sozialekin lotzea.					
3.- Bakarka interpretatzea Euskal Herriko paisaiaren aniztasuna, egungo osaera eragin duten faktore fisiko eta sozialak kontuan hartuz.					
4.- Gizarte informazioak (historikoak, demografikoak eta ekonomikoak) bilatzea, erregistratzea eta modu fidagarrian lantzea, helburua lortzeko iturri egokienak erabiliz (bibliografikoak, estatistikoak, dokumentalak, etab.), baita Informazio Teknologia Berrien baliabideak ere.					
5.- Bakarka planifikatzea eta egitea gai sozialei buruzko monografia txikiak, gutxieneko zorroztasunaren eta sistematizazioaren bidez eta bibliografia nahiz lehen eskuko dokumentu iturriak erabiliz.					
6.- Taldeko lanetan eta jardueretan parte hartzea modu eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan; lan eta jarduerak eskolako lanak eta jarduera ludikoak batera egitera bideratuko dira, baita pertenezko taldeetan gizartean esku hartzeko proiektuak egitera ere.					
7.- Pertenezko eta erreferentzia taldeen eta erakundeen (familia, eskola, herria, autonomia erkidegoa, estatua, etab.) antolakuntza egiturak eta ohiko funtzionamendu erak kritikoki aztertzea, eta egoki zehaztea demokraziaren funtzionamendua bideratzen duten oinarrizko irizpideak.					
8.- Zorroztasunez eta enpatiarako gaitasunez aztertzea pertsonen eta taldeen arteko gizarte gatazkak; aurrera egiteko aukeratzat hartzea eta horiek konpontzeko bake prozedurak erabiltzea sustatzea.					
9.- Euskal Herriari identitate berezia eman zioten eta dioten hizkuntza, kultur, zuzenbide, politika... ezaugarriak deskribatzea eta balioestea, eta bilakaera horretan eragin duten faktore nagusiak identifikatzea.					
10.- Euskal lurraldeen gertaera historikoak -horientzat bereziki garrantzitsuak izan diren une historikoetan- Europako historian kokatzea, eta bakoitzaren esanahi politikoa, ekonomikoa eta kulturala zehaztea.					
11.- Euskal lurraldeen arteko antzekotasun eta desberdintasun sozioekonomikoak identifikatzea, eta horien adierazleak eta geografia eremu desberdinetako herrialdeenak alderatzea.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
12.- Esanguratsuak izan daitezkeen korrelazioak ezartzea, batetik, herrialde batzuen adierazle ekonomikoen artean eta, bestetik, adierazle demografikoen eta kulturalen artean, berezitasunak azalduz eta azalpen hipotesiak ematen saiatuz.					
13.- Eguneroko bizitzak herritarrari erakundeekiko harremanetan eskatzen dizkion kudeaketak autonomiaz egitea: merkataritza eta finantza operazioak, errentaren aitortpena, eskaerak, kexak eta erreklamazioak formalizatzea, curriculuma, etab.					
14.- Jarduerak egitea eta aktiboki eta sormena erabiliz parte hartzea hainbat esparrutako erakunde espezifikoetan (eskolakoak, lanekoak, etab.), eta hainbat mailatan gizabanakoen eta kolektiboen eskubideak aldarrikatzea erakundeetan, zuzentasunez baina irmoki.					
15.- Norberaren prestakuntzara bideratutako ekimenak egitea (norberaren beharretara eta gizartearen eskakizun berrietara egokitutakoak), eta erakunde sistemak ematen dituen aukerei buruzko informazioa bilatzea eta sarean horri buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko gai izatea.					
16.- Gizarte errealitatea hobetzeko eta natura defendatzeko proiektuetan konprometitzea, ideologietan eta norberaren edo/eta kolektiboen interesetan oinarritutako hausnarketen eta iritzi kritikoen ondorioz.					
17.- Zenbait txostenen datu objektiboak azterketetatik abiatuta, zenbait giza jardueren natura nola honda dezaketen aurreikustea, ekintza pertsonal koherenteak prestatzeko eta aktiboki eta arduraz inplikatzeko praktika kontserbazionistak sustatzen.					
18.- Euskal gizartean gero eta kultur talde gehiago daudenez, talde horiekin arduraz eta modu eraikitzailean lankidetzan aritzea, norberaren kultur ezaugarriak balioetsiz eta mantenduz, besteenak errespetatuz eta haiekiko interesa agertuz, eta kultur partekatua osatzen lagunduz.					
19.- Gizarte Arloaren balorazioa oro har					



**Gizarte Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 8.- MUNDU IKUSKERAK ETA ERLIJOAK

### 8.1.- SARRERA

Mundu Ikuskerak eta Ereljioak arloaren asmoak eta konpetentziak gure eskola sistemako hezkuntza-ren xedeak garatzera bideratzen dira, hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko eta hobetzeko: norbera izaten ikasi, komunikatzen ikasi, pentsatzen eta konpromisoak hartzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, baita egiten eta ekiten ikasi ere, askatasuna arduraz erabiliz, eta kolektiboaren izaeraren bilaketarekin eta erabateko gizarteratzearekin harmonian.

#### *Ikasten eta pentsatzen ikasi*

Sei eta hamasei urte bitarteko eskolaldian osatzen dira, pixkanaka, zentzuko erantzuna eskatzen duten galderak eta bizipenak. Hainbat esperientziak giza bizitzaren zentzuarekin loturiko errealitateen konstelazio bat osatzen dute (pertsonek, gizarteak, inguru naturalak, bizitzaren sorrera, mina, heriotza, zoriontasuna, gaizkia, maitasuna, barkamena, porrota, zigorra, pobrezia eta desgrazia, beste munduaren eta abar.). Egoera existentzial eta psikologiko horrek bilaketa –pentsamendu gogoetatsuen bidez– eta ezagutza forma berrietara irekitzea –norberaren esperientziaren bidez– dakar.

Bestalde, arlo honetan lantzen den kulturaren eta pertsonaren dimentsio etiko-antropologikoak eta alde pedagogikoak ikaskuntza esanguratsua eta funtzionala eraikitzen laguntzen dute, eta beste jakintza batzuekin lotzen dira. Dimentsio etiko-antropologiko horrek esparru hauek lantzen ditu, besteak beste: pertsona, bizikidetzaren etika, gizarteak eta erlijiosoak.

Adierazpen kulturalak, moralak eta erlijiosoak egoki interpretatzeko giltzak aplikatuz eta erlijioa fenomeno soziokulturaltzat hartuz, ezagutza arlo berri bat irekitzen da, eta ikaskuntza estrategia berriak lortzen dira. Horiek elkarren osagarri, eta erlazio dialogikoa dute beste ezagutza eta ikaskuntza batzuekin.

Errealitatearen ikuspegi zentzuzko erantzunak ezagutzeko eta balioetsiz, ikasleari bizitza eta gertae-rei buruzko pentsamendu kritikoa osatzen, hausnarketarako jarrera izaten eta bere ideiak eta erabakiak izaten laguntzen dio.





### ***Komunikatzen ikasi***

Mundu Ikuskerak eta Erljioak arloak lantzen duen gaietako bat giza izateari buruzko galderei eta zalantzei dagokie (sorrera, beste mundua, mina, heriotza, zoriontasuna, etab.). Esperientzia arlo horretan, zalantza pertsonalak eta bizitzari eta baloreei buruzko zalantzak naturaltasunez komunikatzen ikasten da. Hau da arloaren beste helburu bat: komunikatzen ikastea eta modu jakin batean zergatik pentsatzen edo ekiten den adieraztea eta arrazonatzea.

Komunikatzeko gaitasuna garatzen laguntzeko beste modu bat bitarteko informatikoak eta aurrerapen teknologikoak erabiltzea da, norbera hobetzeko (erabilera etikoa) nahiz taldea hobetzeko (ikaskuntza partekatua eta kooperatiboa).

Pertsonaren eta bizikidetzaren etika materia horren elementu garrantzitsuenetako bat, baita gizon eta emakumeek elkar onartzea ere, eskubide eta betebeharrak dituztela. Horrek guztiak komunikazio egokia izaten laguntzen du eskolan, familian eta gizartean, baita gizarte elkarrizketa bitarteko izaten ere arazoak eta desberdintasunak gainditzeko.

### ***Elkarrekin bizitzen ikasi***

Diziplina horren helburua aske, berdintasunean eta justiziaz elkarrekin bizitzeko balioen oinarria argitzea da. Horren bidez, elkarrekin bizitzeko espiritu demokratikoa eta irekia izan daiteke, balio horiek onartuz eta desberdintasunak errespetatuz.

Erljioak eta haien kultur adierazpenak ezagutu eta errespetatzeak bizikidetzak hobea izaten laguntzen du, baita kultur arteko aberastasun handiagoa sortzen ere.

Gizartearen bizikidetzari eta harmoniari laguntzen diote, batetik, euskal gizarteak gehien estimatzen dituen balio komunekin identifikatzeko prozesuak eta, bestetik, ikasleengan horren arazoekiko eta kezkekiko sortzen den interesak; horiek proiektu komunak egiteko eta gatazkak konpontzeko lankidetzak espiritua bultzatzen dute.

Beharrezkoa da kontuan izatea herritarrak anitzak eta kultura askotakoak direla, eta horien artean barneratu eta haiekin batera bizitzen ikasi behar duela ikasleak, ideologiak, etniak, ohiturak, erlijioa eta kultur adierazpenak errespetatuz. Harreman eta herritartasun esparru horretan, erreferentzia etiko edo eredu etiko-erlijioso egokiak erabiliz gero, arazoak konpontzen eta elkartasun proiektuak gauzatzen lagun daiteke, baita beste herri eta kultura batzuk errespetatzen eta integratzen ere.

### ***Norbera izaten ikasi***

Helburua da ikasleak bizitzaren zentzua bilatzeko eta autoerrealizatzeko interes aktiboa agertzea esperientzia pertsonaletik (gorputza, afektibitatea, sexualitatea, itxaropenak, pertsonak...), errealitatearekin izandako harremanetik eta inguruko balioetatik abiatuz,. Horrela, bere nortasuna eraikitzeke beharrezkoak diren jarrera irekiak landuko ditu.



Ildo horretan, pertsonaren eta harreman esparruaren zentzuari buruzko galderak planteatzeak (sorrera eta patua, zorientasuna, sufrimendua, heriotza, kosmosa, etab.) pentsamendu propioa osatzen laguntzen du, eta ikasleak bere erantzunak izaten, eguneroko bizitzako egoera eta arazo xume edo zailagoei aurre egiteko.

Autonomia, nork bere buruarekiko estimua, bizitza proiektuzat ulertzeko gaitasuna eta askatasuna izaeraren oinarriak direla kontuan hartuz, diziplina hori eraginkorra da ikasle bakoitzari norbera izaten eta bere kabuz moldatzen laguntzeko, betiere, bere ezaugarriak eta mugak, aukerak eta erabakiak, balioak eta jarrerak kontuan hartuta.

### ***Egiten eta ekiten ikasi***

Gizakiaren duintasuna errespetatuz (bereziki ahulenena eta baztertuena) eta ikuspegi eta ekintza solidarioaren alde eginez (norberaren izaeratik eta kulturatik abiatuz), ekintzei eta proiektuei arduraz ekiten zaie, arazoak eta gatazkak konpontzeko eta gizarte hobea eraikitzeko.

Garaiotako arazo moralek, gizartearekin eta aurrerapen zientifikoekin eta teknologikoekin batera, eragina dute jendearengan eta komunitatean; horiek errealitatea aztertzeke gaitasuna lortzen eta errealitate hori aldatzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen laguntzen dute.

Bestalde, eskola diziplina horrek gizarte, kultur eta erlijio ondarea ezagutuz eta estimatuz belaunaldiaren ardura bereganatzeko eta bizitza eta ondare hori etorkizunerako zaintzeko jarrera eta erantzun positiboak sortzeko gaitasuna garatzen du.

Gizarte esperientziak egoerak, gertaerak eta dilemak ematen dizkie ikasleei, eta horiek irizpide eta orientazio etikoetatik lantzen dira, zuzentasunez, arduraz eta konpromisoz aritzen laguntzeko. Bidegabeko egoerak hautemateko, aztertzeke eta arrazoizko irtenbideak emateko sentsibilitateak eta elkartasun ekintzetan parte hartzeak pertsona arduratsuak lortzen laguntzen du, bere herriarekin eta inguruarekin konpromisoa hartuko dutenak.

### ***Arloaren ikuspegia***

Hezkuntzako zenbait arlok eta zenbait azterlarik adierazten dutenez, eskolak kulturaren dimentsio etiko-antropologikoa erabaki eta argitasun handiagoz indartu behar du, ikasleek zenbait jakintzaren edukia barneratzeaz gain, horiek bizitzako galeren, gertaeren eta zentzuaren aurrean duten esanahiaz ere jabe daitezen.

Eskola mundu eta bizitza ikuskeren aniztasunak zeharkatutako jakintzaren bermetzat hartzen da, eta ikasleak errealitatea osotasunean deszifratzen eta interpretatzen ikas dezaten saiatzen da; xedea, beraz, jakintza kultura izateko eta zientzia kontzientzia ere bihurtzeko hezte da.

Hezkuntza sistema orean helburua gizarte kultura eskola kultura bihurtzea bada (esanahia eta bizia emateko), bizitzaren zentzuaren eta erlijioaren bilaketa bereganatu behar du, baita etika eta pentsamen-



du sistemak ere (fenomeno sozio-historikoak, esaterako), eta ikaslearen osoko heziketaren osagaitzat hartuko da, beste batzuekin batera: hezkuntza morala eta gizalegezkoa, eta berdintasuna, justizia, elkartasuna, tolerantzia, bakea, bakean bizitzea eta giza eskubideak.

Euskal gizartea, Europakoa bezala, trantsizio prozesu luze eta konplexuan murgilduta dago, eta, gure soziologoek diotenez, kultur haustura edo krisi historiko baten aurrean gaude. Horrek erlijioei eta sinemeni ere eragiten die.

Egun ez dago gizateriaren eta gizartearen ikuspegi eta izateko modu bakarra; gutxiengo etnikoek, erlijiosoek, sexuak, kulturek edo estetikoek euren bizi ikuspegia eta giza balioen ikuspegia proposatzen eta erakusten dute. Munduari dagokionez, arlo berriak daude sakratua hautemateko gai diren pertsonentzat, baita, erlijio tradizionalari dagokionez, erlijiosoak edo sinestunak ez diren haientzat ere; sakratutzat hartzen dituzte azaleratzen ari diren jainkozaletasun berriak eta hainbat mugimendu.

Euskal kultura gure herriaren bizitzeko modua dela esan dezakegu, euskal kulturaren identitatea eratu eta osotasun konplexua bilatzen duten ezagutzak, ideologiak, sinismen erlijiosoak, printzipio etikoak, legeak, arte adierazpenak, ohiturak eta azturak. Euskal Herriaren historia kultura, mugimendu, sistema, ikuskera eta bizi eredu askok eta askotarikoek osatzen dute, eta horrek gure izateko, sentitzeko eta adierazteko moduari eragiten dio.

Gure herriaren errealitatea ez da osatua izango eta ezingo da erabat ulertu gure kultur tradizioa eta erlijioaren papera ezagutu, estimatu eta errespetatu ezean; bereziki garrantzitsuak dira kristautasuna eta kristautasunaren adierazpenak eta horren eratorriak gure historian eta gizartean, baita beste kultura, mundu ikuskera eta pentsamendu sistemak ere.

## 8.2.- ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK

### Arloaren xedea

Curriculum arlo horren proposamenaren asmoa –bertako konpetentziak lortuta– pertsonaren eta kulturaren dimentsio etiko-antropologikoa esanguratsu bihurtzea da, eta ikaslearen garapen osoari eta orekatuari laguntzea. Horretarako, munduaren eta gure herriaren errealitatearen ikuspegi integratzailea erabiliko da, zentzuzko ereduak, proiektu etikoak eta herri mugimenduak ezagutzuz eta balioetsiz, baita erlijioaren adierazpenak, esperientziak eta espresioak ere.

Derrigorrezko hezkuntza amaitzean (6 urtetik 16ra), Mundu Ikuskerak eta Erlijioak arloko konpetentzia orokorrez jabetuta, konpetentzia hauek izango dituzte ikasleek:



## Arloko konpetentzia orokorrak

**1.- Norberaren askatasuna eta autonomia balioestea, eta, norberaren ezaugarri eta mugak ezagututa, arduraz kokatzea berarentzako eta besteentzako eskubideak eta betebeharrak dituen subjektu moduan, bizikidetza, justizia eta elkartasunaren arau etikoak bereganatuz, bizitzaren eta egungo arazoan aurrean jarrera eta erantzun positiboak izateko.**

Hezkuntza prozesu ororen xedea heteronomiatik (besteekiko mendekotasunetik) autonomia arduratsurako urratsa ematea da: norbera izan eta bere askatasunetik ekin, bere irizpide eta erabaki propioekin. Horretarako, ikasleak ongi ezagutu behar ditu bere gaitasunak eta mugak, eta konturatu behar du bestekin eta besteentzat harremanak dituen izakia dela, eskubide eta betebeharrak dituen subjektua. Giza Eskubideen esparrua, balio moral unibertsaltzat hartuta, esperientzia eta ikaskuntza errealean espazioa da eskolan, eta norberaren burua eraikitzen eta harreman irekiak eta unibertsalak izaten laguntzen du.

Pertsona aske, autonomo eta arduratsu moduan hazteko ikasleak bizikidetza arau batzuk onartu, elkartasun balioak landu eta hainbat esparrutan gainerakoen eskubideak errespetatu eta errespetarazi behar ditu.

Konpetentzia hori garatzearen asmoa bizitza proiektu pertsonal moduan ikusten laguntzea da, nia jarrera eta erantzun zehatzen bidez eraikitzea, arazo pertsonalei, gizarte arazoei eta arazo unibertsalei aurre egiteko.

**2.- Euskal gizartearen kezka nagusiekin bat etortzea, gertaerak eta egoerak, ideologiak eta mugimenduak aztertuz eta balioetsiz, giza duintasunaren defentsan eta herrien eta norbanakoen eta taldearen giza eskubideen garapenean interesa agertuz nortasun bateratu bat eraikitzeko; identitate komun horrek harmonian egon beharko du beste herriekin eta kulturekin, kultur arteko aberastasuna sortzeko.**

Gizakiek ongi moldatuz sortu eta bizi nahi badute, batetik, errealitate eta balio komun beretara hurbildu eta horiek partekatu behar dituzte, eta, bestetik, historiaren eta kultur tradizioaren sustraiak zaharra eta berria hartzeko eta kultura eta pertsona berriak batzeko gai direla ohartu behar dute. Konpetentzia hori garatzeko, errealitateekin identifikatu behar dugu (euskara, kultura, erakundeak, gizarte ohiturak...), baita beharrak, arazoak (bakea, askatasuna, bizikidetza, immigrazioa, gizarte pobrezia...) eta etorkizuneko kezkak ezagutu ere.

Euskal gizartearen balioak eta lorpenak eta etorkizuna bakean eta harmonian eraikitzeko aukerak ezagutuz gero, errazagoa izaten da jarrera irekia, elkarriketaren aldekoa, intereseko eta entzuteko jarraia, gizarte ingurunearen arazo eta kezkei aurre egiteko.

Ikasleei dagokienez, konpetentzia hori beste herriekin eta kulturekin irekia, harmonikoa eta berdintasunekoa izango den talde identitatea eraikitzen bideratuta dago. Ildo horretan, lankidetzarako prestatzen du gizarte ongizate esparruan, elkartasuneko proiektu etikoetan eta gure natur eta kultur ondarearen zainketan.



**3.- Pertsoneri eta horien harreman esparruari buruzko zentzuzko galderak egitea (sorrera eta patua, zorientasuna, sufrimendua, gaizkia, heriotza, gizartea, pertsona, injustizia, kosmosa, natur ingurunea, beste mundua...), humanismoek, kulturek eta erlijioek emandako erantzunak arduraz identifikatuz eta balioetsiz, horiei buruzko nor bere ideiak propioak eta portara pertsonal kritikoa, irekia eta elkarrizketaren aldekoa izateko, eta bizitzari edo jarrera etikolari buruzko arazo txikiak konpontzeko.**

6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak pixkanaka-pixkanaka jabetzen dira esperientzia berriez beren barnean eta inguruan, eta horrek errealitate oso zehatzei buruzko galderak egitera daramatza: munduaren eta gizakiaren agerpena, natur hondamendiak, sufrimendua eta mina, heriotza, zorientasuna eta zoritxarrak, gerrak, maitasuna eta gorrotoa, ongia eta gaizkia, pertsona batzuen portaerak, etab. Errealitate biziak dira, eta ikasleen mundu mentalean eta emozionalean erakarpena eta kezka eragiten dituzte. Oro har, eta adinaren eta heldutasunaren arabera, helduengana jotzen dute erantzun bila (gurasoak, aiton-amonak, hezitzaileak, animatzaileak, lagunak, adindunak...) eta bilatzen eta erantzuten lagundu behar diegu.

Eskolak jakintza eta kultura ditu, eta erantzunak eman behar dizkie pentsamendu humanistan, erlijioen esperientzian, zientzietan, herrien ohituretan, sentimenduetan eta pentsamenduan eta abarrean oinarrituta. Eskolak pentsatzen eta balioesten lagundu behar die, hazten diren heinean entzuten, eztabaidatzen eta beren sinismenak eta erantzunak izaten ikas dezaten.

Kompetentzia hori hainbat egoeratan eta arazotan islatuko eta ezarriko da, eta bereziki lagunduko die pentsatzeko eta bizitzeko modua bideratzen. Garrantzitsua da bizitzari eta errealitateari buruzko ikuspegi positiboa eta orekatua izatea, jarrera zintzo, ireki eta intelektualki zuzen batetik abiatuz.

**4.- Erlijioa kultur fenomeno delako bereiztea eta balioestea, erlijio nagusien historiaren, sortzaileen, egituren, dotrinaren, liburu sakratuen, gurtzen eta errituen, arau moralen eta kultur adierazpenen azterketa konparatiboaren bidez, baita sistema etikoen, pseudoerlijioen eta mugimendu berrien azterketa konparatiboaren bidez ere, berdintasunarekiko jarrera kritikoa izanez eta, aldi berean, tolerantzia aktiboa eta errespetua agertuz, eta ikuspegi bakoitzaren berezitasunak harmoniaz uztartuz.**

Bizitzaren eta errealitateen zentzuari buruzko galderi erantzuteko, erlijioak dira erantzun garrantzitsuenetakoak. Horiek unibertsalak dira eta bizitzari eta pertsonaren barruko kezkei zentzua ematen diete. Erlijioen historiak gizon eta emakumeen erlijio sinismenak (ildo subjektiboa, erlijioaren barrualdea) eta adierazpenak (ildo objektiboa eta soziala) aztertzen ditu. Erlijiotasunaren adierazpen faltsuek ere badute lekua; esaterako: magiak, aztikeriak, sineskeriak, idolatriak eta abarrek. Lekua dute, halaber, erlijio mugimendu berriek; esaterako: esoterismoak, aro berriak eta abarrek.

Munduko erlijio handien historiak (erlijio primitiboak, ekialdekoak –hinduismoa, budismoa– eta mono-teistak –judaismoa, kristautasuna eta islama–) ikuspegi zabala eta aberatsa emango ditu egiturak, baldin eta dotrina, errituak eta kultur adierazpenak aztertzen eta alderatzen badira.



Erlijioa kulturatzat eta giza bizitzaren eta munduaren zentzuari buruzko erantzuntzat hartzen eta balioesten bada, pertsonekin eta haien sinismenekin tolerante izateko jarrera sortzen da ikasleengan. Konpetentzia horren bidez, ikaslea erlijioaren aurrean jartzen da eta harmonian eta errespetuz biziko da, eta erlijioen arteko elkarrizketa ere sustatuko du, kultur aniztasunaren, trukearen eta elkarrenganako hurbilpenaren adierazpen modura.

### **5.- Euskal Herriko erlijiotasunaren mugarrak eta adierazpenak identifikatzea, eta arte eta kultur adierazpenak interpretatzea, horiek elementu estetikoak eta erlijiosoak aplikatuz, adierazpen horietaz gozatzeko, errespetatzeko eta egungo belaunaldiak horiek zaintzeko duen ardurara bereganatzeko, gure kultur ondarearen zati baitira.**

Erlijioa modu berezian bizi eta adierazi da eta, beraz Euskal Herriko historiaren parte garrantzitsua da. Iraganeko erlijiotasunaren mugarrak eta adierazpenak, fedea eta kristau kultura eta Elizaren ekarpena oso garrantzitsuak izan ziren euskal gizartea eta kultura osatzeko. Horiek guztiak konpetentzia horren ardatza direnez, ezagutu, aztertu eta balioetsi egin behar dira.

Interpretazio erlijiosoak edo/eta estetikoak aplikatzen jakinez gero, ikasleak erlijioarekin lotutako eta bertatik sortutako arte adierazpenetara eta kultur formetara gerturatu behar du, ulertu ahal izateko.

Ikasleak erlijioari buruzko ezagutza adierazkor horiek erabiliko ditu gozamen estetiko eta espiritual lortzeko, eta, aldi berean, estimua eta ardura eragingo ditu hurrengo belaunaldietan, ondare hori senti eta zain dezaten.

### **8.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK**

Arestian proposatutako konpetentzia orokorrak ondoren aipatuko diren gai multzoen bidez garatuko dira. Gai multzo bakoitzari dagozkion jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko edukiak ere agertzen dira.

Jarraian, arloko konpetentziak lortzeko eduki multzoak adierazten dira:

- 1.- Pertsona, gizona eta emakumea, eta bizikidetzaren etika: balioak eta egungo gatazkak (**“Konkistatutako askatasunaren historia”**).
- 2.- Gizakiaren galderak eta zentzua bilatzea (**“Galderak bizitzari”, “Mundu honetan zertarako gauden”**).
- 3.- Erlijio fenomeno eta kultur adierazpena (**“Izatea eta sinistea helburu”**).
- 4.- Euskal gizartea, identitatea eta giza eskubideak (**“Bakean eraikitzen dugu, berdintasunetik eta desberdintasunetik abiatuta”**).
- 5.- Erlijosotasunaren moduak eta adierazpenak Euskal Herrian (**“Aldatzen ari den herria sustrai bila”**).
- 6.- Gizartea, politika eta erlijioa: bizikidetzaren ardatzak (**“Hitzen eta elkarrizketen bidez bizitzea”**).



### 8.3.1.- Jarrerazko edukiak

Diziplina arlo honetan proposatutako oinarrizko balioak bost konpetentzia orokorretan aurreikusitako eta artikulatutako oinarrizko jarreraren bidez garatzen dira. Jarrera horiek zenbait modalitate edo esparrutan biltzen dira.

- 1.- **Adi eta arretaz entzutea** besteek igortzen dizkiguten mezuak (hezitzaileek, gurasoek, ikaskideek, lagunek...), ikaskuntza edukiak eta beste jazoerak arretaz eta errespetuz jasotzeko gaitasuna izatea.
- 2.- **Interesa eta jakin-mina agertzea** ezagutza arlo berriekiko eta beste herrien, taldeen eta pertsonen kulturekiko. Ikasteko eta norberaren burua eta besteak hobetzeko jarrera positiboa agertzea.
- 3.- **Jarrera kritikoa** eta interesa izatea pertsoneri (gizakiari), munduari eta bizitzari buruzko ikuspegi etiko, erlijioso eta politiko anitzen aurrean, baita giza eskubideen aurkako legeen edo jarreraren aurrean ere.
- 4.- Ezagutzak, nahiak, afektua, ideiak eta usteak **naturaltasunez adieraztea** besteen aurrean, naturaltasunez eta formak errespetatuz.
- 5.- **Belaunaldiaren erantzukizuna**: identitatea, balioak eta kultur, arte eta erlijio ondasunak zaintzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzen duen herritar talde edo belaunaldi batekoa dela jabetzea, eta erantzun kolektiboa ematea.
- 6.- **Pertsonen duintasuna**, eta beren ideiak, balioak eta kulturak izateko eta askatasunez eta egoki adierazteko eskubidea dutela onartzea. Integritate fisiko eta morala errespetatzeko jarrera.
- 7.- **Estimu garbia**; pertsonak, balioak eta giza kultura mentalki eta afektiboki onartzea, baita kanpoaldera adierazten diren natura, ingurumena eta bizitza ere.
- 8.- Norberaren eta besteen ezaugarriak, mugak eta eskubideak **onartzea**, baita lege demokratikoak eta bizikidetzara arauak ere.
- 9.- Egoera edo helburu baten aurrean besteen ideiak, sinismenak eta gertaerak onartzeko **tolerantzia aktiboa** agertzea, norberarenak inposatu gabe, eta besteen askatasuna onartzea.
- 10.- **Kultur sintonizazioa**, giza talde baten edo komunitate politiko baten balioek, idealak eta bizimoduak sentitzeko, eta horien alde lan egiteko eta horrekin bat egiteko, horretarako ahaleginak eginez eta baliabideak jarritz.
- 11.- **Elkartasuna** eta atxikimendua agertzea pertsonen edo taldeen arrazoi, iritzien eta ekintzen alde, gizarte arazoak konpontzen laguntzeko; elkartasuna eta atxikimendua adieraztea, bereziki, ahulenei, behartsuenei eta baztertuenei.
- 12.- **Talde lanetan parte hartzea**, ahaleginak, gaitasunak eta denbora emateko lan bat egiten, guztien ongia bilatzen eta arazoak eta gatazkak konpontzen.
- 13.- **Talde baten edo gizartearen integrazioa**, talde naturalean edo giza talde orokor batean, horri egokitzeko eta bertan parte hartzeko, arauak onartzu eta taldeak hobetzen lagunduz.
- 14.- **Bakean bizitzea**, barne orekaz eta besteak eta haien ideiak errespetatuz; elkarrizketa erabiliko da elkar ulertzeko (familian, eskolan, auzoan, gizarte taldeetan), eta edozein motatako hitzezko erasoak, eraso fisikoak eta moralak saihestuko dira.
- 15.- **Beste ideiak eta kulturak errespetatzea**, besteek askatasunez erabil ditzaten pertsonen eta herrien eskubide indibidualak eta kolektiboak. Desberdina dena eta hizkuntza, ohitura, erlijio desberdinak dituztenak onartzea.
- 16.- **Jarrera ekumenikoa** (edo unibertsala): espiritu irekia lantzea eta besteen erlijio sinismenak onartzea, desberdintasunen gainetik batasuna bilatuz (kristau elizen batasuna).
- 17.- **Aktiboki parte hartzea** gizabanako edo kolektibo moduan parte hartu behar dugun ekintzetan eta erabakietan: eskolako lanetan, familia laguntzan, taldearen hobekuntzan, gatazkak konpontzen, elkartasun kanpainenetan.
- 18.- **Harreman irekia eta elkarrizketaren aldekoa izatea** gugandik hurbilen daudenekin, norberaren irizpideetara eta gustuetara mugatu gabe, eta elkarrizketa erabiliz komunikatzeko eta ulertzeko.
- 19.- **Harmonia** edo oreka izatea pertsona arteko harremanetan, harremanak errazak izateko eta ikuspegi eta interes desberdinekin bat etortzeko, baita kulturaren bizikidetzarako eta integrazioarako ere.
- 20.- **Natura** eta ingurune ingurumena zaintzea, bai irtenaldietan, bai txangoetan, eta herri kanpainenetan laguntzea.
- 21.- **Askatasuna** izatea norberaren usteen arabera pentsatzeko, erabakitzeko eta jarduteko, pertsonen eta baldintzek manipulatzeko utzi gabe eta ongiaren bila arituz.
- 22.- **Autonomia arduratsua izatea** agindutako lanak egiteko, arauak betetzeko eta erabakiak hartzeko, eta ekintzen ondorioak onartzea.
- 23.- **Nork bere estimua** izatea; hau da: nork bere burua positiboki onartzea, nork bere buruan konfiantza izatea eta nork bere ezaugarriak eta aukerak balioestea.
- 24.- **Afektiboki balioestea** pertsonen ereduak gaitasunak, jarrerak eta testigantzak, eta kultura eta estetika ondareekiko estimua agertzea.
- 25.- Arte, literatura eta musika adierazpen espirtitualez edo erlijioez **gozatzea** (ongizatea eta gozamena lortzea).



## 8.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

### 1.- PERTSONA, GIZONA ETA EMAKUMEA, ETA BIZIKIDETZAREN ETIKA: BALIOAK ETA EGUNGO GATAZKAK “KONKISTATUTAKO ASKATASUNAREN HISTORIA”

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Pertsona izatea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizakiaren duintasuna: zer den eta zer ondorio dituen. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autonomia eta nork bere buruaren estimua nortasunaren oinarri.</li> <li>• Nork bere burua ezagutzea eta onartzea: ezaugarriak eta mugak.</li> <li>• Gizona eta emakumea berdintasunean.</li> </ul> </li> <li>- Pertsona, eskubide eta betebeharren subjektua.</li> <li>- Pertsona, harremanak dituen izakia: ni, zu, gu.</li> <li>- Hezkuntzarako eta kulturarako aukera.</li> </ul> <p><b>2. Pertsona etikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona, izaki etikoa: oinarriak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autonomia eta heteronomia morala.</li> <li>• Kontzientzia morala eta askatasun arduratsua: ongiaren bila.</li> </ul> </li> <li>- Etika eta morala: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Betebeharren etika eta zorientasunaren etika.</li> <li>• Teoria eta sistema moralak: aristotelismoa, hedonismoa, epikureismoa, utilitarismoa, etab.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>3. Pertsona proiektu gisa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizitza proiektu pertsonal gisa. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorientasuna: autoerrealizazioa?, bilaketa?, ongizatea?, gozatzea?.</li> <li>• Motibazioa eta idealak.</li> <li>• Maitasuna, adiskidetasuna, sexualitatea.</li> <li>• Pertsona eta lana.</li> </ul> </li> <li>- Familia gizarte zelula gisa: formak eta harremanak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia tradizionala, zabala, nuklearra, gurasobakarra eta bizikidetzarako beste modu batzuk.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>4. Gatazken aurrean, balioak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Balioak eta jarrerak zer diren. Axiologia, balioen zientzia (Scheler, Buber, etab.). <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonaren askatasuna balioen aurrean.</li> </ul> </li> <li>- Giza eskubideak, izaera unibertsaleko balio moralak: ezaugarriak, motak, klaseak.</li> <li>- Gure garaiko arazo moralak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarteari dagozkionak: <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte eta genero indarkeria.</li> <li>Immigrazioa.</li> <li>Arazakeria eta xenofobia.</li> <li>Gerra gatazkek.</li> <li>Pobreziak: gosea, azpigarapena, kanpo zorra, gaixotasunak, etab.</li> </ul> </li> <li>• Zientzia eta teknologia aurrerapenei dagozkienak: <ul style="list-style-type: none"> <li>Bioetika: bizitzaren etika.</li> <li>Gizakiaren ugalketa.</li> <li>Abortoa.</li> <li>Eutanasia.</li> </ul> </li> <li>• Mobbing-a eta bulling-a.</li> <li>• Giza eta zientzia aurrerapena eta dilema moralak.</li> <li>• Informatika eta gizartearen komunikabideak: <ul style="list-style-type: none"> <li>Internet, askatasunerako aukera?</li> <li>Delitu informatikoak.</li> <li>Komunikabideak.</li> <li>Publizitatea eta manipulazioa.</li> </ul> </li> <li>• Informazio bideen eta teknologia berrien erabilera etikoa: balioak eta kontrabaliok.</li> </ul> </li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Inguruko giza arazoei buruzko zuzeneko informazioa bilatzeko jarraibideak, egoera horretatik gertu dauden pertsona konpetenteak elkarriketatuz.</li> <li>2. Testu bat sistema moral batekoa edo egile batena dela identifikatzeko arauak, elementuei eta mezuari erreparatuta.</li> <li>3. Egoerak eta portaerak behatzeko eta aztertzeko urratsak, oinarrizko etikak oinarritzat hartuta.</li> <li>4. Gizarte arazo bati edo arazo moral edo etiko bati buruzko monografia txikiak egiteko jarraibideak.</li> <li>5. Kontzeptuak elkarrekin lotzeko edo multzo bateko elementuak antolatuzko kontzeptuzko mapak diseinatzeko jarraibideak.</li> <li>6. Pertsona edo talde jakin bati dagozkion egoerak eta erabaki hartzeak kritikoki baloratzeko protokoloa.</li> <li>7. Portaera bat onartzeko edo baztertze arrazoiak emateko jarraitu beharreko aholkuak.</li> <li>8. Imitatzeko eredu bat edo balio bat barnertzeko prozesua.</li> <li>9. Beste garai eta egoera bateko balio etiko bat egun onartzeko argumentuak emateko urratsak.</li> <li>10. Ikasgelako eztabaida batean parte hartzeko jarraitu beharreko arauak, ikuspegi trukea irekia eta errespetuzkoa izateko.</li> <li>11. Munduko giza arazoak aurkezteko jarraitu beharreko aholkuak. Aurkezpena hainbat baliabideren bidez egingo da: argazkiak, kartelak, muralak, grabazioak, irudi informatikoak, filmaketa, pintura, prentsa artikulak eta albisteak, etab.</li> <li>12. Nork bere printzipio moralak edo sinismenak justifikatzeko urratsak, baita nork bere eta besteen portaerak baztertu eta onartzeko ere.</li> <li>13. Gatazka edo gai moral bati buruz eztabaidatzeko arauak.</li> <li>14. Dilema moralak planteatzeko jarraibideak, eta haiei buruzko erabakiak hartzea.</li> <li>15. Galio eskala erakitzea gizarte egoerak eztabaidatzen, arazoak konpontzen, bizikidetzaren ereduak edo zorientasun moduak proposatzen laguntzeko.</li> </ol>





**2.- GIZAKIAREN GALDERAK ETA ZENTZUA BILATZEA**  
**“BIZITZARI BURUZKO GALDERAK”, “MUNDU HONETAN ZERTARAKO GAUDEN”**

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
**Alfabetatze zientifiko** hori lortzeko, diziplina tradizionalen edukiak sartu beharko ditugu arlo horretan; esaterako, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia. Horien adar berriak ere ezin ditugu ahaztu –Ekologia, Bioteknologia...–, ezta Astronomia, Medikuntza edota Dietetika ere, oso interesgarriak baitira, zalantzarik gabe. Behin betiko egiez osatutako multzoa baino gehiago, zientziak jarduera konstruktibo bat direla ulertu behar dugu, eta, teorietan formulatutako hurbilketen bidez, zientziek fenomenoetara buruzko gero eta deskribapen eta azalpen zabalagoak, koherenteagoak eta zehatzagoak ematen dituzte. Jarduera konstruktibo horretan, funtsezkoak dira bai hurbilketak errealitatearekin kontrastatzeko prozedurak, bai ikerketa bideratzen duten eta ikerketan bertan kontrastatzen diren esparru kontzeptualak; dena den, ezin ditugu ahaztu giza eta gizarte jarduera guztien garapena mugatzen dituzten jarrerak eta balioak.



## 9.2.- KOMPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko irakaskuntzan, ikasleei oinarrizko prestakuntza zientifikoa ematea du helburu Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloak. **Alfabetatze zientifiko** horrek hiru motatako lorpenak barne hartu behar ditu, gutxienez:

**Kulturala:** ikasleek modu globalean ulertu eta interpretatu behar dute aztertu beharreko errealitate naturala, baita errealitate horretan duten lekua ere. Horretarako, pentsamendu zientifikoaren kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko oinarrizko tresnak bereganatu behar dituzte. Horrez gain, lorpen horrek zientziaren eta jarduera zientifikoaren izaera ulertzen lagundu behar die ikasleei, baita horrek teknologia-ekin eta gizartearekin dituen harreman konplexuak ere. Azken finean, ez da nahikoa ikasleek zientzia ikastea (horren produktuak); aitzitik, zientziari buruz ere ikasi behar dute, eta gizakion kultur produktu gisa ikusi behar dute zientzia.

**Praktikoa:** ikasleek eguneroko bizitzan erabili behar dituzte ezagutza zientifikoa eta ezagutza teknologikoa; nor bere burua hobeto ezagutzeko, bizi baldintzak hobetzeko eta ohiko arazoak konpontzeko. Ikasleek zientzia egiten ikasi behar dute, arazoak konponduz eta ikerketa txikiak garatuz (zientziaren metodoa).

**Gizalegezkoa:** ikasleek erabaki pertsonalak hartu behar dituzte. Horrez gain, modu kritikoa eta arduraz parte hartu behar dute gizarte gaietan eta gai politikoetan; batez ere, gure gizartean ezagutza zientifikoa erabiltzearekin lotuta dauden gaietan. Parte hartze hori oso garrantzitsua da gizartea erabat teknifikatuta badago eta ingurumen arazo larriak baditu; adibidez, euskal gizartea. Kontzientziatzea handitzeaz gain, zientziarekiko eta horrek giza garapenean egiten dituen ekarpenekiko jarrera positiboa garatzen lagundu behar du alfabetatze zientifikoak; halaber, ikasleen giza prestakuntza sustatu behar du, ohi-tura eta balio egokiak garatuz.

Derrigorrezko irakaskuntza (16 urte) bukatzean, ikasleek hauek egiteko gai izan behar dute Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloan:

### **1. Errealitatearen azalpen eskemak eraikitzekeo gai izan behar dute kontzeptu, printzipio, balio eta jarrera zientifikoak erabiliz; bai fenomeno natural nagusiak interpretatzeko, bai gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologikorik garrantzitsuenak modu kritikoa aztertzekeo.**

Kompetentzia hori fenomeno naturalei zentzua ematean datza, onartutako printzipio zientifikoetan oinarritutako azalpenak formulatuz. Horretarako, edukirik espezifikoenak eta sinpleenak eta Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloaren gai guztietako edukiak barne hartzen dituzten printzipio egituratzaileak ezagutu eta ulertu behar dira, apurka-apurka. Horrek ereduak eta teoriak alderatu eta bereiztea dakar berekin, baita egia eta jakintza absolutuak alde batera uztea ere. Zientzia prozesu bat dela ulertu behar da, dinamikoa dela eta testuinguru historikoari lotutako gizarte jarduera bat dela. Beraz, kompeten-



tzia hori garatzean, zientziaren eta teknologiaren garapenaren arteko harremanak aztertzeo aukera ere izango dute ikasleek.

**2. Arazoak konpontzeko eta ikerketa txikiak egiteko gai izan behar dute, bakarka nahiz elkarlanean, arrazoibide eta argudiaketa zientifikoak eta zientziaren beste prozedura batzuk erabiliz, gutako bakoitzarentzat edo gizartearentzat interesa duten benetako egoerei heltzeko testuingurua kontuan hartuta eta erabakiak arduraz hartu ahal izateko.**

Estrategia zientifikoen erabileran oinarritutako konpetentzia da, bai arazoak konpontzeko, bai ikerketa txikiak egiteko. Bakarka nahiz elkarlanean, ikasleek ezagutza zientifikoa sormenez erabiltzea da kontua –ez mekanikoki soilik–. Azalpen hipotesiak formulatzeaz gain, datuak lortu eta horietatik iritziak sortzeko aukera emango dieten emaitzak eta ondorioak atera behar dituzte ikasleek; iritzi soilak eta froga zehaztetan oinarritutako ebidentziak ere bereizi behar dituzte. Zerbait testuinguruan jartzeko, zientzia aplikatzeko moduko egoera errealak azaldu behar dira; egoera horiek eragina izan dezakete gutako bakoitzarengan nahiz gizarte osoan. Ildo horretatik, egoera sinpleei edota ezagunei buruzko ondorioak ateratzeko eta argudioak osatzeko balio duten datuak eta aldagaiak erlazionatzetik egoera konplexuagoak lantzerantz pasatuko gara, apurka-apurka.

**3. Zientziei buruzko informazioa duten iturri desberdinetako mezuak era aktiboan eta kritikoki interpretatzeko eta mezu zientifikoak sortzeko gai izan behar dute, ahozko eta idatzizko hizkuntzak behar bezala erabiliz, baita beste notazio eta irudikapen sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatzeko eta gizartean, ikasketetan eta lanbidean moldatu ahal izateko.**

Beraz, zientziaren hizkuntza espezifikoa erabiltzen ikasi behar dute ikasleek. Hizkuntza hori erabili behar dute ikasketetan nahiz eguneroko bizitzan: irakurtzean eta idaztean, pentsatzean eta arazoak konpontzean. Hizkuntza eta komunikazioa zientzia egiteko erabiltzen diren baliabide guztien baitan daude. Matematika ere zientziaren hizkuntza espezializatu bat da. Eguneroko bizitzan, sekulako informazio pila jasotzen dugu. Jarduera zientifikoak egitean, ikasleek erabili egin behar dituzte informazio iturri izan daitezkeen baliabideak –ohikoak edota informatikoak–. Helburua kontuan hartuta, iturri dokumentalak aukeratu eta baloratu behar dituzte, informazio jakin bat ona ala txarra den erabakitzeo. Konpetentzia hau garatzen badute, zientzia irakurtzen eta zientziari buruz hitz egiten eta idazten ikasiko dute ikasleek, baita horrekin lotutako gaiei buruzko erabaki funtsatuak hartzen ere.

**4. Giza organismoari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzeko gai izan behar dute, gure gorputzak nola funtzionatzen duen eta osasuna nola zaindu behar dugun azalduz, zainketa eta arreta ohiturak garatzeko eta ongizate pertsonala handitzeko.**





Gure espezieko kideak desberdinak gara itxura edota jokaera aldetik, baina antzekotasunak ditugu barnean, eta bizi ziklo bera bete behar dugu guztiok. Anatomia eta fisiologia organoak eta sistemak aztertzean, ordea, bizitzeko oinarrikoak diren prozesuekin lotu behar dira: elikagaia eta energia lortzearekin, kalteen aurkako babesarekin, barne koordinazioarekin eta ugalketarekin. Bestalde, osasunari eta gaixotasunari buruz hitz egitean, dimentsio fisikotik harago joan behar da, eta dimentsio mentala eta soziokulturala ere kontuan hartu behar dira. Ikasleek jakin behar dute, halaber, gaixotasun guztiak ez dituztela germenek sortzen; hau da, barne organoen funtzionamendu txarrak, osasun ohitura txarrek eta genetikak ere sor ditzaketela jakin behar dute.

### **5. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoa erabiltzea, zer elkarreragin sortzen diren eta oreka zer den eta zer faktorek eteten duten azalduz, natura balioesteko, naturaz gozatzeko eta hori zaintzen eta hobetzen parte hartzeko.**

Munduan, era askotako baldintza fisikoak daude, eta horiek era askotako inguruneak sortzen dituzte. Materiaren eta energiaren transferentzia eta transformazio zikloen bidez, izaki bizidunen arteko eta izaki bizidunen eta ingurunearen arteko elkarreragina gertatzen da, oreka dinamiko batera heldu arte. Berriztapen tasak errespetatu gabe ekosistemetan egiten diren jarduera antropikoak, ustiapenak eta erabilera irrazionalak zenbait arazo eragiten dituzte: kutsadura, ingurumen inpaktuak, naturaren zainketa eta garapen iraunkorra; eta horiek ikasleei azaldu behar zaizkie. Bestalde, ekosistemak eta horien problematika lantzeko, testuinguru orokorretik (biosfera eta bioma nagusiak) testuinguru zehatzetara (Euskal Herriko ekosistemak) jo behar dugu. Ondoren, testuinguru orokorrari heldu behar diogu berriro, gaia hobeto ulertzeko, ikuspegi globala izateko.

### **9.3.- IKASKUNTZA EDUKIAK**

Errealitatea ulertu eta interpretatzeko erabiltzen ditugun kontzeptuek osatzen dute Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloaren egitura nagusia. Horrexegatik jotzen ditugu kontzeptu horiek curriculum antolatzeke eduki eredutzat. Nolanahi ere, prozedurazko eta jarrerazko edukiak ere kontzeptuzko edukiak bezainbeste landu behar dira. Izan ere, zientziaren kontzeptuzko sistema –erabat antolatuta– heretsiki lotuta dago bi hauekin: bai errealitatea ikertzeko metodo zientifikoen urrats eta arau bereizgarriekin, bai jarrerarekin. Praktikan, eduki mota guztiak elkarri lotuta daude, eta ia ezinezkoa da horiek bereiztea: ezagutzak ez dauka zentzurik testuingururik gabe, ezagutza horren bidez zer arazo konpon daitezkeen jakin gabe; ezinezkoa da, halaber, prozedurazko alderdiak eta horiek egiteak sortzen duen interesa, kontzeptuak sartzeko beharra eta abar bereiztea.

Arlo honetako kontzeptuzko edukiek helburu jakin bat dute: ikasleek kultura zientifikoaren oinarriak bereganatzea. Enfasi berezia jartzen da natura egituratzen duten fenomenoetan, fenomeno horiek



zuzentzen dituzten arauetan eta arau horien adierazpen matematikoetan. Horren guztiaren bidez, gure inguruari buruzko ikuspegi arrazional eta globala osatuko dute, eta bizitzarekin, osasunarekin, ingurunearekin eta teknologia aplikazioekin lotutako egungo arazoei heldu ahal izango diete. Hori dela eta, eduki horiek zazpi atal handitan banatuta ageri dira arlorako proposatutako curriculumean, eta, beraz, errealitatearen diziplinarteko interpretazioa egin dezakegu. Horrez gain, curriculumea egituratzen duten hiru dimentsio nagusiei (pertsona, natura eta gizartea) arlo honek egiten dien ekarpena azpimarratu nahi izan da. Horregatik ageri dira gizakiari buruzko eduki atal espezifikoak batetik, eta, bestetik, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin duten harremanari buruzko eduki atal espezifikoak.

Prozedurei dagokienez, bereizitako atal batean ageri dira, kontzeptuzko atal batean baino gehiagotan prozedura bera ez agertzeko eta ikuspegi globala eta aurkezpen argia lortzeko. Bertan, hezkuntza kompetentzia orokorrak garatzeko funtsezkotzat jotzen diren arau, erregela edota jarraibide batzuk eta algoritmo, teknika eta estrategia batzuk ageri dira. Horiek guztiek jarduera zientifikoaren eraginkortasuna, aberastasuna eta sormena gertutik ezagutzen laguntzen diete ikasleei.

Jarrerak zehar lerrotzat jo daitezke, eta, beraz, bereizitako atal batean ageri dira horiek ere, bai pentsatzeko eta jarduteko modu zientifikoei lotuta daudenak, bai zientziaren ikaskuntzari edo horren gizarte inplikazioei buruzkoak. Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak batera landu eta testuinguruan jarri behar dira, baina, horrez gain, eduki horiek hezkuntza kompetentziekin eta helburuekin lotu behar dira; batez ere, hezkuntza zientifikoak lagundu egin behar badie ikasleei teknifikazio handia eta ingurumen arazo handiak dituen gizarte batean integratzen –hori da euskal gizartearen kasua–. Horregatik, oso kontuan izan behar dira eduki zientifikoek beren aplikazio teknikoekin dituzten erlazioak eta horiek gizartean eragiten dituzten ondorioak –bereziki, osasunari eta natura inguruenari eragiten dietenak–.

### 9.3.1.- Jarrerazko edukiak

- 1.- Errealitatea ezagutzeko eta ulertzeko jakin-mina eta interesa adieraztea, eta adierazitako galderei erantzunak eta konponbideak ematean sormena izatea.
- 2.- Zientziak osasunean, giza ongizatean eta gizarte garapenean egindako ekarpena baloratzea, aurrerapen zientifiko-teknologikoen gizakioi eta ingurumenean eragin ditzaketen arriskuak eta kostuak kontuan hartuz.
- 3.- Arazoak konpontzeko proposatu eta erabiltzen diren behaketak, frogak eta ebidentziak aztertzeko pentsamendu kritikoa garatzea, eta aldaketak, lege eta eredu zientifikoaren behin-behinekotasuna eta zalantzak onartzeko adimen malgutasuna izatea.
- 4.- Lan pertsonalean ahalegina eta irmotasuna adieraztea, jarrera aktibo eta arduratsua erakustea, autokritikoa izatea eta norberaren aukeretan konfiantza izatea -autonomiaz, autokontrolaz eta gozatuz-.
- 5.- Talde lanak egiteko prest egotea: elkarrekin arduraz lan egiteko eta parte hartzeko jarrera erakustea, eta, elkarriketetan eta eztabaidetan, besteen ideiak eta ekarpenak errespetuz eta tolerantziarekin onartzea.
- 6.- Lan esperimentaletan eta irtenaldietan zorrotasunez jokatzeko, eta, laborategian, segurtasun eta garbitasun arauak errespetatzea.
- 7.- Hizkuntza zientifikoa zehaztasunez erabiltzea, eta horren adierazpen guztietan argitasun eta txukuntasun ohiturak balioestea.
- 8.- Norberaren gorpuzta estimatu eta onartzea, eta, horretarako, zainketa eta osasun ohiturak erakustea.
- 9.- Naturaz gozatzea eta natura errespetatzea, eta hori zaindu eta hobetzeko jardueretan arduraz parte hartzeko prest egotea.
- 10.- Zientzia lanetan diharduten pertsonen buruzko estereotipoa gainditzea, ezagutza zientifikoa gizartean eta historian kokatzea eta ezagutza taldean eraikitzen dela ulertzea.



### 9.3.2.- Prozedurazko edukiak

- 1.- Aztertu beharreko problemak eta gaiak identifikatzeko eta zehazteko jarraibideak.
- 2.- Esparru teoriko batean oinarrituz, egoera gatazkatsuei buruzko uste egiaztagarriak edota hipotesiak sortzeko irizpideak.
- 3.- Hipotesiak kontrastatzeko diseinu esperimental txikiak egiteko eta aldagaiak identifikatzeko arauak. Aldagaien arteko erlazioak ezartzeko eta esperientziak egitean horiek kontrolatzeko jarraibideak.
- 4.- Benetako fenomenoak eta egoerak behatzeko irizpideak.
- 5.- Magnitudeak iritzira kalkulatzeko eta neurtzeko irizpideak, baita unitateak eta horiek neurtzeko tresna egokia aukeratzeko irizpideak ere.
- 6.- Harriak, landareak, animaliak, substantziak, zelulak eta abar sailkatzeko eta segidak osatzeko irizpideak eta gakoak.
- 7.- Laborategian eta kanpoan lan egiteko oinarrizko arauak eta teknikak.
- 8.- Giza gorputzaren eta osasunaren zainketaekin lotutako oinarrizko teknikak.
- 9.- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan biltzeko, antolatze eta interpretatzeko jarraibideak.
- 10.- Funtzio matematikoen eta formula kimikoen ariketak paperean egiteko algoritmoak eta kalkuluak.
- 11.- Eredu eta maketa analogikoak edota eskalazkoak eta, oro har, simulazio informatiko guztiak erabiltzeko edota eraikitzeko jarraibideak.
- 12.- Deskribapenak egiteko, azalpenak emateko eta argudiaketak egiteko arauak.
- 13.- Laburpen txostenak egiteko orientabideak; bai deskribapen txostenak egiteko -bizi izandako esperientziez eta prozesuez-, bai argudio txostenak egiteko -behaketetatik edota esperientzietatik ondorioak ateratzeko-.
- 14.- Testuetan, ikus-entzunezko materialetan eta multimedia materialetan ideiak identifikatzeko eta bereizteko teknikak.
- 15.- Datuak, ideiak, ereduak, erlazioak eta abar bilatzean informazio iturri bat baino gehiago erabiltzeko irizpideak.
- 16.- Inguruko errealitatearekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko orientabideak.
- 17.- Taldean lan egiteko, eztabaidak antolatze eta aukeratutako gaien gainean sor daitezkeen eztabaidetan parte hartze arauak.



### 9.3.3.- Kontzeptuzko edukiak

Eduki multzoak	Kontzeptuzko edukiak
<p><b>1. - Lurra eta unibertsoa</b></p>	<p><b>Unibertsoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Unibertsoaren egitura: planetak, izarrak eta galaxiak. Esne bidea eta Eguzki Sistema. Lurraren eta Eguzki Sistemako beste osagaien ezaugarri fisikoak.</li> <li>- Lurraren higidurak: urtaroak, eguna eta gaua, eklipseak eta Ilargi faseak.</li> <li>- Unibertsoari eta Eguzki Sistemari buruzko azalpen historikoak. Teknologia baliabideak: teleskopioak, espazio zundak, satelite artifizialak...</li> </ul> <p><b>Lurra</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Atmosfera, hidrosfera, litosfera eta biosfera.</li> <li>- Aire: osagaiak eta propietateak. Kutsadura eta osasuna.</li> <li>- Ura: ugartasuna eta propietateak. Uraren zikloa. Kutsadura eta osasuna. Ura baliabide gisa: erabilera eta ura aurrezteko neurriak.</li> <li>- Harriak eta mineralak: propietateak eta sailkapena. Harriak eta mineralak baliabide gisa: erabilerak eta interes ekonomikoa. Euskal Herriko harririk eta mineralik ugariak.</li> </ul> <p><b>Lurraren dinamika</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Klima. Klima motak. Euskal Herriko klima. Klima aldaketak.</li> <li>- Lurreko erliebea. Euskal Herriko erliebe motak.</li> <li>- Kanpo eragileak eta prozesuak: meteorizazioa, higadura, garraioa eta sedimentazioa. Harri sedimentarioak. Ikatzeta eta petrolioak. Lurzorua eta lurzoruaren osagaiak. Lurzoruak baliabide gisa duen garrantzia. Lurzoruaren degradazioa.</li> <li>- Barne eragileak eta prozesuak: mendikateak, sumendiak eta lurrikarak. Harri magmatikoak eta metamorfikoak. Ziklo litologikoa.</li> <li>- Lurraren barne egitura. Plaken tektonika. Plaka litosferikoak: higidurak eta ertzak. Lotura duten fenomenoak.</li> <li>- Denbora Geologian. Lurraren historia: jatorria eta era geologikoak. Fossilak.</li> </ul>
<p><b>2. - Materia</b></p>	<p><b>Materia eta materiaren propietateak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Materiaren propietate orokorrak: masa, bolumena eta dentsitatea. Propietate bereizgarriak. Magnitude fisikoak eta horien neurketa. Nazioarteko Unitate Sistema.</li> <li>- Materiaren agregazio egoerak: solidoa, likidoa eta gasa.</li> <li>- Sistema homogeneoak eta heterogeneoak. Substantzia puruak. Disoluzioak. Substantzia sinpleak eta konposatuak.</li> <li>- Substantzia sinpleak: metalak eta ez-metalak. Karbonoaren konposatuak. Konposatu organiko sinpleagoak.</li> <li>- Eguneroko bizitzan interesa duten materialak: erabilerak eta propietateak. Material berriak.</li> </ul> <p><b>Materiaren egitura</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Materiaren izaera eten eta korpuskularra: teoria zinetiko-molekularra. Agregazio egoeren ezaugarri mikroskopikoak. Egoera aldaketak.</li> <li>- Materiaren egitura atomiko-molekularra: teoria atomiko-molekularra. Atomoa: partikula eratzaileak. Eredu atomikoak. Zenbaki atomikoa eta elementu kimikoak. Elementurik ohikoenen ikurrak.</li> <li>- Atomoen arteko loturak: molekular eta kristalak. Lotura motak: ionikoa, kobalentea eta metalikoa. Masa atomikoak eta molekularrak. Isotopoak. Substantziarik ohikoenen formulak eta nomenklatura, IUPACen arauen arabera.</li> </ul>
<p><b>3. - Materiaren aldaketak</b></p>	<p><b>Aldaketa fisikoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aldaketa motak: aldaketa fisikoak eta kimikoak.</li> <li>- Higidura: erreferentzia sistemak, ibilbidea, posizioa, desplazamendua, ibilitako espazioa eta azkartasuna. Abiadura eta azelerazioa. Higidura zuzena: ekuazioak.</li> <li>- Elkarrekintza eta indarra. Indar motak. Grabitazio unibertsala. Gorputzen pisua. Indarrak eta higidurak: Dinamikaren legeak. Indarrak fluidoetan: presioa. Presio hidrostatikoa eta atmosferikoa.</li> <li>- Beroa eta tenperatura. Beroaren hedapena eta eraginak. Eroale eta isolatzaile termikoak.</li> <li>- Argia eta soinua: igortzea, hedatzea eta hartzea. Argia eta soinua uhin gisa. Uhinak eta telekomunikazioak.</li> <li>- Elektrizazio fenomenoak. Karga elektrikoak. Coulomben legea. Eroaleak eta isolatzaileak. Korrante elektrikoak. Zirkuitu elektrikoaren funtsezko elementuak. Korrante elektrikoaren eraginak. Elektromagnetismoa. Zentral elektrikoak. Elektrizitatea etxean: zirkuituak, potentzia, segurtasuna eta kontsumoa.</li> </ul>



Gai multzoak	Kontzeptuzko edukiak
	<p><b>Aldaketa kimikoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Erreakzio kimikoak. Erreakzio kimiko motak. Masaren kontserbazioa. Estekiometria. Erreakzio baten abiadura: eragina duten faktoreak.</li><li>- Azidoak eta baseak: neutralizazioa. Errekuntza erreakzioak. Substantzia interesgarriak: ongarriak, plastikoak, fibrak, sendagaiak, kosmetika...</li></ul> <p><b>Energia eta aldaketak</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Energia. Energia motak.</li><li>- Materiaren aldaketak eta horiei lotuta dauden energia transformazioak. Energia erreakzio kimikoetan: erreakzio endotermikoak eta exotermikoak.</li><li>- Energia transferentzia: lana, beroa eta erradiazioa.</li><li>- Energiaren kontserbazioa eta degradazioa. Energia kontsumoa eta iturriak. Energia berriztagarriak eta berriztaezinak. Baliabide fosilen agortzea. Baliabide horiei lotutako desorekak eta gatazkak.</li></ul>
<b>4. - Izaki bizidunak</b>	<p><b>Batasuna eta aniztasuna</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Izaki bizidun guztien ezaugarriak eta funtzioak: nutrizioa, ugalketa eta koordinazioa. Izaki bizidunen eraketa molekularra eta zelularra. Teoria zelularra.</li><li>- Materia biziaren antolaketa mailak: izaki zelulabakarrak eta zelulanitzak. Organismoak sistema gisa: zelulak, ehunak, organoak, aparatuak eta sistemak.</li><li>- Izaki bizidunen aniztasuna: inguruneak, tamainak, formak eta elikadura. Izaki bizidunen sailkapena: bost erreinuak. Antolaketa eredu nagusiak: landareak eta animaliak. Giza espeziea: gizakion izaera eta berezitasuna. Biodibertsitatea. Euskal Herriko espezie bereizgarriak. Biodibertsitatearen galera. Seigarren suntsipenaren arriskua.</li></ul> <p><b>Iraunkortasuna eta aldaketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Bizitza mantentzea: bizi zikloa. Ereduak.</li><li>- Espeziea mantentzea: ugalketa eta herentzia. Mendelen legeak. Kromosomak eta geneak.</li><li>- Espezieen bilakaera denboran zehar. Teoria nagusiak. Bizitza Lurrean: jatorria eta bilakaera. Homo sapiens-sapiensa.</li></ul> <p><b>Izaki bizidunak eta ingurua</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Ingurumena: motak. Izaki bizidunen eta inguruaren arteko elkarrekintzak. Faktore abiotiko nagusiak. Egokitzapenak.</li><li>- Espeziea, biztanleria eta komunitatea. Izaki bizidunen arteko elkarrekintzak. Elikadura erlazioak: kate eta sare trofikoak.</li><li>- Ekosistema. Lehorreko eta uretako ekosistemak: Euskal Herriko ekosistema adierazgarriak. Materia zikloak eta energia fluxua.</li><li>- Ekosistemetako aldaketa naturalak: migrazioak eta segidak. Ekosistemen birsorkuntza. Ekosistemen oreka.</li><li>- Gizakiok eragindako aldaketak: ingurumen inpaktuak. Ingurumen krisialdia.</li><li>- Babes estrategiak. Euskal Herriko espezie babestuak. Euskal Herriko eremu babestuak.</li></ul>
<b>5. - Gizakia eta osasuna</b>	<p><b>Identitatea eta garapena</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Giza espeziea: ezaugarri komunak eta bereizgarriak. Adimena eta ikaskuntza. Biologia, gizarte, kultura eta teknologia identitatea.</li><li>- Giza garapena. Bizi zikloa.</li><li>- Osasuna eta gaixotasuna. Osasun fisikoa eta osasun mentala.</li></ul> <p><b>Anatomia eta fisiologia</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Giza nutrizioa: elikagaiak eta mantenuagaiak. Nutrizioan parte hartzen duten aparatuak: digestio, arnas, zirkulazio eta iraitz aparatuak. Gaixotasunak ohikoenak eta ohitura osasungarriak. Dieta orekatuak. Elikagaiak kontserbatzea, manipulatzeko eta merkaturatzea.</li><li>- Erlazioa eta koordinazioa. Zentzumen errezeptoreak: zentzumen organoak. Mugimen efektoreak. Lokomozio aparatua: hezurak eta giharrak. Nerbio eta hormona sistemak. Gaixotasunak ohikoenak eta ohitura osasungarriak. Drogak eta drogen eraginak.</li><li>- Giza ugalketa. Ugal aparatua. Funtzionamendua. Ernalketa, haurdunaldia eta erditzea. Antisorgailuak. Sexu bidezko gaixotasunak. Sexu higienarako ohitura osasungarriak. Sexualitatea: afektibitatea, sentsibilitatea eta komunikazioa.</li></ul>



Gai multzoak	Kontzeptuzko edukiak
<b>6. - Zientzia testuinguruan</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Energia kontsumoa eta iturriak: Euskal Herriko energia egitura, energia tradizionalak eta alternatiboak. Energiaren aurrezpena.</li><li>- Kimika eta gizartea: Kimika eta bizi kalitatea (sendagaiak, plastikoak eta material berriak, aditiboak); Kimika, ingurumena eta osasuna (uraren, airearen, lurzoruaren eta elikagaien kutsadura).</li><li>- Teknologia eta izaki bizidunak: manipulazio genetikoa (genetikoki aldatutako organismoak, elikagai transgenikoak), eta gizakiok ugaltzeko eta bizitza luzatzeko teknika berriak.</li><li>- Ingurumenaren problematika eta garapen iraunkorra: Euskal Herriko ingurumen arazo nagusiak. Ingurumena zaintzea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea, kontsumo arduratsua eta garapen iraunkorra eta aztarna ekologikoa.</li></ul>
<b>7. - Zientziaren historia eta izaera</b>	<p><b>Zientziaren izaera</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Zientzia, ez zientzia eta sasizientziak. Zientziaren eta teknologiaren arteko harremanak. Euskal Herriko erakunde zientifiko-teknologikoak.</li></ul> <p><b>Zientziaren ikuspegi historikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Geozentrismotik heliozentrismora: Koperniko, Galileo eta Newton.</li><li>- Lurraren estatismotik dinamismora: Wegener.</li><li>- Alkimiatik Kimikara: Lavoisier eta Dalton.</li><li>- Kreazionismotik eboluzionismora: Darwin.</li></ul>



## 9.4.- ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Kompetentzia espezifikokoak	Kompetentzia orokorrak					Eduki multzoak							Garran. (1-2-3)*
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	7	
1 Zientzien datu, gertakizun, tresna eta prozedura garrantzitsuen berri izatea eta horiek deskribatzea. Horiek buruz ikastea, azalpen zientifikoak ematean eta arazoak konpontzean erabiliz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
2 Zientzien oinarriko kontzeptuak eta mundu naturaleko objektuak eta prozesuak erlazionatzea, eta, horretarako, oinarriko kontzeptu horiek zentzua hartzen duten legeetan, eredueta eta teorian artikulatzea.	X	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
3 Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzea, zenbait euskarritan informazio mezuak eta testuak egitean kontzeptu zientifikoak behar bezala erabiliz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
4 Materiaren propietateak eta materiaren aldaketak azaltzea, zenbait euskarritan egindako azalpenezko eta argudiozko mezu eta testuak egiteko kontzeptu, eredu eta teoria zientifiko egokiak erabiliz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
5 Gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea, zientziak eta teknologiak giza garapenean egiten dituzten ekarpenak kritikoki balioetsiz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
6 Jarduera zientifikoarekin lotutako jokaeren berri izatea eta horiek balioestea eta erakustea, ikastetxean nahiz bakarka edo taldean erabiliz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
7 Zientziaren irudi nagusiak eta horien ekarpenak deskribatzea, ekarpen horiek zer testuingurutan egin zituzten aztertuz eta zientziaren giza eraikuntzaren izaera balioetsiz -etengabe bilakatu eta berrikusten da, eta Historiako une bakoitzeko ezaugarriekin eta beharrekin lotuta dago-.	X		X			X	X	X	X	X	X	X	1
8 Ezagutza zientifikoak giza pentsamenduaren beste modu batzuetatik bereiztea, ezagutza zientifikoaren bereizgarria enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egitea dela jakinik.	X	X				X	X	X	X	X	X	X	2
9 Problema kualitatiboak eta kuantitatiboak ebaztea, arrazonamendu zientifikoaren berezko baliaideak erabiliz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
10 Ikerketa teoriko eta esperimental txikiak egitea, goi mailako gaitasun kognitiboak nahiz eskuzko gaitasunak erabiliz eta laborategiko ohiko segurtasun arauak errespetatuz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
11 Taldean egin beharreko jarduera zientifikoak antolatzen eta egiten parte hartzea, norberaren eta besteen ekarpenak balioestea ezarritako helburuen arabera, jarrera malgua eta besteei laguntzeko borondatea erakustea eta ardurak hartzea.		X	X			X	X	X	X	X	X	X	1
12 Ahozko mezuak batetik, eta, bestetik, grafikoak, taulak, diagramak eta beste notazio ikur batzuk dituzten euskarri desberdinetan idatzitako testuak interpretatzea eta horietan ageri diren erlazioak identifikatzea.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	1
13 Iturri desberdinetan -inprimatueta nahiz informatikoetan- informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, eta, jarraian, kritikoki balioestea, objektuen eta gertakizunen artean erlazioak ezarri eta problemak aztertzeko informazioak koherenteak diren ala ez ikusiz.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	2
14 Organoek eta sistemek batera nola egiten duten lan azaltzea, horiek gizakion bizi zikloan betetzen dituzten funtsezko funtzio biologikoekin lotuz.	X		X	X					X	X			2
15 Dieta, higieena eta bizimodua oso garrantzitsuak direla azaltzea, eta osasuna mantentzeko, gaixotasunei aurrea hartzeko eta ongizate pertsonala handitzeko horiek egiten duten ekarpena balioestea.	X	X	X	X						X	X		1
16 Naturaren materia zikloak eta energia fluxua azaltzea, izaki bizidunen arteko eta izaki bizidunen eta inguruaren arteko elkarreaginak aztertuz.	X	X	X		X	X	X			X			2

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.



Konpetentzia espezifikoak	Konpetentzia orokorrak					Eduki multzoak							Garran. (1-2-3)
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	7	
17 Euskal Herriaren ikuspegitik, giza jardueraren eraginez ingurumenean sortutako arazo nagusiak deskribatzea, horien zergatiak edota ondorioak kontuan hartuz.	X		X		X				X		X		2
18 Euskal Herrian garapen iraunkorrerako dauden estrategien berri izatea, eta ikastetxean helburu horrekin garatzen diren jardueretan jarrera positiboz parte hartu eta laguntzea.	X		X		X				X		X		1

## 9.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
1 Zientzien datu, gertakizun, tresna eta prozedura garrantzitsuen berri izatea eta horiek deskribatzea. Horiek buruz ikastea, azalpen zientifikoak ematean eta arazoak konpontzean erabiliz.	<p>1.1. Gertaera, datu eta prozedura zientifikoak identifikatzen ditu.</p> <p>1.2. Daturik eta gertaerarik garrantzitsuenak gogoratu eta deskribatzen ditu.</p> <p>1.3. Termino zientifikoak, ikurrak, magnitude unitateak eta eskalak bereizi eta erabiltzen ditu.</p> <p>1.4. Badaki gailuak eta ekipoak erabiltzen.</p> <p>1.5. Zientzietan garrantzia duten prozedurak deskribatzen ditu.</p>
2 Zientzien oinarriko kontzeptuak eta mundu naturaleko objektuak eta prozesuak erlazionatzea, eta, horretarako, oinarriko kontzeptu horiek zentzua hartzen duten legeetan, ereduetan eta teorian artikulatzea.	<p>2.1. Kontzeptu orokorrak adibide espezifikoaren bidez osatzen ditu.</p> <p>2.2. Kontzeptu zientifikoak sistema materialen portaerekin eta propietateekin erlazionatzen ditu.</p> <p>2.3. Kontzeptuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatu eta deskribatzen ditu.</p> <p>2.4. Kontzeptuak azaltzeko egokiak diren diagramak, eskemak eta ereduak erabiltzen ditu.</p> <p>2.5. Zientziaren kontzeptuetan edota printzipioetan oinarritutako informazio garrantzitsua identifikatzen du.</p> <p>2.6. Materia eta materiaren aldaketak sailkatu eta ordenatu egiten ditu, ezaugarrien eta propietateen arabera.</p> <p>2.7. Zientzien oinarriko kontzeptuak definitzen ditu, horiek bereizten dituzten esentziazko atributuak identifikatuz.</p> <p>2.8. Eredu eta teoria zientifikoetako kontzeptuak identifikatzen ditu.</p>
3 Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzea, zenbait euskarritan informazio mezuak eta testuak egitean kontzeptu zientifikoak behar bezala erabiliz.	<p>3.1. Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzen ditu, horien ezaugarriak edota aldagaririk adierazgarriak erabiliz.</p> <p>3.2. Kasuan-kasuan egokiak diren kontzeptu zientifikoak erabiltzen ditu.</p> <p>3.3. Ahal bada, taulak, kartak, grafikoak edota eskemak erabiltzen ditu datuak eta ezaugarriak aurkezteko.</p> <p>3.4. Ahozko eta idatzizko lanak argi eta txukun egiten ditu.</p>
4 Materiaren propietateak eta materiaren aldaketak azaltzea, azalpenezko eta argudiozko mezu eta testuak egiteko kontzeptu, eredu eta teoria zientifiko egokiak erabiliz.	<p>4.1. Deskribapenak eta azalpenak bereizten ditu; hau da, behatzen dena eta teorikoki inferitu edota interpretatzen dena.</p> <p>4.2. Prozesuak azaltzen ditu, ezagunak diren edo erraz ezagut daitezkeen gertaerak esparru orokor batean kokatuz eta interpretatuz, eta, ondoren, erraz onar daitezkeen zergati-ondorio harremanen arabera ondorioak atereaz.</p> <p>4.3. Fenomenoak eta gertaerak justifikatzen ditu, horiek teoriarekin argi eta modu sinesgarrian lotuz - datuak, ideiak eta kontzeptuak inferituz-.</p> <p>4.4. Erantzun eztaba daezinik ez duten egoera edo problemetan, argudioak ematen ditu, kontrako ikuspuntuei aurre egiteko arrazoiak ematen ditu.</p> <p>4.5. Sistema baten portaera aurreikusten du, horren eredu batean oinarrituz.</p> <p>4.6. Eredu edo teoria batean oinarrituta, arrazoitutako ondorioak ateratzen ditu.</p> <p>4.7. Ahozko eta idatzizko lanak argi, txukun eta zorrotasunez aurkezten ditu.</p>
5 Gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea, zientziak eta teknologiak giza garapenean egiten dituzten ekarpenak kritikoki balioetsiz.	<p>5.1. Teknologia aplikazio batzuek nola funtzionatzen duten eta zertarako erabiltzen diren azaltzen du.</p> <p>5.2. Zientziaren aplikazio garrantzitsuenak aztertzen ditu, horiek ahalbidetzen dituen ezagutza zientifikoarekin lotuz.</p> <p>5.3. Aplikazio zientifikoek giza ongizateari egiten dioten mesedea eta osasunari edota inguruari egiten dieten kaltea bereizten ditu.</p> <p>5.4. Garapen zientifiko-teknologikoaren eraginez sortutako arazoetan erabakiak hartzeko irizpide pertsonalak sortzen ditu.</p>





Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
6 Jarduera zientifikoarekin lotutako jokaeren berri izatea eta horiek balioestea eta erakustea, ikastetxean nahiz bakarka edo taldean erabiliz.	<p>6.1. Zorroztasuna eta zehaztasuna erakusten ditu lan esperimentalak egitean eta hizkuntza erabiltzean.</p> <p>6.2. Eguneroko lanean, jakin-mina, sormena, ikertzeko gogoia, jarrera kritikoa, malgutasuna, zalantza sistematikoa eta iraunkortasuna erakusten ditu.</p> <p>6.3. Alde batera uzten ditu sexuagatiko, kulturagatiko edo beste arrazoi batzuetatik jokoera baztertzailak.</p> <p>6.4. Talde lanak egiteko jarrera positiboa erakusten du.</p> <p>6.5. Lan esperimentalerako segurtasun arauak errespetatzen ditu.</p>
7 Zientziaren irudi nagusiak eta horien ekarpenak deskribatzea, ekarpen horiek zer testuingurutan egin zituzten aztertuz eta zientziaren giza eraikuntzaren izaera balioetsiz -etengabe bilakatu eta berrikusten da, eta Historiako une bakoitzeko ezaugarriekin eta beharrein lotuta dago-.	<p>7.1. Garai desberdinetan fenomeno bakar bati emandako azalpenak alderatzen ditu.</p> <p>7.2. Teoria zientifikoei eta horien protagonistei buruzko informazio historikoa aurkitu eta lan monografikoak egiten ditu.</p> <p>7.3. Aurkikuntza zientifiko gehienak talde lanaren emaitza direla ulertzen du.</p> <p>7.4. Euskal Herrian gaurkotasuna duten gai zientifikoei buruzko informazio biltzen du.</p> <p>7.5. Euskal Herriko erakunde zientifiko-teknologiko garrantzitsuenetako batzuk identifikatzen ditu.</p>
8 Ezagutza zientifikoa giza pentsamenduaren beste modu batzuetatik bereiztea, ezagutza zientifikoaren bereizgarria empirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egitea dela jakinik.	<p>8.1. Hautematen duguna (datuak, gertaerak) eta uste duguna (horien interpretazioa) bereizten ditu.</p> <p>8.2. Iritzi soilak eta froga zehatzetan oinarritutako ebidentziak bereizten ditu.</p> <p>8.3. Hipotesi zientifikoak hurbilketak eta saialdiak direla ulertzen du.</p> <p>8.4. Badaki ezagutza zientifikoa ez dela egia absolutu eta aldaezina.</p> <p>8.5. Badaki ezagutzak estatus zientifikoa lortzeko zientzialarien komunitatearen onarpena behar duela.</p> <p>8.6. Adierazpen bat objektiboa dela jakiteko behar den ebidentzia identifikatzen du.</p> <p>8.7. Badaki zientziak ezin dituela gizakion arazo guztiak konpondu.</p> <p>8.8. Zientzia (mundua nolakoa den) eta etika edo moralak (nolakoa izan beharko lukeen) bereizten ditu.</p>
9 Problema kualitatiboak eta kuantitatiboak ebaztea, arrazonamendu zientifikoaren berezko baliabideak erabiliz.	<p>9.1. Problemen enuntziatua ulertu, eta horko erlazio eta kontzeptu garrantzitsuak identifikatzen ditu.</p> <p>9.2. Problemen aldagaiak eta horien erlazioak identifikatzen ditu.</p> <p>9.3. Diagramak, grafikoak edo ikur bidezko beste irudikapen batzuk erabiltzen ditu problemak irudikatzeko.</p> <p>9.4. Problemei buruzko hipotesi egokiak formulatzen ditu.</p> <p>9.5. Problema ebazteko estrategiak diseinatu eta egiten ditu bere kabuz.</p> <p>9.6. Ebazpenen baliozkotasuna baloratzen du.</p> <p>9.7. Hipotesiak kontuan hartuta, ebazpenak baloratu eta justifikatu egiten ditu.</p> <p>9.8. Baliabiderik eta irudikapenik egokienak aukeratu, eta aurkitutako ebazpenak zenbait euskarritan adierazi eta komunikatzen ditu.</p> <p>9.9. Aurkitutako ebazpenak beste problema batzuetan aplikatzen ditu.</p>
10 Ikerketa teoriko eta esperimental txikiak egitea, goi mailako gaitasun kognitiboak nahiz eskuzko gaitasunak erabiliz eta laborategiko ohiko segurtasun arauak errespetatuz.	<p>10.1. Ikerketa gaiari dagozkion galderak identifikatu eta egiten ditu.</p> <p>10.2. Problema mugatu, eta ikerketaren bidez froga daitezkeen kontuetan jartzen du arreta.</p> <p>10.3. Behatuz edota informazio zientifikoa aztertuz lortutako informazio zehatza bildu eta aukeratzen du.</p> <p>10.4. Hipotesi egiaztagarriak formulatzen ditu.</p> <p>10.5. Kontraste eta esperimentazio jarduerak diseinatu eta antolatzen ditu.</p> <p>10.6. Parte hartzen duten aldagaiak identifikatzen ditu, eta aldagai askeak, konstante iraun behar dutenak eta mendeko aldagaiak bereizten ditu. Horrez gain, ikerketan erabiliko diren prozedurei buruzko erabakiak hartzen ditu.</p> <p>10.7. Laborategiko edo kanpoko oinarritzko teknikak erabiltzen ditu.</p> <p>10.8. Laborategiko segurtasun arauak errespetatzen ditu.</p> <p>10.9. Behaketa sistematikoak eta neurketak egin eta erregistratu egiten ditu.</p> <p>10.10. Neurketen erroreak zenbatesten ditu.</p> <p>10.11. Lortutako datuak aztertu eta interpretatu egiten ditu.</p> <p>10.12. Hipotesiei buruzko ondorio egokiak ateratzen ditu.</p> <p>10.13. Bere ikerketaren emaitzen berri ematen du.</p> <p>10.14. Ebazpenak ikerketan aplikatzen ditu.</p>
11 Taldean egin beharreko jarduera zientifikoak antolatzen eta egiten parte hartzea, norberaren eta besteen ekarpenak balioestea ezarritako helburuen arabera, jarrera malgua eta besteei laguntzeko borondatea erakustea eta ardurak hartzea.	<p>11.1. Parte hartzen du ekintzak planifikatzen.</p> <p>11.2. Bere gain hartzen du agindutako lana.</p> <p>11.3. Epeak betetzen ditu.</p> <p>11.4. Eztabaidetan parte hartzen du eta argudioak azaltzen ditu.</p> <p>11.5. Besteen iritzia entzun eta errespetatu egiten ditu.</p> <p>11.6. Iritzi pertsonala aldatzeko prest dago, horretarako arrazoiak ematen badizkiote.</p> <p>11.7. Taldean hartutako erabakiak errespetatzen ditu.</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p>12 Ahozko mezuak batetik, eta, bestetik, grafikoak, taulak, diagramak eta beste notazio ikur batzuk dituzten euskarri desberdinetan idatzitako testuak interpretatzea eta horietan ageri diren erlazioak identifikatzea.</p>	<p>12.1. Taulak, diagramak, mapak eta grafikoak irakurtzen ditu, eta horien edukia ahoz azaltzen du. 12.2. Mapetan lekuak aurkitu eta deskribatu egiten ditu, koordenatu angeluzuzenak eta polarrak erabiliz. 12.3. Eskalazko marrazkiak egin eta interpretatzen ditu. 12.4. Grafikoetako, tauletako eta beste informazio batzuetako datuak estrapolatzen ditu.</p>
<p>13 Iturri desberdinetan -inprimatuetan nahiz informatikoetan- informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, eta, jarraian, kritikoki balioestea, objektuen eta gertakizunen artean erlazioak ezarri eta problemak aztertzeo informazioak koherenteak diren ala ez ikusiz.</p>	<p>13.1. Informazio garrantzitsua aurkitzen du, zenbait informazio iturri erabiliz -inprimatutakoak nahiz informatikoak-. 13.2. Informazioa zehaztasunez biltzen du, eta inpartziala izaten ahalegintzen da. 13.3. Bere informazio iturriak identifikatzen ditu. 13.4. Zenbait iturritako informazioa alderatzen du, informazioak konbinatu eta ondorioak ateratzeko. 13.5. Zalantzan jartzen ditu datu gutxitan oinarritutako informazioak eta frogarik gabeko argudiaketak. 13.6. Kontuan du aurkikuntza multzo bat interpretatzeko modu egoki bat baino gehiago egon daitezkeela. 13.7. Kritikatu egiten ditu gertaerak eta iritziak nahastean dituzten argudiaketak, baita aurkezutako ebidentziaren ondorio logikoak ez diren ondorioak ere. 13.8. Zenbait informazio iturri iradokitzen ditu datuak azaltzeko eta argudioak kritikatzeko, baliozko elementu bakarrik datuak, azalpenak edota ondorioak direnean -beste aukerarik aipatu gabe-. 13.9. Gaur egungo gai zientifikoekiko jarrera positibo eta irekia erakusten du.</p>
<p>14 Organoek eta sistemek batera nola egiten duten lan azaltzea, horiek gizakion bizi zikloan betetzen dituzten funtsezko funtzio biologikoekin lotuz.</p>	<p>14.1. Badaki non dauden giza gorputzeko organo nagusiak. 14.2. Badaki non dauden giza gorputzeko hezur eta gihar nagusiak. 14.3. Badaki zer ezaugarri dituen bizi zikloaren aro bakoitzak (bereziki, nerabezaroko aldaketa fisikoen eta emozionalen berri du). 14.4. Organoen eta sistemen egitura eta funtzioa bizitzeko funtsezkoak diren oinarriko prozesuekin lotzen ditu. 14.5. Gorputzeko atal batzuek beste atal batzuentzat eta, oro har, organismo osoarentzat lan egiten dutela ulertzen du.</p>
<p>15 Dieta, higieena eta bizimodua oso garrantzitsuak direla azaltzea, eta osasuna mantentzeko, gaixotasunei aurrea hartzeko eta ongizate pertsonala handitzeko horiek egiten duten ekarpena balioestea.</p>	<p>15.1. Osasun eta gaixotasun kontzeptuak bereizten ditu zentzu dinamikoan, eta kontrajartze soila ez egiten saiatzeko da. 15.2. Badaki zer den dieta orekatua. Dieta hori berearekin alderatzen du, eta ondorioak ateratzen ditu, elikadura ohiturak hobetzeko. 15.3. Sexualitatea eta ugalketa bereizten ditu, eta badaki zein diren kontrazepziozko metodo nagusiak. 15.4. Badaki zer ohiturak (modak eta joerak barne) egiten dioten kalte osasunari, eta ondorioak ateratzen ditu, bere ongizatea handitzeko. 15.5. Badaki lehen sorospentarako oinarriko teknikak aplikatzen. 15.6. Badaki etxean oinarriko botika kutxa prestatu eta erabiltzen (sendagaiak eta tresnak).</p>
<p>16 Naturaren materia zikloak eta energia fluxua azaltzea, izaki bizidunen arteko eta izaki bizidunen eta inguruaren arteko elkarreaginak aztertuz.</p>	<p>16.1. Badaki biodibertsitatea oso garrantzitsua dela ekosistemen orekarako. 16.2. Espeziearteke eta espeziebarneko erlazioak identifikatzen ditu, baita horiek ekosistemaren dinamikarekin duten lotura ere. 16.3. Ekosistema baten egonkortasunean ekosistema horretako elementuak (bizidunak eta bizigabeak) aldatzeak dituen ondorioak aurreikusten ditu. 16.4. Kate edo sare trofiko bateko organismoak dagokien mailarekin lotzen ditu. 16.5. Piramide trofikoak marraztu eta interpretatzen ditu. 16.6. Ziklo biogeokimiko nagusiei buruzko grafikoak eta eskemak egiten ditu.</p>
<p>17 Euskal Herriaren ikuspegitik, giza jardueraren eraginez ingurumenean sortutako arazo nagusiak deskribatzea, horien zergatiak edota ondorioak kontuan hartuz.</p>	<p>17.1. Baliabide berriztagarrien eta berritezinen adibideak jartzen ditu. 17.2. Badaki zer alde on eta txar dituen energia iturri bakoitzak. 17.3. Ingurumeneko arazo global batzuk beren zergatiekin eta ondorioekin lotzen ditu. 17.4. Euskal Herriko airearen, uraren eta lurzoruen kutsadura mota nagusiak beren jatorriarekin eta ondorioekin lotzen ditu. 17.5. Inguruko paisaian ikus daitezkeen zenbait inpaktu aztertzen ditu. 17.6. Etxeko eta ikastetxeko energia balantze orokorrak egiteko gai da (baliabideen sarrera, erabilera eta irteera eta guzti).</p>
<p>18 Euskal Herrian garapen iraunkorrerako dauden estrategien berri izatea, eta ikastetxean helburu horrekin garatzen diren jardueretan jarrera positiboz parte hartu eta laguntzea.</p>	<p>18.1. Badaki Euskal Herrian zer espezie (fauna eta flora) dauden desagertzeko arriskuan, baita zer eremu babestu dauden ere. 18.2. Parke naturaletan eta ibilbide ekologikoetan antolatutako jarduerak egiten ditu. 18.3. Garapen iraunkorra zer den azaltzen du, eta iritzia ematen du gizarte, ekonomia eta ingurumen beharren arteko ezinbesteko orekari buruz.</p>



**Konpetentzia espezifikoak**

**Ebaluazio irizpideak**

18.4. Inguruaren kudeaketa iraunkorra lortzeko ikastetxeak parte hartzen duen jardueretan laguntzen du (hondakinak gaika bildu eta uzten ditu, birziklatutako gauzak erabiltzen ditu, energia aurrezten ahalegintzen da,... Ikastetxeetako Agenda 21).



III ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezen, arloko kompetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina kompetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko kompetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko kompetentzia espezifikoak baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Arloko irakasleak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KOMPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Errealitatearen azalpen eskemak eraikitzeko gai izan behar dute kontzeptu, printzipio, balio eta jarrera zientifikoak erabiliz; bai fenomeno natural nagusiak interpretatzeko, bai gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologikorik garrantzitsuenak modu kritikoa aztertzeko.					
2.- Arazoak konpontzeko eta ikerketa txikiak egiteko gai izan behar dute, bakarka nahiz elkarlanean, arazoibide eta argudiaketa zientifikoak eta zientziaren beste prozedura batzuk erabiliz, gutako bakoitzarentzat edo gizartearentzat interesa duten benetako egoerei heltzeko testuingurua kontuan hartuta eta erabakiak arduraz hartu ahal izateko.					
3.- Zientziei buruzko informazioa duten iturri desberdinetako mezuak era aktiboan eta kritikoki interpretatzeko eta mezu zientifikoak sortzeko gai izan behar dute, ahozko eta idatzizko hizkuntzak behar bezala erabiliz, baita beste notazio eta irudikapen sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatzeko eta gizartean, ikasketetan eta lanbidean moldatu ahal izateko.					
4.- Giza organismoari buruzko ezagutza zientifiko erabiltzeko gai izan behar dute, gure gorputzak nola funtzionatzen duen eta osasuna nola zaindu behar dugun azalduz, zainketa eta arreta ohiturak garatzeko eta ongizate pertsonala handitzeko.					
5.- Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifiko erabiltzea, zer elkarreagin sortzen diren eta oreka zer den eta zer faktorek eteten duten azalduz, natura balioesteko, naturaz gozatzeko eta hori zaintzen eta hobetzen parte hartzeko.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Zientzien datu, gertakizun, tresna eta prozedura garrantzitsuen berri izatea eta horiek deskribatzea. Horiek buruz ikastea, azalpen zientifikoak ematean eta arazoak konpontzean erabiliz.					
2.- Zientzien oinarriko kontzeptuak eta mundu naturaleko objektuak eta prozesuak erlacionatzea, eta, horretarako, oinarriko kontzeptu horiek zentzua hartzen duten legetan, eredueta eta teoretan artikulatzea.					
3.- Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzea, zenbait euskarritan informazio mezuak eta testuak egitean kontzeptu zientifikoak behar bezala erabiliz.					
4.- Materiaren propietateak eta materiaren aldaketak azaltzea, zenbait euskarritan egindako azalpenezko eta argudiozko mezu eta testuak egiteko kontzeptu, eredu eta teoria zientifiko egokiak erabiliz.					
5.- Gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologiko garrantzitsuenak aztertzea, zientziak eta teknologiak giza garapenean egiten dituzten ekarpenak kritikoki balioetsiz.					
6.- Jarduera zientifikoarekin lotutako jokoaren berri izatea eta horiek balioestea eta erakustea, ikastetxean nahiz bakarka edo taldean erabiliz.					
7.- Zientziaren irudi nagusiak eta horien ekarpenak deskribatzea, ekarpen horiek zer testuingurutan egin zituzten aztertuz eta zientziaren giza eraikuntzaren izaera balioetsiz -etengabe bilakatu eta berrikusten da, eta Historiako une bakoitzeko ezaugarriekin eta beharrekin lotuta dago-.					
8.- Ezagutza zientifikoa giza pentsamenduaren beste modu batzuetatik bereiztea, eza- gutza zientifikoaren bereizgarria enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egitea dela jakinik.					
9.- Problema kualitatiboak eta kuantitatiboak ebaztea, arrazonomendu zientifikoaren berezko baliabideak erabiliz.					
10.- Ikerketa teoriko eta esperimental txikiak egitea, goi mailako gaitasun kognitiboak nahiz eskuzko gaitasunak erabiliz eta laborategiko ohiko segurtasun arauak errespetatuz.					
11.- Taldean egin beharreko jarduera zientifikoak antolatzen eta egiten parte hartzea, norberaren eta besteen ekarpenak balioestea ezarritako helburuen arabera, jarra malgua eta besteei laguntzeko borondatea erakustea eta ardurak hartzea.					
12.- Ahozko mezuak batetik, eta, bestetik, grafikoak, taulak, diagramak eta beste notazio ikur batzuk dituzten euskarri desberdinetan idatzitako testuak interpretatzea eta horietan ageri diren erlazioak identifikatzea.					
14.- Iturri desberdinetan -inprimatuetan nahiz informatikoetan- informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, eta, jarraian, kritikoki balioestea, objektuen eta gertakizunen artean erlazioak ezarri eta problemak aztertzeko informazioak koherenteak diren ala ez ikusiz.					
15.- Organoek eta sistemek batera nola egiten duten lan azaltzea, horiek gizakion bizi zikloan betetzen dituzten funtsezko funtzio biologikoekin lotuz.					
16.- Dieta, higieena eta bizimodua oso garrantzitsuak direla azaltzea, eta osasuna mantentzeko, gaixotasunei aurrea hartzeko eta ongizate pertsonala handitzeko horiek egiten duten ekarpena balioestea.					
17.- Naturaren materia zikloak eta energia fluxua azaltzea, izaki bizidunen arteko eta izaki bizidunen eta inguruaren arteko elkarreaginak aztertuz.					
18.- Euskal Herriaren ikuspegitik, giza jardueraren eraginez ingurumenean sortutako arazo nagusiak deskribatzea, horien zergatiak edota ondorioak kontuan hartuz.					
19.- Euskal Herrian garapen iraunkorrerako dauden estrategien berri izatea, eta ikastetxean helburu horrekin garatzen diren jardueretan jarrera positiboz parte hartu eta laguntzea.					
20.- Natur eta Osasun Zientziak Arloaren balorazioa oro har					



**Natur eta Osasun Zientziak arloko kompetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren kompetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## 10.- TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

### 10.1.- SARRERA

Hezkuntzaren helburu nagusia pertsonaren ahalmenak garatzea da; horretarako, ikaskuntzako esperientziak sortu behar dira, pertsonak behar dituen kompetentziak eskura ditzan, bizitzak eskatzen dizkion egoerei aurre egiteko. Tutoretza eta orientazio arloa hezkuntzako ekimen multzo antolatu bat dela uler daiteke, kompetentzia horietako batzuk lortzen direla zehazteko, kompetentziak operatibizatuz. Prebentzioaren eta garapenaren ikuspuntutik, curriculumaren barruan, orientazioak ekarpen hauek egiten ditu::

#### ***Ikasten eta pentsatzen ikasi***

Ikasten ikasteak erregulazio operazioak egitea dakar, eta norberaren prestakuntza prozesua erregulatzeko ikas daiteke. Autoerregulazioa tutoretzapeko pixkanakako orientazio baten bidez gara daiteke; eta orientazio horrek aldi berean sustatu behar ditu ezagutza arlo zehatz bat ikastea nahiz ikasten ikasteko estrategiak.

Funtsean, ikasten ikastea norberaren esperientzietatik probetxua ateratzea da, arazoak hautemateko eta ebazteko moduetan jarrera kritikoa izanik eta gai izanik norberaren jokabidea aztertzeke, arazoentzako jatorriak identifikatzeko eta behatutakoa aktiboki aprobeztatzen jakiteko.

Ikaskuntzako esperientziek zikloak dituzte, eta zikloetan lau aldi hauek bereizten dira: esperientzia planifikatzea, esperientzia bizitzea, emaitzak aztertzea eta ondorioak ateratzea. Zerbait egin ondoren, garrantzitsua da gertatutakoari buruz hausnartzeko denbora hartzea. Ikasten ari den pertsona subjektu aktibo dela kontuan hartuta, ikasten ikastea garrantzitsua da. Hausnartuz ikasten da, nork bere buruarekin edo mintzakideekin (hausnarketa gidatua), eta gauza hauetaz hausnartzen da: kompetentziak eskuratu izan diren aldiez, ikasitakoaz eta ikasteko moduez, behar bezala baliatu gabeko aukerez eta esperientzia horiek baliagarriak ez izatea eragin duten arrazoiez.

Tutoretza eta orientazio arloak ekintzak hitzen bidez adierazteko edo ekintzen gainean hausnartzeko operazioak errazten ditu, kontzeptuak, arrakastarako faktoreak, hipotesiak, ekintzari buruzko teoriak edo



printzipio zuzentzaileak ondorioztatzeko, geroko esperientzietan erabili ahal izateko. Atzeraeginezko hausnarketa sistematikoa eginez, gerora ekintzan erabilgarri izan daitezkeen eredu operatiboak prestatzen dira.

Eskolako dinamikak lan metodo egokiak behar ditu, ikasteko estrategiak garatzeko. Horietatik, ikasteko metodo eraginkorrak sustatzen dituzten jarduerak sartu behar dira curriculumean. Ikastea jarduerak gauzatzearekin lotuta dagoen ohiko eginkizuna da, eta ikasleak ikasi egiten du. Ikasteko metodoen programen edukiek bi estrategia mota dituzte: alde batetik, ikasleek materialarekin eta informazioa barneratzeko eta erabiltzeko prozesuarekin duten harreman zuzenari buruzkoak; eta, beste alde batetik, laguntza estrategiak, ikasleei helburuak zehazten, ikaskuntza planifikatzen eta antolatzen eta aurreraparenaren gaineko kontrola egiten laguntzeko. Izan ere, eginkizunak aurreikustea, proiektuak zatitzea, lehen-tasunak ezartzea eta denbora planifikatzea lana antolatzeko jarduerak dira, eta tutoretza eta orientazio arloan pixkanaka lantzekoak dira.

### ***Komunikatzen ikasi***

Gizarte harremanak konplexuak dira. Komunikazio egoera askotan azaleratzen dira gizarte harremanetarako ditugun trebetasunak: familian, lagunartean, ikaskideekin, lankideekin... Gertaerak, sentimenduak, jarrerak, desioak, iritziak edo eskubideak ematen ditugu jakitera, eta hori gainerakoak errespetatuz egin behar dugu. Horrek egoera bakoitzera egokitzera behartzen gaitu, eta, horretarako, jokabide batzuk garatu behar ditugu, baina oraindik ikasi ez baditugu, praktikan jarri behar ditugu, norberaren estilo-ra egokitzeko.

Gizarte trebetasunek gainerakoekin ondo komunikatzeko balio dute, eta egoeretarako egokitzat hartu ohi diren gizarte harremanetarako jarraibideak adierazten dituzte. Eginkizun nagusia galdera honi erantzutea da: zer jokabide zehatzek eta zer mikrotrebetasunek errazten dute testuinguruetara hobeto egokitzea eta testuinguru horietan onartua izatea?

Komunikatzea besteei zerbait jakinaraztea da. Pertsona batzuek elkarrekin lan egitean, talde lanak esanahi partekatuak eraikitzen ikastera behartzen gaitu. Taldearen funtzionamenduan eragina duten eguneroko gertaerak interpretatzean ados jartzea lortu behar da. Lan taldeetan, gizarte eraikuntzako jarduera horretan, gai izan behar da entzuteko, norberari egokitutako tokian kokatzeko, gainerakoen interesak kontuan hartzeko eta gizarte rolen arabera pertsonen artean dauden desberdintasunak onartzeko eta barneratzeko.

Tutoretza eta orientazio arloan, komunikatzen ikastera bultzatzen da, baliabide hauen bidez: gizarte harremaneko jokabideekin lotutako zuzeneko esperientzien bidez, eredu esanguratsuen behaketaren bidez eta hitzezko ikaskuntzaren eta pertsonen arteko feedbackaren bidez. Helburua taldeen barruko komunikazioa eta elkarrizketa erraztea da, bai eta ikasleei laguntzea komunikazioa eta elkarrizketa oztopatzen duten faktoreak identifikatzen ere, eta, horretarako, ikasleei aldaketarako eragile aktibo izateko funtzioa ematen zaie; horrek hobetzeko eta konpromisoa hartzeko benetako asmoa dakar.





### ***Elkarrekin bizitzen ikasi***

Tutoretza eta orientazio arloa banakakoa ez ezik kolektiboa ere bada. Horrenbestez, zalantzarik gabe, elkarrekin bizitzeko puntu garrantzitsuetako bat taldean elkarrekin bizitzearekin lotutako kompetentziak garatzea da, eta, horretarako, elkarlana eta gizarte gaien edo gai akademikoen eta elkarbizitzarako arauari buruzko eztabaida edo kritika behar dira. Faktore batzuk aztertzeak (elkarreraginak, entzule aktiboaren funtzioa, mezuari egokitzea edo ez egokitzea, hartzailaren jarrera, enpatia, giroa) ardatz horrekin lotutako kompetentziak garatzen laguntzen du. Arlo horren bidez, gauza asko gara daitezke: ikasgelako kide guztiak aktiboki integratzea, eskolako mikrokosmosean dauden desberdintasunak onartzea edo taldean ikasle berriak sartzea.

Gizarte testuinguruetan mota askotako gatazkak sortzen dira. Eskola ez da salbuespena, eta, beraz, egoera gatazkatsu ugari sortzen dira, bai berdinen artean, bai talde heterogeneoetan. Eskolak hainbat gauzatan lagun dezake: egoera horiek behar bezala bideratzen, emozioak erregulatzen eta kontrolatzen, gatazken aurrean hausnarketan oinarritutako jarrera izaten, negoziatzen eta bitartekari lanak egiten. Egoera gatazkatsuek harremanen zati garrantzitsua osatzen dute, eta hezteko lamena handia dute. Diziiplina gatazkak dituzten egoerak latzak dira, baina aukera ematen diote gatazka horiek aldatzeko eta hobetzeko. Diziiplina harago iristen den ahalegina da, parte hartze demokratikoa lortzeko eta trebetasunak eta balio soziodibitonalak garatzeko ahaleginaren zati baita. Tutoretza eta orientazio arlotik, gatazkek konpontzeko estrategiak jorra daitezke, eta estrategia horiek bi edo pertsona gehiagoren artean kontrajarriak diren interesengatik, iritziengatik, balioengatik edo premiengatik sortutako desadostasunei edo tentsioei aurre egiteko norberak dituen moduei dagokie.

### ***Norbera izaten ikasi***

Kompetentzia orokor horri dagokionez, Tutoretza eta orientazio arloak emotibitatearen ikuspuntutik pertsonalitate orekatua –hau da, nor bere burua kontrolatzeko nahikoa gaitasunekoa– lortzen lagun dezake, eta, horrez gain, ikasleen errealitate pertsonalaren autoestimu positibo eta doia garatzeko oinarri da.

Tutoretzako jarduerak eragina izan dezake aztura pertsonal egokiekin lotutako kompetentziak lortzeko aukeran. Hona hemen aztura pertsonal egoki batzuk: eskolako bizitzari aurre egiteko autonomia izatea, eskolako eginkizunak egiteko motibazioa eta jarrera ona edukitzea, eskolako jardunaren autoebaluazioa egitea, aurreikuspenak doitzeko hausnarketa egitea eta oztopo saihestezinak gainditzea. Horrez gain, frustrazioaren aurkako tolerantzia ere kontuan hartu behar da, eskolako zailtasunei modu positiboa aurre egiteko eta pertsonalitate proaktiboa eta eraikitzailea bultzatzeko aukera ematen baitu. Erabakiak hartzea ikasi egiten den prozesua da, eta prozesu hori, nagusiki, heldutasun pertsonalarekin eta horren mendeko balioekin lotutako faktoreek baldintzatzen dute (baina ez faktore horiek bakarrik).

Norbera izaten ikasteak ondorioak ditu ikasleen autoerregulazioan, norberaren bizitza orientatzeko gaietan; izan ere, tutoretzaren eremuetako bat lanbide orientazioarekin lotutako gaien garapena ere bada.



Izaten ikasteko ardatzaren barneko konpetentziek ez lukete zentzurik izango, integrazio pertsonal egokia izango ez balute. Izan ere, aipatutako konpetentzien osagaien garapen zatikatuak ez du ziurtatzen pertsonalitatearen garapen harmoniatsua eta egokia; horretarako, osagaien integrazio pertsonala behar da. Tutoretzak hezkuntza egoera egokia ematen du pertsonalitatearen azterketan eta garapen orokorrean laguntzeko, pentsamenduak, sentimenduak eta jarduerak integratuz.

### ***Egiten eta ekiten ikasi***

Hezkuntzaren helburua pertsona guztiek, salbuespenik gabe, sortzeko dohain eta gaitasun guztiak azaleratzea da, eta horrek pertsona bakoitzak bere buruaz arduratzea eta bere lan proiektua egitea dakar.

“Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziak espiritu kritikoa izatea dakar, bai nork bere buruarekin, hobe izateko, bai testuinguruarekin, testuingurua hobetzeko. Konpetentziaren aurrebaldintzak hauek dira: egoerak aztertzeko gaitasuna izatea, alternatibak balioestea eta alternatiba egokiena aukeratzea, horretan esku hartzeko eta proposatutako helburua betetzeko.

Egiten eta ekiten ikastea eginkizun berriak egiteko edo eginkizunak orain arte ez bezala egiteko ekimenarekin lotzen dugu; iraunkortasuna, arriskuak kontuan hartzeko gaitasuna, ziurgabetasuna toleratzea, geratzea eta errorea ikaskuntzaren iturritzat hartzea (eta ez porrotaren seinale) dira ekiteko gaitasuna duen pertsonaren ezaugarri nagusiak. Tutoretza eta orientazio arloan, alderdi horiek guztiak gara daitezke, egoera zehatzak –benetakoak edo simulazioak– eragiten baitira, ikasleek beren buruak egoera horietan kokatzeko eta mota askotako proiektuak egiteko. Hori nola egin duten aztertzeak eta balioestek pista batzuk emango dizkiete beren buruzagi funtzioaz, elkarlanaz, gainerakoen erritmoa errespetatzeaz, taldean eduki beharreko pazientziaz eta eginkizunari lotutako gizarte erantzukizunaz.

Garrantzitsua da ikasleek aukera izatea egiten eta ekiten ikasteko, bai taldean, bai banaka; izan ere, egoera bakoitzean konpetentzia batzuk erabili behar dituzte eta bakoitzaren balioak eta dohainak azaleratzen dira. Tutoretza eta orientazio arloak ekimenak planifikatzeko espazio eta denbora hori erraztuko du, eta ikaslearengan saiakera eta errore jarrera sustatuko du, ikasleak sortze, aldatze edo hobetze proiektuetan inplikatzeko; halaber, ikasle bakoitzari (bai eta ikaskide guztiei, ikastetxeari eta komunitateari) proiektuak egin dion ekarpena kontuan hartuta balioetsiko dira emaitzak.

Diziplina arlo guztien funtzioa pertsonaren ahalmenen garapena bultzatzea da, ikasleak konpetenteak izan daitezen ikasteko eta pentsatzeko, komunikatzeko, gainerakoekin bizitzeko, norbera izateko eta egiteko eta ekiteko. Diziplina arlo bakoitzak hezkuntzako konpetentzia orokor horiei arloaren ikuspuntutik erantzuten laguntzen du. Tutoretza eta orientazio arloak berezko ikuspuntu espezifikoak du, baina, horrez gain, arlo guztien hezkuntza konpetentzia komunak koordinatzeko eta dinamizatze funtzioa du, bai eta konpetentzia horietan sinergiak sortzeko ere, hezkuntzako komunitatearekin lotutako eragile guztiekin elkarlanean jarduten baitu.



## 10.2.- ARLOAREN KONPETENTZIA OROKORRAK

**1- Ikaskuntza prozesuez jabetzea eta erantzukizunez eta diziplinaz planifikatzea, eskatutako baliabideak eta eginkizunak zehaztuz, hobetzeko premiak identifikatzeko eta hurbileko egoeretan praktika eta metodo onak aplikatzeko, bai eta denbora hobeto erabiltzeko ere.**

Informazioa biltegitratzea edo erabiltzea errazten duten prozedurez edo jardueraz osatutako segida batean gauzatzen da ikaskuntza. Ikasteko estrategiak menderatzeak aukera ematen dio ikasleari bere jarduerak aztertze eta balioesteko, hezkuntza prozesua erregulatze aldera. Ikasteko estrategiak zein diren jakiteko, norberak ikasteko prozesuan duen funtzionamendua jakin behar du.

Metaezagutza hori lortzeko, ezinbestekoa da praktikari beran, plangintzari, jarduerari eta produktuei buruzko hausnarketa testuinguruan egitea. Helburua nork bere burlaren eraikitze prozesuan izaten den ikaskuntzaren esperientziaren esanahia berrikustea da, eta hortik ikastea.

Plangintzak ikasketa eraginkorragoa izaten laguntzen du. Plan horrek ikaskuntza prozesua antolatzen laguntzen dio ikasleari, plangintzari berari buruz hausnartzera behartzen baitu ikaslea. Ikasleek egoera bakoitzean egokienak diren estrategiak aukeratzeko gai izatera eta praktikan planifikatzen jakitera iritsi behar dute. Hori behar bezala egiten bada, denbora hobeto aprobetxatzen da. Lanean denbora antolatzeko, jardueretan jarraitu beharreko urratsak zein diren aurreikusi behar dira, bai eta lehentasunak zehaztu ere.

**2- Lanarekin lotutako banako eta gizarte faktore erabakigarriak norberarengan eta ingurunean etengabe ikertzea, erabaki profesionalak hartzeko eta lan ibilbidea kudeatzeko gaitasuna errealismo handiagoz garatzeko.**

Garapen profesionalak bi baldintza behar ditu: etengabe haztea eta ezagutzaren egiturak aldatzea. Lan mundua eta pertsonak etengabe aldatzen dira. Hori dela eta, bi alderdi horiek integratuta garatzeko beharra ez da inoiz etengo.

Orientazio profesionalaren azken helburua erabaki profesional independenteak eta arduratsuak har ditzan pertsonari bere bizitza gidatzeko gaitasuna eskuratzeko aukera ematea da. Erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa da informazioa prozesatzeko trebetasunak behar bezala garatzea. Ikertzeko jarre-  
rak aukera emango die ikasleei galderak egiteko, hipotesiak egiteko, beren buruei eta inguruko munduari buruzko datuak biltzeko, erronkak bilatzeko eta ikuspuntuak aldatzeko.

**3- Familian, eskolan, jolas eremuan edo lan giroan behar bezalako harremanak izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta taldeen funtzionamendua baldintzatzen duten faktoreak iritzi kritikoaz aztertzea eta balioestea, eremu horietan parte hartzeko eta proiektu partekatutak egiteko.**



Gizarte testuinguruan, gainerakoekin komunikatzera behartzen gaituzten egoerak daude: elkarrizketak, eskaerak, solasaldiak... Beste pertsona batzuekin hitz egiteak esaten denarekin, esateko moduarekin, entzuten denarekin, erabiltzen ditugun keinuekin, sentimenduak adierazteko moduarekin, iritziekin eta abarrekin lotutako alderdiak kontrolatu beharra dakar.

Komunikazioan, hitzez gain, garrantzitsuak dira hitzik gabeko trebetasunak; esate baterako, keinuak, gorputz jarrerak, hurbiltasuna, begirada edo ahotsaren tonua. Norberak gizarte trebetasunak garatzen ikasteak gainerakoekin harreman hobekuntza izaten laguntzen digu, eta gatazkak prebenitzen ditu.

Lan kooperatiboko taldeetan, ezaugarri nagusi hauek identifikatzen ditugu: pertsonen arteko tratuzuzena, elkarren arteko mendekotasuna, norbanakoaren erantzukizuna, eskuzabaltasuna eta talde prozesamendua. Elkarlaneko trebetasunek atzeraelikadura egiteko aukera ematen dute, eta talde horretako kideen inplikazioa bultzatzen dute.

Taldeak bizia duten sistemak dira, eta hobera edo txarrera egiten dute. Orientatzeko jarduera den aldetik, ezinbestekoa da aldiro taldean sortzen diren funtzioak eta harremanak (kohesioa, botere harremanak, balioak eta arauak, egitura, koordinazioa...) berrikustea, errendimendua ziurtatzeko eta taldearen hobekuntza eragina izateko.

#### **4- Gaitasun fisiko, kognitibo eta afektiboetarako dagokienez, taldeko gainerako kideetatik bereizten gaituzten berezko dohainak eta jokabideak aztertzea, gauzak egiteko gai den pertsona apreziatua sentitzeko eta hobeto kokatzeko, bai nor bere buruarekiko, bai gainerakoekiko elkarreraginean.**

Tutoretza arloaren helburuetako bat faktore fisikoekin, intelektualekin eta emozionalekin lotutako auto-ezagutza handiagoa izatea da. Derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan, nerabearen bizitzan, itxura fisikoan, jokabidean eta gogo aldarrean aldaketa handiak eragiten dituen garai bat hasten da, askotan asaldura handikoa.

Pertsonak modu eraginkorrean eta positiboan eraiki dezagun, oinarri ezin hobea da errealitatean egokitutako autoestimua positiboan lortzea. Aintzat hartzen gaituztela sentitzeak eta gure mugak non dauden jakiteak aukera ematen du gure ahalmenen pertzepzio argia izateko, bai eta asertibo agertzeko ere, eta, horren ondorioz, irudi sendoa –gure aukeretara egokitutako benetako irudia– proiektatzeko.

#### **5- Inguruneko gizarte egoerei buruz informazioa izatea eta irizpide zuzenez balioestea, injustiziaren eta besteen egonezinen aurrean sentsibilitatea bultzatzeko, beste sentimendu eta ikuspuntu batzuk ulertzeko gai izan daitezen eta horiei buruz kritika arrazoituak egin ditzaten.**

Elkartasun sentimenduak, besteen mina ulertzeko sentimenduak eta bidegabekeriarekiko sentimendu kritikoak sakonago garatzen ditugu, besteen sentimendua, egoera edo ikuspuntua ulertzeko gai bagara. Helburua enpatiarako gaitasuna garatzea eta eskolako eta gizarteko egoera ugarritan aplikatzea



da. Gure balioen eta jokabideen artean dauden desadostasunez ere jabetu behar dugu. Tutoretzak desadostasunak argitzen lagun dezake, bai eta balio eskala sendoagoa eraikitzen ere.

**6- Abian jarritako ekintzak eta testuinguruan duten eragina ebaluatzea, proposatutako helburua, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza kontuan hartuta, ekimenaren diseinuan hobekuntzak proposatzeko eta lorpen txikiek eta borondatearen indarrak ahaleginean jarraitu eta itzaropen positiboak sortu ahal izateko duten balioa onartzeko.**

Beti ez da lortzen nahi duguna, baina beti lortzen dugu zerbait. Helburu horrekin lotuta, zenbait faktore aztertu behar dira: lorpenerako bidean ekintza bultzatu duten aldagaiak zein diren, zer aldagaik zaildu eta erraztu duten, benetan zein faktorek eragin duten hori ez egitea, halakorik gertatu bada. Horrez gain, lortu nahi zen helburuaren arabera, ekimena gauzatzeak izan duen inpaktu positiboa edo negatiboa balioesten da.

Oinarritzat denok ekintzaileak garela hartzen badugu, konpetentzia hori lortzeak egoera berezi batean jartzen du gaztea. Egoera horretan, gazteak hainbat gauza egin behar ditu: pertsona bakoitzak lortutakoa zer elementuren ondorioz lortu den aztertu, bere proiektuan konpromisoa hartu eta ekintzaileek dituzten elementu komunak balioetsi (esate baterako, esku artean duenaren esanahia eta garrantzia, amore ez emateko borondatearen indarra, autodiziplina eta arrakasta partzialaz gozatzeko gaitasuna).

### 10.3.- IKASKUNTZAREN EDUKIAK

Heztea gizabanakoari gizarte batean hazten laguntzea da, eta, horretarako, behar bezala garatzeko baliabideak eman behar zaizkio. Eskolak ikasleen konpetentziak garatzen laguntzen du, gizabanakoen arteko desberdintasunak kontuan hartuta. Tutoretzak, hezkuntzako jarduera denez, irakasleen, gurasoen eta ikasleen jarduerak (bai eta heziketan esku hartzen duten gainerako pertsonena ere) indartzea du helburu. Ikasleari dagokion tutoretzak eta orientazioak hainbat gauza bultzatzen dituzte: ikasleak bere burua ezagutzea eta onartzea, gizarteratze prozesua hobetzea, erabakitzen ikastea eta pertsonalitate, ikaskuntza, harreman arazoei aurre egitea. Beraz, bizitzako ikaskuntzan etengabe laguntzen gaituen prozesua da tutoretza, eta proiektuekin jarduera pedagogikoekin batera gara daiteke.

Hezkuntzaren ikuspuntutik, Tutoretza eta orientazio arloaren eduki bereizgarriak, derrigorrezko eskolaldian, lau eduki multzotan biltzen dira:

*1.- Ikaskuntza prozesuak:*

Ikaskuntzei dagokienez, orientatzeko jardueraren barruan estrategia kognitiboak eta ezagutzaren irudikapenei dagozkien bitartekaritza sare bat sartzen da.



## 2.- *Soziabilitatea*:

Pertsonak, ingurunearekin duten etengabeko elkarreaginean, garapen helburuak lortuz doaz, eta, ildo horretan, hezkuntzako helburuak behar bezala estimulatutako pertsonalitatearen eta gizarte harremanen hainbat eremu garatzearekin identifikatzen dira.

## 3.- *Garapen pertsonala*:

Ikasleen erabateko prestakuntza nabarmentzean, hezkuntzako orientazioak eta tutoretzak garapen harmoniatsua bultzatzen dute, eta, horren bidez, arazoei aurre egiteko eta erabakiak hartzeko jarrera hobe ere bai.

## 4.- *Lan orientazioa*:

Eskolatzeak aurrera egin ahala, ibilbide akademikoan eta etorkizun profesionalari begira ikasleak hartutako erabakiak gero eta garrantzitsuagoak izaten dira, eta horien abiapuntuak bere buruaren eta lan munduaren ezagutza dira.

**Oharra:** Jarraian lau eduki multzoen arteko batean kokatzen ditugun kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak, eduki multzo batean baina gehiagotan koka daitezke.

### 10.3.1.- Jarrerazko edukiak

- 1.- **Autonomia**, proposatutako lanen garapenean eta eginkizunari eta erabakiak hartzeko prozesuei aurre egiteko estiloan.
- 2.- **Enpatia**, gainerako pertsonen bizipenekiko; batez ere, haien egoera emozionalarekiko. Horretarako, beste ikuspuntu bat ulertzeko eta, horren bidez, sentimenduak partekatzeko gaitasuna lantzen dute.
- 3.- **Asertibitatea**, eskolako egoeretan, talde presioa dagoenean edo irakasleen aurrean, norberaren ikuspuntuak argi eta errespetuz adierazteko gai izateko.
- 4.- **Errespetua** kultur aniztasunarekiko, maila sozioekonomikoarekiko, jokabideekiko, ikuskerekiko edo beste pertsona edo gizarte talde batzuen jarrearekiko.
- 5.- **Frustrazioarekiko tolerantzia**, egoera pertsonal gogorretan edo/eta eskolako egoera zailtan esperimintatutako ezinegonaren aurrean. Hona hemen egoera batzuk: aurreikuspenak ez betetzea, espero ez ziren emaitzak lortzea, harremanetan porrot egitea...
- 6.- **Ekimena**, aldaketak sustatzeko eta aldaketak egiteko, bai gatazka konpontzean, bai proiektuak garatzean.
- 7.- **Sormena**: proposamenak planteatzean eta eskolako lanean behar diren irtenbideetan, ideia berritzaileak sortzeko gaitasuna.
- 8.- **Malgutasuna**: ekarpen berrietara irekita egotea, bai norberari buruzkoak, bai taldeari buruzkoak.
- 9.- **Iraunkortasuna**: zenbait jarduera egitean erakusten den irimotasuna. Jarduera horiek ahalegin handia egitera behartzen gaituzte, edo jardueraren helburua epe luzean lortzen da.
- 10.- **Autodiziplina** borondatean eta **iraunkortasunari** (erregulartasuna) lotutako ezaugarria da, eta beharrezkoa da lana antolatzean eta ikasteko metodoak aplikatzean. Bi baldintza behar ditu: ekintzan modu jarraituan egotea eta kontzentratzea.
- 11.- **Pazientzia**, zehatz-mehatz egin beharreko jarduera astunak -errepikakorrak direlako- egiteko. Ikaskuntza prozesuari buruzko hausnarketa ere pazientziaz egin behar da, beti berehalako emaitzarik lortu nahi izan gabe.
- 12.- **Adiskidetasuna**, eguneroko bizitzan pertsonen artean harmonia eta elkarrekikotasuna sortzeko eta gainerakoez eskuzabaltasunez interesatzeko. Adiskidetasunak gizarte trebetasunak garatzeko giro egokia sortzen du.
- 13.- **Erantzukizuna**, konpromisoak, emandako hitza eta taldean dagozkion eginkizunak betetzeko. Horrez gain, egiten ditugun ekintzetan arreta jartzea dakar.
- 14.- **Errealismoa**, norberaren aukerak hautematean eta balioestean.



## 10.3.2.- Kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak

### 1. IKASKUNTZA PROZESUAK

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Antolaketa:</b> Lehentasunezkoa, premiazkoa, garrantzitsua. Eraginkortasuna. Osotasuna eta zatiak. Plangintzaren alde onak.</p> <p><b>2. Ikasteko metodoak:</b> Ikasteko teknikak, ikasteko azturak, norberaren eta giroaren baldintzak.</p>	<p><b>1.- Agenda erabiltzeko aholkuak:</b> Agenda lana idatziz planifikatzeko baliabidea da. Denbora hobeto antolatzeko osagarri pertsonala da. Agenda behar bezala erabiltzeko hau guztia egin behar da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egin beharreko eginkizunen berri eduki bezain laster, eginkizunak idatzi, dagozkien datekin lotuta.</li> <li>- Eginkizun konplexuak egitean, eginkizunak fasetan zatikatu, urratsak eta etapak zenbatuz lana errazago egiten baita.</li> <li>- Eginkizun_bakoitza egiteko behar den denbora kalkulatu.</li> <li>- Egunez egun eginkizunak kontsultatu eta kontrolatu ondoren, egiteke dauden jarduerak birkokatu.</li> <li>- Aldi bakoitzaren hasieran (hilean behin, hiru hilean behin) behin eta berriro egin beharreko lanak zerrendatu.</li> </ul> <p><b>2.- Kontzeptu mapak egiteko jarraibideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzeptu nagusia identifikatu</li> <li>- Gaiaren kontzeptu garrantzitsuenak edo hitz gakoak atera</li> <li>- Kontzeptuen artean loturak egin</li> <li>- Kontzeptuak multzokatu</li> <li>- Kontzeptu multzoak hierarkian jarri</li> <li>- Multzoak eta erlazioak (loturak) grafikoki adierazi</li> </ul> <p><b>3.- Eskemak egiteko jarraibideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioaren edukiaren ideia orokorrera hurbildu</li> <li>- Testuaren antolaketa eta ideien hierarkia ikusi. Atalak eta azpiatalak bereizi, ideia osoak kontuan hartuta</li> <li>- Testuaren eta paragrafoen ideia nagusia idatzi</li> <li>- Xehetasunetara iritsi</li> <li>- Ideiak (edukia) logikaz ordenatu eta banatu</li> <li>- Ideiak grafikoki antolatu</li> </ul> <p><b>4.- Laburpenak egiteko jarraibideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua (informazio edukia) ulertu</li> <li>- Oharrak idatzi, ideia nagusiak bildu</li> <li>- Lehen eta bigarren mailako ideiak bereizi</li> <li>- Esaldiak egin, testuaren esanahia barne hartzen duten hitz garrantzitsuenak lotuz</li> <li>- Hari nagusia aurkitu, eta ideiak antolatu eta lotu</li> <li>- Narrazio estiloz idatzi, zentzuz eta jarraitutasunez</li> </ul>

### 2. SOZIABILITEA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Taldea:</b> Burua eta buruzagitza. Taldeko rolak. Multzoa eta multzokatzea. Talde bateko kide izatea.</p> <p><b>2. Gatazka:</b> Araua eta diziplina. Gatatzak konpontzeko moduak. Adostasuna eta akordioa. Kompetentzia eta lehiakortasuna.</p> <p><b>3. Gizarte trebetasunak:</b> Komunikazio trebetasunak. Aurkezpenak. Elkarriketak. Solasaldiak. Agurrak. Gizartean jokatzeko moduak.</p> <p><b>4. Aniztasuna:</b> Kanporatzea eta barneratzea. Desberdintasuna, berdintasuna eta ekitatea. Eskubide indibidualak eta kolektiboak.</p> <p><b>5. Herritartasuna:</b> Parte hartzea, talde bateko kide izatea, identitatea, eskubideak eta betebeharrak.</p>	<p><b>1. Taldean lan egiteko jarraibideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Helburuak sailkatu, eta taldearen helburuekin bat egin</li> <li>- Rolak eta funtzioak banatu</li> <li>- Erantzukizun partekatua onartu</li> <li>- Eginkizunak aztertu</li> <li>- Komunikazio bideak zehaztu</li> <li>- Denborak zehaztu</li> <li>- Lan jarduerak gauzatu, eta lan jardueretan esku hartu</li> <li>- Prozesua eta produktuak ebaluatu</li> </ul> <p><b>2. Bilerak egiteko aholkuak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaiari buruzko informazioa aldeztu aurretik prestatu</li> <li>- Garaiz iritsi</li> <li>- Bilerako gaiak eutsi</li> <li>- Inor eten gabe parte hartu</li> <li>- Denbora mugak errespetatu</li> <li>- Eguneko ordenan ez dauden gaiak idatzi</li> <li>- Adostasunera iristen edo emaitzak lortzen saiatu</li> <li>- Ondorioak atera</li> </ul>



## 2. SOZIABILITEA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
	<p><b>3. Gatazkei aurre egiteko urratsak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontrola galdu aurretik gelditu</li> <li>- Gatazka behar bezala definitu. Esan arazoa zein den</li> <li>- Gainerako pertsoneri entzun</li> <li>- Pentsatu gatazken irtenbideak zein izan daitezkeen</li> <li>- Aukeratu egokiena den irtenbidea, denontzat onuragarria izateko; praktikan gauzatzeko aukerak ikusi</li> <li>- Aukeratutako irtenbidea praktikan gauzatu</li> <li>- Lortutako emaitzak balioetsi</li> </ul>

## 3. GARAPEN PERTSONALA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Autoestimua:</b> Autokontzeptua, nor bere burua hautematea, aurreikuspenak, horretan eragina duten aldagaiak.</p> <p><b>2. Afektibitatea:</b> Sentimenduak eta emozioak.</p> <p><b>3. Pertsonalitatea:</b> Pertsonalitate motak eta ezau-garriak.</p> <p><b>4. Gaitasunak:</b> Adimen motak. Motibazioa, ahalegi-na eta errendimendua.</p>	<p><b>1. Erabakiak hartzeko urratsak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hartu beharreko erabakia identifikatu eta definitu</li> <li>- Jakin pertsonarentzat eta helburuarentzat garrantzitsua zer den</li> <li>- Daukagun informazioa berrikusi, eta informazio berria bilatu</li> <li>- Alternatiba bakoitza aukeratzeak dituen arriskuak eta alde onak balioetsi</li> <li>- Proposatutako helburua lortzeko ekintza plana egin</li> <li>- Erabakia eta emaitza balioetsi</li> </ul>

## 4. LAN ORIENTAZIOA

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak
<p><b>1. Proiektu profesionala:</b> Helburuak. Prestakuntza ibilbidea. Hezkuntza arautua eta ez arautua. Lana eta enplegua. Erabakia eta emaitza.</p>	<p><b>1.- Etorrizun profesionalari buruzko informazioa hautatzeko jarraibideak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa bilatu, iturri bat baino gehiago erabiliz</li> <li>- Informazioa ordenatu eta sailkatu</li> <li>- Gordetako informazioa eguneratu</li> <li>- Informazio bilaketa gidatzen duten galderak egin</li> <li>- Lortutako informazioaren garrantzia balioetsi</li> <li>- Behar ez den informazioa baztertu</li> </ul>





## 10.4.- ARLOKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Konpetentzia espezifikokoak	Konpetentzia orokorrak						Eduki multzoak				Garran. (1-2-3)*	
	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4		
1. Zailtasunei aurre egitea, frustrazioarekiko tolerantzia izanik, eginkizuna bertan behera utzi gabe eta eginkizuna egiteko beste modu batzuk bilatuz.				X		X	X		X			1
2. Eguneroko bizitzan zalantzen aurrean norberak hartzen dituen jarrerari buruz autonomiaz hausnartzea.		X		X	X				X	X		2
3. Beste batzuekin taldean egin beharreko proiektuetan, adiskidetasunez eta elkarlanean aritzea.			X	X			X	X				1
4. Lan bat egiteko jarraitutako prozesua arretaz deskribatzea eta ebaluatzea, bakarka edo taldean hausnartuz.	X					X	X	X				2
5. Nork bere buruarekin eta gainerakoekin duen jokabidea kritikoki aztertzea.			X	X	X		X	X				1
6. Norberaren eta gainerakoien baitan zer alde on dauden errealismoz bilatzea eta balioestea, mugak onartuta.		X		X					X	X		2
7. Taldearen funtzionamendua behatzea eta taldearen jarduna ekimenez sustatzea.			X	X				X	X			3
8. Hurbileko gizarte errealitateak hautematea eta enpatiaz eta errespetuz esku hartzea.					X	X		X	X			2
9. Eskolako eginkizunak egitean, denbora diziplinaz antolatzea.	X					X	X				X	2
10. Egoera gatazkatsuetan, elkarrizketan malgutasunez eta enpatiaz jardutea eta taldearen erabakiak onartzea.			X	X				X	X			1
11. Hasitako jarduera eta horren eragina autonomiaz eta erantzukizunez ebaluatzea.					X	X		X			X	2
12. Etorrizun profesionalari buruzko erabakiak ekimenez eta sormenez hartzea eta alternatibak balioestea.		X	X			X			X	X		1

\* 1 = Guztiz garrantzitsua; 2 = Oso garrantzitsua; 3 = Garrantzitsua.

## 10.5.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Konpetentzia espezifikokoak	Ebaluazio irizpideak
1. Zailtasunei aurre egitea, frustrazioarekiko tolerantzia izanik, eginkizuna bertan behera utzi gabe eta eginkizuna egiteko beste modu batzuk bilatuz.	<p>1.1. Zerbait bukatuta ikusteak ematen duen berehalako gozamina atzeratzen du.</p> <p>1.2. Eginkizunean, aldarte onari eta gogoari eusten dio.</p> <p>1.3. Zailtasunak aurkitzean, beste irtenbide batzuk proposatzen ditu.</p> <p>1.4. Prozesuaren barruan erroreak daudela onartzen du.</p> <p>1.5. Ez da konformatzen lehenengo emaitzarekin.</p>
2. Eguneroko bizitzan zalantzen aurrean norberak hartzen dituen jarrerari buruz autonomiaz hausnartzea.	<p>2.1. Esku hartzen du, hausnarketak idatziz edo ahots gora emanez.</p> <p>2.2. Alegiazko egoeretan, arrakastatsu ikusten du bere burua.</p> <p>2.3. Bere jokabideak eta jarrerak deskribatzen ditu.</p> <p>2.4. Zer-nolako pertsona den deskribatzen duen adjektiboan zerrenda egiten du.</p> <p>2.5. Bere sentimenduak deskribatzen dituzten hitzen zerrenda heterogeneoan, bere sentimenduak identifikatzen ditu.</p> <p>2.6. Bere erroreak onartzen ditu, besteei errua egotzi gabe.</p>
3. Beste batzuekin taldean egin beharreko proiektuetan, adiskidetasunez eta elkarlanean aritzea.	<p>3.1. Hizkuntza bateratzeko joera du.</p> <p>3.2. Informazioa jakinarazteko jarduerari (bilerak) garrantzia ematen die.</p> <p>3.3. Taldekideei laguntza ematen die.</p> <p>3.4. Konfiantza du taldekideen ekarpenean eta ahaleginean.</p> <p>3.5. Taldearen arrakasta bere luzimenduaren gainetik jartzen du.</p> <p>3.6. Behar duenean, laguntza eskatzen die taldekideei.</p>
4. Lan bat egiteko jarraitutako prozesua arretaz deskribatzea eta ebaluatzea, bakarka edo taldean hausnartuz.	<p>4.1. Egiten duenari izena jartzen dio.</p> <p>4.2. Lana fasetan zatitzen du.</p> <p>4.3. Lana osatzen duten eginkizunen zerrenda ordenatzen du.</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
	<p>4.4. Eskatutako ezagutzak eta ezaugarriak zerrenda batean jasotzen ditu.</p> <p>4.5. Egindako jarduerak beste pertsona batzuei azaltzen dizkie.</p> <p>4.6. Arrakastatsuak izan diren sekuentziak hautatzen ditu.</p> <p>4.7. Izandako zailtasunak eta okerrak eragin ditzaketen elementuak idazten ditu.</p> <p>4.8. Erabilitako dokumentazio iturriak adierazten ditu.</p> <p>4.9. Lan prozesuan eragina duten konpondu gabeko gaiak planteatzen ditu.</p>
5. Nork bere buruarekin eta gainerakoekin duen jokabidea kritikoki aztertzea.	<p>5.1. Bizitzan laguntza ematen dioten pertsonak identifikatzen ditu.</p> <p>5.2. Egoera batzuetan gainerakoekin behar bezala jokatzeko duenean, egoera horiek zehazten ditu.</p> <p>5.3. Gainerakoekin jokabideengatik eragindako egoera atsegingarriak onartzen ditu.</p> <p>5.4. Gainerakoak laguntzeak eta zaintzeak dituzten alde onak balioesten ditu.</p> <p>5.5. Jokabide pasiboa, agresiboa eta asertiboa bereizten ditu.</p>
6. Norberaren eta gainerakoekin baitan zer alde on dauden errealismoz bilatzea eta balioestea, mugak onartuta.	<p>6.1. Ezaugarri onak (bai bereak, bai taldekideengan ikusten dituenak) zerrendatzen ditu.</p> <p>6.2. Beste batzuek egokitutako ezaugarri onak onartzen ditu.</p> <p>6.3. Proposamen onak idazteko teknika erabiltzen du.</p> <p>6.4. Idatziz, norbera hobetzeko plan sipleak egiten ditu.</p> <p>6.5. Gizartean nagusi diren edertasun estereotipoak erlatibizatzen ditu.</p> <p>6.6. Eguneroko egoerak baliatzen ditu, atzeraelikadura positiboa taldekideei emateko edo haiengandik jasotzeko.</p> <p>6.7. Ikasgelan giro ona sortzen duten baieztapenak balioesten eta praktikan jartzen ditu.</p> <p>6.8. Ondo edo gaizki sentitzea eragiten duten eguneroko egoerak modu orekatuan balioesten ditu.</p> <p>6.9. Egoera estresagarriak gainditzeko ideiak ematen ditu.</p> <p>6.10. Norberaren eta besteen zailtasunak onartzen ditu.</p>
7. Taldearen funtzionamendua behatzea eta taldearen jarduna ekimenez sustatzea.	<p>7.1. Epe motzean, arrakastak lortzeko aukera bilatzen du, nahiz eta arrakasta txikia izan.</p> <p>7.2. Proposatutako helburu komuna gogorarazten du.</p> <p>7.3. Funtzioak banatzen, garrantzia ematen die pertsonen gaitasunei eta interesei.</p> <p>7.4. Taldeak ondo funtzionatzeak poztu egiten duela adierazten du.</p> <p>7.5. Premiak identifikatu eta kanpoko laguntza eskatzen du.</p> <p>7.6. Pertsonen arteko harremanei buruzko oharak hartzen ditu.</p> <p>7.7. Errendimendua aldiro ebaluatzea proposatzen du.</p>
8. Hurbileko gizarte errealitateak hautematea eta enpatiaz eta errespetuz esku hartzea.	<p>8.1. Gizarte errealitateak deskribatzen ditu.</p> <p>8.2. Gizarte errealitateen aurrean, bere iritzia argudiatzen du, eta jarrera jakin bat hartzen du.</p> <p>8.3. Bidegabekeriaren aurrean ados ez dagoela adierazten du.</p> <p>8.4. Komunitatearen jardueretan parte hartzen du.</p>
9. Eskolako eginkizunak egitean, denbora diziplinaz antolatzea.	<p>9.1. Zerrendatuta ditu egin gabeko jarduerak.</p> <p>9.2. Lehentasunak ezartzen ditu.</p> <p>9.3. Jarduera bakoitzari denbora tarte jakin bat ematen dio.</p> <p>9.4. Epe jakin batean egin beharreko jarduerak agendan idazten ditu.</p> <p>9.5. Eguneroko begiratzen dio agendari.</p> <p>9.6. Helburuen arabera programatzen du.</p>
10. Egoera gatazkatsuetan, elkarrizketan malgutasunez eta enpatiaz jardutea eta taldearen erabakiak onartzea.	<p>10.1. Konbentzitzen saiatzen denean, arrazoiak ematen ditu.</p> <p>10.2. Min egiten duenean, barkamena eskatzen du. Bere erroreak onartzen ditu.</p> <p>10.3. Blokeo egoeretan amore ematen du.</p> <p>10.4. Irtenbide batean baino gehiagotan pentsatzen du.</p> <p>10.5. Informazio berriak hausnartzeko denbora hartzen du.</p> <p>10.6. Lotutako akordioaren balioa onartzen du.</p> <p>10.7. Mintzakideek izan dezaketen arrazoien zatia onartzen du.</p> <p>10.8. Dagokion erantzukizuna bere gain hartzen du.</p>
11. Hasitako jarduera eta horren eragina autonomiaz eta erantzukizunez ebaluatzea.	<p>11.1. Beharrezkoak diren baliabideak alde aurretik ikusi eta prestatzen ditu.</p> <p>11.2. Laguntzaileen premia aurreikusten du.</p> <p>11.3. Ideia argi bat izaten du oinarri.</p> <p>11.4. Emaizta partzialak ebaluatzen ditu.</p> <p>11.5. Nola ebaluatu definitzen du.</p> <p>11.6. Hasitako jarduerari edo proiektuari dagozkion irizpideak idatziz gordetzen ditu (bideragarritasun ekonomikoa, originaltasuna, material motak...).</p>



Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
	11.7. Hasitako proiektuaren edo jardueraren gizarte balioa aldez aurretik definitzen du. 11.8. Objektu edo gertaera bati pertsonak atxikitzen dizkioten balioak bereizten ditu.
12. Etorkizun profesionalari buruzko erabakiak ekimenez eta sormenez hartzea eta alternatibak balioestea.	12.1. Proiektu profesionalari buruz interes zehatzak adierazten ditu. 12.2. Egin ditzakeen ibilbide profesionalak prestatzen ditu, eta dosierrak egiten ditu. 12.3. Bere ezaugarriak eta lanbideen betekizunak lotzen ditu. 12.4. Epe motzean bere helburuak zein diren adierazten du hitzez. 12.5. Erabaki baten ondorioak eta arriskuak aurreikusten ditu. 12.6. "Emaizta" eta "erabakia" bereizten ditu. 12.7. Badaki berarentzat eta lortu nahi duen helburuarentzat zer den garrantzitsua. 12.8. Prestakuntza eta lan inguruneko alternatibak ikertzen ditu.



IIIj ERANSKINA

EUSKAL CURRICULUMA BALORATZEKO ETA HOBETZEKO INKESTA

TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

**Argibideak:**

- Balorazioa eta hobekuntza proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, arloko konpetentzia orokorretara eta espezifikoez mugatzen da balorazioa, baina konpetentzia horien testuingurua aintzat hartzekoa da.
- Arloko konpetentzia orokorrak baloratzeko eta hobetzeko, Sarrerako testua aintzat hartzea komeni da.
- Arloko konpetentzia espezifikoa baloratzeko eta hobetzeko, Ikasketa edukiak eta bereziki Ebaluazio irizpideak aintzat hartzea komeni da.
- Inkesta hau erantzuteko egokienak Ikastetxeko orientatzaileak eta tutoreak dira; bereziki DBHko irakasleak, baina ahal balitz oso egokia litzateke beste etapetako irakasleek ere parte hartzea.
- Inkesta bakar batean jaso itzazue irakasle guztien balorazioak eta hobetzeko proposamenak.
- Item-ak baloratzeko irizpidea, Hezkuntza xedeak eta Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko, item horrek duen (irizten den) eragina da. Autoreek egiten duten balorazioa (garrantzia 1-2-3) norabide bat besterik ez da.
- X bat ipini hobesten den laukiaren barruan.
- Item bakoitza 1etik 5era baloratzen da:  
1 = Hutsala; 2 = Garrantzi gutxikoa; 3 = Garrantzi ertaina; 4 = Garrantzi handikoa; 5 = Behar beharrezkoa.
- Inkestaren atal bakoitzaren bukaeran, hobetzeko proposamen zehatzak egiteko, irizten diren iruzkinak egiteko, eta inkesta erantzuteko erabilitako bidea adierazteko, tokia dago.

ARLOKO KONPETENTZIA OROKORRAK	1	2	3	4	5
1.- Ikaskuntza prozesuez jabetzea eta erantzukizunez eta diziplinaz planifikatzea, eskatutako baliabideak eta eginkizunak zehatzuz, hobetzeko premiak identifikatzeko eta hurbileko egoeretan praktika eta metodo onak aplikatzeko, bai eta denbora hobeto erabiltzeko ere.					
2.- Lanarekin lotutako banako eta gizarte faktore erabakigarriak norberarengan eta ingurunean etengabe ikertzea, erabaki profesionalak hartzeko eta lan ibilbidea kudeatzeko gaitasuna errealismo handiagoz garatzeko.					
3.- Familian, eskolan, jolas eremuan edo lan giroan behar bezalako harremanak izateko beharrezkoak diren trebetasunak eta taldeen funtzionamendua baldintzatzen duten faktoreak iritzi kritikoz aztertzea eta balioestea, eremu horietan parte hartzeko eta proiektu partekatutakoak egiteko.					
4.- Gaitasun fisiko, kognitibo eta afektiboek dagokienez, taldeko gainerako kideetatik bereizten gaituzten berezko dohainak eta jokabideak aztertzea, gauzak egiteko gai den pertsona apreziatua sentitzeko eta hobeto kokatzeko, bai nor bere buruarikiko, bai gainerakoekiko elkarreaginean.					
5.- Inguruneko gizarte egoerei buruz informazioa izatea eta irizpide zuzenez balioestea, injustiziaren eta besteen egonezinaren aurrean sentsibilitatea bultzatzeko, beste sentimendu eta ikuspuntu batzuk ulertzeko gai izan daitezten eta horiei buruz kritika arrazoituak egin ditzaten.					
6.- Abian jarritako ekintzak eta testuinguruan duten eragina ebaluatzea, proposatutako helburua, jarraitutako prozesua eta lortutako emaitza kontuan hartuta, ekimenaren diseinuan hobekuntzak proposatzeko eta lorpen txikiak eta borondatearen indarrak ahaleginarekin jarraitu eta itxaropen positiboak sortu ahal izateko duten balioa onartzeko.					



ARLOKO KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	1	2	3	4	5
1.- Zailtasunei aurre egitea, frustrazioarekiko tolerantzia izanik, eginkizuna bertan behe- ra utzi gabe eta eginkizuna egiteko beste modu batzuk bilatuz.					
2.- Eguneroko bizitzan zalantzen aurrean norberak hartzen dituen jarrerari buruz autonomi- az hausnartzea.					
3.- Beste batzuekin taldean egin beharreko proiektuetan, adiskidetasunez eta elkarlane- an aritzea.					
4.- Lan bat egiteko jarraitutako prozesua arretaz deskribatzea eta ebaluatzea, bakarka edo taldean hausnartuz.					
5.- Nork bere buruarekin eta gainerakoekin duen jokabidea kritikoki aztertzea.					
6.- Norberaren eta gainerakoen baitan zer alde on dauden errealismoz bilatzea eta balioestea, mugak onartuta.					
7.- Taldearen funtzionamendua behatzea eta taldearen jarduna ekimenez sustatzea.					
8.- Hurbileko gizarte errealitateak hautematea eta enpatiaz eta errespetuz esku hartzea.					
9.- Eskolako eginkizunak egitean, denbora diziplinaz antolatzea.					
10.- Egoera gatazkatsuetan, elkarrizketan malgutasunez eta enpatiaz jardutea eta talde- aren erabakiak onartzea.					
11.- Hasitako jarduera eta horren eragina autonomiaz eta erantzukizunez ebaluatzea.					
12.- Etorrizun profesionalari buruzko erabakiak ekimenez eta sormenez hartzea eta alter- natibak balioestea.					
13.- Tutoritza eta Orientazio arloaren balorazioa oro har					



**Tutoretza eta Orientazio arloko konpetentzia espezifikoak hobetzeko proposamen zehatzak**

(Aipatzen ez diren eta garrantzizkoak irizten diren konpetentzia espezifikoak, hobetzeko beharra dutela irizten diren atalak...)

**Iruzkinak**

(Emandako balorazioari buruzko arrazoiaren azalpena, proposamenak...)

**Inkestak erantzuteko erabilitako bideak**

(Parte hartu duten pertsonen kopurua, horien ezaugarriak, erantzunak adosteko erabili den bidea...)

**Oharra:** Inkesta hauek separata modura plazaratzen dira han bertan erantzuteko.



## **IV. ERANSKINA**

# **HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORRAK (TXOSTEN OSOA)**



## SARRERA

Etorkizunera begira aurrera egin nahi duen gizarte batek gizarteko kide guztiek modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko gai izatea behar du, konpetentzia horiek guztiak ahalik gehien garatuz. Horrenbestez, hezkuntza sistemaren xedeak pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez jarduteko trebatzera bideratu behar dira. Bizitzaren eremuetan jarduteak prozedurak menperatzea esan nahi du, eta, horretarako, ezinbestekoa da metodo zientifikoa erabiltzen duen prozeduraren beraren ezagutza izatea, bai eta jakintzaren eremu bateko kontzeptuena ere. Jarduera horrek banakoa izan beharko luke; hau da, balio etiko edo moralen arabera izan beharko luke. Beraz, giza jarduera orok,aldi berean eta ezinbestean, prozedurak, ezagutzak eta jarrerak erabiltzea eragiten du.

Ikuspegi horri jarraiki, curriculuma antolatzeko ardatzek ez dute izan behar kontzeptuzko “jakintzak”, pertsonaren dimentsio guztietan jarduteko behar diren konpetentziak baizik. Konpetentziak azpimarratuz, hezkuntza jarduera, ezagutza, egoera praktikoetan eta testuinguru zehatzetan erabiltzera bideratu behar dela nabarmendu nahi dugu; ezagutza hori, jarduteko benetako baliabidea izate aldera. Konpetentzia, jardunari lotuta dago beraz, dinamikoa da.

Ezagutzen “erabilera” azpimarratzeak ez du esan nahi “ezagutzak” gutxien direnik -praktikak ere ez baitu teoria baztertzen-, baizik eta ezagutza eta erabilera osagarriak direla. Argi dago jarduerak eraginkorragoak direla praktikari buruz hausnartzeko gai garenean, hau da, esperientziaren bidez barneratutako ezagutza -batez ere, zientziak emandako ezagutza- modu kontzientean erabiltzeko gai garenean.

Beraz, gure ustez, hezkuntza konpetentziak lortzeko, balioekiko, prozedurazko trebetasunekiko eta ezagutza kontzeptualekiko jarrerak batera joan behar dute; baina ezagutza, trebetasun eta jarrera horiek konpetentziak izateko, jarduerak izan beharko dute.

### **Oinarrizko konpetentzia giltzak derrigorrezko eskolaldian Europako eremuan**

Eurydice-k egindako dokumentuan (2002) , Europar Batasuneko estatu kideen curriculumak berrikusten dira eta derrigorrezko hezkuntza orokorrean konpetentziak garatzeko moduak aipatzen dira, konpetentzia giltzen definizioari eta identifikazioari buruzko informazioa eskaintze aldera. Azterketaren ondorioetan bi gauza egiaztatzen dira. Alde batetik, herrialde guztiek “konpetentzien garapenari buruzko erreferentzia inplizituak edo esplizituak dituzte”, eta hiru ikuspegi identifikatzen dituzte: konpetentziak modu inplizituan lantzen dituztenak, “konpetentzien” garapenaren erreferentzia esplizitua egiten dutenak eta “oinarrizko edo konpetentzia giltzen” erreferentzia esplizitua egiten dutenak. Une hartan aztertutako herrialde guztiek, Espainiako eta Suediako Estatuak izan ezik, konpetentziak edo konpetentzia giltzak aipatzen zituzten curriculumean, edo aipatzeko bidean ziren.

<sup>1</sup> EURYDICE (2002): *Competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria*. <http://www.eurydice.org>





Beste alde batetik, argi geratzen da “konpetentziei lotutako ezaugarri eta terminologia ugari dau dela”. Gehien erabilitako hitza “konpetentzia giltza” da, baina beste hauek ere erabili dituzte: konpetentzia atalaseak, xede konpetentziak, ezinbesteko konpetentziak, oinarrizko konpetentziak, konpetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak... Dena dela, “konpetentzia giltza” erabiltzea aholkatzen da, edo, bestela, horren baliokidea den beste bat, betiere, definizio honekin bat egiten badu: “Gizabanako guztiak gizarteko kide aktibo gisa bizitza osotasunez bizitzeko aukera ematen duten ezagutza, trebetasun eta jarrera multzoa”. Erreferentziazat hartzen den ikuspegia honako hau da: ikasleak prest egotea derrigorrezko eskolaldia burututakoan, eskolatik kanpoko testuinguruetan eraginkortasunez jarduteko.

Lehenago adierazi dugunez, Europako herrialdeetako joera nagusia curriculumean konpetentziak aipatzea da, baina, azterketan aipatzen denez, badaude galdera batzuk oraindik behar bezala erantzun gabe:

- Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du konpetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplina baitako konpetentziak barneratzeak?
- Irakats al daitezke konpetentzia orokorrak aparteko diziplina moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?
- Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen konpetentzia orokorrak garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?

Logikoa da galdera horiek irekiak izatea, orain arte hezkuntza sistemen curriculumak akademi-zismoan oinarritutako hezkuntza ereduaren mende egon baitira. Murrizketa ulergarria da, hezkuntzaren benetako helburuak unibertsitaterako bidean dauden mailak gainditzean oinarritu baitira. Ikuspegia aldatutakoan eta hezkuntzaren xedeak zabalduetakoan, normala da behar bezala ez jakitea bizitza osoan sortu daitezkeen arazoak (pertsonalak, pertsonen artekoak, sozialak, profesionalak eta naturarekiko harremanetakoak) konpontzeko prestatu behar gaituen hezkuntzak nolakoa izan behar duen. Egia da curriculumak diziplinaka edo diziplina arloka antolatzea ez dela konponbide egokia izan, eta ez dela planteamendu nahikoa izan helburu horiek guztiak betetzeko, baina gaur egun ez dirudi bideragarria denik diziplinen edukiak eta curriculumak aspaldiko diziplina arloak kontuan hartu gabe antolatzea.

Curriculumak konpetentzien arabera osatzea koherenteagoa da gaur egungo hezkuntza xedeak medio, baina ez du arazoa guztiz konpontzen, ez baitago konpetentziak eta diziplina arloak integrazteari buruzko esperientzia nahikorik, eta, gainera, ez da erraza bizitzarako ezinbestekoak, oinarrizkoak eta giltza diren konpetentziak identifikatzea. Horri guztiari konpetentziak modu koherentean eta esanguratsuan formulatzeko zailtasunak gehitzen zaizkio, osotasun bat duten giza jarduerak disekzionatuz, hau da, trebetasunekin, ezagutzeekin eta jarrerekin lotutako edukiei dagozkien jarduerak bereiziz eta lotuz. Argi dago curriculumaren ohiko formulazioak, kontzeptuzko ezagutzetan oinarritutakoak, ibilbide luzea duela eta formulazio errazagoa duela, baina diziplinei buruzko ezagutzak barneratzeko bakarrik balio du, ez bizitzarako prestatzeko hezkuntza planteamendu zabalago baterako.

Euskal Curriculumerako egindako proposamenean, diziplina arloen arabeko antolaketa eta konpetentzien arabeko antolaketa osagarriak izatea nahi dugu. Aukeratutako eredu kurrikula-



rraren logikaren arabera, diziplina arloak ez dira izena ematen dioten diziplinarako ezagutza aipagarrien multzoa, baizik eta diziplina horretatik edo horiekin zerikusia dutenetatik aukeratutako konpetentzia eta eduki multzoa, hezkuntzaren xedeak lortzeko eta horiek konpetentzia orokorretan garatzeko gaitasuna duten neurrian. Horrenbestez, diziplina arlo guztiak arlo horren inguruan aukeratutako eta egituratutako diziplina baitako, diziplinarteko eta edukien metadiziplinarren arabera definituko dira, hezkuntza xedeetan definitutako konpetentziak lortzeko egindako ekarpenaren arabera.

Ikuspegi horri jarraiki, lehen egindako galderei erantzuna ematen diegu:

- *Diziplina jakin bat irakastean, zenbateko garrantzia izan behar du konpetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak barneratzeak? Eta zenbatekoa diziplinei dagozkien konpetentziak barneratzeak?*

Ikasgai batean konpetentzia orokorrak edo zeharkako konpetentziak eta diziplina jakin bati dagozkion konpetentziak barneratzeak duen garrantziak hezkuntzaren xedeak lortzeko zuzenean egindako ekarpenaren arabera izan beharko luke, helburua pertsonen dimentsio guztietan (gizabanako, gizartekide eta izadikide) eraginkortasunez jarduteko gaitasuna den pertsona lortzea baita.

- *Irakats al daitezke konpetentzia orokorrak aparteko irakasgai moduan, edo ikasgaietan integratu behar dira?*

Konpetentzia orokorrak bereizita irakats daitezke, baina, konpetentzia orokorrak eskolan ikasteko, diziplinetan integratu behar dira. Zenbat eta egoera gehiagotan, eduki gehiagoz eta maila gehiagotan irakatsi, orduan eta handiagoa izango da konpetentzia orokorrak transferitzeko aukera.

- *Nola irakatsi behar dira diziplinari dagozkion ezagutzak: berez dituzten balioetan oinarrituta edo transferitu daitezkeen konpetentzia orokorrak garatzeko baliabidetzat bakarrik hartuta?*

Diziplinek zientziaren arlotik landuta bakarrik dute zentzua. Ezagutzaren baitan dira eraikitzaileak, ez hezkuntzaren baitan. Arazoa honetan datza: diziplinak dira gaur egun ditugun euskarririk egonkorrenak edo fidagarrienak. Baina benetan sinetsita bagaude hezkuntza sistemaren funtzioa bizitzarako prestatzea dela, irakaskuntzaren edukiek zentzua dute horretarako balio dutenean. Horren ondorioz, oinarrizko irizpide garrantzitsuena xedeak lortzen laguntzea da.

### **Konpetentzia orokorrak Euskal Herriko eta Europako unibertsitateetan**

Bolognako Deklarazioak (1999) European goi hezkuntza koherente, bateragarri eta lehiatsurako espazio bat sortzea aldarrikatzen du, Europako eta beste kontinente batzuetako ikasleentzat erakargarria izan dadin. Euskal Herrian eta, oro har, European dauden unibertsitateetan Europako hezkuntza ministroek zehaztutako lan ildoak egokitzen ari dira –2010erako indarrean egon behar dute–.

Lan ildo bat “erraz ezagutu eta erkatzeko moduko titulazio sistema ezartzea” da. **“Tuning” proiektua**, Deustuko Unibertsitatea (Bilbo) eta Groningeneko unibertsitatea (Herbehereak) buru



dituela, erreferentzia da Europako unibertsitateentzat tituluak eta ikasketa planak berritzeko, eta kompetentzien sistema proposatzen du tituluen eta ikasketa planen helburuak deskribatzerakoan hizkuntza komuna izateko, bai eta ikasleen emaitzen ebaluaziorako erreferentzia izateko ere. Hain zuzen ere, proiektuak kompetentzia orokorretarako eta diziplina bakoitzari dagozkion kompetentzietarako erreferentzia puntuak proposatzen ditu.

Planteamendu horren interesa unibertsitateetarako diseinu kurrikularren eta Euskal Curriculumaren artean dauden berdintasunetan eta sinergietan datza. Sinergi argiak daude Tuning proiektuan aipatutako “kompetentzia orokorren” eta Euskal Curriculumeko “hezkuntza kompetentzia orokorren” artean. Tuning proiektuan, hiru oinarrizko kompetentzia daude, eta, orotara, 30 kompetentzia:

Kompetentzia instrumentalak	Pertsonarteko kompetentziak	Kompetentzia sistemikoak
1.- Azterketa eta sintesi kompetentzia	11.- Kritikatzeko eta nor bere burua kritikatzeko gaitasuna	19.- Ezagutzak praktikan aplikatzeko gaitasuna
2.- Antolatze eta planifikatzeko kompetentzia	12.- Talde lana	20.- Ikertze trebetasunak
3.- Oinarrizko ezagutza orokorrak	13.- Pertsonarteko gaitasunak	21.- Ikasteko gaitasuna
4.- Lanbidearen oinarrizko ezagutzak	14.- Diziplinarteko taldean lan egiteko gaitasuna	22.- Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna
5.- Ahozko eta idatzizko komunikazioa norberaren hizkuntzan	15.- Beste arlo batzuetako adituekin komunikatzeko gaitasuna	23.- Ideia berriak sortzeko gaitasuna (sormena)
6.- Bigarren hizkuntzaren ezagutza	16.- Aniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea	24.- Buruzagitza
7.- Ordenagailua erabiltzeko oinarrizko trebetasunak	17.- Nazioarteko testuinguruan lan egiteko trebetasuna	25.- Beste herrialde batzuetako kulturak eta ohiturak ezagutzea
8.- Informazioa kudeatzeko trebetasunak	18.- Konpromiso	26.- Modu autonomoan lan egiteko trebetasuna
9.- Arazoak konpontzea		27.- Proiektuen diseinua eta kudeaketa
10.- Erabakiak hartzea		28.- Ekimena eta ekiteko espiritua
		29.- Kalitateaz kezkatzea
		30.- Lorpenerako motibazioa

Euskal Curriculumean, bost kompetentzia orokor eta, orotara, 29 kompetentzia sailkatu dira. Horien artean aldeak daude, baina puntu komunak dituzte, eta bi planteamenduek elkar indartzen dute.

### Hezkuntza kompetentzia orokorrak Euskal Curriculumean

Euskal Curriculumean, garrantzi handia ematen diogu kompetentzia orokorrak -“hezkuntza kompetentzia orokor” izenekoak- barneratzeari, gure ustez hezkuntzaren xedeak lortzea horren menpe dagoelako, eta kompetentzia horiek gabe ezinezkoa delako bizitza osorako hezkuntzarako oinarriak ezartzea. Hori derrigorrezko hezkuntza orokorren oinarrizko funtzioetako bat da. Bestalde, gure ustez, hezkuntzaren erronka handienetako bat hezkuntza kompetentzia orokorren eta diziplina arloei dagozkien kompetentzien arteko integrazioa lortzea da. Ez du zentzurik hezkuntza kompetentziak kultur edukirik gabe planteatzea, eta gutxiago Euskal Herrian, euskal kultur espezifikoaren transmisioa ez dutelako bermatzen ez eskolek, ez komunikabideek, ez kultur industriek. Diziplina arloen



ezagutzek ere ez dute berezko baliorik, hezkuntzaren xedeak betetzen laguntzen duten heinean baitira baliagarriak, eta hezkuntza konpetentzia orokorrek ere ez dute berezko baliorik, diziplina arloetatik aparte ez baitituzte hezkuntzaren xedeak betetzen.

Gure ustez, "hezkuntza konpetentzia orokorrak" zuzenean diziplina arloen eduki espezifikoaren erreferentzia egiten ez duten konpetentziak dira, nahiz eta, hezkuntzaren ikuspegitik duten balioa-gatik, lotuta egon konpetentzia guztiekin (konpetentzia metadiziplinarrak), bai eta hainbat arloekin (diziplinarteko konpetentziak) eta arlo jakin batekin ere (diziplina baitako konpetentziak); baina ez dute lotuta egon behar horiekin bakarrik. Hezkuntza konpetentzia orokorren ezaugarri nagusiak diziplina arloetan, eguneroko bizitzako egoeretan eta denboran zehar dituzten transferitze ahalmena eta funtzio ugariak dira.

Proposamen askotan saiatzen dira konpetentzia orokorrak zehazten. Eurydicek egindako dokumentuan, adibidez, honako hauek aipatzen dira: komunikazioa, arazoak konpontzea, arrazoitzea, buruzagitza, sormena, motibazioa, talde lana eta ikasteko gaitasuna. Beste erreferentzia iturri batzuek ere balio dute konpetentziak definitzeko; esate baterako, Europako Batzordeko Hezkuntza Batzordeak zehaztutakoak: jatorrizko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; atzerriko hizkuntzaren bidezko komunikazioa; Informazio eta Komunikazio Teknologiak; kalkulua eta matematikako, zientziako eta teknologiako konpetentziak; enpresa espiritua; pertsonarteko eta gizalegeko konpetentziak; ikasten ikastea; kultura orokorra. Ikusi dugunez, Tuning proiektuan konpetentziak hiru mailatan sailkatuta daude: instrumentalak, pertsonartekoak eta sistemikoak. Gure proposamena egiteko, J. Delorsen zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarritu gara. Bertan, hezkuntzaren lau zutabe edo oinarri aurkezten dira: ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi. Funtzio horiei guztiei komunikatzen ikastea gehitu diegu.

Gure ustez, hezkuntza konpetentzia orokorrak bost eremu horietan antolatuta egoteak ondo islatzen ditu hezkuntzaren funtsezko elementuak eta hezkuntza planteamendu horrekin koherentea izateko irakasleak -irakasle guztiek- bete beharreko funtzioak. Baina antolaketa eredu horrek, baliagarria izateko, hezkuntza konpetentzia orokor guztiak ordenatzeko baliagarria izan behar du. Konpetentzia guztiak ordenatzeko baliabide heuristikoa bat da, azken proposamenak koherentzia eta zentzua izate aldera, eta, gainera, ahalik osoena izan behar du hezkuntzaren helburuei dagokienez. Gainera, aurkezpenean erabilitako ordenak ez du aparteko asmorik edo lehentasunik, ez eta hierarkiarik ere: esate baterako, ikasten eta pentsatzen ikastea ez da beste arlo batzuei dagokien konpetentzien aurretikoa, ez eta garrantzitsuagoa ere.

Sailkapenak duen interesaz jabetuta, baina sailkapen honek eta antzekoek dituzten mugez ohar-tuta, hona hemen dokumentuan landuko dugun hezkuntza konpetentzia orokorren mapa:


<sup>2</sup> EUROPAKO BATZORDEA (2002): *The key competencies in a knowledge-based economy: a first step towards selection, definition and description*. Directorate-General for Education and Culture.

<sup>3</sup> DELORS, J. (1999): *Hezkuntza: altxor ezkutua*. XXI. menderako hezkuntzari buruz Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena. Unesco Etxea - Eusko Jaurilaritza. Vitoria-Gasteiz (jatorrizkoa, 1996).



<b>1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua.</li> <li>1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea</li> <li>1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa</li> <li>1.4.- Erabakiak hartzea</li> <li>1.5.- Arazoak konpontzea</li> <li>1.6.- Baliabide kognitiboen erabilera</li> </ul>
<b>2.- Komunikatzen ikasi:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2.1.- Ahozko hizkuntza</li> <li>2.2.- Hizkuntza idatzia</li> <li>2.3.- Beste hizkuntza batzuk</li> <li>2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak</li> <li>2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</li> <li>2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa</li> </ul>
<b>3.- Elkarrekin bizitzen ikasi:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>3.1.- Pertsonarteko harremana</li> <li>3.2.- Gatazkak konpondu</li> <li>3.3.- Parte hartze demokratikoa</li> <li>3.4.- Elkarlana eta talde lana</li> <li>3.5.- Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna)</li> </ul>
<b>4.- Norbera izaten ikasi:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>4.1.- Gorpuztasuna</li> <li>4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala</li> <li>4.3.- Nork bere buruaren estimua</li> <li>4.4.- Autonomia</li> <li>4.6.- Sentsibilitate estetikoa</li> <li>4.6.- Integrazio pertsonala</li> </ul>
<b>5.- Egiten eta ekiten ikasi:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>5.1.- Anlisisa: informazioa hartzea eta gordetzea</li> <li>5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea</li> <li>5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzea</li> <li>5.4.- Ebaluazioa</li> <li>5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioa</li> </ul>

Hezkuntza konpetentzia orokorren mapa hau bi modutan irakur daiteke: arlo bakoitza bakarrik hartuta edo arloak elkarri lotuta.





Arloka sailkatzeak hezkuntza konpetentzia orokorrei buruzko ideia orokor bat osatzen laguntzen du, baina ezinbestekoa da arloak sailkatzetik arloen arteko loturez kontzientziaztera pasatzea. Sailkatzearen eta elkarren arteko loturaren ideia izarraren irudian islatzen da, izarraren bost puntetako bakoitzak kolore bat baitu, eta koloreak diluitu egiten dira, kolore bakar bateko espazio komuna osatuz.

Arloen arteko loturen elkarrekikotasuna diagrama honetan dago adierazita:

	Pentsatu eta ikasi				
Pentsatu eta ikasi		Komunikatu			
Komunikatu	X		Elkarrekin bizi		
Elkarrekin bizi	X	X		Izan	
Izan	X	X	X		Egin eta ekin
Egin eta ekin	X	X	X	X	

Diagrama modu askotan irakur daiteke. Esate baterako, uler daiteke pentsamenduak komunikazioa baldintzatzen duela, bai eta komunikazioak pentsamendua baldintzatzen duela ere; pentsamenduaren eta komunikazioaren gaitasunek elkarrekin dugun bizitzaren konpetentziak baldintzatzen dituzte, eta, era berean, elkarrekin bizi gabe, pentsamendurako eta komunikaziorako aukerak murriztuta daude; pentsamenduaren, komunikazioaren eta elkarrekin bizitzaren konpetentziek ikastearen konpetentzia baldintzatzen dute, baina ikastearen konpetentziek gainerako konpetentziak ere baldintzatzen dituzte. Hezkuntza konpetentzia orokorren arloen arteko lotura ulertuta, konpetentzia horiek gainjarri eta osatu egiten direla ulertzen da.

Jakin badakigu guk egindako proposamenak aldaketa sakona dakarrela “zertarako eta zer irakatsi eta ebaluatu” auzian, bai eta “nola irakatsi eta ebaluatu” auzian ere. Gure planteamenduaren arabera, irakasle guztiak hezitzaileak dira, eta haien funtzioa ikasleak bizitzaren eremu guztietan modu egokian jarduteko prestatzea da. Irakasleen funtzioa ez da “haien” diziplina irakastea bakarrik; gainerako irakasleekin batera, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten, egiten eta ekiten ere irakatsi behar baitute. Horrek guztiak hezkuntzari eta hezkuntzaren irakaskuntzari buruzko ikuspegi aldaketa dakar, eta pentsamenduan eta irakasleen jardunean aldaketak eta doitzeak behar ditu. Gai konplexuak eta zailak dira, eta planteamendu berriak beharko dira, bai irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, bai curriculumeko diziplinetan.

### Laburbilduz:

Euskal Curriculumaren proposamena konpetentzien arabera dago formulatuta, eta derrigorrezko eskolaldirako, Lanbide Heziketarako eta unibertsitateko goi ikasketetarako Europako herrialde gehienen curriculumen ildo beretik doa.

Garrantzi handia eman zaio “hezkuntza konpetentzia orokorrak” barneratzeari; izan ere, barneratzea hezkuntzaren helburuekin eta pertsona bat dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea



eta izadikidea) garatzearekin estuki lotuta dago, eta transferitzeko, funtzio ugari izateko eta asko irauteko aukera ematen du.

Proposamen honen funtzio nagusia “diziplina arloak” formulatzeko oinarri eta erreferentzia izatea da. Ez du zentzurik diziplina arloak “hezkuntza kompetentzia orokorretatik” bereizteak. Proposamen hau baliagarria izateko, diziplina arloetara transferitu behar da. Euskal Curriculumumaren erronka handienetako bat proposamen integratua egitea da.

“Hezkuntza kompetentzia orokorrak” elkarrekin lotuta daude; beraz, “diziplina arloek” “hezkuntza kompetentzia orokorren” eremu guztiak bere baitan hartu nahi dituzte. Horrek ez du esan nahi diziplina arlo bakoitzak eremu jakin bat azpimarratzen ez duenik.

Curriculumean aipatutako hezkuntzaren helburuen eta hezkuntza kompetentzia orokorren gaineko ikuspegi aldaketak hezkuntzaren jardunean gauzatzeko baldintza batzuk behar dira. Baldintza horien artean garrantzitsuenak hauek dira: irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, eta curriculumaren planteamenduarekin koherenteak diren material kurrikularrak lantzea.



## 1.- IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI

Kompetentzia kognitiboa garatzea lehenetsun eta anbizio handiko eta etorkizunera begirako helburua da hezkuntza sisteman; izan ere, kompetentzia kognitiboaren bidez, gizakia ezagutzak bereganatzeko eta sakon aztertzeko, prestakuntza eta lan inguruneetan lehiatzeko, mundu anitz eta teknologikoan elkarrekin bizitzeko eta barne munduan eta gainerakoekiko elkarreraginean bere burua hobeto ezagutzeko gai da. Gizarteak ikasleek pentsamenduaren trebetasunak bereganatzeko eskatzen du, eta, horren ondorioz, hezkuntzaren helburuen artean kompetentzia intelektual horiek sartzen dira. Ikasten eta trebetasunez pentsatzen ikastea lorpen asko erdiesteko bitartekoa da, baina helburua ere bada berez. Gizabanakoak ez dio inoiz pentsatzeari utzi behar, irrazionaltasuna gizateriak aurrera egiteko oztopo nagusia baita.


Identifikatzeko, alderatzeko, sailkatzeko, aztertzeko, sintetizatzeke, serieak egiteko, berritzeko, aurretik esateko, orokortzeko eta ebaluatzeke prozesuak, bai eta adimena eta portaera arautzeke prozesuak ere, ezinbestekoak dira informazioa bilatzeko, oinarritzeke, ebaluatzeke, aplikatzeko eta sortzeke ez ezik beste hainbat gauza egiteke ere: etengabeko gizarte eta kultur aldaketetara egokitzeko; erabaki zuzenak hartzeke -bai eta arriskua dagoenean eta ziurgabetasunezko egoeretan ere-; gai gatazkatsuak malgutasunez, konpromisoz eta buruargitasunez konpontzeke; pentsamenduaren ikaskuntzak eta trebetasunak barneratzeko eta aplikatzeko; eta proposatutako edo defendatutako balioak kontuan hartzeke. Hortik zentzuzko ondorio hau ateratzen da: pertsona batek zenbat eta argiago hauteman bere ahalmen kognitiboa, lortu nahi dituen helburuak eta bere eginkizuna betetzeke jarraitu beharreke bidea, orduan eta motibazio handiagoa izango du ikasteke eta ahaleginak egiteke.

«Ikasten eta pentsatzen ikastea» helburu handia da, eta ez da lortuko bat-batean, ustekabeko gertakari baten bidez, baizik eta kontzientea, programatua, etengabekoa eta ebaluagarria den esku-hartze baten bidez. Ikerketen arabera, heziketak arreta bera jarri behar du pentsamenduaren prozesuan eta edukietan, eta, bi horiek egoki uztartuz gero, ikaskuntza esperientziak sortuko dira ikaslearengan; horien ondorioz, ikasleak aldaketa esanguratsuak izango ditu adimenaren berrantolaketan eta edukiak menderatzean. Horrenbestez, curriculuma baliabide egokia da pentsatzeko eta irakasteke; beraz, eskolaldiko urteetan, bibliografia zientifikoaren arabera, pentsamendua eratzen duten gaitasunak ahalik eta modu onenean garatzeko aukera izango du ikasleak.

Irudi honetan, «Ikasten eta pentsatzen ikasi» kompetentziaren edukiak daude, gizakiaren pentsamenduaren bost azpikonpetentzietan antolatuta. Hona hemen azpikonpetentziak: 1) Jasotzen den informazioaren, ikasten diren kontzeptuen eta bizitzaren eta pertsonaren beraren arazoan interpretazioa; 2) Informazio berriaren eta norberaren ekimenaren garapena; 3) Informazioa eta eratzen diren ideia eta judizio guztien ebaluazioa; 4) Erabaki garrantzitsuak hartzea, gehienbat, zailtasunak daudenean; 5) Arazo irekiak konpontzea -horretarako, aurreko prozesuak gauzatu behar dira-. Horrez gain, irudian, kompetentzia horrek behar bezala funtzionatzeko erabili beharreke baliabide kognitibo batzuk daude nabarmenduta. Hona hemen baliabide horiek: metakognizioa edo pentsamenduaren beraren ezagutza, jokabidea eta ikaskuntza arautzea, ikasteke estrategia ugari erabiltzea eta lortutakoa hainbat eduki akademikotara eta norberaren eta laneko egoeretara transferitzea.


Gero, Bigarren Hezkuntza Orokorreke (16 urte) azken azpikonpetentziak deskribatzen dira, bai eta horiek ebaluatzeke zenbait irizpide eta orientazio ere.





**IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI KONPETENTZIAREN MAPA**  
(Swartz eta Parks-en lanaren egokitzapena, 1994)<sup>4</sup>

**Oharra:** Parentesi arteko zenbakiak konpetentzia zehatz bakoitzaren garrantzia adierazten dute, irizpide hauen arabera: 1= oso garrantzitsua, 2= nahiko garrantzitsua 3= garrantzitsua.



<sup>4</sup> Swartz, R.J., Parks, S. (1994): *Infusing the teaching on critical and creative thinking into content instruction*. Pacific Grove, CA: Critical Thinking Press & Software.



## 1.1.- INFORMAZIOAREN INTERPRETAZIOA: ULERMENEAN OINARRITUTAKO PENTSAMENDUA

**Jasotzen den informazioa modu esanguratsuan interpretatzea, prozesu kognitibo egokiak erabiliz, ezagutzaren, munduaren eta gainerakoaren sakoneko ezagutza lortzeko.**

Informazioa modu esanguratsuan interpretatzeko kompetenziaren oinarriak honako hauek dira: ezagutza oro -hala berriak, nola gai jakin bati buruzko aurretiko ezagutzaren osagarriak- modu esanguratsuan eta argi ulertzea, modu pertsonalean eta hautemateko moduan azaltzea eta beste egoera batzuetara estrapolatzea. Batetik, informazio hori prozesatu egin behar da; hau da, informazioan nahi denean eskuratu, adierazi, aldatu, biltegitatu eta berreskuratu. Bestetik, oinarrizko prozesu mentalak ere egin behar dira; esaterako, argudio baten elementuak identifikatu, antzekotasunak eta desberdintasunak alderatu, ezaugarri komunak arabera sailkatu, zatiak osotasunarekin lotu, zatiak berrantolatu eta ikuspegi berri bat aurkeztu, irizpide jakin baten arabera sekuentziatu eta ideien eta portaeren oinarri diren arrazoiak eta ondorioak aurkitu. Kompetentzia hori garatzeak aukera emango du curriculumeko edukiak -adierazpenekoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak- menderatzeko eta barneratzeko, bai eta ekintzak, gertaerak eta teoriak aztertzeke, eta egiten eta esaten den guztia ulertzen dela erakusteko ere.

### 1.1.1.- Konparazioa

**Objektuak, egoerak, erakundeak eta argudioak konparatzea, horien ezaugarriak eta horien arteko loturak identifikatuz, zer kategoriatakoak diren zehaztuz, antzekotasunak eta desberdintasunak aurkituz, eta defendatzen den ikuspuntuari buruzko ondorio bat azalduz, ezagutza argitzeko eta sakon azaltzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Konparazioa lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderak erantzunez. Galderak hauek dira:
  - Zer antzekotasun dituzte?
  - Zer desberdintasun dituzte?
  - Zer kategoriatakoak dira ezaugarri horiek?
  - Zer antzekotasun eta desberdintasun dira esanguratsuak?
  - Zer ondorio ateratu daitezke antzekotasun eta desberdintasun esanguratsu horiekin?
- Trebetasun hori ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Konparazioa berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Konparazioaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Trebetasuna eskuratzearren erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrizkoa, erdikoa edo aurreratua; 3) erantzun ulerkorrek: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, zuzeneko laguntza handia, ez du aurrera egiten.

### 1.1.2.- Sailkapena

**Informazio guztia informazioaren ezaugarri abstraktu eta zehatzen arabera sailkatzea, informazioa multzokatzeko irizpide onena aukeratzeko eta elementu bakoitza zein motatakoa den zehaztuz, une bakoitzaren helburuen eta premien arabera ezagutza hobeto antolatzeke eta modu horretan ikastea bultzatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Sailkapena lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderak erantzunez. Galderak hauek dira:
  - Zein dira sailkatu beharrekoaren ezaugarri komunak?
  - Zer kategoriatakoak dira?
  - Zein da sailkatzeko kategoriarik onena?
  - Zertarako balio du sailkapena?
  - Zer elementu dira hautatutako kategoriatakoak?
  - Era al daitezke azpikategoriarik identifikatutako desberdintasunekin?
- Trebetasun hori ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Sailkapenak bat-batean egiten ditu hainbat inguru eta edukitan.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Sailkapenaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Gizarte inguruneetik hurbil dagoen objektuen unibertso bat nola sailkatu zen deskribatzen duen eginkizun bat egitea.
- Trebetasunaren jabetzaren erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrizkoa, erdikoa edo aurreratua; 3) erantzun ulerkorrek: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, zuzeneko laguntza handia, ez du aurrera egiten.



### 1.1.3.-Azterketa eta sintesia

**Zatia osotasunarekin lotzea, osotasuna osatzen duten elementuak eta elementu horien funtzio espezifikoak isolatuz eta osotasunari zati bat kenduz gero zer gertatuko litzatekeen galdetuz, errealitatea zehatz-mehatz aztertzeke, egindakoa, irakurritakoa edo ikasitakoa laburtzeko, inferentziak egiteko eta sormena bultzatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Azterketa eta sintesia lantzen ditu, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:
  - Zein dira aztertu beharrekoaren elementuak?
  - Zein funtzio du zati bakoitzak osotasunaren baitan?
  - Zer gertatuko litzateke zati horietako bat kenduko bagenu?
  - Zer-nolako harremana du elementu bakoitzak osotasunarekin?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Azterketa eta sintesia berez erabiltzen ditu hainbat inguru eta edukitan.
- Gaiak ulertzen dituela erakusten du, gaia osatzen duten elementuak ezagutzen baititu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Azterketaren eta sintesiaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Kasu jakin bat (adibidez, auto bat) nola aztertu eta sintetizatu zen deskribatzen duen lan bat egitea.
- Trebetasuna eskuratzearen erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrikoa, erdikoa edo aurreratu; 3) erantzun ulerkerak: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, zuzeneko laguntza handia, ez du aurrera egiten.

### 1.1.4.- Sekuentziak

**Informazioa sekuentziatzea, goranzko nahiz beheranzko progresio bat adierazten duen irizpide baten arabera ordenatuz, zenbaki edo gertaera segida bat baldintzatzen duten arauak eta horien arteko lotura eta norabidea zein diren jakiteko, bai eta etorkizuna aurretik ikusteko eta iragartzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Sekuentziak lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:
  - Zein da sekuentziaren xedea?
  - Zer sekuentzia mota da egokiena xede hori lortzeko?
  - Zer irizpide edo arau da egokiena sekuentziatu beharreko elementuetan aplikatzeko?
  - Zer-nolako lotura dago elementu bakoitzaren eta aukeratutako sekuentziaren artean?
- Trebetasun hori ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Saillapena berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Sekuentziak urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Irizpide baten arabera datu multzo bat nola sekuentziatu zen deskribatzen duen eginkizun bat egitea.
- Trebetasuna eskuratzearen erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrikoa, erdikoa edo aurreratu; 3) erantzun ulerkerak: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, zuzeneko laguntza handia, ez du aurrera egiten.

### 1.1.5.- Arrazoiak aurkitzea

**Argudioak -hau da, uste dena, egiten dena eta esaten dena- oinarritzeko erabiltzen diren arrazoiak aurkitzea eta horiek bukaerako ondorioak justifikatzen dituzten ebaluatzea, argumentuaren elementuak -arrazoiak eta ondorioak- identifikatuz, arrazoiaren adierazlerik (-e)lako, izan ere, horren ondorio... edo ondorioaren adierazlerik (beraz, horren ondorioz, hori dela eta, horregatik...) dagoen behatuz, arrazoiaren eta ondorioaren artean loturak ezarri eta horien sendotasuna, garrantzia eta nahikotasuna ebaluatuz, arrazoiak konbentzitzeko modukoak diren ala ez ziurtatzeko eta benetan igorri nahi izan den mezua argitzeke.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:
  - Zer eman nahi du aditzera informazio edo jokabide horrek?
  - Zer arrazoi dago aditzera eman nahi den informazioaren edo jokabidearen oinarrian?
  - Ba al dago hitzik arrazoiak eta ondorioak identifikatzeko?
  - Egileak bat egiten al du komunikatu nahi duen mezuekin?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Konparazioaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Gurasoen eta ikaslearen pentsatzeko modua zer arrazoiaren dagoen oinarrituta aurkitzeko prozesua deskribatzen duen lan bat egitea.
- Trebetasuna eskuratzearen erregistroa: 1) erabileraren maiztasuna: beti, batzuetan edo inoiz ez; 2) garapen maila: oinarrikoa, erdikoa edo aurreratu; 3) erantzun ulerkerak: irakaslearen laguntzarik gabe, irakaslearen laguntza gutxi, zuzeneko laguntza handia, ez du aurrera egiten..



## 1.2.- INFORMAZIOA SORTZEA: PENTSAMENDU SORTZAILEA

**Informazioa sortzea, ideia, irudi edo gauza asko denbora gutxian sortuz. Ideia, irudi eta gauza horiek kategoria askotakoak, orijinalak eta xehatuak izan behar dute, arazoak konpontzeko, edertasuna sortzeko eta norbera erreferentzia den konstruktua garatzera bultzatzeko.**

Informazioa sortzeko konpetentzia prozesu kognitiboak, aurretiko ezagutzak, nortasunaren ezaugarriak eta motibazioa konbinatzean, egokitzean eta aplikatzean datza, mota askotako ideia erabilgarri, kualifikatu eta garrantzitsu ugari sortzeko. Ideiak une hauetan sortzen dira: arazoei hainbat irtenbide proposatzean, erabakiak hartzean hainbat aukera formulatzean, gertatzen ari dena eragiten duten balizko arazoiei buruzko hipotesiak egitean eta norberaren ekintzen edo inguruan gertatzen denaren ondorioak aztertzean. Irudimen aktiboak funtzio garrantzitsua du sortzeko ekintzan, elkarrengandik urrun dauden elementuen artean ahalik eta lotura mental gehien egitea ahalbidetzen baitu; horietatik, metaforak sortu eta informazio semantikoko, episodikoko, zenbakizko, prozedurazko eta espaziozko adierazpen mental garrantzitsuak sortzen dira. Ideiak sortzeak gertatutakoa ulertzen, planteatutako egoerari erantzuna ematen, norberaren jokabideaz arduratzen eta norberaz kontzeptu positiboa eta autoestimua baliagarria izaten laguntzen du.

### 1.2.1.- Ideiak sortzea

*Mota eta ezaugarri askotako informazio orijinal eta xehatu egitea, erabilerak, anomaliak, arazoak, ondorioak, alternatibak, hipotesiak eta arazoaren konponbideak kontuan hartuta, independentziaz jokatzeko, sormena garatzeko eta norberaren estimua garatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzen duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zenbat ideia, zailtasun edo konponbide proposa daitezke?  
Taldea edo kategoria desberdinetakoak al dira?  
Gehitu al daiteke ohiz kanpoko ideia edo konponbiderik?  
Sortutako ideia, zailtasun edo konponbideetatik, zeinek ditu xehetasun gehien?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.
- Lanetan, orijinaltasunerako joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Ideiak sortzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, trebetasunaren erabilera sustatze aldera.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Sormena bultzatzen duten tekniken erabilera; adibidez, ideia jasa, «Scamper» eta ezaugarrien zerrenda.
- Sormenaren hainbat eremu balioesten dituzten galdetegiak.
- Arazo ireki baterako konponbide ugari nola sortu ziren deskribatzen duen lan bat egitea.

### 1.2.2.- Loturak egitea

*Loturak egitea, begien bistakoa zailtasun jarritz eta hainbat iturritako eta motatako informazioa alderatuz, egoera bati buruzko ikuspegiak eta ezagutza hobetzeko, bai eta gauzei buruzko erabilera berriak aurkitzeko ere.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzen duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zer lotura dira esplizituak eta implizituak aztertu beharreko egoeran?  
Zein da horietako bakoitzaren funtzioa?  
Zer beste modutan adieraz daitezke?  
Beste zer erabilera izan dezake loturetatik lortutako informazioak?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.
- Lanetan, esperientziak eta ezagutzak lotzeko joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Loturak egiteko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, trebetasunaren erabilera sustatze aldera.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Sormena bultzatzen duten tekniken erabilera; adibidez, ezaugarrien zerrenda eta erabileren aurkikuntza.
- Sormenaren hainbat eremu balioesten dituzten galdetegiak.



- «Egitea» estrategia kognitiboa erabiltzen den jakiteko galdetegi bat; estrategia hori aurretiko ezagutzen eta ezagutza berrien arteko loturan gogo oinarrituta.

### 1.2.3.- Irudiak sortzea

*Irudiak eta figurak sortzea, bistaratzea eta biratzea, aurretiko pertzepzioak konbinatuz, adimenean horren ezaugarri nagusiak irudikatuz eta horiei buruzko eredu mental bat eratuz, espazio gaitasun sortzailea garatzeko, behar-beharrezkoa baita hori hainbat eremu akademiko eta lanbidetan.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zenbat irudi adieraz, atxiki eta manipula daitezke egoera horretan?  
Ba al dago hiru dimentsioko objektuak zehaztasun eta abiadura handiz buruan biratzea eta mugimenduaren ondorioak behatzea?  
Zein dira objektu batek beste batekin dituen espazio erlazioak?
- Trebetasun hori ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.
- Lanak egitean irudikapen mentala erabiltzeko joera berezia proiektatzen du.
- Hainbat objektu fisikorekin lan egiten du, eta kontzeptu bat menderatzen duela erakusten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- irudiak sortzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, trebetasunaren erabilera sustatze aldera.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lan taldeak behatzea.
- Espazio gaitasunak (adibidez, biraketa, bistaratzea eta espazio orientazioa) balioesten dituzten galdetegiak.
- Mezu bat azaltzeko kartelak egitea.

### 1.2.4.- Metaforak sortzea

*Metaforak sortzea, berez lotuta ez dauden gauzak eta errealitateak lotuz eta eskemak eta ereduak barneratuz, gauza horiei buruzko ikuspegi berri bat emateko, alegiazko harremanak proiektatzeko eta autoestimua bultzatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zer deskribatu nahi da objektu, pertsona edo egoera bati buruz, metafora baten bidez?  
Zein dira deskribatu nahi denaren ezaugarri nagusiak?  
Ezaugarri horietako zein dira baliagarriak metafora on baterako?  
Metaforaren zein xehetasun datoz bat deskribatu nahi denarekin?  
Metafora egokia erabili al da? Zergatik?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguru eta edukitan.
- Lanetan, lotura berriak egiteko joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen dioten curriculum edukiak aukeratzea.
- Egoerak erraz asmatzeko, imajinatzeko edo aldatzeko aukera ematen duten jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, trebetasunaren erabilera sustatze aldera.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lantaldeak behatzea.
- Literatur lan bat egitea; bertan, metaforak erabiltzeaz gain, metaforen erabilera justifikatu beharko dute.

## 1.3.- INFORMAZIOAREN EBALUAZIOA: PENTSAMENDU KRITIKOA

Informazioa modu kritikoan ebaluatzea, ideien oinarri diren arrazoiak bilatuz eta norberaren jarrerak eta gaitasuna eta inferentzia trebetasunak oinarritzat hartuz, ziurtasunez arrazoi sendoetan oinarritutako informazioa bakarrik onartzeko eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko.

Informazioa ebaluatzeko kompetentzia ideien sendotasuna eta ekintzen baliagarritasuna zehatz-mehatz ikertzea da, gero informazioa ontzat hartzeko ala baztertzeko. Ebaluazioak baldintza hauek



behar ditu: a) pentsamendu kritikoaren zenbait trebetasun abian jartzea; adibidez, informazio iturria fidagarria den ala ez ikertzea, gertatzen denaren arrazoiak interpretatzea, balizko ondorioak aurretik esatea, emaitzak orokortzea, arazoei buruz analogikoki arrazoitzea eta aurretik formulatutako premisetan oinarritutako ondorioak ateratzea; b) kanpo irizpide objektiboak eta adituen iritzia erabiltzea; batez ere, gaiari buruz ezer asko ez badakigu; c) argudio baten alde onak eta txarrak aztertzean, jarrera mental irekia, malgua, zintzoa eta hausnarketan oinarritutako bizitza estiloa izatea, eta, egindakoarekin lotutako proba berriak agertzean, aldaketarako jarrera irekia izatea. Trebetasun horiek guztiek printzipio komun hau dute: judizio bat onartu aurretik, ziur egon behar da judizioa arrazoi onetan oinarrituta dagoela; bestela, ez da onartu behar. Konpetentzia hori funtsezkoa da informazio berria inferitzeko, funtzio pertsonalak eta profesionalak behar bezala betetzeko eta helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lortzeko.

### 1.3.1.- Iturrien ikerketa

**Informazioaren iturria ikertzea, jakin nahi dena zehatz erabiliz, bilaketa bideratzeko giltzarriak diren faktoreen zerrenda bat garatuz (egileak, data, hedabideak, argitalpena, joerak...) eta lortutako emaitzei buruzko ondorio bat formulatuz, informazio hori aztertzeke eta norberaren irizpideetan oinarrituta lan egiteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzen duenean egiten dituen galderari erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zer informazio iturri ebaluatzen ari gara?  
Egileei, datari, hedabideei, argitalpenari, orientazio ideologikoari eta abarri dagokienez, fidagarria al da iturri hori?  
Zer fidagarritasun du egindako ikerketaren oinarri den iturriak?  
Ba al dago iritzi bereko beste pertsonarik?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat motatako informazioarekin.
- Lanetan, gainerakoek ideiak zertan oinarritzen diren jakiteko joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Iturriak ikertzeke prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, jasotako informazioaren jatorriaren eta gainerakoek iritzien sakoneko interpretazioa sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lan taldeak behatzea.
- Lan bat egitea, historiaren aldi jakin baten joera ideologikoak ikertzeke.

### 1.3.2.- Arrazoiaren interpretazioa

**Gauzak, gertaerak eta jokabideak interpretatzea, horien balizko arrazoiaren gaineko ideiak sortuz, horietako zein gerta daitezkeen jakiteko datu frogagarriak kontuan hartuz eta ikertutako errealitateari buruz hausnarketa bat idatziz, gainerakoek gertaerak eta jokabideak hobeto ezagutzeko, nahi ez diren ondorioak prebenitzeko, lortu nahi diren ondorioak hobetzeko eta ondorio kaltegarriak saihesteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Arrazoiaren interpretazioa lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzen duenean egiten dituen galderari erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zein dira gertaera horren arrazoiak?  
Zer datutan oinarritzen dira arrazoi horiek?  
Zer datu ditugu eta zein eskuratu behar ditugu?  
Zein da daturik garrantzitsuenak?  
Zer judizio egin daiteke gertaera eragin duen arrazoi nagusiari buruz?
- Trebetasun horrek ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat arazo eta egoeratan.
- Lanetan, gertaera guztien arrazoiak zein diren jakiteko joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Iturriak ikertzeke prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, ikergai den egoeran eragina duten aldagaien sakoneko interpretazioa sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Eskolako, familiako, komunitateko edo nazioko egoera bat proposatzea, eta, gero, horren arrazoiak aurkitzea.



### 1.3.3.- Ondorioak iragartzea (hipotesiak eginez arrazoitzea)

**Emitza orokorrak eta zehatzak aurretik esatea, hipotesi bat proposatuz, hipotesitik ondorioak ateraz eta ondorioak egiaztatuz, fenomeno bat azaltzeko edo arazo baten konponbidea ikertzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zer informazioak egiaztatzen du egindako iragarpena?  
Zer hipotesi proposa daitezke arazoa azaltzeko edo konpontzeko?  
Datuetan oinarrituta, zer aukera dago iragarpena betetzeko: handia, oso txikia edo ezin da zehaztu?  
Nola egiaztatzea daiteke iragarpena bete egingo dela?  
Zer ondorio eragingo ditu?  
Nola azaltzen edo konpontzen dute ondorioek planteatutako arazoa?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat ingurune eta eginkizunetan.
- Lanetan, norberaren eta gainerakoek jokabide nagusien ondorioak zein diren jakiteko joera berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Ondorioak aurretik esateko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, aurreikuspenak egitea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Benetako egoerak, bideoak eta abar ikertzea, norberaren, taldearen eta abarren jokabidearen ondorioak aztertu ahal izateko.
- Denboraren lerroak egitea, historiako gertaera garrantzitsuenen ondorioak aztertzea.

### 1.3.4.- Arrazoiketa analogikoa

**Bi arazo zehatzei buruzko arrazoiketa analogikoa egitea, arazoek dituzten antzeko alderdi esanguratsuak -elementuak, prozedurak, argudioak, xedek...- behatuz, antzekotasunak oinarri den analogotik xede den analogora transferituz -betiere, xede den analogoa ulertzea oztopatuko duen desberdintasun garrantzitsurik dagoen egiaztatu ondoren- eta analogiaren amaieran lortutako konponbideari buruz ondorio bat ateraz. Modu horretan, arazoak konpontzeaz gain, sormena sustatzen da, eta ikaskuntza hobeto ulertzera bultzatzen da.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Arrazoiketa analogikoak lantzen ditu, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zer gauza dira ulertu edo konpondu nahi den objektu edo ideien antzekoak?  
Zer antzekotasun dira esanguratsuak?  
Ba al dago xede egoera ulertzeko eragina izan dezakeen desberdintasunik oinarri eta xede egoeren artean?  
Zer ondorio atera daiteke arazoa ulertzeari edo konpontzeari dagokienez?
- Trebetasun horrek ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du eduki zail bat ulertzeko edo arazo ireki bat konpontzeko beharra duenean.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Arrazoiketa analogikoaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, arazoak aztertze eta konpontzeko analogiak erabiltzea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten lan taldeak behatzea.
- Testak, analogikoki arrazoitze gaitasuna ebaluatze.
- Ikasleen artean bi gauza edo egoera alderatzea, benetan analogoak diren eta judizio bat jasan dezaketen jakiteko.

### 1.3.5.- Dedukziozko arrazoiketa iragankorra

**">,<," ikurren bidez ordenatutako hiru terminoko silogismo lineal edo iragankorretan oinarritutako problemak konpontzea, argudioaren egitura identifikatuz (bi premisa, hiru elementu eta bi premisen termino komuna) eta irudikatuz, arau sistema bat aplikatuz eta horren baliagarritasuna ebaluatuz -premissa berekoak ez diren bi elementu benetan lotzen diren-, prozesu kognitiboak menderatzen direla erakusteko eta harremanak transferitzeko ezinbestekoa den informazioa bilatzen ikasteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Dedukziozko arrazoiketa iragankorra lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zein da argudioaren egitura?  
Zer-nolako harremana dago argudioa osatzen duten hiru elementuen artean?  
Zein elementu ematen du iragankortasuna egiteko aukera?  
Zer-nolako lotura dute ondoko ondokoak ez diren bi elementuek?  
Zer ondoriotara iritsi da?
- Trebetasun hori ikaskuntzan, eguneroko bizitzan eta lanbidean garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du egoeren arteko lotura inferitu behar denean, egoera bakoitzak harreman komunarekin duen loturaren arabera.
- Baieztapenak zeinuen eta ikurren bidez kodetzen ditu, bai ahaz, bai zenbakiz, bai grafikoki.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Arrazoiketa iragankorren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Arrazoiketa horren berezko ikurrak (>,<,) erabiltzeko eta informazioa kodetzeko eta deskodetzeko lanak proposatzea.



## 1.4.- ERABAKIAK HARTZEA

**Erabaki eraginkorrak hartzea, prozesuaren urrats egokiei jarraituz eta urratsak arautuz, aukera zehatzak egiteko egoeretan adimenez eta zentzuz jokatzeko.**

Norberaren edo taldearen erabakiak hartzeko konpetentzia giza pentsamenduaren prozesu zailetakoa da, prozesua gauzatzeko urrats hauek eman behar baitira: hartu beharreko erabakia planteatu, erabaki hori beharrezko egiten duten arrazoiak zehaztuz eta adimenean prozesu osoa irudikatuz; xedeak zehaztu, lortu nahi dena argi eta garbi definituz; lortu nahi den helburura iristeko alternatibak edo ekintzak sortu; alternatiba horiek ebaluatu, alternatiba bakoitzaren alde onak eta txarrak eta izan ditzakeen ondorioak, onuragarriak zein kaltegarriak, aztertuz; alternatiba onena aukeratu -hau da, emaitza orokor eraginkorrena aurreikusten duena-; eta prozesua eta azken emaitzak balioetsi. Horrez gain, erabakietan eragiten duten faktoreak aztertu behar dira (erabakiarekin lotutakoak -ziurgabetasuna, zailtasun maila, eskura dagoen informazio garrantzitsua eta denboraren presioa-, erabakitzen duen subjektuarekin lotutakoak -prozesua arautzeko eta informazioa, motibazioa eta sentipenak aztertzeko gaitasuna- eta erabakiaren inguruarenak -gizarte presioa, bai eta beste pertsona batzuen edo laneko presioa ere-), eta ulermenean oinarritutako pentsamenduarekin, pentsamendu sortzailearekin eta pentsamendu kritikoarekin lotutako trebetasunak erabili behar dira. Konpetentziaren helburua erabaki koherenteak eta zuzenak hartzeko judizio baliagarriak garatzea da.

### 1.4.1.- Norberaren erabakiak

*Egoera zailetan nork bere erabakiak hartzea, erabakiak hartzea zergatik den beharrezkoa zehaztuz, alternatibak proposatuz, horren ondorioak kontuan hartuz eta lortu nahi den helburua betetzea ziurtatzen duen erabakia aukeratzuz, egoera esanguratsuetan objektibotasunez eta zuzen jokatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zergatik hartu behar da erabaki bat?  
Zer alternatiba formula daitezke?  
Zein dira alternatiba bakoitzaren ondorioak?  
Garrantzitsuak al dira ondorio horiek?  
Ondorioak kontuan hartuta, zein da erabakirik egokiena?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat ingurune eta edukitan.
- Lanetan, jasotako informazioan dauden erabakiak aztertzeko joera berezia proiektatzen du.
- Hartu nahi den erabakia buruz informazio garrantzitsu ugari biltzen du.
- Erabakiarekin lotutako arazoei erantzuteko alternatibak pentsatzen ditu.
- Hartu beharreko erabakiaren alde onak eta txarrak ulertzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzeko.
- Erabakiak hartzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, erabaki arduratsuak eta egokiak hartzea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Gurasoei eta ikasleek elkarrizketa egitea, ikasleek erabaki pertsonalean zentzuzko parte hartzen duten jakiteko.
- Elkarrizketa pertsonala, bokaziozko erabakia balioesteko.

### 1.4.2.- Talde erabakiak

*Taldearen erabakietan parte hartzea, prozesuan une oro parte hartuz, hartutako arauak eta teknikak errespetatuz, denon onerako eta eraginkortasun kolektiboaren alde lan egiteko eta baliagarri eta errealizatuta sentitzea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zergatik da beharrezkoa talde erabaki hori hartzea?  
Zer alternatiba formula daitezke?  
Zein dira alternatiba bakoitzaren ondorioak?  
Garrantzitsuak al dira ondorio horiek?

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzeko.
- Erabakiak hartzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, erabaki arduratsuak eta egokiak hartzea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten talde lana behatzea.





Zer aukera da onena, ondorioak kontuan hartuta?

Zer-nolako konpromisoa du taldekide bakoitzak hartutako erabakiarekin?

- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna bat-batean erabiltzen du hainbat inguruetan: eskolan, familian eta lagunen artean.
- Erabakian gehien eragiten duten faktoreak (zereginarekin, subjektuarekin eta ingurunearekin lotutakoak) aztertzen ditu.
- Taldeko erabakietan asertibitatez parte hartzen du.

- Erabakia hartzeraz bultzatzen duten egoerak (norberaren, familiaren eta gizarte egoeretatik gertukoak) planteatzea.
- Idatzizko lan bat egitea; bertan, pertsonaia historiko batek edo gaur egungo politikari batek hartutako erabakia ebaluatu behar da.

## 1.5.- ARAZOAK KONPONTZEA

**Arazoak eraginkortasunez konpontzea, ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendu sortzailearen eta pentsamendu kritikoaren trebetasunak erabiliz eta goi mailako prozesu horrek behar dituen aldiak urratsez urrats jarraituz, garrantzi eta eragin handiko zein txikiko zailtasunei aurre egiteko eta pentsamenduaren jarduera guztiak integratzeko.**

Taldean edo nork bere kabuz arazoak konpontzeko kompetentzia prozesu kognitiboa da, eta, gainera, erabakiak hartzeko prozesua baino konplexuagoa; izan ere, konponbide egokiena aukeratzeaz gain, konponbidearen eraginkortasuna ere egiaztatu behar da. Arazoak konpontzeko, pentsamendu konbergentearen eta dibergentearen trebetasunen aldiak erabili behar dira: egoera gatazkatsua identifikatzea; arazoa ahalik eta zehatzen definitzea; konponbide bat baino gehiago sortzea; proposatutako konponbideak ebaluatzea, horien ondorioei buruz pentsatuz; konponbide onena aukeratzea, konponbidea gauzatzeko dauden aukerak kontuan hartuta; eta, azkenik, aukeratutako konponbidea ezartzea, horri buruzko plan bat eginez eta interesdunak konponbide hori onena dela konbentzitzen. Horrez gain, ezinbestekoa da jakitea zer baliabide eta zer oztopo sor daitezkeen konponbide hori gauzatzeko gero. Erabakiak hartzen dakien pertsona izatea garrantzitsua da gatazkak gainditzeko eta helburu pertsonalak eta sozialak lortzeko.

### 1.5.1.- Nork bere arazoak konpontzea

*Nork bere kabuz arazoak aurkitzea eta konpontzea, egoera gatazkatsu hori zergatik dagoen aztertuz, konpontzea merezi duen erabakiz, zehatz definituz, informazio osagarria bilatuz, konponbideak proposatuz, konponbideak nola gauzatu planifikatuz eta lorpenak ebaluatuz, eragozpenak argitzea, inguruneari egokitzeko eta zailtasunen aurrean eraginkorra izateko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zergatik dago arazoa?  
Komeni al da konpontzea?  
Funtsean, zertan datza arazoa?  
Zein dira konponbideak?  
Zein dira konponbide bakoitzaren ondorioak, konponbide horiek onartuz gero?  
Aurreko informazioaren arabera, zein da konponbiderik onena?  
Zer plani jarraitu behar zaio aukeratutako konponbidea gauzatzeko?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du, arazo bat konpontzeko prozesuaren urratsak hainbat ingurune eta edukitan aplikatuz.
- Lanetan, arazo irekiak konpontzeko aparteko interesa proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Arazoak konpontzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- rakasleen instrukzioen formulazioa, arazo pertsonalak konpontzeko arduratsua eta egokiak izatea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Taldean gaur egungo arazo interesgarri eta kezkarri buruz pentsatzeko jarduerak egitea: nola definitzen dituzten, konponbideak nola proposatzen dituzten eta konponbiderik onenari buruzko judizioak nola ematen dituzten.



### 1.5.2.- Arazoak taldean konpontzea

*Arazoak taldean aurkitzea eta konpontzea, arazoa konpontzeko prozesuaren aldi guztietan parte hartuz, konponbideen ondorioak kontuan hartuz eta onartutako plana gauzatzeko konpromisoa hartuz, gizarteak aurrera egin dezan eta gizarte kideen arteko bizikidetzak hobea dadin sustatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Trebetasuna lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zergatik dago arazoa?  
Komeni al da konpontzea?  
Funtsean, zertan datza arazoa?  
Zein dira konponbideak?  
Zein dira konponbide bakoitzaren ondorioak, konponbide horiek onartuz gero?  
Aurreko informazioaren arabera, zein da konponbiderik onena?  
Zer plani jarraitu behar zaio aukeratutako konponbidea gauzatzeko?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Arazoak konpontzeko prozesuaren urratsak beste pertsona batzuk dauden egoera gatazkatsuetan aplikatzen ditu.
- Arazo zailak konpontzean, adimen irekia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Erabakiak hartzeko prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, arazo pertsonalak konpontzeko arduratsua eta egokiak izatea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Benetako egoera gatazkatsua balioestea, ikasleek arazoak konpontzeko ikasitako estrategiak nola erabiltzen dituzten jakiteko.

## 1.6.- BALIABIDE KOGNITIBOEN ERABILERA

**Baliabide kognitiboak erabiltzea (adibidez, metakognizioa, jokabidearen erregulazioa, jokabide estrategikoa eta ikasitakoaren transferentzia), ulermenean oinarritutako pentsamenduaren, pentsamendua kritikoaren eta pentsamendu sortzailearen trebetasunak eta erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko prozesuak erabiliz, pentsamenduari berari buruz hausnartzeko, jokabidea behar bezala gidatzeko eta ikaskuntza orokortzeko.**

Baliabide kognitiboak erabiltzeko konpetentzia pentsamendurako eta ikaskuntza prozesurako ezinbestekoak diren gaitasunez osatuta dago. Metakognizioa edo pentsamenduaren beraren ezagutza handitu egiten dira, zer prozesu mota egin den identifikatuz, prozesu hori nola egin den aztertuz, emandako urratsak bereiziz, behar bezala lan egin den ebaluatuz eta gerora erabiltzeko hobekuntzak kontuan hartuz. Ikaskuntzarekin lotutako jokabideak erregulatzen dira, jarduera egin aurretik planifikatuz, plan hori betetzen den monitorizatuz eta lortutakoa ebaluatuz, bai eta erroreak, transferentziak eta aldaketa proposamenak ere. Estrategikoki jokatzen da, informazioa barneratzeko, sortzeko eta balioesteko prozesuetan ikasteko modurik onena aukeratuz. Eta, azkenik, ikasitakoaren transferentzia -ikaskuntzaren giltzarri den elementua- lortzen da, hainbat egoeratan ikasitakoaren transferentziako adibideak emanez eta hainbat inguruetan erabiliz. Lau eremu horiek giza ahalmen kognitiboa bermatzeko dira, bai eta ikaskuntza prozesua errazago egiteko eta ikaslea bere judizioekin eta jokabideekin gero eta arduratsuago izateko ere.

### 1.6.1.- Metakognizioa

*Ikasteko, arrazoitzeko, sortzeko, erabakitze, jokatze eta sentitzeko moduari buruz hausnartzea, erabiltako pentsamendua zein izan den identifikatuz, prozesu horretan emandako urratsak aztertuz eta etorkizuneko ekintzetarako aldaketak proposatuz, mekanismo kognitiboan gainean kontrol handiagoa egiteko eta egiten denaz eta egiteko moduez kontziente izateko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Metakognizioa lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.



Zer pentsamendu mota erabili da edo erabiltzen ari da une honetan?

Zer urrats dira garrantzitsuenak?

Jokabide hori ona al da?

Zer egin daiteke baliabide kognitibo hori hobetzeko?

- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat inguruetan eta edukitan.
- Badaki nola pentsatzen duen, zertan asmatu duen eta mugak non dituen.
- Lan edo egoera bakoitzean zer trebetasun edo estrategia den egokiena bereizten du.
- Lan batean erabilitako prozesu kognitiboak deskribatzen ditu.

- Metakognizioaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, metakognizio arduratsua eta egokia sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Nork bere burua ezagutzen duen jakiteko galdetegi kualitatiboak.
- Prozesu kognitiboaren eta sentipenezko funtzionamendu pertsonalari buruzko ahozko edo idatzizko adierazpenak sustatzea.
- Elkarrizketa pertsonalak planifikatzea, elkarrizketatuaren adimenak funtzionatzeko moduari buruz norberak duen ezagutza behatzeko.
- Gai edo unitate didaktiko batean erabilitako prozesu kognitiboak komunetan jartzea behatzea.

### 1.6.2.- Autoerregulazioa

*Ikaskuntza eta jokabidea erregulatzea, egin beharrekoa planifikatuz, hori nola gauzaten den monitorizatuz eta emaitzak ebaluatuz, pentsamenduaren beraren eragin eremua zabaltzeko eta modu sistematikoagoan, zehatzagoan eta arduratsuegi lan egiteko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Autoerregulazioa lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duen egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zein da plangintza egokiena lan horretarako (helburuak, estrategiak, zailtasunak...)?  
Ekintzak gauzatu bitartean monitorizatzen al dira? Hori egiteko moduak: une oro zer egiten den aztertzea, aurrerapena behatzea, denbora eta ahalegina koordinatzea, motibazioari eustea...  
Ebaluatzen al dira emaitzak: lorpenak, erroreak, transferentzia...?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du eskolako zereginetan eta eguneroko bizitzan.
- Estrategia pertsonalaren bidez, mugitzeko eta pentsatzeko inpulsiotasuna menderatzen du.
- Baliabide kognitiboak kudeatzen ditu, egiten den guztiaren eraginkortasuna hobetzeko.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Jokabidea erregulatzearen prozesuaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, jokabidea erregulatzearen arduraz eta zuzen jokatzeko delako sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Erregulazioaren aldi buruzko galdetegi kualitatiboak.
- Prozesu kognitiboaren eta sentipenezko funtzionamendu pertsonalari buruzko ahozko edo idatzizko adierazpenak sustatzea.
- Lan bat egitea, jokabidearen erregulazioaren hiru aldiak (aurretik, bitartean eta gero) esplizituki ikusteko.
- Ikasle bakoitzaren jokabidearen erregulazio mailari buruzko erregistroak.

### 1.6.3.- Ikasteko estrategiak

*Estrategikoki jokatzeko, jarduerak garatzean erabilitako prozedura egokiak erabiliz (esate baterako, memorizazioa -informazioa erabat berria denean-, ezagutza berriaren eta aurretiko ezagutzen arteko loturak egitea eta informazioa irizpide pertsonalen arabera antolatzea), baliabide nemoteknikoak, antolatzaile grafikoak, kontzeptu mapak, eskemak, laburpenak eta abar erabiliz, berezko lan estiloa garatzeko, nola egin, nondik hasi eta zer prozesuri jarraitu jakin dezagun.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Ikasteko estrategiak lantzen ditu, giza adimenak gaitasun hori praktikatzeko duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Zein da estrategia egokiena lan hori egiteko?  
Etengabe berrikusten al dira lortutako ikaskuntzak?  
Alderatzen al dira informazio berria eta aurretiko informazioa?  
Informazio berria irizpide pertsonalen arabera antolatzen al da?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du hainbat ingurune eta edukitan.
- Laneko memoria eta iraupen handiko memoria erabiltzen ditu, jarduerak bakoitzean behar duen informazioa erraz lortzeko estrategiak erabiliz.
- Lanetan, akademikoki estrategikoa izateko interes berezia proiektatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Ikasteko estrategien urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, ikaskuntza prozesuan jokabide estrategikoa sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Ikasleak estrategia motei buruz duen ezagutza zenbatekoa den jakiteko galdetegi kualitatiboak.
- Eztabaidetan parte hartzea, ikasleak gai bat azaltzeko, ideia bati buruz eztabaidatzeko edo gertaera batzuk gogorarazteko.



#### 1.6.4.- Transferentzia

*Ezagutza eta gaitasunak transferitzea, arlo jakin batean ikasitakoa hainbat egoeratan eta premiatan erabiliz (gai berekoak, ezagutzaren beste arlo batekoak edo eskolaz kanpoko jardueretakoak), ikaskuntza lortu dela erakusteko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Transferentzia lantzen du, giza adimenak gaitasun hori praktikatzan duenean egiten dituen galderei erantzunez. Galderak hauek dira:  
Lortutako ikaskuntzatik zer alderdi transferi daitezke?  
Nola erabil daiteke ikaskuntza hori beste egoera batzuetan?  
Zein da ikaskuntza horren erabilerarik garrantzitsuena?
- Trebetasun hori ikaskuntzarako, eguneroko bizitzarako eta lanbiderako garrantzitsua dela adierazten du.
- Trebetasuna berez erabiltzen du gai berean, beste gai batzuetan eta eguneroko bizitzan.
- Lanetan, ikasten duen guztiaren zentzu praktikorako interes berezia proiektatzen du.
- Badaki ikasitakoa egoera gatazkatsuetan erabiltzen.

##### Ebaluaziorako orientazioak


- Trebetasun hori garatzen laguntzen duten curriculum edukiak aukeratzea.
- Transferentziaren urratsen bat edo guztiak nabarmentzeko jarduerak diseinatzea.
- Irakasleen instrukzioen formulazioa, ikasitakoa egoera berrietan erabiltzea sustatzeko.
- Trebetasunaren garrantzia aztertzen duten taldeen lana behatzea.
- Ikasitakoa beste egoera batzuetan erabiltzeko moduari buruzko ahozko edo idatzizko adierazpena sustatzea.
- Talde jarduerak egitea, ikasitakoa beste egoera batzuetara nola transferitzen den azaltzen duten adibideak lantzeko.



## 2.- KOMUNIKATZEN IKASI

Komunikazioa giza harremanen oinarria da. Gizartea komunikazio elementu indibidualak eta kolektiboak uztartzen dituen eremu askotako makro-erakunde komunikatiboa besterik ez da. Komunikazioa gizarteak funtzionatzeko duen baliabide kognitibo eta espresibo nagusia da: kognitiboa, munduaren ezagutza ahalbidetzen duelako, eta, espresiboa, ezagutzak partekatzea ahalbidetzen duen baliabidea delako. Funtsean, irakaskuntza-ikaskuntzako hezkuntza prozesua komunikatiboa eta interaktiboa da.

Gizakiak komunikatzen eta bizitzen, bere kulturaren barruan izaten, ikasi behar du. Kultura eta komunikazioa gizabanakoaren eta gizartearen eremuak erreferentziatzen hartzen dituzten paradigmak dira. Komunikazioa eta kultura ikaskuntza prozesuen emaitzak dira, eta gizakiek hainbat inguruetan garatzen dituzte prozesuak: familian, eskolan, hedabideetan, eta bizitzako une guztietan. Eta hori egiteko, hizkuntza naturaletako hitzezko hizkuntza (ahozkoa edo idatzizkoa), hizkuntza artistikoak (gorputzaren bidezkoa, musikaren bidezkoa, plastikoa...) edo matematikaren hizkuntza erabiltzen dituzte. Hizkuntza horiek guztiak modu integratuan erabiltzen dira, egungo bizitzan eragin handia duten bitartekoen eta euskarrien bidez; esate baterako, gizarte hedabideen edo teknologia berrien bidez.



Zalantzarik gabe, hitzezko hizkuntza, ahozkoa nahiz idatzia, giza komunikaziorako baliabide nagusia da, komunikatzeko gainerako moduen bitarteko handiagoa edo txikiagoa baita. XXI. mendeko euskal gizartean, hitzen bidez komunikatzeko ez da nahikoa ama hizkuntzan behar bezalako konpetentzia edukitzea, ez eta konpetentzia elebidun orekatua eskura izatea ere; ezinbestekoa da hizkuntza baliabide eleanitzak izatea; hau da, euskara bere hizkuntza eremuaren lehenengo hizkuntza nagusitzat hartuta, gaur egungo egoera konplexuari malgutasunez erantzuteko aukera izatea.



Bestalde, orain dela gutxi arte, alfabetazioa irakurtzearekin eta idaztearekin lotzen zen, alfabetatua irakurtzen eta idazten zekiena baitzen. Eta alfabetatuta egotea ezinbestekoa zen eskubide osoko herritarra izateko. Hala ere, gaur egun, multimedia gizartean bizi gara, eta hizkuntzen integrazioak komunikatzeko modu berriak eta indartsuak sortzen ditu. Gaur egun, gizartean bene-benetan parte hartzeko, komunikazioan alfabetatuta egon behar dugu, zentzurik zabalenean, hitzeko hizkuntzaren hainbat adierazpenetan ez ezik, ikus-entzunezko hizkuntzetarako eta hitzik gabeko hizkuntzetan ere konpetentzia izan behar baitugu: musika ulertzeko eta musikaren bidez adierazteko, dantzaren eta dramatizazioaren bidezko gorputz adierazpenerako, adierazpen plastikorako, ikus adierazpenerako, zenbakizko adierazpen eta ulermenerako... Horrez gain, ezinbestekoa da ikus-entzunezko hedabideen eta Informazio eta Komunikazio Teknologien bidez ulertzeko eta adierazteko konpetentzia izatea.

Euskal Herria Informazio Gizartean aurrera doa. Komunikazio mediatikoak eta kultur industriren ekoizpenak gero eta garrantzi handiagoa dute Euskal Herriko gizarte bizitzaren hainbat eremu eratzean. Kultura, politika, identitatea, ekonomia eta kontsumoa, neurri handi batean, horien inguruan antolatzen diren espazioak dira. Informazio, propaganda, publizitate eta kultur edukien etengabeko fluxuaren erdian bizi gara, eta horietaz baliatzen gara gure aisia eta harremanak antolatzeko. Kultur ekoizpenaren eta ekoizpen mediatikoan oinarrituta, gure identitateak -gizabanakoarena, taldearena- eta gure ideologiak eraikitzen ditugu, besteak beste. Euskal Herria, kulturalki eta politikoki, bai eta geografikoki ere, kultur industriren eta hedabideen bidez eraikitzen eta transmititzen den errealitatea da gaur egun.

Komunikazio modu horiek guztiak modu jakin batean ekoizten eta hedatzen dira, gero eta modu industrialagoan, merkantilistagoan eta orokorragoan. Globalizazioaren egungo garaian, izateko bi modu daude, eta biak ezinbestekoak dira gure herri txikiarentzat eta, batez ere, euskararentzat. Bata berezko kultura eta komunikazioa berezko hizkuntzan ekoizteko eta transmititzeko gaitasunarekin -baliabideak, ezagutzak...- lotuta dago; bestea, hainbat baliabideren bidez eta beste hizkuntza batzuetan iristen zaigun informazioa deskodetzeko eta interpretatzeko gaitasunean oinarrituta dago. Egoera konplexu hori behar bezala kudeatzeko -azken batean, behar bezala komunikatzeko-, ez da nahikoa komunikazio moduak ezagutzea, ez eta hainbat hizkuntza natural, hizkuntz mota eta baliabideak ulertzea eta haien bidez adieraztea ere; horrez gain, inguruan dugun errealitate mediatikoaren eta linguistikoaren aurrean kontzientzia soziokomunikatiboa eratu behar dugu, egoera bakoitza eta jasotako mezu bakoitza kritikoki balioesteko eta erabaki autonomoak hartzeko eza gutzen ditugun hizkuntzak, hedabideak eta teknologia berriak erantzukizunez erabil ditzagun.



## 2.1.- AHOZKO HIZKUNTZA

**Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen adierazpena eraikitzean, ahozko hizkuntza jariatortasunez, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta ahozko komunikazioaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko aukera izateko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeke.**

Ahozko komunikazioa menderatzea lehentasunezko konpetentzia da gizakiaren garapenean; batez ere, gizarte trebetasunetan. Hitz egiten -eta entzuten- jakiteak esan nahi du hizkuntza erabiltzeko konpetentzia dugula continuum batean, eta prozesu horretan komunikazio modu asko sartzen dira: bai ahozko komunikazio ohikoenak, informalak eta bat-batekoak, erabilgarritasuna edo bizikidetzeta helburu dutenak, bai erabilera gero eta landuagoak eta formalagoak behar dituzten komunikazio egoerak, eremu akademikoari edo profesionalari lotuta daudenak.

Ahozko bi diskurtso mota bereizten ditugu. Lehenik eta behin, askok kudeatutako diskurtso, interaktiboa dago, komunean eraikia etengabeko negoziazio prozesu baten bidez. Diskurtso mota horretan, bi konpetentzia mota sartzen dira. Batetik, egoera informaletan behar bezalako elkarrizketak izateko konpetentziak daude, eta horiek bigarren hizkuntzetan bereziki hartu behar dira kon-tuan. Bestetik, egoera formalekin -akademikoekin eta profesionalekin- lotutako konpetentziak daude; adibidez, lan komun batean lankidetzan jarduteko elkarrizketa eta norberaren ideiak argudiatzeko, mintzakidea konbentzitzeko edo adostasuna lortzeko eztabaida.

Bigarrenik, bakar batek kudeatutako diskurtsoa dago, diskurtso idatziaren ezaugarrietatik gertu eta formaltasun maila handikoa. Hona hemen diskurtso mota horrekin lotutako konpetentziak: adi entzutea eta informazio garrantzitsuari buruzko oharrak hartzea; aurretik planifikatutako testu monologatuak ekoiztea; eta, beste hizkuntza batzuk baliatuta (ikus-entzunezkoak edo digitalak), testu horiek jendearen aurrean aurkeztea.

### 2.1.1. Elkarrizketa informala

*Egoera informaletan jariatortasunez, bat-batean eta egoki mintzatzea, gainerakoenganako errespetua erakutsiz eta elkarrizketaren arau sozio-komunikatiboak errespetatuz, pertsonen arteko komunikazio ona garatzeko eta horretaz gozatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Elkarrizketetan modu aktiboan parte hartzen du, eta mintzakideenganako errespetua eta adeitasuna erakusten du.
- Argi, jariatortasunez eta eraginkor mintzatzen da, egoerari dagokion erregistro egokiarekin.
- Adierazpen baliabide ugari eta berezko kultur erreferentziak erabiltzen ditu, hizkuntzaren sentipen eta jolas funtzioei erantzuteko (umorea, ironia, afektibitatea...).

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Rol jokoen, sketchen eta abarren bidez eguneroko bizitzako egoerak antzeztea edo dramatizatzea.
- Ikasgelatik kanpoko egoeretan behatzea: jolastokian, jangelan, irtenaldietan eta txangoetan...

### 2.1.2. Lankidetzan lan egiteko elkarreragina

*Ohiko inguruko hainbat egoeratan eta eginkizunetan lankidetzan lan egiteko behar bezala mintzatzea, elkarreragin komunikatiboan modu aktiboan eta behar bezala parte hartuz, arau sozio-komunikatiboak errespetatuz eta gainerakoenganako errespetua adieraziz.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Gainerakoei laguntzen die eta lan kolektiboetan beste batzuekin partekatzen du erantzukizuna, lan bat egiteko edo arazo bat konpontzeko.
- Taldeko gainerako kideekin jarrera irekia eta begirunetsua du, eta diskriminazioak saihesten ditu.
- Berez parte hartzen du, gaiari ekarpenak egiteko.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- -Ikasgelan taldean lan egiten dutenean behatzea.



- Gainerakoek ekarpenak onartzen ditu, eta erabakiak hartzean adostasuna bilatzen du.
- Argi eta jariakortasunez eta egoera bakoitzari dagokion erregistro egokiaz hitz egiten du.
- Elkarriketaren arau sozio-komunikatiboak behar bezala erabiltzen ditu (hitza hartzeko txandak, adeitasuna, ahotsaren tonua eta bolumena...).

### 2.1.3. Ahozko argudioak

**Bere iritzia eta ideiak argi azaltzea, justifikatzea eta argudiatzea, eztabaidetan modu aktiboan eta egokian parte hartuz eta eztabaidaren arau sozio-komunikatiboak errespetatuz, ezagutzari buruzko ikuspuntu pertsonalak garatzeko eta gainerakoekin alderatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Bere ikuspuntua arrazoituz jakinarazten du, eta besteen argudioak gezurtatuz defendatzen ditu.
- Esandakoari buruzko galdera zehatzei erantzuten die.
- Gainerakoek ekarpenak egitean, galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu.
- Ikuspuntu desberdinak alderatu eta bere ikuspuntua berrikustea onartzen du.
- Zentzuzko ondorioetara iristen da.
- Mezuan esplizituak ez diren elementuak inferitzen ditu: hizlariaren jarrera, diskurtsoaren tonua, umoreko elementuak, ironia, zentzu bikoitza...
- Arretaz entzuten du, eta gainerakoek txandak errespetatzen ditu.
- Eztabaidaren kudeaketan bere burua menderatzeko kontrol egokia erakusten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasgelako eztabaidetan behatzea.
- Gai eztabaidagarri bat proposatzea, ikasleak bere ikuspuntua argudiatzeko, irakaslearekin hitz eginez.

### 2.1.4. Arretaz entzutea

**Hainbat motatako testuak eta eskolako edo hedabideetako gaiak arretaz entzutea, ideia nagusiak identifikatzea eta entzuketaren helbururako garrantzitsua den informazioari buruzko oharrik hartzea, informazioa erregistratzeko egokiena den baliabide egokiena hautatuz eta erabiliz.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Aktiboki entzuteko jarrera adierazten du, hitzik gabeko erantzunak emanez edo galdera laburrak eginez.
- Gaia eta hizlariaren komunikazio asmoa inferitzen ditu.
- Helburua betetzeko egokiak diren informazio zehatzak identifikatzen ditu.
- Eskatutako informazioak inferitzen ditu.
- Oharrak hartzen ditu, ideia nagusiak eta xehetasunak bereiziz.
- Entzuteko prozesuan informazioa erregistratzeko hainbat baliabide erabiltzen ditu (oharrak, taulak, grafikoak, galdetegiak...).
- Testuaren egitura eta ideien hierarkia adierazten duten eskema edo laburpena egiten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Irakasleak arloko gaiak azaltzen dituen egoeretan ikaslearen jarrera behatzea.
- Entzuteko prozesuan ikasleek hartutako ohar eta erregistro idatziak jasotzea eta balioestea.
- Entzundako azalpenaren eduki garrantzitsuenak jasotzen dituzten eskemak edo ahozko edo idatzizko laburpenak ekoiztea.
- Telebistako erreportajeak, dokumentalak edo beste informazio programa batzuk ikustea, eta ulermen maila zenbatekoa den egiaztatzea, galdetegiak betez, fitxak osatuz edo ahozko edo idatzizko laburpenak eginez.

### 2.1.5. Bakar batek kudeatutako testuen ekoizpena

**Hainbat motatako testuak berak bakarrik ekoiztea, egoki, koherentziaz, kohesioz eta zuzen adierazteko moduko testu eta hizkuntz ezagutzak eta ekoizpen prozedurak aplikatuz, eskolako eta pertsonen arteko zenbait egoera eta eginkizun erantzuteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Hala behar denean, erraz eta eraginkortasunez erabiltzen ditu hainbat informazio iturri, ohiko euskarran edo euskari digitalean.
- Informazioa hautatzean, hartzaileen intereserako egokia den kalitatea, kopurua eta egokitasuna hartzen du kontuan.
- Edukia antolatzean eta testura eramatean, bere komunikazio asmoari dagokion testu generorako egokiak diren egitura arketipikoak eta hizkuntz baliabideak erabiltzen ditu.
- Argi, zuzen, jariakortasunez eta hitz jarioz hitz egiten du, elementu prosodikoak eta keinuak behar bezala erabiliz.
- Planifikazioan eta eginkizuna garatzean autonomia maila egokia erakusten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Banaka parte hartzea eskatzen duten arlo bakoitzeko lan didaktikoetan egoeretan ikasleak behatzea:
- Norberaren esperientziak kontatzean.
- Norberaren ondorioak eta lanak aurkeztean.
- Ikasgelan, ikasitako gaiak azaltzean.
- Taulak, grafikoak, mapak eta abar deskribatzean.
- Arazo bat konpontzeko jarrailu beharrek prozedurak deskribatzean.
- Taldean egindako esperimenduak deskribatzean.
- Irudiak eta objektuak deskribatzean (marrazkiak, argazkiak, artelanen kopia, monumentuak...).
- Lan bat garatzeko edo objektu baten funtzionamenduari buruzko instrukzioak ematean.
- ...





### 2.1.6. Ahozko aurkezpenak.

*Eskolako gaien ahozko aurkezpenak egitea, norberaren ideiak eta ezagutzak azaltzeko, jariatortasunez eta hitz jarioz hitz eginez eta baliabide paralinguistikoak eta aurkezpenerako hainbat teknika erabiliz (grafikoak, irudiak, diapositibak, audioa, Power Point...).*

#### Ebaluazio irizpideak

- Testua aurretik planifikatzen du, behar duen informazioa aukeratuz eta antolatuz eta horren helburura eta entzuleriara egokitutako maila eta erregistroa aurreikusiz.
- Ahozko diskurtsoa antolatzen du, diskurtsoaren zatiak lotzeko diskurtso antolatuak zehatzak eta mota askotakoak erabiliz.
- Argi, zuzen, jariatortasunez eta hitz jarioz hitz egiten du, elementu prosodikoak eta keinuak behar bezala erabiliz.
- Ikus-entzunezko aurkezpeneko edo aurkezpen digitaleko teknikak eraginkortasunez erabiltzen ditu, diskurtsoa antolatzeko eta indartzeko.
- Diskurtsoa ulergarria izateko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak erabiltzen ditu: ideiak birformulatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistro aldaketak eta umorea.
- Eginkizuna planifikatzean eta garatzean, autonomia maila egokia erakusten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- -Arloarekin zerikusia duen gai bat prestatzea eta aurkeztea, banaka eta taldekideen aurrean.

## 2.2.- HIZKUNTZA IDATZIA

**Ideiak, iritziak, bizipenak eta sentimenduak trukatzean eta errealitatearen berezko adierazpena eraikitzean, hizkuntza idatzia autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea eta komunikazio idatziaz gozatzea, identitatea egituratzeko, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko, ezagutza eskuratzeko eta parte hartzen duen gizartearen kultura partekatzeko.**

Idatzizko komunikazioa ezinbesteko baliabidea da norbera eta gizartea garatzeko, eremu guztietan ikasteko eta ezagutzak transmititzeko eta gizartean parte hartzeko ere, pertsonen arteko komunikazioaren bidez edo diskurtso instituzionala erabiliz. Horrez gain, irakurmenaren eta idazmenaren bidez partaide garen giza komunitatearen kultur ondarearen zati handi bat eskura dugu, eta hori, batez ere, literaturaren bidez adierazten da, literatura norberaren gozamen eta aberastasun iturri baita.

Idatzizko komunikazioan konpetentzia edukitzeak irakurmenaren eta idazmenaren oinarriko prozesuen gaineko kontrol autonomo eta eraginkorra edukitzea dakar, bai eta prozesu horiek hainbat eremutan eta funtziotan erabiltzea ere. Izan ere, irakurtzeak funtzio hauek betetzen ditu: norberak gozatzea, informazio zehatza bilatzea, interpretazio orokorrak egitea, informazio garrantzitsua laburtzea, edo pentsamendu kritikoa garatzea. Idazteak, berriz, funtzio hauek betetzen ditu: mota askotako informazioa egituratzea eta transmititzea, eta norberaren ideiak eta ezagutzak defendatzea. Den-denak konpetentzia hori eraikitzeko ezinbesteko alderdi zehatzak dira.

### 2.2.1. Irakurketa prozesua

*Irakurketa prozesua kontrolatzea, irakurketa moduak, irakurketaren erritmoa eta ezagutza estrategiak egoerara, irakurketaren helburura eta testuaren ezaugarrietara egokituz, irakurketaren intzidentzien arabera mezuaren esanahia, egokitasuna eta koherentzia ziurtatzeko, eta irakurtzeko jariatortasun eta autonomia maila egokiak lortzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Irakurketa egoerari dagokion jariatortasunez eta ulermen maila egokiz irakurtzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arlo bakoitzeko lan didaktikoko egoeretan ikasleak behatzea.
- Irakurmen proba eraginkorra.



- Irakurketa mota (jolaserakoa, hautapenezkoa, integrala, hausnarketan oinarritua...) irakurtzeko asmora egokitzen du.
- Hipotesiak eta aurreikuspenak formulatzen ditu, aurretiko ezagutzen eta testuaren seinaleen arabera.
- Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, tesiak eta argudioak, informazio garrantzitsuak eta garrantzirik gabekoak eta abar bereizten ditu.
- Testuaren egitura eta egituraren berri ematen duten elementuak identifikatzen ditu.
- Interpretazioa egiaztatzen du, erroreak identifikatzen ditu eta testuan atzera eginda zuzentzen ditu.
- Ezezagunak zaizkion hitzen edo egituren esanahia inferitzen du, testuinguruari edo egiturari erreparatuta.
- Elementu inplizitu eta erretorikoak interpretatzen ditu.
- Idazlearen komunikazio asmoa eta ikuspuntua inferitzen ditu.

- Testu laburretan, zatieta, irudietan eta abarretan oinarritutako jarduerak diseinatzea, ebaluazio irizpidetza aipatutako alderdi zehatz horietan ikasleak zenbateko kompetentzia erakusten duen ikusteko.

### 2.2.2. Interpretazio orokorra

**Hainbat erabilera eremutatik datozen mota askotako generoko eta gaietako testuak interpretatzea: testuaren esanahi orokorra inferitzea; ideia nagusiak, bigarren mailakoak eta horiekin lotutako xehetasunak bereiztea; eta testuaren formazko eta edukizko egitura identifikatzea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Testuari -gaiari- dagokion generoa inferitzen du, bai eta egilearen komunikazio asmoa ere.
- Testua zeri buruzkoa den esaten du.
- Hainbat testuren artean bere irakurketa asmoarekin lotura handiena duena aukeratzeko du.
- Testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatzen ditu.
- Bigarren mailako ideiak edo xehetasunak ideia nagusiekin lotzen ditu.
- Testuaren eskema bat egiten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arloa lantzeko testu bati buruz irakasleak egindako galderei ahoz erantzutea.
- Arloa lantzeko testu bat banaka irakurtzea, eta ikaslearen ulermen maila zenbatekoa den egiaztatzea, galdetegi erantzunez, fitxak betez edo ahozko edo idatzizko laburpenak eginez.

### 2.2.3. Atsegin hartzeko irakurmena

**Mota guztietako testuak (literaturakoak, informatiboak, egunkarietakoak...) atsegin hartzeko irakurriz gozatzea, testuak norberaren irizpideen arabera hautatuta, gozamen eta ezagutza iturri izateko eta identitate sozio-kulturala eta indibiduala garatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Parte hartze aktiboa du, literaturarekin lotutako elkarriketan bere esperientziak eta ikuspegia jakinaraziz.
- Gustukoaren dituen testuei buruzko iritzia azaltzen eta justifikatzen du.
- Hainbat arlotako testu idatziak hautatzen ditu, berak gozatzeko.
- Ikastetxeko liburutegia askotan erabiltzen du.
- Eguneroko prentsa eta interesgarri zaizkion gaien buruzko aldizkariak irakurtzeko ohitura du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Bere irakurketa esperientziekin lotutako elkarriketa, ikasgelan.
- Liburutegiko maileguren erregistroa.
- Arloko gaiekin lotutako informazio bitxien eta albisteen taula bat edo fitxategi bat sortzea, norberaren ekarpenak dituela.

### 2.2.4. Informazio iturrien erabilera

**Ikaslearen helbururako garrantzitsua den informazioa hautatzea, informazio iturriak erraz eskuratuz eta irakurketa xehearen estrategiak behar bezala erabiliz; eta, komunikazio asmoaren arabera, hautatutako informazioa hainbat baliabideren bidez (hitzezkoak edo grafikoak) laburtzea eta antolatzea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Ikus-entzunezko euskarrietatik edo euskarri bibliografikoetatik edo digitaletatik datozen informazio iturriak eraginkortasunez erabiltzen ditu.
- Helburua betetzeko egokienak diren informazio iturrietara jotzen du (hiztegiak, gramatikak, entziklopediak, Internet...), eta informazioa fitxetan edo informazio sailkatzeko beste sistema batzuetan erregistratzen du.
- Galderetan edo instrukzioetan zehaztutako baldintzetan edo ezaugarrietan oinarritutako informazioa aurkitzen du.
- Informazio garrantzitsua bereizten du, antzeko edukia duten zatiak alderatuz.
- Helburua betetzeko egokia den informazioa hautatzen du.
- Informazioa antolatzeko eskema bat egiten du, ekoitzi beharreko testuaren generoaren sekuentzia arketipikoari jarraiki.
- Hainbat iturritatik lortutako informazioa behar bezala integratzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arloarekin lotutako gaiei buruzko lanak egitea banaka edo talde txikietan.
- Gai bati buruz hainbat iturritatik eskuratutako testuen aurrean, ikasleak instrukzio zehatzei jarraitzeko informazio garrantzitsua bereizteko eta hautatzeko jarduerak diseinatzea.



### 2.2.5. Interpretazio kritikoa

**Zenbait generotako testuen eta ideologikoki sinpleak eta ezagunak diren eskolaren edo hedabideen eremuko gaiet buruzko testuen interpretazio kritikoa egitea, testuaren formari eta edukiari buruzko hausnarketa eginez, testuaren mezuz balioespen pertsonala egiteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Informazioa eta iritzia, gertaerak eta falaziak, eta abar bereizten ditu.
- Mezuan esplizituak ez diren elementuak inferitzen ditu.
- Linguistikoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: elementu ikonikoa, ortotipografikoa....
- Egileak helburu zehatz bat lortzeko erabilitako testu ezaugarriak identifikatzen ditu (tipografia, espazioaren banaketa, modalizatzaileak, lexikoa...).
- Gizarte, arraza, sexu eta kultur bazterketa edo beste mota bateko bazterketa adierazten duten irudiak eta adierazpenak identifikatzen ditu, eta ahozko nahiz idatzizko ekoizpenetan horiek ez erabiltzen saiatzen da.
- Informazioaren baliagarritasuna ebaluatzen eta azaltzen du, bere ezagutzetan oinarrituta.
- Bere iritzia azaltzen eta justifikatzen du, eta, horretarako, iritzia indartzen edo ahultzen dituzten testuaren unitateak hautatzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arloko gai zerrendarekin lotutako lehenengo iturriko testuak, gaur egungoak edo historikoak, taldean irakurtzea eta horri buruz hitz egitea.
- Arloko gai zerrendarekin lotutako erreportajeak, dokumentalak edo telebistako bestelako informazio programak ikustea eta horri buruz hitz egitea.
- Testuen banakako irakurketa eta idatzizko testu iruzkina.
- Testu laburretan, zatietan, irudietan eta abarretan oinarritutako jarduerak diseinatzea, ebaluazio irizpidetzat aipatutako alderdi zehatz horietan ikasleak zenbateko konpetentzia erakusten duen ikusteko.

### 2.2.6. Testuen sintesia

**Eskolaren edo hedabideen eremuko hainbat generotako eta gairi buruzko testuak laburtzea, ideiek testuan duten egitura eta hierarkia identifikatuz, helbururako garrantzitsua den informazioa hautatuz eta sintesi prozedurak (laburpena, eskema, kontzeptuzko mapa...) behar bezala erabiliz, helburuak betetzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Jatorrizko testuaren ideia nagusia edo nagusiak identifikatzen eta adierazten ditu.
- Ideia nagusiak edo nagusia oinarritzeko puntuak sartzen ditu.
- Laburpenean orijinaletik hautatutako informazio edo ideiak koherentziaz, koherentsioz, egoki eta berezko estilo batez integratzen ditu.
- Informazioa ematean, objektibotasuna adierazten du.
- Eskemak eta kontzeptuzko mapak behar bezala osatzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Emandako datuetatik ahozko edo idatzizko laburpenak ekoiztea.
- Kontzeptuzko mapak edo eskemak modu autonomoan ekoiztea, edo emandako eskema bat osatzea edo zuzentzea.
- Testu baten ideia nagusiak azpimarratzea.

### 2.2.7. Informazio testuen ekoizpena

**Hainbat generotako informazio testuak ekoiztea (arlo bakoitzari dagokion deskribapena, kontaketa, definizioa, azalpena...), horretarako behar diren ekoizpen prozedurak eta testu eta hizkuntza ezagutzak erabiliz, norberaren ideiak eta ezagutzak behar bezalako egokitasunez, koherentziaz, kohesioz eta zuzentasunez adierazteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Ikus-entzunezko euskarrietatik, euskarri bibliografikoetatik edo digitaletatik datozen informazio iturriak eraginkortasunez erabiltzen ditu.
- Helburua betetzeko egokia den informazioa hautatzen du.
- Eskema bat egiten duenean, informazioa antolatzen du, ekoizti beharreko generoaren testu sekuentzia arketipikoaren arabera.
- Ekoizti beharreko generoaren testu sekuentzia arketipikoaren arabera egituratzen du testuaren edukia.
- Aldez aurretiko asmoa edo helburua ondo adierazten du.
- Hainbat iturritatik informazioak behar bezala integratzen ditu.
- Paragrafoak modu logikoan antolatzen ditu.
- Egoerarako egokia den erregistroa erabiltzen du.
- Testuaren zatiak eta enuntziatuak lotzeko, kohesio elementu egokiak erabiltzen ditu.
- Morfosintaktikari, lexikoari eta ortografiari dagokienez, zuzen idazten du.
- Testua egoki eta zuzen aurkezten du: marjinak, goiburuak, irakurgarritasuna...
- Hitz egitean berezko estiloa du, eta hizkuntzaren baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu.
- Testua berrikustean eta hobetzean, autonomia du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arlo bakoitzaren garapen didaktikoaren ondorioz banaka egindako idazlanak:
  - Taulen, grafikoen, mapen, elementu geografikoen eta abarren deskribapena.
  - Irudien eta objektuen deskribapena (marrazkiak, argazkiak, artelanen kopiak, monumentuak...).
  - Arazo bat konpontzeko jarraitutako prozeduraren deskribapena.
  - Esperimentuen deskribapena.
  - Gertaera historikoen kontaketa.
  - Esperientzia, irtenaldi, norberaren parte hartzearen eta abarren kontaketa.
  - Objektuen, fenomenoaren, kontzeptuen eta abarren definizioa.
  - Ikasitako gaien azalpena.
  - Jolasen eta ariketa fisikoaren fitxa teknikoak.
- Azterketa.



### 2.2.8. Argudio testuen ekoizpena

*Hainbat generotako argudio edo pertsuasio testu idatziak ekoiztea, horretarako behar diren ekoizpen prozedurak eta testu eta hizkuntza ezagutzak, helburuaren eta egoeraren eta hartzailearen ezaugarrien arabera argudioak egituratuz eta egokituz, irakurlea konbentzitzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Eskema bat egiten du, argudioen segida eta horren artikulazioa planifikatuz.
- Bere ikuspuntua argi eta garbi adierazten du, eta argudioen bidez koherentzia justifikatzen eta indartzen du.
- Hartzailearen iritzia aurreikusten du, eta argudioak horren arabera aukeratzen ditu.
- Aurretik definitutako asmoa edo helburua behar bezala adierazten du.
- Paragrafoak logikaz antolatzen ditu, eta testuaren zatiak eta enuntziatuak lotzeko kohesio elementu egokiak erabiltzen ditu.
- Egoerari dagokion erregistroa erabiltzen du.
- Morfonsintaktikari, lexikoari eta ortografiari dagokienez, zuzen idazten du.
- Idaztean, berezko estiloa du, eta hizkuntz baliabideak malgutasunez eta sormenez erabiltzen ditu.
- Testua berrikustean eta zuzentzean, autonomia du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arlo bakoitzaren garapen didaktikoaren ondorioz banaka egindako idazlanak.
- Interes soziala edo pertsonala duen gai baten gainean norberaren judizioaren defentsa.
- Testu baten iruzkin kritikoa.
- Fenomeno natural edo sozial bat azaltzeko hipotesi pertsonalen defentsa.
- Gai bati buruzko hausnarketa kritikoa, arloa aztertzean eraikitako ezagutzetatik abiatuta.
- ...
- Azterketa.

## 2.3.- BESTE HIZKUNTZA BATZUK

**Hitzezo hizkuntzaren eta hizkuntza artistikoen eta matematikoen oinarrizko kodeak modu integratuan eta harmoniatsuan erabiltzea, errealitate indibiduala, soziala eta naturala hobeto interpretatzeko eta komunikatzeko, bai eta bizitzaz gozatzeko ere.**

Zalantzarik gabe, hitzezo hizkuntza (ahozkoa eta idatzia) giza komunikaziorako lehentasunezko baliabidea da. Baina badira hitzezo hizkuntzaren lagungarri eta aberasgarri diren beste hizkuntza batzuk ere (hitz abestua, hizkuntza zientifiko-matematika, keinuen bidezko hizkuntza), bai eta hitzik gabeko hizkuntzak ere (musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza plastikoa, dantzaren hizkuntza), eta horiek adierazi ezinezko eremuan daude eta giza komunikazioaren aukerak zabaltzen dituzte. Hizkuntza horiek guztiak modu autonomoan edo integratuan ulertzeak eta erabiltzeak ahalmen komunikatiboa eta kognitiboa handitzen dute, eta, batez ere, gizakiaren ahalmen espresiboa, afektiboa, estetikoa eta ludikoa. Ildo horretan, hizkuntza horiek erabiltzea gozamen iturri da, eta giza zoriontasuna sustatzen du.

Jarraian, hizkuntza horiei dagozkien kompetentziak ditugu aipagai, modu integratuan aurkeztuta, aurrerago zehatzago eta berezita garatzen baitira diziplina arlo hauetan: Hizkuntza eta Literaturan, Matematikan, Natur eta Osasun Zientzietan, Musika eta Dantzan, Plastikan eta Gorputz Hezkuntzan.

### 2.3.1.- Hizkuntza artistikoak

*Adierazpen artistikoaren modurik ohikoenak (hitzik gabeko hizkuntza, gorputz hizkuntza, musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza plastikoa) modu integratuan erabiltzea, norberaren sentsibilitatetik abiatuta errealitatea interpretatzeko eta adierazteko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Hizkuntza plastikoa (marrazkiak, pintura, bolumena, irudia, collage-a...) erabiltzen du, beste hizkuntza batzuekin batera (hizkuntza idatzia, musikaren bidezko hizkuntza, gorputz hizkuntza...), sentimenduak, sentsazioak, ideiak edo espazio kontzeptuak adierazteko.
- Musikaren bidezko hizkuntza (ahotsa, musika tresnak) beste hizkuntza batzuk laguntzeko (hitzen bidezko hizkuntza, musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Hizkuntzen materialen, baliabideen eta tekniken erabilera egokia.
- Hizkuntzen arteko integrazio eta uztartze maila.
- Hizkuntzen erabileraren orijinaltasuna eta sormena.
- Norberaren gozamenaren behaketa.



plastikoa) erabiltzen du.

- Gorputz hizkuntza (tonua, keinua, dramatizazioa, dantza...) beste hizkuntza batzuekin batera (hitzen bidezko hizkuntza, musikaren bidezko hizkuntza, hizkuntza plastikoa) erabiltzen du.
- Ideiak, sentimenduak, emozioak, edertasuna eta abar adierazteko hizkuntzak erabiliz, sortuz eta konbinatuz gozatzen du.

### 2.3.2.- Hizkuntz matematikoa

**Adierazpen matematikoaren moduak (zenbakizkoa, grafikoa, logikoa, algebraikoa, probabilitatikoa) ohiko hizkuntzan eta argudiatzeko moduetan sartzea, zehatz komunikatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Hizkuntza matematikoak (zenbakizkoa, grafikoa, sinbolikoa, geometrikoa...) erraz erabiltzen ditu.
- Ideia matematikoak argi, koherentziak eta zehatz komunikatzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Hizkuntza matematikoa behar bezala erabiltzera bultzatzen duten jarduerak diseinatzea.
- Ideia matematikoak ahoz edo idatziz adieraztea.

### 2.3.3.- Hizkuntza zientifikoa

**Hizkuntza zientifikoa (zenbakizkoa, grafikoa eta sinbolikoa) interpretatzea eta zientziaren berezko ohizko hizkuntzan eta argudiatzeko moduetan batera erabiltzea, zehatz komunikatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Berezko hizkuntza zientifikoa behar bezala erabiltzen du (terminologia, ikurrak, formula kimikoak, formula matematikoak, ekuazio kimikoak, taulak, grafikoa, eskemak, marrazkiak, mapak, eskalak...).
- Zientifikoki deskribatzen, azaltzen, justifikatzen eta argudiatzen du, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza erabiliz, bai eta oharrek hartzeko eta adierazteko beste sistema batzuk ere.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Berezko hizkuntza zientifikoa behar bezala erabiltzera bultzatzen duten jarduerak diseinatzea.
- Ikaslearen banakako parte hartzea behar duten arloko lan didaktikoko egoeren behaketa.
- Arloko garapen didaktikoaren ondoriozko banakako edo taldeko idazlanak (ikaslearen koadernoak, lan monografikoak, praktikaldien txostenak).
- Azterketak eta kontrolak.

## 2.4.- GIZARTE KOMUNIKABIDEEN BALIABIDEAK

**Gizarte komunikabideak eraginkortasunez eta autonomiaz erabiltzea, forma eta testuinguru askotako mezu mediatikoak eskuratuz eta haiek interpretatuz, ebaluatuz eta sortuz, eta hedabideen funtzionamendua eta gizarte funtzioa ezagutuz. Horren helburua kontsumo arduratsuna eginez norberak gozatzea, informazio iturri izatea eta herritarrek parte hartzea da.**

Gizarte hedabideek eta kultur enpresek gaur egungo gizartean duten garapena izugarria denez, ezin daiteke uka hedabide eta enpresa horiek garrantzi handia dutela informazioa eskuratzeko moduetan, gizarte trukean, entretenimenduan, ideologiaren eta balioen transmisioan eta iritzia eratzean. Testuingurua aldatu egin da: lehen, hitza zen lehentasunezko informazio eta komunikazio iturri; orain, berriz, hedabideek eta ikus-entzunezko hizkuntzak inguruko errealitatea barneratzeko, interpretatzeko eta bertan esku hartzeko moduan behin betiko inpaktua dute. Nahiz eta ikus-entzunezko hizkuntza beste hizkuntza batzuek elikatu (ahozkoa, musikaren bidezkoa, dramatikoak eta, batez ere, ikonikoa), emaitza ez da horien guztien arteko batura, baizik eta berezko hizkuntza bat, bere elementu formal, baliabide eta teknika dituela. Hizkuntza hori ezagutzea, interpretatzea eta horren bidez zuzen adieraztea atzeratu ezin den hezkuntza eginkizuna da gaur egungo munduan komunikatu eta funtzionatu ahal izateko. Horrez gain, pertsonen hedabideen barne antolaketa, funtzionamendua eta horiek baldintzatzen dituzten sistemak eta interesak ezagutu behar dituzte, hedabideek gaur egungo gizartean duten funtzioa balioesteko eta hedabideak behar bezala erabiltzeko.



#### 2.4.1 Mezu mediatikoen interpretazioa

**Dokumentu mediatikoetatik abiatuta, gai batzuei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzea eta horiek interpretatzea, bertan parte hartzen duten hitzezeko hizkuntzak nahiz hitzik gabeko hizkuntzak modu integratuan prozesatuz.**

##### Ebaluazio irizpideak

- Helburua lortzeko bitarteko eta genero egokienak erabiltzen ditu informazio iturri gisa, eta informazioa erraz eskuratzen du.
- Bere helbururako egokiak diren informazioak identifikatzen eta inferitzen ditu.
- Entzute prozesuan informazioa erregistratzeko hainbat baliabide (oharrak, taulak, grafikoak, galdetegiak...) erabiltzen ditu.
- Ikus-entzunezko mezuak deszifratzen ditu, eta ohikoak diren genero mediatikoen ezaugarri formal eta teknikoak bereizten ditu.
- Testu mediatikoak eraikitzeke erlazionatzen diren elementu plastikoak, irudizko elementuen, entzute elementuen eta hitzekeko elementuen esanahia inferitzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Eguneroko prentsa erabiltzea, arloetan landutako gaien informazio iturri gisara, eta gaurkotasuneko gaiak buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko.
- Telebistako erreportajeak, dokumentalak edo beste informazio programa batzuk ikustea, eta ulermen maila zenbatekoa den egiaztatzeke, galdetegiak betetzea, fitxak osatzea edo ahozko edo idatzizko laburpenak egitea.
- Dokumentuak aztertzeke jarduerak diseinatzea, ikus-entzunezko hizkuntzaren berezko elementuak (adibidez, publizitatea) edo kazetaritzako elementuak identifikatzeko eta mezuaren eraikuntzan zer funtzio duten jakiteke.

#### 2.4.2. Mezu mediatikoak sortzea

**Hitzezeko hizkuntzak eta hitzik gabeko hizkuntzak integratuz mezu mediatikoak sortzea, hedabideen berezko baliabideak erabiliz.**

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere mezuak ekoizten ditu, irratiko, telebistako edo prentsa idatziko genero ohikoak ezaugarriak behar bezala erreproduzitzen.
- Elementu plastikoak, irudizko elementuak, entzute elementuak eta hitzekeko elementuak behar bezala integratzen ditu, mezuen esanahia indartzeko.
- Hizkuntzak orijinaltasunez eta sormenez erabiltzen ditu, balio komunikatiboa eta estetikoak duten dokumentu mediatikoak sortzeko.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Hizkuntzen elementu zehatzak erabiltzera bultzatzen duten jarduerak diseinatzea, testu laburretatik, soinuak pasarteetatik, irudietatik eta abarretatik abiatuta multimediako mezuak sortzeko.
- Irratiko programak edo hainbat kazetari testu sortzea, eskolako irratiko edo egunkarirako.
- Dokumental, film, elkarrizketa programa... xumeak sortzea, arloetako sormen edo ikerketa proiektuen azken produktu gisa.

#### 2.4.3. Hedabideen ezagutza

**Hedabideen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutzak erabiltzea, norberaren informazio eta komunikazio bide gisa sormenez eta espiritu kritikoz erabiltzeko.**

##### Ebaluazio irizpideak

- Ikus-entzunezko edo idatzizko hedabideen funtzionamendua eta antolaketa deskribatzen du, eta horri buruzko adibideak ematen ditu.
- Euskarazko hedabideen jatorriaren eta bilakaeraren aldi nagusiak azaltzen, kontatzen eta deskribatzen ditu.
- Formari eta edukari erreparatuz, testu mediatikoak aztertzen eta ebaluatzen ditu, oinarriko kontzeptu hauek oinarritzat hartuta: ekoizlea, formatua eta ekoizpen teknikak, hartzaileak, edukia eta asmoa.
- Hedabideek ekoizteke prozesuetan dituen ezagutzak eskolako hedabideak antolatzeke aplikatzen ditu.
- Bere komunikazio asmorako eta audientziarako egokiena den baliabide eta generoa aukeratzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Testu mediatikoak aztertzeke jarduerak diseinatzea, eskatutako oinarriko kontzeptuak identifikatzeko edo inferitzeko eta testuak horren arabera ebaluatzeke.
- Kontzeptuzko proba.
- Eskolako hedabideak (irratia, eskolako egunkaria...) antolatzean, erantzukizunak banatzea eta horietan parte hartzea.

## 2.5.- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (IKT)

Ohiko tresna eta baliabide teknologikoak trebetasunez, erantzukinez eta espiritu kritikoz erabiltzea, informazio mota oro ekoizteke, biltegitratzeke, berreskuratzeke, lantzeke eta hedatzeke edo komunikatzeko gaitasuna garatu ahal izateke, bai eta norbera eta gizartea hobeto garatzeko egokiak diren informazioak bilatzeko, balioesteko, hautatzeko eta barnerratzeko gaitasunak emateke, informazioa ezagutza bihurtze aldera.



Informazio gizarteko hezkuntzaren gaia jorratzean, esaten da teknologia horiek aukera ona direla hezkuntzaren multimedia planteamendua behingoz lortzeko, ikasleek ikaskuntzarako duten gaitasuna indartzen baitu. Multimedia hezkuntzaren kontzeptua ulertzeko, adierazteko baliabide, euskarri eta modu guztiak integratu behar dira: bai liburua, bai Internet, bai eta gaur egun eskura ditugun gainerako informazio edo komunikazio bideak ere.

Ikasleak lehen aipatutako hedabide guztietan eskura dugun informazio ikaragarri pilari behar bezala aurre egiten trebatzeko, Informazioa Erabiltzeko Konpetentzia (IEK) ezinbesteko kontzeptua da. Horrenbestez, subjektuek Informazioa Tratatzekeo Teknologia (adibidez, IKTak) erabiltzeko trebetasun aurreratuak eskuratu behar dituzte; kontuan hartuta trebetasun horiek ekintza esanguratsuak egitea edo arazo esanguratsuak konpontzea izan behar dutela helburu.

Definizio horren ezaugarri nagusia hau da: komandoen ikaskuntza mekanotik eta erreminten funtzioetatik aldendu eta eguneroko bizitzako egoera hurbiletan eta interesgarrietan oinarritutako ikaskuntza sustatzea, eta IKTek aberastutako inguruneak erabiliz, curriculumaren beste ikasgai batzuen ikaskuntza eta ezagutza hobetzea.

### 2.5.1. Sistema informatikoen kontrola

*Sare kontzeptuak (intranet/extranet) bereiztea eta hardwareko elementuak behar bezala menderatzea (haien mantenimendua barne), bai eta Sistema Eragile estandar baten terminologia eta funtzioak ere.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Badaki oinarritzko periferikoak (inprimagailua, sagua...) konektatzen, bai eta haien lehen mantenimendua egiten ere (tinta, papera, tratatzeak...).
- Teklatua behar bezala erabiltzen du, arau mekanografikoak errespetatuz.
- Sistema Eragilearen oinarritzko terminologia ezagutzen du (artxiboa, karpeta, programa...).
- Artxiboak eta karpetak behar bezala sortzen eta erabiltzen ditu.
- Programak instalatzeko eta desinstalatzeko instrukzioei jarraitzen die.
- Badaki zenbait euskarritako informazioa gordetzen eta berreskuratzen.
- Zenbait erabilera programa ezagutzen ditu (artxiboak konprimatzekoak, dokumentuak ikustekoak...).
- Sistemaren mantenimenduko oinarritzko jarduerak egiten ditu (biruskontraktoak, segurtasun kopiak...).
- Tokiko sare batean edo/eta azalera handiko sare batean lan egiten ari den bereizten du.
- Badaki tokiko sare batean lan egiten, bai eta partekatutako baliabideak (inprimagailua, diskoak, karpetak...) erabiltzen ere.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- SEren terminologiari eta funtzioei buruzko kontzeptuzko proba mailakatuak eta banakakoak egitea, bai eta hardwareari eta horren aplikazioei buruzkoak ere; esate baterako, definizioak, proba objektiboak, kontzeptuzko mapak eta lotura mapak.
- Ikasleen baliabideak eta autonomia behatzea, bai eta sistema horiek erabiltzen zer-nolako trebetasuna duten ere, bai prozedura aldetik, bai jarraira aldetik.
- Behaketa horien segimendu ildoak sortzea, ebaluazio fidagarriak lortzeko erreferentziak lortzeko. Behaketa aparte arreta jarri behar zaio erabilerean eta hiztegiaren zuzentasunari, baliabideen gaineko kontrolari, hautatutako prozeduren egokitasunari eta horien aplikagarritasunaren fidagarritasunari.

### 2.5.2. Informazio bilaketa eta hautaketa

*Interneteko nabigatzaile baten funtzio guztiak baliatzen jakitea eta bilaketa aurreratuak eta eraginkorak egitea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Badaki Interneteko hipertestuen inguruneetan eta mota askotako Web orrietan nabigatzen.
- Web orri baten eduki (testua, irudiak...) osoa edo zati bat biltegiratzeko, berreskuratzekeo eta inprimatzeko gai da.
- Informazioa bilatzeko bilatzaileak behar bezala erabiltzen ditu, eta badaki ibilbide nagusietan nabigatzen.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasleak informazioa bilatzeko eta hautatzeko oinarritzko trebetasunak menderatzen dituela egiaztatzekeo aplikazioak egitea.
- Taldekako edo banakako ikerketa jarduera irekiak eta erantzun anitzekoak proposatzea, eta emaitzak lortzeko erabilietako metodologia gehiago balioestea lortutako emaitza baino.



### 2.5.3. Komunikazio telematikoa

**Posta elektronikoko estandar baten eta Interneteko beste komunikazio zerbitzuen funtzio guztiak (mezularitza, txatak, foroak...) behar bezala erabiltzea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Sarearen oinarriko etiketa eta errespetu arauak betetzen ditu.
- Posta elektronikoko mezuak kopiekin (CC) eta ezkutuko kopiekin (CCO) jaso eta bidaltzen ditu, eta mezuak erantsi eta lehentasunak zehazten ditu.
- Badaki helbide liburua kudeatzen, bai eta hartzaile taldeei mezuak bidaltzen ere.
- Mezu baten artxibo erantsi bat ireki eta toki jakin batean gordetzen du.
- Aldez aurretik definitutako karpetak kudeatzen ditu, eta karpeta berriak sortzen ditu, mezuak gordetzeko eta nahi duen tokira mugitzeko.
- Mezuak bilatu eta sailkatzen ditu, mezuen jatorria, gaia edo edukia kontuan hartuta.
- Badaki mezuak eta artxibo erantsiak irekitzean informatikako birusek kutsatzeko arriskua dagoela.
- Komunikazio telematikoko beste zerbitzu batzuk erabiltzen ditu; adibidez, bateko mezuak, eztabaida foroak, txatak...

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Komunikazio telematikoei buruzko jarduera esanguratsuak bultzatzea, zailtasun mailak definitzea eta pixkanaka egindako lorpenak egiaztatzea.
- Ikasleek erabiltzen dituzten komunikazio telematiko motak behatzea eta behaketa horien segimendu sistemak sortzea.

### 2.5.4. Informazio prozesamendua eta edizioa

**Informazioa (testua, grafikoak, soinua, animazioa, bideoa) eraikitze eta editatzeko mota askotako softwarea erabiltzea, eta informazioa testu prozesadoreetan, aurkezpenetan eta web orrietan integratzen jakitea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Testu prozesadore baten oinarriko funtzioak erabiltzen ditu (testu aurreratuko edizioa, grafikoak sartzeko, taula bakunak, paragrafo formatuak eta oinarriko dokumentuak).
- Ezagutzen du artxibo grafikoaren oinarriko erabilera, eta horien oinarriko ezauzgarriak (tamaina, erresoluzioa) aldatzen ditu.
- Zenbait euskarritan (testua, grafikoak, audioa...) ekoizitako informazioa aplikazio batean integratzen du.
- Testu prozesadorearen funtzio estandarrak autonomiaz erabiltzen ditu, eta testu prozesadorea kontzeptu abstraktuaren testu irudikapenetan eta irudikapen grafikoetan erabiltzen du.
- Irudiak hartzeko baliabide teknologiko egokiak erabiltzen ditu (argazki kamera eta eskanerra), eta edizio grafikoko aplikazioen bidez tratatzen ditu (bektoriala/puntuak).
- Informazioa (testua, grafikoak, soinua, animazioa, bideoa) eraikitze eta editatzeko mota askotako softwarea erabiltzen du, eta badaki horiek aurkezpenetan edo web orrietan integratzen.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduera praktikoa sustatzea, informazioa kudeatzeko oinarriko aplikazioak erabiltzeko trebetasunak egiaztatzeko. Hona hemen aplikazioak:
- Testu prozesadorea
- Grafikoaren editorea
- Multimedia aurkezpenak
- Web orrien eraikuntza
- Laguntzako jarduerak bultzatzea (talde handietan edo txikietan), baliabideak eta aplikazioak erlazionatzeko proiektuak egiteko, eta banakako ekarpenei ere erreparatzea (norberaren konpromisoak).
- Sistema sinbolikoetan (ahozkoak, idatziak, grafikoak, audioak, bideoak...) komunikazio gaitasunak erabiltzera bultzatzen duten jarduerak sustatzea. Horien digitalizazioan oinarrituta, informazioa sistema batetik beste sistema batera igarotzeko aukerak aztertzea, eta horren erabilera berriak sortzea.

### 2.5.5. Datuen kudeaketa eta kalkulua

**Egoerak eta gertaerak irudikatzea, datuen egitura bakunak sortuz, kontsultak, txostenak edo grafikoak egiteko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Datuak aldatzeko eta horietatik ondorioak ateratzeko aukera ematen duten egoerak eta gertaerak irudikatzen ditu, taulak eta grafikoak sortuz.
- Egindako datu base batekin lan egiten du, eta badaki datuak sartzeko eta aldatzeko eta kontsulta eta txosten bakunak egiten.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Arazoak konpontzeko aldi hauek bultzatzen dituzten jarduerak egitea:
  - Egoeraren azterketa
  - Informazioa egituratzeko beharra (Datu Basea edo Kalkulu Orria)
  - Taulen definizioa
  - Irudikapen grafikoak
  - Simulazio bakunak
  - Kontsultak eta laburpenak
  - ...
- Parte hartzeko proiektuak egitea, ezagutzaren beste arlo batzuekiko lotura bultzatuz eta benetako edukietan oinarritutako eta ohiko ingurunean erabiltzeko moduko gaiak erabiliz.





## 2.6.- KONTZIENTZIA SOZIO-KOMUNIKATIBOA

**Euskal gizartearen errealitate sozio-komunikatiboa espirtu kritikoz interpretatzea eta haren inguruneko komunikazio prozesuetan erantzukizunez eta zentzu etikoz parte hartzea, hedabideak eta teknologia berriak modu gogoetatsuan eta autonomoan erabiliz eta euskararen normalizazioaren alde jarrera aktiboa izanez (inguruneko gainerako hizkuntzak balioesteko eta errespetatzeko jarrera izanik) ondo informatutako herritarrak izatera iristeko; hau da, gizarte demokratiko eta parte hartzailea eraikitze ezinbestekoa den autonomia pertsonala eta gizarte erantzukizuna dituzten herritarrak izateko.**

XXI. mendeko komunikazio errealitatea oso konplexua da. Gaur egungo gizartean, globalizazioaren mendean, nabarmenak dira pertsonen mugikortasuna eta nazioarteko harremanen gorakada, eta, gainera, komunikazio baliabideak eta informazio iturriak esponenzialki ari dira hedatzen. Hori dela eta, ez da nahikoa konpetentzia instrumentalak barneratzea hainbat hizkuntza, euskarri teknologiko eta hedabide ulertzeko eta horien bidez komunikatzeko; hauek ere ezinbestekoak dira: konplexutasun hori guztia modu autonomoan kudeatzeko aukera emango digun kontzientzia kritikoa garatzea, gaur egungo komunikazio prozesuak (linguistikoak, mediatikoak edo teknologikoak) berezko irizpideetatik aztertzea, eta bizi ditugun egoeren aurrean eta gizarte ingurunetik iristen zaizkigun mezuen aurrean jarrera bat hartzea.

Kontzientzia kritiko hori funtsezko elementua da IKTak eta hedabideak erantzukizunez erabiltzeko. Gizarte hedabideak interes sozio-politiko, komertzial edo/eta azpiko kultur interesak transmititzeko bitartekoak direnez, hedabideek sortu eta hedatutako mezuen ezaugarrietako bat mezuak oso manipulaturik egotea da; beraz, mezu horiek ez dute errealitatea islatzen, gizarte errealitate bat eraiki baizik. Ikus-entzunezko ezagutza kritikoaren bidez, hainbat bidetatik iristen zaigun informazioa hautatzeko, prozesatzeko eta ebaluatzeko gai izatera iritsi behar dugu, mezu inplizituak inferituz eta norberaren balioekin alderatuz, bakoitzak ondo justifikatutako ikuspuntuak izateko eta hedabideen kontsumoari buruz erabakiak hartzeko. Ildo berean, konpetentzia hori erabat ezinbestekoa da Internetetik datorren informazioa eraginkortasunez eskuratzeko, bai eta komunikazio telematikoan segurtasunez eta erantzukizunez parte hartzeko ere.

Euskal gizartean, egungo munduaren globalizazioaren beste ondorio bat gero eta irekia- goa eta anitzagoa den hizkuntzen arteko kontaktu egoera da; izan ere, eleaniztasuna informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko errealitatea da arlo guztietan, eta aparteko garrantzia du eremu akademikoko arlo guztietan. Euskaldunek, lehenengo hizkuntza euskara izateaz gain, euskara sakon ezagutu eta gai izan behar dute dagokion kontaktuan hizkuntza behar bezala erabiltzeko. Gainera, nazioarteko komunikazioan nagusi den hizkuntzetako bat ondo jakin behar dute; bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Bestalde, ezin ditugu ahaztu migrazio fenomenoaren ondorioz gure gizartean tokia hartzen ari diren hizkuntza berriak. Egoera konplexu horretan, kontzientzia soziolinguistikoaren garapenak garrantzi handia du behar bezala komunikatzen ikasteko. Ezinbestekoa da Euskal Herrian bizi diren pertsonak inguruneko errealitate soziolinguistikoa espirtu kritikoz behatzeko eta aztertze- ko gai izatea, bai eta, horren aurrean, euskara hizkuntza nagusizat hartuta, euskararen norma-



lizazioaren aldeko konpromiso aktiboa hartzeko gai izatea ere; baina, horrez gain, konpromiso hori inguruneke hizkuntzekiko balioespen, errespetu eta interes jarrerekin uztartu behar da.

**2.6.1. Kontzientzia mediatikoa: hedabideetatik eta euskarri telematikoetatik datozen mezuen interpretazio kritikoa.**

*Hedabideetatik eta Internetik datozen mezu guztien esanahi inplizituei antzematea eta arau etikoaren arabera zenbateraino diren komenigarriak ebaluatzea, iritzi pertsonal arrazoitua emanez.*

**Ebaluazio irizpideak**

- Informazioa eta iritzia, gertaerak eta falaziak... bereizten ditu.
- Mezuan espezifikoak ez diren elementuak inferitzen ditu.
- Linguistikoak ez diren elementuen esanahia interpretatzen du: ikonikoak, soinuzkoak, plastikoak....
- Gizarte, arraza, sexu, kultur bereizketa eta beste bereizketa mota batzuk dituzten irudiak eta adierazpenak identifikatzen ditu.
- Mezu mediatikoari esanahia ematen dioten testuinguruko elementuak inferitzen ditu: igorlea, ideologia, asmoa eta mezua jaso behar duen audientzia.
- Norberaren ezagutzen eta balioen arabera, informazioa zenbateraino den baliagarria ebaluatzen du, eta horri buruz hitz egiten du.
- Iritzia justifikatuz ematen du, eta, horretarako, dokumentuaren elementuak hautatzen ditu iritzia indartzeko edo horri aurre egiteko.

**Ebaluaziorako orientazioak**

- Arloko gai zerrendarekin lotutako jatorrizko testuak (gaur egungoak edo historikoak) taldeka irakurtzea eta iruzkina egitea.
- Arloko gai zerrendarekin lotutako erreportajeak, dokumentalak edo telebistako, irratiko edo web orrietako programak entzutea edo ikustea.
- Testu laburretan, zatietan, irudietan eta abarretan oinarritutako jarduerak diseinatzea, ebaluazio irizpidetzat hartutako alderdi zehatz horietan ikasleak zenbateko kompetentzia erakusten duen ikusteko.

**2.6.2. Kontzientzia mediatikoa: hedabideen eta euskarri telematikoaren erabileran erantzukizuna izatea**

*Hedabideak eta komunikazio telematikoko bideak autonomiaz eta hausnarketan oinarrituta erabiltzea, hedabideen kontsumo arduratsua eta aktiboa egiteko.*

**Ebaluazio irizpideak**

- Hedabideak edo komunikazio telematikoko bideak maiztasun handiz eta eragin-kortasunez erabiltzen ditu komunikazio helburuetarako, helburu akademikoetarako eta norberaren entretenimendurako.
- Bide egokiena hautatzen du bere helburuekin eta interesekin bat datozen mezuak jasotzeko edo ekoizteko.
- Telebista eta Internet zentzuz erabiltzen ditu, eguneroko bizitzan.

**Ebaluaziorako orientazioak**

- Bide edo euskarri telematikoaren kontsumo ohiturei buruzko galdetegia.
- Arlo bakoitzeko banakako edo taldekako ikerketa proiektuetan prentsara, web orrietara eta ikus-entzunezko dokumentuetara sartzeko jarrerak eta prozedurak behatzea.

**2.6.3. Kontzientzia soziolinguistikoa: ingurune soziolinguistikoaren interpretazio kritikoa**

*Bizi den egoera soziolinguistikoa espiritu kritikoz interpretatzea, gizarte errealitate eleanitza balioetsiz eta hizkuntzekiko, horien aldaeretikiko eta hiztunenganako errespetuzko eta intereseko jarrera erakutsiz.*

**Ebaluazio irizpideak**

- Inguruneke egoera linguistikoarekin lotutako testuak espiritu kritikoz irakurtzen edo entzuten ditu.
- Egoera soziolinguistiko zehatzak ebaluatzen ditu eta haiei buruz hitz egiten du, bere iritzia ezagutzen arabera justifikatuz, errespetua erakutsiz eta hizkuntzekiko eta hiztunetikiko aurreiritziak saihestuz.
- Hizkuntz edo kultur bazterketa duten irudiak eta adierazpenak identifikatzen ditu, eta horiek ez erabiltzen saiatzen da.

**Ebaluaziorako orientazioak**

- Hizkuntzen gizarte erabilerarekin lotutako gaurkotasuneko albisteei buruzko taldekako iruzkina edo banakako hausnarketa kritikoa.
- Egoera soziolinguistiko gatazkatsu baten adibide zehatz bati buruzko iruzkin kritikoa.
- Inguruko errealitateari buruzko ikerketa lana.

**2.6.4. Kontzientzia soziolinguistikoa: euskararen normalizazioarekiko erantzukizuna**

*Euskararen erabilerarekiko jarrera kritikoa eta arduratsua izatea, euskara baita identitate pertsonal, sozial eta kulturalaren adierazpena, euskararen gizarte normalizazioan modu aktiboan parte hartuz.*

**Ebaluazio irizpideak**

- Komunikazio eremuetan, euskara erabiltzea lehenesten du pertsona arteko harremanetan.
- Euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko jardueretan eta euskal kultura transmititzeko jardueretan parte hartzen du.

**Ebaluaziorako orientazioak**

- Eskolatik edo ikasgelatik kanpoko jardueretan ikusleek hizkuntz erabilerak behatzea.
- Euskara bultzatzeko edo horrekin lotutako kultur jardueretan ikasleak izandako parte hartzeen erregistroa.



#### 2.6.5. Kontzientzia soziolinguistikoa: eleaniztasunaren balioespena

*Ezagutzen dituen gainerako hizkuntzak ikaskuntza akademikorako eta pertsona arteko harremanetarako behar bezala erabiltzea, eleaniztasuna balioetsiz adimena, kultura eta gizartea aberasteko elementua den aldetik.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bigarren hizkuntzak ikasteko interesa du.
- Bigarren hizkuntzak erabiltzean, akatsei beldurrik izan gabe komunikatzeko ahalginak egiten ditu.
- Erraz jotzen du beste hizkuntza batera, egoerak eskatzen duenean mintzaidearen hizkuntzara egokitzeko.
- Hizkuntza ezezagunekiko jakin-mina eta interesa du, bai eta gizakiaren hizkuntz aniztasunarekin lotutako informazioa ezagutzeko ere.
- Hizkuntzagatiko bazterkeria egoerez jabetzen da, eta bere jardueretan alde batera uzten ditu edo bere jardueretan ez erabiltzen saiatzen da.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Dagokion arloetan, bigarren hizkuntzen ikaskuntzarekin lotutako jardueretan ikasleak dituen jarrerak eta komunikazio kompetentziak behatzea.
- Ikasketa bidaietan, Europako trukeetan eta abarretan, ikasleak dituen jarrerak eta komunikazio kompetentzia behatzea.
- Familian beste hizkuntza batean mintzatzen diren ikasleen jarrerak behatzea.
- Hizkuntz jarrerei buruzko galdetegia.



### 3.- ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

Gaur egungo gizarteek zenbait erronka handi dituzte. Hona hemen horietako batzuk: herritarrak heztea, etniak, nazionalitateak eta taldeak elkarrekin bakean bizi daitezen; gizarte mota bat garatzea, gure gazteek hura eraikitzen parte hartze aktiboa izan dezaten, beren burua gizartetik babestu edo marjinatu beharrean. Erronka horiei aurre egiteko, zalantzarik gabe, gizarteak eta hezkuntzak ahalegin garbia egin behar dute, helburu argien bitartez, bai eta ebaluazio zehatza ere, lorpenak egiaztatzeko. XXI. menderako oinarrizko hezkuntzaren kalitate hobea lortzeko, ez da nahikoa “gauza bera egitea, denbora luzeagoan”. Nahitaezkoa da beste hezkuntza eredu batean pentsatzea, beste garai batzuetatik jasotako aldaera apaindua bakarrik izan ez dadin.

Elkarrekin bizitzen ikastea, ezagutza transmisioa baino gehiago, gaur egungo hezkuntzaren ikaskuntza garrantzitsuenetakoa da. Alde horretatik, gizarte demokratikoek balio handiko baliabidea dute, gure inguruan gertatzen ari diren zenbait aldaketa sozial azkarrei aurre egiteko: herritarren hezkuntza. Gure ustez, Dakarreko Foroko ekintza plana, XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostena eta Jomtiengo Denentzako Hezkuntzari buruzko Mundu Konferentzia hiru funtsezko ardatz dira, ikaskuntzaren oinarrizko kompetentziak ezartzeko. Kompetentzia horiek ezinbesteko oinarrizko tresnak (irakurmena, idazmena, mintzamina, kalkulua, arazoen irtenbidea) eta ikaskuntzaren oinarrizko edukiak (ezagutza teorikoak eta praktikoak, balioak, jarrerak) dituzte, pertsonak bizirauteko, beren gaitasunak osorik garatzeko, duintasunez bizitzeko eta lan egiteko, garapenean erabat parte hartzeko, bizi kalitatea hobetzeko, funtsezko erabakiak hartzeko eta ikasten jarraitzeko.

Ilde horretatik, 1993. urtearen hasieran, UNESCO erakundeak sustaturiko XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak adierazten zuen garrantzitsua zela herrixka den mundu honetan elkarrekin bizitzen ikastea, bai eta beharrezkoa zela elkarbizitza hori Bake Kultura baten barnean ulertzea ere. Jende askoren iritziz, bizitzarako eta elkarbizitzarako oinarrizko sistema bat ezartzea izan behar du gaur egungo erakundeek onartu beharreko konpromiso garrantzizkoenetako bat, herritartasuna erabiltzeari dagokionez. Esate baterako, Geneva 2001eko Konferentzien Nazioarteko Zentroaren berrogeita seigarren bileran honako hau adierazi zuten: “Giza eskubideen eta giza garapenaren alorrean, hezkuntzaren kalitatea honela defini daiteke: elkarrekin bizitzeko gaitasuna, bai elkarrekin bizitzen jakiteko eta hori nahi izateko lorpenei dagokienez, bai lorpen horiei laguntzen dieten baldintzei eta prozesuei dagokienez”.

Hala ere, elkarrekin bizitzearen kontzeptua bera aldatu egiten da denbora igaro ahala eta kulturen arabera, bai eta hori lortzeko behar diren ikaskuntzak ere. XXI. mendean ditugun erronkei erantzuteko, zenbait galderari erantzun beharko diegu; esate baterako, zein diren gaur egungo ingurunetik ondorioztatzen diren ezaugarri zehatzak, eta zer erantzun eman diezaiokeen gaur egungo hezkuntzak egoera horri.



Banakotasun eta komuntasun balioak itxuraz kontrajarriak direnez, ez dira erraz integrazten gure bizi eta hezkuntza ikusmoldeetan. Hezkuntza-psikologiako literatura egile askoren ustez, gizakiak oso errotuta dituen bi joera bateragarri egin behar dira: batetik, komunitatean bizitzearekin lotuta dagoen segurtasuna bilatzea, eta, bestetik, gizabanakoen askatasuna erabiltzeko beharra. Ekonomia garatua duten gizarte modernoetan, oso erraz ikusten da indibidualismorako eta interes partikularrerako joera handia dagoela. Hala ere, gizabanakoei aukeratzeko eta komunitate justu eta solidarioan bizitzeko duten beharra bateratu egin behar da ikuspegi horiek dakarten konpromiso etikoarekin.

Dena dela, hezkuntzaren profesionalek gai horri heltzen diogunean, zenbait galdera egingen ditugu: Zein izan daitezke, ahal izanez gero, XXI. mendeko erakundeetan garatu behar diren balioei eta konpetentziei buruzko akordioak? Non ikasten eta irakasten dira egoera gatazkatsuetan gidatuko gaituzten balioak eta printzipioak? Zer zeregin dute ereduak, eta zer hezkuntza estrategiak laguntzen diete portaera etikoei, herritartasuna erabiltzean? Zer egin dezakegu hezkuntzatik abiatuta, ikasleek herritar eragileak izaten ikas dezaten, gai izan daitezen laguntzeko, erabaki arduratsuak hartzeko eta gatazkak era baketsuan konpontzeko, nahiz eta ingurura begiratu eta gizartean balio horiek ez direla nagusi konturatu?

UNESCOk adierazi du elkarrekin bizitzen ikasteko ez dela nahikoa talde desberdinen arteko kontaktuak antolatzea eta elkarrekin komunikatzea, baizik eta bi orientazio osagarri behar direla. Lehen maila batean, besteak pixkanaka ezagutu behar dira eta, bigarren maila batean, proiektu komunetan etengabe parte hartu behar da. Beraz, orientazio horiek eskola curriculumean sartu behar dira, baita komunikazioaren teknologia berrietan ere.

Konpetentziak zehaztea hezkuntza helburuei erantzuna emateko era bat da, eta, zalan-tzarik gabe, laguntza handikoa izan daiteke erabiltzen ditugun estrategiak orientatzeko eta ebaluatzeko. "Elkarrekin bizitzen ikasi" izena duen konpetentzia orokorraren barnean, beste konpetentzia batzuk -elkarrekin oso estu lotuak- zehatz daitezke, 1. grafikoan ikus daitezkeen bezala. Konpetentzia horiek hezkuntza esparruetan landu beharko liriateke, bai curriculum formalean, bai ez-formalean. Beste pertsonen arrazoiak eta sentimenduak ulertzeko gauza baldin bagara bakarrik garatuko ditugu gainerako konpetentziak. Baina, enpatia horrek, arrazionala izateaz gain, afektiboa ere izan behar du (emoziozko dimentsioa), elkarrekin bizitzen ikasi ahal izateko.



### 3.1.- PERTSONARTEKO HARREMANAK

**Elkarreragin positiboak izatea, norberaren xedek kontuan harturik, baina besteen beharrak ahaztu gabe.**

Pertsonarteko kompetentzia egokiak elkarreragin positiboa erraztu behar du eta, gainera, honako hauek dakartza berekin: 1) oinarrizko trebetasun konbentzionalak edukitzea, 2) harreman positiboak (enpatia, entzute aktiboa) errazten dituzten komunikazioaren gakoak erabiltzeko gai izatea (hitzezko nahiz hitzik gabeko komunikazioa), 3) besteen mezuak egoki interpretatzen jakitea, eta garbi esaten denari erreparatzeaz gain, emoziozko eta testuinguruko aldagaiei ere erreparatzea, 4) pertsonarteko harremanetan sortzen diren emozioak autoaztertzen jakitea, 5) besteen iritziei, gogoei eta beharrei errespetuzko erantzunak ematea, 6) laguntzeko jarrerak izatea. Beraz, pertsonarteko kompetentzia egokia izango bada, kompetentzia hauek ere egokiak izan behar dute: kompetentzia kognitiboak (esaten dena eta esaten ez dena zuzen interpretatzea, komunikazio era batzuk ala besteak erabiltzearen ondorioak aurreikustea), kompetentzia afektiboak (beste pertsonak adierazten duenarekin enpatia izatea, bai zuzenean, bai inplizituki) eta kompetentzia etikoak (pertsonarteko erantzukizun zentzua izatea, edo norberak egiten/esaten duenaren, esateko moduaren... eraginaz arduratzea).

#### 3.1.1.-Oinarrizko konbentzioak

*Eskolako testuinguruan, ikasgelaren barruan nahiz kanpoan, pertsonarteko harremanetan izaten diren gizarte konbentzioak eta arauak erabiltzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Kortesia eta adeitasuna erakusten du ikaskideekin eta irakasleekin hitz egiten duenean. Hau da, zenbait oinarrizko konbentzio erabiltzen ditu: agurtzea, mese-dez eskatzea, eskerrak ematea.
- Arauak betetzen ditu, eta horiek ulertu ez eta bidegabeak direla iruditzen zaionean, elkarrizketaren bidea aukeratzen du.
- Bere inguruko pertsonen alde positiboa onartu, balioetsi eta hitzez adierazten du, baita pertsona horien ekarpenak ere.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Gizarte konbentzioen eta arauen eginkizuna eztabaidatzeko aukera emango duen jarduera plan bat diseinatzea, eta, benetako egoeretatik abiatuta, oinarrizko alderdien (kortesia, onarpena...) ikuskerak eta balio-espenak aldatzen diren behatzea, banakako galdera sorta labur baten bidez.
- Egoera narratiboak eta kasuak proposatzea, erabakitzeko zein diren ikaskide/irakasleekin erabiltzeko gizarte konbentzio eta arau garrantzitsuenak, ikasgelaren barruan nahiz kanpoan, eta aldian-aldian jarraipen bat egitea (hamabost egunez behin, adibidez).



### 3.1.2.-Entzute aktiboa

**Besteek (ikaskideek, irakasleek...) esaten dutenari erreparatzea, komunikazioa eta elkarrizketa errazten duten jarreraren bidez (hitzezkoak nahiz hitzik gabekoak).**

#### Ebaluazio irizpideak

- Jarrera aktiboa du: arreata jartzen du, entzun egiten du eta besteari begiratzen dio.
- Beste pertsonak hitz egiten bukatu arte itxaroteko gai da, besteari hitza kendu gabe.
- Hitzezko galderak eta formulak erabiltzen ditu, ondo ulertu duela ziurtatzeko ("zuk esan nahi duzuna da...").

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Irakasleak entzute aktiboa lantzeko talde dinamikak eta ikasgelakoak behatzea, eguneroko egoeretatik abiatuta.
- Ikaskideen arteko entzute jarreraren eta portaeren aldizkako behaketa bidezko erregistroak egitea.
- Ikasleek nahiz irakasleek ebaluazio soziometrikoa egitea, Likert eskala erabilita.

### 3.1.3.- Enpatia

**Eskola inguruneke pertsona batek (ikaskide, irakasle...) kezka edo ondoeza adierazten duenean, sentikortasuna eta ulermena erakustea, intereseko jokabide aktiboen bidez.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Inguruko pertsonak hitzik egin gabe, kezka edo ondoeza adierazten dutela konturatzen denean, sentikortasuna eta interesa erakusten du.
- Inguruko pertsonak ondoeza hitzez adierazten dutenean, sentikortasuneko eta ulermenezko jokabidea du (ez du juzgatzen...).
- Kritika bat egiten duenean beste pertsona nola senti daitekeen aintzat hartzen du, eta hobetzen lagundu dezaketen alderdiak jorratzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasleek nahiz irakasleek enpatiar buruzko ebaluazio soziometrikoa egitea, Likert eskala erabilita.
- Entzutea hobetzeko jokoen eta dinamikien bidez diseinaturiko jarduerak autoebaluatzea.

### 3.1.4.-Kontzientzia emozionala

**Norberaren beharrek eta emozioek norberaren nahiz inguruko jokabidean zer eragin duten jakitea, eta ezaguera hori ikasgela barruko nahiz kanpoko harremanen analisisan erabiltzeko gai izatea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Emozioak adierazten ditu, eta berezotasunez eta naturaltasunez esaten du nola sentitzen den.
- Emozioak adierazten badaki, eta besteen ekintzek nola eragiten dioten azaltzeko erabiltzen du.
- Bere inguruko pertsonen emozioak hitzez adierazteko gai da, zer portaera duten ulertzen eta azaltzen saiatzeko.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduera plan bat diseinatzea, emozioak adierazteko hizkuntz baliabideak handitzeko. Eta pertsonarteko egoera hipotetikoetan eta benetakoe-tan erabiltzea, ikasle bakoitzak, galdera sorta baten bidez, bere burua hobetu duen ebaluatzeko.
- Irakaslearen balioespen soziometrikoa.
- Curriculumaren zenbait jarduera hautatzea, emozioak adierazteko hizkuntz baliabideak erabiltzeko gaitasuna ebaluatzeko.

### 3.1.5.- Asertibitatea

**Estilo argia, zuzena eta errespetuzkoa erabiltzea, nork bere ikuspuntuak defendatzeko eta emozioak ikasgela barruan nahiz kanpoan adierazteko. Eta beste pertsonen behar, iritzia, interes eta emozioekiko sentikortasuna adieraztea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Iritziak eta interesak argi, zuzen eta errespetuz azaltzen ditu.
- Zerbaitekin ados ez dagoenean, ezetz esateko gai da, argi eta errespetuz, baita hori egiteari uko egiteko gai ere.
- Kritikak egiten ditu, argi eta garbi eta errespetuz.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa bidezko erregistroak egitea rol jokoetan eta simulazioetan.
- Behaketa bidezko erregistroa egitea taldeko benetako egoeretan, portaera ez asertiboak hautemateko, taldean eztabaidatzeko eta hobetzeko erak proposatzeko.
- Astean behin, ikasleek asertiboak izateko zailtasunak zein egoeratan dituzten autoerregistratzea.

### 3.1.6.- Prosozialtasuna

**Laguntza behar duten inguruko pertsonen (ikaskideak, irakasleak...) jarrera positiboak erakustea, eta harremanak hobetzen laguntzea.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Benetako egoeretan, laguntzeko portaera erakusten du, inork eskatu gabe.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasleen eta irakasleen teknika soziometrikoak.



### 3.2.- GATAZKAK KONPONDU

**Indarkeriarik gabeko irtenbideak topatzea, “aldeetako batek eragindako eragozpenaren edo haserrearen aurrean beste aldeak frustrazioa esperimendatzen duen” egoeretan; irtenbideak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez lortuko dira.**

Gatazkei modu egokian aurre egiteko gaitasunak oinarri bat du: elkarreragin positiboko pertsonarteko gaitasun ona izatea, eta pentsamolde, interes, nahi edo/eta behar kontrajarriak dituzten egoera bereziki konplexuetan erabiltzea, egoera horietan sortzen diren emozio negatiboak kontrolatuz, eta modu eraikitzailean bideratzeko gai izanez. Konpetentzia konplexua da, eta konpetentzia batzuk ongi erabiltzea eskatzen du: kognitiboak (hausnarketa prozesua: gatazka zergatik sortzen den identifikatzea, alternatibak aztertzea, aldeko eta kontrako arrazoiak baloratzea, etab.), afektiboak (autokontrola) eta etikoak, besteari gertatzen zaionarekiko kezka eta interesa garrantzitsua den heinean.

#### 3.2.1.- Emozioak erregulatzea eta kontrolatzea

*Gatazka egoeretan sortzen diren emozioak ezagutzea, eta modu kontrolatuan bideratzea eta adieraztea; hau da, gatazka sortu duen pertsonarekiko jarrera oldarkorrak eta bortitzak agertu gabe, eta emozioak erreprimitu gabe.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ikaskideekin/irakasleekin dituen harremanetan tentsio emozionala, haserrea edo sumindura handia sortzen dioten egoerak identifikatzen ditu.
- Zenbait estrategia ezagutzen ditu tentsioa, haserrea edo sumindura eragiten dioten egoeretan oldarkor eta modu erasotzailean ez aritzeko, edo egoerak ez saihesteko.
- Erantzun oldarkorrak eta erasotzaileak kontrolatzen ditu, haserre edo suminduta dagoenean.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Saio bat erabiltzea emozio biziak sortzen dizkiguten egoeren gainean hitz egiteko, eta beste bat emozioak autokontrolatzeko estrategien gainean hitz egiteko. Ikasleei eskatu bakoitzak bere burua ebaluatzeko, estrategia horien erabilerari dagokionez.
- Oldarkortasuna esperimendatu duten egoeren erregistro pertsonala egitea, eta erantzun portaerak autoebaluatzea.
- Teknika soziometrikoak.

#### 3.2.2.- Pentsaera gogoetatsua

*Erantzuteko zenbait aukera kontuan hartzea eta analizatzea, gogoeta prozesu sistematikoetan oinarrituta, pertsonarteko, talde eta gizarte egoeretan sortzen diren gatazkei erantzuteko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Gatazka zertan datzan mugatzen du, eta alde bakoitza baldintzatzen duten egoeren eginkizuna aztertzen du.
- Gatazka konpontzeko zer aukera egon daitezkeen pentsatzen du, eta aukera bakoitzaren abantailak eta desabantailak balioesten ditu.
- Aukera bat hautatzen du, aukera bakoitzak izan ditzakeen ondorioak aurreikusiz, izandako eskarmentuan eta alde aurreko emaitzetan oinarrituta.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduera plan bat diseinatzea, elkarlanean aritzeko taldean elkartzean sortutako gatazkei buruz gogoeta egiteko. Eta pentsaera gogoetatsuko estrategia azaldu ondoren, estrategia horri buruzko autoebaluazioa egiteko eskatzea.
- Jarduera plan bat diseinatzea, curriculum materiarekin loturiko gatazkek (gatazka historikoak) eta talde gatazkek aztertzeke. Talde koordinatzaile bat izendatzeko eskatzea, pentsaera gogoetatsuen urratsei jarraitzeko; eta beste koordinatzaile bat, parte hartzeak erregistratzeko.
- Nork bere portaeren eta hobekuntzen erregistroa egitea.

#### 3.2.3.- Negoziazioa

*Beste pertsona batzuekiko gatazka konpontzeko, elkarriketa bultzatzea eta konponbideak bilatzea, alde bien interesak kontuan hartuz.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Pertsona eta arazoa bereizten ditu, eta ikaskideekin nahiz irakasleekin duen gatazka batean bere ikuspuntua azaltzen duenean, ekintzei begiratzen die, ez asmoiei.
- Badaki gatazkan interes kontrajarriak kontuan hartu behar direla, eta gatazkaren beste aldean dauden pertsonen interesak aztertzen ditu.
- Bere beharrak eta interesak zein beste aldearenak kontuan hartzen dituzten konponbide aukerak azaltzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasgelan sortzen diren gatazkez baliatzea, negoziazioaren estrategia proposatzeko, eta trebetasunak eta hobekuntzak behatzea (hobe da gertakarien erregistroa egitea).
- Negoziazio trebetasunak ebaluatzea, teknika soziometrikoen bidez.





### 3.2.4.- Bitartekotza

*Eragile aritzea, gatazkaren bat duten ikaskideek hitz egin dezaten eta alde bietarako konponbide egokiak bila ditzaten.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Ikaskideek gatazka bat dutenean, haiek hitz egin eta konponbideak bila ditzaten errazten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Irakaslearen behaketa bidezko erregistroa.
- Ikasleek egoera mota hauen autoerregistro bat egitea: ikaskide batzuek gatazka bat dutenean, gatazka horren konponbidea errazteko, beste ikaskide batzuek parte hartu duteneko egoerak.

## 3.3.- PARTE HARTZE DEMOKRATIKOA

**Parte hartze aktiboa izatea eskola testuinguruaren barnean nahiz kanpoan. Horretarako, protagonismoa banatu egingo da, gizarte kohesio handiagoa garatzeko eta bazterkeriaren aurka egiteko.**

Herritar guztiek parte hartzeko aukera izatea lortu nahi da, pertsona guztien oinarrizko eskubideen defentsa ziurtatuko duen erakundearen eta gobernuaren arteko lankidetzaren bermatzeko. Parte hartze demokratikoaren bidez, pertsonen eskubideak eta egindako akordioak gehiago errespetatzea lor daiteke. Konpetentzia hori garatzeak protagonismoa banatzea dakar, eta, beraz, bazterkeriaren aurka egiteko modu bat da. Parte hartze demokratikoak aukera berdintasuna errazten du, ikastetxearen barnean nahiz kanpoan; horretarako, garrantzitsua da pertsona guztiek zeregin nabarmena edukitzea taldearen barnean (familia, eskola, auzoa, komunitatea, etab.), eta berdintasun status batean lan egitea, helburu berak lortzeko.

Partaidetzak erantzukizuna garatzen laguntzen du, bai eta hitz egiteko, entzuteko, antolatzeke, ebaluatzeke, ikasteko eta taldean lan egiteko gaitasuna garatzen ere. Halaber, partaidetza erakundeetan esku hartzeko estrategia bat da, eta erabakiak hartzen laguntzen du, baita pertsonak gusturago sentitzen ere, aukera ematen baitie beren iritzia adierazteko; horrek hartutako erabakiekiko inplikazioa eta konpromisoa errazten du. Baina partaidetzarekin batera demokraziaren balioak ez badaude, eta partaidetza hori guztien ongia lortzera bideratuta ez badago, bazterkeriaren mekanismo bilaka daiteke.

### 3.3.1 Arauak egitea

*Giza taldeen bizikidetzaren errazten duten arauak sortzen eta betetzen parte hartze eraikitzailea izatea eta, arau horiek bidegabeak direnean, aldatzeko lan egitea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Badaki bizikidetzaren arauak garrantzitsuak eta beharrezkoak direla.
- Denek adostutako arauak errespetatzen ditu.
- Arauak sortzen parte hartzen du.
- Taldearen bizikidetzaren arauak onartzen eta betetzen ditu.
- Arauak bidegabeak direnean, horiek aldatzeko beharra adierazten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa, arauak sortzen parte hartzen duten jakiteko. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Narrazio erregistroak, ikasgela barruko eta kanpoko jardueren arauak errespetatzen diren jakiteko.
- Elkar ulertzeko bizikidetzaren arauak sortzea beharrezkoa duen jardueraren bat diseinatzea, eta horren erregistro sistematikoa egitea, behaketa fitxen bidez.
- Arauak bidegabeak direlako, horiek aldatzeko beharra azaltzen duten egoera hipotetikoak eta benetakoak proposatzea, eta horien erregistro sistematikoa egitea, behaketa fitxen bidez.



### 3.3.2 Erantzukizuna

**Arduratsu sentitzea eta talde jardueretan parte hartzea, eskola testuinguruan emandako lanak betez.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Badaki arduratsu izatea garrantzitsua dela talde osoak ondo funtzionatzeko.
- Taldearen jardueretan parte hartzen du, eta eskola testuinguruan dagozkion lanak eta ardurak betetzen ditu.
- Arduratsua da, eta badaki ikasgelako betebeharrak betetzeko konpromisoak hartzen.
- Onartzen du taldeko kide bakoitzaren parte hartze arduratsuak laguntzen duela ikastetxeko giroa hobetzen, baita garatu beharreko lana hobetzen ere.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa, talde jardueretan zenbateraino parte hartzen duten jakiteko.
- Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Jarduerak diseinatzea, honako hauek kontuan hartuz: taldeko kide bakoitzaren erantzukizuna zehaztea eta jarduera horiek egiteko denen partaidetzaren garrantzia aztertzea.
- Nork bere burua ebaluatzea, galdera sorta baten bidez, partaidetza eta taldearekiko konpromisoa lortu duen jakiteko.
- Zerbait denen artean lortzeko pertsona bakoitzaren erantzukizunaren eta konpromisoaren beharri buruzko eztabaidak egitea. Horien helburua nork bere burua ebaluatzea da, galdera sorta baten bidez, norbanakoaren erantzukizuna lortu den jakiteko.
- Ahozko autotxostena egitea, eta taldearekin batera tutoretzan eztabaidatzea.
- Idatzizko autotxostena egitea.

### 3.3.3. Protagonismoa banatzea

**Pertsona guztien partaidetza erraztea bereizketarik egin gabe, inork bere burua baztertuta senti ez dezan.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Protagonismoa banatzea garrantzitsua dela onartzen du, denon partaidetza errazteko mekanismo bat baita.
- Talde lan bat egin behar denean, ez du bereizketarik egiten ikaskideen artean.
- Jolasean aritzen direnean, ez du bereizketarik egiten ikaskideen artean.
- Eskola jardueretan, denek protagonismoa izan dezaten saiatzen da.
- Eskola jardueretan, pertsona baztertuek ere parte har dezaten ahalegintzen da.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa, protagonismoa banatzen zenbateraino parte hartzen duten jakiteko. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Protagonismoa banatzearen garrantziari buruzko eztabaida taldea, inor ez baztertzea errazteko. Literatur testuren bat, pelikularen bat edo gertaera historikoren bat aztertzea, eta ez baztertzeari buruz norberak duen jarrera ebaluatzea, autotxosten baten bidez.
- Ikastaldean denon partaidetza sustatzen duten jarduerak diseinatzea: lehiaketa taldeak, antzerkiak, antzezpenak, etab. Eta behaketa sistematikoa egitea, behaketa fitxen bidez.
- Bilerak egitea, zenbait arrazoiengatik baztertuta sentitu diren pertsonen sentimenduak eztabaidatzeko, egoera hipotetiko edo benetako batean oinarrituta. Horren helburua ikasle bakoitzak bere gogoeta egitea da, autotxostenaren bidez.
- Ohar deskribatzaileak eta inferentzialak.

### 3.3.4 Elkarrizketa erabiltzea

**Elkarrizketa erabiltzeko gai izatea, bere ideiak adierazteko eta taldekide guztien partaidetza sustatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Besteen arrazoiak eta argudioak arretaz entzuten ditu.
- Berarekin bezalakoak ez diren arrazoi eta argudioak errespetatzen ditu, eta elkarrizketaren bidez azaltzen ditu bere arrazoi eta argudioak.
- Badaki elkarrizketa bere ideiak azaltzeko bide bat dela.
- Elkarrizketa erabiltzen du, bere ikaskideei eskola jardueretan parte hartzen laguntzeko.
- Denbora hartzen du elkarrizketan aritzeko.
- Ikasgelan elkarrizketa giroa sortzen laguntzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa, elkarrizketa zenbateraino erabiltzen duen, entzuteko zenbateko gaitasuna duen eta elkarrizketan aritzeko zenbat denbora erabiltzen duen jakiteko. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Gertaeren azterketa. Benetako egoeraren bat aztertzea, elkarrizketa denon partaidetza sustatzeko mekanismo bat dela egiaztatu ahal izateko. Horren helburua ikasle bakoitzak bere gogoeta egitea da, autotxostenaren bidez.
- Elkarrizketa erabiltzea eta denek parte hartzea errazten duten jarduerak diseinatzea. Eta horien behaketa sistematikoa egitea, behaketa fitxen bidez.
- Ohar deskribatzaileak eta inferentzialak.

### 3.3.5 Herritarren partaidetza

**Ikastetxean eta auzoan egiten diren jardueretan modu aktiboan eta arduratsuan inplikatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Herritarren partaidetza guztien onerako garrantzitsua dela onartzen du.
- Bere eskola elkarteko talde jardueretan modu aktiboan inplikatzeko da.
- Bere auzoko talde jardueretan modu aktiboan inplikatzeko da.
- Herritarren partaidetzak demokrazia indartzen duela jabetzen da.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Herritartasun globalaren kontzeptuaren garrantziari buruzko eta demokrazia ondo funtzionatzeko herritarren partaidetzaren garrantziari buruzko eztabaida. Horren helburua ikasle bakoitzak herritarren partaidetzak duen garrantziari buruzko gogoeta egitea da, galdera sorta baten bidez.



- Ikaskideen artean elkartzea sustatzen du, eskolako jardueretan parte hartzeko bidea baita.
- Guztien ongia sustatzen duen bere auzoko elkarteren batean hartzen du parte.

- Erdi egituratutako elkarrizketa bat egitea, informazioa biltzeko eta eskolako eta auzoko talde jardueretan zenbateraino parte hartzen duen ebaluatzeko.
- Herritarren partaidetzari buruzko gaiak lantzen dituzten simulazio jokoak egitea, zenbait testuingurutan: legebiltzarrean, udalean, eskolan, auzoan, etab. Horren helburua parte hartzearen garrantzia norberak balioestea da, idatzizko autotxostenaren bidez.

### 3.4.- ELKARLANA ETA TALDE LANA

**Beste batzuekin talde lana egitea, eta elkarrekin lan eginez, helburu komunak lortzea. Horren helburua behar diren trebetasunak garatzea da, mundu konplexuan modu aktiboan integratzeko.**

Argi dago talde lana eta elkarlana ezinbestekoak direla gero eta handiagoa den munduko elkar-mendekotasunean modu positiboan integratzeko. Konpetentzia horrek beste pertsona batzuekin elkarlanean aritzea dakar, erantzukizunak partekatzeko eta helburu berriak lortzeko. Beste pertsona batzuekin elkarlanean arituz gero, elkartasuna indartzen eta lantzen da, hurbileko nahiz urrutiko testuinguruetan. Talde lanaren bidez, kide bakoitzaren trebetasunak eta mugak osa eta aberats daitezke. Halaber, talde lanak aukera ematen du nork bere burua hobeto ezagutzeko (ahuleziak eta indarguneak). Elkarlanari eta talde lanari esker, zenbait trebetasun eskura daitezke, gero eta konplexuagoa den munduan modu aktiboagoan integratzeko.

#### 3.4.1. Errespetua

*Lan egiteko era eta estilo desberdinak errespetatzea, lorpen komunak eskuratzeko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ikaskideen lan estiloak errespetatzen ditu, bai erritmoari, bai gaitasunari, bai nor-tasunari dagokienez.
- Badaki berarekin ez bezalako iritziak eta ideiak errespetatzen.
- Talde lanean aritzen denean, badaki zein diren bere betebeharrak eta zein bestearenak.
- Konturatzten da errespetua beharrezkoa dela talde lanean aritzeko.
- Talde jardueretan, ikaskideen eskubideak errespetatzen ditu.
- Ikaskideen aurrean errespetua jartzen badaki.
- Ikaskideei bere lan egiteko modua egokia dela erakusten die, nahiz eta desberdina izan.
- Taldeko gehiengoaren erabakiak onartzen ditu, nahiz eta bere erabakiekin bat ez etorri.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa egitea, ikaskideak errespetatzeko jarrera duen jakiteko. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Galdera sorta bat prestatzea, talde lanetan zenbaterainoko errespetua adierazten duen jakiteko.
- Eztabaida bat egitea, errespetu faltak oinarrizko giza eskubideak bermatzen ez dituen egoera hipotetiko edo benetako bati buruzkoa. Horren helburua giza eskubideak errespetatzearen garrantziari buruz nork bere balioespena egitea da, autotxostenaren bidez.
- Jarduerak diseinatzea, talde heterogeneoekin talde lanak egiteko; hau da, gaitasun, ikasteko erritmo eta nortasun desberdinak dituzten ikaskideekin lan egiteko. Horretarako, behaketa sistematikoa egingo da, behaketa fitxen bidez.

#### 3.4.2. Elkarlanean aritzeko jarrera

*Talde lanetan elkarlanean aritzeko duen etengabeko jarrera erakustea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Lana ondo egiteko, elkarlana beharrezkoa dela ulertzen du.
- Gustura aritzen da elkarlanean hainbat zereginetan.
- Taldean aritzen denean, badaki bere interesak eta taldearenak orekatzen.
- Ikasgelan lankidetzat giroa sortzen laguntzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Talde lanetan elkarlanean aritzeko duen jarrerari buruzko behaketa sistematikoa. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Ikasleen jokabideei buruzko erregistroak.
- Irakasleen gertaerei buruzko erregistroak.
- Idatzizko autotxostena.
- Ohar deskribatzaileak.



### 3.4.3. Elkartasuna

*Taldekidetza eta komunitateko kideei laguntzen jakitea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Taldekideei laguntzen die, ordainetan ezer jasotzerik espero gabe.
- Talde lanak egitean, laguntza desinteresatua ematen du.
- Gehien behar dutenei laguntzeko joera du.
- Taldekideei laguntzeko interesa azaltzen du.
- Auzoko pertsonetara laguntzen die, lankidetzaren proiektuen bidez.
- Taldearen eta komunitatearen parte aktibotzat du bere burua.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Besteiei laguntzeko duen jarrerari buruzko behaketa sistematikoa egitea. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Galdeketa bat egitea, zenbait testuingurutan solidarioa izateko zer gaitasun duen ikertzeko.
- Ikasleen jokabideei buruzko erregistroak.
- Irakasleak egindako narrazio erregistroak.
- Ohar deskribatzaileak eta inferentzialak.

### 3.4.4 Partekatzea

*Eskolako testuinguruan nahiz hortik kanpo, taldean egiten diren jarduerak garatzea eta partekatzea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Proiektuak eta ideiak ikaskideekin partekatzen ditu.
- Bere mugak ezagutzen ditu, eta besteekiko harremanekin aberasten da.
- Besteengan konfiantza du, talde lana egiteko.
- Bere interesak alde batera uzteko gai da, ikaskideekin zenbait jarduerak partekatzeke.
- Talde jarduerak garatzea sustatzen du, bai eskola testuinguruan, bai hortik kanpo.
- Badaki talde lanaren lorpenak hobek direla banakako lanak batuta baino.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Partekatzeke duen gaitasunari buruzko behaketa sistematikoa egitea. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Ikasleen jokabideei buruzko erregistroak.
- Simulazio jokoak eta talde jokoak egitea, guztien ongia lortzeko giza besteekin partekatzeke duen beharra adierazteko. Horren helburua besteengan konfiantza izateari eta besteekin partekatzeari buruzko autoebaluazioa egitea da, idatzizko autokostenaren bidez.

### 3.4.5. Jardutea

*Zenbait lan taldean eta batzordetan lankidetzan aritzea dakarten jarduerak egitea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Ikastetxeko lan batzordeetan parte hartze aktiboa du.
- Jarduerak eta jokoak egiten ditu beste ikaskide batzuekin.
- Talde lanak sustatzen ditu, lorpen komunak eskuratzeko.
- Bere auzoko elkarteetara laguntzen die, guztien ongirako jardueretan.
- Ikaskideei laguntzen die.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa sistematikoa egitea, talde lanetan zenbateraino inplikatzeko den jakiteko. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Galdeketa bat egitea, talde lanean eta elkarlanean zenbateraino inplikatzeko den aztertzeke eta ebaluatzeke.
- Idatzizko autokostena.
- Tutoretzan eztabaidatutako ahozko autokostena.

## 3.5.- ANIZTASUNA

**Norberarekiko desberdinak diren pertsonak eta pentsaera desberdina dutenak onartzea. Horretarako, ezaugarri psikologiko eta fisiko, adin, sexu, maila sozioekonomiko eta kultura desberdina duten pertsonekin zenbait proiektutan elkarlanean arituko dira, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta oinarrizko giza eskubideak bermatzeko.**

Nork bere identitatea izateko eskubidea errespetatzea eta aukera berdintasunarekin bateragarri egitea da helburua. Hau da, konpetentzia hori garatzeak pentsaera eta egiteko modu desberdina duten pertsonak onartzea dakar, baina gure identitatea galdu gabe; bai eta norberarena ez bezalako testuinguru, herrialde, arraza edo kulturetako pertsona guztiak onartzea ere. Aniztasuna pertsonen eta taldeen elkar ulertzeke alderdi positibotzat hartu behar da. Konpetentzia hori garatzeko, baterako proiektuetan elkarlanean aritu behar da, beste pertsona, talde edo erakundeekin, guztien ongia hobetzen laguntzeko eta giza eskubideak nazioartean bermatzeko, desberdina izateagatik inor baztertu gabe.



### 3.5.1 Besteak onartzea eta balioestea

#### *Norbera ez bezalako ikaskideen balioa onartzea.*

##### **Ebaluazio irizpideak**

- Bera ez bezalako ikaskideen balioa onartzen du.
- Ohartzen da pertsonen arteko desberdintasunak bizikidetzara aberasten dutela.
- Pertsonak beren berezko balioetatik onesten ditu.
- Eroso sentitzen da pertsona desberdinekin lan egiten edo jolasten.
- Pertsona desberdinekin enpatia ageri du.

##### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Norbera ez bezalako pertsonak onartzeko eta balioesteko gaitasunari buruzko behaketa sistematikoa. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Galdeketa bat egitea pertsona desberdinak zenbateraino balioesten eta onartzen dituen jakiteko eta ebaluatzeko.
- Idatzizko autotxostena.

### 3.5.2 Onartzea

#### *Beste izaera, pentsaera eta portaera bat duten pertsonak onartzea*

##### **Ebaluazio irizpideak**

- Bera ez bezalakoak diren pertsonak onartu eta horiekin harremanak ditu.
- Bera ez bezalako pertsonekin jarduerak egin eta horietan parte hartzen du.
- Beste kultura batzuetako pertsonekin elkarlanean aritzeko eta horiei laguntzeko jarrera erakusten du.
- Beste kultura, arraza eta erlijioetako pertsonekin elkarlanean aritzen da bere komunitateko proiektuetan.
- Irekia eta harkorra da ezaugarri fisikoak, adina, sexua eta maila sozioekonomikoa desberdinak dituzten ikaskideekin.

##### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Pertsona desberdinak onartzeko gaitasunari buruzko behaketa sistematikoa. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Idatzizko autotxostena.
- Galdeketa bat egitea berea ez bezalako kultura, arraza edo erlijioetako pertsonak zenbateraino balioesten, onartzen eta horiekin proiektuetan parte hartzen duen jakiteko eta ebaluatzeko.
- Ohar deskribatzaileak.

### 3.5.3 Gaitasun kritikoa

#### *Norbait desberdina delako baztertzeko dutenean, kritikoa izatea eta desadostasuna adieraztea.*

##### **Ebaluazio irizpideak**

- Baztertzeko mota guztien aurka dago.
- Norbait desberdina delako baztertzeko dutenean, argi adierazten du ados ez dagoela.
- Estereotipoak saihesten saiatzen da, eta bera ez bezalakoak diren pertsonak ezagutzen ahalegintzen da.
- Gertakizun zehatz bat orokor ez bihurtzen saiatzen da.
- Ausardia erakusten du, taldearen ez bezalako ideiak adierazi behar dituztenean.

##### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Gaitasun kritikoa buruzko behaketa sistematikoa. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Simulazio jokoak egitea, gizarte bazterketari buruzko egoera hipotetikoak edo benetakoak antzetzeko. Horren helburua bazterketaren aurkako iritzia ematearen garrantziari buruzko autoebaluazioa egitea da, idatzizko autotxosten baten bidez.
- Pentsaera kritikoa errazten duten egoerak diseinatzea, eta horren behaketa sistematikoa, behaketa fitxen bidez.
- Ikasleen jokabideei buruzko erregistroak.

### 3.5.4. Tolerantzia aktiboa

#### *Beste pertsonen irizki desberdinak izateko eskubidea dutela onartzea eta horien duintasuna errespetatzea.*

##### **Ebaluazio irizpideak**

- Bera ez bezalako pertsonak onartzen dituela erakusten du; hau da, sexua, adina, hizkuntza, kultur jatorria, ohitura, adimen maila, nortasuna eta ikaskuntza maila desberdinak dituzten pertsonak.
- Gainerako pertsonen pentsaera desberdina izateko eskubidea dutela onartzen du.
- Gogo onez onartzen ditu berarekin ez bezalako erabakiak.
- Badaki irizki desberdinak izatea lagungarri dela adostasun bila aritzeko.
- Pentsaera desberdina izateko eskubidea erabiltzen du.
- Bere eskola testuinguruan, tolerantzia giroa errazten laguntzen du.

##### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Tolerantzia gaitasunari buruzko behaketa sistematikoa. Maiztasun erregistroak dituzten behaketa fitxak: inoiz ez, batzuetan bakarrik, normalean bai.
- Ohar deskribatzaileak eta inferentzialak.
- Jarduerak diseinatzea, pertsona desberdinak elkarrekin lanean aritzea sustatzeko, irizki desberdinak izatea bultzatzeko eta adostasun bila aritzen laguntzeko. Horren behaketa sistematikoa egitea, behaketa fitxen bidez.
- Tutoretzan eztabaidatutako ahozko autotxostena.
- Idatzizko autotxostena.




## 4.- NORBERA IZATEN IKASI

“Norbera izaten ikasi” konpetentzia giltza da giza garapenerako, gainerako konpetentzien garapenaren oinarria baita; funtsezkoa da, halaber, hezkuntzaren funtzio nagusia lortzeko, hau da, Euskal Curriculumuma Diseinatzeko proposamenean jasotako funtzio nagusi hau lortzeko: pertsonari dimentsio guztietan garatzen laguntzea, bai gizabanako, bai gizartekide, bai izadikide den aldetik.

Proposamena giza garapenaren teorian oinarritzen da. Gizabanakoaren dimentsioak osatzeko konpetentziak lortzen joatea eskatzen du, eta konpetentzia horiek gero eta konplexuagoak izango dira bizitzan aurrera egin ahala. Garapen prozesua da, eta kontzientzia mailan pixkanaka aurrera egitea eskatzen du.

“Norbera izaten ikasi” konpetentziak aurretiazko konpetentzia batzuk lortzen joatea eta gerora integraztea eskatzen duela uste dugu.



*Norberaren kontrola eta oreka emozionala* konpetentziarekin ekingo diogu mailaketa horri. Kokatze esperientzia da; horrek norbanakoari munduan eroso egoteko bidea irekiko dio, antsietaterik gabe, eta emozioak kontrolatzeko eta bideratzeko gaitasuna emango dio, norberaren jarrera aurreikusitako lorpenetara bideratu dezan.

*Giza garapenaren dimentsio fisikoak* garrantzi berezia du adin horietan, eta horregatik behar du tratamendu espezifikoa. Gorputza, itxura fisikoa, sexualitatea eta afektibotasuna aldatu egiten dira, eta higiene eta elikadura osasuntsurako ohiturak lortzeko prozesurekin batera, osasuna, gizarteratzea eta gozamina sustatzeko bitartekoak dira.

*Nork bere buruaren estimua* giza garapenerako konpetentzia giltza da. Norbanakoak norbanako garrantzitsuek balioestea du, besteengan konfiantza izanez hazteko, baliagarri eta bere buruarekin gustura sentitzeko; behar hori du sentitzen eta gai izaten ikasi aurretik, lehenik eskolan, gero lanean. Geure buruaren estimurik gabe ez dugu konfiantzarik gudan, ezta besteengan ere, eta horrek nabarmen mugatzen du ikas-teko, lan egiteko eta harremanak izateko trebetasuna.

*Autonomia* nork bere burua ezagutzeko eta munduan egoteko duen modua da. Eta norberaren ahalmenak eta mugak objetiboki ezagutzuz gero, pertsona bakoitzak bere biografia eraiki dezake, subjektu askea, kontzientea, kritikoa, arduratsua eta sortzailea den aldetik.

*Edertasunaz* gozatzen jakitea (bai naturaren edertasunaz, bai artearen edertasunaz), eta *emozio estetikoen* aurrean sentibera izatea mundu ikuskera berrietarako ateak irekitzeko eta ekintza berritzaileak suspertzeko bidea da.



“Norbera izaten ikasi” kompetenziaren garapenaren adierazpen osoena *integrazio pertsonala* da. Garapen intelektuala, espirituala, emozionala eta fisikoa eskatzen du, eta, aldi berean, elementu horien guztien batura da, garapenaren ikuspegi orokorretik. Harmonia esperimintatzeko beharrek dago loturik, bai norberaren harmonia, bai besteekiko harremanen harmonia. Mundu ikuskera horrek norbanakoaren ikuspuntua gainditzea eskatzen du, “niatik” “gu” adierazpenera igarotzea, gizarte ekintzaren eta lankidetzaren bidez.

Kompetentziak garatzeko, beharrezkoa da kompetentzia horien balioak kontuan hartzea. Hala izan ezean, pertsona zatikatu egingo da, eta horrek integrazioa eragotziko du.

Ezarritako kompetentzien azpian dauden balioak jarreraren eragileak dira, eta mundu ikuskera zehatza eta ingurunearekiko, norberaren buruarekiko eta besteekiko jarrera berezia eratzten dute.

Kompetentziak ulertzeko modu horrek eragin garrantzitsuak ditu, “Norbera izaten ikasi” kompetentzia lantzeko. Adibidez, norbanakoak ez badu bere burua balioesten, zaila izango zaio besteak balioestea, baita elkarrenganako errespetuan oinarritutako harremanak izatea ere, lankidetzara eta ez lehiakortasunera bideratutako harremanak, alegia.

Nork bere burua eta besteak balioesten irakasten bazaie ikasleei, ikuspegi egozentrikoak gainditzen lagunduko diegu, bai eta lankidetzara jarrerak eta jarrera altruistak garatzen ere, eta autonomia garatzeko bidea ezarriko da. Horrela bada, parte hartzeko, elkar errespetatzeko eta tolerantzia izateko, lankidetzarako eta elkartasuneko jarrerak hartzen lagunduko zaie, bizikidetzara demokratikoaren oinarri baitira.

#### 4.1. GORPUZTASUNA

**Nork bere gorputza onartzea, gorputz aldaketak eta sexualitatea arduraz barneratuz, eta ohitura osasungarriak hartuz, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.**

Nork bere gorputza onartzea, horren funtzionamendua, itxura fisikoa, sexu adierazpena eta afektibitatea ezagutzea, onartzea eta aintzat hartzea da; gorputza komunikatzeko bitartekoa da, bai gizakiekin, bai inguruarekin.

Hauk dira osasuna prebenitzeko hartu beharreko ohiturak: higiene ohiturak, elikadura osasuntsua eta orekatua, ariketa fisikoa egitea eta drogak eta arrisku jarrerak baztertzea. Horrek guztiak gorputzarekiko ardura garatzen laguntzen du, eta egoera onean izateak duen garrantzia nabarmentzen du.

Nork bere burua arduraz onartzeak gozatzeko, besteekin komunikatzeko eta giza eta natura inguruarekin erlazionatzeko aukera ematen du; hau da, nor bere buruarekin ongi sentitzeko.

##### 4.1.1 Gorputzaren aldaketak barneratzea

*Gorputzaren aldaketak onartzea, eta nor bere gorputzarekin gustura sentitzea.*

###### Ebaluazio irizpideak

- Adinari dagozkion gorputzaren aldaketak ezagutzen ditu.
- Gorputzaren aldaketak onartzen ditu.
- Gorputzaren aldaketak integratzen ditu.
- Bere gorputzarekin gustura dagoela adierazten du.

###### Ebaluaziorako orientazioak

- Bere gorputzarekin gustura dagoela adierazten duten jarrerak, mugimenduak edo gorputz harmonia behatzea.
- Gorputzaren mugimendua behatzea kirol jardueretan edo ariketa fisikoa egitean.
- Autokontzeptuaren dimentsio fisikoari buruzko eskalak edo galdera sortak.



#### 4.1.2 Itxura fisikoa barneratzea

*Nor bere itxura fisikoarekin ongi sentitzea, eta besteena errespetatzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Pertsonen itxura fisikoaren aldeak positiboki balioesten ditu.
- Besteak estimatzen ditu, itxura fisikoa edozein dela ere.
- Bere itxura fisikoa onartzen du.
- Pertsonen, arrazen eta sexuen arteko desberdintasun fisikoak ezagutzen ditu.
- Errealitatea eta lortu ezin diren gizarte ereduak bereizten ditu.
- Bere buruarekiko duen pertzepzioa eta besteek dutena desberdinak izan daitezkeela onartzen du.
- Besteen itxura fisikoa onartzen du.
- Besteak balioesten ditu, itxura fisikoa edozein dela ere.
- Kritikoa da gizarte ereduarekin.
- Bere itxura fisikoa onartzen du.
- Jarrera kritikoa du genero eta arrazagatiko jarrera sozial baztertzailerak eragindako injustizien aurrean.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Autokontzeptuaren dimentsio fisikoari buruzko eskalak edo galdera sortak.
- Itxura fisikoa behatzea (arropak, orrazkera, makillajea, apaingarriak). Gainerakoen itxuraren aurrean hartzen duen jarrera behatzea.

#### 4.1.3 Gorputza zaintzea

*Elikadura, higie eta gorputz zainketako ohitura osasungarriak izatea, eta jokabide arriskutsuak saihestea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere elikadura osoa eta orekatua da.
- Higie ohitura egokiak ditu.
- Astialdiaren zati bat ariketa fisikoa egiteko erabiltzen du.
- Ohitura osasungarriak ditu forma fisiko onari eusteko.
- Higie eta gorputza zaintzeko ohitura egokiak ditu.
- Kirolen bat egiten du.
- Elikatzeko ohitura osasungarriak izateaz arduratzen da.
- Ariketa fisikoa erregulartasunez egiten du, modu osasungarrian.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduerak diseinatzea ikasleek gorputza zaintzeko eta ohitura osasungarriak izateko plan bat egiteko ardura har dezaten; jardueren bidez planaren autoebaluazioa eta hausnarketa egingo da.
- Jarduerak erregistratzea epe jakin batean, eta horiek aztertzea.

#### 4.1.4 Droga mendetasunen prebentzioa

*Ohitura arduratsuak izatea drogaren kontsumoarekin, eta arrisku jokabideak baztertzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki drogak zergatik diren kaltegarriak. Drogak bereizten ditu.
- Ulertzen du zer diren "arrisku jokabideak".
- Badaki zer den droga mendetasuna izatea.
- Norbait drogazale bihurtzeko egoera arriskutsuak identifikatzen ditu.
- Droga mendetasunaren ondorioak ezagutzen ditu.
- Badaki nola eskatu laguntza arrisku egoeretan.
- Ez du drogarik kontsumitzen.
- Bere eta besteen droga mendetasun ohiturak baztertzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Drogen kontsumoari, eraginei eta arriskuei buruz duten ezagutza egiaztatzeko jarduerak diseinatzea.
- Ezagutza probak.
- Jarduerak erregistratzea epe jakin batean, eta horiek aztertzea.
- Osasun plan bat egitea, eta jarraipena baloratzea.

#### 4.1.5 Sentimenduen adierazpen fisikoa

*Sentimenduak gorputzaren bidez adieraztea eta besteen adierazpenak onartzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Afektua gorputzaren bidez adierazten du (musuak, besarkadak, etab.)
- Sentimenduak gorputzaren bidez adierazten ditu.
- Gainerako sentimenduen adierazpen fisikoak onartzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketa.

#### 4.1.6 Sexuaren eta emozioen autokontrola

*Emozioen adierazpenak eta norberaren sexu jokabidea mugatzea, bulkadak menderatuz eta ekintzen arrazoiei eta ondorioei buruz hausnartuz.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Gorputzaren aldatzeko gogo aldatuan duten eragina ezagutzen du.
- Bere emozio egoeren arrazoiak identifikatzen ditu.
- Sexu bulkada kontrolatzen du, gainerakoak errespetatuz, eta bizikidetzara arauak kontuan hartuz.
- Kaltea eragin dezaketen sexu estimulu desegokiak ezagutzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Elkarrizketa tutorearekin.
- Elkarrizketa taldearekin.





#### 4.1.7 Sexualitate arduratsua

**Emozionalki ona eta norberarekin eta besteekin arduratsua den sexualitatea izatea.**

##### Ebaluazio irizpideak

- Sexu harremanak afektuaren adierazpentzat hartzen ditu. Kaltea eragin dezaketen sexu estimulu desegokiak ezagutzen ditu.
- Sexu jokabidearen dimentsio afektiboa ulertzen du.
- Antisorgailuak ezagutzen ditu.
- Sexu ohitura arriskutsuak ezagutzen ditu.
- Sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak ezagutzen ditu, baita prebentziorako eta tratamendurako jarraibideak ere.
- Errespetuz aritzen da sexu harremanetan.
- Sexualitate arduratsua darabil.
- Baliabideak ditu sexu ohitura arriskutsuei aurre egiteko.
- Ohartzen da familia plangintzaren beharraz eta garrantziaz.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ezagutza proba.
- Sexualitatearekin lotutako egoerak aztertzeke jarduerak diseinatzea, ezagutzak, iritziak edo eragiten dituen jarrerak ebaluatzeke.
- Sexu jokabidea autoebaluatzeke gidak diseinatzea edo aukeratzea.

#### 4.1.8 Sexualitatea barneratzea

**Nork bere sexualitatea onartzea, norberaren joera sexuala onartuz eta besteena errespetatuz.**

##### Ebaluazio irizpideak

- Joera sexualak ezagutzen ditu.
- Bere sexualitateari buruzko galderak egiten dizkio bere buruari.
- Besteak errespetatzen ditu.
- Giza sexualitatearen aukerak eta adierazpenak ezagutzen ditu.
- Bere joera sexualaz jabetzen da.
- Sexualitatea gizakia errealizatzeke dimentsio garrantzitsua dela ulertzen du.
- Sexualitatea bere zati dela ulertzen du.
- Sexualitatearen adierazpenak errespetatzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Joera sexualarekin lotutako egoerak aztertzeke jarduerak diseinatzea, horren inguruko ezagutzak edo eragiten dituen jarrerak ebaluatzeke.
- Bakoitzak bere burua ebaluatzeke gidak diseinatzea edo aukeratzea.

## 4.2. NORBERAREN KONTROLA ETA OREKA EMOZIONALA

**Emozioak kontrolatzea eta portaerak mugatzea, lortu nahi diren helburuetara bideratuz, bizitzarako ezarritako helburuak lortzeke eta gustura sentitzeke.**

Emozioak kontrolatzea norberarentzat eta besteentzat kaltegarriak diren gogo aldarteak identifikatzea eta menderatzea da; gogo aldarte horiek kaltegarriak dira biziegiak eta desegokiak direlako edo ondorio kaltegarriak eragiten dituztelako.

Nork bere burua kontrolatzeke prozesuak emozioa zerk eragiten duen aztertzeke eta identifikatzeke eskatzen du, baita emozioaren eta estimuluaren arteke egokitasun alderatzeke, eta horri aurre egiteke estrategia egokiak erabiltzeke ere.

Emozioak bideratuta, ekintzak garapen pertsonalera bidera daitezke, eta besteen jarreretan positiboki eragin.

#### 4.2.1 Segurtasuna

**Babestuta eta kezkei aurre egiteke gai sentituko den gizarte ingurunea aurkitzea (familia, eskola, lagunak).**

##### Ebaluazio irizpideak

- Seguru sentitzen da eskolan, familian, lagunartean.
- Segurtasuna du bere buruagan, eta ez du beldurrak menderatzen.
- Zailtasunei aurre egiteke gai sentitzen da.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Behaketaren eta ikasleekin eta familiekin izandako elkarriketen bidez egiaztatzea.
- Erregistro pertsonala.



#### 4.2.2 Araua ulertzea

***Ikaskideekiko harremanetarako ezarritako ohiturei eta arauetara jarraitzea, eta nork bere jokabidea azaltzeko eta arrazoitzeko aukera izatea; arauak norberaren irizpideak eta kontzientzia morala eratzeko bitartekotzat hartzea.***

*Prozesu horrek taldean arauak betetzera eta arauak ezartzeko ardura izatera behartzen du.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bizikidetzara arauak errespetatzen ditu.
- Bizikidetzara arauen zentzua ulertzen du.
- Arauak egiteko prozesuan parte hartzen du.
- Arauen arabera jarduten du.
- Gainerakoek arauak betetzeko eskatzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Arauak betetzen diren behatzea.
- Ezarritako arauak ulertzeko eta kritikatzeko ikasleek duten gaitasuna ebaluatzeke jarduerak diseinatzea (esaterako, eztabaida bat); hori bizikidetzara egokia lortzeko bitartekoa izango da.
- Hezitzaileekin eta ikaskideekin arauak egiteko eta betetzeko jarduerak diseinatzea eta ondoren ebaluazioa egitea.

#### 4.2.3 Bulkadak, emozioak eta jarrerak kontrolatzea

***Nork bere portaera mugatzea, bulkadak eta emozioak menderatuz; horretarako, norberak behatu, ekintzen arrazoiei eta ondorioei buruz hausnartu, eta bere ebaluazioa egingo du.***

##### Ebaluazio irizpideak

- Inpultsoak kontrolatzen ditu.
- Portaera egokiak eta desagokiak bereizten ditu.
- Neurritz gaineko emozioak eragiten dizkieten estimulua identifikatzen ditu.
- Jarrera desagokiak ez agertzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Emozioen eta gogo aldarteen kontrola aurreikusten du egoera negatiboetan.
- Bere portaera mugatzeko irizpide pertsonalak ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Norberaren kontrola behatzea.

#### 4.2.4 Poza geroko uztea

***Nork bere portaera mugatzea, eta ahaleginari eusteko eta helburuak lortzean izaten den poza geroko uzteko gai izatea.***

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki poza ez dela beti berehalakoa.
- Nahi duena berehala ez lortzea onartzen du.
- Ekin aurretik pentsatu egiten du.
- Bere nahiak betetzeko gogo geroko uzteko gai da.
- Epe ertainerako ezartzen dituen helburuak betetzeko beharrezko ahaleginari eusten dio.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Arloetako irakasleen eta familiaren behaketak, egindako ahaleginaren ingurukoak.
- Ikaslearen jarrera erregistroak.
- Autotxostena.

#### 4.2.5 Arazoei aurre egitea

***Arazoak modu eraginkorrean konpontzeko aritzea, horiek aztertuz eta estrategia egokiak erabiliz.***

##### Ebaluazio irizpideak

- Porrotak ekintzekin lotzen ditu, eta ez bere buruarekin.
- Onartzen du arazoak bizitzaren zati direla, eta aurre egin behar zaiela.
- Arazoen eta porroten aurrean, alde positiboa aurkitzen saiatzen da.
- Aurre egiten die arazoei eta porrotei.
- Irtenbide baliagarriak bilatzen ditu arazoan eta porroten aurrean.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Gatazka egoerak planteatzea, edo benetako gatazka egoerez baliatzea, arazoei aurre egiteko moduak, alternatibak eta erabiltzen dituzten estrategien egokitasuna balioesteko.

### 4.3. NORK BERE BURUAREN ESTIMUA

**Nork bere buruaren estimu positiboa eta errealia lortzea, norbanako gisa garatzeko dimentsio guztietan; horretarako bere buruarekiko konfiantzan oinarrituko da, baita gainerakoek igortzen dioten estimu eta balioespen sentimenduan ere.**

Estimu egokia izatea nork bere burua positiboki baloratzea da, bere gaitasunak, mugak eta garatzeko duen ahalmena ezagutuz eta onartuz.



Nork bere buruaz duen pertzepzioa esperientzietatik eta ingurunearekin izaten diren harremanetatik eraten da; harreman horietan pertsona garrantzitsuak funtsezkoak dira.

Bere burua ezagutzea eta estimatzea ezinbesteko baldintza da osoki garatzeko.

#### 4.3.1 Pertsona garrantzitsuek onartzen dutela sentitzea

*Beretzat garrantzitsuak diren pertsonak baloratu eta estimatu egiten dutela sentitzea eta jakitea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki norengana jo dezakeen.
- Pertsona garrantzitsuek onartu eta maitatu egiten dutela sentitzen du.
- Estimatu du besteek zenbat balio duen adieraztea.
- Helduek, irakasleek eta familiak bere iritziak eta ekarpenak onartzen eta balioesten dituztela sentitzen du.
- Lagunek eta ikaskideek bere iritziak eta ekarpenak onartzen eta balioesten dituztela sentitzen du.
- Bere ekarpenak balioetsi egiten direla sentitzen du, eta ingurunea hobetzen laguntzen dutela.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasleak laguntza edo onarpena eskatzen duen hautemateko aukera ematen duten berezko egoerak eta jarduerak behatzea, eta, hala egiten badu, norengana jotzen duen ikustea.
- Ikaskide, lagun eta lankide taldean, berez jarduten duen erakusten duten egoera informalak eta jarduerak behatzea, baita gainerakoek bere ekarpenak onartzen dituzten ere.
- Ahozko eta idatzizko autotxostena, taldeak onartzearen sentimenduari buruzko deskribapenak eta iritziak agertzeko.

#### 4.3.2 Ahalegina

*Bere burua hobetzeko ahalegina egitea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki ahalegina eginez gero bere trebetasunak hobe ditzakeela.
- Ulertzen du ahalegina eginez gero bere trebetasunak hobe ditzakeela.
- Garapen pertsonala lortzeko ahalegina egiten du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Lanak nola egiten eta amaitzen dituen behatzea.
- Hobetzeko ahalegina erakusten duten eskolako eta eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen duen behatzea.

#### 4.3.3 Baieztapen pertsonala

*Pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea, eta norberaren irizpideari jarraituz aritzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere interesak eta iritziak adierazten ditu.
- Bere eskubideak, interesak eta iritziak defendatzen ditu, eta horrela indartzen du bere nortasuna.
- Bere erabakiak arrazoitzen ditu.
- Bere irizpideak ditu iritziak alderatzeko, erabakiak hartzeko eta ekiteko.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ahoz eta idatziz adieraztea bere eskubideak, interesak, iritziak eta erabakiak, eta argudioen bidez defendatzea.

#### 4.3.4 Konfiantza izatea norberaren gaitasunetan

*Nork bere buruan konfiantza izatea, bere burua ezagutz, mugak onartuz eta gaitasunez baliatu.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bakarra dela ulertzen du, besteengandik desberdina.
- Bere trebetasunak eta mugak ezagutzen ditu.
- Bere mugak gainditu eta konpentsa ditzakeela onartzen du.
- Oro har, pozik dago bere buruarekin.
- Bere alde positiboak eta negatiboak ezagutzen ditu.
- Arazoak konpontzeko alternatibak proposatzeko gai ikusten du bere burua.
- Zailtasunak gainditzeko dituen gaitasunak onartzen ditu.
- Nahi duena lor dezakeela pentsatzen du.
- Den moduan onartzen du bere burua.
- Baliotsua sentitzen da.
- Eraginkorra sentitzen da arazoak konpontzeko eta zailtasunei aurre egiteko.
- Oro har, pozik dago bere bizitzarekin.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Nahi duena lortu nahi duenean, arriskuak hartzeko duen gaitasuna balioesteko programatutako jarduerak, bere aukeretan duen konfiantzaren adierazle direnak.



## 4.4. AUTONOMIA

### Proiektu pertsonal bat diseinatzea eta horrekin koherentea izatea, bere erabakien ardura-dun eginez, munduan bere lekua aurkitzeko.

Proiektu pertsonal bat diseinatzea bizi proiektuaren plan bat egitea da, eta plan horretan honako hau adieraziko da: zer-nolako pertsona izan nahi duen, zein diren bere interesak eta itxaropenak, eta zer bidetatik lortuko duen. Norbanako bakoitzak bere bizitza eraikitzen duela adierazten du horrek, eta kultur ezagutza, nork bere buruaren estimua eta gaitasunetan konfiantza izatea eskatzen du.

Horretarako, motibazioa, ekimena, irmotasuna, sormena eta hausnarketa, ezagutzak eta informazioa, eta erabakiak hartzeko eta plangintzak egiteko gaitasuna behar dira.

Horren bidez, norbanako bakoitzak bere biografia eraikitzen du norbanako autonomo, kontziente, kritiko, arduratsu eta sortzaile den aldetik.

#### 4.4.1 Bizi proiektua

*Nork bere bizitzaren helburuak zehaztea, baita helburu horiek lortzeko modua ere.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere interesak, gustuak eta beharrak ezagutzen ditu.
- Bere interesak, gustuak eta beharrak betetzeko alternatibak pentsatzen ditu.
- Bere helburuak lortzeko jarduten du.
- Poza eragiten dioten helburuak lortzen ditu.
- Bere interesak eta beharrak betetzeko alternatibak bilatzen ditu.
- Bere helburuak lortzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Saiatua da jardueretan, zaletasunetan eta interesetan.
- Ezarri dituen helburuak lortzen ditu, eta pozik sentitzen da.
- Epe ertaineko planak egiten ditu.
- Planak lortzeko bitartekoak ezartzen ditu.
- Irizpide pertsonalak erabiltzen ditu helburuak, estrategiak, prozesuak eta erabakiak ebaluatzeko.
- Lorpenak helburuak lortzeko estimulutzat hartzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Nahi diren eta arrazoitu diren proiektu pertsonalak prestatzea eta adieraztea.
- Elkarrizketa tutorearekin, helburuak lortzeko dituen estrategiei, jardueretan agertzen duen irmotasunari eta horiek ebaluatzeko erabiltzen dituen irizpide pertsonalei buruz hitz egiteko.

#### 4.4.2 Estrategikoa izatea

*Helburuak eraginkortasunez lortzeko bitarteko egokiak aukeratzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki ahalegina egin behar dela helburuak lortzeko.
- Bereizten du zein diren helburuak lortzeko trebetasun egokiak.
- Trebetasunak garatzeko bitartekoak ezartzen ditu.
- Helburuak lortzeko bitartekoak ezartzen ditu.
- Helburuak lortzeko beharrezko trebetasunak garatzeko bitartekoak ezartzen ditu.
- Estrategikoa da bere xedeak eraginkortasunez lortzeko.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Elkarrizketa tutorearekin, helburuak lortzeko trebetasunei eta mugei buruz, erabiltzen dituen estrategiei buruz eta estrategia horiek ebaluatzeko irizpide pertsonalei buruz hitz egiteko.

#### 4.4.3 Arazoak konpontzea

*Resolver eficazmente los problemas.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere ekintzetako zailtasunen arazoak identifikatzen ditu.
- Arazoei aurre egiteko eta horiek gainditzeko estrategiak erabiltzen ditu.
- Bere ekintzetako lorpen zehatzak egiaztatzen ditu.
- Zailtasunetan, abantailak eta desabantailak aztertzen ditu.
- Zailtasunak menderatzeko, egoeraren alde positiboetan oinarritzen da.
- Arazoez hausnartzen du, eta aurre egiten die, alternatiba bakoitzaren aldeko eta kontrako arazoak aztertuz.
- Eraginkortasunez konpontzen ditu arazoak.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ohiko lanen adierazleak zuzenean behatzea.
- Arazoak konpontzea eskatzen duten jarduerak diseinatzea



#### 4.4.4 Erantzukizuna

*Nork bere erabakien eta ekintzen ondorioak bere gain hartzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere ekintzen ondorio positiboak eta negatiboak ulertzen ditu.
- Bere akatsetatik ikasten du, etorkizuneko ekintzak hobetzeko.
- Bere erabakiak erantzukizunez onartzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ohiko lanak behatzea.

#### 4.4.5 Erabaki profesionalak hartzea

*Alternatiba profesional bat erabakitzea, interesak, trebetasunak eta egoerak kontuan izanik, eta horiek aurrera eramateko bitartekoak jartzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ikasketa erabaki batzuk hartzen ditu, bere interesak, gustuak edo beharrak kontuan hartuta.
- Lehen Hezkuntzako helburuak lortzeko beharrezko bitartekoak jartzen ditu.
- Irtenbide profesionalak ezagutzen ditu. Prestakuntza eskaintzak ezagutzen ditu.
- Interesetan, helburuetan eta trebetasun pertsonaletan oinarrituta erabakitzen du prestakuntza ibilbidea.
- Prestakuntza eta ziurtagiriak garrantzitsuak direla onartzen du.
- Prestakuntza helburuak lortzeko beharrezko bitartekoak ezartzen ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Elkarrizketa tutorearekin.

#### 4.4.6 Independentzia ekonomikoa

*Independentzia ekonomikoa baloratzea, eta pixkanaka hori lortzeko jarduerak egitea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Baliabide ekonomikoak lortzeko ahalegina egin behar dela onartzen du.
- Baliabide ekonomikoak lortzeko ahaleginak duen garrantzia ulertzen du.
- Bere baliabide ekonomikoak kudeatzen ditu.
- Independentzia ekonomikoa balioesten du.
- Independentzia ekonomikoa lortzeko jarduerak egiten ditu.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasleei zerbait egiteko edo helburu bat lortzeko beharrezko baliabideak lortzeko eta administratzeko aukera emango dieten egoerak sortzea.
- Tutorearekin elkarrizketa pertsonala edota batzarra ikasgelan, independentzia ekonomikoari buruzko iritzirik pertsonalei eta independentzia hori lortzeko moduei buruz hitz egiteko.
- Elkarrizketa familiekin.

#### 4.4.7 Ikuskera

*Nork bere buruari buruzko eta errealitateari buruzko irudiak buruan irudikatzea, etorkizuna aukera moduan ikusteko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Handitan zer izan nahi duen amesten du.
- Bere burua etorkizunean ikusteko gai da.
- Itxaropena du etorkizunean.
- Zer-nolako pertsona izan nahi duen imajinatzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Berezko autotxostena, edo txosten egituratua.

#### 4.4.8 Ezagutza eraikitzea

*Ezagutza estimatzea eta eraikitzea, informazioa egoki kudeatuz eta ikasketaz gozatuz.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ikasteko jakin-mina agertzen du.
- Informazioa bilatzen du eta oinarritzko iturriak erabiltzen ditu (hiztegia, entziklopedia, liburutegia, Internet).
- Ikasten gozatu egiten du.
- Badaki informazioa antolatzen eta bere helburuetara bideratzen.
- Ikasiz lortzen duen ezagutza estimatzen du.
- Zer ikasi aukeratzen du, helburuen eta interesen arabera.
- Informazioa hainbat iturritatik lortzen du.
- Ezagutza eraikiz ikasten du, informaziotik abiatuta.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarrerazko, prozedurazko eta kontzeptuzko alderdiak ebaluatzea curriculum arloetan.

#### 4.4.9 Moldagarritasuna

*Erraztasunez moldatzea egoera eta baldintza aldakorretara.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki aldaketa bizitzaren parte dela.
- Erabakiak hartzen ditu bere helburuak lortzeko, aldaketekiko beldurrak baldin-

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikaslearen jarrerak, ohiturak eta erabakiak eta egoera bakoitzaren eskakizunak alderatzeko jarduerak diseinatzea.



- tzatzen utzi gabe.
- Egoera eta baldintza aldakorretara moldatzen da.
- Aldaketa garapen pertsonalaren zati dela onartzen du.

- Elkarrizketa tutorearekin, erabakiez, beldur pertsonalez eta kanpoko presioez hitz egiteko.

#### 4.4.10 Zintzotasuna

##### *Irizpideen arabera pentsatzea eta jardutea.*

###### **Ebaluazio irizpideak**

- Bere iritzia ematen du, nahiz eta taldearen iritziaren aurkakoa izan.
- Agintearen eta kanpoko presioaren eskakizunen mende egon gabe pentsatzen, planifikatzen eta jarduten du.

###### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Ahoz edo idatziz adieraztea bere bizi proiektuarekin lotura duten eskubiak, interesak, iritziak eta erabakiak, eta argudio pertsonalak erabiliz defendatzea.
- Elkarrizketa tutorearekin, erabakiak hartzeko irizpideei, interesei, beldur pertsonalei eta kanpoko presioei buruz hitz egiteko.

#### 4.4.11 Hobetzeko ebaluatzea

##### *Nork bere ekintzak ebaluatzea eta gainerakoen ebaluazioa onartzea, bere burua hobeto ezagutzeko eta hobetzeko beharrezkoa baita.*

###### **Ebaluazio irizpideak**

- Gainerakoek bere ekintzei buruz dituzten iritziak eta berari buruz dituzten sentimenduak bereizten ditu.
- Bere arrakastak eta akatsak onartzen ditu.
- Bere jardueri buruz besteek dituzten iritziak onartzen ditu.
- Bere ekintzen egokitasunaz hausnartzen du.
- Bere ekintzak ebaluatzen ditu, eta besteen ebaluazioa jasotzeko prest dago, bere burua ezagutzeko eta hobetzeko beharrezkoa baita.
- Bere erabakietan eta jardueretan, hobetzeko nahia adierazten du.

###### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Autoebaluazio eta koebaluazio jarduerak diseinatzea curriculum arloetan lanetarako.

## 4.5. SENSIBILITATE ESTETIKOA

**Emozio estetikoak esperimintatzea, natura eta artea ezagutzuz eta miretsiz, edertasunaz gozatzuz eta arte adierazpen berriak sortuz, estetikak artean eta naturan ematen dituen emozioez gozatzeko.**

Emozio estetikoak esperimintatzea natura eta artea errealitatea adierazteko bitartekotzat hartzea da, munduaren edo edertasunaren ikuskera berriak agertuz eta ekintza berritzaileak modu ardurasuan suspertuz.

Hori lortzeko, naturaren ondarea eta ondare artistikoaren elementu garrantzitsuenak behatu, miretsi, gozatu, ezagutu eta errespetatu behar dira, eta adierazpen artistikoak interpretatu edo sortu.

#### 4.5.1 Natura mirestea eta errespetatzea

##### *Naturaren parte dela onartzea, eta natura errespetatzea.*

###### **Ebaluazio irizpideak**

- Naturarekin lotzen duen jardueretik interesa agertzen du.
- Natura errespetatzen du.
- Natura zaintzeko ohiturak ditu.
- Aire zabaleko jardueretan gozatu egiten du.
- Naturarekin lotzen duten jarduerak egiten ditu.
- Baliabideak neurritz kontsumitzen ditu.
- Naturaz gozatzen du.

###### **Ebaluaziorako orientazioak**

- Ingurunea errespetatzeko eta zaintzeko jarrerak behatzea.
- Ingurumena zaintzeko proiektuetan eta garapen iraunkorreko proiektuetan parte hartzea.
- Gauzak egiteko, antolatzeko eta erlazionatzeko moduei buruzko autoebaluazioa egitea, erreferentzia garapen iraunkorra izanik.
- Ideen eta praktikaren arteko koherentzia baloratzeko aukera ematen duten portaerak behatzea.



- Naturaren aberastasuna eta aniztasuna baloratzen ditu.
- Garapen iraunkorraren garrantzia onartzen du.
- Naturaren parte sentitzen da.
- Natura zaintzen laguntzen du.

#### 4.5.2 Ondarea mirestea eta errespetatzea

*Arte eta kultur ondarea ezagutzea, interpretatzea, estimatzea eta errespetatzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Inguru hurbileko eta munduko arte eta kultur ondarearen obra garrantzitsu batzuk ezagutzen ditu.
- Artelan bat sortzeko oinarriko elementu formalak ezagutzen ditu.
- Artelanetako elementu formalak identifikatzen ditu.
- Inguru hurbileko eta munduko arte eta kultur ondarearen obra garrantzitsuenak ezagutzen ditu.
- Artelanen esanahia, historia eta kultur esparrua lotzen ditu.
- Kultura desberdinetako artelanak estimatzen ditu.
- Ondare artistikoa zaintzeko proiektuetan parte hartzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ondare artistikoa zaintzeko proiektuetan parte hartzea.
- Ezagutza probak.

#### 4.5.3 Aniztasunaz arduratzea

*Lekuak eta kulturak ezagutzeko interesa izatea, baita estimatzea ere.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Badaki desberdintasunak daudela naturan, pertsonengan eta kulturetan.
- Lekuak, pertsonak eta besteen kulturak ezagutzeko gogoia agertzen du.
- Bestelako lekuak, jendea eta kulturak ezagutzuz gozatzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Kulturekin eta beste ingurune batzuekin harremanak izateko errespetua, jakin-mina eta interesa agertzen duten portaerak behatzea.
- Inguruneak trukatzeko eta ezagutzeko jarrerak sustatzea, eta esperientziaren estimua ebaluatzea.

#### 4.5.4 Arteaz gozatzea

*Arte hizkuntzak erabiltzea nork bere burua adierazteko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Hainbat hizkuntzaren bidez adierazten du bere burua (literatur hizkuntza, musika hizkuntza, hizkuntza plastikoa...).
- Sormen lanak eginez gozatzen du.
- Hainbat hizkuntzaren bidez komunikatzen da (literatur hizkuntza, musika hizkuntza, hizkuntza plastikoa...).
- Sormen lanak eginez gozatzen du.
- Besteekin batera egiten ditu lan artistikoak.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Arte lanak sortzea.

#### 4.5.5 Emozio estetikoak

*Estetikak artean eta naturan ematen duen plazer espiritual eta emozionala esperimintatzea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Naturaren eta arte adierazpenen ezaugarri estetikoak errepertzen ditu.
- Naturaren eta arte adierazpenen ezaugarri estetikoak bilatzen eta behatzen ditu.
- Natura eta adierazpen artistikoak behatzen ditu, eta ezaugarri estetikoak gozatzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Naturaren eta arte adierazpenen aurrean, sentsibilitate eta emozio adierazpenak behatzea.



## 4.6. INTEGRAZIO PERTSONALA

**Nork bere buruaren osotasuna esperimentatzea eta adieraztea dimentsio hauetan: indibiduala eta soziala, emozionala eta kognitiboa, immanentea eta transzendentea, pertsonaren osotasuna antolatzeke barne gaitasuna modu koordinatu eta harmonikoan sustatuz, giza ahalmena osotasunez garatzeko.**

Nork bere buruaren osotasuna esperimentatzea eta adieraztea honetan datza: bizitzea, munduan kokatzea, eta pentsamenduak eta bizipen emozionalak kontuan harturik jardutea, gizabanako eta gizartekide garelako jabetuz eta norberaren errealitatea gaindituz.

Hori lortzeko, beharrezkoa da nork bere burua behatzea eta ingurua behatzea, horri buruz hausnartzea eta nork bere buruari galderak egitea, ezagutzea eta alderatzea, baloratzea eta gainerako en balorazioak entzuteko prest egotea, bizitzaren zentzua ulertzeko, eraikitzeke eta azaltzeko.

Pertsona bakoitzaren garapen integralak norbanakoa aberasten laguntzen du, eta ezinbesteko baldintza da gizartearen garapena eta aberastasuna sustatzeko.

### 4.6.1 Gozatzea

*Bizitzaz gozatzea, sormena sustatzen duten jardueren bidez.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Gustuko jarduerak egiten ditu, ongi pasatzeko.
- Astialdian jarduerak egiten ditu, hainbat interes asetzeko.
- Bizitzaz gozatzen du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Astialdiaren erabilera, interesak, interesak asetzeko jarduerak eta horiek eginez gozatzen duen adierazteke autotxostena.
- Elkarrizketa familiekin, datuak alderatzeko.

### 4.6.2 Autoerrealizazioa

*Garapen pertsonal osoa lortzera ekarriko duen bizi proiektu batekiko konpromisoa hartzea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Bere buruaren alderdiak esploratzeko jarduerak egiten ditu.
- Bere garapen osoa sustatzen duten jardueretan parte hartzen du.
- Gogotsu aritzen da autoerrealizatzeke.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Pertsonaren alderdiak esploratzeko eta garapen osoa sustatzeko jarduerak proposatzea eta jardueren aprobetxamendua ebaluatzeke aukera emango duten kontsignak sartzea.
- Elkarrizketa, bizi proiektuari eta hori lortzeko ematen ari den urratsei buruz hitz egiteke.

### 4.6.3 Autonomia eta lankidetzak

*Autonomiaz jardutea, eta besteekin elkarlanean aritzea, helburu komunak lortzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Bere denbora besteekin partekatuz gozatzen du.
- Taldeetan parte hartzen du, interes komunetan oinarritutako lana eta harremanak hobetzeko.
- Bera bakarrik eta besteekin batera aritzen da, beharren arabera.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Talde prozesuak autoebaluatzeke eta koebaluatzeke jarduerak diseinatzea curriculum arloetako lanetan.
- Taldean egindako lanak behatzea.

### 4.6.4 Garapen morala

*Printzipio moralen arabera jardutea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Gizabidezko arauak ezagutzen ditu.
- Oinarritzko balio moralak ezagutzen ditu.
- Gizabidezko arauak eta oinarritzko balio moralak kontuan izanik jarduten du.
- Ekintzen balorazio morala egiten du, haien ondorioen arabera.
- Arau moralak balioesten ditu.
- Arau moralak onartzen ditu.
- Arau moralen arabera jarduten du.
- Bere jardueren arduradun egiten da, eta besteiekin sortutako kalteak konpontzen ditu.
- Zintotasunez jarduten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Egoera pertsonal eta sozial eztabaidatsuei buruzko jarduerak diseinatzea, horiei aurre egiteke balio kontzeptualak erabiltzeke modukoak.
- Egunerokotasuna duten gaiei buruzko jarduerak diseinatzea; jarduerak horietan kontzeptu etikoak erabili beharko dituzte erabakiak hartzeke.





#### 4.6.5 Transzendentzia

*Urruntze espirituala praktikatzea, bizitzari eta norberari buruzko ikuspegi orokorra esperimintatzeko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ingurunearen zati den banako izakitzat hartzen du bere burua.
- Bizitzaren dimentsio immanentea eta transzendentea aurkitzen ditu.
- Bizitzaren zentzuaz galdetzen dio bere buruari.
- Munduaren zati den norbanakotzat hartzen du bere burua.
- Bere prestakuntzaren eta lanaren helburua gizartea hobetzen laguntzea da.
- Bere bizitzaren zentzua eta esanahia bilatzen ditu.
- Munduaren zentzua eta esanahia bilatzen ditu.
- Konpromisoa hartzen du gizarte ekintzako erakundeetan eta ekintzetan.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Beste bizi esperientzia batzuetan kompetentzia horiei buruzko adierazleak aurkitzeko aukera emango duten jarduerak diseinatzea.

#### 4.6.6 Pentsamenduak, sentimenduak eta ekintzak integratzea

*Norberaren osotasuna esperimintatzea eta adieraztea.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditu.
- Eraginkortasunez komunikatzen ditu pentsamenduak eta sentimenduak.
- Koherentea da bere pentsamenduekin eta sentimenduekin.
- Naturaren zati den izaki individual eta sozialtzat hartzen du bere burua.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Ahoz edo idatziz, bere buruari buruzko arloak deskribatzea, edo horiei buruzko komentarioak egitea, nahiak, sentimenduak, ikuspegiak eta baloreak adierazteko; edo norberaren historia biografikoari buruzko hausnarketak agertzeko.
- Ekintzak ideiekin eta sentimenduekin koherenteak diren ikusteko aukera emango duten jarduerak proposatzea.



## 5.- EGITEN ETA EKITEN IKASI

Egungo errealitateak bi ezaugarri garrantzitsu ditu. Batetik, **elkarrekiko mendekotasuna gero eta handiagoa da munduan**, eta, bestetik, natura **aldakorra da (eta gero eta azkarrago ari da aldatzen)**. Faktore askok aldatzen dute errealitatea, eta gure “parte hartze aktiboa” (parte hartzen badugu) faktore horietako bat izan daiteke. Ondoriozko errealitate horretan “ekin” eta eragin dezakegu; beste aukera bat “ez ekitea” da, eta, hala ere, errealitateak eboluzionatu egingo du, baina beste modu batera, eta gugandik kanpo dauden faktore batzuen mende soilik. Ekinda, modu aktiboan hartzen dugu parte aldaketaren ondoriozko errealitatean, *parte hartze aktiboa dugu eboluzioan*.

Horregatik, **ikuspegi orokorra** garatzea, eta **aldaketa kudeatzea eta aldaketa horretara egokitzea** pertsonen hezkuntzaren alderdi giltzak dira. Horretarako, bizitzan parte hartze aktiboa izan behar dugu: ekin egin behar dugu; eta, ondorioz, **ekimen ekintzailearen kompetentzia garatu behar dugu**.

**Munduan areagotzen ari den elkar eragina** dela eta, gero eta gehiagotan hautematen dugu leku jakin bateko gertaerek eragina dutela, une batean edo bestean, neurri handiagoan edo txikiagoan, planetaren gainerako lekuetan (bai natur baliabideetan, bai izaki bizidunengan), baita horren eragina gero eta azkarrago iristen dela ere.

Lehen, aldaketa handiak hautemateko, zenbait belaunaldi behar ziren; egun, ordea, belaunaldi beraren barruan gero eta azkarrago izaten diren aldaketa bizien lekuko gara. Gaur, beharrezkoa da, inoiz baino gehiago, gazteek errealitateaz eta elkarrekiko mendekotasunaz **hausnartzea**, errealitate hobeak **imajinatzea/amestea** eta **adierazpen/egite horretan parte hartzea**, betiere aurrera eramandako ekintzen **eragina ebaluatuz**. Ekitea beharrezkoa da bizitzan modu aktiboan eragiteko, eboluzioan modu aktiboan parte hartzeko.

Funtsezkoa iruditzen zaigu, puntu honetan, jarrera ekintzailea hartzen duten pertsonaren balioei buruz hitz egitea.

Zenbait ikuskeratik ekin dezakegu:

- **Ikuskera egozentrikoa** (norbanako gisa bere buruarentzat onena bilatzen du): ekintzaileak ikuspegi egozentrikoa badu, bere buruarentzat errealitate hobeak lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.
- **Talde ikuskera** (talde jakin batentzat onena bilatzen du: familiarentzat, lagunentzat, herrialde jakin bateko hiritarrentzat): ekintzaileak talde ikuskera badu, erreferentzia taldearentzat errealitate hobeak lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.
- **Mundu ikuskera** (gizateriarentzat, giza espeziearentzat onena bilatzen du): ekintzaileak mundu ikuskera badu, gizateriarentzat errealitate hobeak lortzen ahaleginduko da, eta ekintza prozesu guztiaren helburua errealitate hori lortzea izango da.

Pertsona bakoitzaren ikuspegiak “motibazioa” zehazten du, eta, ondorioz, “jokabidea” ere bai. Hezkuntza sistemaren helburua pertsonak hezte da, gizateriarentzako errealitate hobearen erake-



tan parte har dezaten. Horretarako, beharrezkoa da ekimen ekintzailea garatzea, baina, halaber, ekintzak gizaterian duen eragina aintzat hartu behar da.

Horregatik iruditzen zaigu funtsezkoa hau azpimarratzea: **ekimen ekintzailea** konpetentziak (errealitatearen bilakaeran modu aktiboan parte hartzeak) eta **pertsonaren barneko giza garapenak** batera joan behar dute beti eta, horri esker, pertsona horien ikuskerak mundu ikuskera bilakatu behar du. Barneko giza garapena kontuan hartzen ez duen ekimen ekintzailearen garapen oro “*hankamotz*” gertatu da, eta hori gizateriaren eta planetaren *garapen iraunkorraren* kalterako izango da.

Beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleen barneko giza garapena lantzea “Elkarrekin bizitzen ikasi” eta “Norbera izaten ikasi” konpetentzietan, gizateriarentzat errealitate hobea eraikitzeke motibazioa izan daitezke; motibazio horrek errealitatearen aldaketaren eragilea izan beharko du, jokatibide ekintzailearen bidez, eta, horretarako, prozesu ekintzaile jarraituaren eta segidakoaren faseak gauzatu behar dira.

*OHARRA: Ekimenaren balioa bermatzeko, gizakiaren barneko giza garapen horren beharra nabarmentzeaz gain, beste gauza bat ere nabarmendu nahi dugu: garapen hori bizitza osokoa izateak duen garrantzia. Badakigu ez dela egun batetik bestera garatzen, eta hezkuntza eta esperimentatze lan jarraitua eskatzen duela.*

## Zer da “Egiten eta ekiten ikasi” konpetentzia

Garrantzitsua iruditzen zaigu dokumentu honetan **egin** eta **ekin** terminoei eman diegun adiera azaltzea, beharrezkoa baita termino horiek ulertzea “Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziaren konpetentzia orokorrak eta espezifikokoak identifikatzeko. **Ekitea** “**ekite prozesua aurrera eramatea**” da guretzat, erabilera eremua edozein dela ere. **Ekitea** ekite prozesuaren **berrikuntza fasea** aurrera eramatea da, erabilera eremua edozein dela ere. Ekite prozesua dinamikoa da, eta lau fase ditu, ondoz ondokoak eta etengabeak (Fase analitikoa, Sortze fasea, Berritze fasea eta Ebaluazio fasea).

Ondoren, ekite prozesuaren lau faseak aurkeztuko ditugu. Fase horiek “Egiten eta ekiten ikasi” hezkuntza konpetentzia orokorraren lau azpikonpetentzia orokor ematen dizkigute:

### 5.1: Analisia: Informazioa hartzea eta gordetzea

- 5.1.1. Errealitateari buruzko informazioa hartzea
- 5.1.2. Errealitatea aztertzea eta ulertzea
- 5.1.3. Errealitatea eztabaidatzea

### 5.2: Sormena: Ideia berriak eta konponbideak lantzea

- 5.2.1. Alternatibak planteatzea
- 5.2.2. Alternatibak ebaluatzea
- 5.2.3. Alternatiba egokiena aukeratzea

### 5.3: Berrikuntza: Ideiak gauzatea

- 5.3.1. Errealitate bat gauzatzeko konpromiso pertsonala hartzea
- 5.3.2. Plangintza
- 5.3.3. Ekintza
- 5.3.4. Desbideratzeak jarraitzea eta zuzentzea

### 5.4: Ebaluazioa

- 5.4.1. Egindako ekintzen emaitzei buruzko informazioa biltzea
- 5.4.2. Aurreikusitako eta lortutako helburuak erkatzea
- 5.4.3. Aurreikusi gabeko eraginak ebaluatzea
- 5.4.4. Ondorioak ateratzea: aukerak planteatzea




“Egiten eta ekiten ikasi” konpetentziak, fase horietako bakoitza aurrera eramateko gaitasuna izateaz gain, lau faseak segidan eta etengabe bizitzako eremu guztietan ezartzeko konpetentzia (ekite prozesua) garatzea eskatzen du. Horrek azpikonpetentzia orokor hau eratzen du:

**5.5: Ekite prozesuaren aplikazioa**

- 5.5.1. Esparru pertsonalean-indibidualean ekitea
- 5.5.2. Gizarte eta natura esparruan ekitea
- 5.5.3. Hezkuntza eta autoikaskuntza gabeziei erantzutea
- 5.5.4. Bokazioa
- 5.5.5. Lan munduan sartzea
- 5.5.6. Enpresa sortzea - Autoenplegua

“Egiten eta ekiten ikasi” hezkuntza konpetentzia orokorraren eskema





## 5.1.- ANALISIA: INFORMAZIOA HARTZEA ETA GORDETZEA

**Informazioa hartzea eta ulertzea, eta inguratzen duen errealitateari buruz hausnartzea, errealitatea arretaz eta jakin-minez behatuz, errealitatea zergatik den horrelakoa hainbat arlotatik ulertzen saiatuz, eta, espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez, zalantzan jarriz, errealitate hori hobetzeko ahalmena aztertuz, ideia eta konponbide berriak prestatzeko eta errealitate hobe planteatzeko.**

Errealitatearen edozein esparru (esparru pertsonala/indibiduala, hezkuntza eta lanbide esparrua, gizarte eta natura esparrua) *etengabe hobetzeko* ekintza prozesu orok egungo errealitatearen hausnarketa eta azterketa izan behar ditu oinarrian. Horretarako, errealitateari buruzko informazioa jaso (adi-adi egindako behaketen bidez, eta ingurukoekin elkarrizketa irekiak izanik), ulertu (hainbat ikuspegitatik, horren arrazoiak ezagutzen saiatu) eta zalantzan jarri behar da (errealitate hori hobetzeko aukera aztertu).

Horretarako, garrantzitsua da pertsonen norberaren egoeraren eta ingurunearen *behaketa eta arreta garatzea*, baita informazioa hedatzeko eta horretan sakontzeko nahia garatzea ere, egoera horren arrazoiak ulertzeko. Ulermen hori lortzeko, *informazio berria bilatu* behar da, eta, horretarako, bigarren mailako informazio iturrietara eta inguruarekiko elkarreraginera (elkarrizketa irekira) behar da; *horrela, ikasleek hainbat ikuspegitatik aukera izango dute errealitatea horrelakoa zergatik den ulertzeko*. Bestalde, gogoeta prozesuak egungo errealitatea zalantzan jarri behar du, espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez, eta *egungo errealitatea aldatzeko (hobetzeko) aukerak bilatzen saiatu*.

*Fase analitikoari esker, ekintzaileak egungo errealitatea aztertuta ulertzen du, eta alternatiba hobe identifikatzeko/diseinatzeke nahia ere badu. Horrek sortze fasera eramango du.*

### 5.1.1. Errealitateari buruzko informazioa hartzea

*Informazioa biltzea, hurbileko jendea behatuz eta elkarrizketatuz, eta konplexutasun ertaineko iturriak erabiliz (entziklopediak, liburutegia, Internet, hainbat iturri publiko...), ondoren, errealitatea aztertu eta ulertzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Inguratzen duen errealitatea arretaz behatzen du.
- Gauza berriak ikasteko jakin-mina agertzen du.
- Errealitatearen esparru guztiak hobetzeko gogo agertzen du.
- Konplexutasun ertaineko informazio iturriak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
- Informazio iturri berriak bilatzen ditu, ohikoak nahikoa ez direnean.
- Elkarrizketak izaten ditu hurbileko jendearekin, informazioa hartzeko.
- Errealitateari buruzko hainbat pertzepzio bilatzen ditu, errealitate horren eragileen bidez.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduerak diseinatzea eta aplikatzea, informazioa bilatzea, konplexutasun ertaineko informazio iturriak erabiltzea eta beste pertsona batzuekin elkarrizketak izatea lantzeko.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (banaka eta taldean).
- Jasotako informazioari eta iturriei buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (adibidez: bilera eta elkarrizketen aktak, laburpenak...).
- Elkarrizketa ikaslearekin.
- Kompetenziaren maila eta eboluzioa balioestea (jasotako informazioaren kantitatea eta kalitatea, erabilitako iturriak, autonomia maila, iraunkortasuna, eraginkortasuna...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikoko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.



### 5.1.2. Errealitatea aztertzea eta ulertzea

*Inguruko errealitate bati buruz jasotako informaziotik abiatuta, beste pertsona batzuekin hausnartuz ulertzea, ondoren, zalantzan jartzeko eta hobetzeko ahalmena aztertzea.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Jasotako informazioa antolatzen eta sailkatzen du.
- Aztertutako errealitateari buruzko informaziorik garrantzitsuena eta bigarren mailakoa bereizten ditu.
- Errealitate jakin bateko eragileak identifikatzen ditu.
- Beharrezko argibideak galdetzen eta bilatzen ditu, informazioa nahasia edo aurkakoa denean.
- Errealitatearen aurrean, pertsonak dituzten ikuspegi desberdinak ulertzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduerak aplikatzea, kontzeptuak, errealitate pertsonalak, jendeari eta taldeei eragiten dieten errealitateak aztertzea eta ulertzea lantzeko.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka nahiz taldean), eta ikuspegi azalpenari, erabilitako arrazoiei eta egindako azterketaren ondorioei erreparatzea.
- Egindako azterketaren idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarrizketa ikaslearekin.
- Kompetenziaren maila eta eboluzioa balioestea (informazioaren antolaketa, azterketaren sakontasuna, irekitasun mentala...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifiko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

### 5.1.3. Errealitateaz eztabaidatzea

*Errealitate baten alde positiboak eta negatiboak identifikatzea, eta aldatzeko ahalmena balioestea, baita errealitate horretan eragiteko gaitasuna ere - beste pertsona batzuekin hitz eginez-, eta balioespen horren aurkezpen bat egitea (ahozkoa eta idatzizkoa), ondoren, errealitatea hobetzeko alternatibak planteatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Errealitateari buruzko bere iritzia du, eta errealitate horren alde positiboak eta negatiboak adierazten ditu.
- Aztertutako errealitatea desberdina izateko aukerari buruzko balioespena adierazten du.
- Errealitatean aldaketak eragiteko duen gaitasuna identifikatzen du, baita eragin hori zenbaterainokoa izan daitekeen ere.
- Beste ikaskideekin batera, aztertutako errealitatean elkarrekin eragiteko ahalmena identifikatzen du, baita eragin hori zenbaterainokoa izan daitekeen ere.
- Aztertutako eta zalantzan jarritako errealitateari buruz egindako balorazioaren emaitza transmititzen du.
- Bere ikuspegia arrazoitzen du, beste iritzi batzuen aurka.
- Zintzotasunez eta konpromiso sozialez jarduten du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduerak diseinatzea eta ezartzea errealitatea zalantzan jartzea eta iritzia izatea lantzeko.
- Taldean eztabaidatzea banakako zalantzak eta ikuspegiak.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Errealitatearen balorazioari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea: alde positiboak eta negatiboak, aldatzeko ahalmena, eragiteko gaitasuna eta eragina zenbaterainokoa izan daitekeen.
- Elkarrizketa ikaslearekin.
- Kompetenziaren maila eta bilakaera balioestea (errealitatea zalantzan jartzearen maila, iritzia argudiatzea, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifiko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.



## 5.2.- SORMENA: IDEIA BERRIAK ETA KONPONBIDEAK LANTZEA

**Idea berriak eta konponbideak prestatzea eta errealitate hobea planteatzea, egungo errealitatearentzako alternatibak proposatuz (sorkuntza tekniken bidez), eta aurrez ezarritako ebaluazio irizpideen arabera ebaluatuz eta egokiena/bidezkoena aukeratuz, errealitate hori gauzatzeko/egiteko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.**

Behin egungo errealitatea aztertuta eta ulertuta, hobetzeko alternatiba egokiena identifikatzeko hainbat etapa bete behar dira:

- Batetik, garrantzitsua da pertsona horrek sorkuntza teknikak garatzea, teknika horiekin eta behaketarekin, arretarekin eta jakin-min arretatsuarekin, ideia eta irtenbide berriak aurki baititzake. Horiek sailkatuz eta ordenatuz, egungo errealitatearentzako alternatibak identifika daitezke.
- Ondoren, beharrezkoa da alternatibak ebaluatzeko eta lehenesteko prozesua garatzea, ebaluazio irizpide egokiak identifikatu aurretik. Ebaluazio irizpideetan, oro har, pertsona edo kolektibo ebaluatzailearen kontzeptu objektiboak eta subjektiboak sartuko dira.
- Behin lehentasunezko alternatibak ezarrita, hurrengo pausoa alternatiba egokiena erabakitzea da; hau da: aukeraketa.

Sortze fasearen ondoren, aukeratutako alternatiba identifikatu/diseinatu du ekintzaileak, bai eta hori gauzatzeko borondatea ere. Ondoren, Berritze fasean sartzeko bideari ekingo zaio.

### 5.2.1.-Alternatibak planteatzea

*Sorkuntza teknikak modu autonomoan erabiltzea, bakarka nahiz taldean, errealitatea hobetzen lagunduko duten ideiak sortzeko eta alternatibak planteatzeko, eta, ondoren, alternatibak ebaluatzeko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Espiritu berritzailea eta sortzailea du.
- Sorkuntza teknikak erabiltzen ditu ideia berriak sortzeko, bakarka nahiz taldean.
- Gauza berriak egitea bilatzen du, edo gauza berak beste modu batera egitea.
- Baikorra da.
- Sortze eta ebaluazio faseak bereizten ditu, eta, sortze fasean, iritziak ekiditen ditu.
- Alternatibak planteatzen ditu sortutako ideietan oinarrituta.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Sormenari bide emango dioten eta imajinazioa eta amesteko gaitasuna garatuko duten jarduerak diseinatzea eta ezartzea (iritzirik gabe).
- Errealitate jakin baten aurrean, alternatibak planteatzeko eskatzen duten jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Ikasleak egiten duen proposamen kopurua (etorria) behatzea, baita erregistroz aldatzeko eta hainbat ideia sortzeko (malgutasuna) eta ideia berritzaileak asmatzeko duen gaitasuna (originaltasuna) ere.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka nahiz taldean).
- Emandako alternatibei eta horietara iristeko moduari buruzko idatzizko dokumentazioa eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarrizketa ikaslearekin.
- Kompetentzia maila eta bilakaera baloratzea (etorria, ideiak sortzeko malgutasuna eta originaltasuna, sortzeko gaitasunarekiko baikortasuna eta konfiantza, ekiteko sormena...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikorrek duen ezarpen maila ebaluatzea.



### 5.2.2.-Alternatibak ebaluatzea

**Ebaluazio irizpideak zehaztea, eta irizpide horiek ezartzea bai bakarka, bai taldean, hobetu beharreko errealitatearen alternatibak ebaluatzeako, eta, ondoren, alternatiba egokiena aukeratzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Alternatibak ebaluatzeako ebaluazio irizpideak ezartzen ditu.
- Irizpideak garrantziaren arabera neurtzen ditu.
- Alternatibak ebaluatzeako ebaluazio irizpideak aplikatzen ditu.
- Alternatiba bakoitzaren arriskuak neurtzen ditu.
- Kontuan izandako alternatiba bakoitzaren alde onak eta txarrak ebaluatzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Alternatibak ebaluatzeako jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Ikasleek proposatutako irizpideen logika balioestea, baita irizpide bakoitzari emandako garrantzia ere (neurtzea).
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpenak eskatzea, bai egindako ebaluazioari buruzkoa (alternatiba bakoitzaren alde onei eta txarrei buruzko arrazoiketan eta argudioetan arreta berezia jarritz), bai egindako moduari buruzkoa..
- Elkarrizketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (erabilitzako irizpideak, irizpideen neurketa, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikoko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

### 5.2.3.-Alternatiba egokiena aukeratzeko

**Erabakiak hartzea eta alternatiba bat aukeratzeko, horrek dakarren arriskua bereganatuz, parte hartzen duten pertsonekin argudiatuz eta adostuz, ondoren, hori gauzatzeko beharrezko ekintzak aurrera eramateko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Arriskuak eta konpromisoak dakarten erabakiak hartzen ditu.
- Adostasuna bilatzen du talde erabakietan.
- Erabakiak hartzeko erabiltzen dituen arrazoiak argudiatzen ditu.
- Behar adina aukera dituen harten ditu erabakiak (zalantza gainditzen du).

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Jarduerak diseinatzea eta ezartzea alternatibak aukeratzeko eta erabakiak hartzeko (bakarka eta taldean).
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea aukeratuak alternatibari buruzkoa, (alternatibaren argumentuekin batera) eta aukeraketa egiteko moduari buruzkoa.
- Elkarrizketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (erabakiak hartzeko modua, erabilitako argudioak, arriskuak kalkulatzeko eta bereganatzea, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikoko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

## 5.3.- BERRIKUNTZA: IDEIAK GAUZATZEA

**Egungoaren alternatiba moduan planteatutako errealitatea gauzatzeko beharrezko ekintzak egitea, nahiari konpromisoa batuz eta ekite plan bat ezarriz, aurrera eramanez eta jarraipena eginez, hobekuntza gauzatu ahal izateko eta eragina ebaluatzeako.**

Beharrezkoa eta garrantzitsua da ideia berriak sortzea eta egungo errealitatearentzako alternatibarik egokiena diseinatzea, baina errealitatea ez da aldatuko (ez da hobetuko) gauzatzeko ekintzak egiten ez badira. *Ezinbestekoa iruditzen zaigu lortu nahi den errealitate bat gauzatzeko esperientzia praktikoa garatzea: buruan “konpondu” dugun horren aurrean zailtasunak agertzen dituzte, ekintzarako prestatzen dute, eta, azken batean, ezinbestekoak dira errealitate hobea gauzatzeko.*

Egungo errealitatearentzako alternatiba bat gauzatzeko ekintzak aurrera eramateko, hori lortzeko gogoia edukitzeaz gain horretan parte hartzeko konpromiso pertsonala bereganatu behar da.





Beharrezkoa da, halaber, ekintza plan bat prestatzea: lortu nahi diren helburuak, kronograma, beharrezko pertsonak eta funtzioak (ardurak), eta beharrezko bitarteko materialak eta ekonomikoak. Emaitzen aurreikuspena ere ezarri beharko da.

Behin ekintza plana zehaztuta, beharrezkoa da aurrera eramatea eta bilakaeran arreta jartzea, baita ingurunearen bilakaeran ere; ondoren, jarraipena egin behar zaio eta, desbideratzeak kontuan hartuz, neurri zuzentzaile egokiak hartu beharko dira.

*Berritze fasearen bidez, ekintzaileak errealitatean jardun du, eragin egingo dio errealitateari, eta Ebaluazio fasean sartzeko urratsa eman du.*

### 5.3.1.-Errealitate bat gauzatzeko konpromisoa hartzea

*Errealitate bat gauzatzeko konpromisoa hartzea, egiteko erabakia hartuz eta erabaki hori adieraziz, aurrera eramateko modua zehazteko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Konpromiso pertsonalaren garrantzia eta inplikazioa balioesten ditu.
- Aldez aurretik bakarka edo taldean hartutako erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.
- Bereganatzen dituen konpromisoak adierazten ditu.
- Ekintzailea da.
- Gauzak egiteko borondatea eta ardura ditu (apatari aurre egiteko).
- Oso serio hartzen du emandako hitza, eta betetzen du (ardura pertsonala).

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Konpromisoak hartzea bultzatzen duten jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Elkarrizketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Hartutako konpromisoen kopurua balioestea, baita kasu bakoitzaren zailtasun maila ere.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (konpromisoak bereganatzea, pertsonaren inplikazio maila, ekimena, ardura, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikoko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

### 5.3.2.-Plangintza

*Irakaslearen laguntzaz, errealitate hurbil bat gauzatzeko ekintza plan bat ezartzea, aldez aurretik helburua identifikatuz, aurrera eraman beharreko ekintzak, kronograma, beharrezko pertsonak eta haien funtzioak (ardurak), beharrezko bitarteko materialak eta ekonomikoak definituz eta emaitzak aurreikusiz plan hori aurrera eramateko.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Helburu bat lortzeko behar den programa (lanak) planteatzen du.
- Bere mugak ezagutzen ditu.
- Ekin aurretik plangintza egiten du, bakarka edo taldean, proiektuaren edo helburuaren arabera.
- Antolatze gaitasuna du.
- Lanak betetzeko behar den denbora kontuan hartzen du.
- Kronograma bidezko plangintza ezagutzen eta erabiltzen du.
- Helburuak betetzeko zer baliabide behar diren aurreikusten du (giza baliabideak, baliabide materialak, baliabide ekonomikoak, etab.).
- Tarteko helburuak ezartzeko gai da, eta horiek lortuta helburu orokorrak lortuko ditu.
- Lortu beharreko emaitzak aintzat hartzen ditu, aurrez egindako garapen planteamendu baten arabera, eta eragileak kontuan izanik.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ekintza planak ezartzeko jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Ezarritako planari eta aurrera eramateko moduari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Ezarritako plangintzaren logika aintzat hartzea; edukiak eta iraupena.
- Elkarrizketa pertsonala ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (plangintzaren maiztasuna, kalitatea, antolatze gaitasuna, aurreikusteko gaitasuna, inplikaturako eragileak kontuan hartzea, taldeko kide bakoitzak plangintza prozesuan duen parte hartze maila, taldeko ekintza planak ezartzeko prozesua, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikoko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.



### 5.3.3.-Ekintza

**Aurrez ezarritako ekintza plana aurrera eramatea (beste pertsona batzuen lankidetzaz bilatuz), bilakaeran arreta jarri, baita ingurunearen bilakaeran ere, lortu nahi den errealitate gauzatzeko eta balizko desbideratzeak zuzentzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Lortu nahi duen helburuaren ikuspegiari heltzen dio, eta emaitzari antzematen dio.
- Ekintzak aurrera eramaten ditu, aurrez ezarritako plana oinarritzat hartuta.
- Ardurak planteatzen eta esleitzen ditu.
- Ordenatua da lehentasunak esleitzeko eta lanak egiteko.
- Nahi dituen helburuak lortzeko borondatea du.
- Saiatua da arazoak konpontzeko.
- Badaki neurtutako arriskuak hartzen eta arriskua partekatzen.
- Konfiantza du bere gaitasunetan.
- Anbiguotasuna, tentsioa eta ziurgabetasuna onartzen ditu.
- Taldeak sortzea sustatzen du, eta parte hartzen du.
- Garrantzi handiko helburuen aurrean, tarteko etapak betetz aritzen da (pauso pauso).

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Errealitate bat fisikoki gauzatzeko jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Garbi definitu gabeko proiektuak aurrera eramatea sustatzea, eta lan anbiguoak kudeatzeko eta egiteko gaitasuna ebaluatzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean), bereziki, ezarritako planari eusteko eta jarraitzeko.
- Egindako ekintzari eta aurrera eramandako prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarrizketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (erabakiak hartzeko modua, erabilitako argudioak, arriskuak kalkulatzeko eta bereganatzea ...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikorrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

### 5.3.4.-Desbideratzeak jarraitzea eta zuzentzea

**Ekintza planaren jarraipena egitea, eta, behar izanez gero, desbideratzeak zuzentzea, horretarako beharrezko babesak bilatuz, helburu den hobekuntza errealitate bihurtzeko eta sortutako inpaktu erreala ebaluatzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Egindako ekintzekin lortutakoaren jarraipena egiten du.
- Ekiten ari den errealitatearen egoera ebaluatzen du.
- Desbideratzeak identifikatzen ditu.
- Desbideratzeak zuzentzeko modua bilatzen du.
- Desbideratzeak zuzentzen laguntzeko babesak bilatzen ditu.
- Une oro berrikusten du egindako plangintza, eta desbideratzeak zuzentzeko ekintzak egiten ditu.
- Larrialdiko erabakiak hartzen ditu, egoerak hala eskatzen duenean.
- Akatsak gainditzen ditu, eta horietatik ikasten

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Errealitatea bat fisikoki gauzatzeko jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean), bereziki, desbideratzeak jarraitzeari eta zuzentzeari dagokionez, ezarritakoa bete arte.
- Egindako ekintzei eta aurrera eramandako prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarrizketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Aurreikusitako egoerak sustatzea, eta ikasleen erreakzio gaitasuna ebaluatzea.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (jarraipen maila eta kalitatea, aurreikus ezin daitezkeen kasuetan eta desbideratzeetan duen parte hartze maila, akatsak onartzeko maila eta horietatik ikastea, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikorrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

## 5.4.- EBALUAZIOA

**Egindako ekintzen eragin erreala ebaluatzea, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz, bai pertsonalki, bai eragina jasan duten taldeekin eztabaidatuz, lortu nahi den helburuaren betetze maila aztertzeko (nahi gabe sortutako beste eraginak ere ebaluatu beharko dira), etahori guztia ekite prozesua jarraitzeko (prozesu jarraitua).**

Aukeratutako alternatiba gauzatzeko ekintzek errealitateari eragiten diote. Hori dela eta, beharrezkoa da, Berritze faseaz gain, ekintza horiek errealitatean izandako eraginak ebaluatzeko fasea ere izatea ekintza prozesu guztietan. Kasu honetan, eragina errealitateari eragiten dion oro da, eta aurreikusitakoaz gain, aurreikusitako gabekoak ere kontuan hartzen ditu.



Beharrezkoa da, beraz, lortu nahi d(ir)en helburu(ar)en betetze maila ebaluatzea, baita aurreikusi gabeko balizko eraginak aztertzea ere; hori guztia informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoz egingo da, eta informazio hori norberarena eta eragindako taldearekin eztabaidatuz lortutakoa izango da (ingurumena kontuan izanik).

Esku-hartzeak eragindako alde onak eta txarrak aztertzeaz gain, beharrezkoa da etorkizunera-ko ondorioak ateratzea, etorkizuneko esperientziarako baliagarriak izan daitezkeen iritzi guztiak jasoz (ikasketa) eta hobetzeko aukera berriak identifikatuz. *Ondoren, prozesu berri baten Fase Analitikoarekin lotuko da, ekite prozesuarekin jarraitzeko (inoiz amaitzen ez den prozesu jarraitua eta dinamikoa).*

#### 5.4.1. Egindako ekintzen emaitzei buruzko informazioa biltzea

*Bere ekintzen ondorio nagusiak biltzea eta ulertzea -ekintzak aurreikusitakoak izan edo ez-, ondoriozko errealitatea behatuz, eta egindako ekintzen eragina jasan duten taldeak elkarriketatuz, aurreikusitako helburuak eta lortutakoak konparatzeko, eta aurreikusi gabeko beste eragin batzuk ebaluatzeko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Arretaz behatzen du lan edo proiektu bat egin ondoko errealitatea.
- Egiten dituen ekintzen ondorioak ezagutzeko interesa agertzen du.
- Egindako ekintzek zer talderi eragin dion identifikatzen du (pertsonak, erakundeak, ingurumena, etab.).
- Taldeekin hitz egiten du, eta ekintzen eraginari buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa biltzen du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Egindako ekintza bat ebaluatzeko jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Ebaluatzeko jasotako informazioari eta erabilitako bitartekoei eta iturriei buruzko idatzizko dokumentazioa eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarriketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (autonomia maila, ebaluazioaren kalitatea eta sakontasuna, etab.).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikorrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

#### 5.4.2. Aurreikusitako eta lortutako helburuak erkatzea

*Ekintza planean aurreikusitako eta errealitatean lortutako helburuak erkatzea, desberdintasun kuantitatiboak eta kualitatiboak eta aldekoak eta kontra-koak identifikatuz, ondorioak ateratzeko eta balizko aukera berriak planteatzeko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Lortutako emaitzak eta aurreikusitako helburuak identifikatzen ditu.
- Aurreikusitako helburuak eta lortutako emaitzak erkatzen ditu, desbideratzeak identifikatzen ditu (kuantitatiboak, kualitatiboak, aldekoak, aurkakoak) eta horien larritasuna edo garrantzia neurtzen du.
- Jendearen ikuspegia -ikuspegi kontrajarriak barne- ulertzen eta aurkezten ditu, betetako helburuen mailari dagokionez.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Egindako ekintza bat ebaluatzeko jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean), helburuen lorpen mailari dagokionez.
- Egindako ebaluazioari eta horretarako jarraitutako prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (ekintzak aurreikusitako helburuekiko izandako eragina ebaluatzea...).
- Egindako eraketaren (kuantitatiboa eta kualitatiboa) emaitza baloratzea.
- Elkarriketa ikaslearekin (eta bere taldekideekin, taldean lan eginez gero).
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (autonomia maila, ebaluazioaren kalitatea eta sakontasuna...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espezifikorrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

#### 5.4.3. Aurreikusi gabeko eraginak ebaluatzea

*Planean aurreikusi gabeko eraginak identifikatzea, hasierako eta ondoriozko errealitatea kontuan izanik (pertsonak, ondasun materialak, ingurumena, etab.), ondorioak atera eta balizko aukera berriak planteatzeko.*



#### Ebaluazio irizpideak

- Taldeetatik jasotako informazioa aztertzen du, eta aurreikusi gabeko eraginak identifikatzen ditu.
- Aurreikusi gabeko eraginak positiboak edo negatiboak diren bereizten du, baita zer mailatakoak edo neurritakoak diren ere (larritasuna neurtzea).
- Aurreikusi gabeko eraginaren ikuspegiak ulertzen eta azaltzen ditu.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Egindako ekintza bat ebaluatzeke jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean), bereziki, aurreikusi gabeko emaitzak identifikatzeko kezkarri dagokiona.
- Egindako ebaluazioari eta jarraitutako prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (ekintzak norberarengan, lantaldean, eragileengan eta ingurumenean izandako eraginaren ebaluazioa).
- Elkarrizketa ikaslearekin eta ekintzen eragina jasandako eragileekin (ahal den neurrian).
- Aurreikusitako eraginaren larritasuna neurtzeko gaitasuna baloratzea.
- Kompetentzia maila eta bilakaera baloratzea (autonomia maila, ebaluazioaren kalitatea eta sakontasuna...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espe- zifiko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

#### 5.4.4. Ondorioak ateratzea: aukerak planteatzea

*Egindako ekite prozesutik ondorioak ateratzea, eta balizko aukera berriak planteatzea, aurreikusitako helburuen eta aurreikusi gabeko eraginaren eba- luaziotik abiatuz, etorkizuneko esperientziatarako (ikaskuntza) baliagarriak izan daitezkeen beste iritzi batzuk jasoz, etorkizunean hobetzeko aukera berriak identifikatuz eta prozesu berri baten fase analitikoarekin lotuz; hori guztia ekite prozesuarekin jarraitzeko egingo da (inoiz amaitzen ez den pro- zesu jarraitua eta dinamikoa).*

#### Ebaluazio irizpideak

- Bizitzako gertaera guztietatik ondorioak ateratzen ditu, bai esperientzia positibo- etatik, bai negatiboetatik.
- Esperientzia batean saihestu zitezkeen akatsak identifikatzen ditu, etorkizuneko esperientzietan kontuan izateko.
- Esperientzia baten arrakasta faktoreak identifikatzen ditu, faktore horiek etorkizu- neko esperientzietan sustatzeko.
- Esperientzia bakoitzaren ikaskuntza pertsonala balioesten du, baita etorkizune- ko esperientziatarako duen potentziala ere.
- Talde lanean aniztasunak duen balorea onartzen du.
- Baikorra da etorkizunari dagokionez.
- Errealitate baten egoeratik abiatuta, aurrera egiteko edo hobetzeko modua bila- tzen eta planteatzen du.
- Akatsak gainditu eta horietatik ikasteko gaitasuna du.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Egindako ekintza bat ebaluatzeke jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean), bereziki, edozein egoera hobetzeko aukerak planteatzeari dagokionez.
- Egindako ebaluazioari, ebaluazio horren ondorioen eta horretarako jarraitutako prozesuari buruzko (esperientziatik ikastea) idatzizko doku- mentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea.
- Elkarrizketa ikaslearekin eta ekintzen eragina jasandako eragileekin (ahal den neurrian).
- Errealitate baten ondorio oso desberdinak biltzeko, ulertzeko eta argu- diatzeko gaitasuna balioestea (hainbat ikuspegitan oinarrituta).
- Kompetentzia maila eta bilakaera baloratzea (autonomia maila, ebalua- zioaren kalitatea eta sakontasuna, etorkizunerako ikaskuntza...).
- Ekite prozesua aplikatzea dakarten proiektuetan azpikonpetentzia espe- zifiko horrek duen ezarpen maila ebaluatzea.

## 5.5.- EKITE PROZESUAREN APLIKAZIOA

**Bizitzako esparruetan ekitea, ekite prozesua aplikatuz (autoerrealizatzeke), nor bere bizi- tzan parte hartuz eta besteei lagunduz eta positiboki eraginez, eta gizateriaren eta planetaren garapen iraunkorrari lagunduz, giza espezieko kide izatearen sentimenduan oinarrituta.**

“Ekiteak” pertsonen bizitzako esparru guztiak hartzen ditu, esparru profesionaletik haratago, eta, horregatik, “Egiten eta ekiten ikasi” konpetenziaren beharra eta konpetentzia hori garatzeko auke- ra esparru guztietan identifikatzen dugu: **esparru pertsonalean-indibidualean**, norberaren ezau- garri pertsonalak eta besteei harremanak hobetzeko, hau da, norberaren gabeziak, ahultasun- nak, beldurrak-fobiak edota mugak onartzeko eta hobetzeko; hezkuntza eta **lanbide esparruan**, norberaren gaitasunak eta ezagutzak hobetzeko, baita etorkizun ekonomikoari eta lanbide etorkizu-



nari hobeto aurre egiteko ere; eta **gizarte eta natura esparruan**, gizarte parte hartzaileagoan, dinamikoagoan eta aberatsagoan besteekin batera bizitzeko, baita gure gizartearen garapen iraunkorrean aurrera egiteko ere.

Sei azpikonpetentzia espezifiko identifikatu ditugu “Bizitzako arloetan ekin” azpikonpetentzia orokorraren barruan; horietako bat zuzenean dago lotuta esparru pertsonalarekin-indibidualarekin, beste bat gizarte eta natura esparruarekin dago lotuta, eta lauk lotura zuzenagoa dute heziketa eta lanbide esparruarekin. **Esparru pertsonala-indibiduala** eta **gizarte eta natura esparrua** hezkuntza kompetentzia orokor hauek garatzen dituzte: “**Norbera izaten ikasi**” eta “**Elkarrekin bizitzen ikasi**”; horregatik erabaki dugu azpikonpetentzia espezifiko bakarra garatzea esparru horietako bakoitzean, pertsonen garapenean ekite prozesua ezartzeak duen garrantzia azpimarratzeko.

Bestalde, **prestakuntza eta lanbide esparrua** sakonago lantzea erabaki dugu, bere horretan ez baita modu espezifikoan lantzen beste hezkuntza kompetentzia orokorretan. Lau azpikonpetentzia espezifiko identifikatu ditugu: “Hezkuntza gabeziei erantzutea eta autoikaskuntza”, “Bokazioa”, “Lan munduan sartzea” eta “Enpresa sortzea eta autoenplegua”. Azpikonpetentzia espezifiko horietan, *prestakuntza hobetzeko aktiboki parte hartzeari eta bilakaera profesionalari egiten zaio erreferentzia.*

#### 5.5.1. Esparru pertsonalean-indibidualean ekitea

*Ezaugarri pertsonalak behatzea eta identifikatzea, sailkatzea eta lehenetsunak ezartzea (irakasle-tutorearen ekimenaren bidez, eta, batzuetan, bere ekimenaren bidez), eta ekite prozesua aplikatzea lortu nahi dituen gaitasunak esperimendatzeko eta garatzeko, baita jende mota ororekiko harremana hobetzeko ere, pertzepzioak eta ondorioak beti beste pertsona batzuen iritziekin alderatuz.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Bere gaitasunak espiritu kritiko-eraikitzailearen bidez identifikatzen ditu.
- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) bere gaitasunak ezagutzeko, onartzeko, partekatze eta garatzeko, baita besteekiko harremanak hobetzeko ere.
- Bizitzako esperientziak gaitasun pertsonalak garatzeko ematen dituzten aukerak kontuan izaten eta aprobetxatzen ditu.
- Parte hartzen duen proiektu edo jarduera bakoitzak bere gaitasunak pertsonalak garatzeko izan duen eragina balioesten du.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Esparru pertsonalean-indibidualean ekite prozesua aplikatzeko proiektuak planteatzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Egindako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Elkarrizketak ikaslearekin, ikaskideekin eta familiarekin.
- Kompetentzia maila eta bilakaera baloratzea (prozesuaren lau faseak betetzea, fase bakoitzaren garapen maila, autonomia maila, esperientziatik ikastea, prozesua modu naturalean ezartzea ...)

#### 5.5.2. Gizarte eta natura esparruan ekitea

*Ekite prozesua esparru komunitarioko gizarte proiektuetan aplikatzea (herrian edo eskualdean), proiektu hori egin nahi duten ikaskideekin batera, gizarte parte hartzaileagoan, dinamikoagoan eta aberasgarriagoan bizitzeko, naturako izaki bizidunak ezagutzeko, balioesteko eta errespetatzeko; eta ingurune hurbileko garapen iraunkorreko proiektuak planteatzeko eta aurrera eramateko (edo aktiboki parte hartzeko) gai izatea, gure gizartearen naturaren garapen iraunkorra lortzeko.*

##### Ebaluazio irizpideak

- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) gizarte ingurune hobea sustatzeko.

##### Ebaluaziorako orientazioak

- Gizarte esparruan ekite prozesua aplikatzeko proiektuak planteatzea.
- Natura esparruan ekite prozesua aplikatzeko proiektuak planteatzea.



- Gizartearen garapen iraunkorrerako ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) naturaren esparruan.
- Mundu ikuskeratik aritzen da, eta gizateria osoarentzako errealitate hobea egiten du lan.
- Bere ekintzek beste batzuegan, erakundeetan eta ingurunean duten eraginak ezagutzen ditu (kontuan izaten ditu ekin aurretik, eta ekin ondoren balioetsi egiten ditu).
- Sentsibilizatu egiten da, eta hainbat testuingurutan (eskola, lagunak, kirola, kultura, etab.) gizarte esparruko proiektuak sustatu eta dinamizatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ohartzen da gure gizarteak ingurumenari eragiten diola, eta naturan duen eragina hobetzeko jarrera proaktiboa du.
- Beste batzuek gizarte esparruan garatutako proiektuak aztertzen, balioesten eta bereganatzen ditu.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Egindako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Elkarrizketa ikaslearekin eta proiektuan parte hartu duten pertsonekin/erakundeekin/ eragileekin.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (gizateriarentzako errealitate hobea bilatzea, prozesuaren lau faseak betetzea, fase bakoitzaren garapen maila, autonomia maila, esperientziatik ikastea, prozesua modu naturalean ezartzea ...).

### 5.5.3. Hezkuntza gabeziei erantzutea eta autoikaskuntza

**Norberaren ekimenez, hezkuntza gabeziak aztertzea eta horiei erantzutea, izan eskolako gaiak, izan gai pertsonalak edo zaletasunak (adibidez: bakoitzari interesatzen zaizkion gaietan sakontzea), eta ikaskideen (edo beste edonoren) hezkuntza gabeziei erantzuten laguntzea, ekite prozesua eta eskura dituen baliabideak erabiliz (ikastetxean, herrian, familian, lagunartean), ezagutza eta trebetasun maila handiagoa lortzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...), hezkuntza gabeziei erantzuteko, eta ezagutza eta trebetasun maila handiagoa lortzeko.
- Gauza berriak ikasteko interesa agertzen du.
- Interesatzen zaizkion gaietan ezagutza eta trebetasun handiagoak lortzeko moduak bilatzen ditu (eskolako gaietan, zaletasunetan...).
- Bizitza ikaskuntza prozesu iraunkortzat hartzen du.
- Bere ikaskideekin batera aritzen da, elkarrekin partekatuz ezagutzak eta trebetasunak.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Hezkuntza gabeziei eta autoikaskuntzari erantzuteko ekite prozesuak aplikatzeko proiektuak planteatzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Aurrera eramandako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Elkarrizketa ikaslearekin eta ikaskideekin.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (autoikaskuntza maila, beste-ikaskuntzari emandako laguntza, prozesuaren lau faseak betetzea, fase bakoitzaren garapen maila, autonomia maila, esperientziatik ikastea, prozesua modu naturalean ezartzea ...).

### 5.5.4. Bokazioa

**Kezka pertsonalak planteatzea eta intereseko arlo horiek araututako hezkuntzaren gaiekin bat datozen aztertzea, ondoren in situ ezagutzeko materia horien ezarpen erreala, eta gai horietako prestakuntza handitzeko eta sakontzeko; zer arlotan gozatzen duen identifikatzea, baita bere alde indartsuak eta ahulak ere, eta bereziki interesatzen zaizkion arloetako jarduerak garatzea alde ahulak hobetzeko.**

#### Ebaluazio irizpideak

- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) jarduerara motak esperimintatzeko eta ezagutzeko, zer jarduerarekin identifikatzen den ikusteko, eta bere lanbide bokaziorantz jotzeko.
- Jarduera berriak ezagutzeko eta bere burua hobeto ezagutzeko esperientziak bilatzen ditu.
- Gizarteari zer ekarpen/zerbitzu eman nahi dion hausnartzen du, eta aukera hartzen saiatzen da.
- Interesa agertzen du eta badaki zer premia dituen gizarteak, bai eta zer ekarpen/zerbitzu eskatzen dituen ere.
- Kontuan hartzen ditu merkatuaren aukerak, beharrak eta bilakaera.
- Gizarteari eman nahi dion ekarpenari dagokionez, bere alde indartsuak eta ahulak ezagutzen ditu, baita gizartearen eskaerak ere.
- Ekite prozesua erabiltzen du bere alde ahulak hobetzeko eta alde indartsuak sendotzeko.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Ikasgelan erabilitako kontzeptuak eta materialak errealitatean aplikatzeko ezagutza sustatzen duten jarduerak diseinatzea eta ezartzea.
- Ikasleentzat interesa izan dezaketen esperientziak garatzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Egindako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Elkarrizketa ikaslearekin.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (lanbideei buruzko lehenetsuen eta orientazioaren ezagutza maila, esperientzien garapen maila, merkatuaren beharren ezagutza maila, lanbide konpetentziei buruzko garapen eta ezagutza maila, prozesuaren lau faseak betetzea, fase bakoitzaren garapen maila ...).

### 5.5.5. Lan munduan sartzeta

**Merkatuak zer langile mota eskatzen dituen ezagutzeta, curriculum bat egiten jakitea eta laneko elkarrizketa bat prestatzea, ordaindutako jarduerak esperimintatzea eta norbera lanbideetara nola egokituko den ebaluatzea (jarduera sektorearen, lanpostu motaren eta abarren arabera), ekite prozesua aplikatuz, lan munduan modu egokienean sartzeko, eta horrela lanbide bokazioa garatu ahal izateko.**



#### Ebaluazio irizpideak

- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) lan munduan sartu eta bere lanbide bokazioa garatzeko.
- Badaki zer aukera dauden lan merkatuan bere lanbide bokazioa garatzeko.
- Badaki Curriculum Vitae idatziz komunikatzen.
- Badaki laneko elkarrizketa bat prestatzen (zer adierazi Curriculum Vitae, nola adierazi egoki, egin beharreko lanaren interesguneak...).
- Esperientzia eta sarrera ekonomikoak emango dizkion lan esperientziaren bat garatzea.
- Lan bokazioa garatzeko eta sarrera ekonomikoak lortzeko modua garatzea.

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Lan munduan sartzeko ekite prozesua erabiltzea eskatzen duten proiektuak planteatzea.
- Lan harremanen errealitatea ezagutzen lagunduko duten hezkuntza edukiak diseinatzea eta ezartzea (lan kontratuaren edukiak, langilearen eskubideak eta betebeharrak, lan hitzarmena, Curriculum Vitae egitea eta komunikatzea, lan elkarrizketa...).
- Lan esperientzien garapena sustatzea.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Egindako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Elkarrizketa ikaslearekin eta lan inguruarekin.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (lan merkatuaren ezagutza maila, norberaren gaitasunetan duen konfiantza, esperientzietatik ikastea, prozesuaren lau faseak betetzea, fase bakoitzaren garapen maila...).

#### 5.5.6. Enpresa sortzea-Autoenplegua

*Merkatuaren aukerei eta bete gabeko beharrei buruzko orientazioa izatea, negozio ideiak planteatzeko eta horietakoren batekin enpresa jarduera-lan-proiekturen bat garatzeko, hasieratik amaierara (esperimentatze erreal+aurre-bideragarritasunaren azterketa), ekite prozesua ezarri, ikaskideekin batera lan eginez eta neurtutako arrisku ekonomikoak hartzeko gai izanez; horren guztiaren helburua lanbide bokazioa autonomiaz garatzeko dituen aukerez kontzientziatzea da.*

#### Ebaluazio irizpideak

- Bete gabeko beharrei edo egin daitezkeen hobekuntzei erantzuten dien negozio ideiak planteatzen ditu (balio erantsi handiagoa bezeroei).
- Badaki nola garatzen diren enpresa plan baten zatiak (merkatuaren azterketa, azterketa tekniko-produktiboa, jardueraren prototipo-testa eta ekonomiari, gizar-teari eta inguruneari buruzko bideragarritasun azterketa).
- Ekite prozesua erabiltzen du (analitika, sormena, berrikuntza, ebaluazioa...) enpresa bat sortzeko proiektua garatzeko.
- Enpresa bat sortzeko eta merkatuak finkatzeko oinarriak ezartzeko buruzko ikuspegi orokorra du.
- Badaki arrisku ekonomikoak neurtzen eta arriskuak hartzerantz ausartzen da.
- Badaki bizitza anbiguotasun iraunkorra dela, eta horregatik ahalegintzen da ziurgabetasuna kudeatzen.
- Besteren konturako lanaz gain, badaki beste aukera bat dagoela etorkizunerako

#### Ebaluaziorako orientazioak

- Sorkuntza teknikak planteatzea, ikasleek negozio ideia edo aukera berriak proposatzeko.
- Enpresa bat sortzeko prozesuaren errealitatea ezagutzeko hezkuntza edukiak diseinatzea eta ezartzea.
- Enpresa plan oso baten garapena eskatzea, horretan lan egitea eta ebaluatzea, ikasle talde txiki bakoitzak definitutako negozio ideia batetik abiatuz.
- Jarrera eta jokabidea behatzea (bakarka eta taldean).
- Egindako ekite prozesuari buruzko idatzizko dokumentuak eta ahozko aurkezpena eskatzea (fase bakoitzeko lana identifikatzen saiatuz).
- Ageriko irtenbiderik edo alternatibarik gabeko egoerak eztabaidatzea, muturreko egoerei erantzuteko gaitasuna behatuz (Taldea dinamika, Kasuaren metodoa eta antzeko metodologiak).
- Elkarrizketa ikaslearekin, lankideekin, eta prozesuan parte hartu duten eragileekin.
- Konpetentzia maila eta bilakaera baloratzea (norberaren kontura Errealitatean lan egiteko konfiantza, prozesuaren lau faseen ezarpen maila, fase bakoitzaren garapen maila...).



## HEZKUNTZA KONPETENTZIA OROKORREN MAPA

1.- IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASI	2.- KOMUNIKATZEN IKASI	3.- ELKARREKIN BIZITZEN IKASI	4.- NORBERA IZATEN IKASI	5.- EGITEN ETA EKITEN IKASI
<p>1.1.- Informazioaren interpretazioa: 1.1.1.- Konparazioa 1.1.2.- Sailkapena 1.1.3.- Azterketa eta sintesia 1.1.4.- Sekuentziatzea 1.1.5.- Arazoak aurkitzea</p> <p>1.2.- Informazioa sortzea: 1.2.1.- Ideiak sortzea 1.2.2.- Loturak egitea 1.2.3.- Indiak sortzea 1.2.4.- Metaforak sortzea</p> <p>1.3.- Informazioaren ebaluazioa: 1.3.1.- Iturrien ikerketa 1.3.2.- Arazoren interpretazioa 1.3.3.- Ondorioak iragaritzea 1.3.4.- Arazoak eta enologiak 1.3.5.- Dedukzio arazoak iragankorra</p> <p>1.4.- Erabakiak hartzea: 1.4.1.- Nerbieren erabakiak 1.4.2.- Talde erabakiak</p>	<p>2.1.- Ahozko hizkuntza: 2.1.1.- Elkarrikeria informala 2.1.2.- Lanikidetzan lan egiteko elkarrengina 2.1.3.- Ahozko argudioak 2.1.4.- Arreaz entzutea 2.1.5.- Bakar batek kudeatutako tesuen ekolozpena 2.1.6.- Ahozko aurkezpenak</p> <p>2.2.- Hizkuntza idatzia: 2.2.1.- Irakurketa prozesua 2.2.2.- Interpretazio okorra 2.2.3.- Asegin hartzeko irakurmena 2.2.4.- Interpretazio lurrin erabilera 2.2.5.- Interpretazio kritikoa 2.2.6.- Tesuen sintesia 2.2.7.- Informazeko tesuen ekolozpena 2.2.8.- Argudio tesuen ekolozpena</p> <p>2.3.- Beste hizkuntza batzuk: 2.3.1.- Hizkuntza artistikoak 2.3.2.- Hizkuntza matematikoa 2.3.3.- Hizkuntza zientifikoa</p> <p>2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak: 2.4.1.- Mezu mediatikoen interpretazioa 2.4.2.- Mezu mediatikoen sortzea 2.4.3.- Hedabideen ezagutza</p> <p>2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT): 2.5.1.- Sistema informatikoen kontrola 2.5.2.- Informazio bilaketa eta hautaketa 2.5.3.- Komunikazio telematikoa. 2.5.4.- Informazioa prozesatzea eta elizketa 2.5.5.- Datuen kudeaketa eta kalkulua</p> <p>2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa: 2.6.1.- Kontzientzia mediatikoa: interpretazio kritikoa 2.6.2.- Kontzientzia mediatikoa: erantzukizuna izatea 2.6.3.- Kontzientzia soziolinguistikoa: interpretazio kritikoa 2.6.4.- Kontzientzia sozio-linguistikoa: euskararen normalizazioarekiko erantzukizuna 2.6.5.- Kontzientzia sozio-linguistikoa: eleantzasunaren balioespina</p>	<p>3.1.- Personaneko kompetentzia: 3.1.1.- Oinarizko konbentzioak 3.1.2.- Entzute aktiboa 3.1.3.- Empatia 3.1.4.- Kontzientzia emozionala 3.1.5.- Aseribitatea 3.1.6.- Prosozialtasuna</p> <p>3.2.- Galazkak konpondu: 3.2.1.- Emozioak erregulatzeko kontrolatzea 3.2.2.- Pentsaera gogopetsua 3.2.3.- Negoziazioa 3.2.4.- Bihartzea</p> <p>3.3.- Parte hartze demokratikoa: 3.3.1.- Aduak egitea 3.3.2.- Erantzukizuna 3.3.3.- Praxigonismoa banatzea 3.3.4.- Elkarlanean erabiltzea 3.3.5.- Herriaren partaidetza</p> <p>3.4.- Elkarlana eta talde lana: 3.4.1.- Erespetua 3.4.2.- Elkarlanean antzeko irakurketa 3.4.3.- Elkarlana 3.4.4.- Partekatzea 3.4.5.- Jarduera</p> <p>3.5.- Aniztasuna: 3.5.1.- Besteak onartzea eta balioestea 3.5.2.- Onartzea 3.5.3.- Gaitasun kritikoa 3.5.4.- Tolerantzia aktiboa</p>	<p>4.1.- Gorpuztasuna: 4.1.1.- Gorpuzaren aldaketak barmatzea 4.1.2.- Ixura fisikoa barmatzea 4.1.3.- Gorpuz zainzea 4.1.4.- Droga menedusaren prebentzioa 4.1.5.- Semimendu adierazpen fisiko 4.1.6.- Sexuaren eta emozioen autokontrola 4.1.7.- Sexualitate arduratsua 4.1.8.- Sexualitatea barmatzea</p> <p>4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala: 4.2.1.- Segurtasuna 4.2.2.- Araua uertzea 4.2.3.- Buldak emozioak eta jareak kontrolatzea 4.2.4.- Pozo geroko urtea 4.2.5.- Arazoak aurre egitea</p> <p>4.3.- Nor bere buniaren estimua: 4.3.1.- Persona garrantzitsuek onartzen dituela sentitzea 4.3.2.- Ahalgaitza 4.3.3.- Berezien pertsonala 4.3.4.- Kontantza izatea norberaren gaitasunetan</p> <p>4.4.- Autonomia: 4.4.1.- Bizi proiektua 4.4.2.- Estrategiko izatea 4.4.3.- Arazoak konpontzea 4.4.4.- Erantzukizuna 4.4.5.- Erabak profesionalak hartzea 4.4.6.- Independentzia ekonomikoa 4.4.7.- Kuskera 4.4.8.- Ezagutza erakitzea 4.4.9.- Indagarritasuna 4.4.10.- Zintotasuna 4.4.11.- Hoberetako ebaluatzeko</p> <p>4.5.- Sentsibilitate estetikoa: 4.5.1.- Natura mirestea eta errespetatzea 4.5.2.- Ondarea mirestea eta errespetatzea 4.5.3.- Aniztasun arduratzea 4.5.4.- Arreaz gozatea 4.5.6.- Emozio estetikoak</p> <p>4.6.- Integrazio pertsonala: 4.6.1.- Gozatea 4.6.2.- Autoerrealizazioa 4.6.3.- Autonomia eta lanikidetz 4.6.4.- Garapen morala 4.6.5.- Transzendentzia 4.6.6.- Pentsamenduak, sentimenduak eta ekintzak integratzea</p>	<p>5.1.- Analisia: informazioa hartze eta gordetzea: 5.1.1.- Errealitate buntzko informazioa hartzea 5.1.2.- Errealitatea aztertzea eta uertzea 5.1.3.- Errealitatea eztabaidatzea</p> <p>5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea: 5.2.1.- Alternatibak planteatzea 5.2.2.- Alternatibak ebaluatzea 5.2.3.- Alternatiba egokiak aukeratzea</p> <p>5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzeko: 5.3.1.- Errealitate bat gauzatzeko konpromisoa hartzea 5.3.2.- Planifikatzea 5.3.3.- Ekitza 5.3.4.- Desbideratzeak jarraitzea eta zuzentzea</p> <p>5.4.- Ebaluazioa: eragina ebaluatzea: 5.4.1.- Egitndako ekitzen emaitze buntzko informazioa bilzea 5.4.2.- Aurreikusitako eta lortutako helburuak erakitea 5.4.3.- Aurreikusitako gabeko eraginak ebaluatzea 5.4.4.- Ondorioak ateratzea, aukerak planteatzea</p> <p>5.5.- Ekitte prozesuaren aplikazioa: 5.5.1.- Esparru pertsonalean- indibidualean ekitte 5.5.2.- Gizarte eta natura esparruan ekitte 5.5.3.- Hezkuntza eta autoekintza gabezei erantzutea 5.5.4.- Bokazioa 5.5.5.- Lan munduan sartzea 5.5.6.- Enpresa sortzea - Autoenplegua</p>







ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETZA SAIA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



*Ikastolen Elkartea*



**kristau**  
eskola



sortzen  
ikasbatuaz